

1. GIZA-GORPUTZA

Atal honetan giza gorputzari dagokion lexikoa biltzen dugu. Informazioa hobeto emateko atal hau ondoko era honetara banatuta aurkeztzen dugu: burua, ahoa, begia, belarria, sudurra, ilea, gorputza, besoak, hankak, errainak, azala, gurariak eta loa.

1.1. BURUA

bekokie: bekokia, kopeta

"Bueno abadeak edo elixakoak gordeten deude, jenteari emoteko, jenteari bekokien iteko" - (Beno abadeak edo elizakoak gordetzen dute, jendeari emateko, jendeari bekokian egiteko)

bigotea: bibotea

bixarra, bixerra: bizarra

"Bixarra etzean kentzeaurien, ori sera emonda, brotxeagas, jaboya, aregas" - (Bizarra etxean kentzen zuten, hori zera emanda, brotxarekin, xaboia, harekin)

burue: burua

"Orrek buruen nik estekoas oin" - (Horiek buruan nik ez dauzkat orain)

"Ori be txarra da kentzean, noberatik, ulea, sartzean batzu burure" - (Hori ere txarra da kentzen, norberetik, ilea, sartzen bazaizu burura)

"Danak no tekos buruen ba?" - (Denak nork dauzka buruan ba?)

eurpegie, arpegie, eurpie: aurpegia

"Nopera pe eurpi loi badeko esta itxure onekoa" - (Norberak ere aurpegia lohi badauka ez da itxura onekoa)

"Eurpegie garbitu txinbogas, gure amak beti atentziñoa geitzean sun, eurpegie euki sun oso fine, neu pe, txinboas garbitan dot, e?" - (Aurpegia garbitu txinborekin, gure amak beti atentzioa deitzen zuen, aurpegia eduki zuen oso fina, neuk ere, txinborekin garbitzen dut, e?)

idune: iduna, sama

"Iduneko mine deko" - (Iduneko mina dauka)

"Idune au danau, eta okospea emen" - (Iduna hau den hau, eta okospea hemen)

okospea: okospea, okotz-azpia

"Artu deu golpe bat okospean" - (Hartu du kolpe bat okospean)

okotza: okotza, kokotsa

konosimentue: konortea

"Enendun euki konosimenturik edo ser pase aten estakit eta" - (Ez nuen eduki konortetik edo zer pasatu zitzaidan ez dakit)

matralle: matraila

papue: masaila, papoa

samea: sama, eztarria

"Gero saman iminte otzien pañelutxu suritxu bet, ba amen estakin lotu defetorik, artes eroan dein burue" - (Gero saman ipintzen zioten zapitxo zuritxo bat, ba hamen ez dakion lotu akatsik, artez eroan dezan burua)

sena: sena, zentzua, konortea

sentidue: zentzua

sentzune: zentzua, sena

1.2. AHOA

adurre: adurra, lerdea

agine: hagina eta hortza; haginak eta hortzak ez dira bereizten.

"Etxakit nik iten yoken, e, aginekas ala minegas ori etxakit" - (Ez zakiat nik egiten duen, haginekin ala mihiarekin hori ez zakiat)

"Txarrien moduen dekos orrek aginek" - (Txerriaren moduan dauzka horrek haginak)

aginetako otza: hagnetako hotza, hagnetako ura; haginak kauskitzean sentitzen dena

aginkadea: haginkada, hozkada

agin txikerra: hagin txikerra, lehen haginak

agoa, aboa: ahoa

"Agoan be eukiten deure" - (Ahoan ere edukitzen dute)

"Agoa garbitako, egosi te garbitu, guk eiten gendun, aspaldien estu iten oin, komenentzie daules, esta? Dendatan baye, len eiten gendun sera, eta siketu, garbitu, eta siketu geispetan" - (Ahoa garbitzeko, egosi eta garbitu, guk egiten genuen, aspaldian ez dugu egiten orain, komenentzia dagoen legez, ezta? Dendetan baina, lehen egiten genuen zera, eta sikatu, garbitu, eta sikatu gerizpetan)

agoan serue: aho sabaia, aho zerua

alboagine: albo hagina

atzeko agine: atzeko hagina

barrea: barrea

"Nik ite nendusen barreak euron konture" -
(Nik egiten nituen barreak euron kontura)

barre faltzoa: barre falttua, behartuta, gogo
barik egiten den barrea

barre santzoa: barre zantzoa, barre algara
"Barre santzoa da saratea, barre iten dosu
ajaja! Sarata fuerteagas, barre santzoa,
orrek ite tus barre santzoak" - (Barre
zantzoa da zarata, barre egiten duzu ajaja!
Zarata indartsuarekin, barre zantzoa,
horrek egin ditu barre zantzoak)

bosa: boza, ahotsa

esneko agine: esneko hagina, umetan
lehenengoz irteten duten hortz-haginak

espana: ezpaina

eurreko agine: aurreko hagina

gustue: gustua

"Gustu txarra eukiten yedek orrek" - (Gustu
txarra edukitzen ditek horiek)

irribarrea: irribarrea

juisioko agine: juizioko hagina

"Juisioko aginek, orre tires atzerengo urtetan
derenak, da esan igual, juisioko agine
dekot urtetan, aitik ba laster badekosu
juisioa, apur bet formalaoa ixengo sara" -
(Juizioko haginak, horiek dira atzerengo
irteten dutenak, eta esan beharbada,
juizioko hagina daukat irteten, hagatik ba
laster badaukazu juizioa, apur bat
formalagoa izango zara)

kafe gustue: kafe gustua

mine, miñe: mihia

"Mine, samatik ebaiten da mine, ta mine ta
dana kanpora, ta gero samatik, e, ba estea,
deko samean aspitik, e, edo samean
seretik, estea, yatekoa sartzen deuna, ta a
iten da amarreu puntetxue, irobaleas edo,
eta a gero seretik, tripetik tiretu bea dako
esteak urten dein kanpora" - (Mihia,
samatik ebakitzen da mihia, eta mihia eta
dena kanpora, eta gero samatik, ba hestea,
dauka samaren azpitik, edo samaren
zeretik, hestea, jatekoa sartzen duena, eta
hura egiten da lotu puntatxoa,
firubalarekin edo, eta hura gero zeretik,
tripatik tiratu behar zaio hesteak irten
dezan kanpora)

minpekoa: mihipekoa, mihi-pirua

mosue: musua

"Selango mosuek! Eta selango ingeruek eta,
selango preguntek i ostesan" - (Zelako

musuak! Eta zelako inguruak eta, zelako
itaunak egin zizkidan)

musturre: muturra, musturra, ezpainak

"Garbitu ixu musturre" - (Garbi ezazu
musturra)

palea: aurreko hagina

surrutadea: zurrutada

trague: zurrutada

"Tragu bet ur artu ixu" - (Zurrutada bat ur
har ezazu)

txantxarra: txatxarra

"Txantxarrak yan dotzus bai, or dekosu agine
txantxarrak yanta, ori arregleu in bear da,
espabere yausi ingo yatzu" - (Txantxarrak
jan dizkizu bai, hor daukazu hagina
txatxarrak janda, hori konpondu egin
behar da, ezpabere jausi egingo zaizu)

txarri agine: txerri hagina, desbideratuta
irteten duen hagina

txue: txistua, txua

uye: oia, hobia

"Gurean, e, igual frute sati beteas mogidu
aputxu bet, e, uyek" - (Gurean, beharbada
fruta zati batekin mugitu apurtxo bat, oiak)

1.3. BEGIA

aitukunea, aitukunia: adikunea, begirakunea

"Orre pe aitukunia deko" - (Horrek ere
adikunea dauka)

begie: begia

"Alboan pareute, begiek urten bearrean areri
adi, selan iten deuden" - (Alboan paratuta,
begiak irten beharrean hari adi, zelan
egiten duten)

"Egun beten, ba, or egon gintzesan ta, ama
esaus ondo ta, estekot nik eser, bai orrek
begiok esaus ondo, esa yosten, ba imini
termometroa" - (Egun baten, ba, hor egon
ginen eta, ama ez zaude ondo eta, ez
daukat nik ezer, bai horiek begiok ez zaude
ondo, esan zidan, ba ipini termometroa)

begi epela: begi epela, begirakune tristekoari
esaten zaio

"Ori da gana txarra dekonean, edo ikusten
dosunean, oi selango begi epelak dekos, au
estau bape ondo" - (Hori da gogo txarra
daukanean, edo ikusten duzunean, oi
zelako begi epelak dauzka, hau ez dago bat
ere ondo)

begi lausoa: begi lausoa, begian egiten den lausoa

begi nabarra: begi nabarra

"Ori da begi nabarra, orre tekos katuen begiek" - (Hori da begi nabarra, horrek dauzka katuen begiak)

begi surie: begi zuria, begi urdin eta berde argiak izaten dira

betulea: betilea, bekaina

bisdea, bistera: ikusmena

"Orrek esteko bistera ona, esteu ikusten eser be" - (Horrek ez dauka ikusmen ona, ez du ikusten ezer ere)

bisgoa: betokerrera

errebiroa: betokerrera, begiak okertzea

"Orregas kontus, errebiroa da, aituten deu onantza ta bestera adi dau" - (Horrekin kontuz, betokerrera da, aditzen du honantz eta bestera adi dago)

katu begie: begi nabarra denaren gainean esaten da

"Olan nabarrak, katu begie tekos" - (Hala nabarrak, katu begiak dauzka)

lausoa: lausoa

negarra: negarra, negar anpulua, malkoa

"Aulerioa ixeten da, txakurren negarra les, negarra les, au-au!" - (Alarua izaten da, txakurraren negarra legez, negarra legez, au-au!)

negar anpulu: negar anpulua, negarra, malkoa

negar sotena: negar zotina, negar zizpurua, negar egikeran egiten diren hasperenak

pestaña: betulea, betilea

pistera: pizta

"Igual begiek, sertuten, negar iten dotzu, eta umea tekos, pistera tekos, egosi, ba, mantzanilea, itxi apur beten, epelduten eta guate bategas arek garbitu, pistera garbitu" - (Beharbada begiak, zertzen, negar egiten dizu, eta umeak dauzka, piztak dauzka, egosi, ba, kamamila, utzi apur baten, epeltzen eta guate batekin haiek garbitu, piztak garbitu)

sotena: zotina, negar zizpurua, negar egikeran egiten diren hasperenak

txistue: txistua, ziztua

"Urrumea ixeten da, ixete les, axea iten deuenan fuerte, ba iten deu bakixu selan iten deun txistu modulu, ta areri esaten tzu guk urrumea" - (Urruma izaten da, izate legez, haizea egiten duenean indar,

ba egiten du badakizu zelan egiten dien txistu modulu, eta hari esaten diogu guk urruma)

1.4. BELARRIA

arrakada suloa, arrakadan suloa: arrakada zuloa

"Arrakada suloa ba txikitxuten ite oskun" - (Arrakada zuloa ba txikitxotan egiten zigun)

"Ume bat yayo da, estotze in ondikarren arrakadan suloa" - (Ume bat jaio da, ez diote egin oraindikarren arrakadan zuloa)

astrapalea: astrapala

"Oi selango astrapale dan!" - (Oi zelako astrapala den!)

belarrie: belarria

"Belarrie da fasilen txarrieri ebaiten dakona" - (Belarria da errazen txerriari ebakitzen zaiona)

berbotza: berbotsa

durundue: durundua, burrunba

"Ori, nik pentzetan dot ixen sala, au durundue ekoa" - (Hori, nik pentsatzen dut izan zela, hau durundua, oihartzuna)

ekoa: oihartzuna

"Konteste iten tziela pentzeu baye nik pentzetan dot ori ekoa isten sala" - (Erantzun egiten ziotela pentsatu baina nik pentsatzen dut hori oihartzuna izaten zela)

girrintzea: girrintza, intziria

"Ageak eurek girrintze be in, e, axeagas ta ingeruegas da" - (Habeak eurek girrintza ere egin, haizearekin eta inguruarekin eta)

irrintzie: irrintzia

"Gero allegete sanean aste santue, eta, ba jentea orduen be, al ixueenak urten iteuen, esta? Ta txakolinek or onak, txakolinek, eta makalloa, eta orko santzoak eta orko irrintziek eta bueno!" - (Gero ailegatzen zenean aste-santua, eta, ba jentea orduan ere, ahal izan zuenak irten egiten zuen, ezta? Eta txakolinak hor onak, txakolinak, eta makailoa, eta horko zantzoak eta horko irrintziak eta beno!)

santzoa: zantzoa, irrintzia, algara

"Oi! semet barre ta semet santzo iten gendun!" - (Oi! zenbat barre eta zenbat zantzo egiten genuen!)

saratea: zarata

"Ayek saratea iteuren ibilkeran" - (Haiek zarata egiten zuten ibilkeran)

sokorrue: sokorrua, alarua, garrasia, oihua

txurumurrue: zurrumurrua

urrumea: urruma

"Oi selango urrumea ataten deun geur axeak, bentanak ixi in bea dire, selango urrumea dakarren!" - (Oi zelako urruma ateratzen duen gaur haizeak, leihoak itxi egin behar dira, zelako urruma dakarren!)

1.5. SUDURRA

arnasea: arnasa

"Orrek iten deu arnasea fuerte" - (Horrek egiten du arnasa indartsu)

"Estosu artzen ondo ta, iten dosu ba agoas arnasea artu, eta gero orduen iten dosu sarata giau" - (Ez duzu hartzen ondo eta, egiten duzu ba ahoarekin arnasa hartu, eta gero orduan egiten duzu zarata gehiago)

arnasestue: arnasestua

atza: hatsa, kiratsa

"Ingeruti botaten die, sapata sarrak erreta, sapata sarrak, abarkak, goma sarrak, sue, baltza in, atza dekona, ta eskapetan deurie" - (Ingurutik botatzen dira, zapata zaharrak erreta, zapata zaharrak, abarkak, goma zaharrak, sua, beltza egin, hatsa daukana, eta eskapatzen dute)

erre sundea: erre sunda

kaski sundea: gorpuen hatsaren gainean esaten da

"Bai kaski sundea bakixu seri esaten dotzen, osea, ilten da txakur bet, esta? Eta etxaten deure kuneta batera, ta pastan sara andik eta esaten du, ai! emen dau kaski sundea" - (Bai kaski sunda badakizu zeri esaten dioten, hau da, hiltzen da txakur bat, ezta? Eta botatzen dute karkaba batera, eta pasatzen zara handik eta esaten dugu, ai! hemen dago kaski sunda)

katu atza: katu hatsa

ollo atza: oilo hatsa, oilo sunda

sundea: sunda

surre: surra, sudurra

sursuloa: sudur zuloa

txakur atza: txakur hatsa

umedade sundea: heze sunda

"Selango umedade sundea dauen!" - (Zelako heze sunda dagoen!)

usine: usaina

"Usine botate seurien gosoa" - (Usaina botatzen zuten gozoa)

1.6. ILEA

bixarra, bixerra: bizarra, burukoa ez den ilea

buruko saye: buruko zahia

"Buruko saye da, kaspea esaten dakona oin" - (Buruko zahia da, "kaspa" esaten zaiona orain)

eskapidora: eskapidora, ilea batzeko erabiltzen zen tresna

"Eskapidor bat, orrasiek eukite guren euron ixena, sarratue ta eskapidora" - (Eskapidor bat, orraziek edukitzen zuten euron izena, zarratua eta eskapidora)

grinea: girna, sapa

"Orre tekos grinek, txarto orrastute badau" - (Horrek dauzka girnak, txarto orraztuta badago)

kaspea: zahia

kirrue: kirrua

metxea: metxa, kirtena; besteen neurrian ez dauden ile sapak

"Esteitus amarretan, dekos, metxak esteitus koiten amarreak, esin dakolako allegeu" - (Ez ditu amarratzen, dauzka, metxak ez ditu hartzen amarrak, ezin zaiolako ailegatu)

moñoa: moinoa, motoa

"Es geuria ixen salako baye moñoa ondo iminde, e?" - (Ez geurea izan zelako baina moinoa ondo ipinita, e?)

"Moñoa eroate gurien, moñoa, imite gurien pañelue, eta gero trentzak, da sertu, te arek trentzak ite situesan" - (Moinoa eroaten zuten, moinoa, ipintzen zuten zapia, eta gero txirikordak, eta zertu, eta txirikorda haiek egiten zituzten)

orrasie: orrazia

"Orrasie me mea, sera ixete san, meatz meatz bat" - (Orrazia mehe-mehea, zera izaten zen, mehatz-mehatz bat)

"Orrasiegas, ixete san orrasi bet sabala ta bestea istue, eta an pasetan guren ondo, eta an urteta yotzien, eta gero pañelue eroate gureles" - (Orraziarekin, izaten zen orrazi bat zabala eta bestea estua, eta han

pasatzen zuten ondo, eta han irteten zien, eta, gero zapia eroaten zuten legez)

orrasi ixie, orrasi sarratue: orrazi itxia

"Orrasi sarratue pasta yotzun, ta badau arean, arek atate situsen danak kanpora" - (Orrazi zerratua pasatzen zizun, eta badago arean, hark ateratzen zituen denak kanpora)

peinetea: orrazka

sapea: sapa, txima

saye: zahia

trentzea: ile txorta, ile mototsa, txirikorda

"Astean egun beten, ba arek trentzak dustiek solteu, eta barris trentzea in, eta ote san orrasi bet, ba ixi bet, eta pasta gurien ondo, ulea sertu dien bai, burue garbitu? Estakit nos" - (Astean egun baten, ba txirikorda haiek guztiak askatu, eta berriz txirikorda egin, eta egoten zen orrazi bat, ba itxi bat, eta pasatzen zuten ondo, ilea zertu dezan bai, burua garbitu? Ez dakit noiz)

"Nik neuk eroan dotes trentzak, eta gure amak koite yosten berna bien erdien, eta pasta yosten ori" - (Nik neuk eroan ditut txirikordak, eta gure amak hartzen ninduen berna bien erdian, eta pasatzen zidan hori)

txortea: txorta

ulea: ilea

"Gaxoak afeitetan edo ulea ebaiten ortan ba esetu dotas" - (Gaixoak bizarra egiten edo ilea ebakitzen horretan ba ezagutu ditut)

ule baltza: ile beltza

ule fine: ile fina, ile mengela

ule fuertea: ile indartsua

ulegorrie: ilegorria

ule grinea: ile girna, ile sapa

ule kirrue: ile kirrua

ule lodie: ile lodia

ule mengela: ile mengela

"Ule mengela da suabe ta ule gitxi deko, gitxi edo, fine, ule fine dekona bai" - (Ile mengela da suabe eta ile gutxi dauka, gutxi edo, fina, ile fina daukana bai)

ule metxea: ile metxa, ile kirtena

ule sapea: ile sapa

ule surie: ile zuria, ile urdina

ule txortea: ile txorta

"Ule txortea da, ixete les, ite osu amarra bat, eta leku beten itxiten dosus, ule sati betzuk, eta an iten dosu, ori txortea, txortea iten dosu bai, ori da txortea" - (Ile txorta da,

izate legez, egiten duzu amarra bat, eta leku baten uzten dituzu, ile zati batzuk, eta han egiten duzu, txorta hori, txorta egiten duzu bai, hori da txorta)

1.7. GORPUTZA

alboa: alboa, gorputzaren alboa

"Alboko mine deko, alboko mine in dako arin yoanta" - (Alboko mina dauka, alboko mina egin zaio arin joanda)

altzoa: altzoa

"Altzoan artute, erain te kanteu" - (Altzoan hartuta, eragin eta kantatu)

biskerra, biskarra: bizkarra

bularra, bulerra: 1. bularra, 2. bularra, titia

"Yaten, ba titie emoten otzien geyenak, eta orduen, e, beyen esnea, ureas nasteu, ta estekonak bularra, emoten dotzien ba, estakit senbet, megidute" - (Jaten, ba titia ematen zieten gehienek, eta orduan, behiaren esnean, urarekin nahastu, eta ez daukanak bularra, ematen zien ba, ez dakit zenbat, neurtuta)

"Angeru bet eta len esate gurien asko, senbet biderres entzun tzet gure amari? Fameli ixeteko ser batzuk, eta sertu da? Ba il dako, bularrrik es, yateko geuserik emoteko, es geurko moduen, daun moduen geusea, eta aman bularra ondo es, esnea ondo artu es, eta il" - (Aingeru bat eta lehen esaten zuten asko, zenbat biderrez entzun diot gure amari? Familia izateko zer batzuk, eta zertu da? ba hil zaio, bularrrik ez, jateko gauzarik emateko, ez gaurko moduan, dagoen moduan gauza, eta amaren bularra ondo ez, esnea ondo hartu ez, eta hil)

eperdie: ipurdia

"Orre tie, batzu tire, ba eperdis bajuaoak beste batzu paño" - (Horiek dira, batzuk dira, ba ipurdiz baxuagoak beste batzuk baino)

espaldea: lepoa, bizkarra

garrie: gerria

"Batzuk ibilte deure, adarrean, ure, t'an sartute, garrien amarreute kordel batas, ori adarrori, t'an ure" - (Batzuek erabiltzen dute, adarrean, ura, eta han sartuta, gerrian amarratuta kordel batekin, adar hori, eta han ura)

gorputze: gorputza

"Lelau igutzi, esta? Berotu, berotu gorputze piti bet lepoa" - (Lehenago igurtzi, ezta? Berotu, berotu gorputza apur bat lepoa)

kokota: kokotea

"Askoreas atarate yotxien kokotean iminteko lekue ta gero adarra sujetetako lekue formoyas" - (Aizkoarekin ateratzen ziotean kokotean ipintzeko lekua eta gero adarrari eusteko lekua formoiarekin)

"Emen, emen kokotean, emen iminieskero bai, ona da ori" - (Hemen, hemen kokotean, hemen ipiniz gero bai, ona da hori)

lepoa: lepoa

"Lelango berotu iten deu lepoa, berotu ba trapu beteas edo, pañu ser bateas, eta gero aek, koyu aspian, da froteu beste batek berari" - (Lehenengo berotu egiten du lepoa, berotu ba trapu batekin edo, ehun zer batekin, eta gero haiek, koiu azpian, eta igurtzi beste batek berari)

paparra: paparra

parteak: genitalak

"Parteak eta iteko estau txinbo langorik, bai, bai, eta, amak, gure, amak be bai, esta? Eta nik, koñatueri, koñatue dau, karneserue ta ba Loyukoa, ta esa netzen, koñateari esa netzen seaitik estokus garbitan, jabon txinboas, gure ama eride barik yoan san, jabon txinboas garbitute" - (Genitalak eta egiteko ez dago txinbo lakorik, bai, bai, eta, amak, gure, amak ere bai, ezta? Eta nik, koinatuari, koinatua dago, harakina eta ba Loiukoa, eta esan nion, koinatari esan nion zergatik ez dituzu garbitzen, txinbo xaboiarekin, gure ama zauri barik joan zen, txinbo xaboiarekin garbituta)

sile, sille: zila

"Sile be bai sile ona!" - Zila ere bai zila ona)
"Txarrien sile be bai, unteta san geuse askotarako, geuse askotarako useta san" - (Txerriaren zila ere bai, gantzutzen zen gauza askotarako, gauza askotarako erabiltzen zen)

soñe: soina

"Soñe da gorputze" - (Soina da gorputza)

sorbaldea: sorbalda

titie: titia

"Amak titie eukiten baseun titie bota" - (Amak titia edukitzen bazuen titia bota)

"Nire urrungo mutile, ak edango situsen amar enbran titie pe edango situsen, ta gure ama ba esan egoten ondo se bronkioak euki situsen bai, eta esan egoten ta ba, an biberoya ta olan ba! Sopa pe yan baye, titie bear, ta or añeagas or Galbartun euki gendun añeagas asten, eta etorrite etzera be bastarrak! Mutilekas ser san! A ser san!" - (Nire hurrengo mutila, hark edango zituen hamar andrazkoren titiak ere edango zituen, eta gure ama ba ez zen egoten ondo ze bronkioak eduki zituen bai, eta ez zen egoten eta ba, han biberoya eta hola ba! Zopak ere jan baina, titia behar, eta hor ainarekin hazten, eta etorrita etxera ere bazterrak! Mutilekin zer zen! Hura zer zen!)

tripea: tripa, sabela

"Bai orrek tripe bajuek, silleruek orre tire" - (Bai horiek tripa baxuak, sileroak horiek dira)

txepea: konkorra

1.8. BESOAK

atzamarra: atzamarra

"Tripen asten dan lekuen dekie suloa, atzamarra sartzen da, nire atzamarrak bie pe igual" - (Tripan hasten den lekuan daukate zuloa, atzamarra sartzen da, nire atzamarrak biak ere beharbada)

"Bai gero arrara emoten espaeuen, gero atzamarragas, atzamarrakas gero bitartean, lelango arrak bota, ta gero porejenplo, emen lotzea san arrea, ta ordun" - (Bai gero arrara ematen ez bazuen, gero atzamarrarekin, atzamarrekin gero bitartean, lehenengo arrak bota, eta gero esaterako, hemen lotzen zen arra, eta orduan)

atzamarratako juntea: atzamarretako junta

atzasala: atzazala

besapea: besapea

besarte: besarte

besoa: besoa

"Min be tekosunean, esate les, besoan, dekosu mine, esta? Baye esta min fuertea, sor, sor, sor" - (Min bat daukazunean, esate legez, besoan, daukazu mina, ezta? Baina ez da min handia, sor, sor, sor)

eskerra: ezkerra

"An goiko elixa kontran, goasela eskerretara mojan orma kontran" - (Han goiko eliza kontran, goazela ezkerretara mojen horma kontran)

eskoya: eskoa, eskoia, eskuma

"A bai! Eskerra ta eskoya, eskoya eskerrean iminten baosu esin deu bear ondo in" - (A bai! Ezkerra eta eskoia, eskoia ezkerrean ipintzen baduzu ezin du behar ondo egin)

esku albo: esku albo

eskuarte: esku-arte

esku barrue: esku barrua

eskubitorra: eskuturra

eskue: eskua

"Buelta emonta isterretik oratute, ta gero, amamak esaten yoan, e, eskue baisen suabe, esnea edaten deuela subeak eta beyek orroaka subeari geyes, basoan" - (Buelta eman izterretik oratuta, eta gero, amamak esaten zian, eskua baizen suabea, esnea edaten duela sugeak eta behiak orroka sugeari deiez, basoan)

esku ganea: esku gaina

"Bai, ori esate gurien, emen egon san, e, Derion ortxe, Artebakarreko seme bat, serak, sapatak arregleta situsena, eta arek euki situsen esku ganek danak" - (Bai, hori esaten zuten, hemen egon zen, Derion hortxe, Artebakarreko seme bat, zerak, zapatak konpontzen zituena, eta hark eduki zituen esku gainak denak)

juntea: junta

ukondoa, ukundoa: ukondoa

ukubile: ukabila

"Ukubile iminte deko, emongo tzu, e?" - (Ukabila ipinita dauka, emango dizu, e?)

"Orrek ukubile iminte dekotzu emongo tzu musturretan" - (Horrek ukabila ipinita daukazu emango dizu musturretan)

1.9. HANKAK

ankapea, ankaspie: 1. hankapea, zankapea. 2. oinazpia

anke: hanka, zangoa

"Anka baten ganean, ba arrie eurretik dala, ta igual arriek eskapeu te gero galdu" - (Hanka baten ganean, ba harria aurretik dela, eta beharbada harriak eskapatu eta gero galdu)

belune: belauna

"Nire belunetara sera arteako suloa, ta lelango gurtada bi, ordun, a, gurtada txikerrak, basoan koite ekarri ite sien ta" - (Nire belaunetara zera arterako zuloa, eta lehenengo gurtada bi, orduan, gurtada txikerrak, basoan hartuta ekarri egiten ziren eta)

belun ganea: belaun gaina

belunpea: belaunpea

bernea: berna

"Bai, e, oin lar lar enabil oin bernatati te!" - (Bai, orain lar lar ez nabil orain bernetatik eta!)

biatza: behatza

isterra: izterra

"Ene! Onek se iten deu amen? Sorgine ixen seguru! Eta, jo iten deu te, isterra apurtu tzo, eta urreo egunean bestea, ba, ori isterra apurtute, sorginek" - (Ene! Honek zer egiten du hemen? Sorgina izan ziur! Eta, jo egiten du eta, izterra apurtu dio, eta hurrengo egunean bestea, ba, hori izterra apurtuta, sorginak)

kadera aspie: oinazpia

kaderea: 1. oina, animaliena eta gauzena ere izan daiteke. 2. mokorra

"Aurreko kaderatatik ite akon" - (Aurreko hanketatik egiten zitzaion)

"Ba, ondo! ondo, ondo! kaderea mogidu esin egon nitzen, eta i yostesan, e, sinte bategas, imini, ta min dekoten lekuen kurtzea olan aregas sinteas, orrantza ta onantz, kurtzea in ta berak ixilean, errese edo seuse berba esan an, ta gero areri sinteari, orros ba paseu, iru bider edo estai senbet, ba, ser barik" - (Ba, ondo! ondo, ondo! hanka mugitu ezin egon nintzen, eta egin zizkidan, zinta batekin, ipini, eta min daukadan lekuan gurutzea hola zinta harekin, horrantz eta honantz, gurutzea egin eta berak isilean, errezzatu edo zer edo zer berba edan han, eta gero zinta hari, orratz bat pasatu, hiru bider edo ez dakit zenbat, ba, zer barik)

"Kojorik, kadera bat goyen eta bestea bean, ta saltuke saltuke" - (Kojorik hanka bat goian eta bestea behean, eta saltoka-saltoka)

orkatillea: orkatila

orpoa: orpoa

pausue: urratsa, pausua

"Nagitu in dako pausue, ori len ajil yoate san, baye oin esin da" - (Nagitu egin zaio urratsa, hori lehen bizkor joaten zen, baina orain ezin da)

pausu nagie: urrats nagia, geldoa, zaharren ibilkunearen gainean esaten da

trankue: trankoa

"Iru trankuten allege da ori" - (Hiru trankotan ailegatu da hori)

"Su orra soasen artean, au an dau, orre tekosen tranku luseakas" - (Zu horra zoazen artean, hau han dago, horrek dauzkan tranko luzeekin)

saltue: saltoa, jauzia

"Senbet saltu in dun or!" - (Zenbat salto egin dugun hor!)

txanke: txanka, bernaren atzea

1.10. ERRAINAK

asurre: hezurra

"Ori asurretakoa da" - (Hori hezurretakoa da)

"Orrek esteko asurre baño" - (Horrek ez dauka hezurra baino)

beastune: behaztuna, behazuna

biosturie: bihozturi; urdailaren gorengo aldea

biotza: bihotza

birikie: birikia

biskerrasurre: bizkar hezurra

brankioa: brankioa

estea: hestea

"Gero datos serak esteak, ta gero datos koipeak be bai" - (Gero datoz zerak hesteak, eta gero datoz koipeak ere bai)

"Gero ba nik, e, gibela, ta gero esteak" - (Gero ba nik, gibela, eta gero hesteak)

estegorrie: hestegorria

este lodie: heste lodia

"Orras esteas, este lodias ite san" - (Heste horrekin, heste lodiarekin egiten zen)

este mea: heste mehea

estomague, estamangue: urdaila

"Estomague es baye ote san, e, ba sera, este bat lodi lodie, t'a bai a esetu dot betetan" - (Urdaila ez baina egoten zen, ba zera, heste bat lodi-lodia, eta hura bai hura ezagutu dut betetzen)

garnue: gernua

garunek: garunak, muinak

gibela: gibela

"Lelau in bea da otzitu, ta gero ba gibela yan" - (Lehenago egin behar da hoztu, eta gero ba gibela jan)

"Kister bat kendu ostien, txarriek bakixu selan dekien gibelean? Ataikoa" - (Kiste bat kendu zidaten, txerriek badakizu zelan daukaten gibelean? Haietarikoa)

gorgolle: gorgoila

iduneko asurre: iduneko hezurra

"Iduneko asurre bai, emekoa, atzeko asurre bai" - (Iduneko hezurra bai, hemengoa, atzeko hezurra bai)

kaka: kaka

kokotako asurre: kokoteko hezurra

kuntzurrun: guntzurruna, kuntzurruna

odola: odola

"Klaro orrek odola lotzen tzien, oin, e, oin iminten dan moduen ba edosein eride iten bosu ba papeltxu bet imiñi" - (Jakina horrek odola lotzen zioten, orain, orain ipintzen den moduan ba edozein zauri egiten baduzu ba papertxo bat ipini)

"Ori be, odola sirkuletako esate seuren" - (Hori ere, odola zirkulatzeko esaten zuten)

"Se i osten, odola lotzeako, aregas, aregas lotu" - (Zer egin zidan, odola lotzeko, harekin, harekin lotu)

partoa: erditzea

"Geuetan da altzeu, ya partoa badator espadator, ta batzuk igual bakarrik be igual iten deure, e? Partoa, ondo etorrite, ta beste batzuri asko kosteu, iten" - (Gauetan eta altxatu, ja erditzea badator ez badator, eta batzuek beharbada bakarrik ere beharbada egiten dute, e? Erditzea, ondo etorrita, eta beste batzuei asko kostatu, egiten)

pulmoya: biria, birikia

puxikea: puxika

sana: zaina

"Or iten tzie koyu, ta sana apurtu, biortu eta sanak apurtu" - (Hor egiten diote hartu, eta zaina apurtu, bihurtu eta zainak apurtu)

"An ego nintzen denpora dustien, egun dustietan odola ataten, ya odol barik lotu nintzen kasik, siketute sanak ya" - (Han egon nintzen denbora guztian, egun guztietan odola ateratzen, ja odol barik lotu nintzen kasik, sikatuta zainak ja)

sayetza: saihetsa

"Olango katarroa ta dekosunian sarra, olan, e, sayetzetatik pregasinoak emon, a, asunekas" - (Holako katarroa eta daukazunean zaharra, hola, saihetsetatik plegazioa eman, asunekin)

sayetzasurre: saihets hezurra

taupadea: taupada

"Taupada andie iten dotzo" - (Taupada handia egiten dio)

txixe: txiza

"Egunero atate situsen satzak, klaro gero eukin gendun, orduen euki gendun gorrea, ba sementoas iminte, txixentzat, ba kanala inte" - (Egunero ateratzen zituen satsak, jakina gero eduki genuen, orduan eduki genuen korta, ba porlanarekin ipinita, txixentzat, ba kanala eginda)

"Ganaduen txixek aprobetxeta sien" - (Ganaduen txizak aprobetxatzen ziren)

1.11. AZALA

anditue: handitua

arraskadea: urratada

asala: azala

"Asala altzeute, askok eukiteuen, guk estu eukin iños be, makine bat, e, bear ein du" - (Azala altxatuta, askok edukitzen zuen, guk ez dugu eduki inoiz ere, makina bat, behar egin dugu)

askordine: azkordina

"Askordine pe dires atzamarratan" - (Azkordinak ere dira atzamarretan)

"Guk askordinek esaten dotzu danari" - (Guk azkordinak esaten diegu denei)

askuria: hazkura

"Orrek askuria emoten deu itzela" - (Horrek hazkura ematen du itzela)

baltzunea: beltzunea

"Baltzunea deko ingeru dustien golpeagas" - (Beltzunea dauka inguru guztian kolpearekin)

begitxindorra: begitxindorra

"Geu pe atxine eukiten gendusen txikiten, oin estire entzun be iten begitxindorrak" - (Geuk ere antzina edukitzen genituen txikitan orain ez dira entzun ere egiten begitxindorrak)

"Begotxindorra kentzeako, dauenik onena, kinpullea, gorrie, imini begien, amarreute"

- (Begotxindorra kentzeko, dagoenik onena, kipula, gorria, ipini begian, lotuta)

berdeskine, berdatxea, berdeskea: azalaren kolore iluna, beltzingoa

"Oi! berdeskine da ori, berdeskine esaten dotzu morenea danari" - (Oi! Berdexkina da hori, berdexkina esaten diogu beltzarana denari)

"Berdeskea, ba tapeko da baye orreri kolorea estako kanbietan!" - (Berdexka, ba tapatuko da baina horri kolorea ez zaio aldatzen!)

bultue: handitua

"Orreri ensegida batzuk igerte otzie, alderdi beten, eskerreko alderdien, igerten dako eskerreko alderdien deko, beyek umea, eskerrekoa da, eskoikoa da yana, estamangue, eskoako alderdie, ta eskerrekoa da, umeana, ta a umea topetan dako, bultutxue topetan akon, an sakatute bultutxue" - (Horri behingoan batzuek igartzen diote, alderdi baten, ezkerreko alderdian, igartzen zaio ezkerreko alderdian dauka, behiak umea, ezkerrekoa da, eskoikoa da jana, urdaila, eskoiko alderdian eta ezkerrekoa da, umearena, eta ume hura topatzen zaio, handituxoa topatzen zitzaion, han sakatuta handituxoa)

ebaye, epaye: ebakia

eratzie: urratua

eridea: zauria

"Ori da, edo igual ingo tzo adarratan min igual, eridea" - (Hori da, edo beharbada egingo dio adarretan min beharbada, zauria)

"Eridetako onena ur epela" - (Zaurietarako onena ur epela)

garie: garia, garatxa

"Atxine seraas iminte sien, e, firueas amarreu, gari anditxue eukiten basendun firu betas amarreu eta arek solteu in arte" - (Antzina zerarekin ipintzen ziren, firuarekin amarratu, gari handituxoa edukitzen bazenuen firu batekin amarratu eta haiek askatu egin arte)

"Gariak, e, nik euki doas, esta? Baye Mugien, Mugiera yoa nintzen an, onek garuek eta gusti kentzen deitusena dau, baye estait segas ite otzien, gariak" - (Gariak, nik eduki ditut, ezta? Baina Mungian, Mungiara joan nintzen han, garau hauek

eta guzti kentzen dituen dago, baina ez dakit zerekin egiten zien, gariak)

garue: azalaren garaua

"Emen alderdien garu betek urte yosten, eta, ba sertu sanean, errementeu euenean, pusek emeti bera urteta osten, baye ori gora bera enintzen yoan medikuena, kure san ta kitu, baye gero, ontxe gabonatan paseko sien urteak ba, igual, e, semet esango tzu pa? Bost urte, es, bai giau giau, bost urte baño giau" - (Hemen alderdian garau batek irten zidan, eta, ba zertu zenean, errementatu zuenean, materiak hemendik behera irteten zidan, baina hori gora behera ez nintzen joan medikuagana, osatu zen eta kito, baina gero, oraintxe gabonetan pasatuko ziren urteak ba, beharbada, zenbat esango dizut ba? Bost urte, ez, bai gehiago-gehiago, bost urte baino gehiago)

gatxa: materia, zornea

"Bai gatxa da ta ademas esaten deure ondo atara bea dala sustraye, e? Se espabere atzera errepetitan deu" - (Bai gaitza da eta gainera esaten dute ondo atera behar dela sustraia, e? Ze ezpabere atzera errepikatzen du)

gorriunea: gorriunea

intzebagie, itzebagie: intzebagia, eskuetan egiten diren zauri txikerrak

"Bai intzebagi esate san, orduen esate sien" - (Bai intzebagi esaten zen, orduan esaten ziren)

"Itzebagie tires eridek iten yatzus, eta gero arek, e, askordinek les sabaldu" - (Intzebagiak dira zauriak egiten zaizkizu, eta gero haiek, azkordinak legez zabaldu)

ixerdie: izerdia

"Ori be, kataplastmakas ta osatu san, baye, sera, ixerdie ta ataten tzu" - (Hori ere, kataplastmekin eta osatu zen, baina, zera, izerdia eta ateratzen dizu)

"Bero andie ta ixerdie, ta ganera bear in bear lodi, arek yoteko bear in bear ixete san" - (Bero handia eta izerdia, eta gainera behar egin behar lodi, haiek jotzeko behar egin behar izaten zen)

kallue: kailua

mamine: mamia, haragia

"Ba maminera, a ebei in bea da sartu estiten maminera, lar sakonera sartu" - (Ba

mamira, hura ebaki egin behar da sartu ez dadin mamira, lar sakonera sartu)

markea: orbaina

materie: materia, zornea

"An umetokien barruen dau ori ume ori ta materie an partoan iten da apurtu" - (Han umetokiaren barruan dago ume hori eta materia han erditzea egiten da apurtu)

"Iten yako, ba, anditu te materie, bertan, eta kendu in bea dakos orreri arrakadak" - (Egiten zaio, ba, handitu eta materia, bertan, eta kendu egin behar zaizkio horri arrakadak)

odol batue: odol batua

pekea: peka, orezta

pikorra: hazkura

piltxikadea: piltxikada, zimikoa

"Piltxike in dotzet eta in dotzet min, e?" - (Piltxika egin diot eta egin diot min, e?)

postillea, pustillea: pustila, orbaina

saldarra: zaldarra

"Kinpuleana ixete san giau, saldar bat? Urtetan batzun, orduen saldarran ganean imini te arek, arek iten deu eldu, len baño len" - (Kipularena izaten zen gehiago, zaldar bat? Irteten bazizun, orduan zaldarraren ganean ipini eta hark, hark egiten du heldu, lehen baino lehen)

"Saldarrantza pe, imini, ondo eldu bari taola, e? Ondo eldu bari taola, ta elduten apur bet asten bada, urrungo egunean kendute dekosu, imini, orri bet, kinpulle gorriena, origotan, e, sertute, tapeute imini, ta urrungo egunean, e" - (Zaldarrentzat ere, ipini, ondo heldu barik dagoela, e? Ondo heldu barik dagoela, eta heltzen apur bat hasten bada, hurrengo egunean kenduta daukazu, ipini, orri bat, kipula gorriarena, oliotan, zertuta, tapatuta ipini, eta hurrengo egunean)

saurie: zauri; hauek zauri txikiak izaten dira, esaterako ohean luzaro egonda ostean egiten direnak

"Sauritxuek iten dies" - (Zauritxoak egiten dira)

"Bai bai saurie esaten da" - (Bai bai zauria esaten da)

"Baye gure amak esun euki sauririk" - (Baina gure amak ez zuen eduki zauririk)

tunturre: tunturra, konkorra, handitua

"Tunturre da ixete les, orre deko tunturre, bultu bet eukite les, an urtetan dotzunean

ori da tunturre" - (Tunturra da izate legez, horrek dauka tunturra, handitu bat edukitze legez, han irteten dizunean hori da tunturra)

txatxamarkadea, **txatxamurkedeia,**

txitximirkadea: txatxamarkada, urratua

tximurre: tximurra

ur batue: ur batua

"Igual golpe bat artuten dosu, te urtetan dotzu ba ser batek, e, ur batue esaten dako, ure iten yatzu an" - (Beharbada kolpe bat hartzen duzu, eta irteten dizu ba zer batek, ur batua esaten zaio, ura egiten zaizu han)

urdine: azalaren kolore zurbila

"Urdine tires batzuk" - (Urdinak dira batzuk)

"Emon es, baye, manga luseak, eta mediek, eta dusti tapeute, se klaro on san modan, uin playara yoanta morena paretea da modea, baye ordun urdin otea, urdin egotea san enbra galanta" - (Eman ez, baina, mahuka luzeak, eta galtzerdiak, eta guzti tapatuta, ze jakina egon zen modan, orain hondartzara joanda beltzarana paratzea da moda, baina orduan urdin egotea, urdin egotea zen andrazko galanta)

"Urdin otea? Baltza ixen estea, baltza estau urdin iños, a teko abixeri kolorea, es suri es baltz" - (Urdina egotea? Beltza ez izatea, beltza ez dago urdin inoiz, hark dauka abizari kolorea, ez zuri ez beltz)

urrutue: urratua, txatxamarkada

1.12. GURARIAK

egarrie: egarria

gomitu larrie: bota larria, gomita larria

gosea: gosea

"Egun bi te iru te yan barik egon ta ba gosea ta yaki neun non daon ta laguneri esa neuntzen" - (Egun bi eta hiru eta jan barik egon eta ba gosea jakin nuen non dagoen eta lagunari esan nion)

kaka larrie: kaka larria

logurea: logura

"Logureas ilte nau" - (Logurarekin hilda nago)

"Logureaiti pe bai, begiek kanbietan dakos, bai" - (Loguragatik be bai, begiak aldatzen zaizkio)

txixe larrie: txiza larria

1.13. LOA

amesetea: ameseta, ametsa

arrausie, arrosie: aharrausia

beskalostekoa: bazkalostekoa, biaoa

kukulue: lo kukua, lo matua, lo taukia

"Kukulue tekos, kukulue, apur bet in deu te gero biskortuten da" - (Lo kukuak dauzka, lo kukua, apur bat egin du eta gero bizkortzen da)

loa: loa

"Bai iten dosu igual edo lo gitxi edo esaus gusture, eta gero asarratute" - (Ba egiten duzu beharbada edo lo gutxi edo ez zaude gustura, eta gero haserretuta)

lo ariñe: lo arina

lo kukue: lo kukua, lo matua, lo taukia

lo ostea: lo ostea, lo haserrea

"Orre teko lo oste txarra, esaten dana, lo iten dosu, te gero umore txarragas altzetan sara" - (Horrek dauka lo oste txarra, esaten dena, lo egiten duzu, eta gero umore txarrarekin altxatzen zara)

lo surrune: zurruna

sieste: biaoa, bazkalostekoa

"Soas etzera eta eixu sieste bota" - (Zoaz etxera eta egizu bazkalostekoa)

surrunke: zurrunka

2. OSASUNA

Atal honetan osasunarekin erlazionatuko berbak aurkezten ditugu. Atala lau azpiataletan banatu dugu, gaixoak, sintomak, erremedioak eta kolpeak.

2.1. GAI XOAK

anjine: angina

berantzekoa: beherantzekoa, beherazkoa

"Nire gixonan, e, anaje bat il san olan, berantzekoagas bai, se antza, ba, amak, eukin seun, ba, bija bat, bularra emote yotzon, ta bular asko eukite gun, ta euki seun bija bat, eta or bija orretan, yoan bear ixen seun Bitorirartean, ta gero etor sanean, ba antza euki seun bularra ta dusti emo yotzon, sartu yakon umeari

berantzeko bat, t'aregas yoan san" - (Nire gizonaren, anaia bat hil zen hola, beherantzekoarekin bai, ze antza, ba, amak, eduki zuen, ba bidaia bat, bularra ematen zion, eta bular asko edukitzen zuen, eta eduki zuen bidaia bat, eta hor bidaia horretan, joan behar izan zuen Gasteizeraino, eta gero etorri zenean, ba antza eduki zuen bularra eta guztia eman zion, sartu zitzaion umeari beherantzeko bat, eta harekin joan zen)

biosturikoa: bihozturikoa

biotzekoa: bihotzekoa, bihotzeko gaixoa

"Gure aite il san biotzekoas" - (Gure aita hil zen bihotzekoarekin)

bixiena: biziena, minbizia

bixigoa: bizioa. Bizioak kentzeko ona ei da kalabaza hazia jatea.

"Bixigoa tekosus ta imin bea datzu berakatza" - (Bizioak dauzkazu eta ipini behar zaizu berakatza)

bulerrekoa: bularretakoa, alborengoa

"Ordun bulerrekoa esate san, oin esaten da pulmonie" - (Orduan bularrekoa esaten zen, orain esaten da alborengoa)

"Ama defunteak selan imite oskun, e, olan, e, kalentureas edo bagaus, badaespadan, e, bulerrekoa edo seuser" - (Ama defuntuak zelan ipintzen zigun, hola, kalenturarekin edo bagaude, badaezpadan, bularrekoa edo zer edo zer)

bulerreko geixoa: bularretakoa, alborengoa

"Ordun asko ilte san, bulerreko geixoagas" - (Orduan asko hiltzen zen, bularreko gaixoarekin)

elgorrie: elgorria

enpatxue: enpatxua

gaixoa, gaxoa, geixoa: gaixoa

"Beterenariora etorri te indisinoak emon sanetik, ori ebeitoko ori geixo ori" - (Albaitaria etorri eta injekzioak eman zainetik, hori ebakitzeke gaixo hori)

garnuko gaxoa: gernuko gaixoa

gibelekoa: gibealekoa

gibeleko gaxoa: gibealeko gaixoa

gripea: gripea

katarroa: katarroa

"Katarroa kentzeako, nierzako sikan estau obeaurik geubian artu, egosi, ori be ba garbitu eta eukin, ortxe dau, e, arbolea, eta koyu erramea, edo goixetan, e, katarroa, bart, e, estul asko in dot, koyu, egosi eta

artu" - (Katarroa kentzeko, nirezako behintzat ez dago hoberik gauean hartu, egosi, hori ere ba garbitu eta eduki, hortxe dago, arbola, eta koiu adarra, edo goixetan, katarroa, bart, estul asko egin dut, koiu, egosi eta hartu)

"Se esango tzu pa? Kasureko katarro bat nai geuse bat koyu, bularrean, eta imite san ortaiko sera talaburni beten, berotute, eta imite san gatzas, ondo nasteute, eta gero imite san ondo, seinde, trapu beteas edo ondo koyute da bularrean iminiteko" - (Zer esango dizut ba? Kasurako katarro bat nahi gauza bat koiu, bularrean, eta ipintzen zen horietariko zera talo-burdina baten, berotuta, eta ipintzen zen gatzarekin, ondo nahastuta, eta gero ipintzen zen ondo, zeinda, trapu batekin edo ondo koiuta eta bularrean ipintzeko)

kokaldea: kokalda

"A! Kokaldak, bai, entzun doas, neuk estait estoas iños euki te, esta? Baye kokaldak bai entzun doas" - (A! Kokaldak, bai, entzun ditut, neuk ez dakit ez ditut inoiz eduki eta, ezta? Baina kokaldak bai entzun ditut)

"Kokaldak baye, nik pentzetan dot kokaldak, e, ixengo diela anjinek, emen, e, olan bolak urtetan deure, ondiño, ontxe amabostan bat egun neuk euki doas, iños estoas euki, eta ser disan be estot yakin baye oin yakin doas" - (Kokaldak baina, nik pentsatzen dut kokaldak, izango direla anginak, hemen, hola boleak irteten dute, oraindino, oraintxe hamabosten bat egun neuk eduki ditut, inoiz ez ditut eduki, eta zer diren ere ez dut jakin baina orain jakin ditut)

korrontzie: korrontzia, beherakoa

"Estie dana, lar yan, ta korrontzie" - (Eztia dena, lar jan, eta korrontzia)

"Tripetatik, ba, ajil dabilenari, ori da korrontzi bet" - (Tripetatik, ba, bizkor dabilenari, hori da korrontzi bat)

osasune: osasuna

"Orrek osasun ona yekiek" - (Horiek osasun ona zaukatek)

perlesie: perlesia

pulmonie: pulmonia, alborengoa

"Ba dekosunean pulmonie edo, olan, e, katarroa, kalenturea edo olan eukineskoan, orren ure artu ixu, egosite" - (Ba daukazunean alborengoa edo, hola,

katarroa, kalentura edo hola edukiz gero, horren ura har ezazu, egosita)

"Pulmoniegas, asko ilte san orduen" - (Alborengoarekin, asko hiltzen zen orduan)

tirisie: ikterizia, min horia, tirizia, laruen

"Ori tirisie da, argal, yan es, eta bellegitute, oin esaten da, gibela deko txarto, esta? Baye orduen esate san, orrek tirisie deko, ikusten dosu selango kolore dekosun?" - (Tirizia hori da, argal, jan ez, eta beilegituta, orain esaten da, gibela dauka txarto, ezta? Baina orduan esaten zen, horrek tirizia dauka, ikusten duzu zelako kolore daukazu?)

"Emen egon san mutil bet, ama alargune, il saken, da akortanas, ba, yoate siren, piñudi bet erosi gurien or Lesamako batzuk eta, piñudien, gero sospelak, eta sospelak saltzen yoate siren orduko denporatan, da, Bilbora, eta guk esaten gendun, aitu an dakardie! Ba Andresek eta orrek, kamioyan goyen sospelakas, egon san bellegi, tirisie deko, bellegitute ta argaldute totalmente, ba ta esaten deure, ori da gibealekoa" - (Hemen egon zen mutil bat, ama alarguna, hil zitzaien, eta gomutatzen naiz, ba, joaten ziren, pinudi bat erosi zuten hor Lezamako batzuek eta, pinudian, gero zozpalak, eta zozpalak saltzen joaten ziren orduko denboran, eta, Bilbora, eta guk esaten genuen, aditu han dakarte! Ba Andresek eta horiek, kamioiaren goian zozpalekin, egon zen beilegi, tirizia dauka, beilegituta eta argalduta guztiz, ba eta esaten dute, hori da gibealekoa)

umorea: umorea, erreuma

"Umorea deko, alboko mine, edo beluneko mine, orrek deko umore bat! Umorea tekos bai" - (Umorea dauka, alboko mina, edo belauneko mina, horrek dauka umore bat! Umoreak dauzka bai)

2.2. SINTOMAK

aldikedea: aldikada

antojue: antojua, nazka

arnasestue: arnasestua

biorkadea: bihurkada

"Olan biorkada bat edo inekoan, yoate sien sanatenes eiten" - (Hala bihurkada bat edo

eginez gero, joaten ziren zain tiratua egiten)

"Biorkada bat iten bosu, orduen, e, medikuek, e, titulubakoak on sien, baye batzuk balienteak, danak es, baye batzuk balienteak, etzera etorte san, imini kaderea, eiteusen, e, onek, e, iladillo, baltza, amantala, amantalean daonas, e? Iladillo baltza, aras in kurtzea, santiatu sana urrutu sana sartu, eite seun te erreseu, baye erreseu aldrebes kredoa, e? Atzekos eurrera, kredoa atzes, erreseu, ta, gero sanbedarra taus, bi, klase bi, bata da sabala, ta bestea da lusea, ta a lusea morroskoari, ta sabala enbreari, origotan epeldu, origo epelas, ta a imini te amarreu te, iru egunean inesko, kureute ote san" - (Bihurkada bat egiten baduzu, orduan, medikuak, titulu bakoak egon ziren, baina batzuk baliokoak, denak ez, baina batzuk baliokoak, etxera etortzen zen, ipini oina, egiten zituen, hauek, zinta, beltza, amantala, amantalean dagoenarekin, e? Zinta beltza, harekin egin gurutzeta, zain tiratu zaina urratu zaina sartu, egiten zuen eta errezatu, baina errezatu alderantziz kredoa, e? Atzekoz aurrera, kredoa atzez, errezatu, eta, gero zain belarrak daude, bi, mota bi, bata da zabala, eta bestea da luzea, eta luze hura morroskoari, eta zabala andrazkoari, oliotan epeldu, olio epelarekin, eta hura ipini eta lotu eta, hiru egunean eginez gero, osatuta egoten zen)

damistikue: doministikua

dardakadea: dardakada

dolorea: mina, pena

"Eperdiko mineas yoa nintzen ara, aguante ixinik doloreak eta" - (Ipurdiko minarekin joan nintzen hara, eutsi ezinik minekin eta)

"Neure bixien estot dolore andiaorik paseu emetik belarritik baño, eta domekea ixen san, ta an gure neskatoagana" - (Neure bizitzan ez dut min handiagorik pasatu hemendik belarritik baino, eta domeka izan zen, eta han gure neskatoagana)

erasoa: eraso

"Eraso ba ta ser txar bat eukitea" - (Eraso bat da zer txar bat edukitzea)

estule: eztula

"Bai ori kukurruku estule esaten da, sarriten iten dosunean estul te estul" - (Bai hori

kukurruku eztula esaten da, sarritan egiten duzunean eztul eta eztul)

gana txarra: gogo txarra, gorputzaldi txarra

"Ba san juan goixean batu, eta garbitu te imite itusen sikitan, baye es euskiten, e, geispetan, ta gero urte gustireko, sartze itusen fraskoatan, edo oin, e, plastikuetan eukiten dot neu pe, or atzean dekot, an plastikuen sartzen dot sikitan danean eta, dekosunean, a, edo gana txarra dekot eta estait, estot katarroa kendu eta, pulmoni bedarrak" - (Ba san juan goizean batu, eta garbitu eta ipintzen zituen sikitzen, baina ez eguzkitan, gerizpetan, eta gero urte guztirako, sartzen zituen poteetan, edo orain, plastikoetan edukitzen dut neuk ere, hor atzean daukat, han plastikoan sartzen dut sikitzen denean eta, daukazunean, edo gogo txarra daukat eta ez dakit, ez dut katarroa kendu eta, pulmonia belarrak)

"Asunekas, e, asunek olan gana txarraas sarri! Onen amak niri emon dostes sarri, olan gana txarra eukin!" - (Asunekin, asunak hola gogo txarrarekin sarri! Honen amak niri eman dizkit sarri, hola gogo txarra eduki!)

ganea: gorputzaldia

gatxa: gaitza, gaixoa, zaurietako materia

"Orrek, e, sera eukiten deure, euren sera, euren gatxa, euren sera, inderra an barruen, puntetatik iten batzue ori esteko, baye sakonaotik iten badotzo badeko" - (Horiek, zera edukitzen dute, euren zera, euren gaitza, euren zera, indarra han barruan, puntetatik egiten badiozue hori ez dauka, baina sakonagotik egiten badio badauka)

gomitue: gomitua, errebesa, goitika

gorroa: gorroa

"Romerue pe iten deu, gorroak, baye kanpora atarason, e? Bigundu iten deu, nik seras, estias artzean dot" - (Erromeroak ere egiten du, gorroak, baina kanpora aterarazi, e? Bigundu egiten du, nik zerarekin, eztiarekin hartzen dut)

inderra: indarra

infesinoa: infekzioa, zoldura

kalenturea: sukarra, kalentura

"Bai gaixoak emoten dotziena, noperari selan emoten tzen kalenturea? Ba orreri be bai" - (Bai gaixoak ematen diena, norberari

zelan ematen zion kalentura? Ba horri ere bai)

"Ixi lei esan besterik onek anjine ties eta kalenturea emoten deurie" - (Ezin liteke esan besterik hauek anginak dira eta kalentura ematen dute)

kaltea: kaltea

kiketza: txokina, zotina, kiketza

"Es ori esta kiketza, ori esta kiketza, kiketza da, ik-ik! Eta esaten dotzu igual, ai! Ya ixu ogi sati bet, aber kentzen bayatzu" - (Ez hori ez da kiketza, hori ez da kiketza, kiketza da ik-ik! Eta esaten diogu beharbada, ai! Jan ezazu ogi zati bat, ea kentzen bazaizu)

korrokadea: korrokada, gorazkoa

kukurruku estule: kukurruku eztula

"Kukurruku estule esaten deure orre teko estul txarra, e?" - (Kukurruku eztula esaten dute horrek dauka eztul txarra, e?)

larrie: larria, larritasuna

mine: mina

"Buruko mine emoten deu" - (Buruko mina ematen du)

min sorra: min sorra

"Min be tekosunean, esate les, besoan, dekosu mine, esta? Baye esta min fuertea, sor, sor, sor" - (Min bat daukazunean, esate legez, besoan, daukazu mina, ezta? Baina ez da min handia, sor, sor, sor)

mokoa: mokoa, mukia

odol lodie: odol lodia

otzikerea: hotzikara

"Beyeri nik, e, esebestotziet emoten ixen, txala iteurienean ardaua, eta lepoan froteu, beste asunbre erdi ardauas, txala iteunean, baye es, ostatxean es, ta koiteurienean otzikerea, be bai, lepoan froteu, lelango arraske arraskeu in, sarrantxeas, eta gero, asunbre erdi ardauas, e, sertu, eta gero, tapeu, manteas" - (Behiei nik, ezer ez diet ematen izan, txahala egiten zutenean ardaua, eta lepoan igurtzi, beste azunbre erdi ardauarekin, txahala egiten zuenean, baina ez, osterantzean ez, eta hartzen zutenean hotzikara, ere bai lepoan igurtzi, lehenengo hazka-hazka egin, txarrantxarekin, eta gero, azunbre erdi ardauarekin, zertu, eta gero, tapatu, mantarekin)

sama sarratue: sama zerratua

surru-surrue: katarroak bularrean eragiten duen zarata

tenplea: gorputza edo lurraren egoera

tenple txarra: gorputzaldi txarra

tentziñoa, tentzinoa, tensinoa: tentsioa

"Asunek egosi eta a ure artze seun gure amak, tensinoa bajetako" - (Asunak egosi eta ur hura hartzen zuen gure amak, tentsioa baxatzeko)

"Gure denporan esan egon es tentziñorik, es egon san, ba sera, kolesterolik es, esan egon ser txarri pes, sirkulasinori pes" - (Gure denboran ez zen egon ez tentsiorik, ez egon zen, ba zera, kolesterolik ez, ez zen egon zer txarrik ere ez, zirkulaziorik ere ez)

"Olangorik entzun bes, keba! es gendun yakin ser dan bes! eta oingo moduen tentziñoa beti artuten neure moduen!" - (Holakorik entzun ere ez, bai zera! ez genuen yakin zer den ere ez! eta oraingo moduan tentsioa beti hartzen neure moduan!)

"Euki dot nik tentzinoa ogetabi be, baye estot, o, estot artu ños" - (Eduki dut nik tentsioa hogeita bi ere, baina ez dut, ez dut hartu inoiz)

txakur estule: txakur eztula

"Txakur estule deko be bai, estait selangoa dan, baye orre teko txakur estule" - (Txakur eztula dauka ere bai, ez dakit zelakoa den, baina horrek dauka txakur eztula)

2.3. ERREMEDIOS

alkola: alkohola

"Alkola gero, elei aguanteu" - (Alkohola gero, ez liteke iraun)

"Lelau igutzi, esta? Berotu, berotu gorputze piti bet lepoa, eta gero, sera asunekas, tas-tas, tas-tas! Eta gero segiduen alkola ganetik, alkola gero, gero bean ganean pareu, e? Ixerdie bota" - (Lehenago igurtzi, ezta? Berotu, berotu gorputza apur bat lepoa, eta gero, zera asunekin, tas-tas, tas-tas! Eta gero segituan alkohola gainetik, alkohola gero, gero behearen gainean paratu, e? Izerdia bota)

"Alkola, guatea busti, eta suloa badekosu, an sartu" - (Alkohola, guatea busti, eta zuloa badaukazu, han sartu)

asur imintzailea: hezur ipintzailea

"Nik, e, fameliko bat bakit yoan sana, yeusi san, sagar batetik, Mugien egon san osaba ixekoakas, eroan seurien andik, e, ara Laukis Andire, eta an, orrek asur imintzailleak imini otzon besoa, apurtute euki seun te gero, iru lau egungarrenean ser i otzon errementeu, ta errementekeran eroan seurien atzera eta gero ondo imini otzon" - (Nik, familiako bat badakit joan zena, jausi zen, sagar batetik, Mungian egon zen osaba-izekoekin, eroan zuten handik, hara Laukiz Handira, eta han, hezur ipintzaile horrek ipini zion besoa, apurtuta eduki zuen eta gero, hiru lau egungarrenean zer egin zion errementatu, eta errementatukeran eroan zuten atzera eta gero ondo ipini zion)

bendea: benda

enplastue: enplasto

"Enplastuek, ba sartanean seuser ite seurien, eta bularrean atzean guk ondikarren neba bat deku katarroa dekonean, plegasinoa asunekas iten deuna" - (Enplastoak, ba zartaginean zer edo zer egiten zuten, eta bularraren atzean guk oraindikarren neba bat daukagu katarroa daukanean, plegazioa asunekin egiten duena)

"Ori, enplastue esaten dako" - (Hori, enplasto esaten zaio)

erremedioa: erremedioa

iko esnea, ikoan esnea: iko esnea; berau gariak kentzeko erabiltzen ei da.

"Ikoan esnea, erramea, au desaparesidu in san iges, baye ostabe etor dako" - (Iko esnea, arrama, hau desagertu egin zen iaz, baina osteria ere etorri zaio)

indisinoa: injekzioa

kataplasma, kataplasma: kataplasma

"Atxine kataplasma imite sien olan, geixorik egoten sintzanean, bularrean, sera ardabagas ta, sayeas, saye ta ardaa, in, e, kataplasma, eta bularretan imini, eta lepoan be bai, olan imintea ona da" - (Antzina kataplasma ipintzen ziren hola, gaixorik egoten zinenean, bularrean, zera ardauarekin eta, zahiarekin, zahia eta ardaa, egin, kataplasma, eta bularretan ipini, eta lepoan ere bai, hola ipintzea ona da)

"In aregas sayegas, e, kataplasma ta imini" - (Egin zahi harekin, kataplasma eta ipini)

ladrillu beroa: adreilu beroa

"Len imite san ladrillu beroa, berotan dauela beroak kenduten deu te" - (Lehen ipintzen zen adreilu beroa, berotan dagoela beroak kentzen du eta)

limoi ure: limoi ura

lurrune: lurruna

"Lurrunek iten gendusen guk asunen ureas" - (Lurrinak egiten genituen guk asunen urarekin)

"Aren ure egosi te aren lurrune artu" - (Haren ura egosi eta haren lurruna hartu)

medikamentue: medikamendua

plegasinoa, pregasinoa: plegazioa

sanetenes: zaintiratua

"Emen eon dienak, sanetenes" - (Hemen egon direnak, zaintiratua)

"Es, es, es! arek kurtzeak eta geuse olan orrotzagas inte ba, kasureko oin, e, ba ya daus gitxi iten deurienak, e, sanetanes, iten deudienak gitxi daus, neuri be in dostie ori!" - (Ez, ez, ez! hark gurutzeak eta gauza hola orratzarekin eginda ba, kasurako orain, ba ja daude gutxi egiten dutenak, zaintiratua, egiten dutenak gutxi daude, neuri ere egin didate hori!)

urdillenes: urdailena; urdaileko gaixoa kentzeko egiten zen erremedioa

2.4. KOLPEAK

eperdikoa: ipurdikoa

golpea: kolpea

"Emon golpeak, emon, seras, ta ebai i osten" - (Eman kolpeak, eman, zerarekin, eta ebaki egin zidan)

kokotekoa: kokotekoa

koskorroya: koskorroia

matrallekoa: matrailekoa

"Emongo tzut matralleko bat" - (Emango dizut matraileko bat)

"Matrallekoa bardin de olan sein olan" - (Matrailekoa berdin da hola zein hola)

ostikede: ostikada

txaloa: txaloa

txanketakoa: txanketakoa

txapladea: zaplada

3. FAMILIARTEKOAK

Atal honetan familia eta familia hartu-emanei dagozkien berbak biltzen ditugu. Berbak hobeto sailkatzeko, atal honen azpi-atalak familia bera, senideak, familia erlazioak eta adin erlazioak izango dira.

3.1. FAMILIA

aistea: ahizta, ahizpa

"Orrek iru aistek yoate sien domekatan eta astegunetan bi ibilte sien esneakas" - (Hiru ahizpa horiek joaten ziren igandeetan eta astegunetan bi ibiltzen ziren esneekin)

"Gero yosten ikisi te gero, ba imi nendun, nik imi nun Derion, ba loja baten, nire aistek euki sun pelukerie, ta nik yosten ite nendun" - (Gero josten ikasi eta gero, ba ipini nuen, nik ipini nuen Derion, ba loja baten, nire ahizpak eduki zuen ile-apaindegia, eta nik josten egiten nuen)

aitamak: gurasoak

"Baye bixiri taola aitamak gure badeure bateri emon bere, are besteak bape barik lotu litikes, e? Aitamak bixi dila, e?" - (Baina bizirik dagoela gurasoak gura badute bati eman ere, haiek besteak bat ere barik lotu litezke, e? Gurasoek bizi direla, e?)

aite:aita

"Aiteri ogie emon dotzet" - (Aitari ogia eman diot)

aiteta: gurasoak

"Aiteta yoan dires" - (Gurasoak joan dira)

aitite: aitaita

"Oin estau, e, semeak bixi dire bueno, semeak es, aitite ta amama siren, e, iten seudienak errotan bear" - (Orain ez dago, semeak bizi dira beno, semeak ez, aitaita eta amama ziren, egiten zutenak errotan behar)

"Neuk esetu dot eta, etxean neu pe esetu dot ama, amoma, e, enas akordetan, amoma ta aitite estoas, estoas esetu" - (Neuk ezagutu dut eta, etxean neuk ere ezagutu dut ama, amama, ez naiz gomutatzen, amama eta aitaita ez ditut, ez ditut ezagutu)

aitite lobak: aitaita-lobak

"Aitite lobak, sue in te erre" - (Aitaita lobek sua egin eta erre)

alabea, alabia: alaba

"Gu egoten gara alabea eskondu sanik eta gora alabeana, yoaten gara, Begoñara" - (Gu egoten gara alaba ezkondu zenik eta gora alabagana, joaten gara, Begoñara)

ama: ama

"Gure amak, larogei urte euki euenean, etorri akon, ba, besoatako bat, ia frakak kutxillotu al badakos" - (Gure amak, larogei urte eduki zuenean, etorri zitzaion, ba, besoetako bat, ea prakak kutxilatu ahal zaizkion)

amama, amoma: amama

"Nire amama yayo san or, seminarioa oin dauen lekuen" - (Nire amama jaio zen hor, seminarioa orain dagoen lekuan)

"Baye sure amak edo amomak ingo situn orrek" - (Baina zure amak edo amamak egingo zituen horiek)

"Ori esaten yeuden, amamak ori esaten yoan" - (Hori esaten ziaten, amamak hori esaten zian)

anajea: anaia

"Nik anajea eukin dot orretarikoa" - (Nik anaia eduki dut horietarikoa)

"Estosu esetuko anajea?" - (Ez duzu ezagutuko anaia?)

"Juan ta Blas sien orrek, anajeak, ta bestea Rufino anajea" - (Juan eta Blas ziren horiek, anaiak, eta bestea Rufino anaia)

andragixonak: andre-gizonak

andrea: andrea, emaztea

"Senbet denpora, eskondu artean, edosein moduten be, ta gero be ba urte bat edo bien segidu neuen baye ya, aite defuntue ba il sanean, gero, neu pe eneun gu ixin urten iñora se ba, andrea ta umeak etzean da" - (Zenbat denbora, ezkondu artean, edozein modutan ere, eta gero ere ba urte bat edo bian segitu nuen baina ja, aita defuntua ba hil zenean, gero, neuk ere ez nuen gura izan irten inora ze ba, andrea eta umeak etxean eta)

arrabea, arrebea: arreba

"Arreba bixi salako, bueno, sarra da, arena" - (Arreba bizi zelako, beno, zaharra da, harena)

biaitite: birraitaita

biamama: birramama

familie, famelie: 1. familia, senide artekoak.
2. seme-alabak

"Olooa, bai, etxean, eta familikoa pe bai imite yotzien, orduen olloan, ollo saldea esaten

otziena, ba eukite seunean familie, a emote yotzien, yaten esebes, ta egunetan a artute seun, ta esate seudien, ba, bular asko emoteko dala, bularra giau emoteko edo eukiteko, kafekoletxea eta, ori, ollo saldea esaten dotziena, ba, je! atxineko kontuek, e?" - (Oiloa, bai, etxean, eta familiakoek ere bai ipintzen zioten, orduan oiloaren, oilo salda esaten ziotena, ba edukitzen zuenean familia, hura ematen zioten, jaten ezer ere ez, eta egunetan hura hartzen zuen, eta esaten zuten, ba, bular asko emateko dela, bularra gehiago emateko edo edukitzeko, kafesnea eta, hori, oilo salda esaten diotena, ba, je! antzinako kontuak, e?)

gixona: gizona, senarra

"Nire gixonak batietu euen" - (Nire gizonak bataiatu zuen)

"Bueno ori segun, pentzetan dot dala segun senbet barrio saren, se gu, emen Aldekonen nire gixona ixen san lekuen, bai egon siren, ba, ume giau, baye ni, gu ixen gintzen lekuen nire neba ta ni bakarrik, eta gero alboan bai, ba beste fameli giau, an asko ixen siren" - (Beno hori segun, pentsatzen dut dela segun zenbat auzo zareten, ze gu, hemen Aldekonen nire gizona izan zen lekuan, bai egon ziren, ba, ume gehiago, baina ni, gu izan ginen lekuan nire neba eta ni bakarrik, eta gero alboan bai, ba beste familia gehiago, han asko izan ziren)

gurasoak, guresoak: gurasoak

lobea: loba, iloba

"Nik ikusten dot lobakas" - (Nik ikusten dut lobekin)

"Bier eiten dostes lobeak ogei urte" - (Bihar egiten dizkit lobak hogeia urte)

nebarrebak: neba-arrebak

"Andi danok yaten gendun, bedeatzi nebarreba, aite ta ama, eta amama egon gare gu etzean, e?" - (Handik denok jaten genuen, bederatzi neba-arreba, aita eta ama, eta amama egon gara gu etxean, e?)

"Guk, euki gendun fameli dusti, sure nebarreba dustik umeakas on sin gu eskondu gintzanean, ori kamarotea euki gendun libre" - (Guk eduki genuen familia guztia, zure neba-arreba guztiak umeekin egon ziren gu ezkondu ginenean, kamara hori eduki genuen libre)

nebea: neba

"Onek emon tzie nebeari yatekoa" - (Hauek eman diote nebari jatekoa)

"Ta gu etorten gintzesan, ba nebea ta ni lelangotan eskolara, Aldekoneko eskolara" - (Eta gu etortzen ginen, ba neba eta ni lehenengoetan eskolara, Aldekoneko eskolara)

semea: semea

"Semeak yan deu dana" - (Semeak jan du dena)

"Orrek bota deu semea" - (Horrek bota du semea)

semealabak: seme-alabak

3.2. FAMILIA ERLAZIOAK

aistordea: ahizpaordea

aitebitxi: aitebitxi

"Bautisetan ba aitebitxi ta amabitxi, eta ausokoak eroate eun, ama esan yoaten, se ama, yayo barri oten sales familie, ama esan yoten" - (Bataiatzen ba aitebitxi eta amabitxi, eta auzokoak eroaten zuen, ama ez zen joaten, ze ama jaio barri egoten zenez familia, ama ez ze joaten)

"Amabitxi ixen san ona, aitebitxi estait, aitebitxi estait selangoa ixengo san" - (Amabitxi izan zen ona, aitebitxi ez dakit, aitebitxi ez dakit zelakoa izango zen)

aitebitxi-amabixik: aitebitxi-amabixiak

"Aitebitxi-amabixik eta aite, beste andra bat yoate san umea eroaten, a san edo parientea edo eusokoa, beste bat, baye aitebitxi-amabixik eseuden eroaten" - (Aitebitxi-amabixiak eta aita, beste andre bat joaten zen umea eroaten, hura zen edo senidea edo auzokoa, beste bat, baina aitebitxi-amabixiak ez zuten eroaten)

"Aitebitxi amabixik, e, estotzie erreseu ondo, ondo erreseteta estau" - (Aitebitxi-amabixiek, ez diote errezatu ondo, ondo errezatuta ez dago)

aitordea: aitaordea

alabaordea: alabaordea

amabitxi: amabitxi

"Ba ausoko bat edo, familiko bat edo, lagun bet ba, ak artute seun eroate seun umea, eta gero, aitebitxi ta amabitxi aparte" - (Ba auzoko bat edo, familiako bat edo, lagun bat ba, hark hartzen zuen eroaten zuen

umea, eta gero, aitebitxi eta amabitxi aparte)

amordea: amaordea

"Antza amordeak ite tzen, talo asko, eta gero ite gurien taloa be bai, euspeko taloa, ite gurien antza bean berotu, eta an taloa imini lodie eta ganera esebes, eta gero a egunetarako, eta areri antza ite yakosan, fermenteta san ta lumek" - (Antza amaordeak egiten zien, talo asko, eta gero egiten zuten taloa ere bai, hauspeko taloa, egiten zuten antza behean berotu, eta han taloa ipini lodia eta gainera ezer ere ez, eta gero hura egunetarako, eta hari antza egiten zitzaizkion, garrazten zen eta lumak)

anajordea: anaiordea

arrabaordea: arrebaordea

besoatakoa: besoetako

errana: erraina

etzekoartekoa: etzeko-artekoa, familiartekoa
"Etxekoartekoak ba, etorte sien" - (Etxekoartekoak ba, etortzen ziren)

ubia, aubea: aubea, amaginarreba

"Yulenen aubea, il san, eun urte iteko egun bet edo egun bi faltan" - (Julenen aubea, hil zen, ehun urte egiteko egun bat edo egun bi faltan)

familiarra: familiarra, senidea

familiartea: familiartea

familiartekoa: familiartekoa, senidea

giñarrabia, giñarrebea: aitaginarreba

ixekoa: izekoa

"Eta alboan ixekoa alargune lau semeas" - (Eta alboan izekoa alarguna lau semerekin)

koñatea: koinata

koñetue: koinatua

lengosue, lengusue: lehengusua

"Gure lengusue etor san" - (Gure lehengusua etorri zen)

lengusine, lengusiñe: lehengusina

"Ori dana esetute nendun, ta or egon sien nire aititen, e, lengusin batzuk ixen sienak, Samudiokoak ixen sienak, egon sien an eskondute" - (Hori dena ezagutu nuen, eta hor egon ziren nire aitaitaren, lehengusina batzuk izan zirenak, Zamudiokoak izan zirenak, egon ziren han ezkondata)

lobea: loba

"Gure neskatoa, loba nirea, Ayora, Ayora egon san txarto samatik txikerretan, bai txarto, e! Ibilten san samatik, eta esa

otzien, e, ortik, Laukis aldera edo ortik eroateko, andra ba tauela ta, eta ara eroan eudien, eta sekule giau, e, baye, txikerra san, eta min asko i yotzien, saman ta, asurreri tirtute, ser asko i yotzien, eta ondo pare san, ta giau estau sentidu te!" - (Gure neskatoa, loba nirea, Aiora, Aiora egon zen txarto samatik txikerretan, baina txarto, e! Ibiltzen zen samatik, eta esan zioten, hortik Laukiz aldera edo hortik eroateko, andre bat dagoela eta, eta hara eroan zuten, eta sekula gehiago, baina, txikerra zen, eta min handia egin zioten, saman eta, hezurrei tiratuta, zer asko egin zioten, eta ondo paratu zen, eta gehiago ez du sentitu eta!)

nebaordea: neba-ordea

osaba-ixekoak: osaba-izekoak

osabea: osaba

parientea: senidea

"Lauena ixete san a, gurean ixete san Landatxukoa kasureko, ta Beatrisen ta amoma, gure parientea tire orrek eta guk, ta beste aldekoa, lauen artean eukiten gendun a sepulturea" - (Lauena izaten zen hura, gurean izaten zen Landatxukoa kasurako, eta Beatrisen eta amama, gure senideak dira horiek eta guk, eta beste aldekoa, lauen artean edukitzen genuen sepultura hura)

semeordea: semeordea

suegrea, suegria: amaginarreba

"Bai klaro! eskolara orrarte ortik etorten gintzesan ondo, neure suegria ixen san maistria" - (Bai jakina! eskolara horraino hortik etortzen ginen ondo, neure amaginarreba izan zen maistra)

suegroa: aitaginarreba

suñe: suhia

"Suñe dekot angoa" - (Suhia daukat hangoa)

tia: izekoa

tio: osaba

"Gure tio ixen sana Galbartukoa, ba, areri san gregorio mesak i otziesan, eta nik estait senbe pe, ba asko sin" - (Gure osaba izan zena Galbarriatukoa, ba, hari san gregorio mezak egin zizkioten, eta nik ez dakit zenbat ere, ba asko ziren)

umesurtze: umezurtza

"Umesurtze da, lotute sarenean, ba aite ta ama barik" - (Umezurtza da, lotzen zarenean, ba aita eta ama barik)

urikoa: urikoa

"Es, esta umesurtze ori, ixeten da soltera batek orduen euki seun ume bat, eta emote otzien leku betera, eta gero igual beste, ba, andra batek, eukiteun familie, ta ilte yakon, eta gero arek bularra eukite seules, koite seun uriko bat, nik emen esetu dot bi euki situsenak, bereak euki situsen lau edo, eta guk esaten gendun, bai, orre tekon meritue, e? Beste bat ekar deu, te asi deu" - (Ez, ez da umezurtza hori, izaten da ezkon bako batek orduan eduki zuen ume bat, eta ematen zien leku batera, eta gero beharbada beste, ba, andre batek, edukitzen zuen familia, eta hiltzen zitzaion, eta gero hark bularra edukitzen zuen legez, hartzen zuen uriko bat, nik hemen ezagutu dut bi eduki zituenak, bereak eduki zituen lau edo, eta guk esaten genuen, bai, horrek daukan meritua, e? Beste bat ekarri du, eta hazi du)

3.3. ADIN ERLAZIOAK

agurea: agurea

aingerue, angerue: ume txikia, lehen jaunartzea egin artekoa

"Yayo parrie ixen basan aingerue il da, bautise ta gero aingerue il da" - (Jaiio berria izan bazen aingerua hil da, bataiatu eta gero aingerua hil da)

"Aingeruek orrek dires, ba, yayoparriek" - (Aingeruak horiek dira, ba, jaiio berriak)

andraskoa: andrazkoa

atzoa: atsoa

andrea: andrea, andrazkoa, emakumea

"Uuuu! afisiño andrak! esneakas ibilte sienak, asko!" - (Uuuu! zaletasuna andreak! esnearekin ibiltzen zirenak, asko!)

bikotxak: bikoitzak

enbrea: andrazkoa

"On dires or enbrak" - (Egon dira hor andrazkoak)

gixona: gizona

gixoneskoa: gizonezkoa

"Gixoneskoak, enbrak orduen? Keba! Enbra bat etorten basan, e, ya a iste san, e, fama pentzeu bes! Eta olan domeka geu beten ta olan, e, tabernara andra bat? Keba! Es neska bat? Pentzeu bes! Nobieagas bes, e!" - (Gizonezkoak, andrazkoak orduan?)

Bai zera! Andrazko bat etortzen bazen, ja hura izaten zen, fama pentsatu ere ez! Eta hola igande gauetan eta hola, tabernara andre bat? Bai zera! Ez neska bat? Pentsatu ere ez! Andregaiarekin ere ez, e!)

morroskoa: morroskoa, morroia

"Bai ba, klase bi daus morroskoana eta enbrana" - (Bai ba, mota bi daude morrozkoarena eta andrazkoarena)

"Morroskoak olantxe ote siren, oi! Begire" - (Morroskoak holaxe egoten ziren, oi! Begira)

morroya: morroia

mutikoa: mutikoa

"Mutilek es, mutiko bardingoak egote sienean" - (Mutilak ez, mutiko berdingoak egoten zirenean)

"Lobeari orreri mutiko orreri ikuste su au selango bardingo pare dakun? Esaten due" - (Lobari mutiko horri, ikusten duzu hau zelako berdingo paratu zaigun? Esaten dugu)

mutile: 1. mutila. 2. mutil zaharra

"Aregas iten gendusen, orixe san mermelada antzeko moduen, konserba bat, ta ukite seurien kaja redondoak, ta areri gero ite yotzien, asta bat imini, ba abilidosoak siren mutilek" - (Harekin egiten genituen, horixe zen mermelada antzeko moduan, kontserba bat, eta edukitzen zuten kaxa biribilak, eta hari gero egiten zioten, asta bat ipini, ba trebeak ziren mutilek)

"Bueno, asau dau, bai, guk gaste denporan bai, ango mutilekas eukiten gendun, bueno bakixu, gaste denporan danak esetuten dosus, baye es ostean, erlasiño asko, es" - (Beno, asago dago, bai, guk gazte denboran bai, hango mutilekin edukitzen genuen, beno, badakizu, gazte denboran denak ezagutzen dituzu, baina ez ostean, erlazio asko, ez)

"Aitu, orduen be oten sien se gure aite, gu bost ixen gara, lau mutil te neu, ta mutilek danak il dies, neu bakarrik bixi nas" - (Aitu, orduan ere egoten ziren ze gure aita, gu bost izan gara, lau mutil eta neu, eta mutilak denak hil dira, neu bakarrik bizi naiz)

"Gurean mutilek eurek ibilte sien, santa ageda kantetan" - (Gurean mutila eurak ibiltzen ziren, santa ageda kantatzen)

neska-mutilek: neska-mutilak

neskatilea: neskatila

neskatoa: neskatoa

neskea: neska

"Neskak gitxiao, mutilek ixete siren orretarako giau" - (Neskak gutxiago, mutilak izaten ziren horretarako gehiago)

"Mutilek eta neskak danok era batera oten gintzesan ta ba, seuser in in biar" - (Mutilak eta neskak denok era batera egoten ginen eta ba, zer edo zer egin egin behar)

oyaleko umea: oihaleko umea

"Oyaleko umea da yayoparrie" - (Oihaleko umea da jaio berria)

saspikie: zazpikia

"Saspikie bai, saspilibegetas yayote sienak, saspikiek bixite sirela esate gurien, bai sortzi badekos es" - (Zazpikia bai, zazpi hilabeterekin jaiotzen zirenak, zazpikiak bizitzen zirela esaten zuten, baina zortzi badauzka ez)

"Saspikie deko ta bixiri tau" - (Zazpikia dauka eta bizirik dago)

señe: seina

sortzikie: zortzikia

umea, umia: umea

ume bardingoa: ume berdingoa

ume gorrie: ume gorria

4. ELIKADURA

Atal honetan giza elikaduraren gainean jasotako berbak biltzen ditugu. Berbok azpi-ataletan banatzea erraza ez den arren, azpi-atal batzuk egiten ahalegindu gara, irakurketa erraztekoan. Azpi-atalok, jatorduak, hastekoak, okela-txerriak, arraina, arrautzak, ogia, esnea-gaztaia, gozokiak-postreak eta edariak dira.

4.1. JATORDUAK

afarie: afaria

"Amak estoste in afarie" - (Amak ez dit egin afaria)

amaiketakoa: hamaiketakoa

armosue: armozua, gosaria

"Bat, e, koitea bakixu semet koste aten, yoa nintzen makinan, bueltea artu orduko jota, egon, begire, ba, benga! Ostabe jota, ta

esa neuntzen, e, bier ekarri armosue solora, a koiten espot enator amabitarte ta, yoan saspietan edo lenau, eta amakatan koyu neun" - (Bat, harrapatzea badakizu zenbat kostatu zitzaidan, joan nintzen makinan, buelta hartu orduko jota, egon, begira, ba, tira! Ostera ere jota, eta esan nion, bihar ekarri armozua sorora, hura harrapatzen ez badut ez nator hamabietara arte eta, joan zazpian edo lehenago, eta hamaiketan harrapatu nuen)

baraue, bareue: baraua

bareustekoa: barausgarria

berienda afarie: afari berienda, afari-askaria

"Talletue botate sanean imite san erramue ta, gero, berienda afarie in" - (Teilatua botatzen zenean ipintzen zen erramua eta, gero, afari berienda egin)

beskarie: bazkaria

"Emen euki gendun, e, or beskarie or ibili gintzesena beskaltan, eta esan etorri orra, fastidieta dabilela ta" - (Hemen eduki genuen, hor bazkaria hor ibili ginen bazkaltzen, eta ez zen etorri horra, txarto dabilela eta)

kopue: kopaua, mokadua

meriendea, beriendea: askaria

"Meriendea, ba, ser esangotzupa? Batan batzuk, baye askok es, askok es, afarie goxetik ixete san, e! Bai, afarie goxetik, afarie goxetik ixete san" - (Askaria, ba, zer esango dizut ba? Baten batzuek, baina askok ez, askok ez, afaria goizetik izaten zen, e! Bai, afaria goizetik, afaria goizetik izaten zen)

yana: jana

yanarie: janaria

"Orixe ixete san yanarie bai, esan egon besterik, ori olantxe san bai" - (Horixe izaten zen janaria bai, ez zen egon besterik, hori holaxe zen bai)

yatekoa: jatekoa

"Noperari selan yatekoa preparentan dakon? Alantxe prepareu egosite" - (Norberari zelan jatekoa prestatzen zaion? Halaxe prestatu egosita)

yatordue: jatordua

"Nik estot gure mesa bat entzun, eta, familieas yatordutxu be paño in, esta? Saus ixilik! Esatosten" - (Nik ez dut gure meza bat entzun, eta, familiarekin

jatordutxo bat baino egin, ezta? Zaude isilik! Esaten zidan)

"Onen anajea guregandik ba, urtekarrenean eskondu san, igual lau urte edo giau, orrek esoskun emon yatorduri pes, esebesoskun emon, e?" - (Honen anaia guregandik ba, urtekarrenean ezkondu zen, beharbada lau urte edo gehiago, horrek ez zigun eman jatordurik ere ez, ezer ere ez digun eman, e?)

4.2. HASTEKOAK

arrosa: arroza

"Bueno, ba segun, e, selango sera, batzu tekie kostunbrea ba, se giau, arrosa edo, gitxiau edo giau edo, segun bakotxari selan gustetan dakon" - (Beno, ba segun, zelako zera, batzuek daukate ekandua ba, zer gehiago, arroza edo, gutxiago edo gehiago edo, segun bakoitzari zelan gustatzen zaion)

basie: bazia, plateretan jaki batzuekin egiten den saltsa

berakas sopea: berakatz-zopa

berdurea, berduria: berdura

biberoya: biberioia

"Papillen modukoa gitxi, ori ixete san, e, lelau esneagas, biberoya emoten botzien esneagas ta gero, urunegas inte" - (Papilaren modukoa gutxi, hori izaten zen, lehenago esnearekin, biberioia ematen bazioten esnearekin eta gero, irinarekin eginda)

binagrea, binegrea: ozpina

"Gatza ta binegreas iten gontzen geuk en jeneral" - (Gatza eta ozpina egiten genion geuk gehienetan)

"Ebai eta gero berakatz ta binagrea iten da" - (Ebaki eta gero berakatz eta ozpina egiten da)

"Len ixete san alkola baño giau, binagrea" - (Lehen izaten zen alkohola baino gehiago, ozpina)

bitze: bitsa

bokadillue: ogitartekoa

"Gu esneakas yoan ta bokadillue itxiten gendun an, e, Salamandra useneko, tejabana bar baten, a bokadillue artute, oingo moduen kafe artzean ta tabernara, bai sera! Orrek esien egon" - (Gu esneekin

joan eta ogitartekoa uzten genuen han, Salamandra izeneko, tejabana taberna baten, ogitarteko hura hartuta, oraingo moduan kafea hartzen eta tabernara, bai zera!)

ensaladea: entsalada

fideo sopea: fideo zopa

garbantzue: garbantzua

gastañe sopea: gaztaina zopa, gaztainez egiten zen zopa

"Gure ama defunteari dekotzet nik atxine gastañe sopea ite seuela, gastañek suritu, ta gastañek egosi te areas sopea" - (Gure ama defuntuari daukakiot nik antzina gaztaina zopa egiten zuela, gaztainak zuritu, eta gaztainak egosi eta harekin zopa)

gatza: gatza

"Gatzan asuntoa? Ba estakit nik, txarrieri emoten dakon moduen pentzetan dot emoten dotziela, imini tinikuetan, tinikuetan imini, te gatzagas tapeu, a gatzagas tapeu, ta iminte yotzien, e, pisue ganean, gatza obeto artu deyen, eta estakit senbe tenporan eukite seudien, orixe estakit, illebete edo estakit ba senbet denporan eukite seudien gatza ondo artu arte, ta gero imini beste sati bet, eta areri be gatza ganera, gero iminte eudien a pisuegas, eta alantxe!" - (Gatzaren gorabehera? Ba ez dakit nik, txerriari ematen zitzaion moduan pentsatzen dut ematen ziotela, ipini tinakoetan, tinakoetan ipini, eta gatzarekin tapatu, hura gatzarekin tapatu, eta ipintzen zioten, pisua ganean, gatza hobeto hartu dezan, eta ez dakit zenbat denboran edukitzen zuten, horixe ez dakit, hilabete edo ez dakit ba zenbat denboran edukitzen zuten gatza ondo hartu arte, eta gero ipini beste zati bat, eta hari ere gatza gainera, gero ipintzen zuten hura pisuarekin, eta halaxe!)

gatzure: gatz ura

"Lelau ite san, e, gatzuretan imite sien, geube edo, otamar edo berrogei ordu ingeruen eukite sien gatzuretan, ta gero ite yakien piperras, piper, e, seras, ba paseu, eta eskeite gero" - (Lehenago egiten zen, gatz uretan ipintzen ziren, gaua edo, hogeita hamar edo berrogei ordu inguruan edukitzen ziren gatz uretan, eta gero egiten

zitzaien piperrarekin, piper, zerarekin, ba pasatu, eta eskegita gero)

gixedue: gisatua

"Sati bet kendute sakon, e, okeleari, eta gixedue iminte san, gixeute, okelea gixeute iminte san" - (Zati bat kentzen zitzaion, okelari, eta gisatua ipintzen zen, gisatuta, okela gisatuta ipintzen zen)

"Gure aite defuntuari ba gixedue gusteta akonta ba amak eite gun" - (Gure aita defuntuari ba gisatua gustatzen zitzaion eta ba amak egiten zuen)

grasea: koipea

kalloa, kallue: tripakia

"Estomague, estomaguen asikerea da ori, tripea, kalluek esta? Kallue da estomague, baye ori da ya, este loditik, ya pasetan da orra, aite santue esaten dotzien, eta, ori da, ta gosoana da, e!" - (Urdaila, urdailaren hasiera da hori, tripa, tripakiak ezta? Tripakia da urdaila, baina hori da ja, heste loditik, ja pasatzen da horra, aita santua esaten dioten, eta, hori da, eta gozoarena da, e!)

koipea: koipea

lapikokoa: lapikokoa

"Urdie lapikorako en jeneral, orduen, ba sartenean, e, frijidu ondo ondo, eta gero a grasa botate akon, ba lapikokoari" - (Urdaia lapikorako gehienetan, orduan, ba zartaginean, frijitu ondo-ondo, eta gero koipe hura botatzen zitzaion, ba lapikokoari)

makallo saldea: makailo salda

"Gure aititek esate gun, an beste aldekoak, eta, eseuren eukiten, e, yaten, ta entzuten tziela, ser sertu dosue? Ser armose sue? Makallo saldea, makalloas edo makallo barik?" - (Gure aitaitak esaten zuen, han beste-aldekoek, eta, ez zuten edukitzen, jaten, eta entzuten ziela, zer zertu duzue? Zer armozatu duzue? Makailo salda, makailoarekin edo makailo barik?)

ollo saldea: oilo salda

"Olo saldea, eta gure amak esateuena olo saldea ta andra koiteduek mogidu ixinik, se, olo saldea ta olo saldea ta, oin? Lelengorik emote otzie yaten da bakia!" - (Oilo salda, eta gure amak esaten zuena oilo salda eta andre koitaduak mugitu ezinik, ze, oilo salda eta oilo salda eta,

orain? Lehenengotik ematen diete jaten eta bakea!)

ondakine: hondakina

origoa: olioia

origo ase: olio aza

porrusaldea: porru salda

"Yayo ta ensegida espadeko amak bulerra, ba beyen esnea fuertea dala lar, eta aginta yeudien medikuek edo pratikanteak ba, emoteko, seragas nastaute, estakit, e, senbet iminte dotzien, eta gero ba, ensegida, berakas sopea, porrusaldea, ta olangoak asten siren" - (Jaiio eta behingoan ez badauka amak bularra, ba behien esnea gogorra dela lar, eta agintzen zuten medikuek edo praktikanteek ba, emateko, zerarekin nahastuta, ez dakit, zenbat ipintzen dioten, eta gero ba, behingoan, berakatz zopa, porrusalda, eta holakoak hasten ziren)

saldea: salda

saltzea: saltsa

"Ori koipeagas, ta gero koipea apartaten da lapiko batera, ta gure bosu saltza bat edo gure danantzako gasteu, nik, e, origoagas nastean iminte nendun a geuse askotarako yatorduek eta iteko, origoagas nasteta gasteta nendun, koipe asko eukiten deu, eta arek, baye bera txintxorta geituten da" - (Hori koipearekin, eta gero koipea apartatzen da lapiko batera, eta gura baduzu saltsa bat edo gura denentzako gastatu, nik, olioarekin nahastean ipintzen nuen hura gauza askotarako jatorduak eta egiteko, olioarekin nahastuta gastatzen nuen, koipe asko edukitzen du, eta haiek, baina bera txintxorta deitzen da)

saltza berdea: saltsa berdea

saltza gorrie: saltsa gorria

sopea: zopa

"Afariteko, negue basan, porrusaldea en jeneral, edo berakas sopea, edo, sopea, osteko sopea, noberari gustetan dakona, segun se segas san, baye porrusaldea en jeneral negue basan, eta udea basan, edo patata prijiduek, edo txarrikie badau, edo seuser lantzen bein, e, peskeue be artute san, eta, arrotzen batzuk be bai, eta olango" - (Afaltzeko, negua bazen, porrusalda gehienetan, edo berakatz zopa, edo, zopa, osteko zopa, norberari gustatzen zaiona, segun zerekin zen, baina

porrusalda gehienetan negua bazen, eta uda bazen, edo patata frijituak, edo txerrikoa badago, edo zer edo zer lantzean behin, arraina ere hartzen zen, eta, arrautzen batzuk ere bai, eta holako)

tripe kallue: tripakia

4.3. OKELA-TXERRIKIA

aite santue, aiteterno: lope; buzkantzik lodiena

"Batzuk esaten dotzien aite santue, beste batzuk esaten dotzien, selan da ori? Lopea" - (Batzuek esaten zioten aita santua, beste batzuek esaten zioten, zelan da hori? Lopea)

amasea: buzkantzak eta txorizoak egiteko prestatzen den oreka edo saltsagarria

besoa: txerriaren aurreko hankak

biskarkie: bizkarkia

"Biskarkie ba, sera txarrien erdien dauen asurreri, sayetzak eta kendu, ta solomoa, ta erdien lotuten dana au biskerra" - (Bizkarkia ba, zer txerriaren erdian dagoen hezurrei, saiheitsak eta kendu, eta solomoa, eta erdian lotzen dena bizkar hau)

buskentza: heste lodia beteta egiten zen odoloste handia

"Ba ote san lelau, e, buskentza, esate yakon, buskentza esate yakon lodieri, bai besteari ba mortzillek" - (Ba egoten zen lehenago, buzkantza, esaten zitzaion, buzkantza esaten zitzaion lodinari, bai besteei ba odolosteak)

enbudo txikerra: onila, txorizoak egiteko erabiltzen dena

faldea: falda, okela mota bat

garrantzioa: garrantzio; txorizoari egiten zaion urdina

gatzure: gatz-ura

gigerrea: giharra

gixena: gizona

kirriskea: kirrizkia

lopea: lopea, buzkantzik lodiena

mortzillea, murtzillea, morsillea: buzkantza
"Morsillek ba badekosus senbegure" - (Buzkantzak ba badauzkazu zenbagura)

"Emen eusoan il da txarrie ta koño! Eusokoari ba probetako emon, morsillea" - (Hemen auzoan hil da txerria eta ño!)

Auzokoari ba probatzeko eman, buzkantza!)

"Bueno ori ba ite san porejenplo, guk eusoari emoten yakosen lelango, se txarrie egun beten danak estu ilten, eta guk, e, geur ilten bagendun, ba, mortzillek eroate yakiesan, eta gero eurek ilteurenean, eurek guri ekarte oskusen" - (Beno hori ba egiten zen esate baterako, guk auzoari ematen zitzaizkion lehenengo, ze txerria egun baten denek ez dugu hiltzen, eta guk, gaur hiltzen bagenuen, ba, odolosteak eroaten zitzaizkien, eta gero eurek hiltzen zutenean, eurek guri ekartzen zizkiguten)

"Este gosoa da ori, mortzillena be bai, mortzillena be gosoa isten da" - (Heste gozoa da hori, buzkantzena ere bai, buzkantzena ere gozoa izaten da)

murtzillen amasea: buzkantz masa, saltsagarria

"Ba, mortzillen amasea, guk mortzillen amasea ibili du beti" - (Ba, buzkantz masa, guk buzkantz masa erabili dugu beti)

odolostea: odolostea, buzkantzik meheena

"Oin, mortzillek iten diren danak, oin odoloste gitxi, guk iten gendun, odolostea, ya da a diferente da, e! A iten da, amasa diferenteagas, bai, bai, amasa diferentea da, arek, e, esteu bear arrosik, es arek berdurea, berdure asko bia deu, eta odola, berdure askogas eiten da, perejile, eta" - (Orain, buzkantzak egiten dira denak, orain odoloste gutxi, guk egiten genuen, odolostea, ja da hura desberdina da, e! Hura egiten da, masa desberdinarekin, bai, bai, masa desberdina da, hark, ez du behar arrozik, ez hark berdura, berdura asko behar du, eta odola, berdura askorekin egiten da, perrexila, eta)

okelea: okela

"Yateko okela ona dekie orrek" - (Jateko okela ona daukate horiek)

papadea: okozpea

pernile, pernille: pernila, urdaiazpikoa

"Pernilek, besoak, solomoa, sayeskie, eta gero urdie" - (Pernilak, besoak, solomoa, saiheskia, eta gero urdaia)

"Bai, bai, pernilek be bai, bai pernile amen, e, gatxaua da, e? Pernilek, e, eiten deu pernilek, baye an pentze leiki estekola eser, baye an asurtxutik eulien batek piketan badeu andi ya peligrosoa da, ostean bai,

gatza artu ondo iten deu, baye gero euliekas, e, ba eiten da, guk ein dus, ta ondo urten doskue, baye peligrosoa da ties" - (Bai, bai, pernilak ere bai, bai pernila hamen, gaitzagoa da, e? Pernilak, egiten du, pernilak, baina han pentsa liteke ez daukala ezer, baina han hezurtxotik euliren batek pikatzen badu handik ja arriskutsua da, ostean bai, gatza hartu ondo egiten du, baina gero euliekin, ba egiten da, guk egin ditugu, eta ondo irten digute, baina arriskutsuagoak dira)

sankarroya: zankarroia

saulmedea: salmoa, gatzura

"Arrotzea, gatzean ondo badauen ikusteko, ori saulmedan iminteko txarrie kasureko, ba, sayeskie, edo solomoa gure badosu imini saulmedan, etxa gatza, ta erain in ta urtuten danean, arrotze bat etxate san ara uretara, ta a arrotzea bein mobitan bada, goraño goraño altze barik, ya ondo egote san, ta a arrotzea bean lotuten bada, ba gatza giau" - (Arrautza, gatzean ondo dagoen ikusteko, hori salmoan ipintzeko txerria kasurako, ba, saiheskia, edo solomoa gura baduzu ipini salmoa, bota gatza, eta eragin egin eta urtzen denean, arrautza bat botatzen zen hara uretara, eta arrautza hura behin mugitzen bada, goraino goraino altxatu barik, ja ondo egoten zen, eta arrautza hura behean lotzen bada, ba gatz gehiago)

sartenekoa: zartenekoa, zartaginekoa, txerriki frijitua

"Ori bai sartenekoa baño gitxiau yateko ya txarto dekus" - (Hori bai zartenekoa baino gutxiago jateko ja txarto dauzkagu)

sayeskie: saiheskia

"Es, es, ori esan sartzen gasunen, ori te sayeskiek eta orrek esiren sartzen, e, orrek, e, gatzuretan euki, ta gero ite siren eskei" - (Ez, ez, hori ez zen sartzen gatzunean, hori eta saiheskia eta horiek ez ziren sartzen, horiek, gatz uretan eduki, eta gero egiten ziren eskegi)

"Es! edo frutea badau edo geuse sera badau etzean, baserri etzeatan, alangoak, ostantzean, bai, txarriek ilten sieles arek akabe artean, ba sayeskie, edo pernile, edo txarriekie, txarriekie prijidute" - (Ez! edo fruta badago edo gauza zera badago etxean, baserri etxeetan, halakoak,

osterantzean, bai, txerriak hiltzen zirenez haiek amaitu artean, ba saiheskia, edo pernila, edo txerrikoa, txerrikoa frijituta)

seboa: bilgorra

sesine: zezina

"Ba, aregas okeleagas, erote eun bakotxak etzera, eta iminte eun sesine esaten dotzian, sesine, gatzean iminte eudien dana, gero asurre apartetan dotzian, ta siketu okelea aparteu, ta imini eskeite ta igual illebete edo giau an, eskeite eukite eudien, eta gastetan san, okelarik onena, ba, siketute, yateko, ta bestea, ba egosi, te, indabakas edo gure danagas" - (Ba, okela harekin, eroaten zuen bakoitzak etxera, eta ipintzen zuen zezina esaten ziotena, zezina, gatzean ipintzen zuten dena, gero hezurra apartatzen zioten, eta sikatu okela apartatu, eta ipini eskegita eta beharbada hilabete edo gehiago han, eskegita edukitzen zuten, eta gastatzen zen, okelarik onena, ba, sikatuta, jateko, eta bestea, ba egosi, eta, indabekin edo gura denarekin)

"Gero ite san sesine, gatzas iminite" - (Gero egiten zen zezina, gatzarekin ipinita)

solomilloa: solomotxoa

solomoa: solomoa

"Sayetzak iten dire osoan itxi, ayek siketan, solomoa pe bai, ta gero iten tzie ayeri, batzuk, ba piperras edo seras unteu" - (Saihetsak egiten dira osoan utzi, haiek sikatzen, solomoak ere bai, eta gero egiten diete haiei, batzuk, ba piperrarekin edo zerarekin igurtzi)

tajadea: xerra

tronbile: tronbila, zain multzoa

"Okeleagaiti be sarri esan du, onek tronbil asko deko" - (Okelagatik ere sarri esan dugu, honek tronbil asko dauka)

txarrikie: txerrikoa

"Yatekoa ba, badiñot, negue bada, eurretik seuser beti, e! edo ganean, ganean gero, txarrikie egoten sales asko, txarrikie yaten san ta, iñok eseun kejetan eseas bes, ta orduen ba bixi, bastante ba, urte askoan bixiten sien! oingo moduen gaste, dusti, gasteauak eta sarruak, baye orduen medikuegana bija gitxi ite san! esetu bes medikue!" - (Jatekoa ba, badinot, negua bada, aurretik zer edo zer beti, e! edo ganean, ganean gero, txerrikoa egoten zen lez asko, txerrikoa jaten zen eta, inork

ez zuen kexatzen ezerekin ere ez, eta orduan ba bizi, nahiko ba, urte askoan bizitzen ziren! oraingo moduan gazte, guzti, gazteagoak eta zaharragoak, baina orduan medikuagana bidaia gutxi egiten zen! ezagutu ere ez medikua)

txintxortea: txintxorta

"Txintxortak, txintxortak, ori bai! ori yate ori? Jolin! Danak oten sien begire! Txintxortak yateko bai, ori ixete san, koipea, ba apartetan dakona txarrieri, koipeak apartetan dakona a urtu ite san, eta a urtute sanean, eikera, eiten dana kasulan edo sartenean edo lapikoan edo gu dan lekuen, a urtuten danean dana aparteta san ta gero, gatza etxaten geuntzen apur bet, suo pe alan iten senduen? Bai, ta txintxortak" - (Txintxortak, txintxortak, hori bai! hori jate hori? Jolin! Denak egoten ziren begira! Txintxortak jateko bai, hori izaten zen, koipea, ba apartatzen zaiona txerriari, koipeak apartatzen zaiona hura urtu egiten zen, eta hura urtzen zenean, egikera, egiten dena kazolan edo zartaginean edo lapikoan edo gura den lekuan, hura urtzen denean dena apartatzen zen eta gero, gatza botatzen genion apur bat, zuek ere hala egiten zenuten? Bai, eta txintxortak)

txorisoa, txorixoa: txorizoa

"Txorisoak, e, be eskeite okiten die, arik eta siketu arten" - (Txorizoak, ere eskegita edukitzen dira, harik eta sikatu artean)

"Txorixoa onetan estakit, estot esetu, baye koipea bai, koipea badakit, enbudoa imini ta enbudoagas betetu, ta bero daun artean, otzitu baño lelau koipea, a beteta san, ta eskeite iminte san ta a esan galduten, e?" - (Txorizoa honetan ez dakit, ez dut ezagutu, baina koipea bai, koipea badakit, onila ipini eta onilarekin bete, eta bero dagoen artean, hoztu baino lehenago koipea, hura betetzen zen, eta eskegita ipintzen zen eta hura ez zen galtzen, e?)

"Esan gudot, e, kanpotik etorten dan txorisoari betetan dotzie ori txorisoa eiten deudie eta estait selan esaten dotzian" - (Esan gura dut, kanpotik etortzen den txorizoari betetzen diote txorizo hori egiten dute eta ez dakit zelan esaten dioten)

txuletea: txuleta

"Txuletak iteko ta, txuletarako, ta nik dinotziet, nik esan tzet askori, igerten dake? Ta bayetz, nik askotan emon tziet jenteari" - (Txuletak egiteko eta, txuletarako, eta nik dinotset, nik esan diet askori, igartzen zaie? Eta baietz, nik askotan eman diot jendeari)

urdeye, urdie: urdaia

"Ordun eroaten gendun urdie, eta, gero ba areri botateko arrotza bat edo bi, gordinik eta surten urdie ite sanean, arrotzea bota ara, eta nasteu te yan" - (Orduan eroaten genuen urdaia, eta, gero ba hari botatzeko arrautza bat edo bi, gordinik eta surtan urdaia egiten zenean, arrautza bota hara, eta nahastatu eta jan)

urdine: urdina

"Urdine deko barrutik, lumetxas beteri tau" - (Urdina dauka barrutik, lumatxaz beterik dago)

4.4. ARRAINA

angilea: aingira

angulea: angula, txitxardina

"Angulea baltza da baye egosiskero suri-suri" - (Angula beltza da baina egosiz gero zuri-zuri)

antxoa: antxoa

arrañe: arraina

"Arraño saltzean be, etzerik etze" - (Arraina saltzen ere, etzerik etxe)

"Pipasen andrea ondokarren bixi da, emetik astoas etorte akune, arraño saltzean, astoas emetik ibilte san etzerik etze, peskaue saltzean" - (Pipasen andrea oraindikarren bizi da, hemendik astoarekin etortzen zitzaiguna, arraina saltzen, astoarekin hemendik ibiltzen zen etzerik etxe, arraina saltzen)

asurre: arrainen hezurra

besegue: bisigua

"Origo asak, eta mortzillek, eta besegue, eta gero, edo intxurrek, edo gastañek edo" - (Olio azak, eta odolosteak, eta bisigua, eta gero, edo intxaurrak, edo gaztainak edo)

"Besegue ixite san gauerako preferiduena" - (Bisigua izaten zen gauerako gogokoena)

lebatza: legatza

makalloa: makailoa, bakailaoa

peskea: arraina, arrainkia

peskeue: arraina, arrainkia

"Bardin, bai, bardin, peskeue yate san, e, origo asak edo, en jeneral iste san etzerik geyenatan, e! batzuk, e, origo asak ite seudien, beste batzuk koniflora, eta en jeneral ori ixete san eurretik ite sana, eta gero ba" - (Berdin, bai, berdin, arraina jaten zen, olio azak edo, gehienetan izaten zen etzerik gehienetan, e! batzuek olio azak egiten zituzten, beste batzuek azalorea, eta gehienetan hori izaten zen aurretik egiten zena, eta gero ba)

sardine sarra: sardina zaharra

sardinea: sardina

txitxarroa: txitxarroa

"Eta txitxarroa laban, e, sertu, eta gustetan dako taloa" - (Eta txitxarroa labean, zertu, eta gustatzen zaio taloa)

4.5. ARRAUTZAK

arrotzea, arrutzea: arrautza

"Oin, e, baño alimentu giau euki euen arrotzek, se arek olloak ibilte sien artoas" - (Orain, baino elikagai gehiago eduki zuen arrautzak, ze oilo haiek ibiltzen ziren artoarekin)

arrotze kaskarea: arrautza azala

"Gogortu barik kaskarea, mintze gogortu barik, arrotze kaskarea" - (Gogortu barik azala, mintza gogortu barik, arrautza azala)

gorringo biko arrotzea: gorringo biko arrautzea

"Arrotzek badekus gorringo biko pe iten deures olloak" - (Arrautzak badauzkagu gorringo bikoak ere egiten dituzte oiloek)

gorringoa: gorringoa

kaskarea: azala

mintze: mintza

mintz ustzeskoa, mintzesko arrotzea: mintzezko arrotzea, azal bako arrautza

suringoa: zuringoa

4.6. OGIA-IRINKIAK

abune: irin aguna, ondo ehoko irina

"Bai, bai, ori, yakite seudien, errotakoak nori emon abune ta nori emon txarra" - (Bai,

bai, hori, jakiten zuten, errotakoek nori eman aguna eta nori eman txarra)

amasea: masa, ore

"Amasea, ori txikitute san gero bota ur apur bet, eta, pentzue, ta nasteu in de amasea" - (Masa, hori txikitzen zen gero bota ur apur bat, eta, pentsua, eta nahastu egin eta masa)

artoa: arto irinez egiten den ogia

arto urune, arturune: arto irina

"Arto urunas ite san talo lodie ta opile euken usena ak" - (Arto irinarekin egiten zen talo lodia eta opila zeukan izena hark)

erritxea: erritxea, ogi mota bat

"Oin dausen ogiek, kasureko ori, libreko ogie, ta liberdikoak, orrek, ba ixete sin, txakurrandie ixete san a erritxea, oin, e, librekoa tausent modukoa, ni panadera ibil nas, e? Urteatan bai, or, e, tabernan, e, o nintzanean, Harino Panaderak ekarte oskun, eta nik astoagas, ite neusen iru bija egunean, ite nendun gure barriora ara Gaseanera ta, orra bija bat, beste bijea ite nendun ametik suen, e, etzetik Errekaldetik andik Seminarioa dan oin andik, Olagueta, Deurike, ortik danetik, Artzayora pasta nintzen andik, Artzayotik amen elixaldeti, orko etzeatatik, Bidebarritik, ametik, ba etorte nintzen etxera, ta orrek siren erritxea, esaten dakon, txakurrandi bet ixete san, oingo libreko, liberdiko ogie modukoa, edo obeagoa asko be, baye, erritxea, eta besteari esaten dakon erritxea baye andie, erritxe doblea" - (Orain dauden ogiak, kasurako hori, librako ogia, eta libra erdikoak, horiek, ba izaten ziren, txakurrandia izaten zen erritxe hura, orain, librakoak dauden modukoa, ni okina ibili naiz, e? Urteetan bai, hor, e, tabernan, e, egon nintzanean, Harino Panaderak ekartzen zigun, eta nik astoarekin, egiten nituen hiru bidaia egunean, egiten nuen gure auzotegira hara Gaseanera eta, horra bidaia bat, beste bidaia egiten nuen hamendik zuen, etxetik Errekaldetik handik Seminarioa den orain handik, Olagueta, Deurika, hortik denetik, Artaiora pasatzen nintzen handik, Artzaiotik hamen eliza aldetik, horko etxeetatik, Bidebarritik, hamendik, ba etortzen nintzen etxera, eta horiek ziren erritxea, esaten zitzaion, txakurrandi bat izaten zen, oraingo

librako, libra erdiko ogia modukoa, edo hobea asko ere, baina, erritxea, eta besteari esaten zitzaion erritxea baina handia, erritxe bikoitza)

esea: hezea, irin hezea, labetik pasatu bako irina

euspeko opille: hauspeko sorgina; beheko suaren txingarren azpian egiten den ogia

"Gurean, gure familien artean edo gure serean, euspeko opille, guk ori gitxi iten gendun, e!" - (Gurean, gure familiaren artean edo gure zerean, hauspeko opila, guk hori gutxi egiten genuen, e!)

euspeko taloa: hauspeko sorgina; beheko suaren txingarren azpian egiten den ogia

"Euspeko taloa esate gun" - (Hauspeko taloa esaten zuen)

gari urune: gari irina

igerra: igerra, irin igerra

kuskurre: kuzkurra, kurruskua

lebadurea: legamia

"Ta lebadure ta dusti, eta iminte seun traputxu betegas aspiren tapeute, da urruko goxean ote san ba iru biderres gïao, in seun maseagas iru biderres geyao, fermenteute" - (Eta legamia eta guzti, eta ipintzen zuen traputxo batekin azpiran tapatuta, eta hurrengo goizean egoten zen ba hiru biderrez gehiago, egin zuen masarekin hiru biderrez gehiago, garrastuta)

"Ogie etzeatan ote san afesinoa, lebadureas noberak, e, garie ote san orduen emen, oin, e, garie, labrantzarik erdie eukiten gendun garias igual, ta gero errotan sartu ta aras, ogie iten sendun etzean" - (Ogia etxeetan egoten zen zaletasuna, legamiarekin norberak, garia egoten zen orduan hemen, orain, garia, labrantzarik erdia edukitzen genuen gariarekin beharbada, eta gero errotan sartu eta harekin, ogia egiten zenuen etxean)

mamine: mamia

masea: masa, ore

"A bai, sayegas ta, estait bestea ser botate otzien, ein, e, masea, ta berotu te imini" - (A bai, zahiarekin eta, ez dakit bestea zer botatzen zioten, egin, masa, eta berotu eta ipini)

morokile, morokille: morokila

"Morokileri esaten dotzie ba, urunegas, eta batzuk esneagas be bai, beste batzuk

uregas ite eudien, eta ori iminte san, bueno in uregas ite san, en jeneral, eta gero a platerera bota ta otzitude, talo baten moduen ba lotute san, ta koxu kollareagas esnea, beroari bota, eta a yaten san, e, morokile areri esate otzien" - (Morokilari esaten diote ba, irinarekin, eta batzuek esnearekin ere bai, beste batzuek urarekin egiten zuten, eta hori ipintzen zen, beno egin urarekin egiten zen, gehienetan, eta gero hura platerera bota eta hoztuta, talo baten moduan ba lotzen zen, eta koiu koilararekin esnea, beroari bota, eta hura jaten zen, morokila hari esaten zioten)

ogi asala: ogi azala

ogi baltza: ogi beltza, zahi eta guzti egiten den ogia

"Ogi baltza bai, gerra denporan yan gendun ori" - (Ogi beltza bai, gerra denboran jan genuen hori)

ogie: ogia

"Taloa yate san, ogie be bai ekarte san, baye ogie ya gitxiau, ogie gitxi, gerorau, ba giau, gerorau ba, ogie aumentetan yoan san se, etzean, e, koyuten san gariegas be, errotara eroate san ta an, e, molidu garie ta, gero etzean iten san taloa urun suriegas" - (Taloa jaten zen, ogia ere bai ekartzen zen, baina ogia ja gutxiago, ogia gutxi, geroago, ba gehiago, geroago ba, ogia gehitzen joan zen ze, etxean, koiuten zen gariarekin ere, errotara eroaten zen eta han, eho garia eta, gero etxean egiten zen taloa irin zuriarekin)

ogi mamime: ogi mamia

opile, opille: opila

"Opile esetu dosue?" - (Opila ezagutu duzu?)

"Ori, esan doten, e, bearra in baño lelau, ba eukiten basendun, e, ba, opile" - (Hori esan dudun, beharra egin baino lehenago, ba edukitzen bazenuen, ba, opila)

pistolea: pistola, ogi mota bat, mehea eta luzea

"Berakas sopea pistoleagas inte, gosoa gosoa!" - (Berakatz zopa pistolarekin eginda, gozoa gozoa!)

taloa: taloa

"Taloak bai, beko brasean baye, iminite seran, parrillen imini, eta tosteu" - (Taloak bai, beheko txingarrean baina, ipinita zerean, parrilan ipini, eta xigortu)

"Atxine taloak eta ite sien" - (Antzina taloak eta egiten ziren)

urun berdea: irin hezea, labetik pasatu bako irina

"Ori urun berdea da, ba pase barik labatik, soloan batu, ta artoak siketan direnean, e, labara barik, garandu, eta ya ganaduuri emoten dakon, baye noberetako, igerra" - (Hori irin berdea da, ba pasatu barik labetik, soloan batu, eta artoak sikatzen direnean, labera barik, garandu, eta ja ganaduuri ematen zitzaion, baina norberarentzat, igerra)

urune: irina

"Morokile da uruneas iten dosuna, baye ori be bardin" - (Morokila da irinarekin egiten duzuna, baina hori ere berdin)

"Artoa eroaneskero, urune ohea atarateurien" - (Artoa eroanez gero, irina hobea ateratzen zuten)

urun igerra: irin igerra, labetik pasatukoa

urun surie: irin zuria, gari irina

4.7. ESNEA-GAZTA

esnea, esnia: esnea

"Beyek esnea emoteko, lelango ori da" - (Behiak esnea emateko, lehenengo hori da)

"Esnea peligrosoa ixete san" - (Esnea arriskutsua izaten zen)

"Esnea galdu ite san, olau, e, truboyedunek eta serak iteuesenean" - (Esnea galdu egiten zen, holako, trumoidunak eta zerak egiten zituenean)

esne bitze: esne bitsa

esne galdue: esne galdua

gastai bigune: gazta biguna

"Bai emen iten dana ba bigune da, ba gastai bigune, emen ba atoan, e, iten danean, ensegida egun bet edo bien edo" - (Bai hemen egiten dena ba biguna da, ba gazta biguna, hemen ba atoan, egiten danean, behingoan egun bat edo bian edo)

gastai ure: gaztai ura, gaztaiak egikeran galtzen duen ura

gastaya, gastaye: gaztaia, gazta

"Gastaye ekar doskue" - (Gazta ekarri digute)

"Gastaya, bai etzean in du inos aren aren beyen esneas baye emen gastai gitxi" - (Gazta, bai etxean egin dugu inoiz arean-

arean behiaren esnearekin baina hemen gazta gutxi)

"Ori gastaya, bein learra bota eskero ba gastaya" - (Gazta hori, behin legarra botaz gero ba gazta)

legarra, learra: legarra

"Ba, legarra, koste san, da legarras, e, egosi ite san esnea ta, bota ite akon, learra, eta a ite san gogortu, ta gero, trapu beten barrun sartu, eta ondo estutu te ure kendu, ta gero molde baten edo katillu bet edo seuser imini" - (Ba, legarra, hartzen zen, eta legarrarekin, egosi egiten zen esnea eta, bota egiten zitzaion, legarra, eta hura egiten zen gogortu, eta gero, trapu baten barruan sartu, eta ondo estutu eta ura kendu, eta gero molde baten edo katilu bat edo zer edo zer ipini)

moldea: moldea, gazta egiteko erabiltzen dena

natea: bitsa, kipurra, pikorra

"Ni ibil nas, bueno, ni orduen letxeru ibil nintzenean, e, esnea, be ona, esnean nateas, sera, sera natea ganean dekona, nik, e, axe koite nuen eta, goixa dustietan Bilbora yoate nintzenenean neguen, se, eskuko karroa euki neun Derion, esneak eroateko estasinora, eta, iños estot paseu, estot paseu iños" - (Ni ibili naiz, beno, ni orduan esneketari ibili nintzenean, esnea, ere ona, esnearen kipurrarekin, zera, zera kipurra gainean daukana, nik, huraxe hartzen nuen eta, goiz guztietan Bilbora joaten nintzenean neguan, ze, esku gurdia eduki nuen Derion, esneak eroateko geltokira, eta, inoiz ez dut pasatu, ez dut pasatu inoiz)

4.8. GOZOKIAK-POSTREAK

almimerea: almimera, ardautan egosiko frutak

"Ardabagas ite sana? Iko pasakas, mas pasak, iko pasak, eta okeranak, sagarra edo madarie nasteu, olantxe ite san almimerea" - (Ardauarekin egiten zena? Iko pasekin, mahats pasak, iko pasak, eta okaranak, sagarra edo madaria nahastatu, holaxe egiten zen almimera)

asukerea: azukrea

"Asukerarik estako emon bear" - (Azukrerik ez zaio eman behar)

boda gosoa: boda gozoa, bataio eta ezkontzetan ematen ziren karameluak

"Boda gosoa? Bai orrek karmeloa, konfite botaten dakonak, e, boda gosoak esaten dako gure denporan" - (Boda gozoa? Bai horiek karmelua, konfite botatzen zaionak, boda gozoak esaten zaio gure sasoian)

borrea: borra, kafearen hondarra

"Nik estakit a kafea borrea bajatako edo estakit setako" - (Nik ez dakit hura kafea hondarra baxatzeko edo ez dakit zertarako)

esne sopak: esne zopak

estie: ezitia

"Orduen, e, sasoyan estie asko egon san gurean" - (Orduan, sasoiaren ezitia asko egon zen gurean)

galletea: gaileta

"Galletakas, e, be bai, bai esetu dot or Aldekonen gastea nintzen ni baye, eite eudien bai, orduen ardaua gosotuten neguen iminte san, eta tankatxuek euki situen ekarte egun gustietan ibilte sienak, ta partidea etxateko ara tankatxueta ba litro bat edo bi edo ardaba irikin, asukereagas eta a edaten seudien neguen" - (Gailetekin, ere bai, bai ezagutu dut hor Aldekonen gaztea nintzen ni baina, egiten zuten bai, orduan ardaua gozotzen neguan ipintzen zen, eta tankatxoak eduki zituzten ekartzen egun guztietan ibiltzen zirenek, eta partida egiteko hara tankatxoetara ba litro bat edo bi edo ardaua irakin, azukrearekin eta hura edaten zuten neguan)

iko pasea: iko pasa

intxur saltzea: intxaur saltsa

kanelea: kanela

"Almimerea ori de, batzuk iten deurie ba sagarra ta madarie nasteu, beste batzuk sagarras bakarrik, baye orrek, e, tropiesuek botaten dakos, iko pasak, mas pasak eta okeranak, okeran sikuek, da asukerea ta kanelea" - (Almimera hori da, batzuek egiten dute ba sagarra eta madaria nahastatu, beste batzuek sagarrarekin bakarrik, baina horiek, ondugarriak botatzen zaizkio, iko pasak,

mahats pasak eta okaranak, okaran sikuak, eta azukrea eta kanela)

karameloa: karamelua

"San blasak, e, serak ite sien, lelau bereinketu karmeloak eta" - (San blasak, zerak egiten ziren, lehenago bedeinkatu karmeluak eta)

mas pasea: mahats pasa

menbilloa: menbrilua

"Oingo menbilloa finau da" - (Oraingo menbrilua finagoa da)

mermeladea: mermelada

"Ori sera san, au, e, mermeladea, serak, e, onek, e, menbilloan klasekoa" - (Hori zera zen, hau, mermelada, zerak, hauek, menbriloaren erakoa)

okeran pasea: okaran pasa

papillea: papila, ahia

"A drungulue esakien emoten umeari, e! es, es, nik estot esetu sikan gurian, e! es, bularra estekonak eta serean, ba, urun suriegas inte papillea, esneagas ta urunegas in, eta lar lodi barik, kutxarilleagas emon asukereagas einte, eta artute eudien positik" - (Drungulu hura ez zitzaizen ematen umeei, e! ez, ez, nik ez dut ezagutu behintzat gurean, e! ez, bularra ez daukanak eta zerean, ba, irin zuriarekin eginda ahia, esnearekin eta irinarekin egin, eta lar lodi barik, koilaratxoarekin eman azukrearekin eginda, eta hartzen zuten positik)

pasea: pasa

pastela: pastela

postrea: postrea

"Guk gastañek egosi dus baye aparte, egosi edo erre baye postrean yateko" - (Guk gaztainak egosi ditugu baina aparte, egosi edo erre baina postrean jateko)

sopak: zopak

talo sopak: talo zopak

tostadea: tostada

"Tostadak, bai, orrek karnabalatan ite sien tostadak" - (Tostadak, bai, horiek aratusteetan egiten ziren tostadak)

txokolatea: txokolatea

"Txokolatea emote akien domeka arrasti beten, etorte sien da ala!" - (Txokolatea ematen zitzaizen domeka arrasti baten, etortzen ziren eta tira!)

4.9. EDARIAK

anise: anisa

"Anise edo, koñaka edo, galletakas" - (Anisa edo, koinaka edo, gailetekin)

ardaue, ardaua, ardaba: ardaua

"Bueno! oingoa? Oingoa estot gure nik! Buf! Keba! Lengorik! Lengoa geuse, oingo, oin dana dau barrie, oin dana da, estosu esetan, estosu eser, ta orduen esan egoten, ba, se esangot ba? Ardaua, edo limonadea, edo kopak, olango edari se, oingo edari klaserik esebe esan egoten, oin amen on garenean bai, bai, emen egon garenean bai, baye, baye len es, len esebes" - (Beno, oraingoa? Oraingoa ez dut gura nik! Buf! Bai zera! Lehengotik! Lehengoa gauza, oraingoa, orain dena dago berria, orain dena da, ez duzu ezagutzen, ba, zer esango dut ba? Ardaua, edo limonada, edo kopak, holako edari ze, oraingo edari motarik ezer ere ez zen egoten, orain hamen egon garenean bai, bai, hemen egon garenean bai, baina, baina lehen ez, lehen ezer ere ez)

ardau gosoa: ardau gozoa

"Ardau gosoa neguen edaten bai" - (Ardau gozoa neguan edaten bai)

"Bai, ori selan, ardau gosoa oin be badau ori, e! Oin be egoten da baye, diferente san ori selan esate otzen?" - (Bai, hori zelan, ardau gozoa orain ere badago hori, e! Orain ere egoten da baina, desberdina zen hori zelan esaten zioten?)

barrikea: barrika, upela

"Barrikea mogidu eiten deu, ta a mogitea deu txarra txakolinek, gero, sera, loitu iten da mogidu eskoan" - (Barrika mugitu egiten du, eta hura mugitzea du txarra txakolinak, gero, zera, lohitu egiten da mugituz gero)

"Gure aite defuntue pakixu seas ba sertzte akon? Ta txakoline ta ataten, niri estast gustetan, e? Gurean aiste bieri guste ixen dakie txakoline niri es, baye gure aite defuntuek bakixu ser iteauen, ikoan orriek, ikoan orriek batu, eta egosi lapiko andi beten, barrikeari atzenengo pasu iteko agas" - (Gure aita defuntuak badakizu zerekin ba zertzen zitzaion? Eta txakolina eta ateratzen, niri ez zait gustatzen, e? Gurean ahizpa biri gustatu izan zaie txakolina niri ez, baina gure aita defuntuak badakizu zer egiten zuen, ikoen orriak,

ikoen orriak batu, eta egosi lapiko handi baten, barrikari atzeneko paso egiteko harekin)

"Barrikek, e, irureun da berrotamarrekoa taus, ni tekoas, da txikerra tekoas, bi" - (Barrikak, hirurehun eta berrogeita hamarrekoak daude, nik dauzkat, eta txikerrak dauzkat, bi)

barrike neusie: barrika nagusia

barrike txikerra: barrika txikarra

bokoya: bokoia, upel handia

"Gero iminten dosu egun beten edo sapaldute egon deitela berton, bokoi beten edo, bañeratan edo" - (Gero ipintzen duzu egun baten edo zapalduta egon dadila berton, bokoi baten edo, bainuontzietan edo)

"Matzak, akabukoak ite sienean, imini, lotzea sien, serak, asalak, imini, bokoi bat, goye kendute etxateko olan, e, ta ara etxa ba erdirarte orrek, eta beste erdie uras betetu, esebes giau, e?" - (Mahatsak, azkenak egiten zirenean, ipini, lotzen ziren, zerak, azalak, ipini, bokoi bat, goia kenduta botatzeko hola, eta hara bota ba erdiraino horiek, eta beste erdia urarekin bete, ezer ere ez gehiago, e?)

bitze: bitsa

"Igertan dako nos dauen egosite, se egosten dauela, beti dau bitze botaten kanporantza, kanporantza barrikoa, beteri tauela, ta betarik espadau, arinau loitzean da, e? Garbitu iten da obeto barrikoa betarik badau, ta egoten da botaten, bitze bitze bitze, eta gero a akabetan danean tapeu" - (Igertzen zaio noiz dagoen egosita, ze egosten dagoela, beti dago bitsa botatzen kanporantz, kanporantz barrika, betarik dagoela, eta betarik ez badago, arinago lohitzten da, e? Garbitu egiten da hobeto barrika betarik badago, eta egoten da botatzen, bitsa bitsa bitsa, eta gero hura amaitzen denean tapatu)

dollarea: dolarea

"Eta gero bota sera, ori, dollarara, dollarara bota ta apurtu, ta ure kendu, ta gero barrikera bota, paseu ondo, pasadoretik, eta gero barrikera bota" - (Eta gero bota zera, hori, dolarera, dolarera bota eta apurtu, eta ura kendu, eta gero barrikera bota, pasatu ondo, iragaztontzitik, eta gero barrikera bota)

edarie: edaria

enkortxada, kortxada: enkortxadorea, botilari kortxoa egiteko erabiltzen den erreminta

espitxe: tapotza

"Espitxeas sulo inte estatzu utzituko sera, barrikoa" - (Tapotzarekin zulo eginda ez zaizu hustuko zera, barrika)

"Espitxe da, ser bat, suloa, se bat inte barrikoa ondo badekosu, sulo bat inte, axea espadatzu sartzean, andik atakosu, kuartillu bet" - (Tapotza da, zer bat, zuloa, ze bat eginda barrika ondo badaukazu, zulo bat eginda, haizea ez bazaizu sartzen, handik aterako duzu koartilo bat)

kafea: kafea

"Orrek, e, erropea garbita seun andreak beti esate seun, olan, e, lapikotxu bet edo tanka baten edo ite seun kafea, eta in an kafea, eta gero, palue sartze otzen, ba, kafeari" - (Horrek, arropa garbitzen zuen andreak beti esaten zuen, hola, lapikotxu bat edo tanka baten edo egiten zuen kafea, eta egin han kafea, eta gero, paloa sartzen zion, ba, kafeari)

koñaka: koinaka

"An, e, allege gintzesenean kanposanture, ba, koñaka emon yoskun edateko, seraitik, infesinoaitik edo" - (Han, ailegatu ginenean kanposantura, ba, koinaka eman zigun edateko, zeragatik, infekzioagatik edo)

"Koñaka edo olangoa, iru bet litro lau barrikeari buelta batzuk iteko ta, beste ser bat emoten tzo" - (Koinaka edo holakoa, hiru bat litro lau barrikari buelta batzuk egiteko eta, beste zer bat ematen dio)

kopea: kopa

kortxoa: kortxoa

"Kortxoa, oin, gomea sartzen tzie, pelotatxu bet, gomea, ta orduen kortxoa sartzen gentzen, ta laneas" - (Kortxoa, orain, goma sartzen diote, pilotatxo bat, goma, eta orduan kortxoa sartzen genion, eta artilearekin)

"Imini kortxoari, trapu bet, ser bat, ta ondo sartu" - (Ipini kortxoari, trapu bat, zer bat, eta ondo sartu)

"Ori beste bat, kortxoa ondo sartu bea dako serari, ona" - (Hori beste bat, kortxoa ondo sartu behar zaio zerari, ona)

limonadea: limonada

metxea: metxa

"Barrikea garbitako modu asko dau, batzuk, e, metxea" - (Barrika garbitzeko modu asko dago, batzuk, metxa)

"Metxea, polborea da ori, emon sue ta barrure bota, ta a erreten deuenan, ak kea sabaltan deu" - (Metxa, bolbora da hori, eman sua eta barrura, eta hura erretzen duenean, hark kea zabaltzen du)

"Barrikea kondisinoatan espadau, metxea esta erre be iten" - (Barrika baldintzetan ez badago, metxa ez da erre ere egiten)

moskorra: mozkorra

mostoa: mostoa

orujoa: lapa

pitipine: pitipina, mahats hondarrekin egiten den edaria

"Pitipine, ori sagarrakas eiten da ori matzana estot ukusi inos pitipine iten, sagarras bai, sagarran asalas" - (Pitipina, hori sagarrekin egiten da hori mahatsarena ez dut ikusi inoiz pitipina egiten, sagarrarekin bai, sagarren azalarekin)

prentsea: pentsa

sagardoa: sagardoa

"Ori ixeten da lelangos, kentzean dako sagardoa, sagardoa ure, kentzean dako ta lotzean da asala, ta a asala imin biosu barrike baten, ta ureas betetu gero, eta ak asalak emote otzo gustu, apartekoa" - (Hori izaten da lehenengoz, kentzen zaio sagardoa, sagardoa ura, kentzen zaio eta lotzen da azala, eta azal hura ipini behar duzu barrika baten, eta urarekin bete gero, eta azal hark ematen dio gustu, apartekoa)

"Sagardo on bat esin dot in nik" - (Sagardo on bat ezin dut egin nik)

"Saspireun litro sagardo i situen mojak" - (Zazpiehun litro sagardo egin zituzten mojek)

sangrie: sangria

"Gure deunak sangrie, ardaua utzean be bai, sangrie ardaua gitxi gusta akonak, sangrie, asukeras, asukera askoas, e? Es asukera barik, asukera askoas" - (Gura duenak sangria, ardaua hutsean ere bai, sangria ardaua gutxi gustatu zaionak, sangria, azukrearekin, azukre askorekin, e? Ez azukre barik, azukre askorekin)

txakoline: txakolina

"Lelauko bakixu lelau geusek, lelauko sarrak, ba txakoline etzean iteitik edo, baye emen bean es, bean amen serean iteuren, amen

serean be bai amen, baye ya orre pe galdu dire, Artebakarren, an surtidoran ondoan" - (Lehenagoko badakizu lehenago gauzak, lehenagoko zaharrak, ba txakolina etxean egiteagatik edo, baina hemen behean ez, behean hamen zerean egiten zuten, hamen zerean ere bai hamen, baina ja horiek ere galdu dira, Artebakarren, han gasolindegia ondoan)

"Askok botate otze txakolineri, garie edo artoa, ori be txarra ixen bea da, moskorra emoten deu orre pe" - (Askok botatzen diote txakolinari, garia edo artoa, hori ere txarra izan behar da, mozkorra ematen du horrek ere)

"Txakoline, apurtu in bea da, lelau" - (Txakolina apurtu egin behar da, lehenago)

"Aurten be betetute dau gurean, txakoline bota bea da, sobreute, bai gero setako? Esteu inok edaten ta" - (Aurten ere beteta dago gurean, txakolina bota behar da, sobratuta, baina gero zertarako? Ez du inork edaten eta)

"Txakolinek esteu mogimenturik gure, e?" - (Txakolinak ez du mugimendurik gura, e?)

txakolin gorrie: txakolin gorria

txakolin surie: txakolin zuria

txispea: mozkorra

ure: ura

"Suek ure emon dostesue" - (Zuek ura eman didazue)

5. JANTZIAK

Janzkeraren gaineko berbak banatzeko egin ditugun azpi-atalak arropak, oinetakoak, osagarriak eta, azkenik, joskigintza beharrari dagokiona izango dira.

5.1. ARROPAK

arkondarea: alkondara

"Arkondarean ganean olan manga barik manga barik ibilte san botoyakas, oin be badaus" - (Alkondararen ganean hola mahuka barik mahuka barik ibiltzen zen botoiekin, orain ere badaude)

atorrea: atorra

"Atorrea goneari esate otzien, gonea edo, yantziri, atorrea" - (Atorra gonari esaten zioten, gona edo, jantziari, atorra)

"Es, se gure denporan, ba, atorrea, orduen, ya segiduau san, ya jente barrie ya beste forma bat, baye atorrea nik beti entzun dot ori" - (Ez, ze gure sasoian, ba, atorra, orduan, ja segituago zen, ja jende berria ja beste era bat, baina atorra nik beti entzun dut hori)

baskea: baska, marinera; andrazkoen jaka modukoa

"Baskea da oingo marinerea, baskea, baska baltza" - (Baska da oraingo marinera, baska, baska beltza)

"Beran ama pe igual ibilko seun ori, e? Baskea ta gonea" - (Beraren amak ere beharbada erabiliko zuen hori, e? Baska eta gona)

"Gonea ta baskea esate otzien, ori nik esetu dot, geure etzean esetu dot eta" - (Gona eta baska esaten zieten, hori nik ezagutu dut, geure etxean ezagutu dut eta)

batea: bata, jantzia

"Egun gustietan baskea ibilteudien, ba guk, e, kasureko etzean bata bat ibilten dun moduen, ba, a baskea ibilteudien sensilloaua, eta gero, urtetako ba, atxinekoak nora urtetaudien? Bilbora lantzean bin, ta beste, eleixara, eleixara ixete san salidea" - (Egun guztietan baska erabiltzen zuten, ba guk, kasurako etxean baten bat erabiltzen dugun moduan, ba, baska hura erabiltzen zuten sinpleagoa, eta gero, irteteko ba, antzinakoek nora irteten zuten? Bilbora lantzean behin, eta beste, elizara, elizara izaten zen irteera)

bruse: brusa

elastikue: elastikoa

"Elastikue ba mangabako ser bat ixete san, gurean sikan ori, gurean aite defuntue pe ibilte seun" - (Elastikoa ba mahuka bako zer bat izaten zen, gurean behintzat hori, gurean aita defuntuak ere erabiltzen zuen)

"Oin be ibilten deu jenteak olangoa, elastikue, ori atxine, gixonak olango barik esien ibilten" - (Orain ere erabiltzen du jendeak holakoa, elastikoa, hori antzina, gizonak holako barik ez ziren ibiltzen)

erropa laburre: arropa laburra

erropa lusea: arropa luzea

erropea: arropa

"Erropea ba sarragas barrie igual ite san ordun, ba esegoan modurik eta" - (Arropa ba zaharrarekin berria beharbada egiten zen orduan, ba ez zegoan modurik eta)

"Ure yoate san an, eta gero errekatik, yoate san ure, eta ango errekatiko ure aprobetxetan gendun guk erropea garbitako" - (Ura joaten zen han, eta gero errekatik, joaten zen ura, eta hango errekatiko ura aprobetxatzen genuen guk arropa garbitzeko)

frakea: praka

"Esotzon nik estekot edaderik ya ortarako bai grasies in ditu gure amak, e? Bai ixerakas eta bai frakakas, maonesko frakakas" - (Esan zion nik ez daukat edaderik ja horretarako baina graziarekin egin ditu gure amak, e? Bai izarekin eta prakekin, mahoizko prakekin)

galtzerdie, kaltzerdie: galtzerdia

"Nik ama be esetu dot, puntu iten, galtzerdiek iten" - (Nik ama ere ezagutu dut, puntu egiten galtzerdiak egiten)

"Bai galtzerdiek iten es, Iñaki, laneas bai, baye onek esan gu ixin deuna beste geuse ba ta, es onen amak esteu olakorik in" - (Baina galtzerdiak egiten ez, Iñaki, artilearekin bai, baina honek esan gura izan duena beste gauza bat da, ez honen amak ez du holakorik egin)

gona pliseue: gona plisaua

gonea, gonia: gona

"Gurean nik, ama ba atxineko klasera esetu dot, e, buruko pañeluegas eta gero ba baskea, eta beko sera, gonea, amantala" - (Gurean nik, ama ba antzinako erara ezagutu dut, buruko zapiarekin eta gero ba baska, eta beheko zera, gona, amantala)

jersea: jertsea

"Jersea be alrebes yantzi dosu" - (Jertsea ere alderantziz jantzi duzu)

kaltzetine: galtzerdia

"Kaltzetine, ba etzean ineko kaltzetinek aspitik" - (Galtzerdia, ba etxean egineko galtzerdiak azpitik)

kamisea, kamixea: kamisa, mahuka bako goitik beherako azpiko gona antzekoa

kamisetea: kamiseta

marinerea: marinera

mediea: galtza

soñekoa: soinekoa

"Soñeko barrie imin deu" - (Soineko berria ipini du)

"Ai selango soñeko barrie, elegante in dotzien, e!" - (Ai zelako soineko berria, dotore egin dioten, e!)

txalekoa: txalekoa

"Ta sartute seurien, e, txalekoan boltzan" - (Eta sartzan zuten, txalekoaren poltsan)

yakea: jaka

yantzie: jantzia

"Yantzien ordes, guk yantzie dekun moduen, ba persona edadekoa, nik esetu dot neure aistea be, olango erropeas, sarrena" - (Jantzien orde, guk jantzia daukagun moduan, ba pertsona edadekoa, nik ezagutu dut neure ahizpa ere, holako arroparekin, zaharrena)

"Bai yantzi baltzas neu be nau inte" - (Bai jantzi beltzarekin neu ere nago eginda)

5.2. OINETAKOAK

abarka gomaskoa: gomazko abarka

"Gero gure denporan ya, gure denporauan, nok inik esan egoten abarkak eta orrek beste abarka gomaskoak, neu pe ibil dot asko, abarka gomaskoa, ta sapatea ori bortzegi untzea dekosena aspian? Au seminarioa ixen sana, or ibil nas ni, amaika urte edo, amabi urte bearrean, ta orrako neguen ba, arekas yoaten giñen" - (Gero gure sasoiaren ja, gure sasoirago, nork eginik ez zen egoten abarkak eta horiek beste abarka gomazkoak, neuk ere erabili dut asko, abarka gomazkoa, eta zapata hori bortzegia iltzeak dauzkana azpian? Hau seminarioa izan zena, hor ibili naiz ni, hamaika urte edo, hamabi urte beharrean, eta horrako neguan ba, haiekin joaten ginen)

abarka kordela: abarka kordela

abarka mantea: abarka manta, abarken gainetik ipintzen zirenak busti ez egiteko

abarkea: abarka

"Bai esetu doas, estoas ibili inos baye esetu doas, orrek, e, dire, ba, manta sati betzuk, oseake, mantea be esta, onek, e, estait oin selan be esan ta, lanean antzekoa da, baye algodoya edo olan da, arek kuadruk, arek saldu ite siren dendan" - (Bai ezagutu ditut, ez ditut erabili inoiz baina ezagutu

ditut, horiek, dira, ba, manta zati batzuk, hau da, manta ere ez da, hauek, ez dakit orain zelan ere esan eta, artilearen antzekoa da, baina algodoia edo hola da, lauki haiek, haiek saldu egiten ziren dendan)

"Gero kaderan batu, ta gero abarkeas, abarkan kordelas, one tausen moduen amarreute, abarkean kordelas amarreu" - (Gero oinean batu, eta gero abarkarekin, abarken kordelarekin, hauek dauden moduan amarratuta, abarkaren kordelarekin amarratu)

"Gure aite defuntuek abarkak beti ite oskusen guri, eskolara yoateko ta" - (Gure aita defuntuak abarkak beti egiten zizkigun guri, eskolara joateko eta)

abarketea: abarketa

"Eta gero ba an Saspi Kalleatan edo, abarketak falta dosusela edo kaltzetinek falta dosusela edo plasan estait ser dauena, an, e, ba iten gendun geuren konprea ta gero etzera" - (Eta gero ba han Zazpi Kaleetan edo, abarketak falta dituzula edo galtzerdiak falta dituzula edo plazan ez dakit zer dagoena, han, ba egiten genuen geurearen erosketa eta gero etxera)

abarkuntzea: abarkuntzea, abarkak josteko eta zuloak egiteko erabiltzen den iltzea edo eztena

"Plantilla, ol bat, ta aras ebei narrue, eta gero, beste bat, e, dau, abarkuntze esaten tzune guk, eskine batetik, ba, destornilladora moduen, ta bestea punte sorrotza, ta, aras, seras, jo malluas, ta narrue, markeu, eta beste narru satitxu bet, fine, onek kordela dekien moduen, narru satitxu bet eta, a sartu barrure, andik, e, suloatatik" - (Plantila, ohol bat, eta harekin ebaki larrua, eta gero, beste bat, dago, abarkuntzea esaten dioguna guk, izkina batetik, ba, destornilagailua moduan, eta bestea punta zorrotza, eta, harekin, zerarekin, jo mailuarekin, eta larrua, markatu, eta beste larru zatitxo bat, fina, hauek kordela daukaten moduan, larru zatitxo bat eta, hura sartu barrura, handik, zuloetatik)

"Ba abarkuntzea, puntea eukite seudien olan sorrotza eta bestea eukite seudien ba, lime bat edo, olan, e, sera, eta aregas ite siren,

kasureko au da, abarkean, e, buelta, esta? Ta onegas ite siren danak, areas, jo malluegas, eta aregas ite siren, kortetxuek, kortetxuek, ta areri sartute sakon, kordela, andik, kordela edo narrue, berari kenduko, abarkeari kendukoa, eta an danean buelta gustien iten dakona" - (Ba abarkuntzea, punta edukitzen zuten hola zorrotza eta bestea edukitzen zuten ba, lima bat edo, hola, zera, eta harekin egiten ziren, kasurako hau da, abarkaren, buelta, ezta? Eta honekin egiten ziren denak, harekin, jo mailuarekin, eta harekin egiten ziren, ebakitxoak, ebakitxoak, eta hari sartzen zitzaion, kordela, handik, kordela edo narrua, berari kenduko, abarkari kendukoa, eta han denean buelta guztian egiten zitzaiona)

bortzegie: bortzegia

"Bortzegiek geuk ibil dus eskolara aspian pintxoakas" - (Bortzegiak geuk erabili ditugu eskolara azpian pintxoekin)

"Bortzegieri, egoten dires orrek sapata, bastante, serak, narruskoak direnak eta areri emote dakien ori, bigundu deitesan, gogor-gogor badaus" - (Bortzegiei, egoten dira zapata horiek, nahiko, zerak, narruzkoak direnak eta haiei ematen zitzaien hori, bigundu daitezen, gogor-gogor badaude)

botea: bota

"Garrikoa danerako gure aitek, ta sapatak iños bes botak beti" - (Gerrikoa denerako gure aitak, eta zapatak inoiz ere ez botak beti)

kordela: kordela

"Andik sartze otzosan kordelak" - (Handik sartzen zizkion kordelak)

"Oingo moduko kordelik es" - (Oraingo moduko kordelik ez)

"Oingo moduko gitxi, kordelakas olan ikusi dot nik, e, one tekon moduen olan, gero kordelakas, bueno oin be badaus orrek, baye ostantzean ametik ona, botoi bat ametik ona satitxu bet olan narruena ta botoya a ixiteko a be asko" - (Oraingo moduko gutxi, kordelekin hola ikusi dut nik, honek daukan moduan hola, gero kordelekin, beno orain ere badaude horiek, baina osterantzean hamendik hona, botoi bat hamendik hona zatitxo bat hola

narruarena eta botoia hura ixteko hura ere asko)

kordoya: kordioa

lustrea: lustrea, betuna

"Lustrea bai, orrek kajatxuek, orrek kajak, baltza, granatea edo gure dana ba, orre bai, ta eskubilletxu bet egote san, t´areas sepilluas emon ta gero, brillue atateko" - (Lustrea bai, kaxatxo horiek, kaxa horiek, beltza, granatea edo gura dena ba, horiek bai, eta eskuilatxo bat egoten zen, eta harekin eskuilarekin eman eta gero, dirdira ateratzeko)

lustre kajea: lustre kaxa

sapata bortzegie: zapata bortzegia

"Eskeite bai, eskeite iminte san eta, sapata bortzegieri be, orreri untzeduneri be, aregas, garbitu, eta aregas, e, useta san" - (Eskegita bai, eskegita ipintzen zen eta, zapata bortzegiei ere, horiei iltzedunei ere, harekin, garbitu, eta harekin, erabiltzen zen)

sapata sorue: zapata zorua

sapatea: zapata

"Bai, ori esate gurien, emen egon san, e, Derion ortxe, Artebakarreko seme bat, serak, sapatak arregleta situsena, eta arek euki situsen esku ganek danak" - (Bai, hori esaten zuten, hemen egon zen, Derion hortxe, Artebakarreko seme bat, zerak, zapatak konpontzen zituena, eta hark eduki zituen esku gainak denak)

sintea: zinta, abarketak lotzeko erabiltzen direnak

sorue: zorua

takoya: takoia

tatxuelea: tatxuela, bortzegi zapaten zoruan erabiltzen zirenak

"Erretratu bet ikus dot nik tatxuelakas" - (Erretratu bat ikusi dut nik tatxuelekin)

txankoloa: txokoloa

"Es, es orrek txankoloak estoas inos be ibili, txankoloak esaten tzie orreri, orrek estoas ibili inos" - (Ez, ez horiek txokoloak ez ditut inoiz ere erabili, txokoloak esaten diete horiei, horiek ez ditut erabili inoiz)

5.3. OSAGARRIAK

adornue: apaingarria

amentalala, amantala: amantala

antiejuak: betaurrekoak

arrakadea: arrakada, belarrietakoa

"Nik beti esetu dot ama, arrakada baltzakas"
- (Nik beti ezagutu dut ama, arrakada beltzekin)

baberue: baberoa

"Pañelu bet ibilte seun, eta gero, yaten edo, agora emoten dakonean seuser baberu bet" - (Zapi bat erabiltzen zuen, eta gero, jaten edo, ahora ematen zaionean zer edo zer babero bat)

bolantea: bolantea

boltzea: 1. poltsa. 2. poltsikoa

boltzilloa: poltsikoa

bufandea: bufanda, lepokoa

"Lengo denporan es, uniku imite sana ba, seuser beroa, samako mine deko ta, imin bea da bufanda bat" - (Lehenago denboran ez, soilik ipintzen zena ba, zer edo zer beroa, samako mina dauka eta, ipini behar da lepoko bat)

burrukotzak: buruko-orratza

"Orre tires, buruko pañelue sujetetan eroaten seurien, e, personak, pañelue eroateudienak, burrukotzak" - (Horiek dira, buruko zapiari eusten eroaten zuten, pertsonak, zapia eroaten zutenak, buruko-orratzak)

buru baltzak: orratz buru beltzak, buruko orratz mota

"Burrukotzak, burudunek, buru baltzak ixete siren da" - (Buruko-orratzak, burudunak, buru beltzak izaten ziren eta)

"Lenao orrek, e, burrukotzak, buru baltzak eta oten sien, eta orrek, e, nik orreri beti errespeto tziet, enas orren lagun ixen ni" - (Lehenago horiek, buruko-orratzak, buru beltzak eta egoten ziren, eta horiek, nik horiei beti begirune diet, ez naiz horien lagun izan ni)

buru surie: orratz buru zuriak, buruko orratz mota

buruko pañelue: buruko zapia

dindilie: dindilia, dindirria, bildria

"Arrakadak nik ondikarren amanak ibilten dotas baye orrek ixen sien olan, ori baixen dindili txikitxuagoas, baye dindilie kendu neuntzien ta goyen olantxe, onen moduen iminte dekotas" - (Arrakadak nik oraindinokarren amarenak erabiltzen ditut baina horiek izan ziren hola, hori baino dindili txikitxoagoarekin, baina dindilia

kendu nien eta goian holaxe, honen moduan ipinita dauzkat)

erlejue, erlojue: erlojua

"Ni tabernan or bean ibilte nintzenean, egon san gixon bat an, ganbetarra, mutil sarra san, ta gure aiten, defuntuen, lagune sana, ta bost ogerleko page situn erlojuek, eta dana da, olango erlojue, bastante pisue dekona, e? Ta dana loradune, sera, dekona eskiñetik" - (Ni tabernan hor behean ibiltzen nintzenean, egon zen gizon bat han, ganbetarra, mutil zaharra zen, eta gure aitaren, defuntuaren, laguna zena, eta bost ogerleko ordaindu zituen erlojuak, eta dena da, holako erlojua, nahiko pisua daukana, e? Eta dena loreduna, zera, daukana izkinatik)

erroa: erroa, buruko zapiaren adarra

eskapidora: moinoa egiteko erabiltzen zen orrazi modukoa

"Eskapidora, an emoteutziesan bueltak, ta iminteurien pañelue, gero erroak atara, iru erro, gure ama defuntea iru erroas ibil da beti" - (Eskapidora, han ematen zizkioten bueltak, eta ipintzen zuten zapia, gero erroak atera, hiru erro, gure ama defuntua hiru errekin ibili da beti)

fajea: paxa

faldoia: faldoia

"Orduen faldoirik esan egon, eta, oneri, oneri ba, neure bautisoko oyalas bautise san gure Yone Miren be bai" - (Orduan faldoirik ez zen egon, eta, honi, honi ba, neure bataioko oihalarekin bataiatu zen gure Jone Miren ere bai)

gafak: betaurrekoak

garrikoa: gerrikoa

gorantxea: gonantza, gorantza

"Gorantxea, ba fajea, fajea, oin faja bat eroaten badeu persona batek ba atxineko gorantxea ba orixe ixete san" - (Gorantza, ba paxa, paxa, orain paxa bat eroaten badu pertsona batek ba antzinako gorantza ba horixe izaten zen)

gordosola: guardasola, aterkia

guantea: eskularrua

"Oin badaus guanteak" - (Orain badaude eskularruak)

iru puntako pañelue: hiru puntako zapia

karterea: kartera, diru-zorroa

kollarra: idunekoa

"Berakatzakas in kollarra ta saman imini, se batzuri samara igoten dotzie ta ito iten deuriesela" - (Berakatzekin egin idunekoa eta saman ipini, ze batzuei samara igotzen diete eta ito egiten dituztela)

kurtzetako pañelue: hiru puntako zapia; ume txikerrei idunaren inguruan janzten zitzaiena kokoteari eusteko

"Bai pañelue, kurtzetakoa, are pe ongo dire gurean baten batzuk, bai are pe ongo dies" - (Bai zapia, hiru puntakoa, haiek ere egongo dira gurean baten batzuk, bai haiek ere egongo dira)

lasue: begizta

moko pañelue: moko zapia

"Partikerea ba berak etzean inde, gureak sikanero eroate seuen, kordel bategas atzetik eta eurretik amen alboan amarreute, partikerea gero gonatik sartze seuen eskue, diru asko esan eongo baye eunkesea moko pañelue eukingo eudiela, eurrera" - (Patrika ba berak etxean eginda, gureak behintzat eroaten zuen, kordel batekin atzetik eta aurretik hamen alboan amarratuta, patrika gero gonatik sartzen zuen eskua, diru asko ez zen egongo baina besterik ezean moko zapia edukiko zutela, aurrera)

oyala: oihala

"Eurerei ba kamisetxue eta sera oyala, da oyalan aspian trapue, da bueltak emon garririk eta gero imiñi" - (Eurerei ba kamisatxoa eta zera oihala, eta oihalaren azpian trapua, eta bueltak eman gerririk eta gero ipini)

"Oyalak yantzite siren bai, oyalak imite yakosan umeari batu, batu!" - (Oihalak janzten ziren bai, oihalak ipintzen zitzaizkion umeari batu, batu!)

"Gurian badau ondiñokarren ba sera, oyala esate yakona, olango puntilletzarrakas, ondiño gurian nire bautisokoa badau, bixi da, bixi da! Eta gero ba, apur bet, orduen, ba len dana erropa lusea ta dana serean ta, au, gure, alabea jayo sanean, e, ba ondiñokarren eroan iten sien baye, laburrao, erropa laburrao beste klase baten faldoya ta beste klase baten, baye orduen, ak, e, serak, beko oyalak, yakeagas juego ite seuren" - (Gurean badago oraindikarren ba zera, oihala esaten zitzaiona, holako puntilla tzarrekin,

oraindik gurean nire bataiokoa badago, bizi da, bizi da! Eta gero ba, apur bat, orduan, ba lehen dena erropa luzea eta dena zerean eta, hau, gure, alaba jaio zenean, ba oraindikarren eroan egiten ziren baina, laburrao, arropa laburrao beste mota baten faldoia eta beste mota baten, baina orduan, hark, zerak, beheko oihalek, jakarekin bat egiten zuten)

pañelue: zapia

"Baltza atxine, pañeludun andrak eroateurien" - (Beltza antzina, zapidun andreak eroaten zuten)

partikerea, fartikerea: patrika, partikera

"A! Ta andreak eroate seuen sera, partikerea" - (A! Eta andreak eroaten zuen zera, patrika)

paxea: paxa

"Paxea imini ite akien, seran antzeko bat, esango tzut, benda antzeko bat baño fuerteao" - (Paxa ipini egiten zitzaien, zeraren antzeko bat, esango dizut, benda antzeko bat baino gogorrao)

"A! A bueltaka bueltaka bueltaka eta gero, sera, paxea, olango ser bat, luse bat, ta buelta ta buelta ta kordelakas amarreu" - (A! Hura bueltaka bueltaka bueltaka eta gero, zera, paxa, holako zer bat, luze bat, eta buelta eta buelta eta kordelekin amarratu)

petakea: petaka

sinturoya: gerriko uhala

tirantea: tirantea

"Frakak etzean in de ba, gero imini tiranteak atzean kurtzea emon da eurrean botoitxu banas, olantxe" - (Prakak etxean egin eta ba, gero ipini tiranteak atzean gurutzeta eman eta aurrean botoitxo banarekin, holaxe)

"Gure edadean esan on tiranterik" - (Gure edadean ez zen egon tiranterik)

trapue: trapua, oihalaren azpian ipintzen zena
"Ba orduen, e, oyala, trapue lelau ta gero oyala, ta paxea esate otzien faja bat, iminte yotzien, e, garrien batute, eta aregas! aregas ya" - (Ba orduan, oihala, trapua lehenago eta gero oihala, eta paxa esaten zioten paxa bat, ipintzen zioten, gerrian batuta, eta harekin! harekin ja)

txapela: txapela

"Txapelik onek esteurie eroan" - (Txapelik hauek ez dute eroan)

"Egurdien amabietan beti, or be bai, gure bestealdeko aitite, esaten gontzen, sarra sana, soloan badabil be kendute seun txapela, ta aitearenka ta" - (Eguerdian hamabietan beti, hor ere bai, gure bestealdeko aitaita, esaten genion, zaharra zena, soroan badabil ere kentzen zuen txapela, eta aitarenga eta)

txapine, txapiñe: txapina, artilezko galtzerdia eta baita umeen galtzerdi txikarrei ere esaten zaie

"Kaltzetine imin bearrean igual eroan situsen abarkak, e, txapin barik barrutik, eta gero imini, ba pastorean antzean ser suri bet, seran, e, frakean ganetik" - (Galtzerdi ipini beharrean berdin eroan zituen abarkak, txapin barik barrutik, eta gero ipini, ba artzainen antzean zer zuri bat, zerean, prakaren gainetik)

"Nik eiten ikus doas, txapinek, baye neuk estoas ein inos" - (Nik egiten ikusi ditut, txapinak, baina neuk ez ditut egin inoiz)

txorie: txoria, umei uletan eta egiten zaizkien begiztak

txotoa: txotoa

urregorrie: urregorria, urrea

urresurie: urrezuria, zilarra

"Ogerleko surie ba, urresko orrek, e, urre surie, bost pesetakoa" - (Ogerleko zuria ba, urrezko horiek, urrezuria, bost pezetakoa)

5.4. JOSKIGINTZA

adabue: adabua, ipinkia

"Bai adabuek imiñi, atzean, belun ganetan, bueno suo pe bai esetuko senduen etzean, esta? Estosu esetu?" - (Bai adabuak ipini, atzean, belaun gainetan, beno, zuek ere bai ezagutuko zenuten etxean, ezta? Ez duzu ezagutu?)

albandorrotza: albandorrotza

"Albandorrotza baye, ba tau albandorrotza kaltzerdiek eta errepasetan ibilte sana, ta beste ba tau ya estait, albandorrotza esaten geuntzen guk, baye olan andi bet, koltxak eta yosteko ibilte sana, aregas ite sien, sartu" - (Albandorrotza baina, bat dago albandorrotza galtzerdiak eta errepasatzen ibiltzen zena, eta beste bat dago ja ez dakit, albandorrotza esaten

genion guk, baina hola handi bat, koltxak eta josteko ibiltzen zena, harekin egiten ziren, sartu)

algodoya: algodoia

artasiek, artesiek: artaziak

"Ondo esateko nik, e, Frantzitik ekar nun, e, artesiek eta, batzuk" - (Ondo esateko nik, Frantziatik ekarri nuen, artaziak eta, batzuk)

artxo lanea: artilea

ayubietea: aiubeta; gorantza lotzeko kordel mota.

barrena: barrena, azpildura

botoya: botoia

"Baskea san ori gonea, kasu betereako sinturia ba, koite otzien, e, se esango do pa? Sinturea aonen moduen, nik au dekoten moduen au goneau, olan sinturea, esta? Ta gero gonea ori ixurregas ixete san, eta laburre san, ta gero baskea san ametik, sabalik, ta manga luseagas, botoyakas, edo serrepolleda esate otzien, serrepolleda edo botoyakas, t'orreri baskea esate otzien" - (Baska zen gona hori, kasu baterako, gerria ba, hartzen zioten, zer esango dut ba? Gerria haonen moduan, nik hau daukadan moduan gona hau, hola gerria, ezta? Eta gero gona hori izurrarekin izaten zen, eta laburra zen, eta gero baska zen hamendik, zabalik, eta mahuka luzearekin, botoiekin, edo zerrapoilera esaten zioten, zerrapoilera edo botoiekin, eta horri baska esaten zioten)

dobladillue: azpildura

erea: era, jantzietan iruntziaren kontrakoa

eskuko makiñea: eskuko makina jostekoa

fraka barrena: fraka barrena

firue: firua, haria

"Firue edo estait ser ixeten san" - (Firua edo ez dakit zer izaten zen)

gona barrena: gona barrena

gorue: gorua

irobalea, idobalea: firu balea, hari balea

"Es, narrue kasureko, ba, selan esango dotzut? Ametik kuadru in, kuadru in au, eta au iminten dakon, olan, aregas, e, doble iten da an, aregas ori iten dakon yosi, aregas abarkuntzeagas ta idobaleagas yosi ite san ori, ta ameti dustitik orrek esan doten moduen kortadatxuek kortadatxuek, aregas abarkuntzian, e, seraas malluegas

ta aregas jo, ol bat eukite seun iminte olan, e, iteko geusek, ta aregas, ta gero amen, erredondoa, amen erredondoa, ta ortik etorte san amen yosi au, eta ortik etorte san ametik, orreas abarkuntzeas inekoa, ta dana narruen, e, narrue ebaite san fine, ta narruegas, beran narruegas buelta gustien artuten dakon, ta gero kordelak iminten dakosen kurtzean, ba areri sartuteko lekue iten dakon, e, buelta gustien" - (Ez, narrua kasurako, ba, zelan esango dizut? Hamendik laukia egin, laukia egin hau, eta hau ipintzen zitzaion, hola, harekin, e, bikoitza egiten da han, harekin hori egiten zitzaion josi, harekin abarkuntzearekin eta firubalarekin josi egiten zen hori, eta hamendik guztitik horiek esan dudan moduan ebakitxoak ebakitxoak, harekin abarkuntzearen, zerarekin mailuarekin eta harekin jo, ohol bat edukitzen zuen ipinita hola, egiteko gauzak, eta harekin, eta gero hamen, biribila, hamen biribila, eta hortik etortzen zen hamen josi hau, eta hortik etortzen zen hamendik, abarkuntze horrekin eginekoa, eta dena narruan, narrua ebakitzen zen fina, eta narruarekin, beraren narruarekin buelta guztian hartzen zitzaion, eta gero kordelak ipintzen zitzaizkion gurutzean, ba hari sartzeko lekua egiten zitzaion, buelta guztian)

iruntzie: iruntzia

ixurre: izurra

"Ixurre goyen ite sana ixete san, baye ostean, e, ba, gona pliseue esate san" - (Izurra goian egiten zena izaten zen, baina ostean, ba, gona plisatua esaten zen)

kordoya: kordioa

kortxeta: kortxeta

lanea: artilea

"Ite yotzien lanea be sartu, eta gero atara, eta an denpora ona ite seunean, oingo axeak eta orretan, atara, yo palu betzukas eta arrotu apur bet, eta kapasedunek es, esebe" - (Egiten zioten artilea sartu, eta gero atera, eta han eguraldi hona egiten zuenean, oraingo haizeak eta horretan, atera, jo palo batzuekin eta harrotu apur bat, eta kapaxadunak ez, ezer ere ez)

magala: magala

makiñea, makinea: makina, josteko makina

"Nik estoas esetu makiñea baixen" - (Nik ez ditut ezagutu makina baizen)

"Buruen imini, makinea, ta yoaten san ona eusoatara gurea, yosten, eta an ite seun, e, bueno gasteantzat eta sarrantzat eta bear dana" - (Buruan ipini, makina, eta joaten zen hona auzoetara gurea, josten, eta han egiten zuen, beno gazteentzat eta zaharrentzat eta behar dena)

mangea: mahuka

"Mangagas eta lusea, soltuen, ba esan gu dot sabalean, sinturoirik es esebe barik, baten dana, ta mangak, ba, mangak edo olan, edo aputxu bet laburtxuau, loitu esteixan" - (Mahukarekin eta luzea, soltean, ba esan gura dut zabalean, gerrikorik ez ezer ere barik, baten dena, eta mahukak, ba, mahukak edo hola, edo apurtxo bat laburtxoagoa, lohitu ez daitezzen)

maona: ehun mota bat

orrostokie: orraztokia

"Orrostokie en jeneral ba orrotzak eta burrukorrotzak eta orretarikoak" - (Orraztokia gehienetan ba orratzak eta buruko-orratzak)

"Orrostokien bai, bai, are pe peligrue dekola ara be, ara be sorginek sartzen direla ta ori bai" - (Orraztokian bai, bai, hark ere arriskua daukala hara ere, hara ere sorginak sartzen direla eta hori bai)

"Orrostokien, e, orrotzak sertute, sorginek ibilte itusela, bai" - (Orraztokian, orratzak zertuta, sorginak ibiltzen dituela, bai)

"Orrostokie bai, neu pe euki dot eta, eta nire amama pe bai, orrostokie bai" - (Orraztokia bai, neuk ere eduki dut eta, eta nire amamak ere bai, orraztokia bai)

orrotza: orratza

"Es, badaus orrotzak, puntu itekoa, da au, atxiñeko, orrek, e, koltxak yosteko orrotza, suloagas, gero albandorrotza txapiñek konpontako, ta gero yosteko normala" - (Ez, badaude orratzak, puntu egitekoa, eta hau, antzinako, horiek, koltxak josteko orratza, zuloarekin, gero albandorrotza txapinak konpontzeko, eta gero josteko normala)

"Gurean amak berak ite oskusen guri, iminte oskun atzean, e, orrotza, orrotza ba berak eskuen, ta atzean iminte seun patata sati bet, len esa otzuten moduen patatea? Patatea atzean" - (Gurean amak berak egiten zizkigun guri, ipintzen zigun atzean, orratza, orratza ba berak eskuan, eta

atzean ipintzen zuen patata zati bat, lehen esan dizudan moduan patata? Patata atzean)

panea: pana, ehun mota

pañue: oihala, ehuna

pliseue: plisatua

puntillea: puntila

puntue: puntua

puntu orrotza: puntu egiteko orratza

sapie: zapia, ehuna

"Ixera be bai, bai, ixera be bai, erdien iminte otzien ba sera, sapie" - (Izara ere bai, bai, izara ere bai, erdian ipintzen zioten ba zera, zapia)

serrapollerea, serrepollidea: arropetan erabiltzen diren kortxeta antzekoak

sinturea, sinturia: garría erropetan

"Nik pentzetan dot, e, ori ixurregas, sinturan artute sala" - (Nik pentsatzen dut, hori izurrarekin gerrian hartzen zela)

telea: ehuna, tela

"Telea erosi, eta gero ba festoya etzean, ite akien" - (Tela erosi, eta gero ba festoia etxean, egiten zitzaien)

titerea: titarea

trabesa: traba orratza, kate orratza

"Guk trabesa esaten dotzu, e?" - (Guk trabesa esaten diogu, e?)

"Ta trabesa estosu esaten suk ala?" - (Eta trabesa ez duzu esaten zuk ala?)

troñue, troñu: troinua, korapiloa

"Burue deko olan, ta emen deko troñu bete les, ta a iten da koyu te apurtu, seinde emeti gora" - (Burua dauka hola, eta hemen dauka troinu baten legez, eta hura egiten da koiu eta apurtu, zeinda hemendik gora)

yosteko makiñea: josteko makina

yostorratza, yostorrotza: jostorratza

"Len eroate san partikerea, partikerea san, ba olango tela sati bet, erditik lelekoena ta gero garrire amarraute, eta esate gurien arek partikieran daros orrek, a, ba artasi betzuk be bai, yostorrotzak, orrek, e, serean" - (Lehen eroaten zen partikara, partikara zen, ba holako ehun zati bat, erditik lehenengoa eta gero gerrira lotuta, eta esaten zuten hark partikaran daroatza horiek, ba artazi batzuk ere bai, jostorrotzak, horiek, zerean)

yosturea: jostura

6. BIZILEKUA

Bizilekuari emango diogun atal honetan etxearen inguruan batu ditugun berbak aurkeztuko dira. Azpi-atalak etxea egiteko materialak, etxearen egitura, atea-leihoak-eskailera, sua, argia, ura, sueteko tresnak, altzariak, etxeko arropak, bogada eta garbikuzia dira.

6.1. ETXEA EGITEKO MATERIALAK

amasea: masa, adreiluak ipintzeko egiten dena

"Bustine ba sera itea les, ba, amasea seras itea les, ba areas, eta sementoas les ori sertu, busti ondo ta sertu, te gero areas" - (Buztina ba zera egitea legez, ba, masa zerarekin egitea legez, ba harearekin eta porlanarekin legez hori zertu, busti ondo eta zertu, eta gero harekin)

area: harea

are arrie: hare-harria

"Are arrie ekarten gendun kantaratik" - (Hare-harria ekartzen genuen harrobitik)

arrie: harria

"Bueno lelengo asi nitzen ba, arriegas, orrek marmolistek ite situen bearrak, arriek, gurdias, kanposanture ekarten, amabost urte, amasei urtas asi nitzen, aite defuntue ba, etzean lotzearren" - (Beno lehenengo hasi nintzen ba, harriarekin, marmolista horiek egiten zituzten beharrak, harriak, gurdiaekin, kanposantura ekartzen, hamabost urte, hamasei urterekin hasi nintzen aita defuntua ba, etxean lotzearren)

burnie, burneye, burriñea: burdina

"Batzuk burneyas eukiten yeuden, burneyas iminte" - (Batzuek burdinarekin edukitzen ziaten, burdinarekin ipinita)

karea: karea

"Berdetan, e, guk, e, orduen ganaduek ilte sien, beyek, ilte sien ta erremadadan, subasteu ite sien, eta a ekarten gendun, berdetan ta etzean sabaldu, ta karea sabaldu ganetik, karea sabaldu ganetik, eta, siketan sanean, gero batu te eskei, bea danean bajatu te ebei" - (Berdetan, guk, orduan ganaduak hiltzen ziren, behiak,

hiltzen ziren eta ermandadean errematan eman egiten ziren, eta hura ekartzen genuen, berdetan eta etxean zabaldu, eta karea zabaldu gainetik, karea zabaldu gainetik, eta, sikatzen zenean, gero batu eta eskegi, behar denean baxatu eta ebaki)

kristela, kristala: kristala

"Oin kristela imini bearrean, plastikoas imiten du te, alture andiao imineskon ba oboto, inbernadero tipoa" - (Orain kristala ipini beharrean, plastikoarekin ipintzen dugu eta, altuera handiagoa ipiniz gero ba hobeto, berotegi erara)

ladrillue: adreilua

"Bean ladrilluas asi eta, eines eines, ba bueltaka-bueltaka, buelta gustien altzeu gorano, ta goyen, in masea da areas goiko, akabue dan lekuen" - (Behean adreiluarekin hasi eta, eginez-eginez, ba bueltaka-bueltaka, buelta guztian altxatu goraino, eta goian, egin masa eta harekin goiko, akabua den lekuan)

ola: ohola

"Aori da, angarillea ixengo da ser bat asta bi egurrekas ta gero olas inte" - (Haori da, angarila izango da zer bat aste bi egurrekin eta gero oholarekin eginda)

orma suloa: horma zuloa

ormea: horma

"Ormea iminten dako an, etzeari" - (Horma ipintzen zaio han, etxeari)

"Bai leku betzutan, e, leku betzutan, e, ormeas eukiten deurie, ta beste batzutan, e, alderdiek libre, nik, e, alderdi biek, e, libre dekosenak esetu doas danak" - (Bai leku batzuetan, leku batzuetan, hormarekin edukitzen dute, eta beste batzuetan, alderdiak libre, nik, alderdi biak, libre dauzkanak ezagutu ditut denak)

sementoa: porlana

"Suten erdien guk euki du, e, selan esate otzien, umeak oñes ikisteko, ser bat, ol bat olan, e, surrune bakixu ser dan? Surrune, bueno ba, surrunen antzeko bat, ite seun gure aite defuntuek olan imini goyen, ol bat, eta bean ite seun sementoan suloa, an bean sartze seun puntea ta gero beste puntea goyen, eta ite otzon berak, olan dolean" - (Suetearen erdian guk eduki dugu, zelan esaten zioten, umeak oinez ikasteko, zer bat, ohol bat hola, zurruna badakizu zer den? Zurruna, beno ba,

zurrunaren antzeko bat, egiten zuen gure aita defuntuak hola ipini goian ohol bat, eta behean egiten zuen porlanean zuloa, han behean sartzen zuen punta eta gero beste punta goian, eta egiten zion berak, hola bikoitzean)

sine: zina

"Sine esaten dakon, ba selan esplikeko dotzut nik? Oin, e, kasureko, ojalateruek ibiltzen deudien, e, ser barra batzuk eta, arek, sine areri esaten dotzen, e? Eta a iminteudien, ser bategas berotu, ta sulo bat edo, tapetako" - (Zina esaten zitzaion, ba zelan azalduko dizut nik? Orain, kasurako, iturginak erabiltzen duten, zer barra batzuk eta, haiek, zina hari esaten zioten, e? Eta hura ipintzen zuten, zer batekin berotu, eta zulo bat edo, tapatzeko)

tallea, tellea. teila

"Talle sati bet sutunik, eta erramue" - (Teila zati bat zutunik, eta erramua)

"Bueno guk emen goyen, nik estot notetan giau, baye bera goasenean bai, e? Orra bera goasenean, e, trena baño aputxu bet gorau, or dau kamiño bat artes artes eta teliek altzeta deituesena be bai, e?" - (Beno guk hemen goian, nik ez dut igartzten gehiago, baina behera goazenean bai, e? Horra behera goazenean, trena baino apurtxo bat gorago, hor dago kamino bat artez-arte eta teilak altxatzen dituen ere bai, e?)

"Euri iteueanean, talletik bajata san, lantzean bitartetik sartzea san, eurie, baye" (Euria egiten zuenean, teilatik baxatzen zen, lantzean bitartetik sartzen zen, euria, baina)

talle kaskue: teila kaskoa

txatarra: txatarra

"Gero or seuser txatarra edo topetan deure ta iten ditues bijak, e?" - (Gero hor zer edo zer txatarra edo topatzen dute eta egiten dituzte bidaiak, e?)

ugerra: ugerra

untzea: untzea, iltzea

"Untzea sartu te limeas noberak prepareu, segun se ganadu dekosen" - (Iltzea sartu eta limarekin norberak prestatu, segun ze ganadu daukazun)

6.2. ETXEAREN EGITURA

agea: habea

"Ori da buru les, burue, gero beste ageari sertuteko" - (Hori da buru lez, burua, gero beste habeari zertzeko)

aldamioa: aldamioa

"Aldamio baten ganean imini trabes" - (Aldamio baten ganean ipini trabes)

arkue: arkua

arrakala: arrakala, arraildura, pitzadura

astillea: arrakala, arraildura

"Eskinetik a an astillen sartze san" - (Izkinatik hura han arrakalan sartzen zen)

bastarra, basterra: bazterra

"Guk beti in du, satzak, bastar batera danak, ara bota danak" - (Guk beti egin dugu, satsak, bazter batera denak, hara bota denak)

bea: behea

bixilekue: bizilekua

biximodu biko: bizitza biko

biximodu biko etzea: bizitza biko etxea

biximodue: 1. bizimodua. 2. bizitza

bixitzea: bizitza

"Bixitze bi egon sintzien suok" - (Bizitza bi egon zineten zuek)

egala: hegala, teilatuaren hegala, kaminoaren hegala, edozein izan daiteke

"An kamiñoan egalean daus, arek" - (Han kaminoaren hegalean daude, haiek)

"Oin be ebei deu, an esun da, an, e, emen, emetiko alanbrean egalean angotxuen" - (Orain ere ebaki du, han ezagun da, han, hemen, hemendiko alanbrearen hegalean hangotxoan)

engantxea: engantxea

entradea: sarrera

errasa: errasa, maila

"Lurren errasean, lurren ganean iminte, ure kantidadea sartzea san gure gortan" - (Lurraren mailan, lurraren ganean ipinita, ura kantitatea sartzen zen gure kortan)

erresumea: erresuma

erretallea: erreteila, teilatuko teilak aldatzea

ertza: ertza

eskiña, eskinea: izkina, kantoia, hegala

"Yoadi or iturri eskinera" - (Joan hadi iturri izkinara)

eskusadue: eskusatua, komuna

etzea: etxea

"Emen lelau esegoan ba, au urrekua, etze bat, emen, e, au beste bat emen eurtean, au, au bes, ta gero au bes" - (Hemen lehenago ez zegoen ba, hurrengo hau, etxe bat, hemen, hau beste bat hemen aurtean, hau, hau ere ez, eta gero hau ere ez)

"Emen in sanean seminarioa ori etzea bota in gurien, ta gero ortik yoan gintzesan, beste etze bat in gun gure aitek, ta ara yoan gintzesan bixiten, ta ya an kanbie in san, orrek gausek" - (Hemen egin zenean seminarioa etxe hori bota egin zuten, eta gero hortik joan ginen, beste etxe bat egin zuen gure aitik, eta hara joan ginen bizitzen, eta ja han aldatu egin zen, gauza horiek)

etze albo: etxe albo

etze aldea: etxe-aldea

etze aurea: etxe aurea

etzebarrena: etxe barrena

etxe ingerue: etxe ingurua

"Eta eukiten gendun ementxe etze ingeruen, on san, oin desaparesidu in da, se ba beste lora batzuk edo sartu die ta desaparesidu da" - (Eta edukitzen genuen hementxe etxe inguruan, egon zen, orain galdu egin da, ze ba beste lore batzuk edo sartu dira eta galdu da)

"Artatxoriek, txindorrek, ta orrek en jeneral, sosoa pe sertuten die, etze ingerure etorten die" - (Artatxoriak, txindorrek, eta horiek gehienetan, zofoak ere zertzen dira, etxe ingurura etortzen dira)

etxe ondoa: etxe-ondo

"Bai txindorra bai etze ondoan noperas, ibiltzen die, sosoa pe bai" - (Bai txindorra bai etxe-ondoan norberarekin, ibiltzen dira, zofoak ere bai)

etxepea: etxepea

frontala: frontala

gallurre: gailurra

"Erremu satie, etzea altzeta sanean gora, talletue botatakonean, yoan, e, topeu erramue, ta, a yoste san atzekalderdien, t'aurreko alderdien, gallurrean" - (Erramu zatia, etxea altxatzen zenean gora, teilatua botatzen zitzaionean, joan, topatu erramua, eta, hura josten zen atzeko alderdian, eta aurreko alderdian, gailurrean)

goitegie: goitegia; kamararen ganean libre egoten den alderdia

goterea: itogina
goye: goia, sabaia
ituxurea: itaxura

"Ituxurea, ure, eurie iten duenean goteratik etorten dana, guk iminten gendun, esales egon, ure serean ba bidoyak, edo balde sabalak, eta, ituxurea, koxu ituxuretik ure!" - (Itaxura, ura, euria egiten duenean itaxuretik etortzen dena, guk ipintzen genuen, ez zen legez egon, ura zerean ba bidoiak, edo balde zabalak, eta, itaxura, koiu itaxuretik ura!)

kamarea: kamara, ganbara

"Kamaran daus lastatien, fardoak" - (Kamaran daude lastategian, fardoak)

kantoya: kantoia

kaperioa: kaperioa, gapirioa

"Kaperioa toas ta ayen ganean gero ola yosi" - (Gapirioak doaz eta haien ganean gero ohola josi)

karrajue: karrajua

kuartue: logela

"Bai, baye danean es gendun eukin guk, sutean ta kuartuetan, baye gortan ta pasilloan ta olan es, eskeite san, e, ori, karburo argie, ta aren argire" - (Bai, baina denean ez genuen eduki guk, suetean eta geletan, baina kortan eta pasabidean eta hola ez, eskegitzen zen, hori, karburo argia, eta haren argira)

"Nik oin dekoas, oin bi dekoas or, alango arriek, or, e, aurrean, e, aite defuntuek ei euenean, abitasino bi atara, kuartu bi, ta airen, ta, or daus bi" - (Nik orain dauzkat, orain bi dauzkat hor, halako harriak, hor, aurrean, aita defuntuak egin zuenean, kamera bi atera, gela bi, eta airean, eta, hor daude bi)

lastatie, lastie: lastategia

"Aldea etzeak, lastie eukite yeurien dana sabalik" - (Alde-etxeak, lastategia edukitzen ei zuten dena zabalik)

"Oingo etzeak danak doas sementoagas, baye orduen ixen san ola, eta altzeta gunean sue, eta lastatien egoten basan, ba bedarra, dana erreta san" - (Oraingo etxeak denak doaz porlanarekin, baina orduan izan zen ohola, eta altxatzen zuenean sua, eta lastategian egoten bazen, ba belarra, dena erretzen zen)

"Gurean oten sien, lenau, ba, lastatie egoten san bai, bedarras beterik, esta? Eta igual

amalau katu be, oten sien, geur be, oin be bost edo sei or txabolan arregletan dies" - (Gurean egoten ziren, lehenago, ba, lastategia egoten zen bai, belarraz beterik, ezta? Eta beharbada hamalau katu ere, egoten ziren, gaur ere, orain ere bost edo sei hor txabolan konpontzen dira)

"Gero ganekoa sikitan danean bueltea emon ta, gero, lastatire" - (Gero gainekoa sikatzen denean buelta eman eta, gero, lastategira)

lasti goyena: lastategi goiena

latea: lata

"Tallean aspian, latea" - (Teilaren azpian, lata)

obrea: obra, beharra, konponketa

"Nik, e, emen, e, bolea, nibelegoa, oseake, goiti berakoa, bolea, plomosko bat, tope gendun, emen, obrea in gendunean, arregle neunean, kuartu bi arregle neusenean, bentanak andiaoak, se bentanak txikerrakas sien, ta bentanak andiaoak, eta, an ormasulua eiten gabixela an, agertu yakon ser bat" - (Nik, hemen, bola, mailakoa, hau da, goitik beherakoa, bola, berunezko bat, topatu genuen, hemen, obra egin genuenean, konpondu neunean, gela bi konpondu nituenean, leihoak handiagoak, ze leihoak txikerrekin ziren, eta leihoak handiagoak, eta, han horma zuloa egiten gabiltzala han, agertu zitzaion zer bat)

okollue: okoilua

"Or labea euki te, labea bota euen ta laban, ta neu pe gortan euki neun, an laban, e gero egurre edo istorie eukite neun te, gortan, e, ganadue, gitxi, iru bei baño eneusen euki, ordun epokan ta, gortako okolluen iminte neusen, baye gortea, goyen fastidieu, salea gortakoa, salea, ageak" - (Hor labea eduki eta, labea bota zuen eta labean, eta neuk ere kortan eduki nuen, han labean, gero egurra edo istorioak edukitzen nuen eta, kortan, ganadua, gutxi, hiru behi baino ez nituen eduki, orduan sasoian eta, kortako okoiluan ipintzen nituen, baina korta, goian hondatu, sala kortakoa, sala, habeak)

"Or okolluen esaten due" - (Hor okoiluan esaten dugu)

ola: ohola

pasilloa: iraganbidea

portalea, portala: ataria

"Au portalen eukiten gendun, eta ortxe bueltaka" - (Hau atarian edukitzen genuen, eta hortxe bueltaka)

"Gortan, e, sartzea san ta, bea euki eules kantarilloa, eskapetauen, baye etze aurrera, portalea be ondatu ite askun" - (Kortan, sartzen zen eta, behea eduki zuen lez estolda, eskapatzen zuen, baina etxe aurrera, atartea ere hondatu egiten zitzaigun)

postea: postea, zutabea

"Antxe dau ormean kontran edo poste baten kontran estait dauen baye, olantxe dau armeute" - (Hantxe dago hormaren kontra edo poste baten kontra ez dakit dagoen baina, holaxe dago armatuta)

"Eurreko postea jo bea deu" - (Aurreko postea jo behar du)

poiala: poiala, zutabeen beheko aldean dagoen harrizko oinarria

puntala: poiala, zutabeen beheko aldean dagoen harrizko oinarria

salea: 1. egongela. 2. behea, zola; gehienetan egurrezkoa izaten da. 3. kamara, ganbara

"Salea, ta goye be bai, salea egurrezkoa da" - (Sala, eta goia ere bai, sala egurrezkoa da)

saloya: saloia, egongela

sapatea: zapata

"Sapatea da ba, postean, ganean iminten dana" - (Zapata da ba, postearen, ganean ipintzen dena)

simendue, simindue: oinarria

"Lenau etzeak areas bakarrik, areas bakarrik! Gurean ormak danak areadunak sin, eta simindu barik" - (Lehenago etxeak harearekin bakarrik, harearekin bakarrik! Gurea hormak denak hareadunak ziren, eta oinarri barik)

"Aor dau etzea simindu bakoa" - (Haor dago etxea oinarri bakoa)

solibea: soliba

"Bai solibe pe badaus, bai txikerraoak gero, salan iminten dienak" - (Bai solibak ere badaude, bai txikerragoak gero, salan ipintzen direnak)

suetea, sutea: suetea, sukaldea

"An etzean enas on baten baño, bai tximini barik on san sutea" - (Han etxean ez naiz egon baten baino, baina tximinia barik egon zen suetea)

talletue, talletue: teilatua

"An eukin seurien sutea, bean lurre, eta goyen talletue" - (Han eduki zuten suetea, behean lurra, eta goian teilatua)

"Emetik age bat, betik, talleture doana" - (Hemendik habe bat, behetik, teilatura doana)

tejabanea: tejabana

"Gortea emen ixete les, ta emen apur bet, terrenoa teko desnibela, ta an in seun tejabana bat, eta ara egunero etorte san, guas egon san urte askotan, ba, mutu bet" - (Korta hemen izatea lez, eta hemen apur bat, terrenoak dauka jauskera, eta han egin zuen tejabana bat, eta hara egunero etortzen zen, gurekin egon zen urte askotan, ba, mutu bat)

"Esate tzet saltzeako baye es, an dekos tejabana ganean ta, saldu barik" - (Esaten diot saltzeko baina ez, han dauzka tejabana ganean eta, saldu barik)

txixeposoa: txiza-putzua

6.3. ATEA-LEIHOAK-ESKILARA

atea: atea

"Atea ixite dau" - (Atea itxita dago)

"Aterik esan ixiten orduen" - (Aterik ez zen ixten orduan)

"Etzeko atean alde bietatik, ekarri lusea, besterako txikerra paye, luseak eta bueltan, ta gero berakatza, garie, ta artoak oten basiren, e, ba arteko urtekoak, orduen ondikarren etor barik baye, urtekoak, arek, artu buru bi bata besteari amarreute, arek an krusean, ta garie, ta berakatzak imite akosan, ta gortan be bardin" - (Etxeko atean alde bietatik, ekarri luzea, besterako txikerrak baina, luzeak eta bueltan, eta gero berakatza, garia, eta artoak egoten baziren, ba arteko urtekoak, orduan oraindinokarren etorri barik baina, urtekoak, haiek, hartu buru bi bata besteari lotuta, haiek han gurutzean, eta garia, eta berakatzak ipintzen zitzaizkion, eta kortan ere berdin)

balkoya: balkoia

balustrea: balustra, leihoen kanpoko aldean egoten diren burdinazko hesiak

bentanea: leihoa

eskillara barrena: eskailera barrena

eskillara burue: eskailera-burua

eskillara mallea: eskailera maila

eskillarapea: eskailerapea

"Amentxe eskillerapean aspitxuen, olloak eukiten gendusen, ta andik imini olan, e, sara, otea esaten geuntzen, gortean ganean, eta ara igoteko olloak ba gauetan, ta gero goxetan erretiretako, eta olloa eukin, baye, sera tomatero itzelak, tomatero andiekas, e? Txitek, se atxine etzean ataten gendusen txitek eta, arroau, e, Fidel Trabodunekoak esnea eroateun Aldekonera, ta oneri etorte esa otzen, Iñaki! Badekosus, e, etzean dana dekosu ser dustie, ta klaro! Bai, txitek falta dus, estait, bi edo ixen sien, bi edo asko eroaten esin atrebidu, bi edo, eta, yoan gure bosu ointxe Artégane parean karroan, isterretik amarreute dekies karroan ganean, jitanuek" - (Hamentxe eskailerapean azpitxoan, oiloak edukitzen genituen, eta handik ipini hola, zera, otea esaten genion, kortaren gainean, eta hara igotzeko oiloak ba gauetan, eta gero goizetan erretiratzeko, eta oiloa eduki, baina, zera tomatero itzelak, tomatero handiekin, e? Txitekin, ze antzina etxean ateratzen genituen txitak eta, harroago, Fidel Trabodunekoak esnea eroaten zuen Aldekonera, eta honi etorrita esan zion, Iñaki! Badauzkazu, etxean dena daukazu zer guztia, eta jakina! Bai, txitak falta ditugu, ez dakit, bi edo izan ziren, bi edo asko eroaten ez ziren ausartu, bi edo, eta, joan gura baduzu oraintxe Artégane parean karroan, izterretik amarratuta dauzkate karroaren gainean, ijitoek)

eskillarea, eskillerea, eskilerea: eskailera

"An egon san, bean eukin gendun, gortea, ta eskine batetik, sera, eskillarak eta sutera" - (Han egon zen, behean eduki genuen, korta, eta izkina batetik, zera, eskailerak eta suetera)

"Klaro an akabeta san, eta andik eskilleratatik bajatute siren orrek" - (Jakina han amaitzen zen, eta handik eskaileretatik baxatzen ziren horiek)

giltzea: giltza

kisketa: kisketa

mallea: maila, eskailera maila

pasadora: kisketa

trankea, trangea: tranka

"Imite yotzien, palue les, estaka bitan sera, trankea esate yotzien, imin dotzesu trankea ateari?" - (Ipintzen zioten, paloa legez, taketa bitan zera, tranka esaten zioten, ipini diozu tranka ateari?)

txaramela: txaramela

"Txaramela, txaramela, ta atekoan eukite san, ba, mogidute sana bat, eta ori bestea es, fijo, txaramela paseu te ixite fijo lotute sana, baye atekoa es, atekoa mogidu, mogite san bardin, kanpotik eta barrutik ixiteko" - (Txaramela, txaramela, eta atekoan edukitzen zen, ba, mugitzen zena bat, eta beste hori ez, fijo, txaramela pasatu eta itxita fijo lotzen zena, baina atekoa ez, atekoa mugitu, mugitzen zen berdin, kanpotik eta barrutik ixiteko)

6.4. SUA

auspoa, euspoa: hauspoa

bartzune: bertzuna, errautsa kentzeko erabiltzen den burdinazko tresna

"Bartzune da ori ba, oin esta olangorik usetan, lelau beko sue iten sanean, an bartzune ibilte san sertuteko, talaburnie be bai taloak erretako" - (Bertzuna da hori ba, orain ez da holakorik usatzen, lehenago beheko sua egiten zenean, han bertzuna ibiltzen zen zertzeko, talo-burdina ere bai taloak erretzeko)

bekosue, besue: beheko sua

"Ure berotu beko suen da gero beratan imini balde sabalatan" - (Ura berotu beheko suan eta gero beratzen ipini balde zabaletan)

brasea: txingarra

"Bai, an eta gero, eutze edo brasea edo ganera bota opile esaten dakon" - (Bai, han eta gero, hautsa edo txingarra edo gainera bota opila esaten zitzaion)

burduntzie: burruntzia

egurriketza: egur ikatza

eutze: hautsa, errautsa

"Bai berotu ite san, eta gero, nik estakit ser etxaten dotzen! Ara bera! An eutze eukite seun an bean, nik estait ser" - (Bai berotu egiten zen, eta gero, nik ez dakit zer botatzen zion! Hara behera! Han hautsa edukitzen zuen han behean, nik ez dakit zer)

"Gabon eguneko eutze, urrungo goxean batze san, eta soloatan sabalta san" - (Gabon eguneko hautsa, hurrengo goizean batzen zen, eta soroetan zabaltzen zen)

gantxoa: gantxoa

"Sei gantxoas euki nun nik" - (Sei gantxorekin eduki nuen nik)

garra: garra, sugarra

ikes montoya: ikatz piloa

iketza: ikatza

ilintie: ilintia

"Ixete san, ba, beko suko, ba ser bat, ilintie, ilintie sartu" - (Izaten zen, ba, beheko suko, ba zer bat, ilintia, ilintia sartu)

katea: katea, tximinia garbitzeko erabiltzen zen katea bat

kea: kea

"Keas txarto daus" - (Kearekin txarto daude)

kearte: ke-arte

kedarrea: kedarra

"Euri iteuenean, e, kedarrea plaust!" - (Eurria egiten zuenean, kedarra plaust!)

"Eutze da au, surteko eutze, au da surteko eutze, da au da kedarra" - (Hautsa da hau, surteko hautsa, hau da surteko hautsa, eta hau da kedarra)

labatzue, lagatzue, laratzue: laratzua, laratza
"Au da labatzue" - (Hau da laratzua)

metxea: metxa

"Bai, ori origoagas iminte seudien basuetan, kasureko, baye argie gitxi iten deu, e! Arek gitxi ite seun, ta metxa bat bota ara, ta aren metxeak emon sue, ta origoagas arek ite seun" - (Bai, hori olioarekin ipintzen zuten basoetan, kasurako, baina argia gutxi egiten du, e! Hark gutxi egiten zuen, eta metxa bat bota hara, eta haren metxak eman sua, eta olioarekin hark egiten zuen)

metxerue: metxeroa

mistoa: mistoa

"A mistoas oin be manejetan da" - (Hura mistoarekin orain ere maneiatzen da)

"Eta orduen a, ba, geyen agintan deuenak, orduen emoteun, amatetan yoate sanak segun se diru agintan dan, segun se diru agintan dan, ba a mistoa amatetan yoate siren, eta gero, a ya akabetan danean, ya geyen dirue emoten deunak, a lotuten san aregas" - (Eta orduan hura, ba, gehien agintzen duenak, orduan ematen zuen, amatatzen joaten zenak segun ze diru agintzen den, segun ze diru agintzen den,

ba misto hura amatatzen joaten ziren, eta gero hura ja amaitzen denean, ja gehien dirua ematen duenak, hura lotzen zen harekin)

parrillea: parrila

"Au Federikok iñeko parrillea da" - (Hau Federikok egineko parrila da)

prasea: txingarra

su bixie: su bizia

"Sue atoan iteko pinue, pinu ona badau, se pinuek su bixie deko, oin, e, sera aguante gitxikoa, esta? Baye, atoan iteko sue pinue, oin, e, sera, ba obea, sera, aratxa ta artea ta orrek erramak" - (Sua atoan egiteko pinua, pinu ona badago, ze pinuak su bizia dauka, orain, zera iraupen gutxikoa, ezta? Baina, atoan egiteko sua pinua, orain, zera, ba hobea, zera, haritza eta artea eta abar horiek)

sue: sua

sugarrie: sugarria, sua egiteko erregarria

surtea: surtea

"Lapikoa imin dot surten" - (Lapikoa ipini dut surtan)

surteko eutze: surteko hautsa

"Surteko eutze eukite seun te estait ser iten dotzen areas! Eta palu betegas buelta, buelta, bueltak erain, ta gero erre kara! Arek erropa gustiek artu, ta erre kara yoate sien, ta an errekan garbitu, eta olan, e, etzean, e, eurrean alanbra illedea eukite seun, eskeiteko ixerak, se ixera asko ekarte seun, ta arek siketan sirenean, plegeu plantxeu es, e! Plegeu, eta ya sakuetan sartu, euren, eta Bilbora entregeta seun" - (Surteko hautsa edukitzen zuen eta ez dakit zer egiten zioten harekin! Eta palo batekin buelta, buelta, bueltak eragin, eta gero erre kara! Haiek arropa guztiak hartu, eta erre kara joaten ziren, eta han errekan garbitu, eta hola, etxean, aurrean alanbre ilara edukitzen zuen, eskegitzeko izarak, ze izara asko ekartzen zuen, eta haiek sikatzen zirenean, tolestu plantxatu ez, e! Tolestu, eta ja zakuetan sartu, euren, eta Bilbora ematen zuen)

"Surteko eutzas lelau enplastuek ite soasen" - (Surteko hautsarekin lehenago enplastoak egiten zituan)

susie: zuzia, tortxa

"Bai susias eite sana, gaubian ilunetan, e, asertetan basan porejemplo emen, ilunetan

asertetan basan bata bat egotea, galtzu txolea emon, emon sue ta ara yoate san etzera argiten" - (Bai zuziarekin egiten zena, gauean ilunetan, aparatzen bazen esaterako hemen, ilunetan aparatzen bazen baten bat egotea, galtzu txola eman, eman sua eta hara joaten zen etxera argitan)

talaburdine, talaburnie: talo-burdina

"Ba, dustirik! Batzuk, e, altzeu te ensegida, orduen akostunbreta san taloa, taloak ein, eta erreta sien taloak, an beko suen en jeneral eta txapan be bai, talaburnie esaten dakon, an talaburnien imini eta erreta sien taloak eta esnea egosi te esneagas taloa, eta batzuk yate seudien ba, segun, gasteak eta fuerte dausenak onek eurretik gustetan dakien, e, sayetza sati bet, taloagas eurreti yatea, se a, esne bakarrik ba yatea gitxi eretxite otzien edo! Eta txarrikie, edo makalloa erreta, makalloa erreta be kostunbreta san, origoa bota gordine, ta gero taloagas a yan ta gero an yan esnea!" - (Ba, guztitik! Batzuek, altxatu eta behingoan, orduan usatzen zen taloa, taloak egin, eta erretzen ziren taloak, han beheko suan gehienetan eta txapan ere bai, talo-burdina esaten zitzaion, han talo-burdinan ipini eta erretzen ziren taloak eta esnea egosi eta esnearekin taloa, eta batzuek jaten zuten ba, segun, gazteak eta sasoiko daudenek hauek aurretik gustatzen zitzaien, saihets zati bat, taloarekin aurretik jatea, ze hura, esnea bakarrik ba jatea gutxi irizten zien edo! Eta txerrikia, edo makailoa erreta, makailoa erreta ere usatzen zen, olio bota gordina, eta gero taloarekin hura jan eta gero han jan esnea!)

tanboline: danbolina, gaztainak erretzeko erabiltzen zen

tenesak: tenazak, txingarrak eta ilintiak hartzeko erabiltzen ziren

"Orrek, e, serak, ba tenesak, bai orrek koiteusen, e, sue beroa koitako ta, nonora eroateko edo" - (Horiek, zerak, ba tenazak, bai horiek hartzen zituen, sua beroa hartzeko eta, non edo nora eroateko edo)

trebera: trebedea

"Trebera ta parrille ixete siren, ta laratzue eskeiteko lapikoa" - (Trebera eta parrila izaten ziren, eta laratzua eskegitzeko lapikoa)

txapea: txapa

"Txapeak itxiten deun eutze surie ixeten da, baye a da ke baltza, kedarra baltza" - (Txapak uzten duen hauts zuria izaten da, baina hura da ke beltza, kedarra beltza)

"Txapeak eskinetik euki seun, e, a barandilletxue, eta labako atean, e, sera geu pe euki du te" - (Txapak izkinatik eduki zuen, bantzutxo hura, eta labeko atean, zera geuk ere eduki dugu eta)

tximinie: tximinia

"Besue be esetu ot nik, sutean erdien tximinie barik esetu ot" - (Behe sua ere ezagutu dut nik, suetearen erdian tximinia barik ezagutu dut)

"An etzea egon san biximodu bikoa, ta batek euki euen tximinias, ta besteak tximini barik" - (Han etxea egon zen bizimodu bikoa, eta batek eduki zuen tximiniarekin, eta besteak tximinia barik)

"Antxe ego san, tximini bakoa, ta beste bat esetu neun" - (Hantxe egon zen, tximinia bakoa, eta beste bat ezagutu nuen)

txingerra: txingarra

"Gurean amamak ori beti iteun, txingerra sartze otzen" - (Gurean amamak hori beti egiten zuen, txingarra sartzen zion)

txisparrie: txisparria

txispea: txinparta

6.5. ARGIA

argie: argia

"Argie bistu ixe Bego se emen ilundu in deu" - (Argia biztu ezazu Bego ze hemen ilundu egin du)

"Argie beti esetu dot, bueno, beti beti bai, bai beti baye ori, sera ibilte san, karburo argie, esaten dakon karburoagas iminte san, ta ure etxa ta aregas eskeite imini te bai" - (Argia beti ezagutu dut, beno, beti beti bai, bai beti baina hori, zera erabiltzen zen, karburo argia, esaten zitzaion karburoarekin ipintzen zen, eta ura bota eta harekin eskegita ipini eta bai)

bayetea: metxa egiteko erabiltzen izan den ehun mota

bonbillea: bonbilla

"Orrek etorten die, bonbillara orrek bitxook, bonbillara, argitera" - (Horiek etortzen

*dira, bonbilara horiek mamarrook,
bonbilara, argitara)*

farola: farola

"Gortarako farola, farola argiegas, eta gurean ganera lenau gorta andie egon san ta ganadue be asko ta, ba farol bat gitxi bada bi edo iru illedan iminite, aregas bearrak in" - (Kortarako farola, farola argiarekin, eta gurean gainera lehenago korta handia egon zen eta ganadua ere asko eta, ba farol bat gutxi bada bi edo hiru ilaran ipinita, harekin beharrak egin)

farol argie: farol argia

kandelea: kandela

"Olan, e, sertzu batzuk oleas einde, gero kandelak" - (Hola, zertzu batzuk oholarekin eginda, gero kandelak)

"Baye gero, bildur andie egote san, kandelea ta karburoa ibilte san, baye suek artu deula esteula seoser ta" - (Baina gero, bildur handia egoten zen, kandela eta karburoa erabiltzen zen, baina suak hartu duela ez duela zer edo zer eta)

karburoa: karburoa

"Karburoa ibilte san lelau gortan, bai" - (Karburoa erabiltzen zen lehenago kortan, bai)

"Bueno urte asko da argie dekuna, esta? Baye lenau sera, karburoa, ni gastea nintzela karburoa" - (Beno urte asko da argia daukaguna, ezta? Baina lehenago zera, karburoa, ni gaztea nintzela karburoa)

karbuero argie: karbuero argia

korrientea: argi indarra

petroleoa, petroleogoa: petrolioa

"Nik bai ori petroleogoa ta karbuero argie ta kandela pai" - (Nik bai hori petrolioarekin eta karbuero argia eta kandelak bai)

petroleo argie: petrolio argia

petroleogodun untzie: petroliodun ontzia

"Nik lanpare ba, beti karburoa, eta espaberen, e, ba petroleogodun untzie, ser bat imini bayetasko ba, selan esango tzu pa? Olangoxeko kordel bat, bayetea esate yakona, ta a sartu petroleo artean, ta su emon ta aregas petroleo argie" - (Nik argiontzia ba, beti karburoa, eta ezpabere, ba petroliodun ontzia, zer bat ipini baietazko ba, zelan esango dizut ba? Holakoxe kordel bat, baieta esaten zitzaiona, eta hura sartu petrolio artean, eta su eman eta harekin petrolio argia)

6.6. URA

arrie: harria, sukaltarria

arripea: harripea

baldea: baldea

depositue: depositua, biltegia

erradea: errada, ura garraiatzeko erabiltzen zen ontzia

"Nik esetu dot, e, erradea etzean" - (Nik ezagutu dut, errada etxean)

kantarue: kantarua, kubila, ura garraiatzeko erabiltzen zen ontzia

"Kantaruen ekarten gendun ure" - (Kantarian ekartzen genuen ura)

tuberie: hodia

"Orrek amen sera tekies, tuberiek, tuberietara, bai, andik gero erre kara doa" - (Horiek hamen zerak dauzkate, hodiak, hodietara, bai, handik gero erre kara doa)

tuboa: hodia

txorroa: 1. txorrota, giltza. 2. txorroa, txorrotara

txorrota: txorrota

ur depositue: ur depositua

"Ori beko etze ori eleixea ixen san, eleixea ixen san ori, ori be erre in san ori etze ori, esta? Baye ur deposituek euki seitusen ba, portalean bat eta an beste gorta baten be bai, beste bat eta, etzea ederra ixen san, ta erre in san" - (Hori beheko etxe hori eliza izan zen, eliza izan zen hori, hori ere erre egin zen etxe hori, ezta? Baina ur deposituak eduki zituen ba, atarian bat eta han beste korta baten ere bai, beste bat eta, etxea ederra izan zen, eta erre egin zen)

ure: ura

"Ure ni eskondu te gero, or, e, etzea inte bixi giñela, orduen, e, ekarte dau ure, errire" - (Ura ni ezkondu eta gero, hor, etxea eginda bizi ginela, orduan, ekarrita dago ura, herrira)

"Amen iminte eukin du guk ure, erre kaka, baye edateko es, ganaduentzat" - (Hemen ipinita eduki dugu guk ura, erre kaka, baina edateko ez, ganaduentzat)

ur palue: ur paloa, ur makila, ura eta esnea garraiatzeko erabiltzen zen makila, mutur bietan kako bina edukitzen zituen baldeak edo kantinak eskegitzeko

"Ur palue, bai, klaro, gantxoagas, bai, bai" -
(Ur paloa, bai, jakina, gantxoarekin, bai,
bai)

"Klaro, guk andi errekatik asau eukiten gendun, eta beyek, e, gure, ure edan, beyeri samea tireka, kateari be, eta ure ikuste seudienean asite baldekadea edate seudien, eta, klaro, guk bei gitxi eukiten gendun, baye ure, ekarri in bear iste gendun ta es gendun eukiten nondik ekarri, eta andik, errekatik, paluen artu te" -
(Jakina, guk handik errekatik asago edukitzen genuen eta behiek, gura, ura edan, behiei sama tiraka, kateari ere, eta ura ikusten zutenean hazita baldekada edaten zuten, eta, jakina, guk behi gutxi edukitzen genuen, baina ura, ekarri egin behar izaten genuen eta ez genuen edukitzen nondik ekarri, eta handik, errekatik, paloan hartu eta)

"Derion, pregunteu ia akaburengo nor ikusi deurien ur paluas, nik kantin partidea eroate nun" - (Derion, itaundu ea atzerengo nor ikusi duten ur paluarekin, nik kantina partida eroaten nuen)

6.7. TRESNAK-ONTZITERIA

astea: asta, ontzien oralekua

baldea: baldea

"Arriek, bai, eta uretan sarriten, e, berna erdire ta artean, e, kaderan, e, sartute an, eta orduen esan oten etzean, e, urik, eta erropak artu buruen eta baldea, beratzen imini etzean, eta an jaboneu eta gero an paseu te atzera etzera ekarri!", Harriak, bai, eta uretan sarritan, berna erdira eta artean, hankan, sartuta han, eta orduan ez zen egoten etxean, urik, eta arropak hartu buruan eta baldea, beratzen ipini etxean, eta han xaboitu eta gero han pasatu eta atzera etxera ekarri!)

"Balde sarra artute ta ume dustiek atzean dile ibilte sien" - (Balde zaharra hartuta eta ume guztiak atzean direla ibiltzen ziren)

balde sabala: balde zabala

"Ure berotu beko suen da gero beratzen imini balde sabalatan" - (Ura berotu beheko suan eta gero beratzen ipini balde zabaletan)

"Balde sabala be bai, orduen baldeak, e, ba, urik esan egoten etzeatan ta" - (Balde zabala ere bai, orduan baldeak, ba, urik ez zen egoten etxeetan eta)

bandejea: erretailua

basue: basoa, edalontzia

"Bai etzera eroan, ta basuen imini eta topeu lorak" - (Bai etxera eroan, eta basoan ipini eta topatu loreak)

botea: 1. potea. 2. zahatoa

botille: botila

"Noperak berari botilletik, botilleas in dako" -
(Norberak berari botilatik, botilarekin egin zaio)

brotxea: brotxa

"Bixarra etzean kentzeaurien, ori sera emonda, brotxeagas, jaboya, aregas" -
(Bixarra etxean kentzen zuten, hori zera emanda, brotxarekin, xaboia, harekin)

enbudoa: inbutua, onila

fruterue: frutontzia

galdalle: galdarila

"Lapiko lurresko baten ite san kafea beko suen, beko suen eskeite, galdallen edo, galdallen esnea, baye lapiko lurreskoan kafea, ara sartu ori, sera" - (Lapiko lurrezko baten egiten zen kafea beheko suan, beheko suan eskegita, galdarilan edo, galdarilan esnea, baina lapiko lurrezkoan kafea, hara sartu hori, zera)

galdara gorrie: galdara gorria, kobrezko galdara

galdarea: galdara

"Galdarea esaten geuntzen guk, galdarea esaten geuntzen guk ba esnea egosteko olango, baldean antzekoa baye txikertxuagoa" - (Galdara esaten genion guk, galdara esaten genion guk ba esnea egosteko holako, baldearen antzekoa baina txikertxuagoa)

gantxo: gantxoa

garrafoya: garrafoia

"Makine bat bija in dot nik, Artzayora garrafoya eroan ixin! eta kantara erdiko garrafoya olan artu besartean ta, olan imini, e, serean eta deskantzetan bidean, txikerra ondiño, bedaratziz urteas yoa nintzen ni umeak yagoteko eroa eustien ara tabernara, umeak Anita ta orrek, nik yagon doas orrek, orrek nik yagonta daus, eta orrek yagoten ara ta gero, Andresa, il san, Artzayokora etorte san karroas,

Bilbora, esneakas, Deriora, ta gero trenean yoate san, eta bueltan etorte sanean, geitute otzen, e, Isabel euki seun usena ta an kamiñotik karrotik bajatu barik, Isabel! benga, garrafoi bat ardau bieldu niri! ni atzetik, bera karroagas ta ni atzetik" - (Makina bat bidaia egin dut nik, Artzaiaora garrafoia eroan ezin! eta kantara erdiko garrafoia hola hartu besartean eta, hola ipini, zerean eta deskantsatzen bidean, txikerra oraindino, bederatzi urterekin joan nintzen ni umeak jagoteko eroan ninduten hara tabernara, umeak Anita eta horiek, nik jagon ditut horiek, horiek ni jagonda daude, eta horiek jagoten hara eta gero, Andresa, hil zen, Artzaiaokora etortzen zen gurdiarekin, Bilbora, esneekin, Deriora, eta gero trenean joaten zen, eta bueltan etortzen zenean, deitzen zien, Isabel eduki zuen izena eta han kaminotik gurditik baxatu barik, Isabel! tira, garrafoi bat ardau bidali niri! ni atzetik, bera gurdiarekin eta ni atzetik)

jikerea: kikara, xikara

"Jikerak guk esaten gendun" - (Kikerak guk esaten genuen)

kafeteria. kafegailua

kantine: tankina, kantina

"Nik, e, neu tekot etzean, e, gurean nebea ibil san taladroan fabriken bearrean, eta geure nebeak an, e, gure etzetik, Samudiora pasetako subi andi bet ote san, oleskoa, erdie urek eroateun kasik, eta andik yoan, eta esnea eroate tzen ixekoari, esnea, kantine artu lepoan" - (Nik, neuk daukat etxean, gurean neba ibili zen taladroen fabrikan beharrean, eta gure nebak han, gure etxetik, Zamudiora pasatzeko zubi handi bat egoten zen, oholezkoa, erdia urak eroaten zuen kasik, eta handik joan, eta esnea eroaten zion izekoari, esnea, kantina hartu lepoan)

kasola, kasuelea, kasula: kazola

"Es, gero piperrak, artoa sartuten sanean, artoan ganean, kasula andi bet imini te sagarrak erretako, sagar erreak iten gendusena, eta opile esaten geuntzen, taloa ein, eta taloa pe bai an sartzean sien an, e, an ganean eta ederto erreta sien" - (Ez, gero piperrak, artoa sartzen zenean, artoaren ganean kazola handi bat ipini

eta sagarrak erretzeko, sagar erreak egiten genituen, eta opila esaten genion, taloa egin, eta taloak ere bai han sartzen ziren han, haren ganean eta ederto erretzen ziren)

kasue: kazua

katillue: katilua

"Talo sati bet imini, ba telasko motxile baten, eta an taloa, ta gero etzera etorte sanean labatzuen eskeite indabak eta ur askogas, ta ure koyu bota katillure, eta a talo otzas sopak an" - (Talo zati bat ipini, eta ehunezko motxila baten, eta han taloa, eta gero etxera etortzen zenean laratzuan eskegita indabak, eta ur askorekin, eta ura koiu bota katilura, eta hura talo hotzarekin zopak han)

"Katillue guk beti use du" - (Katilua guk beti erabili dugu)

katxarroa: katxarroa

"Bai! tinikue iminten gendun guk, edo bidoi bat, eta ara koxu te etzerako, gastetako! beyeri be igual emoten geuntzen a, ta katxarroak garbitako, katxarroak garbitako etzean gastetan san, se ure eskas egoten san orduen" - (Bai! tinakoa ipintzen genuen guk, edo bidoi bat, eta hara koiu eta etxerako, gastatzeko! behiei ere beharbada ematen genien hura, eta katxarroak garbitzeko, katxarroak garbitzeko etxean gastatzen zen, ze ura eskas egoten zen orduan)

kollarea: koilara

"Amama defuntea apesinedue ta ak kollarak jo, takarran-takarran-takarran" - (Amama defuntua zalea eta hark koilarak jo, takarra-takarran-takarran)

"A kendu iten tzue ba seras, kollareas edo" - (Hura kendu egiten diogu ba zerarekin, koilararekin edo)

kopea: kopa

kortxoa: kortxoa

kutxera: burruntzalia

"Guk kutxera usetan gendun" - (Guk burruntzalia erabiltzen genuen)

kutxilloa: kutxiloa

"Mai ganean imini, ta gero kutxilloas, sartu" - (Mahai ganean ipini, eta gero kutxiloarekin sartu)

labaña: labaina

"Labaña esetu dot nik etzean, baye labañas iteko, pasentzie bea da" - (Labaina ezagutu

dut nik etxean, baina labainarekin egiteko, eroapena behar da)

lapikoa: lapikoa

"Esnea egosi de ure berotu ite sien orretan, ostantxean indabak egosteko ta sien lapikoak" - (Esnea egosi eta ura berotu egiten ziren horretan, osterantzean indabak egosteko eta ziren lapikoak)

latea: lata, potea

"Ori, latatxu beten sartu, ta, il arte, an latatxuen sartute, kantatauenak kanteu" - (Hori, latatxo baten sartu, eta, hil arte, han latatxoan sartuta, kantatzen zuenak kantatu)

lurrezko lapikoa: lurrezko lapikoa

"Galdalle esnerako ixete san ta lapiko lurrezkoa ba, kaferako, indabak yateko" - (Galdarila esnerako izaten zen eta lapiko lurrezkoa ba, kaferako, indabak jateko)

morterue: morteroa, almaiza

palankanea: palankana

"Egun gustietan, e? Garbiten gendun, ba ementxe, ortxe euki gendun, kuartu iminte, eta imite neutzen, e, ba, sera oyan, garbite nun, aspiti pasa, imini, ba palangana bat, eta aspitik imini te, e, parteak gustiek, egun gustietan, jabon txinboas" - (Egun guztietan, e? Garbitzen genuen, ba hementxe, hortxe eduki genuen, gela ipinita, eta ipintzen nion, ba, zera ohean, garbitzen nuen, azpitik pasatu, ipini, ba palankana bat, eta azpitik ipini eta, genitalak guztiak, egun guztietan, txinbo xaboiarekin)

pasadora: iragaztontzia

piper botea: piper potea

"Eta tomate boteak eta piper botea pe eroste situsen" - (Eta tomate poteak eta piper poteak ere erosten zituen)

piper latea: piper potea

plantxea: plantxa

"Braseas, braseas, betetu a ta plantxeagas, ta gero txapea egon sanean, txapa ganeko plantxeas" - (Txingarrarekin, txingarrarekin, bete hura eta plantxarekin, eta gero txapa egon zenean, txapa gaineko plantxarekin)

platera: platera

"Plater bi eukiten gendusin, bat olan ixen san, e, lau kuadrakoa, ta beste bat olan, e, ba olan, obalau bet ixen san" - (Plater bi edukitzen genituen, bat hola izaten zen, lau

laukikoa, eta beste bat hola, ba hola, obalatu bat izan zen)

"Plater barik, andie ixete san ori, ba lurrezkoa, lurrezko platerak bastante sakonak eta andiek, ta an iminte san indaba bada, geuk, geurean estot in, baye amen beste orrenean onek, bederatzi amar nebarrebak sien, eta onek iminte otzien, ba aitek eta amak a platera andi bet, eta iminte otzien txikitxuek sienean bean ganean, sakuek imini bean ganean ta bean, ta espabere mai bet bajue, eta listo dabilenak yan, ta estabilenak, e, egun beten amen Goikoetze, onen, Txomin ori, serekoa Larrabarrikoa ta, bixi dienak, or egon san Goikoetze, beste baserrietze sar bat, eta bueno orko danak il siren, ta orko andreak esaten doskun guri, estait sasaki ala bederatzi siren, berak euki seun, e, semealabak, estait sasaki ixen basiren, eta iminten dotziela, a sakuen ganean danari, eta mutilek ixen sien, neska bat bakarra, neskea, ta an iminte otzien olango plater andi bet, eta egun beten esa oskun, ta selan arregletan sara? Se plateri pes ta esebes, a, etzean, eta, or dekier iminte, txikerrak sirenean danak, sakuen ganean, sakue iminten dotzien ta gero maire, mai andi betera, baye, sakuen ganean iminte seuen, eta listoan dabilenak, ba yanta, ta estekonak, ba, gero negar igual ta talo sati bet badau an besperakoa edo egun berekoa edo goxekoa gose basara, ba a yan bear" - (Plater barik, handia izaten zen hori, ba lurrezkoa, lurrezko platerak nahiko sakonak eta handiak, eta han ipintzen zen indaba bada, geuk, geurean ez dut egin, baina hamen beste horienean hauek, bederatzi hamar neba-arrebak ziren, eta hauek ipintzen zieten, ba aita eta amak plater hura handi bat, eta ipintzen zieten txikitxoak zirenean behearen gainean, zakuak ipini behearen gainean eta behean, eta ezpabere mahai bat baxua, eta zuhur dabilenak jan, eta ez dabilenak, egun baten hamen Goikoetze, honen, Txomin hori, zerekoa Larrabarrikoa eta, bizi direnak, hor egon zen Goikoetze, beste baserri etxe zahar bat, eta beno horko denak hil ziren, eta horko andreak esaten zigun guri, ez dakit zazpi ala bederatzi ziren, berak eduki zuen,

seme-alabak, ez dakit zazpi izan ziren, eta ipintzen ziela, hura zakuen gainean denei, eta mutilak izan ziren, neska bat bakarra, neska, eta han ipintzen zien holako plater handi bat, eta egun baten esan zigun, eta zelan konpontzen zara? Ze platerik ere ez eta ezer ere ez, etxean, eta, hor daukate ipinita, txikerrak zirenean denak, zakua gainean, zakua ipintzen zien eta gero mahaira, mahai handi batera, baina, zakua gainean ipintzen zuen, eta zuhurren dabilenak, ba janda, eta ez daukanak, ba, gero negar beharbada eta talo zati bat badago han bezperakoa edo egun berekoa edo goizekoa gose bazara, ba hura jan behar)

plater asala: plater azala

plater neusie: plater nagusia

plater sakona: plater sakona

potixe: potixea

sagie: zahagia

"Beti use du sagie, ta andik emote san megidute eskatan deuna bakotxak, sortzi litro, amasei be bai eroate seun olan baserrietzeatara, eta lagun asko dauen lekuen, ta ba akabe artean eukite seudien, gero litro bi gu deuna bi, ba gu deuna bat" - (Beti erabili dugu zahagia, eta handik ematen zen neurtuta eskatzen duena bakoitzak, zortzi litro, hamasei ere bai eroaten zuen hola baserri etxeetara, eta lagun asko dagoen lekuan, eta ba amaitu artean edukitzen zuten, gero litro bi gura duena bi, ba gura duena bat)

"Gurean sagiek, bi iru, ekarte situen beti" - (Gurean zahagiak, bi hiru, ekartzen zituzten beti)

sartena: zartagina

"Guk en jeneral sartena usetan gendun" - (Guk gehienetan zartagina usatzen genuen)

sesterea: taloa gainean jartzeko egurrezko otzaratxo antzekoa

tangarra, tankarra: tankarra, tanka, tanga

"Orduen sartze san, ba eukiteunak, sagarrak, ba ser baten, tangar baten ba inte" - (Orduan sartzen zen, ba edukitzen duenak, sagarrak, ba zer baten, tankar baten ba eginda)

tankea: tankarra, tanka, tanga

"Tankea estait ba txakurrandien edo selan saltzen gendus en ta posik etxean utzita

sirenean, tomate boteak eta ingeruek" - (Tanka ez dakit ba txakurrandien edo zelan saltzen genituen eta pozik etxean husten zirenean, tomate poteak eta inguruak)

tapea: tapa, sukaldeko ontzien estalkia

tapoya: tapoia

tarterea: tartera

"Tarterea bai baye seran ganean, tarterea esan iten iños seretik eskeite, labatzutik eskeite, eote san, e, trebera baten ganean, aspian iminte akon sue, beko suen kontrán, aspian sue ta irikite seuen" - (Tartera bai baina zeraren gainean, tartera ez zen egiten inoiz zeretik eskegita, laratzutik eskegita, egoten zen, trebera baten gainean, azpian ipintzen zitzaion sua, beheko suaren kontrán, azpian sua eta irakiten zuen)

tasea kikara, xikara; berau handiagoa izaten da benetako kikara baino

"Kafean tasa txikerrak, guk esaten gendun" - (Kafearen kikara txikerrak, guk esaten genuen)

tenedora: tenedorea, sardexka

terreñe: tankina, tarrina

"Beko suen, e, iminte situen, e, olan terreñek esaten dotzian, eta aretan ur beroa ta gero ara bota ta lejie be bai, lejie be nastean botaten dotzian, ta gero artu te ona bera errekarra, an, e, garbitan" - (Beheko suan, ipintzen zituen, hola tarrinak esaten zioten, eta haietan ur beroa eta gero hara bota eta lixiba ere bai, lixiba ere nahastean botatzen zioten, eta gero hartu eta hona behera errekarra, han, garbitzen)

tomate botea: tomate potea

tomate latea: tomate potea

tupine: tupina

"Orrek olango, serak etorte sien, tupin andiek, esta? Ta kiloka erosi, bakotxak ba bea dauena, baye emen, e, danak euki euren, e, karburoan argie" - (Horiek holako, zerak etortzen ziren, tupin handiak, ezta? Eta kiloka erosi, bakoitzak ba behar duena, baina hemen, denek eduki zuten, karburoaren argia)

untzie: ontzia

uye: oia, bikea

"Uye esate yotzian, uye, barruen eukite seuna uye" - (Oia esaten zioten, oia, barruan edukitzen zuena oia)

yarroa: pitxarra

"Txakoline ontxe bere, botillera ataten bosu, edo yarroa, kristeleskora edo atata badekosu, a ordu erdi barru edaten espada, a galtzean dau, e?" - (Txakolina oraintxe ere, botilara ateratzen baduzu, edo pitxarra, kristalezkora edo aterata badaukazu, hura ordu erdi barru edaten ez bada, hura galtzen dago, e?)

6.8. ALTZARIAK

arkea: arka

"Orko etzekoak nik ikus doas, e, arto arkak an ermitean barruen, artoa eukiteko, klaro tejabanarik es ta ba, an ibili, a gero jayetarako kentzen situn" - (Horko etzekoak nik ikusi ditut, arto arkak han ermitaren barruan, artoa edukitzeko, jakina tejabanarik ez eta ba, han ibili, hura gero jaietarako kentzen zituen)

arkoya: arkoia

"Solomoa guk oin iten du ba, satiek in, ta arkoyan sartu" - (Solomoa guk orain egiten dugu ba, zatiak egin, eta arkoian sartu)

armarioa: armairua, arasa

arto arkea: arto arka

aspirea: azpira, oramahia

"Geubean aspiren, e, ondo iteusen taloan moduen, lebadureas ta dustiegas, da urreko goxean, labea iminte seuen bistute, one tiñon moduen otabarras eta, egurrekas, eta gero in ogiek eta sartu laban" - (Gauean azpiran, ondo egiten zituen taloaren moduan, legamiarekin eta guztiarekin, eta hurrengo goizean, labea ipintzen zuen biztuta, honek dinoen moduan otabarrekin eta, egurrekin, eta gero egin ogiak eta sartu labean)

"Aspirea, aspiren bertan okite senduen lekue" - (Azpira, azpiran bertan edukitzen zenuten lekua)

baldea: 1. apalategia. 2. apala. 3. sukaldeko armairua

"Gure aititek esate gun, e, nik, e, eskondu nitzenean nire andreak euki seun ilusiñorik andiena, ba, erosteko, ba balda bat kristelakas, kristeldun baldea" - (Gure aititak esaten zuen, nik, ezkondu nintzenean nire andreak eduki zuen

ilusiorik handiena, ba, erosteko, ba balda bat kristalekin, kristaldun balda)

"Armarioa au ixite, goyen, e, balda bat, bean beste bat, eta erdien erropak eskeiteko" - (Armairua hau itxita, goian, apal bat, behean beste bat, eta erdian arropak eskegitzeko)

bankue: jarlekua, lanka

bañerea: bainuontzia

"Gurean bañeran, e, txinboa dau, e?" - (Gurean bainuontzian, txinboa dago, e?)

eskaparatea: eskaparatea, eskapolota; arropa armairu mota zahar bat

"Ba, oin estau eskaparatea eskaparatea, oin esaten dako espillueri edo eskaparatea igual, baye orduen esate san, armarioa, armario andi bet, eta ate bikoak ixete siren geyenak, nik ate bikoak esetu dot etzean, oin be badaus baye, eta areri eskaparatea esaten dakon aren ateari, aren ateari esaten dakon eskaparatea" - (Ba, orain ez dago eskaparatea eskaparatea, orain esaten zaio ispiluari edo eskaparatea beharbada, baina orduan esaten zen, armairua, armairu handi bat, eta ate bikoak izaten ziren gehienak, nik ate bikoak ezagutu dut etxean, orain ere badaude baina, eta hari eskaparatea esaten zitzaion haren ateari, haren ateari esaten zitzaion eskaparatea)

espillue: ispilua

eurkie, aurkia: aulkia, hau errespaldobakoa da, baita kortarako ganadua batzeko erabiltzen dena ere

"Bai eurkie be bai, baye eurkiek, e, porejenplo esaten tzu olagas inte dausenak, orrek, e, eurki txikiek" - (Bai aulkia ere bai, baina aulkiak, esate baterako esaten diegu oholarekin eginda daudenak, horiek, aulki txikiak)

"Etorri te ondo esan ta ondo esan ta soloan imini aurki beten yesarte, eta konfeseu i euen soloan" - (Etorri eta ondo esan eta ondo esan eta soroan ipini aulki baten jesarrita, eta aitortu egin zuen soroan)

gasune: gatzun aska, honetan pernolak, urdaia eta oro har txerrikia gordetzen zen gatzetan kontserbatzeko; bertan gatzatu ere egiten zen

"Ta gero bestea iten da urdeye satitu ta gasunean imini, gatza koitako" - (Eta gero

bestea egiten da urdaia zatitu eta gatzun askan ipini, gatz hartzeko)

jergoya: jergoia

kajea: kaxa

"Kaja baten barruen ba, txikitu golpe ta golpe ta golpe!" - (Kaxa baten barruan ba, txikitu kolpe eta kolpe eta kolpe!)

"Rosa Mari ekaixu a kordela, or dau kajan" - (Rosa Mari ekar ezazu kordel hura, hor dago kaxan)

kajoya: tiradera

"Kajo bat, kajoya, t'aspiti suloak, ta gero maseta batas, aspitik urteta seun garuek" - (Kajoi bat, kajoi, eta azpitik zuloak, eta gero mazeta batekin, azpitik irteten zuen garauak)

"Gure nebea bixi dan lekuen dau mai bet, eta deko talleute olan aurretik abaniko batzukas eta erditik kajoya" - (Gure neba bizi den lekuan dago mahai bat, eta dauka tailatuta hola aurretik abaniko batzuekin eta erditik tiradera)

kaxea: kaxa

"Gurean egon dires kaxak" - (Gurean egon dira kaxak)

koltxoya: koltxoia

"A yote san olan akulluen moduko ser bategas, ta dana airosoau, eta eutze gustiek eskapetan tzon ta eguskiten itxiten san, ta gero sartu a ta, arro arro pareta san koltxoya" - (Hura joaten zen hola akuiluaren moduko zer batekin, eta dena airosoago, eta hauts guztiak eskapatzen zion eta eguzkitan uzten zen, eta gero sartu hura eta, harro harro paratzen zen koltxoia)

komodea: komoda

"Komodea esate otzien, komodea, ixite armario bate les, ixite" - (Komoda esaten zioten, komoda, itxita armairu baten legez, itxita)

kumea: kuma

"Laugarrena etor sanean ya itxi neuntzen yoatera aitegana, ta ama gasterik il dakon, eta umeakas ta ona artute yoate nintzen, eta gero ba etzean be ba, ya orik es ta umeak iminteko kumeri pes, ba ume txikirik es ta kumeri pes" - (Laugarrena etorri zenean ja utzi nion joateari aitagana, eta ama gazterik hil zitzaion, eta umeekin eta hona hartuta joaten nintzen, eta gero ba etxean ere ba, ja oherik ez eta umeak

ipintzeko kumarik ere ez, ba ume txikerrik ez eta kumerik ere ez)

"Saku beten sartu kapasak, eta gero imini ixera andie ta bertan umeak kumea balitike les, imini tapeute baye kapasakas kumea" - (Zaku baten sartu kapaxak, eta gero ipini izara handia eta bertan umeak kuma balitz legez, ipini tapatuta baina kapaxekin kuma)

"Umeantzat eiten gendun, umea txikerra ote sanean kumean iminteko" - (Umeentzat egiten genuen, umea txikerra egoten zenean kuman ipintzeko)

kuxea: kuxa, oheburua

"Beste ol bi onen, e, tamañu ingerukoak ixete siren, lusean, arek lotuteko, a kuxea lotuteko" - (Beste ohol bi honen, tamaina ingurukoak izaten ziren, luzean, haiek lotzeko, kuxa hura lotzeko)

lastamarra: lastamarra, lastamarraga, arto kapaxekin egiten zen koltxoia

maye: mahaia

"Areas ekarten da turetute mai ganera ta mai ganean iminten da ta in bear dakos lau kadera koyu ta lau kadera koyu t'an aguanteu bea dako, t'ak sartzen tzo kutxilloa" - (Harekin ekartzen da tiratuta mahai gainera eta mahai ganean ipintzen da eta egin behar zaizkio lau hanka koiu eta lau hanka koiu eta han eutsi behar zaio, eta hark sartzen dio kutxiloa)

"Maye, ormara pegeute, txaramelagas sujeteta san, eta an egote san" - (Mahaia, hormara itsatsita, txaramelarekin eusten zen, eta han egoten zen)

mesanotxea: mesanotxea, gau-mahaia

"Kuartuetan, nik aman, e, ba serekoa, arreo, sera, oya, gero mesanotxe bat, gero beste tokadora bat, bardin espillues t'an, gero labreue" - (Logeletan, nik amaren, ba zerekoa, arreo, zera, ohea, gero mesanotxe bat, gero beste tokadora bat, berdin ispiluarekin, eta han, gero landua)

mueblea: altzaria

muellea: malgua, koltxoiaren azpian ipintzen dena

"Orrek muelle andiek, eta klaro muellea apurtu ite san, eta gero ote san, batzuk abilidosoak, morroskoak, aurek yoste gurien, ori muellea yosten be ikusi dot" - (Malgu handi horiek, eta jakina malgua apurtu egiten zen, eta gero egoten zen,

batzuk trebeak, morroskoak, eurek josten zuten, malgu hori josten ere ikusi dut)

"Ganean iminteko ba segun muellea, muellea batzuk, beste batzuk, e, olak, modue dekonak ola, ta aren ganean iminte san, e, koltxoya" - (Gainean ipintzeko ba segun malgua, malgua batzuek, beste batzuek, oholak, modua daukanak ohola, eta haren gainean ipintzen zen, koltxoia)

neberea: hozkailua

ogaserue: ohe-zerua, antzinako oheek zeukaten estalkia, lau zutaberen gaineko zerua

"Ogaserudun oye, etzean eukin dot aititena, eta aititek eseun gu ixin kendu" - (Ohe-zerudun ohea, etxean eduki dut aitaitarena, eta aitaitak ez zuen gura izan kendu)

oya, oye: ohea

"Aitite oyan dau" - (Aitaita ohean dago)

radioa: irratia

"Se ixen san an, gu bixi ixen gares orren etzean ta bastante alturen, eta orduen esan egon telebisiñorik, eta, radioa entzuteko antenea imini goyen, arek anteneak tirtetu" - (Ze izan zen han, gu bizi izan gara horren etxean eta nahiko altueran, eta orduan ez zen egon telebistarik, eta, irratia entzuteko antena ipini goian, antena hark tiratu)

"Bueno ixete san, orduen egote san ser bat radio ixetea les, ortariko ser bat" - (Beno izaten zen, orduan egoten zen zer bat irratia izatea legez, horietariko zer bat)

sillea: aulkia, hau errespaldoduna izaten da

"Ekasu sillea orti, aor dekosu" - (Ekar ezazu aulkia hortik, haor daukazu)

"Orre tie eurki txikiek esaten tzue, baye ostean sille txikie edo andie edo" - (Horiek dira aulki txikiak esaten diegu, baina ostean aulki txikia edo handia edo)

telebisinoa: telebista

tiradora: tiradera, kajoia

"Aor kajan dau, goiko tiradorean" - (Haor kaxan dago, goiko tiraderan)

tokadora: tokadorea

txitxilue: zizeilua, karrajuan edo suetean egoten zen jesarleku luzea

"Txitxilue ixengo san, ori be esetu dot amaman etzean" - (Zizeilua izango zen, hori ere ezagutu dut amamaren etxean)

yesarlekue: jarlekua, jesarlekua

6.9. ETXEKO ARROPAK

almeda asala, almueda asala: buruko azala

"Almueda asala, ori almeda luseak, eta ostentxean bi eukite seudien, oin, e, neusie egoten dan moduen bat, ba almueda txikerra ba bi ixete sien" - (Buruko azala, hori buruko luzeak, eta osterantzean bi edukitzen zuten, orain, nagusia egoten den moduan bat, ba buruko txikerra ba bi izaten ziren)

almedea, almeudea, almuedea, olmedea: burukoa, burkoa

"Bai atxine, almuedak, ollosko forme, ollo lumeas iñekoak ote siren" - (Bai antzina, burukoak, oilasko itxura, oilo lumarekin eginekoak egoten ziren)

arpillerea: arpilera

burrukoa: burukoa

"Bai neuk esetu ot erretan, se, lorik esin in aren, e, burrukoan ganean, eta lorik esin inte, aitu te ba barruen, pelotak egoasan, erre, erre, almudea osorik erre" - (Bai neuk ezagutu dut erretzen, ze, lorik ezin egin haren, burukoaren gainean, eta lorik ezin eginda, aditu eta ba barruan, pilotak zeuden, erre, erre, burukoa osorik erre)

firusko ixerea: firuzko izara, harizko izara

ixerea: izara

"Firusko ixerea egoan, ba sera normala, oingo ixera normala baixen loditxuagoa" - (Firuzko izara zegoen, ba zera normala, oraingo izara normala baino lodiagoa)

"Ixera be bai, bai, ixera be bai, erdien iminte otzien ba sera, sapie" - (Izara ere bai, bai, izara ere bai, erdian ipintzen zioten ba zera, zapia)

kapasean koltxea: arto sapekin egiten zen koltxa

"Selango koltxea dekosu? Lanaskoa edo kapasekoa, es kapasekoa da" - (Zelako koltxa daukazu? Artilezkoa edo kapaxazkoa, ez kapaxazkoa da)

koltxea: koltxa

"Bai se esate gun, ser deko orre pe koltxan? Eta se klaro! Altzeta seun ta bolak" - (Bai ze esaten zuen, zer dauka horrek ere koltxan? Eta ze jakina! Altxatzen zuen eta bolak)

"Koltxea san ba, tela onagas, bastante telea, batzuk, e, ba modue dekonak obetxuaua, beste batzuk, e, txartxuaua, ite san, ta arek eukite seitun, estakit, e, iru lau, lau

lekutetik urrean olan giau, lau baño giau, sulotxu bi, koltxeak inte, ta aregas orrotz neusiegas pasetan san, eta, ser bat, sintea, ori, iladillue edo, olango sinteagas andik paseu, ta tirtetu te estu estu in eta, amarre ite san a, ta a be bai, justo troñue lotute sakon, eta koltxea lotute san ba, jota egote sales eta eguskiten arro arro arro" - (Koltxa zen ba, ehun onarekin, nahiko ehuna, batzuek, ba modua daukanak hobetxoa, beste batzuek, txartxoagoa, egiten zen, eta hark edukitzen zituen, ez dakit, hiru lau, lau lekutatik hurrean hola gehiago, lau baino gehiago, zulotxo bi, koltxak eginda, eta orratz nagusi harekin pasatzen zen, eta, zer bat, zinta, hori, hiladiloa edo, holako zintarekin handik pasatu, eta tiratu eta estu-estu egin eta, amarratu egiten zen hura, eta hura ere bai, justo troinua lotzen zitzaion, eta koltxa lotzen zen ba, jota egoten zen legez eta eguzkitan harro-harro-harro)

kortinea: gortina

"Eta esate gun eukite guriela kuartu bet, kuartuen ondoan ikas montoya, eta an ikas montoyan kortine bat telaskoa alde batetik neskak, ta bestean morroskoak" - (Eta esaten zuen edukitzen zutela gela bat, gelaren ondoan ikatz piloa, eta han ikatz piloan gortina bat ehunezkoa alde batetik neskak, eta bestean morroskoak)

mantea: manta

mantela: zamaua, mahai-estalkia

"Mantelan aspian egote san, urreko egunerartean" - (Zamauaren azpian egoten zen, hurrengo egunera artean)

sobrekamea: koltxa

"Beratuten edo nik estakit, geure bestealdeko andrea be ego san, ori esan dotena il sala? Orrek ite seun asko, eta ekarte situen sakuek, sakuetan, trenean ekarte situn, ta gero astoagas yoate sien estasiñora bille, ta arek ekarri, ta garbitute olan iminte lusean, alanbrea metro askokoak, ixerak ekarte situen danakas, danak, serak edo sobrekamak, eta, garbita situen arek, eta an eskeite imini te siketuten direnean, atzera eroan" - (Beratzen edo nik ez dakit, geure beste-aldeko andrea ere egon zen, hori esan dudana hil zela? Horrek egiten zuen asko, eta ekartzen zituen zakuak, zakuetan, trenean ekartzen zituen, eta gero

astoarekin joaten ziren geltokira bila, eta haiek ekarri, eta garbituta hola ipinita luzean, alanbrea metro askokoak, izarak ekartzen zituen denekin, denak, zerak edo koltxak, eta garbitzen zituen hark, eta han eskegita ipini eta sikatzen direnean, atzera eroan)

sorkie: 1. sorkia, sukaldeko trapua. 2. zamak garraiatzeko buruan ipintzen zena

trapue: sorkia

"Nik eukin dotes, plasara yoate nintzenean, soltera, gure ama, bastante goxetik il san, ta yoaten gintzenean, an eukite neusen sestean, eroate neusen, ba trapu betas brillue atata, ta an egote sien, e, sartukeran goiko plasan, ba errebendedora batzuk ensegida etorte Yatesenak" - (Nik eduki ditut, plazara joaten nintzenean, ezkongai, gure ama, nahiko goizetik hil zen, eta joaten ginen, han edukitzen nituen zaranean, eroaten nituen, ba trapu batekin dirdira aterata, eta han egoten ziren, sartukeran goiko plazan, ba erregatera batzuk behingoan etortzen zitzaizkidanak)

ulea: ulea, mahai gainean ipintzen den plastiko antzekoa

6.10. BOGADA-GARBIKUZIA

anile: anila; berau arropari kolore emateko erabiltzen izan da

"Ara eroate sien ta an ixerak bota sabalean, erreka andie san, eta, an, paseu te paseu inte, anile emote otzien, ori asule, eta, gero etzera ekarri te siketu" - (Hara eroaten ziren eta han izarak bota zabalean, erreka handia zen, eta, han, pasatu eta pasatu eginda, anila ematen zioten, urdin hori, eta, gero etxera ekarri eta sikatu)

arrikoa: harrikoa

basurea: zaborra, zarama

bogadea: bogada

"Bogadea? bai! gure, bestaldean bixi san andreak ite seun" - (Bogada? bai! gure, beste-aldean bizi zen andreak egiten zuen)

"Bogadeas yoan da" - (Bogadarekin joan da)

borrea: borra, hondarra

eskoba palue: erratz makila

"Eskoba palue bai entzun dot, baye liburuena es" - (Erratza makila bai entzun dut, baina liburuena ez)

eskobea: erratza
eskubillea: eskuila
eutze: hautsa

"Bai berotu ite san, eta gero, nik estakit ser etxaten dotzen! ara bera! an eutze eukite seun an bean, nik estait ser" - (Bai berotu egiten zen, eta gero, nik ez dakit zer botatzen zion! hara behera! han hautsa edukitzen zuen han behean, nik ez dakit zer)

garbikusie: garbikuzia

giñarra latza: ginarra latza, erratza

jaboya: xaboia

koipe mantxea: koipe lohi ueña

labadorea: ikuzgailua

lejie: lixiba

"Bilboko erropea ekarte seurien garbitan eta imite situesan, e, orixe esan tzutena lejiñ imin bearrean eutzeas, surteko eutzeas" - (Bilboko arropa ekartzen zuten garbitzen eta ipintzen zituzten, horixe esan dizudana lixiban ipini beharrean hautsarekin, surteko hautsarekin)

loye: lohia, ugerra

"Axea ote sanean orduen ite san se emote akon axera altzetako garue olan, loye eroate otzen axeak" - (Haizea egoten zenean orduan egiten zen ze ematen zitzaion haizera altxatzeko garoa hola, lohia eroaten zion haizeak)

lumetxea: lumatxa

mantxea: lohidura, espila

mostoa: mostoa, musturrean jan ondoren geratzen diren lohi ueñak

"Ui! Su tekosu mostoa! Garbitu in bear da ori" - (Ui! Zuk daukazu mostoa! Garbitu egin behar da hori)

"Mostoa esaten dako yaten dosunean, eta estosunean garbituten ondo" - (Mostoa esaten zaio jaten duzunean, eta ez duzunean garbitzen ondo)

"Geuse bat grasadune, ta, selango mostoa dekosun! Garbitu ixi ori mostoa" - (Gauza bat koipeduna, eta, zelako mostoa daukazun! Garbi ezazu mosto hori)

plantxea: plantxa

saborra: zaborra, zarama

"Aspien saborra eukiten deu txakolinek, aunke garbi egon, beti deko an beste barrike batera, kanbie eskoan a itxite, txarrau, galdu iten deu txakoline" - (Azpian zaborra edukitzen du txakolinak,

garbi egon arren, beti dauka han beste barrika batera, aldatuz gero hura utzita, txarrago, galdu egiten du txakolina)

sosea: sosa

"Eta an benga erain t'erain tinekuen modukoa san, andi bet, t'ara etxaten dotzien, sosea bes" - (Eta han tira eragin eta eragin tinakoaren modukoa zen, handi bat, eta hara botatzen zioten, sosa ere ez)

tinekue, tinikue: tinakoa, arropak garbitzeko erabiltzen zen egurrezko ontzia

"Ba, arek ite seun olan tineku bet, eukite seun erropeagas, estakit ser botaten dotzen ara, ara tinekure, eta gero, an tinekuen eukite seun a be berako, an eraiten eraiten, an garbitan seun arek, e, gero, erropea loye bieldu be eseun iten, Bilbotik ekarte seun, etze bat euki seun ba, bastante ser onekoa, eta ixerak, eta oyatako ba, erropea ekarte seun eta an ibilte san, palu betegas" - (Ba, hark egiten zuen hola tinako bat, edukitzen zuen arroparekin, ez dakit zer botatzen zion hara, hara tinakora, eta gero, han tinakoan edukitzen zuen hura ere beherako, han eragiten eragiten, han garbitzen zuen hark, gero, arropa lohia bidali ere ez zuen egiten, Bilbotik ekartzen zuen, etxe bat eduki zuen ba, nahikoa zer onekoa, eta izarak, eta oheetako ba, arropa ekartzen zuen eta han ibiltzen zen palo batekin)

"Orduen, e, baserri dustitan egote sien tinekuek ganadueri yaten emoteko" - (Orduan, baserri guztietan egoten ziren tinakoak ganaduei jaten emateko)

ugerra: ugerra

"Au sirie, siri au es, ori ugerra da" - (Ziri hau, ziri hau ez, hori ugerra da)

7. SINESKERAK

Atal honetan sineskerei buruzko berbak batzen ditugu; sineskera horietariko gehienak elizari dagozkio; beste batzuk, ostera, garaiteko sinets esparruetan koka ditzakegu. Gaia aurkezteko honako azpiatalok egin ditugu: eliza, erlijioa, kleroa eta gainerako sineskerak.

7.1. ELIZA

aimariak, arimariak: abemarietako kanpaiak, ilundeko kanpaiak

"Ori bai baye ori san, e, ori esan erromerien asuntue ixeteko, ote siren, aimariak, eta arimenak, aimariak ixete siren elexan, ilundean aimariak, eta arimenak ya beluao, ya belu" - (Hori bai baina hori zen, hori ez zen erromerian gora behera izateko, egoten ziren, abemariak, eta arimenak, abemariak izaten ziren elizan, ilundean abemariak, eta arimenak ja beluago, ja belu)

aingeru kanpea: aingeru kanpaia; jaunhartzea egin aurretik umeren bat hiltzen zenean jotzen zen kanpaia.

"Nik entzute dekotzet, e, gurean amari te, ui! aingeru kanpea da, nor egon da famelie edo ixeteko, ba auron artean, ba fulana, a ba il dako umea, bai aingeru kanpea" - (Nik entzunda daukakiot, gurean amari eta, ui! Aingeru kanpaia da, nor egon da familia edo izateko, ba euron artean, ba urlia, a ba hil zaio umea, bai aingeru kanpaia)

albakoak: albakoak, goizeko kanpaiaren izena

"Albakoak esaten gontzien" - (Albakoak esaten genien)

altarea: aldarea

"Pinteute dana dau, eta alboan altara txikerrak atarata, Sanesteban ta estait selangoa" - (Pintatuta dena dago, eta alboan aldare txikerrak aterata, San Esteban eta ez dakit zelakoa)

amabiek: hamabietako kanpaiak

"Arimariak eta amabiek, eguerdietan amabiek jote situsen" - (Abemariak eta hamabiak, eguerdietan hamabiak jotzen zituen)

arimenak: arimenak, eguneko azken kanpaien izena

"Arimenak jo eskoan esta ibili bear kanpoan" - (Arimenak joz gero ez da ibili behar kanpoan)

elespea, eleispea: elizpea, elizaren arkupea

"Eleisperaño eroan, ta an, e, ba abadeak iteuren, kantu batzuk edo ite situen, eta gero kanposanture, kanposantuen itxite san seran ganean, ba an, a, txabola bat, en jeneral txabolak oten dire, t'an txabolan arri bet edo ser baten ganean, ta gero enterradorea, akordeta san enterretako

urrungo egunean edo" - (Elizperaino eroan, eta han, ba abadeak egiten zituzten, kantu batzuk edo egiten zituzten, eta gero kanposantura, kanposantuan uzten zen zeraren ganean, ba han, txabola bat, gehienetan txabolak egoten dira, eta han txabolan harri bat edo zer baten ganean, eta gero enterradorea, gomutatzen zen lurpetzeko hurrengo egunean edo)

"Bai, mesak apuntetako klaro egote sana! Elespean ite seituen, an eleispean daun arrie suk esetu dosu? Arri andi bet, au maye baño andiaua da, lodi lodi bet, eta an ite siren" - (Bai, mezak apuntatzeko jakina egoten zena! Elizpean egiten zituzten, han elizpean dagoen harria zuk ezagutu duzu? Harri handi bat, mahai hau baino handiagoa da, lodi lodi bat, eta han egiten ziren)

eleixea, elexea, elixea: eliza

"Oin bat or dau eskondute, or, elexea baño beratxuau, ta or be egon sien" - (Orain bat hor dago ezkondata, hor, eliza baino beheratxoago, eta hor ere egon ziren)

"Samudiokoa pe ba, bardin antzean, ortik, e, Bistalegretik eta Fuentenera an, e, Samudioko partera pasakeran Fuentenen be bai, eta, Samudioko elexara allege baño lenautxuau orrek, e, an be bai, eta gero elexaraño" - (Zamudiokoa ere ba, berdin antzean, hortik, Bista Alegretik eta Fuentenera han, Zamudioko aldera pasaeran Fuentenen ere bai, eta, Zamudioko elizara ailegatu baino lehenagotxo horiek, han ere bai, eta gero elizaraino)

"Oin dau arregleta, oingoa esta eleixea" - (Orain dago konponduta, oraingoa ez da eliza)

elixako liburue: meza liburua, elizako liburua

ermitea: ermita, baseliza

"Ermita bat on da, San Esteban, t'oin, e, santue ona errire, sera, ekar deure urrean, esta?" - (Ermita bat egon da, San Esteban, eta orain, santua hona herrira, zera, ekarri dute hurrean, ezta?)

"Ermita, oin a ermita, Loyuk antza koi deu, Loyuko erriek, terrenoa, eta ermita, ba, kenduteko ganea edo, nik estait se iteko idea dekien baye bai, erromerie ba beti, lelau, ite san, ba ite siren, ba, ser batzuk" -

(Ermita, orain ermita hura, Loiuk antza hartu du, Loiuko herriak, terrenoa, eta ermita, ba, kentzeko gogoia edo, nik ez dakit zer egiteko ideia daukaten baina bai, erronomia ba beti, lehenago, egiten zen, ba egiten ziren, ba, zer batzuk)

"Batzuk besteari emon in dotzie ba, Deriok galdu in deu asko, Deriok euki deu or ermite bat eta, jo! Deriok emon deu or terrenotan! Etzea pe bai, arek, e, la merced arek gustiek Derio ixen die, t'oin Loyu dies, ta ori ermiteori be bai" - (Batzuek besteei eman egin diete ba, Deriok galdu egin du asko, Deriok eduki du hor ermita bat eta, jo! Deriok eman du hor terrenotan! Etxeak ere bai, haiek, la merced haiek guztiak Derio izan dira, eta orain Loiu dira, eta ermita hori ere bai)

erre kanpea: erre kanpaia

"Erre kanpak be bai, neu pe orrek esetu dotes, bai ementxe, ortxe dau Larrabarri, bakixu non dauen? Ori erre sanean, gu bixi gintzesan seminarioan, ni semenarioan yayoa nas, an atzetxuen on san gure baserri etzea, eta, esate guen, e! Larrabarri dau erretan! Kanpak dires, kanpak dires!" - (Erre kanpaiak ere bai, neuk ere horiek ezagutu ditut, bai hementxe, hortxe dago Larrabarri, badakizu non dagoen? Hori erre zenean, gu bizi ginen seminarioan, ni seminarioan jaioa naiz, han atzetxoan egon zen gure baserri etxea, eta, esaten zuen, e! Larrabarri dago erretzen! Kanpaiak dira, kanpaiak dira)

il kanpak: hil kanpaiak

kandelerue: kandeleroa

kanpantorrea: kanpandorra

kanpaotza: kanpai-hotsa

kanpea: kanpaia

"Ba antza jote situen kanpak, esta? bi, pin! pin! bi era batera, bi basan morroskoa, iru iten basan enbrea, eta txikerra jote bagurien, txikerra, umia" - (Ba antza jotzen zituzten kanpaiak, ezta? bi, pin! pin! bi era batera, bi bazen morroskoa, hiru egiten bazen andrazkoa, eta txikerra jotzen bazuten, txikerra, umea)

"Len kanpatati igerte san bada gizona edo basan enbrea be bai" - (Lehen kanpaietatik igartzen zen bazen gizona edo bazen andrazkoa ere bai)

"Nire gizona il sanean, akabukoak entzun doas, kanpak esan gu dot, e, ilte sanean lagune, guk ensegida, etzean eta, kanpak jote situn, txikerra ta andie, kanpa txikerra ta andie, ta gero, akabuen, batera jote situn danak, iru, gizona danean, andrea danean bi, eta angerue ilte sanean txikerra bakarrik, guk etzetik yakiten gendun, e, nor il dan es, baye andrea edo gizona il dana bai" - (Nire gizona hil zenean, azkenak entzun ditut, kanpaiak esan gura dut, hiltzen zenean laguna, guk behingoan, etxean eta, kanpaiak jotzen zituen, txikerra eta handia, kanpai txikerra eta handia, eta gero, azkenean, batera jotzen zituen denak, hiru, gizona denean, andrea denean bi, eta aingerua hiltzen zenean txikerra bakarrik, guk etxetik jakiten genuen, nor hil den ez, baina andrea edo gizona hil dena bai)

korue: korua

kurtzea: gurutzea

"Ori es, kurtzeagas sakristue" - (Hori ez, gurutzearekin sakristaua)

"Kurtzeak, bai seran, an, e, gorpue lotute paternosterra erreseu abadeak, bai emen be on sien, se emetik urtetan sanean, e, kamiñora, kamiñoan, e, ba sera paternosterra, lotute, ta gero andik, Eskertzako etze oster, oin, e, Eskertza bota deurie, esta? Baye andik Malarten, ostetik, an, andikalderditi datosen jenteaitik estait ser, an be paternosterra etxateuren, eta Galbartun be bai, eta emen urtekeran kamiñora be bai, eta, gero, bestea Eskertzako etze ostan ta bestea, ba, Bistalegren kurtzean, eta gero ba seren, Deriora yoneskero Aldekonen, eta serean elexaldera allegeu baño lenau, or Etzebarria an goyen, oin, e, andik kamiñoa dau, e, sera ta, selan esango tzu pa? Parke tenoljokora edo trastera, andi dau bidea, an be bai, orrek gustiok iten sien" - (Gurutzeak, bai zerean, han, gorpua lotuta aita gurea erreztatu abadeak, bai hemen ere egon ziren, ze hemendik irteten zenean, kaminora, kaminoan, ba zera aita gurea, lotuta, eta gero handik, Ezkertzako etxe oster orain, Ezkertza bota dute, ezta? Baina handik Malaraino, ostetik, han, handiko alderditik datozen jendeagatik ez dakit zer, han ere aita gurea botatzen zuten, eta Galbarriatun ere bai, eta hemen

irtekeran kaminora ere bai, eta, gero, bestea Ezkertzakoa etxe ostean eta bestea, ba, Bista Alegreteren gurutzean, eta gero ba zerean, Deriora joanez gero Aldekonen, eta zerean eliza aldera ailegatu baino lehenago, hor Etxebarria han goian, orain, handik kaminoa dago, zera eta, zelan esango dizut ba? Parke teknologikora edo trastera, handik dago bidea, han ere bai, horiek guztiok egiten ziren)

mesa kanpak: meza kanpaiak

mesarako liburue: mezarako liburua, meza liburua

"Liburuek, bai, mesarako liburue emote ixen doskue, baye, euskaldune gitxi" - (Liburuak, bai, mezarako liburua ematen izan digute, baina, euskalduna gutxi)

organue: organoa

"Ta organue be jote san, baye oin a be esta jote entieruen, estau nok jorik esta? Domekatan bai" - (Eta organoa ere jotzen zen, baina orain hura ere ez da jotzen enterruan, ez dago nork jorik ezta? Domeketan bai)

parrokia: parrokia

"Au, e, parrokia San Kristobal ixen da gure beti te oin be, oin, e, San Isidro da baye, or deku elezea, oñikarren or dau elezea" - (Hau, parrokia San Kristobal izan da gurea beti eta orain ere, orain, San Isidro da baina, hor daukagu eliza, oraindik hor dago eliza)

pulpitue: pulpitua

"Abadeak pulpitutik gero geitu" - (Abadeak pulpitutik gero deitu)

"Sillekas oin, ta arek len banku illedak, ta pulpitue" - (Aulkiekin orain, eta haiek lehen banku ilarak, eta pulpitua)

"Atxine pulpituek eta ote sien ta selan berba iteuren!" - (Antzina pulpituak eta egoten ziren eta zelan berba egiten zuten!)

sakristie: sakristia

"Or goyen egon san, egon san bai, eta an egon san arri bet, arri lusea, an estakixu sakristireko atea? Aren ondoan on san maye onen tamañuko ba pai, eta ori, ondikarren, on dires oingo astean an" - (Hor goian egon zen, egon zen bai, eta han egon zen harri bat, harri luzea, han ez dakizu sakristiarako atea? Haren ondoan egon zen mahaia honen tamainako bat bai,

eta hori, oraindikarren, egon dira oraingo astean han)

"Ondikarren ointzu entzun dotzet nik neure laguneri, yoan sarie ara? Ba an esteurie ataraten mesarik, e? Mugire yoate sarie, Mugin estau mesarik, eta gero entzun dot bayetz an, sakristien egoten direla enbran batzuk eta apuntetan deuriela, se len pareta siren atean, sartukeran atean, eta an apunteta situesan mesak" - (Oraindikarren oraintsu entzun diot nik neure lagunari, joan zarete hara? Ba han ez dute ateratzen mezarik, e? Mungiarra joaten zarete, Mungian ez dago mezarik, eta gero entzun dut baietz han, sakristian egoten direla andrazkoren batzuk eta apuntatzen dutela, ze lehen paratzen ziren atean, sartukeran atean, eta han apuntatzen zituzten mezak)

santea: santua (f.)

santue: santua (m.)

"An egon diren santuek, su baño andiaoak, andiaoak, ta oin danak kendu deitue" - (Han egon diren santuak, zu baino handiagoak, handiagoak, eta orain denak kendu dituzte)

torrea: dorrea

txiline: txilina

"Txilineas etorte san" - (Txilinarekin etortzen zen)

"Es txilinegas es, kanpeagas, kanpea bat, andie ta txikerra, andie ta txikerra, eta oi! angerue il da!" - (Ez txilinarekin ez, kanpaiarekin, kanpaia bat, handia eta txikerra, handia eta txikerra, eta oi! aingerua hil da!)

ur bereinketue: ur bedeinkatua

"Bai ontxe ondikarren etzean dekot nik ur bereinketue" - (Bai oraintxe oraindikarren etxean daukat nik ur bedeinkatua)

"Bendesinoa, abadeak emoteko, ori don Julianek edo konponidu euen atzenean, e, egun beten, e, sera, orrek gausok akordetan dakusela esa euen beye txarto daunean ta olakoatan, esa oskun don Julianek, baye ori esan egon afesinoa, afesinoa egon san, abadea, etorten san ur bereinketue artu te soloak bereinketuten, soloak bereinketuten, soloak garie dauela sein artoa dauela" - (Bedeinkazioa, abadeak emateko, hori Don Julianek edo

konpondu zuen atzenean, egun baten, zera, gauza horiek akordatzen zaizkigula esan zuen behia txarto dagoenean eta holakoetan, esan zigun Don Julianek, baina hori ez zen egon zaletasuna, zaletasuna egon zen, abadea, etortzen zen ur bedeinkatua hartu eta soroak bedeinkatzen, soroak bedeinkatzen, soroak garia dagoela zein artoa dagoela)

ur bereinketu ontzie: ur bedeinkatu ontzia

7.2. ERLIJIOA

agur marie: Agur Maria, otoitz baten izena

aimarie: abemaria

"Amabirjineari iru aimarie errese bea dakos, ta berak koitan deu olan, e, ayubieta bat, baltza ixeten da, eta olan iten deu, ayubieteari alde bietatik eldute, san tietu sana urrutu, sana bere lekuen sartu, eta ala! Sertu, erreseu, aimarie, ta gero ostabe santietu, sana urrutu, sana bere lekuen sartu, erreseu beste aimari bet, bueno, iru bider, eta gero ayek, e, sanak, iten deitus origo artean, basi te epeldu, eta ayek amarreu, eta ba seraas, benda bateas koxu, eta iru egunean segiduen in, ta paseu iten da" - (Amabirjinari hiru abemaria errezatu behar zaizkio, eta berak hartzen du hola, aiubeta bat, beltza izaten da, eta hola egiten du, aiubetari alde bietatik helduta, zain tiratu zaina urratu, zaina bere lekuan sartu, eta tira! Zertu, errezatu, abemaria, eta gero ostera ere zain tiratu, zaina urratu, zaina bere lekuan sartu, errezatu beste abemaria bat, beno, hiru bider, eta gero haiek, zainak, egiten ditu olio artean, bazi eta epeldu, eta haiek amarratu, eta ba zerarekin, benda batekin koiu, eta hiru egunean segituan egin, eta pasatu egiten da)

aingerue, angerue: aingerua

aite gurea: aita gurea, otoitz baten izena

"Ak, e, eite otzun, e, seras, origoagas, origo artean iminte, kurtzeak! Kurtzeak, aite gurea alrebes erreseu, te gero kurtzeak in, eta gero a imini, te amarreute eukin" - (Hark, egiten zizun, zerarekin, olioarekin, olio artean ipinita, gurutzeak! Gurutzeak, aita gurea atzekoz aurrera errezatu, eta

gero gurutzeak egin, eta gero hura ipini, eta lotuta eduki)

aitearena: aitearena

amabirjinea, amabirjiñea: amabirjina

"Bai, bai, arek eseun urtetan, arik eta estakit senbet egun pase artean, Amabirjiñea pe, alan in seula ta aren sera, usue ixete san" - (Bai, bai, hark ez zuen irteten, harik eta ez dakit zenbat egun pasatu artean, Amabirjinak ere, hala egin zuela eta haren zera, ekandua izaten zen)

arimea: arima

"Ori esate gurien bein arimenak jo eskoan ori geubeskoantza ta, eta espabere urtetan deurie, ba arimek" - (Hori esaten zuten behin arimenak joz gero hori gauzkoentzat da, eta ezpabere irteten dute, ba arimek)

bautisoa: bataioa

bederatzi urrunek: bederatzi urrunak

"Bederatzi urrunek iru domekatan ixete san, nire memorien, iru domeka iste sien" - (Bederatzi urrunak hiru domeketan izaten zen, nire gogoan, hiru domeka izaten ziren)

beluko mesea: beluko meza, meza nagusia

"Kandelak eroate situn, e, domusantu ingirun edo olan eroate situn kandelak ta beluko mesan en jeneral ixeta san ori, orrek kandelak" - (Kandelak eroaten zituen, domu-santu inguruan edo hola eroaten zituen kandelak eta beluko mezan gehienetan bizten zen hori, kandela horiek)

bereinkasinoa, bereinkasiñoa, bendesinoa: bedeinkazioa

"Lagun bet ilten bada, arek preparentan dotzo ur bereinketue be, akabuko bendesinoa eta sera, ori intzentzoa ta orrek, arek preparentan deu" - (Lagun bat hiltzen bada, hark prestatzen dio ur bedeinkatua ere, azken bedeinkazioa eta zera, hori intsentsua eta horiek, hark prestatzen du)

bijilie: bijilia

"Bulea koiten eseunak, bijilie in bear ixeteun derrigor" - (Bulda koiuten ez zuenak, bijilia egin behar izaten zuen derrigor)

birjinea: birjina

buldea, bulea: bulda

"Buldea pageta san bijilie esiteko" - (Bulda ordaintzen zen bijilia ez egiteko)

"Pageu ite san buldea" - (Ordaindu egiten zen bulda)

"Ba erosi ite siren bulek, pageta siren onenbesteko bat, segun borondatea" - (Ba erosi egiten ziren buldak, ordaintzen ziren honenbesteko bat, segun borondatea)

debosinoa: debozioa

dotrinea: doktrina

"Bai dotrinea eukiten gendun" - (Bai doktrina edukitzen genuen)

"Gitxi eskolan, baye yoaten gintzesan gora, gora yoaten gintzesan, urtetan gendun lenao eskolatik, eta goiko elexara yoaten gintzesan, dotrinea euskeras iten" - (Gutxi eskolan, baina joaten ginen gora, gora joaten ginen, irteten genuen lehenago eskolatik, eta goiko elizara joaten ginen, doktrina euskaraz egiten)

"Ni akorta nas, gure aitek esate gula bat, egon san emen, onek surtidoran aitite, aitite es, aitek, antza ixen san, yaki seun ba, sera, dotrinea, ta esaitzesu, emon deistela txantela, besteak, datorrela bera, ta esotzon emon, estotzu gure ixen emon? Are padaki nik selan dakiten" - (Ni gomutatzen naiz, gure aitek esaten zuela bat, egon zen hemen, honek gasolindegiairen aitaita, aitaita ez, aitek, antza izan zen, jakin zuen ba, zera, doktrina, eta esaiozu, eman diezadala txantela, besteak, datorrela bera, eta ez zion eman, ez dizu gura izan eman? Hark badaki nik zelan dakidan)

ebanjelioa: ebanjelioa

"Gure Yone Mirene pe eroa situsen ebanjelioak, esta? Ta da olantxe partxetxu bet, baye estai pa" - (Gure Jone Mirenek ere eroan zituen ebanjelioak, ezta? Eta da holaxe partxetxo bat, baina ez dakit ba)

"Oin yoaten da ba, kasureko ebanjelioa erresetan" - (Orain joaten da ba, kasurako ebanjelioa errezatzen)

elxartzea: eliza hartzea, umea egin eta ostean amak elizara egiten zuen lehen irteera

errespontzoa: errespontsua

"Sepulturen imite siren, eta lengo errespontzoak" - (Sepulturan ipintzen ziren, eta lehenago errespontsuak)

erresue: otoitza

errogatibea: errogatiba

"Ni neuk es baye entzun bai, ite seuriela errogatibea, ba, santuek atara kanpora, ori ixate san Santi Mami, or bean estosu

entzun? E, ermite bat selan dauen? Trenan ondoan? Estasiño sarra? Arexen bestekalderdien egon san Santi Mami, eta ara atate guriela, estaule iten euririk eta Santi Mami atara deurie kanpora, eurie iteko" - (Nik neuk ez baina entzun bai, egiten zutela errogatiba, ba, santuak atera kanpora, hori izaten zen Santi Mami, hor behean ez duzu entzun? Ermita bat zelan dagoen? Trenaren ondoan? Geltoki zaharra? Harexen besteko alderdian egon zen Santi Mami, eta hara ateratzen zutela, ez duela egiten euririk eta Santi Mami atera dute kanpora, euria egiteko)

errosarioa, erresarioa: errosarioa

"Ba astean bein edo, edo domeka arrastietan errosario ostean edo, abadeas, baye ostantzean maistrak eurek" - (Ba astean behin edo, edo domeka arrastietan errosario ostean edo, abadearekin, baina osterantzean maistrak eurak)

"Antxe on, erresario bat erreseu edo ta ba gero antxe egon, geubian ba lagundu ite yakiela etzekoari, lagundu iten dakiela ta antxe" - (Hantxe egon, errosario bat errezatu edo eta ba gero hantxe egon, gauean ba lagundu egiten zitzaie la etxekoei, lagundu egiten zaiela eta hantxe)

goxeko mesea: goizeko meza

"Goxeko mesan, sortziretan egote san lelengo mesea, eta an esan bistuten, baye gero beluko mesan an" - (Goizeko mezan, zortzietan egoten zen lehenengo meza, eta han ez zen bizten, baina gero beluko mezan han)

gure jaune: gure jauna

"Kandeleagas yoan bear da, e? Se dakardie gure jaune, bai klaro! Gure jaune dator, eta kandelea bea da" - (Kandelarekin joan behar da, e? Ze dakarte gure jauna, bai jakina! Gure jauna dator, eta kandela behar da)

infernue: infernua

iru urrunek: hiru urruneko meza; hiru egunean segituan egiten diren mezak

jangoikoa, jainkoa: jaungoikoa

"Komunidu bada, segidu iteko espabere, batu diela Jangoikoak, ori esate gurien" - (Komeni bada, segitu egiteko ezpabere, batu dezala Jaungoikoak, hori esaten zuten)

"Bai atxine, nik ori amari entzunte dekotzet amari, ta berrogetamar urten diferentzie euki gendun amak eta nik, ta areri entzunte dekotzet, baten erein, soloa, ta, akabuen despediden ba en jeneral, e, nik beti esan dot, gure deuna in diela edo al deuna, esan dot nik en jeneral, baye ak erregular, e, gure deula nai esteuela! Jainkoak gure badeu esan barik, Jainkoak gure deula nai esteuela! Ta batek urteotzen, eta bera lupue, eseuen koyu, garuri pe, bat eta bera lupue" - (Bai antzina, nik hori amari entzunda daukakiot amari, eta berrogeita hamar urteren alde eduki genuen amak eta nik, eta hari entzunda daukakiot, baten erein, soroa, eta, azkenean agurrean ba gehienetan, nik beti esan dut, gura duena egin dezala edo ahal duena, esan dut nik gehienetan, baina hark antza, gura duela nahi ez duela! Jaungoikoak gura badu esan barik, Jaungoikoak gura duela nahi ez duela! Eta batek irten zion, eta bera lupua, ez zuen koiu, garaurik ere, bat eta bera lupua)

jesusen biotza: Jesusen bihotza

kandela bedeinketue: kandela bedeinkatua

"Orduen kandela bereinketue bistu" - (Orduan kandela bedeinkatua biztu)

"Badau persona bat gaxorik, txarto etzean, eta abiseta yakon abadeari, orduen, a kandlea bistute san" - (Badago pertsona bat gaixorik, txarto etxean, eta abisatzen zitzaion abadeari, orduan, kandela hura bizten zen)

komuniñoa, komunioa: komunioa

"Eta aren begire, orduen bakixu abade asko etorte siren etzera, bile, eta egun orretan, mayetzan ixen san, komuniñoak goyen, egon san ser bat, inisitu trogoya!" - (Eta haren begira, orduan badakizu abade asko etortzen ziren etxera, bila, eta egun horretan, maiatzean izan zen, komunioak goian egon zen zer bat, oinaztu trumoia)

"Abadea, ba, geure etzera be etor da, barikuetan etorte san geure amagana, lusero egon san, e, oyan eta komunioa emoten etorte siren" - (Abadea, ba, geure etxera ere etorri da, barikuetan etortzen zen geure amagana, luzaro egon zen, ohean eta komunioa ematen etortzen ziren)

"Atzokoa komuniñoa ixen san" - (Atzokoa komunioa izan zen)

konfesinoa: konfesioa, aitortza

kretoa: kretoa

limosnea: limosna

"Limosnea, erriko abadeari be emoten gentzen, erriko abadeari be, ba urtean baten iteuren garie bereinketuten edo, bijea, eta sakristue sestilleas" - (Limosna, herriko abadeari ere ematen genion, herriko abadeari ere, ba urtean baten egiten zuten garia bedeinkatzen edo, bidaia, eta sakristaua otzaratxoarekin)

linboa: linboa, bataiatu bako umeak hiltzen zirenean linbora joaten ei ziren.

memoriela: memoriala, meza mota

"Urtegarrenian bai, memoriela ostabere, e, urte memoriela ite san danen, danari bakotzak!" - (Urtegarrenean bai, memoriala ostera ere, urte memoriala egiten zen denean, denei bakoitzak!)

mesa barrie: abadeak egin berritan ematen duen lehen meza

"Mesa barrie ixate san ba abade ordeneta sanean, bat, bai abade ite sanean, mutil bet, edo sera, ba mesa barrie" - (Meza berria izaten zen ba abade ordenatzen zenean, bat, bai abade egiten zenean, mutil bat, edo zera, ba meza berria)

mesa neusie: meza nagusia

mesea: meza

"Senbeteko mesea emon dosun, ba bostekoak edo amarrekoak edo, senbet, kantidedea libre ote san, ixen apelliduek koiten sendusen eta dirue emote seun" - (Zenbateko meza eman duzun, ba bostekoak edo hamarrekoak edo, zenbat, kantitatea libre egoten zen, izen-abizenak hartzen zenituen eta dirua ematen zuen)

"Bai, be bai, ori be bai ite san, bai, ba ori esateko, bueno, dau, e, igual esateko les eusoko bat, oso txarto, eta esin da ta esin da, ordun esan egon eser, eta mesa bat atara bear dako, ba batu danak, emon dirue, eta meseak ba se balioko eun orduen? geuse andirik es, ba atarate geun" - (Bai, ere bai, hori ere bai egiten zen, bai, ba hori esateko, beno, dago, beharbada esateko lez auzoko bat, oso txarto, eta ezin da eta ezin da, orduan ez zen egon ezer, eta meza bat atera behar zaio, ba batu denak, eman dirua, eta mezak ba ze balioko zuen orduan? gauza handirik ez, ba ateratzen zuen)

"Bai mesa pai, mesak ataten sien, eta, serak, e, selan esango tzu pa? Gure amak an batan bateri, andran bateri pregunte yotzen, e, or bean bixi ixen san oin a etzea bixi de baye eurek famili gustie il direz ta, gure amak esa otzen se, bueno, atara bai mesea baye, onek gustiok, banan banan esango ditu abadeak? Es neu pe ori abadeari pregunte otzet, baye, esetz esan dost, lau edo bostanak era batera batu, eta mesea esan, baye eurek egun gustietan esan bea deurela mesa bat, segaitik se, ba obligasinoa dekiela mesea emoteko, ta orreri mesak emoten, ta errien ainbeste ilten sien ta, lau edo bosten artean, ba imini te emoten situesan mesak" - (Bai mezak bai, mezak ateratzen ziren, eta, zerak, zelan esango dizut ba? Gure amak han baten bati, andrearen bati itaundu zion, hor behean bizi izan zen orain etxe hura bizi da baina eurak familia guztia hil dira eta, gure amak esan zion ze, beno, atera bai meza baina, hauek guztiok, banan-banan esango ditu abadeak? Ez neuk ere hori abadeari itaundu diot, baina, ezetz esan dit, lau edo bostenak era batera batu, eta meza esan, baina eurek egun guztietan esan behar dutela meza bat, zergatik ze, ba obligazioa daukatela meza emateko, eta horri mezak ematen, eta herrian hainbeste hiltzen ziren eta, lau edo bosten artean, ba ipini eta ematen zituzten mezak)

misinoa, misinoia: misioa

"Onexek, etorte sien porejemplo Deriora, aste santue iste san igual ta bueno sortzi eguneko misinoa taus sermoyak iten" - (Hauexek, etortzen ziren esaterako Deriora, aste santua izaten zen beharbada eta beno zortzi eguneko misioak daude sermoiak egiten)

nobenea: nobena

olata mesea: olata meza

"Olata mesea, urrungo, salidea esate otzie oin urrungo domekan edo urrungo bigarren domekan iten dana" - (Olata meza, hurrengo, irteera esaten diote orain hurrengo igandean edo hurrengo bigarren igandean egiten dena)

"Olata mesea da, gorpue, entarreu edo il eta urrungo domekan iten dana" - (Olata meza da, gorpua, enterratu edo hil eta hurrengo domekan egiten dena)

orasiñoa, orasinoa: errezoa, orazioa, otoitza

pekatarie: bekataria

pekatue: bekatua

promesea: agindua

prosesinoa: prozesioa

purgatorioa: purgatorioa

salidea: 1. irteera meza. 2. eliza hartzea

"Ori ba salidea esate otzien, ta bai, neu be yoa nas oin esteure iten, baye neu be yoa nas, eta nire ama ta amama ta danak yoango sien, lenaukoak danak, baye oin olangorik esta iten" - (Hori ba irteera esaten zioten, eta bai, neu ere joan naiz orain ez dute egiten, baina neu ere joan naiz, eta nire ama eta amama eta denak joan ziren, lehenagokoak denak, baina orain holakorik ez da egiten)

"Ori salide ori san, segun dekoten, legidu be bai te, esan be bai, lenau amabirjinea pe, berrogeigarren egunean eroa euen, e, bere semetxu ori ba, ta, amabirjineak i eules salidea, berrogeigarren egunean, ba orrexen sera da ori, eta emen be umeak jayoten sienean, berrogeigarren egunean, ba, edo Deriora edo Begoñara, en jeneral Begoñara" - (Irteera hori zen, segun daukadan, irakurri ere bai eta, esan ere bai, lehenago Amabirjinak ere, berrogeigarren egunean eroan zuen, bere semetxo hori ba, eta, Amabirjinak egin zuen legez irteera, berrogeigarren egunean, ba horrexen zera da hori, eta hemen ere umeak jaiotzen zirenean, berrogeigarren egunean, ba, edo Deriora edo Begoñara, gehienetan Begoñara)

"Begoñen ba, ortariko salide asko oten san" - (Begoñan ba, horietariko irteera asko egoten zen)

san gregorio mesak: San Gregorio mezak

"San Gregorio mesak sien, mesa asko sien orrek! Otamar mesa edo, defuntueri" - (San Gregorio mezak ziren, meza asko ziren horiek! Hogeita hamar edo, defuntuei)

santue: santua, saindua

sermoya: sermoia

"Samudion egon san abade batek suek pekatariak, baye es! Samudion egon san abade bat, beti pulpitutik ba, iteuna sermoya, suek pakatariok! Bera esan ixen" - (Zamudion egon zen abade batek zuek bekatariak, baina ez! Zamudion egon zen

abade bat, beti pulpitutik ba, egiten zuena sermoia, zuek bekatariok! Bera ez zen izan)

serue: zerua

txantela: txantela, abadeak ematen zuena urteko konfesioa egin ondoren.

"Txantela be bai emote gurien" - (Txantela ere bai ematen zuten)

urte memoriela: urte memoriala, meza mota

urte mesea: urte meza

7.3. KLEROA

abadea: abadea

"Gero abadeari itxite akon dirue" - (Gero abadeari uzten zitzaion dirua)

"On siren abade bat don Juan, eta don Sebastian, don Sebastian mutilekas, eta don Juan neskakas, eta don Sebastianek burle ite yoskun, bo! Onek neskak estakie eser be, eta aitik no taki ba? Mutilek askos gao" - (Egon ziren abade bat don Juan, eta don Sebastian, don Sebastian mutilekin, eta don Juan neskekin, eta don Sebastianek burle egiten zigun, bo! hauek neskak ez dakite ezer ere, eta hagatik nork daki ba? mutilek askoz gehiago)

"Loyuko abadea ixen san gure amaman nebea" - (Loiuko abadea izan zen gure amamaren neba)

"Lelango klaseak estai pa, sei abade, ta bigarrenak iru, iru abade edo, olangon bat, eta ba, irugarrenak abade bat bakarrik eroateuen" - (Lehenengo motak ez dakit ba, sei abade, eta bigarrenak hiru, hiru abade edo, holakoren bat, eta ba, hirugarrenak abade bat bakarrik eroaten zuen)

aite santue: aita santua

frailea, fraillea: fraidea

"Amalau urte baixen lelau batan bat, e, sartuko san fraille" - (Hamalau urte baino lehenago baten bat, sartuko zen fraide)

"Or Leyoan on siren fraile batzuk" - (Hor Leioan egon ziren fraide batzuk)

"Eskean, e, frailleak etorte akusen, serak, emoten, hombre! Kontzejuek emoten ta garixumen, ta bata ta bestea, amen deku frailea esetute, aite Patxi, Deustutik etorte sana esateuen, aite Patxi" - (Eskean, fraideak etortzen zitzaizkigun, zerak,

ematen, ño! Aholkuak ematen eta garizuman, eta bata eta bestea, hamen daukagu fraidea ezagututa, aita Patxi, Deustutik etortzen zena esaten zuen, aita Patxi)

komentue: komentua

mayordomoa: maiordomoa, ermiten ardura edukitzen duena

"Mayordomoa emen bai, emen elexan bai, lelau, parrokien, oin estau, oin estau mayordomarik es eser" - (Maiordomoa hemen bai, hemen elizan bai, lehenago, parrokian, orain ez dago, orain ez dago maiordomarik ez ezer)

"Mayordomoak ba, dirue batu be bai, batzean be ibilte san mayordomoa, da gero diruen kontabilidea eroate seun, se ote san, e, or, e, elexan, bost ibilte siren, e, ba elexan dirue batzen, bost, e, plater, danak illedan buelta gustie elexeari emote otzien" - (Maiordomoak ba, dirua batu ere bai, batzen ere ibiltzen zen maiordomoa, eta gero diruaren kontabilitatea eroaten zuen, ze egoten zen, hor, elizan, bost ibiltzen ziren, ba elizan dirua batzen, bost, plater, denak ilaran buelta guztia elizari ematen zioten)

mojea: moja

"Orrek pentzetan dot nik esetu dotesela an goiko mojetan orma eskinen, one tiñosen orrek" - (Horiek pentsatzen dut nik ezagutu ditudala han goiko mojetan horma izkinean, honek dinozan horiek)

"Amen mojari, dekies sagarrak, ta orreri akorde akien oin iru urte edo, itea, sagardoa" - (Hamen mojei, dauzkate sagarrak, eta horiei gomutatu zitzaizen orain hiru urte edo, egitea sagardoa)

monagilloa: monagilloa, meza-laguna

"Soloak eite itusen bereinketu, ta gero abadeak ekarteuen monagilloa alboan, eta areri ba lantzean ollosko bat da, limosnea, beste batzuk arrotzek, edo seuser emoten abadeari" - (Soroak egiten zituen bedeinkatu, eta gero abadeak ekartzen zuen meza-laguna alboan, eta hari ba lantzean oilasko bat eta, limosna, beste batzuek arrautzak, edo zer edo zer ematen abadeari)

obispoa: apezpikua

parrokoa: parrokoa

sakristanea: sakristaua (f.)

"Ori sakristaneak, orren ardurea euki seun elexako ardurea ta kanpana" - (Hori sakristauak, horren ardura eduki zuen elizako ardura eta kanpaiena)

sakristue: sakristaua

"Orrek, e, kanpak jo ta olangoak, sakristuek abadeari lagundu te ba" - (Horrek, kanpaiak jo eta holakoak, sakristauak abadeari lagundu eta ba)

"Soloa be bai orre pe esetu doas, ta emote yakosen, e, edo arrotzek, edo olloskoak, edo emote yakosen, ta sakristue ote san kargeas gero etzera allegeu esinik" - (Soloa ere bai horiek ere ezagutu ditut, eta ematen zitzaizkion, edo arrautzak, edo oilaskoak, edo ematen zitzaizkion, eta sakristaua egoten zen kargarekin gero etxea ailegatu ezinik)

"Soloak bereinketuten, e, san juanatan, e, etorte san, e, sakristuegas" - (Soroak bedeinkatzen, san juanetan, etortzen zen, sakristauarekin)

seminaristea: seminarista

"Matzak ote sien or, da seminaristek ote sien danak itxunte ba, arbolapetan, beskaldu te gero estudietan edo" - (Mahatsak egoten ziren hor, eta seminaristak egoten ziren denak etzanda ba arbolapeetan, bazkaldu eta gero estudiatzen edo)

7.4. GAINERAKO SINESKERAK

adue: adua, patua

"Ori konbertzasinoa esango du gero, fameli ixekeran edo, aduek yagon dile edo" - (Elkarrizketa hori esango dugu gero, familia izakeran edo, aduak jagon dezala edo)

Anbotoko señoraa: Anbotoko andrea

"Anbotoko señoraa bai, bai, olan apur bet, e, basoas erromerien yantzite apur bet, ba, diferentetxu edo, nosonos ba, bata barri be pe iten da ta, serean ta, aor ba! Badoa, sera, Anbotoko señoraa" - (Anbotoko andrea bai, bai, hola apur bat, bazoaz erromerian jantzita apur bat, ba, desberdintxo edo, noiz edo noiz ba, bata berri bat ere egiten da eta, zerean eta, haor ba! Badoa, zera, Anbotoko andrea)

begiskona, begiskone, begiskones, beiskones: begizkoa

"Begiskones da, nietzat, ba, kapritxoan artu geuse bat, asko gure ixen dotzun geuse bat eta ene, ba, aitu txarto pare da, begiskones in dotzo" - (Begizkoa da, niretzat, ba, kapritxoan hartu gauza bat, asko gura izan dizun gauza bat eta ene, ba, aditu txarto paratu da, begizkoa egin dio)

"Loyure eroan deudie nik, e, orrek, e, Aldekoneko orrek umeak, nik yagon doasnak, orrek, e, bat egon san eta, urteta yotzen orrotza, orros bat urteta yotzen, ei yotzen, e, berak i yotzesan, e, geusekas orrotza bat, ta esa otzen, e, andreari, esa otzen, oneri umeari, in dotze begiskones yoskille batek, yosten, e, orrotza dabillen, e, persona batek, arek segaiti edo agaitik ein dotzo begiskonesa" - (Loiura eroan dute nik, horiek, Aldekoneko ume horiek, nik jagon ditudanak, horiek, bat egon zen eta, irteten zion orratzak, orratz batek irteten zion, egin zion, berak egin zizkion, gauzekin orratz bat, eta esan zion, andreari, esan zion, ume honi, egin diote begizkoa joskile batek, josten, orratza dabilen, pertsona batek, hark zergatik edo hargatik egin dio begizkoa)

"Begiskones ixeten san, kasureko, ba ume bat gure dotzenari, enbidie badotze, ba, nik alan dekot entzutea, enbidie badeko persona batek, ume batena, ume txiker batena, areri berak estakila, arek, e, pegetan yotzon ser bat, orrotza bat pintxetea les, orrotza bateas, eta ori eroan bea iste san ba, oin estau baye, atxine andraskoak on sien, olan begiskones iten yotzienak" - (Begizkoa izaten zen, kasurako, ba ume bat gura dionari, inbidia badio, ba, nik hala daukat entzutea, inbidia badauka pertsona batek, ume batena, ume txiker batena, hari berak ez dakiela, hark, inkatzen zion zer bat, orratz bat pintxatzea legez, orratz batekin, eta hori eroan behar izaten zen ba, orain ez dago baina, antzina andrazkoak egon ziren, hola begizkoa egiten zietenak)

"Orduen iten sana san, ume bate padeko badau, e, sera, selan esaten, begiskones!" - (Orduan egiten zena zen, ume batek badauka badago, zera, zelan esaten, begizkoa!)

"Geu be eskare atrebitan lar esaten, se gero, begiskona koiten dosku, ara sartuten

bagares" - (Geu ere ez gara ausartzen lar esaten, ze gero, begizkoa hartzen digu, hara sartzen bagara)

"A bai! Baye, eta egon iten san begiskoana orduen" - (A bai! Baina, eta egon egiten zen begizkoarena orduan)

iritxoa: iratxoa

"Iritxoak, ba, pistiek esateuden siela" - (Iratxoak, ba, piztiak esaten zuten zirela)

"Iritxoak, bai, iritxoak urteta eudela" - (Iratxoak, bai, iratxoak irteten zutela)

kate saratea: kate zarata

kutune: kutuna, inork umeari begizko egin ez diezaion jartzen zena

lamie: lamina

"Lamiek lenau egon iten sien seguru, baye oin, e, lamiek, e, asfaltoak eta sementoak eroan deitue, oin estau lamirik" - (Laminak lehenago egon egiten ziren ziur, baina orain, laminak, asfaltoak eta porlanak eroan dituzte, orain ez dago laminik)

"Ageak eurek girrintze be in, e, axeagas ta ingeruegas da, lamie edosein ixeten san lamie orduen, baye oin estau" - (Habeak eurek girrintze ere egin, haizearekin eta inguruarekin eta, lamina edozein izaten zen lamina orduan, baina orain ez dago)

ogi bereinketue: ogi bedeinkatua; gabonetan zamauaren azpian txakurrak ez amorratzeko gordetzen den ogia

origo sundea: olio sundea, purgatorioko arimak penatzen daudelako basoan asmatzen den sundari esaten zaio

"Baye ori txarra da, eta ori origo sunde ori, barrentetako goxaldean altze bea da, goxean, e, ba irurek laurek ingeruen, erre sundea, origoan erre sundea, baye oten san, e?" - (Baina ori txarra da, eta hori olio sundea hori, barruntatzeko goizaldean altxatu behar da, goizean, ba hirurak laurak inguruan, erre sundea, olioaren erre sundea, baina egoten zen, e?)

sorgine, sorgiñe: sorgina

"Derion egoan sorgiñe esateutzen enbra bat, eta oso, barritzue, edo oso, txarra san! Eta sorgiñe, sorgiñe san!" - (Derion zegoen sorgina esaten zioten andrazko bat, eta oso, berritsua, edo oso, txarra zen! Eta sorgina, sorgina zen!)

"Bera, bera enbrea san sorgiñe, geuk esaten geuntzen sorgiñe" - (Bera, bera andrazkoa zen sorgina, geuk esaten genion sorgina)

"Es, es, bera san sorgiñe" - (Ez, ez, bera zen sorgina)

"E, san, e, barritzue, kontu asko, beti kontuek kontetako prest, eta beti iñoaiti txarto esateko prest, eta beti olau, eta olaori sorgiñe esate akon" - (E, zen, berritsua, kontu asko, beti kontuak kontatzeko prest, eta beti inorengatik txarto esateko prest, eta beti holako, eta holakoari sorgina esaten zitzaion)

"Sorgiñena pe asko konteta sien ordun" - (Sorginenak ere asko kontatzen ziren orduan)

"Bai baye gure serean ya esan sinestuten, ba ori gure aititek, akorta nas esaten sarri, orrek estire sorginek, esate gun, orrek sorginek estires, estau sorginik" - (Bai baina gure zerean ja ez zen sinesten, ba hori gure aitaitak, akordatzen naiz esaten sarri, horiek ez dira sorginak, esaten zuen, horiek sorginak ez dira, ez dago sorginik)

"Ori, nik gure amari dekotzet entzunde, esate guriela, gure ama da, ori parkean, tenoljikoan goyen mendirantza, daon baserri betekoa, eta an, ba egon san erreka bat, eta esate seun es yoan ordu orretan, se an esaten deurie an errekan, sorgine tausela orrasten, ta nik esate neutzen, ama! Ta suk ikusi dosu iños? Es ori esaten gurien" - (Hori, nik gure amari daukakiot entzunda, esaten zutela, gure ama da, hori parkearen, teknologikoaren goian mendirantz, dagoen baserri batekoa, eta han, ba egon zen erreka bat, eta esaten zuen ez joan ordu horretan, ze han esaten dute han errekan, sorgina daudela orrazten, eta nik esaten nion, ama! Eta zuk ikusi duzu inoiz? Ez hori esaten zuten)

"Oin estaki pa, baye bai atxine tximinitik sartze sirela esateuren sorginek, bai! Es ba se! Tximinitik sartze siren sorginek" - (Orain ez dakit ba, baina bai antzina tximiniatik sartzen zirela esaten zuten sorginak, bai! Ez ba ze! Tximiniatik sartzen ziren sorginak)

"Bai gero, sorginek katu formetan diela ta esateuren ta" - (Bai gero, sorginak katu egiten direla eta esaten zuten eta)

"Arek uleak, batu ite sien, ta batzuk eukite seuren forme bat, beste batzuk beste bat, besteak ollarrana, eta, ta koño! Au sorgine da! Sorginena be bai gero! Bai berak esan

deuena gero erre, erre danak!" - (Ile haiiek batu egiten ziren, eta batzuek edukitzen zuten itxura bat, beste batzuek beste bat, besteek oilarrarena, eta, eta koino! Hau sorgina da! Sorginarena ere bai gero! Bai berak esan duena gero erre, erre denak!)

"Or dau ba! Sorgine bere estala erretan esaten deure, sorgine estala erretan, baye estai pa, erregular, e, isterra sorgintzet eukite ixen dana, baye, sarratu tzu, e, erregular, e, sorgine esan ixen antza persone baño, baye estai pa nik, katu formetan diela ta esaten deure ta" - (Hor dago ba! Sorgina ere ez dela erretzen esaten dute, sorgina ez dela erretzen, baina ez dakit ba, aurki, izterra sorgintzat edukitzen izan dena, baina zarratu diogu, aurki, sorgina ez zen izan antza pertsona baino, baina ez dakit ba nik, katu egiten direla eta esaten dute eta)

"Yoan akon ori, ori sorgin ori, ta rapa! Kanpora, ta esateuen au da itzela! Orrek andra orrek se inder in tzo orreri" - (Joan zitzaion hori, sorgin hori, eta rapa! Kanpora, eta esaten zuen hau da itzela! Andre horrek ze indar egin dio horri)

"Ba klaro! Ibili diela sorginek, sorginek atzetik tiretu tziela, besteko sorginek urten tziela bidean" - (Bai jakina! Ibili direla sorginak, sorginak atzetik tiratu diotela, besteko sorginek irten diotela bidean)

"Ba egote sien, e, batzuk, ixeras, ixerea imini ganetik eta urtete tzienak bidera, ta sorginek urten tziela ta" - (Ba egoten ziren, batzuk, izararekin, izarra ipini gainetik eta irteten zietenak bidera, eta sorginek irten zietela eta)

"Ori sarri entzun yoat leku beten baño giaotan, ori eutzori kendu ixue orti edo ori eutzori garbitu ixue, espabe sorginek ingo deure yantzan emen" - (Hori sarri entzun diat leku baten baino gehiagotan, hauts hori kendu ezazue hortik edo hauts hori garbitu ezazue, ezpabere sorginek egingo dute dantzan hemen)

"Nik entzun dot, e, gixon batek, ausoko katue yoaten ara beti, ta beti an esnean ta, ene! Onek se iten deu amen? Sorgine ixen seguru! Eta, jo iten deu te, isterra apurtu tzo, eta urreo egunean bestea, ba, ori isterra apurtute, sorginek" - (Nik entzun dut, gizon batek, auzoko katua joaten hara

beti, eta beti han esnean eta, ene! Honek zer egiten du hamen? Sorgina izan antza! Eta, jo egiten du eta, izterra apurtu dio, eta hurrengo egunean bestea, ba, hori izterra apurtuta, sorginak)

sorginkerie: sorginkeria

"Sorgiñenak, ba, sorginkeriek esate san" - (Sorginenak, ba, sorginkeriak esaten zen)

sorgin kontue: sorgin kontua

"Orrek sorgin kontue tire" - (Horiek sorgin kontuak dira)

8. HERIOTZA

Atal honetan gizakiaren heriotzarekin lotuko lexikoa batzen dugu.

agonie: agonia, hiltoria

"Etzerik etze yoate san ba, agonien daunean edo ba, aren serarako ba, mesea abadeak iteko ba dirue batzen" - (Etzerik etxe joaten zen ba, agonian dagoenean edo ba, haren zererako ba, meza abadeak egiteko ba dirua batzen)

andabidea: andabidea, gorpua etxetik elizara eroateko bidea

"Andabidea esate yakon, andabidea entieruetako gorpue yoate san bidea, eta ote san, e, metro bat paseu, metro t'erdi ingeruko bidetxue ote san, bueno bidetxue, a be basas beterik, se eseun inok arregletan ta, ba gero aren, aren kontran ote san estratea esate yakon, ganaduek eta bidea, ba gurdiak eta ibilteko" - (Andabidea esaten zitzaion, andabidea entieruetako gorpua joaten zen bidea, eta egoten zen, metro bat pasatu, metro eta erdi inguruko bidetxoa egoten zen, beno bidetxoa, hura ere basaz beterik, ze ez zuen inork konpontzen eta, ba gero haren, haren kontra egoten zen estrata esaten zitzaion, ganaduak eta bidea, ba gurdiak eta ibiltzeko)

"Au be, elexara bidea, oin amen, geu etor garen ori elexea, len or egon san, andabidea esate otzien, andabidea, eta gero andabidetik bera, estratea, gurdiak eta, eta emetik elexara egon san" - (Hau ere, elizara bidea, orain hamen, heu etorri garen eliza hori, lehen hor egon zen, andabidea esaten zioten, andabidea, eta

gero andabidetik behera, estrata, gurdiak eta, eta hemendik elizara egon zen)

andarie: anda eroalea, andaria

"Ba, andariak ixete siren familikoak, badeko lobak, semeak esien yoaten, e, iños bes! Lobak, edo ausokoak, ixete san, e, andarien sera, edo, lengusuek edo, segun se familikoa dan il dana" - (Ba, andariak izaten ziren familiakoak, badauka lobak, semeak ez ziren joaten, inoiz ere ez! Lobak, edo auzokoak, izaten zen, andarien zera, edo, lehengusuak edo, segun ze familiatakoa den hil dena)

bixie: bizia

"Bueno umeakas kanteu dot neure bixien, Jesus Marie ta Jose! asko euki doas baya" - (Beno umeekin kantatu dut neure bizian, Jesus Maria eta Jose! asko eduki ditut baina)

"Semet bider, guk estu eukin iños se gurean, janbon txinboas, eta, bixi gustien" - (Zenbat bider, guk ez dugu eduki inoiz ze gurean, txinbo xaboiarekin, eta, bizi osoan)

"Estot entzun neure bixien" - (Ez dut entzun nire bizian)

bixitza: bizitza

defuntue: hilekoa, defuntua

"Ori ixete san ba defuntuen, ordun olau saratea barrunteta sanean, mesea atara bear da se, defuntuek falta deu seoser, esate san" - (Hori izaten zen ba defuntuen, orduan holako zarata barruntatzen zenean, meza atera behar da ze, defuntuak falta du zer edo zer, esaten zen)

"Defuntuek urteten deurie, ta selan urten deurie? Igual batzuk, e, serak ixen, ixera batzu taus! Ixera suri betegas, ta ori ixete san mutil batzuk, eukite gurien, ba neskak non dabiltesan, imini ixera bat, eta urten asustetan" - (Defuntuek irteten dute, eta zelan irten dute? Beharbada batzuk, zerak izan, izara batzuk daude! Izara zuri batekin, eta hori izaten zen mutil batzuek, edukitzen zuten, ba neskak non dabilzan, ipini izara bat, eta irten ikaratzen)

"Defuntuen usenagaitik, ba aren serean atate san, ba orduen ba ser? Semet atako san orduen? Sementen mesak? Asko es, estakit nik ya aistute be badekot baye" - (Defuntuaren izenagaitik, ba haren zerean ateratzen zen, ba orduan ba zer? Zenbat

aterako zen orduan? Zenbaten mezak? Asko ez, ez dakit nik ja ahaztuta ere badaukat baina)

entierue, intierrue: enterrua, lurpetzea

"Entieruek, ori san, e, Deriokoa, baye orrek Lobagak, orrek mendie, badakixue? Orren mendien, orkoa ixen san, ta an in san bat, eta Samudioko, abadea, selan san? E, Don Segundo, don Segundo, es! Don Mariano, biek egon sien ta! Don Marianok eseun, e, Deriogas esan arregletan, eta arek esotzen itxi entierue bajatan, andik asi eta, gorartian, eta orren Montorrerartean da Derio, ori Montorre, orrek fabrikek eta dauena inte, eta Montorrerartean ekarri seun Derioko abadeak, eta gero andik Samudiokoak ona, Almasenerarte" - (Enterruak, hori zen, Deriokoa, baina horiek Lobagak, horiek mendia, badakizue? Mendi horren, horkoa izan zen, eta han egin zen bat, eta Zamudioko, abadea, zelan zen? E, Don Segundo, Don Segundo, ez! Don Mariano, biak egon ziren eta! Don Marianok ez zuen, Deriorekin ez zen konpontzen, eta hark ez zien utzi enterrua baxatzen, handik hasi eta, goraino, eta horren Montorreraino da Derio, hori Montorre, fabrika horiek eta dagoena eginda, eta Miontorreraino ekarri zuen Derioko abadeak, eta gero handik Zamudiokoak hona, Almazeneraino)

eriotzea: heriotza

"Batan ba tau ilten edo, paraje dau seuser eriotza, ori bai asko esate gurien, e?" - (Baten bat dago hiltzen edo, paraje dago zer edo zer heriotza, hori bai asko esaten zuten, e?)

errekadistea: errekadu egilea, errekadista; heriotzaren berri etxerik etxe ematen zuena
"Etzeatatik, bai, eta ibiltzen sien ba serak, errekadistek, ta pageu ite otzien errekadisteri, etzerik etze" - (Etxeetatik, bai, eta ibiltzen ziren ba zerak, errekadistak, eta ordaindu egiten zieten errekadistei, etxerik etxe)

funerala: hileta

gauelea: gaubeila

gorpue: gorpua

"Soloti pe ukus dot inos gorpue eroaten, lelau, e, lepoan eroate san gorpue lauen artean" - (Solotik ere ikusi dut inoiz

gorpua eroaten, lehenago, lepoan eroaten zen gorpua lauen artean)

"Gorpuen eurretik yoate san kurtzeas, ba, etzeko, porejemplo, ser bat, aitebitxi edo, edo olango bat yoate san kurtzeas, gero yoate san abadea, edo abadea ta sakristue, ta gero yoate san gorpue, eta gero atzetik, e, atzeko serak lelengo" - (Gorpuaren aurretik joaten zen gurutzearekin, ba, etzeko, esate baterako, zer bat, aitabitxi edo, edo holako bat joaten zen gurutzearekin, gero joaten zen abadea, edo abadea eta sakristaua, eta gero joaten zen gorpua, eta gero atzetik, atzeko zerak lehenengo)

"Gorpuak atarateko ta, bai! Bidea etzeti ba, orduen esan on kotxerik eta!" - (Gorpuak ateratzeko eta, bai! Bidea etxetik ba, orduan ez zen egon autorik eta!)

ilbegire: gaubeila, hil-beila

ile: hila, hilotza

kanposantue: kanposantua, ortu-santua, hilerrria

"Geuges bearrean kanposantuen ibili da" - (Gurekin beharrean kanposantuan ibili da)

"Len elexara sartu baño lelau kanposanture eroate san, ondino, ba geure, aite defuntue alantxe ingo san, pentzetan dot, gero ba estait senbet denpora ixengo dan il dala, bueno, ainbet urte da, baye ostantzean, lelau elexara esan sartzen" - (Lehen elizara sartu baino lehenago kanposantura eroaten zen, oraindino, ba geure, aita defuntua halaxe egingo zen, pentsatzen dut, gero ba ez dakit zenbat denbora izango den hila dela, beno, hainbat urte da, baina osterantzean, lehenago elizara ez zen sartzen)

"Elespian, ta elespian eite yotzien orasiñoak erreseu te pater nosterra, ta kanposanture gorpue, ta familiak eta abadeak lagunta otzien kanposanture, nire aiteri eta amari be alan ikusi dot, eta beste entierri batzutara yoan nasenian be bai, eta gero an, etxate yotzen abadeak, e, pater nosterra erresetatzen, e, kanposantuen, ta orduen elexara, danak, ta elexara ta entierri elexan ite san" - (Elizpean, eta elizpean egiten zizkioten orazioak errezatu eta pater nosterra, eta kanposantura gorpua, eta familiak eta abadeak laguntzen zioten kanposantura, nire aitari eta amari ere

hala ikusi dut, eta beste enterru batzuetara joan naizenean ere bai, eta gero han, botatzen zion abadeak, pater nosterra errezatzen zion, kanposantuan, eta orduan elizara, denak, eta elizara eta enterrua elizan egiten zen)

lutue: lutua

"Bai, aite ileskero ba baltz baltzik eta ama be bai, baye aitite ileskero ba, medio lutue, bai, amama be ileskero, ta lengusine pe badies, ba, lutue, medio lutue bai, baye seuser klarutxuau, baye igual antzean" - (Bai aita hilez gero ba beltz-beltzik eta ama ere bai, baina aitaita hilez gero ba, lutu erdia, bai, amama ere hilez gero, eta lehengusinak ere badira, ba, lutua, lutu erdia bai, baina zer edo zer argitxoago, baina berdin antzean)

"Aiteri te amari, urte bi, nebea ileskero urte bete, eta, aitite ta amama ileskero sei ilebete, orrexek sien" - (Aitari eta amari, urte bi, neba hilez gero urte bete, eta, aitaita eta amama hilez gero sei hilabete, horiexek ziren)

sepulturea: sepultura, elizan familiaren hilekoen oroimenez jartzen zena, beronen gainean sorki beltz bat zamau zuri batek estalia, har kandelak biztuta egoten ziren batzuetan

"Sepulturek esate otzien, ta erriko, kasureko, ba guk euki gendun lau, lauena sepulture bat orrek kandela, andiekas a sepulturea, eta eite san, iru domekatan an, e, mesea, ta etxate siren, errespontzoak ara, bakotxak txakur andi bet edo bi edo iru edo modue dekonak! Eta arek, e, mesea akabetan danean, danatakoak, sepulture bakotxera botate seun, ba famili bakotxekoak danak, eta mesea akabeta sanean danak arek, ba, batute situn abadeak eta, pater nosterra errestan otzien" - (Sepulturak esaten zieten, eta herriko, kasurako, ba guk eduki genuen lau, lauena sepultura bat kandela handi horiekin sepultura hura, eta egiten zen, hiru domeketan han, meza, eta botatzen ziren, errespontsuak hara, bakoitzak txakur handi bat edo bi edo hiru edo modua daukanak! Eta haiek, meza amaitzen danean, denetakoak, sepultura bakoitzera botatzen zuen, ba familia bakoitzekoak denak, eta meza amaitzen zenean denak hark, ba, batzen zituen

abadeak eta, pater nosterra errezatzen zien)

"Bai, bai, trapu bet illune aspitik, eta puntilledune almidoyagas ta plantxeute beste bat surie, ganetik, ederto! ta arek kandelak ixeta siren, eta antxe oten san bakotxan familikoak" - (Bai, bai, trapu bat iluna azpitik, eta puntiladuna almidoiarekin eta plantxatuta beste bat zuria, gainetik, ederto! eta kandela haiek izaten ziren, eta hantxe egoten zen bakoitzean familiakoak)

"E, kasureko ba apellidue edo i bet eta a bat edo olan, e, letra osoa barik eukite seudien, sepulturerako inte" - (E, kasurako ba abizena edo "i" bat eta "a" bat edo hola, letra osoa barik edukitzen zuten, sepulturako eginda)

"Sepultureak, illedak, iru, iru euki situn, iru illeda, onek sepulturea esate otzen, orrek kandela lodiek, neusiekas, eta arek eukite seun armariotxu beten moduen ate, sertxu beten, ta an dobleta itxite san, bayeta bat, e, baltza aspitik, ta gero bordeue, puntille lodi, edo esan gu dot olan puntille andi betas, sepulturea, eta ara etxate san ba, bakotxak txakurrandi bet edo bi edo, etxate seitun ara sepulturera, oin il barriek iru domekatan, iru domekatan ilte sanean ba, danak etxateudien mesara yoaten dienak, orduen, e, ba txakurrandi bet asko iste san ta, txakurrandi bet edo bi te ba, alantxe, ta gero abadeak mesea emote seunean, arek dustiek koite seitun, e, txoto, buruko txotora barrure danak, bakotxeko, ta antxe pareu, eta paternosterra bakotxeko, erresetaseun" - (Sepulturak, ilarak, hiru, hiru eduki zituen, hiru ilara, hauek sepultura esaten zieten, kandela lodi horiek, nagusiekin, eta hark edukitzen zuen armairutxo baten moduan atea, zertxo baten, eta han tolestuta uzten zen, baieta bat, beltza azpitik, eta gero bordatua, puntilla lodi, edo esan gura dut hola puntilla handi batekin, sepultura, eta hara botatzen zen ba, bakoitzak txakurrandi bat edo bi edo, botatzen zituen hara sepulturara, orain hil berriek hiru domeketan, hiru domeketan hiltzen zenean ba, denek botatzen zuten mezara joaten direnek, orduan, ba txakurrandi bat asko izaten zen eta, txakurrandi bat edo bi eta

ba, halaxe, eta gero abadeak meza ematen zuenean, haiek guztiak hartzen zituen, txoto, buruko txotora barrura denak, bakoitzeko, eta hantxe paratu, eta aita gurea bakoitzeko, errezatzen zuen)

trapue: trapua, zamaua, sepulturetako zamaua

9. UMEZAROA

Atal honetan umezaroaren gaineko berbak batzen ditugu; azpi-atalak olgetak, umeekin erabiltzen den lexikoa eta, azkenik, eskolari dagokiona batzen dugu.

9.1. UMEEN OLGETAK

arretxiko: arretxikili, arretxiko, arrelpo

billetea: txartela, tren txartelak, hauekin olgatu egiten zen

"A san gero billeteak, a, koyu, te aras, e, billeteak atara" - (Hura zen gero txartelak, koiu, eta harekin, txartelak atera)

"Ba bai txapeas yota ba, billetea atara" - (Ba bai txaparekin jota ba, txartela atera)

bisikletea: bizikleta

"Bisikletan Antonio Errekaldekoa usaba ixen san" - (Bizikletan Antonio Errekaldekoa ugazaba izan zen)

botxoa: kanikak edo intxaurrak sartzeko lurrean egiten den zuloaren izena

"Nire koñatea ba, eta or Aldekonen, bakixu len selan egon san tabernea, suk esetu dosu tabernea? An, osea, kurtzean aurrean egon san ba, taberna bat, ori Juanita egon san or, ango usabandreas lusero, an aurrean ite gurien sulo bat, eta mutilek eta neskak intxurrekas olgetan, eta nire koñateak, intxur asko koite seudienean, an botxoan dausela ra! Koyu te martxeu" - (Nire koinata ba, eta hor Aldekonen, badakizu lehen zelan egon zen taberna, zuk ezagutu duzu taberna? Han, hau da, bidegurutzearen aurrean egon zen ba, taberna bat, hori Juanita egon zen hor, hango ugazabandreaekin luzaro, han aurrean egiten zuten zulo bat, eta mutilak eta neskak intxaurrekin olgatzen, eta nire koinatak, intxaur asko koiuten zutenean, han botxoan daudela ra! Koiu eta alde)

botxoka: botxoka, kanikak edo intxaurrak
botxoan sartzeko lurrean egiten den olgeta
erraya: marra, lerroa; olgetetan erabiltzen
dena eta osterantzekoa ere bai.

*"Billetakas ein kuadrue, kuadru ein ta an
imini billetak, ta txapa batas, erraya, ta
erraire bota, ta an lelango lotzean dana
errayan, parajen lotzean danak, ak,
lelango axe san billetak ataten" -
(Txartelekin egin laukia, laukia egin eta
han ipini txartelak, eta txapa batekin,
marra, eta marrara bota, eta han
lehenengo lotzen dena marran, parajeen
lotzen denak, hark, lehenengo huraxe zen
txartelak ateratzen)*

goitiberea: goitibehera

*"Bai ibil nas goitiberan be" - (Bai ibili naiz
goitibeheran ere)*

*"Ori, kotxean, e, kotxean, e, sera, txirrinke
langoa, baye, kotxeak usetan deurie asko,
eta ak, an, e, arek, e, iru, iru, bat aurretik,
sartu egur bet, eta gero ein, e, olan, e,
trianguloa, armasoya, ta atzean beste egur
betas beste biek sartu alde banatan, ta
goitiberea" - (Hori autoaren, autoaren,
zera, txirrinka lakoa, baina, autoek
erabiltzen dute asko, eta hark, han, haiek,
hiru, hiru, bat aurretik, sartu egur bat, eta
gero egin, hola, hirukia, armazoa, eta
atzean beste egur batekin beste biak sartu
alde banatan, eta goitibehera)*

iturrie: iturria, botila txapen izena, hauen
bidez lasterketak egiten ziren

jugetea: jostailua

*"Nire gixonak esate osten, umeari ekarri
jugeteak, bai guk gure denporan eukin du
jugetea, ekarte oskun amak ori, eta orreri
imini errueda bat, eta urte dustireko
jugetea eukite neuen" - (Nire gizonak
esaten zidan, umeari ekarri jostailuak, bai
guk gure sasoiari eduki dugu jostailua,
ekartzen zigun amak hori, eta horri ipini
txirrinka bat, eta urte guztirako jostailua
edukitzen nuen)*

*"Ni ortan enas ixen fine, nik, e, jugeteak artu,
eiteko, erosi in bixete ostien, baye atan be
jugete gitxi" - (Ni horretan ez naiz izan
fina, nik, jostailuak hartu, egiteko, erosi
egin behar izaten zidaten, baina hartan ere
jostailu gutxi)*

kanikea: kanika

kikili: arrekikili, batak bestea gainean eroatea

kinkine: kinkina, lurrean inkatzeko erabiltzen
den tresna punta zorrotza; beronekin olgeta
bat egiten zen

kirrin-karran: kirrin-karran, bat gurdiaren
puntan izertolaka jesarrita paratzen da,
garaitekoek kamari sakatuta gora eta
behera erabiltzen dute

*"Kirrin-karran baye itzel gustetan dakie, ori
itea gustetan dakie, estakixu airen ibiltzen
dies ta" - (Kirrin-karran baina itzel
gustatzen zaie, hori egitea gustatzen zaie,
ez dakizu airean ibiltzen dira eta)*

kordela: kordela, zibari dantzan eragiteko
erabiltzen dena

korroa, korroan: korroa, korroan

*"Danak korroan pareute kanteu, makurtu te
orrek siren gure, olgetak" - (Denak
korroan paratuta kantatu, makurtu eta
horiek ziren gure, olgetak)*

kuika: kuika, ostu-ostuka

*"Kuika ba, estaldute siren, estaldu iten
gintzen ta, gu topetan ibilte san an baten
bat" - (Kuika ba, estaltzen ziren, estaldu
egiten ginen eta, gu topatzen ibiltzen zen
han baten bat)*

*"Kuika san, kasureko, kuiten, kuiten yoate
sanean, oixe san kuika, eta ori bestea estait
selan esate akon" - (Kuika zen, kasurako,
harrapatzen, harrapatzen joaten zenean,
horixe zen kuika, eta beste hori ez dakit
zelan esaten zitzaion)*

*"Orreri esaten tzien kuika" - (Horri esaten
zioten kuika)*

kukutxea: tronpa buruak daukan egur
akastxoa; ume batzuek kendu egiten izan
diote. Kordela begia bertan lotzeko
erabiltzen zen

*"Ori egur sati be ta, bolatu, bean, e, sorrotza
dala, ta an untzea sartu, ta gero kordelas
amarreu, seetik, kukutxetik, kukutxea
goyen, ta andik amarreu, a, untzera" -
(Hori egur zati bat da, bolatu, behean,
zorrotza dela, eta han iltzea sartu, eta gero
kordelarekin amarratu, zeretik, kukutxatik,
kukutxa goian, eta handik amarratu,
iltzera)*

muñekea: andrakila

*"Muñekak sano gitxi, ori batan batzuk, apur
bet, e, an, fameli Bilbon edo orti tekosenak,
ostean pentzeu bes!" - (Andrakilak sano
gutxi hori baten batzuk, apur bat, han,*

familia Bilbon edo hortik dauzkanak, ostean pentsatu ere ez)

olgetea: olgeta, jolasa

"Esteko, esta bueno antzi pes! Esetan bes! Orduko olgetak eta oingoak, esetan bes!" - (Ez dauka, ezta beno antzik ere ez! Ezagutzen ere ez! Orduko olgetak eta oraingoak, ezagutzen ere ez!)

"Orduko ba, olgeta moduek orrek ixeten sien ta" - (Ordukoa ba, olgeta moduak horiek izaten ziren eta)

pelotea: pilota

"Bai pelota pai, amari, ostu, mediek eiten dauen lanea, kortxo bat imini erdien ta a batu te, pelotea bai" - (Bai pilotak bai, amari, ostu, galtzak egiten dagoen ilea, kortxo bat ipini erdian eta hura batu eta, pilota bai)

pido marro: olgeta batzuetan norbera libratzeko esaten den berba

"Emen dauselakoan, andi yoan ta emekoak, emen pido marro inte, emekoak lenau koxu te" - (Hemen daudelakoan, handik joan eta hemengoak, hemen pido marro eginda, hemengoek lehenago koiu eta)

sokan: sokan, soka dantzan

tabaka: tabaka

"Ta gero tabaka, tabak, e, ba, artxotxuek, e, ba ilten sien ta etzeatara be ba, lantzen bin, a, artxoan bat yateko gogoa ta, ba sei taba, eta batzuk sien ba, estait nik, batzuk sien, taba batzuk obeak beste batzu paño, ta, estekonak, e, erosi be igual se pinteute saldu iten situesan ta, erosi be igual" - (Eta gero tabaka, tabak, ba, artxotxoak, ba hiltzen ziren eta etxeetara ere ba, lantzean behin, artxoren bat jateko gogoa eta, ba sei taba, eta batzuk ziren ba, ez dakit nik, batzuk ziren, taba batzuk hobeak beste batzuk baino, eta, ez daukanak, erosi ere beharbada ze pintatuta saldu egiten zituzten eta, erosi ere beharbada)

tabea: taba

"Ba ori san, e, tabak juntetan gendusen, amar taba, ta gero kanike bat, eta, tabak bota bera, eta kanikea bota gero ta tabeari bueltea emon" - (Ba hori zen, tabak batzen genituen, hamar taba, eta gero kanika bat, eta, tabak bota behera, eta kanika bota gero eta tabari buelta eman)

"Ba iminte san, tabak, da sei eukiten gendusen" - (Ba ipintzen zen, tabak, eta sei edukitzen genituen)

"Eta gero iminte siren olantxe sertute les, biek olantxe urteten, ta akabuen sertu, te aber selan lotuten diren, lotuten badires bi alde batera, irebaste san, bai bat batera lotuten basan ta, tabeak bakixu alde batetik sulotxu beten moduen deko ta bestea lisu" - (Eta gero ipintzen ziren holaxe zertuta legez, biak holaxe irteten, eta azkenean zertu, eta ea zelan lotzen diren, lotzen badira bi alde batera, irabazten zen, baina bat batera lotzen bazen eta, tabak badakizu alde batetik zulotxo baten moduan dauka eta bestea liso)

tiragomea: tiragoma

tronpea: ziba

"Eskolan eiten gendun tronpeas" - (Eskolan egiten genuen zibarekin)

trukame: trukamera

trukamera: trukamera

txapaka: txapaka

"Txapaka, iten san, olango kuadrotxu bet imini, ta txapak an montoyan ta gero an, errai bat, ta txapak ara bota, eta erraitik parajeen dekona a lelango botaten ba serak, billeteak, ta txapakas billetea pe apurtu, treneko billeteak gustiek batu ixinik" - (Txapaka, egiten zen, holako laukitxo bat ipini, eta txapak han piloan eta gero han, marra bat, eta txapak hara bota, eta marratik parajeen daukana hura lehenengo botatzen ba zerak, txartelak, eta txapekin txartelak ere apurtu, treneko txartelak guztiak batu ezinik)

txapea: txapa

"Bai iten gendun, ite san emen, emen olan olan, gero emen gitxiao, ta emen giau, eta emetik, emetik, emetik ona, emetik orra, eta gero gora, ser batas, txapa bategas" - (Bai egiten genuen, egiten zen hemen, hemen hola hola, gero hemen gutxiago, eta hemen gehiago, eta hemendik, hemendik, hemendik hona, hemendik horra, eta gero gora, zer batekin, txapa batekin)

"Txapea san ori" - (Txapa zen hori)

txapel gordetan: txapel gordetzen

"Beste bat, e, txapela gordetan, txapela edo trapu bet edo, suloatan gordeu, alantxe, apurtu neuen lelangos kaderea nik, axe gordetan, gordeu, eta bajatu, eta arri bet

egon bean, ta a koyute kask ei osten" - (Beste bat, txapela gordetzen, txapela edo trapu bat edo, zuloetan gorde, halaxe, apurtu nuen lehenengoz hanka nik, huraxe gordetzen, gorde, eta baxatu, eta harri bat egon behean, eta hura koiuta hautsi egin zidan)

txinboa: txinboa

txirinbueltea: txirinbuelta, buruaren gainetik egiten den buelta

txirrindolea, txirrintolea: txirritxola, txirrinkola

txori abiek topetan: txori habiak topatzen

"Umetan, txori abiek topetan" - (Umetan, txori habiak topatzen)

untzea: troparen iltzea

"Untze batas be bardin, untzea be bardin da, lurrean sartu" - (Iltze batekin ere berdin, iltzea ere berdin da, lurrean sartu)

yokoa: jokoa

"Or sien yokoak" - (Hor ziren jokoak)

9.2. UMEEN LEXIKOA

apapa: apapa, ibiltzeko esaten da

apapa yoan: apapan joan, paseoan joateko esaten da

aupa: aupa, altxatzeko esaten da

et: ez; zer edo zer egin ez dezaten edo arriskuaz jabe erazteko esaten zaie

et et et: ez ez

fu: fu, sua; erretzeko arriskua dagoenean ere esaten da

guaguau: txakurra

kilikili: kili-kilia

koko: koko, txokolatea, gozokia

lastana: lastana, deikari amultsua

lau txakur: lau txakur, katanar

"Oin koiteduek, frakak yantzite badoas orti, ba, lau txakur doas ta" - (Orain koitadutxoak, prakak jantzita badoaz hortik, ba, lau txakur doaz eta)

lolo: lo

lolo in: lo egin

mama: mama, ura

mañak: treta, maina

mañosoa: mainatia

mau: jan

misina: mitxina, katua

pa: musua

pa emon: musua eman

papa: papa, ogia

papatak: zapata

pispiña: deikari amultsua

pitxie: pitxia, jostailu, txibizkeria

pitxin: umei amultsuki esaten zaie

plisti-plasta: plisti-plasta

pun: jausi

punbala: jausi

punbala in: jausi

pupu: mina

pupu in: min egin, min hartu

sarkotxea: zaharkotxo, nagusien gauzak egiten dituen neskatua

ta: jo

tas-tas: jotzearen onomatopeia

tete: txupetea

tipi-tapa: oinez ibili arintxo

txapiskola: neskatuei esaten zaie amultsuki

txatxa: fruitua

txatxurre: lehen haginak irtekeran esaten zaie

"Umeari esaten dakona, a, orixe, txatxurrek" - (Umeari esaten zaiona, a, horixe, txatxurrak)

txetxe: txetxe, umea

txi: erre

txibiskerie: txibizkeria

txitxi: okela

txupetea: txupetea

txurku-txurku: zurrut edan

ume moko: ume moko, umekondoa

"Ori da apur bet, e, umeak bakixu batzuk, giau dakie beste batzu baño, serak, eta txikerratan ya dana dakiles, ai ume moko orrek dana daki!" - (Hori da apur bat, umeak badakizu batzuek, gehiago dakite beste batzuek baino, zerak, eta txikerretan ja dena dakien legez, ai ume moko horrek dena daki!)

9.3. ESKOLA

errekroa: errekroa

eskolea, eskolia: eskola

"Nire eskolea Derion, Derion euki gendun" - (Nire eskola Derion, Derion eduki genuen)

"Diputasinoan eskolak siren orrek eta diputasinoti ekarte situesan kursoa asteko liburuek eta danak guk eskendun erosten esebes, e? Kuadernoan batzuk ekarten baoskuesan etzean kuentak iteko edo olan

baye ostantzen esebes" - (Aldundiaren eskolak ziren horiek eta Aldunditik ekartzen zituzten kurtsoa hasteko liburuak eta denak guk ez genuen erosten ezer ere, e? Koadernoren batzuk ekartzen bazizkiguten etxean buruketak egiteko edo hola baina osterantzean ezer ere ez)

"Eskolea, ni ixte nintzen lelango urteatan, serean, seminarioa dauen lekuen, ni orra yoa nas" - (Eskola, ni izan nintzen lehenengo irteten, zerean seminarioa dagoen lekuan, ni horra joan naiz)

"Eskolea non egon san, estotzue esan? Ementxe gure etxean baño atzes, egon san erriko eskolea, eta gero beste bat egon san, ementxe guk artu dun bueltea baño onantza, barriadan" - (Eskola non egon zen, ez dizute esan? Hementxe gure etxean baino atzez, egon zen herriko eskola, eta gero beste bat egon zen, hementxe guk hartu dugun buelta baino honantzago, auzotegian)

"Eskolan ondo pasetan gendun, maestra onak euki gendusen guk, onak, eta ondiñokarren ba ointzu il dires" - (Eskolan ondo pasatzen genuen, maistra onak, eduki genituen guk, onak, eta oraindikarren ba oraintsu hil dira)

kastigue: zigorra

katoya: katoia, alfabetoa ikasteko erabiltzen zena

"Bai katoya bai, a legitan, maistreak koi katoya, ta su maistrea ixete les, ta aren ondoan leitan, danok korroan" - (Bai katoia bai, hura irakurtzen, maistrak koiu katoia, eta zu maistra izatea lez, eta haren ondoan irakurtzen, denok korruan)

kuadernoa: koadernoa

letrea: letra

"Tableruen ite siren, e, letrak, eta gero ba, egote siren, e, pisarrea esaten geuntzen orduen, e, tableru txikerrean, eta an pisarren iten gendusen kuentak se an, borra ite san selangure, kontrara iten basan borreu te barriro in" - (Arbelean egiten ziren, letrak, eta gero ba, egoten ziren, arbela esaten genion orduan, arbela txikerrean, eta han arbelean egiten genituen buruketak ze han, borratu egiten zen zelangura, kontrara egiten bazen borratu eta berriro egin)

"Orrexek letra tie" - (Horiexek letrak dira)

librue, liburue: liburua

"Orrek liburuek iten dosues?" - (Liburu horiek egiten dituzue?)

"Libruek ba maistreak emote yoskunak" - (Liburuak ba maistrak ematen zizkigunak)

"Bai, aitu, liburuek ekarten situesan diputasiñotik, eta selango liburuek!" - (Bai, aditu, liburuak ekartzen zituzten Aldunditik, eta zelako liburuak!)

lumerue: zenbakia

"Ba bai konteu ite sien, e, onenbeste lumeru, batzutan ogei, beste batzutan amar, imiten gendusen, lumerue, ta a konteu akabeu orduko estaldute on bixiteurien, eta gero topetan asi" - (Ba bai kontatu egiten ziren, honenbeste zenbaki, batzuetan hoge, beste batzuetan hamar, ipintzen genituen, zenbaki, eta hura kontatu amaitu orduko estalduta egon behar izaten zuten, eta gero topatzen hasi)

maistrea: maistra

"Eukin gendusen maistra batzuk! Bat san Arratikoa eta beste bat Mungikoa" - (Eduki genituen maistra batzuk! Bat zen Arratiakoa eta beste bat Mungikoa)

"Estudieu guk esebes, baye orduen be maistre, batzuk asi te itxi euren, baye beste batzuk, e, batek esekien, ba maistre egon san lusero, ta koitedue gaste gasterik il san barres" - (Estudiatu guk ezer ere ez, baina orduan ere maistra, batzuk hasi eta utzi zuten, baina beste batzuk, batek ez zekien, ba maistra egon zen luzaro, eta koitadua gazte gazterik hil zen barrez)

maixue, maisue: maisua

"Ortarako one tie maixuek" - (Horretarako hauek dira maisuak)

"Eskolan be karra! Maisue atzean dala" - (Eskolan ere karra! Maisua atzean dela)

papela: papera

"Burus ikisi, papelak emon, papelak eurek eskribidute batek, e, ba badeko, toketan dakonari ba emoten dotzien papelak, ta andik papeletik" - (Burus ikasi, paperak eman, paperak eurek idatzita batek, ba badauka, tokatzen zaionari ba ematen zizkioten paperak, eta handik paperetik)

pisarrea: arbela

tablerue: arbela

10. DENBORA

Denborari buruzko berbak hobeto aurkezteko atal hau ondoko azpiataletan banatuta emango dugu: urtaroak, hilak, astegunak, denboraren banaketa, egunaren banaketa eta egunen arteko erlazioak

10.1. URTAROAK

negue: negua

"Neguen etorte siren lenau emen, etze gitxi egoanean" - (Neguan etortzen ziren lehenago hemen, etxe gutxi zegoanean)

"Negu asikeran etorri te, emen ote sien udebarrirarte" - (Negu hasieran etorri eta, hemen egoten ziren udaberrira arte)

udea: uda

"Udea be sartzen san arean" - (Uda ere sartzen zen arean)

"Erropea garbitako, kasu beterako, erropea garbitako, emen uden eskendun eukiten urik, bea dan beste" - (Arropa garbitzeko, kasu baterako, arropa garbitzeko, hemen udan ez genuen edukitzen urik, behar den beste)

"A! uden olaorik esteu iten, olaorik uden esteu iten, orrek oin iten tus" - (A! udan holakorik ez du egiten, holakorik udan ez du egiten, horiek orain egiten ditu)

udebarrie: udaberria

"Etorten die udebarrien, ibilten dienean bueltaka" - (Etortzen dira udaberrian, ibiltzen direnean bueltaka)

udegoyena: udagoiena, udazkena

"Sarri iten gendusen, e, udebarrien erosi, te gero udegoyenean, e, edo lenau, erdien kendu, okelarako" - (Sarri egiten genituen, udaberrian erosi, eta gero udagoienean, edo lehenago, erdian kendu, okelarako)

10.2. HILAK

abendue: abendua

agostue, agustue: abuztua

"Agostuen gaus" - (Abuztuan gaude)

aprile, apirille: apirila

"Aurten aprilean dielakoa dekot" - (Aurten apirilean direlakoa daukat)

disienbre: abendua

"Obeto da disienbren erdien asi, ta enerora, aitu barik ser dan, ta danak in" - (Hobeto da abenduaren erdian hasi, eta urtarrilera, aditu barik zer den, eta denak egin)

eneroa: urtarrila

"Denpora gitxi barru barrien iten deure trasigeu, nik, e, iten dot trasigeu, eneroan" - (Denbora gutxi barru berrian egiten dute aldatu, nik, egiten dut aldatu, urtarrilean)

febrero: zezeila

julio: garagarrila

junio: bagila

martie: martia, martxo

"Atate sien, oin, e, martien, marti apirilean lelango, eta gero agostuen, eta agostutik gorako ote sien, e, ba, oin sasoi ontarako, orduen solora, atata, artesén solora, gero gurean lekuri pes ta, kanpoan, e, gure aite defuntuek eseuén eukiten satzik, ta errasoya be eseuén euki txikerra, andie ademas, kanpoan dauen satza galdu iten da" - (Ateratzen ziren, orain, martxoan, martxo apirilean lehenengo, eta gero abuztuan, eta abuztutik gorako egoten ziren, ba, orain sasoi honetarako, orduan sorora, aterata, artezean sorora, gero gurean lekuri ere ez eta, kanpoan, gure aita defuntuak ez zuen edukitzen satsik, eta arrazoa ere ez zuen eduki txikerra, handia gainera, kanpoan dagoen satsa galdu egiten da)

"Ori etorko da ori, martien akabuen, aprillan asikeran, arik eta sanpedroa pase artean" - (Hori etorriko da hori, martxoaren amaieran, apirilaren hasieran, harik eta sanpedroa pasatu arte)

mayetza: maiatza

"Emen, e, etorri ite sien, e, domusantu ingiruen, eta arik eta mayetza asikera artean edo aprilen akabuen, yoate siren atzera" - (Hemen, etorri egiten ziren, domu-santu inguruan, eta harik eta maiatza hasiera artean edo apirilaren amaieran, joaten ziren atzera)

nobienbre: zemendia

otubre: urria

sesalle: zezeila

"Sasallean gaus oin" - (Zezeilean gaude orain)

setienbre: iraila

"Ori setienbrean, e, akabuen, urrien, urriko aixea esaten tzie orreri" - (Hori irailaren,

amaieran, urrian, urriko haizea esaten diote horri)

"Guk ase a piperra iten du, emen piperra ereingou, bier edo etzi, estosu tope ereinte ba, e, baye beste amabost egun ba, ereinte dau, eta gero mayetzan imiten du piperra, ta gero setienbre otubre artean" - (Guk aza eta piperra egiten dugu, hemen piperra ereingo dugu, bihar edo etzi, ez duzu topatu ereinda ba, baina beste hamabost egun ba, ereinda dago, eta gero maiatzean ipintzen dugu piperra, eta gero iraila, urria artean)

urrie: urria

"Otubre da urrie, gastañek eta bera yausten dienak" - (Octubre da urria, gaztainak eta behera jausten direnak)

10.3. ASTEGUNAK

astelena: astelehena

"Orrek artute gurien sorroa, ekarte gurien, batute gurien astelenatan, eta gero eguenatan entregeta gurien" - (Horiek hartzen zuten zorroa, ekartzen zuten, batzen zuten astelehenetan, eta gero eguenetan ematen zuten)

barikue: barikua, ostirala

"Entzun dotena ixen da, bai, a bai, nire esun andie san, ortxe mendien, mendien ostean bixi san, eta, bariku beten, barikuetan ote san Derion plasea, oingo les ta etorte san, eta egun beten plasati doala, txoriek, e, segidu atzean kantetan, ta txi-txi te txor-txor, baye esotziela isten ta soasie orti esate otzela berak txorieri, eta etzera allege sanean gixona ilte topeula" - (Entzun dudana izan da, bai, hura bai, nire ezagun handia zen, hortxe mendiaren, mendiaren ostean bizi zen, eta, bariku baten, barikuetan egoten zen Derion azoka, oraingo lez eta etortzen zen, eta egun baten azokatik doala, txoriek, segitu atzean kantatzen, eta txi-txi eta txor-txor, baina ez ziotela uzten eta zoazte hortik esaten ziela berak txoriei, eta etxera ailegatu zenean gizona hilda topatu zuela)

domekea: domeka, igandea

"Suk ikusten basendun domekan, asusteta lotute sara" - (Zuk ikusten bazenuen domekan, ikaratuta lotzen zara)

"Domeka dustietan yoaten da serera, Pagasarrire" - (Domeka guztietan joaten da zerera, Pagasarrira)

"Bigarren domekea datorren domekan, lelango domekea pase da, bigarren domekea" - (Bigarren domeka datorren domekan, lehenengo domeka pasatu da, bigarren domeka)

eguastena, egustena: eguaztena, asteazkena

eguena: eguena, osteguna

martzena: martitzena, asteartea

sapatue: zapatua, larunbata

"Ba orduen es, esan ixeten, e, jentea, etzekoak, e, yaten ta olan? keba! sapatuetan, ba, gure, akostunbre deudie, gurean asi gintzen an kalluek iminten, eta kalluek yaten aste san, asi san jentea, eta gero apurken apurken yoate gintzen iminten, e, kasuela kasuelatxuek, eta alan etorte sien jente asko, ta gero Sondiketik eta Loiuti te orti be jente asko etorte san" - (Ba orduan ez, ez zen izaten, jendea, etzekoak, jaten eta hola? bai zera! sapatuetan, ba, gure, usatu dute, gurean hasi ginen han tripakiak ipintzen, eta tripakiak jaten hasten zen, hasi zen jendea, eta gero apurka-apurka joaten ginen ipintzen, kazola kazolatxoak, eta hala etortzen ziren jende asko, eta gero Sondikatik eta Loiutik eta hortik ere jende asko etortzen zen)

10.4. DENBORAREN BANAKETA

aldie: aldia

"Gure aldien ya apur bet erdera giau ite san" - (Gure aldian ja apur bat erdara gehiago egiten zen)

arto denporea: arto sasoi

astea: astea

"Iru aste ixete san" - (Hiru aste izaten zen)

"Astean igual bost sei atarate situsen, e?" - (Astean beharbada bost sei ateratzen zituen, e?)

astegune: asteguna

"Urte bi i nendusen esneakas nik, domeka ta astegun" - (Urte bi egin nituen nik, igande eta astegun)

astie: astia

"Konpondu erropak, erropa sarrak konpondu, etzekoak, etze aldeatakoak eseuren eukiten

astirik eta" - (Konpondu arropak, arropa zaharrak konpondu, etxeoak, etxealdeetakoak ez zuten edukitzen astirik eta)

besperea, bisperea: bezpera

"Baye karo! bearrean, fabriken sartzeako oñes yoan bear goixeko seiretan sartzeako, eta ak gero olako geusek entzunesko besperan da, urrengo egunean pentzamintue ta, an subien yoate sanean berari entzunte dekotzet, e, mutil andie dala, e?" - (Baina jakina! Bearrean, fabrika sartzeko oinez joan behar goizeko seietan sartzeko, eta hark gero holako gauzak entzunez gero bezperan eta, hurrengo egunean pentsamendua eta, han zubian joaten zenean berari entzunda daukakiot, mutil handia dela, e?)

"Berrotamasei urte die san isidro besperan eskondu gintzela gu" - (Berrogeita hamasei urte dira san isidro bezperan ezkondu ginela gu)

denporea: denbora

"Ori kenduteko bakixu denporea bear" - (Hori kentzeko badakizu denbora behar)

desordue: desordua

"Kukurruku iten badeu, desorduen, baten bat famelien txarto dau" - (Kukurruku egiten badu, desorduan, baten bat familian txarto dago)

egune: eguna

"Egune, egune iteuen etze bakotxean" - (Eguna, eguna egiten zuen etxe bakoitzean)

"Orrek iten deu egunen urtekeran, egurdi egurdien, amabiek ingeruen be, ta ilundean be bai" - (Horrek egiten du egunaren irteeran, eguerdi-eguerdian, hamabiak inguruan ere, eta ilundean ere bai)

"Iru egun iteitue" - (Hiru egun egiten dituzte)

epokea: sasoi

"Ba gure onek espalda gustiek, ote sien, oin sasoi onetan, udebarrie, epokan, danak arbola gustiek suritute" - (Ba gure bizkar hauek guztiak, egoten ziren, orain sasoi honetan, udaberria, sasoiaren, denak arbola guztiak zurituta)

"Nik, e, orduko epokan, e, amar amairu urte, amalau, or o nitzen" - (Nik, orduko sasoiaren, hamar hamahiru urte, hamalau, hor egon nintzen)

gari denporea: gari denbora

gaste denporea: gazte denbora

gerra ostea: gerra ostea

"Gerra ostean asko egon soan erbie" - (Gerra ostean asko egon zuan erbia)

"Orduen ni neu ya asko enas akortan se ya gure eskero garie be ya ainbeste esan eraiten amen, gerraostearen amen apur bet eraisan, ogie, nesidea egon sales, ba orduen eraite san etzerako apur bet" - (Orduan ni neu ja asko ez naiz gomutatzen ze ja gure ezkerre garia ere ja hainbeste ez zen ereiten hamen, gerra ostearen hamen apur bat erein zen, ogia, beharrezana egon zen legez, ba orduan ereiten zen etzerako apur bat)

gripe denporea: gripe denbora

"Bai nik amari entzunte, berari esate gun iru il yakiesela, iru nebarreba, bai gripe denporan, eta gero, berak esate gun alboan egon danari be bardin" - (Bai nik amari entzunda, berari esaten zuen hiru hil zitzaizkiola, hiru neba-arreba, bai gripe sasoiaren, eta gero, berak esaten zuen alboan egon denari ere berdin)

ilea, illea: hila

illebetea, ilebetea: hilabetea

"Igual illebetearen garbitu barik, edo igual iru astean garbitu barik, t'orduen ite siren danak atara kanpora" - (Beharrez hila hilebetearen garbitu barik, edo beharrez hiru astean garbitu barik, eta orduan egiten ziren denak atera kanpora)

jai besperea: jai bezpera

"Jai besperatan, olango jayek santiagoak eta etorte sienean ademas, bespera geuberarten eseuen itxiten gure amak imintea" - (Jai bezperetan, holako jaiak santiagoak eta etortzen zirenean gainera, bezpera gauera artean ez zuen uzten gure amak ipintzea)

karlistada denporea: karlistada sasoi

"Ori Frantzitik ekarri yeuden, karlistada denporan edo sentalle, ori!" - (Hori Frantziatik ekarri ziaten, karlistada sasoiaren edo zentaila, hori!)

minitue: minutua

momentue: mementua

ordue: ordua

"Nik aite defuntueri entzu neutzen, euskieri aitua batera yakiteula berak ser ordu dan" - (Nik aita defuntuari entzun nion,

eguzkiari adituaz batera jakiten zuela berak zer ordu den)

"Bueno ori bakotxak, e, sarriten in dunik eskeite ba, ordu betegarrenean txikitan asi" - (Beno hori bakoitzak, sarritan egin dugunik eskegita ba, ordu betegarrenean txikitzen hasi)

"Euskiek iten deu emen, daunean, geispea emon, eta badakie apur bet gorabera, dosak edo amaikak, edo amaika t'erdiek ixengosak, andik geispetik iten deure se, edo iten deules euskiek geispea, andik iten deure auxe ordue ingeru ixengok" - (Eguzkiak egiten du hemen, dagoenean, gerizpea eman, eta badakite apur bat gora behera, dituk edo hamaikak, edo hamaika eta erdiak izango dituk, handik gerizpetik egiten dute ze, edo egiten duen legez eguzkiak gerizpea, handik egiten dute ordu hauze inguru izango duk)

ordu erdie: ordu erdia

"Oingo gasteak estekie, lau berbagas, onek ordu erdi baño giâu" - (Oraingo gazteek ez daukate, lau berbarekin, hauek ordu erdi baino gehiago)

ordu laurena: ordu laurena

"Arnasa baten kendu in barik barrure, dana basukadea, eta ordu lauren barru barrie ixte nintzen" - (Arnasa baten kendu egin barik barrura, dena basokada, eta ordu lauren barru berria izan nintzen)

sartzaroa: zahartzaroa

sasoya: sasoa

"Ya leis orre pe, oin esta sasoya orrena, orrena ixeten da obeto ixeteko neguen" - (Jan litezke horiek ere, orain ez da sasoa horiena, horiena izaten da hobeto izateko neguan)

"Lenau pode in bea dires, oin sasoyonetan, amarreu eta imini" - (Lehenago inausi egin behar dira, orain sasoi honetan, amarratu eta ipini)

unadea, unedea: unada, unekada

"Ordun egon san uneda bat askokoa, edosein lekuten igual ikuste siren emen soloatan eta" - (Orduan egon zen uneda bat askokoa, edozein lekutan beharbada ikusten ziren hemen soloetan eta)

unea: unea

unekadea: unekada, unada

"Unekadak oten sien, batzuk, e, alde batera ta beste batzuk bestera" - (Unekadak egoten

ziren, batzuk, alde batera eta beste batzuk bestera)

urtea: urtea

"Ori san, e, urtean se egun san? Egune egoan orretarako" - (Hori zen, urtean ze egun zen? Eguna zegoen horretarako)

"Nik sanantonio egunean dekoas urteak" - (Nik san antonio egunean dauzkat urteak)

"Karrosa pe on sien urte baten, karrosak, ya urte asko da karrosak on sila" - (Karrosak ere egon ziren urte baten, karrosak, ja urte asko da karrosak egon zirela)

"Eba ta, ni urte batekoak gosak" - (Eba eta, ni urte batekoak gaituk)

10.5. EGUNAREN BANAKETA

arrastie: arrastia

"Eta asao egote sanean in bear akona, ba bertan egote san denporea, eta iru bider ite otzen egun berean, arrasti berean kasureko, egon beragas berbas ta an egon, eta iru bider inte etorri" - (Eta asago egoten zenean egin behar zitzaiona, ba bertan egoten zen denbora, eta hiru bider egiten zioten egun berean, arrasti berean kasurako, egon berarekin berbaz eta han egon, eta hiru bider eginda etorri)

"Leku askotara yoa nas ni, asi Erriberara i nintzen, bai inundasinoak on sienean, orduen yoate nintzen, lelau Basauri, arrastien" - (Leku askotara joan naiz ni, hasi Erriberara egin nintzen, baina uriolak egon zirenean, orduan joaten nintzen, lehenago Basauri, arrastegian)

bart: bart

eguerdie, egurdie: eguerdia

"Baye yakingo seurien, egurdiko amabietan eguskie ortxe oten da" - (Baina jakingo zuten, egurdiko hamabietan eguzkia hortxe egoten da)

"Amarratan eskondu gintzen geu be, es egurdien, amarratan" - (Hamarretan ezkondu ginen geu ere, ez eguerdian, hamarretan)

egurdatea: eguerdi-arte

geube, geue, gaube: gauda

"Saratea geue gustien eon da" - (Zarata gau guztian egon da)

"Oin, igual, e, geube pasetan bada, urruno egunean iten da, txikitu ogoto iten da se,

iten da gogortu apur bet" - (Orain, beharbada, gaua pasatzen bada, hurrengo egunean egiten da, txikitu hobeto egiten da ze, egiten da gogortu apur bat)

"Gaubetan bai iminte san, ixite siren bai" - (Gauetan bai ipintzen zen, ixten ziren bai)

"Goixean, e, sortzi t'erdietan sartzen gintzesan ta sortzire paño lenau ortik bera, ta geubean etzera etorri orduko ba geube, neguen geube, bostatan geube" - (Goizean zortzi eta erdietan sartzen ginen eta zortziak baino lehenago hortik behera, eta gauean etxera etorri orduko ba gaua, neguan gaua, bostetan gaua)

goxaldea: goizaldea

"Orrek, e, su lo sausela igual joten deu, goxaldean, su lo sausela, en jeneral orrek amabiek ordu bata egurdien" - (Horrek, zu lo zaudela beharbada jotzen du, goizaldean, zu lo zaudela, gehienetan horrek hamabiak ordu bata eguerdian)

goxa, goixa: goiza

"Goxean altzeu ba, ni gastetarik ego nas kanpoan, eta sortzirek" - (Goizean altxatu ba, ni gaztetatik egon naiz kanpoan, eta zortziak)

"Gure amak batze seun, san juan goixean" - (Gure amak batzen zuen, san juan goizean)

ilundea: ilundea

"Ori porejemplo goxean in badosu, ori bear ori ba, ilundean gero txikertu" - (Hori kasurako goizean egin behar duzu, hori behar hori ba, ilundean gero txikertu)

"Orrek ilundera en jeneral, ilunderantza en jeneral, oten die orrek" - (Horiek ilundera gehienetan, ilunderantz gehienetan, egoten dira horiek)

iluntzea, illuntzea: iluntzea

"Arimenak, iluntzekoa tire, iluntzekoak ite siren, errepika txiki txiki txikitxues ta, arimenak jo itues" - (Arimenak, iluntzekoak dira, iluntzekoak egiten ziren, errepika txiki txiki txikiarekin eta, arimenak jo dituzte)

"Bai or portalean egon bea da iluntzean" - (Bai hor atarian egon behar da iluntzean)

10.6. EGUNEN ARTEKO ERLAZIOAK

areñeun, arañun: herenegun

arañeun atzetik: herenegun atzetik

atzo: atzo

"Atzoric ona estot ikusi" - (Atzotik hona ez dut ikusi)

bier: bihar

"Yayo iten basan, geur arrastien, bier goxean bautisetan eroate gurien, e?" - (Jaio egiten bazen, gaur arrastian, bihar goizean bataiatzen eroaten zuten, e?)

etzi: etzi

"Oin be an ibil gara, tomateak imiten, ta bier etzi yateko modukoa tekus" - (Orain ere han ibili gara, tomateak ipintzen, eta bihar etzi jateko modukoak dauzkagu)

geur, gaur: gaur

"Beti, erropa bat, kendu, eta beste bat imini, an esan giau egoten, geur frakak kendu, bier beste batzuk imini" - (Beti, arropa bat, kendu, eta beste bat ipini, han ez zen gehiago egoten, gaur prakak kendu, bihar beste batzuk ipini)

11. METERELOGIA

Metereologiari buruzko atal hau honako azpi-ataletan banatuta aurkezten dugu: eguraldia, euria, ekaitza, elurra-leia, haizea, lainoa-hedoia eta tenperatura.

11.1. EGURALDIA-TENPERATURA

arbine: arbina

aroa: aroa, eguraldia

"Baye nik etzean beti, garireko, italletu, itallekas prepareta san segaitik se ondikarren siku egote san lurre eta emen lurre asko sertze san ba bere aroan koitako" - (Baina nik etxean beti, garirako, itailatu, itailekin prestatzen zen zergatik ze oraindikarren siku egoten zen lurra eta hemen lurra asko zertzen zen ba bere aroan hartzeko)

beroa: beroa

bero arbine: bero arbina

bero garratza: bero garratza, bero arbina

"Eta a bero garratza kendu artean, atea ixite euki barik orduen, e, ite akon opilek ara sartu" - (Eta bero garratz hura kendu arte, atea itxita eduki barik orduan, egiten zitzaion opilak hara sartu)

bero txangota: bero txangota

denpora berdea: eguraldi txarra

"Afrontue ba, datorrenian eurria ta, dana berdea, denpora berdea datorrenean" - (Afrontua ba, datorrenean aurea eta, dena berdea, eguraldi berdea datorrenean)

denporea: eguraldia

"Ganadue basoan punten dauenean, denpora ona da, baye bajatan danean dator txarra" - (Ganadua basoaren puntan dagoenean, eguraldi ona da, baina baxatzen denean dator txarra)

euri denporea: euri aroa

freskoa: freskoa

gauaroa: gauaroa

karta denporak: karta denborak

otza: hotza

"Keba! Orduen eskendun eukiten otzik, gastea ixte nitzen da! Otza!" - (Keba! Orduan ez genuen edukitzen hotzik, gaztea izan nintzen eta! Hotza!)

"Es klimea, es, esta, amen klime otza bear deu orrek" - (Ez klima, ez, ez da, hamen klima hotza behar du horrek)

sargorie: sargoria

siketea: sikatea

tenporak: denborak

"Orrek eusokoak, e, tenporatan bakixu ser iteuen? Geubean amabietan pareta san kanpoan eta bistute seuen mistoa, aixea norantza emoten deuen, a mistoa norantza iten deuen aixeak, kontroletan" - (Auzoko horrek, denboretan badakizu zer egiten zuen? Gauean hamabietan paratzen zen kanpoan eta bizten zuen mistoa, haizeak norantz ematen duen, misto hura norantz egiten duen haizeak, kontrolatzen)

"Iru ilebeteik iru ilebetera edo, ixeten die orrek, tenporak" - (Hiru hilabeterik hiru hilabetera edo, izaten dira horiek, denborak)

umedadea: hezetasuna

11.2. EURIA-EKAITZA

argiunea: argiunea

arkuiris: uztarkua

"Arkuiris be olan ikusten da, koloreatakoa" - (Uztarkua ere hola ikusten da, koloreetako)

asaroa: azaroa, hau euri onuragarriaren gainean esaten da

"Bai asaroa, batzu tie, euri gitxikoak, orrek ixete sien ugerrak, euri ugerra" - (Bai azaroa, batzuk dira, euri gutxikoak, horiek izaten ziren ugerrak, euri ugerra)

"Geur asaro ona dau, e?" - (Gaur azaro ona dago, e?)

"Asaro ona porejemplo, ontxe ixite les, dau siketa andi beten, ta euri dator, ba oi! Selango asaro ona! Se ederto datorren au!" - (Azaro ona esaterako, oraintxe izatea lez, dago sikate handi baten, eta euri dator, ba oi! Zelako azaro ona! Ze ederto datorren hau!)

aterri: aterri

aterrunea: aterrunea

denporala, tenporala: denborala, ekaitza

"Ostantxean, bera, sutera, yauste san, denporala ote sanean, e? Neguen" - (Osterantxean, behera, sutara, jausten zen, denborala egoten zenean, e? Neguan)

"Ta gero ostean orrek ekarten deu igual denporala, aurie edo, aixea edo, kanbioa" - (Eta gero ostean horrek ekartzen du beharbada denborala, euria edo, haizea edo, aldaketa)

"Denporala igual ekarten deu, andik badator, Galisin denporala badator, orrek orrek aixe orrek igual ekarten deu gero onantza be, edo igual es, igual es" - (Denborala beharbada ekartzen du, handik badator, Galizian denborala badator, horrek horrek haize horrek beharbada ekartzen du gero honantz ere, edo beharbada ez, beharbada ez)

"Denporal ba padator, etor dan moduen" - (Denporal bat badator, etorri den moduan)

eudur eurie: elur euria, euri bustia

euri denporea: euri aroa

eurie, aurie: euria

"Euri ixen san, ta euri ixen sanean, karakolak batzean ibil sien kamiñoan egalean" - (Euria izan zen, eta euria izan zenean, barraskiloak batzen ibili ziren kaminoaren hegalean)

euri garoa: euri garaua

"Euri garotxu bet ein deula, euri gitxi ein deula, euri garotxue in deula" - (Euri garautxo bat egin duela, euri gutxi egin duela, euri garautxoa egin duela)

euri golpea: euri kolpea

"Orrek ein tus orrek euri golpeak, orrek puxike pe igual ataten tues serean, t'orrek

esan gure deu, ba aurie etorko dalakoa" - (Horiek egin ditu horrek euri kolpeak, puxika horiek ere beharbada ateratzen dituzte zerean, eta horrek esan gura du, ba euria etorriko delakoa)

"Porejemplo amen kaminoan, euri golpea iten deunean, ure badoa ortik, berantza, berantza, gorantza esteu iten" - (Esaterako hamen kaminoan, euri kolpea egiten duenean, ura badoa hortik, beherantz, beherantz, gorantz ez du egiten)

euri gotea: euri tanta, euri txiztila

euri lanparra: euri lanparra, euri lanbria

"Euri lanparra da, eurie bai in, ein es, euri lanparra ori da" - (Euri lanparra da, euria bai egin, egin ez, euri lanparra hori da)

euri saparradea: euri zaparrada

euri sirie: euri ziria

euri tangadea: euri tangada, euri tanta

euri ugerra: euri ugerra, euri tanta handiak baina bakanak

garoa: garaua

gotea: tanta, txiztila

inistue: oinaztua

"Elorrantzan aspire inistue pe esteula iten eser ta" - (Elorriaren azpira oinaztuak ere ez duela egiten ezer eta)

potxingoa: potxingoa, ur putzua

puxikea: puspulua

"Eurie bastante fuerte etorten danean orrek puxikek ataten tus, ta orrek esan gure deu se, eurie ingo deula igual fuerte" - (Euria nahiko indar etortzen danean puxika horiek ateratzen ditu, eta horrek esan gura du ze, euria egingo duela beharbada indar)

saparradea: zaparrada

sipristasdea: zipriztina, txipliztada

sirie: ziria

"Au sirie, siri au es, ori ugerra da" - (Ziri hau, ziri hau ez, hori ugerra da)

siri mirie: zirimiria

sustrukue: uztarkua

tangadea: tangada, txiztila

"Es, arek eukiteuen bote bat, eta beste bote bat urentzako, ta gero giltze emon, ba uren tangadea yoan deiten, ta aren bauek iteuen, e, argie" - (Ez, hark edukitzen zuen pote bat, eta beste pote bat urarentzat, eta gero giltza eman, ba uraren tangada joan dadin, eta haren lurrinak egiten zuen, argia)

truboya, trugoya, trogoya: trumoia

"Orrek, e, nosonos kasureko, etzera jaune ekarte akonean bate bateri, ordun bistuteko, edo truboya fuerte danean, truboyan kontra, truboya etorri estiten, bistute euki, oin be bai, oin be, or dekot nik" - (Horiek, noiz edo noiz kasurako, etxera jauna ekartzen zitzaionean baten bati, orduan bizteko, edo trumoia indartsu danean, trumoiaren kontra, trumoia etorri ez dadin, biztuta eduki, orain ere bai, orain ere, hor daukat nik)

"Truboya danean bistu iten dires orrek" - (Trumoia danean biztu egiten dira horiek)

"Igual trogoi andie ta ui! Santa Barbara, Santa Krus, gure etzean, dau Jesus, ta kandelea bistu eta ori esan" - (Beharbada trumoi handia eta ui! Santa Barbara, Santa Kruz, gure etxean, dago Jesus, eta kandela biztu eta hori esan)

"Onek trugoyak asi baño lelau, esate osten aitu ixu orra mendire, or beyek egoten dires, seminario parean egoten die, eta beye taus bean, auri ingo deu, selan dakixu? Beyek bera bajata oten direnean, aurie iten deu, esato!" - (Trumoi hauek hasi baino lehenago, esaten zidan aditu ezazu horra mendira, hor behiak egoten dira, seminario parean egoten dira, eta behiak daude behean, euri egingo du, zelan dakizu? Behiak behera baxatuta egoten direnean, euria egiten du, zehatz!)

"Ori, gortatan, edonon yausi da trugoya da ganadue il be bai" - (Hori kortetan, edonon jausi da trumoia eta ganadua hil ere bai)

"Lelau imite san ori, trugoya fuerte ibilte sanean, trugoya yausi diten askorea olan gora adi" - (Lehenago ipintzen zen hori, trumoia indar ibiltzen zenean, trumoia jausi dadin aizkora hola gora adi)

"Orrek serak, trugoyak! Trugoyak sera iten deu orrek, ori trugoya yausten dan lekuen" - (Zer horiek, trumoiak! Trumoiak zera egiten du horrek, trumoi hori jausten den lekuan)

trugoi montorra: trumoi montorra, hodei beltzak

"Odei montorrek, odei montorra tire trugoi montorrek serak, ikusten dire" - (Hodei montorrek, hodei montorrek dira trumoi montorrek zerak, ikusten dira)

yusturie: justuria, tximista

11.3. ELURRA-LEIA

abasusea: abazuza

"Es abasusea, orren ostean etorten da gero sera, denpora sera" - (Ez abazuza, horren ostean etortzen da gero zera, eguraldi zera)

"Abasusea da ba, edurre gogortute" - (Abazuza da ba, elurra gogortuta)

arrie: harria, abazuza handia

"Arrie ba uden en jeneral ori iten deu, uden arrie" - (Harria ba udan gehienetan hori egiten du, udan harria)

edur denporea: elur denbora

edur gotea: elur metxa, elur maluta

"Txotorra be iten deu batzutan, ta leye serak, lei serak edo, serak, ba edur gota pe iten tus" - (Txotorra ere egiten du batzuetan, eta leia zerak, lei zerak edo, zerak, ba elur metxak ere egiten ditu)

edur kandlea: elur kandelak, teilatutik dandilizka egoten diren elur txorrotadak

edur kapadea: elur kapada, elur geruza

"Edur kapadea ba ser ixengo da ba? Edurre in deula asko, edurre in deula" - (Elur kapada ba zer izango da ba? Elurra egin duela asko, elurra egin duela)

edurre: elurra

"Nik belunetararten edurre esetu dot, sarriten!" - (Nik belaunetara artean elurra ezagutu dut, sarritan!)

"Nik esetu dot oin, e, berrogeta estait senbet urte ixengo diren, esta? Orduen esan botarik eta ingerurik egoten eta, ango goiko mesara, yoa nitzen ni mesara sapatatxu betzuk olan, alboko botoitxuek marroitxu betzukas, sapatak bal bal baltz pare yastesan baye belunetararten seragas, edurregas" - (Nik ezagutu dut orain, berrogeita ez dakit zenbat urte izango diren, ezta? Orduan ez zen botarik eta ingururik egoten eta, hango goiko mezara, joan nintzen ni mezara zapatatxo batzuk hola, alboko botoitxoak marroitxo batzuekin, zapatak bel-bel-beltz paratu zitzaizkidan baina belaunetara arte zerarekin, elurrarekin)

"Lurmena da edurre dauenean, eta tapetan deuenean lurre, lurmena ba tapeta dau,

edurre iten deuenean, edo lei fuerte ba tauenean, lurmena tapeute!" - (Lurmena da elurra dagoenean, eta tapatzen duenean lurra, lurmena ba tapatuta dago, elurra egiten duenean, edo lei gogor bat dagoenean, lurmena tapatuta!)

edur metxea: elur metxa, elur maluta

edur satie: elur zatia

edurtzea, edurtzia: elurtza

freskurea: ihintza

"Bustine gatxa da dominetan, baye guk iten gendun goxetik makinetu, eta en jeneral, lelau italletu, apurtu, makinetu baño lelau, gero freskurea yabon dien" - (Buztina gaitza da menderatzen, baina guk egiten genuen goizetik makinatu, eta gehienetan, lehenago itailatu, apurtu, makinatu baino lehenago, gero ihintza jagon dezan)

"Eseun balio ixeten arek freskuren" - (Ez zuen balio izaten hark freskuran)

inutze: inontza, ihintza

kandlea: kandelak, teilatutik dingilizka egoten diren elur txorrotadak

"Len giau, ainbet giau, ta gero edurre, ta gero geubian leye ganera, eta gero, serak, kandelak einte" - (Lehen gehiago, hainbat gehiago, eta gero elurra, eta gero gauean leia gainera, eta gero, zerak, kandelak eginda)

kaskarea: kazkabarra, abazuza, txingorra

"Orreri esaten dako, sera, txotorra, a kaskarea, kaskarea ori da" - (Horri esaten zaio, zera, txotorra, hura kazkabarra, kazkabarra hori da)

"Emen edurre bai, edurre bai, txotorra ta kaskarea ta orrek dustiok, orrek bai" - (Hemen elurra bai, elurra bai, txotorra eta kazkabarra eta horiek guztiok, horiek bai)

kristela: kristala, ura elurtzea putzuetan

lei baltza: lei beltza, ikusten ez den leia

"Bai lei baltza ondikarren bestea baño txarraoa, ori esta ikusten, baltza esta ikusten, surie bai, baye baltza esta ikusten" - (Bai lei beltza oraindikarren bestea baino txarraoa, hori ez da ikusten, beltza ez da ikusten, zuria bai, baina beltza ez da ikusten)

lei surie: lei zuria

leye: leia

"Lurmena tapetea da edo edurre edo lei fuerten bat" - (Lurmena tapatzea da edo elurra edo lei gogorren bat)

"Ori esta ikusten, leye esta ikusten" - (Hori ez da ikusten, leia ez da ikusten)

"Leye, in batzutan iten deu fuerte, ta beste batzutan es, gitxi batzutan leye" - (Leia, egin batzuetan egiten du indar, eta beste batzuetan ez, gutxi batzuetan leia)

txotorra: txotorra, abazuza txikarra

"Edurre ori, gogortute, ta au bestea, edurre bigunaoa, orrek satiek etorten dire, satiek, edur satiek, bai ori txotor ori etorten da gogor" - (Elurra hori, gogortuta, eta beste hau, elurra bigunagoa, zati horiek etortzen dira, zatiak, elur zatiak, bai hori txotor hori etortzen da gogor)

txurroa, txurrue: kandelak, teilatutik dandilizka egoten diren elur txorrotadak

"Edurre urtuten, ta gero leye ganera, da an, e, txurroak einte, talletutik dariola, lelau eote sien, lelau oin baño ainbet edur giau iteuen" - (Elurra urtzen, eta gero leia gainera, eta han, txurroak eginda, teilatutik dariola, lehenago egoten ziren, lehenago orain baino hainbat elur gehiago egiten zuen)

11.4. HAIZEA

afrontue: afrontua

"E! Iten deu afrontu bet, selango bildurre etzetik urtetako" - (E! Egiten du afrontu bat, zelako bildurra etxetik irteteko)

"Afrontu andie dau, orduen afrontue esate otzien axeari" - (Afrontu handia dago, orduan afrontua esaten zioten haizeari)

aixea, axea: haizea

"Segun, sue otea edo ba, sasie edo olan ona badau, edo egurre edo, bastante arin, ba ostean igual iru ordu edo lau be! An sue iten! berotako a! Eta axea badau ademas eroan iten dotzun kanporantza edo, eta, ordu asko!" - (Segun, sua otea edo ba, sasia edo hola ona badago, edo egurra edo, nahiko arin, ba ostean beharbada hiru ordu edo lau ere! han sua egiten! Berotzeko hura! Eta haizea badago gainera eroan egiten zizun kanporantz edo, eta ordu asko!)

"Atzo axe in deules kontra, atzo urten deurie emeti giau" - (Atzo haize egin duen lez kontra, atzo irten dute hemendik gehiagok)

"Katuek, e, aixea nondi datorren ibiltzen die, eurpie garbitan egoten dire" - (Katuak, haizea nondik datorren ibiltzen dira, aurpegia garbitzen egoten dira)

aixe epela, axe epela: haize epela

"Txarra da trugoya edo one tire txarrak, axe epela t'orrek txarra ties" - (Txarra da trumoia edo hauek dira txarrak, haize epela eta horiek txarrak dira)

aixe golpea: haize kolpea, haize boluzioa

"Aixe golpeak ein deu ixi atea, atea sabali padau, ta aixe golpeak eiten deu orrek, ixi atea" - (Haize kolpeak egin du itxi atea, atea zabalik badago, eta haize kolpeak egiten du horrek, itxi atea)

aixe otza: haize hotza

edurraxea: elur haizea

erri axea: herriko haizea, hego haizea

"Erri aixea, egoten da ori be" - (Herriko haizea, egoten da hori ere)

huri axea, auri aixea: euri haizea

"Ortik ostera itxosoaldeko otza, auri aixea, afrontue esaten due" - (Hortik ostera itsasaldeko hotza, euri haizea, afrontua esaten dugu)

eurraixea: aurre haizea

gallegu aixea: mendebaleko haizea

"Es, ori es, ori gallegu aixea, orti datorrena gallegu aixea" - (Ez, hori ez, hori mendebal haizea, hortik datorrena mendebal haizea)

gallegue: mendebaleko haizea

"Gallegue emetik, gero emetik surrekoa" - (Mendebala hemendik, gero hemendik hegokoa)

iparralde: ekialdeko haizea

"Katuek orti badaus adi, aixea orti dator iparraldetik, eurpie garbitan egoten dire eurek olan kadereas, bai eurek olan kadereas, iparraldetik aixea datorrenean" - (Katuak hortik badaude adi, haizea hortik dator ekialdetik, aurpegia garbitzen egoten dira eurak hola hankarekin, bai eurak hola hankarekin, ekialdetik haizea datorrenean)

"Ori iparralde, orreri esaten tzu guk, ori iparralde orreri" - (Hori ekialdea, horri esaten diogu guk, hori ekialde horri)

"Aurie, inder gitxias, inder gitxias aurie, eta en jeneral dator ortik, e, ba iparraldetik, egunokas, ortik, en jeneral ortik dator" - (Eurria, indar gutxirekin, indar gutxirekin eurria, eta gehienetan dator hortik, ba

ekialdetik, egunokin, hortik, gehienetan hortik dator)

iparraldeko aixea: ekialdeko haizea

iperraxea, iparraxea: ekialdeko haizea

itxosoko axea: itsaso haizea

nortaxia, nortekoaixea: ipar haizea

"Emeti etorte daku nortaxia esaten due edurre datorrenian, asten dakuenean, leye ta orti nortaldeki dator axea esaten due" - (Hemendik etortzen zaigu ipar haizea esaten dugu elurra datorrenean, hasten zaigunean, leia eta hortik iparraldetik dator haizea esaten dugu)

nortea, nortekoa: iparra

"Bueno ori ona esta baye au beste au da txarraua, nortekoa, au, au" - (Beno hori ona ez da baina hau beste hau da txarragoa, iparrekoa, hau, hau)

surreko aixea: hego haizea

surrekoa: hego haizea

"Surrekoa au beste au" - (Hegokoa hau beste hau)

urri aixea, urriko aixea: urri haizea, hego haizea

"Urriko aixea, aixe agradablea, aixe epel epel epela" - (Urriko haizea, haize atsegina, haize epel epel epela)

11.5. LAINOA-HEDOIA

belañoa: behe-lainoa

enbata: enbata

lañoa: lainoa

odai baltza, odei baltza: hodei beltza

odai gorrie, odei gorrie: hodei gorria

"Odei gorrie, ta orrek en jeneral, ekarten deure sasoi batzutan aixea be igual ta beste batzutan eurie be igual, orrek odei gorriok" - (Hodei gorria, eta horiek gehienetan, ekartzen dute sasoi batzuetan haizea ere beharbada eta beste batzuetan euria ere beharbada, horiek hodei gorriok)

"Amen odei gorriek yaosak, orrek ingo yeurek aixea ekarri edo eurie" - (Hamen hodei gorriak zaudek, horiek egingo ditek haizea ekarri edo euria)

odai surie, odei surie: hodei zuria

odaye, odaya, odaye: hedoia, hodeia

"Ene! Denpora txarra dator, e! Se odayek baju daus, edo" - (Ene! Eguraldi txarra dator, e! Ze hodeiak baxu daude, edo)

"Odaye edo denpora euri denporea edo motel oneskoan eseiken jo, e?" - (Hodeia edo eguraldia, euri sasoi edo motel egonez gero ez zenezakeen jo, e?)

"Iluntzea, seguru amen, urrungo egunean, eta egunek igual ingo tzu, iluntzea odaye gorri badau" - (Iluntza, seguru hamen, hurrengo egunean, eta egunak beharbada egingo dizkizu, iluntza hodeia gorri badago)

odei montorra: hodei montorrak, hodei beltzak, euria iragartzen dutenak

"Orrek odei montorrak eta orrek baltzak, estosus ikusten orrek serok, baltzak, ba aratxuau igual argi" - (Hodei montor horiek eta beltz horiek, ez dituzu ikusten zer horiek, beltzak, ba haratxoago beharbada argi)

12. ZERUA-ASTROAK

Atal honetan zerua eta astroei buruzko berbak batzen ditugu.

argitasune: argitasuna

eguskie, euskie: eguzkia

"Apurkorabera euskitik ite seurien, e, amabiek nos dien, euskie ia non dauen" - (Apur bat gora behera eguzkitik egiten zuten, hamabiak noiz diren, eguzkia ea non dagoen)

"Euskiten eon dies" - (Eguzkitan egon dira)

"A bai! Euskiek joten deun lekure, euskiten etzea, bueno danari joten tzie arean, batzuri giau beste batzuri gitxiu, baye, bueltan esteu eukin bear, e, serik, etzeak, e, euskiek joteko, goxean andik jo deu euskiek, andik deko euskie, gero egurdien emeti deko ta ilundean emeti deko euskie, segun, e, selan dabilen euskie, se euskie bueltaka dabil, ala lurre dabil bueltaka, esaten deure" - (A bai! Eguzkiak jotzen duen lekura, eguzkitan etxea, beno denei jotzen die arean, batzuei gehiago beste batzuei gutxiago, baina, bueltan ez du eduki behar, zerik, etxeak, eguzkiak jotzeko, goizean handik jo du eguzkiak, handik dauka eguzkia, gero eguerdian hemendik dauka hemendik dauka eta ilundean hemendik dauka eguzkia, segun, zelan dabilen eguzkia, ze eguzkia bueltaka

dabil, ala lurra dabil bueltaka, esaten dute)

"Emeti datonean euskie, emen joten deu etzean euskiek, ta gero, emeti daunean, emen joten deu, ta gero ilundean emeti datonean, emen" - (Hemendik datorrenean eguzkia, hemen jotzen du etxean eguzkiak, eta gero, hemendik dagoenean hemen jotzen du, eta gero ilundean hemendik datorrenean, hemen)

eguski errea: eguzki errea, eguzki beroa

euski begire: eguzki begira, eguzki aldera

euski surie: eguzki zuria, dirdira bai baina berotu gutxi egiten duen eguzkia

"Euski surie, euski tristea daola, euski surie triste, inder gitxias, normal estaola" - (Eguzki zuria, eguzki tristea dagoela, eguzki zuria triste, indar gutxirekin, normal ez dagoela)

euski txangota: eguzki txangoa, eguzki txangota, sano berotzen duen eguzkialdia

"Euski txangota sera, beroa, bero txangota, bero txangota, beroa" - (Eguzki txangota zera, beroa, bero txangota, bero txangota, beroa)

gerispea, geispea: gerizpea

"Euski bero yaok, banioak geispetara" - (Eguzki bero zagok, banoak gerizpetara)

"Ba beroas bai, ba berotu iten die, berotu, da ensegida yoaten dire, serera, geisperi padau, geispetara edo, yoaten die" - (Ba beroarekin bai, ba berotu egiten dira, berotu, eta behingoan joaten dira, zerera, gerizperik badago, gerizpetara edo, joaten dira)

ilbera: ilbehera

"San juanetik ya, geubonatarano, dires ure berantza ta ya oin porejemplo ya podak iten diesen moduen, esta? Oin artean ondiño podetan gabiltzes, esta? Baye, esan gurot geubonatatik, geubonatako ilberatik, ya urek gorantza doas barriro, urte erdi da gora ta bestea bera" - (San Juanetik ja, gabonetaraino, dira ura beherantz eta ja orain esate baterako ja inausketak egiten diren moduan, ezta? Orain artean oraindino inaussten gabiltza, ezta? Baina, esan gura dut gabonetatik, gabonetako ilbeheratik, ja urak gorantz doaz berriro, urte erdia da gora eta bestea behera)

ilberea: ilbehera

ilgora: ilgora

ilgora: ilgora

itargi barrie: iretargi berria

itargi betea: iretargi betea

"Itargi betea, bai, ori da, kanbioa ekarten deuna, aputxu bet ilundute bueltan, ak jeneral ekarten deu kanbioa" - (Iretargi bettea, bai, hori da, aldaketa ekartzen duena, apurtxo bat ilunduta bueltan, hark gehienetan ekartzen du aldaketa)

itargie: iretargia, ilargia

"Bai ori itargie betatuten doanean edo, batzutan, e, eskastan daunean, bestetan iten daunean, bestetan eskastan daunean itargie" - (Bai hori iretargia betetzen doanean edo, batzuetan, eskasten dagoenean, besteetan egiten dagoenean, besteetan eskasten dagoenean iretargia)

"Itargie egoten da uden garbi garbi garbi, oin neguen, gitxiten, garbi, ori en jeneral uden da, ori garbi dauna" - (Iretargia egoten da udan garbi garbi garbi, orain neguan, gutxitan, garbi, hori gehienetan udan da, hori garbi dagoena)

"Itargie tekona ori, deko, kanbioatan, edo iten deu berora, edo txarrera, edo eurire, edo siketara, segun selan, e, datorren a goye" - (Iretargiak daukana hori, dauka, aldaketetan, edo egiten du berora, edo txarrera, edo eurira, edo sikatera, segun zelan, datorren goi hura)

"Ori ba nosik nosera, segun selan daun sera, beran, e, sera, itargie, beran goraberak" - (Hori ba noizik noizera, segun zelan dagoen zera, beraren, zera, iretargia, beraren gorabeherak)

ixerra: izarra

"Batzuk esa lei se, andiaoa tausela beste batzu paño, beste batzuk txikitxuaok, ta beste batzuk, e, botaten deure andiaoa, argie andiaoa beste batzuk paño, ixerrak" - (Batzuk esan liteke ze, handiagoak daudela beste batzuk baino, beste batzuk txikitxoagoak, eta beste batzuk, botatzen dute handiagoo, argia handiagoo beste batzuek baino, izarrak)

"Orretara batzu taus txikitxuek, ixerrak, ta beste batzuk andiek, argi andie botaten duenak" - (Horretara batzuk daude txikitxoak, izarrak, eta beste batzuk handiak, argi handia botatzen dutenak)

ixerratue, ixarratue: izarratu

"Ixarratu yaok, gauaro ona ixarratue" -
(Izarratu zagok, gauaro ona izarratua)

menguantea: ilbehera

"Ostantzean nik menguanten aitzen dotzet nik,
e?" - (Osterantzean nik ilbeheran aditzen
diot nik, e?)

serue: zerua

seru garbie: zeru garbia

seru gorrie: zeru gorria

seru ilune: zeru iluna

seru ixerratue: zeru izarratua

ur bixie: ur biziak, landareak ura franko
darabilen tertzioa

13. INGURUNEA

Inguruneari buruzko berbak aurkezten dira
atal honetan. Azpi-atalak herria, eraikinak,
mendia, lurra-soroa, bideak, errekek eta
itsasoa izango dira.

13.1. HERRIA-ERAIKINAK

abadetzea: abadetxea

aldea: baserria

aldea etzea: aldea etxea, baserria

"Aldea etzea egon san an" - (Aldea etxea
egon zen han)

"An, e, oin, e, ayuntamentuek arregle yoken
aldea etzean, an bixi ixek ni berrogei
urtean" - (Han, orain, udalak konpondu
duen aldea etxean, han bizi izan nauk ni
berrogei urtean)

alkatea: alkatea

"Alkateak, premia emon, ite oskun, premia
emon, aurrekue ondo iten deuenari" -
(Alkateak, saria eman, egiten zigun, saria
eman, aurrekua ondo egiten duenari)

almasena: tegia, biltegia

armarrie: armarría

"Emen beko etzean, egon san ori armarri ori"
- (Hemen beheko etxean, egon zen armarri
hori)

"Deriori iten dotzie ori estekolako armarrie,
armarrie badakixu sein dan? Armarrie
estekolako, baye a armarrie dau
Markinen" - (Deriori egiten diote hori ez
daukalako armarría, armarría badakizu
zein den? Armarría ez daukalako, baina
armarri hura dago Markinan)

ayuntamentue, **ayuntamientue:** 1.
udaletxea. 2. udala

"Amen ayuntamintue, besterik esan egon, eta
ayuntamintue, erriko ayuntamintue ta
jusgedue egon sien, bertan" - (Hamen
udaletxea, besterik ez zen egon, eta
udaletxea, herriko udaletxea eta auzitegia
egon ziren, bertan)

"Selango aldea etzea yaoken an
ayuntamentuek arreglata" - (Zelako aldea
etxea dagoen han udalak konponduta)

"Emen Samudion, danak, erri danak euki
eurien, Samudiokoak saldu ei euen,
ayuntamientuek, lenaukoak, nik eneun
esetu baye, saldu, Derion an dau, ta
Lesaman be bai, an daus" - (Hemen
Zamudion, denek, herri denek eduki zuten,
Zamudiokoak saldu egin zuen, udalak,
lehenagokoak, nik ez nuen ezagutu baina,
saldu, Derion han dago, eta Lezaman ere
bai, han daude)

"Gero ayuntamentuek, e, diputasinoari saldu
tzon urrean" - (Gero Udalak, Aldundiari
saldu zion hurrean)

bankue: banketxea

barberie: bizartegia

"Gixonak eukite seurien barberie, ba bear
seudienatan ulea ebaiteko eta eser es
besterik" - (Gizonak edukitzen zuten
bizartegia, ba behar zutenetan ilea
ebakitzeke eta ezer ez besterik)

"Orrek barberie eukiteuen" - (Horrek
bizartegia edukitzen zuen)

"Orduen bearra gaste gitxik iteuen orrek
barberie eukiteuenean, e?" - (Orduan
bearra gazte gutxik egiten zuen horrek
bizartegia edukitzen zuenean, e?)

barra: taberna

barriadea: auzotegia

"Gero ba barriadakoak be, sertu siren,
alkartu siren" - (Gero ba auzotegikoak ere,
zertu ziren, elkartu ziren)

"Ni, eskolara? Deriora ara gora, eskola,
barriadatakoa selan bota euren, araxe" -
(Ni, eskola? Deriora hara gora, eskola,
auzotegikoa zelan bota zuten, haraxe)

barrioa: auzotegia

"Bueno diferentea ba, guk emen barrioa ba
Tabernabarri, Tabernabarri esate otzie
oneri barriolari" - (Beno desberdina ba,
guk hemen auzotegia ba Tabernabarri,
Tabernabarri esaten diote auzotegi honi)

"Geseane, Geseanekoak badaus, Geseane ba, iru lau etze daus, eta Gastañatxu be badau, Gastañatxu or Loyurantz joanda" - (Gezeane, Gezeanekoak badaude, Gezeane ba, hiru lau etxe daude, eta Gaztañatxu ere badago, Gaztañatxu hor Loiurantz joanda)

"Busterrintzalleak or Mugialdetik onen barriogan asko on dosak" - (Buztarri egileak hor Mungia aldetik honen auzotegian asko egon dituk)

"Emen bi ixen sien len, barriok, bekoa ta goikoa" - (Hemen bi izan ziren lehen, auzotegiak, behekoa eta goikoa)

baserrie: baserria

"Gaur baserrias biximodue eleite atara" - (Gaur baserriarekin bizimodua ez liteke atara)

"Bai segun selangoa, bearra edo ser dekon, gurean ondiño ederra dau, gure amen baserrien egon sana, aisteak eroan seun ori, etzea botateko egon sirenean ba" - (Bai segun zelakoa, beharra edo zer daukan, gurean oraindino ederra dago, gure hamen baserrian egon zena, ahizpak eroan zuen hori, etxea botatzeko egon zirenean ba)

baserri etzea: baserri etxea

"Mortzillek, e, klase askotara iten die, amen, e, baserri etzeatan iten dienak asko be obeak ixeten dires ostean baño, batzuk, e, ba, bueno, danak iten dire arrosas, baye berdurea etxaten dako asko, mortzilleari goso egoteko, guk iten gendusenak, danak, e, esate eudien ondo dausela, estakit, geuri esan, beintzet, ta guk, e, arin salduten gendusen" - (Odolosteak, mota askotara egiten dira, hamen, baserri etxeetan egiten direnak asko ere hobeak izaten dira ostean baino, batzuk, ba, beno, denak egiten dira arrozarekin, baina berdura botatzen zaio asko, odolosteari gozo egoteko, guk egiten genituenak, denak, esaten zuten ondo daudela, ez dakit, geuri esan, behintzat, eta guk, arin saltzen genituen)

"Gu Arestire, orra, or, e, seran, e, Majefesan ta atzean dauen, e, baserri etzea" - (Gu Arestira, horra, hor, zerean, Majefesan eta atzean dagoen, baserri etxea)

basurerue: zabortegia

blokea: blokea, etxea

dendea: denda

"A bai! Orras ibil nas sarri, ta orduen, e, gaur esta saltzean baye dendatan, e, gabonetan, oin oin da epokea saltze sana, utzitu, yan, ta gero ein erditik, suloa bes, kendu eskineko sera, eta koyu palu bet, eta paluas, e, yosi erditik untzea ta, kinkine" - (A bai! Horrekin ibili naiz sarri, eta orduan, gaur ez da saltzen baina dendetan, gabonetan, orain orain da sasoia saltzen zena, hustu, jan, eta gero egin erditik, zuloa ere ez kendu izkinako zera, eta koiu makila bat, eta makilarekin, josi erditik iltzea eta, kinkina)

diputasiñoa: aldundia

elixaldea: eliza aldea

errerie: errementaria

errie: herria

"Errien batzutan, etorten dire, e? Yantzan dakienak" - (Herrian batzuetan, etortzen dira, e? Dantzan dakitenak)

erriko tabernea: herriko taberna

"Artean an be bai, bai, erriko tabernea, esan egon besterik, erriko tabernea san a ta danak etorten siren ara, Txosnan egon san be bai tabernea, baye ara jenteak eseun eukin arako serik, ta ori ixen san erriko tabernea jusgedue bor on san, ta ayuntamintue be ixe san, nik ayuntamintue estot esetu, jusgedue bai, jusgedu esetu dot" - (Artean han ere bai, bai, herriko taberna, ez zen egon besterik, herriko taberna zen hura eta denak etortzen ziren hara, Txosnan egon zen ere bai taberna, baina hara jendeak ez zuen eduki harako zerik, eta hori izan zen herriko taberna auzitegia ere hor egon zen, eta udaletxea ere izan zen, nik udaletxea ez dut ezagutu, auzitegia bai, auzitegia ezagutu dut)

eskutue: ezkutua

estankoa: estankoa

"Or dekie estankoa" - (Hor daukate estankoa)

"Taberna bat on san amen goyen, bueno bi egon sien bat estankoa ta bestea taberna sar bat" - (Taberna bat egon zen hamen goian, beno bi egon ziren bat estankoa eta bestea taberna zahar bat)

estasiñoa: geltokia

fabrikea: fabrika, beharlekua, lantokia

"Emen selan daon poligonoa? Ango bat etorte akon, eta or, e, Salamandrara edo an junteta sien yoateko fabrikera bearrean" - (Hemen zelan dagoen poligonoa? Hango

bat etortzen zitzaion, eta hor, Salamandrara edo han elkartzeko ziren joateko fabrikara beharrean)

"Lelango fabrika emetik ingiruen ein sana ixen san kasi Artetxena" - (Lehenengo fabrika hemendik inguruan egin zena izan zen kasik Artetxerena)

farmasie: farmazia, botika

ferreterie: ferreteria

fielatoa: fielatoa; herri batetik bestera pasatzeko zergak ordaintzen ziren lekua

"Len, a, fielatoa egon san lekuen, len matadero sarra egon san lekure bajata nusen nik ur paluas" - (Lehen, fielatoa egon zen lekuan, lehen hiltegi zaharra egon zen lekura baxatzen nituen nik ur paluarekin)

"Estait nik au fielatoan kontue, nik ori beti esetu dot, esta? Baye, iños iños, nik estait se diferentzi egon san, segaitik, emen Montorren, ori Montorre sarra bota deurie, esta? Eta orrek estaus, baye or Montorren, egon san fielatoa baye estait segaitik, ori ixi nixu esan, t'ainbet denporan ego san baye gero kendu yeuren, eta Santo Domingon, a, an, e, bertan, taberna on dan lekuan, punte punten bertan ego san, e, fielatoa" - (Ez dakit nik hau fielatoaren kontua, nik hori beti ezagutu dut, ezta? Baina, inoiz inoiz, nik ez dakit ze desberdintasun egon zen, zergatik, hemen Montorren, hori Montorre zaharra bota dute, ezta? Eta horiek ez daude, baina hor Montorren, egon zen fielatoa baina ez dakit zergatik, hori ezin niezazuke esan, eta hainbat denboran egon zen baina gero kendu zuten, eta Santo Domingon, han, bertan, taberna egon den lekuan, punta puntan bertan egon zen, fielatoa)

fondea: ostatua

frontoya: frontoia

"Es Derion, e, frontoi txikitxu bet, e, oin botata dau, oin barrie in deurie baye, botata dau, an ayuntamientuen atzean on san, txikitxu bet, baye, bertako umeak olgetako" - (Ez Derion, frontoi txikitxo bat, orain botata dago, orain berria egin dute baina, botata dago, han udaletxearen atzean egon zen, txikitxo bat, baina, bertako umeak olgatzeko)

"Samudion atxine dau inte be, frontoyau" - (Zamudion antzina dago eginda ere, frontoi hau)

granjea: granja, etxaldea

"Or granjan piloa on san ta, bat ekarri neun" - (Hor granjan piloa egon zen eta, bat ekarri nuen)

jardiñe, jardine: lorategia

"Ori estimedu eroaten yuen jardinetarako edo" - (Hori estimatua eroaten ziaten lorategietarako edo)

kallea, kalea: kalea

"Kallean itxeron dotzut" - (Kalean itxaron dizut)

kantarilloa: kantarila, estolda

"Kantarilloa, e, or, ein dot neu pe kamiñoa garbitan, kantarilloa garbitan, eskinek, bidean eskinek" - (Kantarila, hor, egin dut neuk ere kaminoa garbitzen, kantarila garbitzen, izkinak, bidearen izkinak)

karneserie, karniserie: harategia

kartzela: kartzela

kaskue: kaskoa, erdigunea

"Urie Larrabetzun esaten dotzie kasku berari" - (Uria Larrabetzun esaten diote kasko berari)

kastilloa: gaztelua

kontenedora: kontenedorea, zaborrontzia

kontzejala: zinegotzia

koperatibea: kooperatiba

mataderoa: hiltegia

"Nik anajea dekot, Bilboko, Sorrotzeko mataderoan ibilte, bai urteatan ibil san" - (Nik anaia daukat, Bilboko, Zorrotzako hiltegian ibilita, bai urteetan ibili zen)

"Mataderoatan, e, or esteure kasurik iten, sasoya danean, ba sera, il" - (Hiltegiatan, hor ez dute kasurik egiten, sasoi danean, ba zera, hil)

panaderie: okindegia

"Ori san, lelau panaderietara ta eroate san egurre, panaderietara ta egurre eroate san, mendien artu egurre, ta panaderietara eroan" - (Hori zen, lehenago okindegiatarata eta eroaten zen egurra, okindegiatarata eta egurra eroaten zen, mendian hartu egurra, eta okindegiatarata eroan)

parkea: parkea

pelukerie: ile apaindegia, bizartegia

"Orduen esan pelukerie egoten" - (Orduan ez zen ile apaindegia egoten)

pisue: pisua, solairua

"Nik esa neutzen, a estakixue nora etor saren bixiten ala? Es artu pisue" - (Nik esan nien, a ez dakizue nora etorri zareten bizitzen ala? Ez hartu pisua)

"Pisurik pisu ibilite nintzen" - (Pisurik pisu ibiltzen nintzen)

"Geu pe euki due, ta ondiño ongo da Bilbon, e, aisteak pisue euki seun, oin Madrillen dau, se ya urte asko deko ta, bakarrik itxi esiteaiti, se gixona il yakon" - (Geuk ere eduki dugu, eta oraindino egongo da Bilbon, ahizpak pisua eduki zuen, orain Madrilen dago, ze ja urte asko dauka eta, bakarrik ez uzteagatik, ze gizona hil zitzaion)

"Gurean semeak euki euen Mungien, Subikoan alboan euki euen pisue" - (Gurean semeak eduki zuen Mungian, Zubikoaren alboan eduki zuen pisua)

plasea: plaza

"Derioko plasan be egon soan, ta or, e, Galbarratuko kamino eskinen be bai" - (Derioko plazan ere egon zuan, eta hor, Galbarriatuko kamino izkinan ere bai)

"Ta gero an, e, egoten san plasa bat, Arrikibar? Egoten san, eta gero an egon san alondigea be, ardauna" - (Eta gero han, egoten zen plaza bat, Arrikibar? Egoten zen, eta gero han egon zen alondegia ere, ardaurena)

"Erosi iteurien, e, koiteurien plasea, ayuntamentueri onenbeste emote otzien eta gero berak kobratauna, an, e, yantzan ibilte sienari ba berantzat, baye kobreu iteuen" - (Erosi egiten zuten, hartzen zuten plaza, udalari honenbeste ematen zioten eta gero berak kobratzen zuena, han, dantzan ibiltzen zirenei ba berarentzat, baina kobratu egiten zuen)

seminarioa: seminarioa

"Orrek seminarioak iten esetute nau ni" - (Seminario horiek egiten ezagututa nago ni)

"Seminarioan, or egon san, orrek obrak asi baño lenau, ori manikomioantzat yoan san" - (Seminarioan, hor egon zen, obra horiek hasi baino lehenago, hori manikomioarentzat joan zen)

surtidora: gasolindegia

tabernea: taberna

"Bai, berton be bai, neu ibil nas, e, amen, e, orra, Aldekoneko tabernea, suk estosu

esetu etzea Aldekonekoa, es, oin etze barrie taus inte an, eta an, tabernan egon nitzen ni eta etorte san Arino Panadera, Bilbotik, ta or itxite seun ogie, ogie Derio gustireko kasi, ta nik astoagas eite nendun errepartidu" - (Bai, berton ere bai, neu ibili naiz, hamen, horra, Aldekoneko taberna, zuk ez duzu ezagutu etxea Aldekonekoa, ez, orain etxe berriak daude eginda han, eta han, tabernan egon nintzen ni eta etortzen zen Harino Panadera, Bilbotik, eta hor uzten zuen ogia, ogia Derio osorako kasik, eta nik astoarekin egiten nuen banatu)

"Baye, taberna, klaro! Barauri yoan bea iste san orduen mesara! Ta gero mesati bueltan, galletak eta ori, bai, ori egi da, e! Geu pe asko emote gendun amen be, e! Oin, e, egon garen tabernan be, asko, asko saldute gendun ori!" - (Baina, taberna, jakina! Baraurik joan behar izaten zen orduan mezara! Eta gero mezatik bueltan, galletak eta hori, bai, hori egia da, e! Geuk ere asko ematen genuen hamen ere, e! Orain, egon garen tabernan ere, asko, asko saltzen genuen hori!)

"Nik etzean es, baye emen, tabernea egon san lekuen, Txosna, bakixu? Lengo Txosna sarra, an bai" - (Nik etxean ez, baina hemen, taberna egon zen lekuan, Txosna, badakizu? Lehengo Txosna zaharra, han bai)

tallerra: lantegia

"Emen sera egon san, tallerrak serekoak" - (Hemen zer egon zen, lantegiak zerekoak)

tela fabrika: ehun fabrika

tranbie: tranbia

"Gero beste klase batera imini euden ba tranbie, gero illeda bi, gorantzakoa ta berantzakoa" - (Gero beste era batera ipini zuten ba tranbia, gero ilara bi, gorantzakoa eta beherantzakoa)

trenbidea: trenbidea

"Amen Samudion be egon san Meso, Tomas deitxona, ta beste bat amen Bistalegren be bai, egon san beste ba pe, aor, e, serean, barra dau oin, trenbidea paseute tabernea, aren tabernean ondoan eon san" - (Hamen Zamudion ere egon zen Mezo, Tomas deritzona, eta beste bat hamen Bista Alegren ere bai, egon zen beste bat ere, haor, zerean, barra dago orain, trenbidea

pasatuta taberna, taberna haren ondoan egon zen)

txabolea: txabola

txaleta: txaleta

"Or txaleta tausen lekuen, autopisten eskine eskinen" - (Hor txaletak dauden lekuan, autopistaren izkina-izkinan)

urie: uria, hiria

"Urie da, Bilbo emen, urire yoan da" - (Uria da, Bilbo hemen, urira joan da)

uri eusoa: uri auzo; beste herri batena inoiz izan den auzoa. Era berean herri batek herritik kanpo kokatuta daukan auzoa

13.2. MENDIA-LURRA

aldapea: aldats handia

aldasbera: aldats behera

aldasgora: aldats gora

aldatza: aldatsa

"Aldatz andie on da" - (Aldats handia egon da)

altakurre: altakurra, muinoa

"Altakurren daus" - (Altakurren daude)

arelurre: harea-lurra

"Bustin lurre, txarra, ta arelurre esaten geuntzen gero ona" - (Buztin lurra, txarra, eta harea-lurra esaten genion gero ona)

argala: argala, lur argala, hargana

"Argala ba aspian, e, atxa, atxa edo arrie ta ganean ba lur gitxi" - (Argala ba azpian, haitza, haitza edo harria eta ganean ba lur gutxi)

arloa: arloa

"Inkeu neusen ba, olango arlo baten sustarra emoten tzo ensegida" - (Inkatu nituen ba, holako arlo baten zuztarra ematen dio behingoan)

"Askasie, okin gendusen, an, askasiek, arloa" - (Arkazia, eduki genituen, han, arkaziak, arloa)

arriarte: harriarte

arrie: harria

"Tru arri euki gendusen guk or" - (Hiru harri eduki genituen guk hor)

asala: lur azala

atxa: haitza

aurbera: aurbehera, aldats behera

aurgora: aurgora, aldats gora

barrankue: troka

barrena: barrena, beheko aldea

barrutie: barrutia

*"Barrutie nire beye tabiltzen lekue da" - (Barrutia nire behiak dabilzan lekua da)
"Beyek barrutire bota ta kitu" - (Behiak barrutira bota eta kito)*

basabustine: basa buztina

basatzea: basatza

basea: basa

"A be basas beterik, se eseun inok arregletan ta" - (Hura ere basaz beterik, ze ez zuen inork konpontzen eta)

"Emeti pase die ba, basotik ortik, e, basea daolako ta ba inos emetik pastan die eusoari itxite dakien modules" - (Hemendik pasatu dira ba, basotik hortik, basa dagoelako eta ba inoiz hemendik pasatzen dira auzoei uzten zaien modulez)

"Lelangoan arean igual, segun non baye oingo moduen esan on orduen, orduen lurre ta basea san dana" - (Lehenengoan arean beharbada, segun non baina oraingo moduan ez zen egon orduan, orduan lurra eta basa zen dena)

basoa: basoa, mendia

bedarlekue: belar lekua

begadea: ibarra

"Onek gure begadak ona tires, e?" - (Gure ibar hauek onak dira, e?)

beresie: beresia, abaroa

"Or ni bixi nitzen aldea etzean beresiek eta egurre naye egote soan" - (Hor ni bizi nintzen aldea etxean beresiak eta egurra nahia egoten zuan)

biskerra: bizkarra, mendi bizkarra

bustine: buztina

"Lelau, e, seras ite san, baseas, bustinas in sera, amasea, bustinas, ta areas, e, sera ormak in" - (Lehenago, zerarekin egiten zen, basarekin, buztinarekin egin zera, masa, buztinarekin, eta harearekin, zera hormak egin)

bustin lurre: buztin lurra

"Klaro! Lurre tekosus batzuk, e, ba bustin lurre, lur gogorak, ta beste batzuk are lurrek, orrek bigunok" - (Jakina! Lurrak dauzkazu batzuk, ba buztin lurra, lur gogorak, eta beste batzuk harea-lurrak, horiek bigunok)

erri basoa: herri basoa, herriarena den basoa

espaldea: malda

"Espaldan deku soloa" - (Maldan daukagu soroa)

"Ara espaldara yoan bear da bedarra ebaiten edo naboak ataten" - (Hara maldara joan behar da belarra ebakitzen edo arbiak ateratzen)

"Ekarri eusen, e, orrek, eta, pintxeak, lobeak, ekarri eusen dosena bat ingeru, landarak, ta danak inke gendusen, batzuk es baye danak, kasik danak, ta artu eurien danak, batek edo bik ixen esean, ta nire lagunek i euen bat, onek bostak i eurien, estala apolilletan, ta aistu, ta ganora barik iminte, eta besteak artu eurien, ta, bat, e, etzean, besteak danak emon i otziesan, ak eskatu deula besteak eskatu deula ta, emon, bat, ta koiteduek ainbet sofrimentu pase deu, lelango on san baten, leku beten, gero andik, katuek umeak ibilte itun moduen, andik bestera, ta bestetik bestera, ta bestetik bestera, ta, gero akabuen, e, or, e, espaldan, bedarra ebei, ta sue emon, da, or, e, intxurren ondoan egon, eta erre, gero eroa neun ara bera ostabe, ta an orbiste san, ta an be urte bete edo giau i euen, an bean be, ta au in arte, ta gero au in sanean, etzea in sanean, inkeu ortxe dauen lekuen" - (Ekarri zituen, horiek, eta, pintxeak, lobak, ekarri zituen dozena bat inguru, landareak, eta denak inkatu genituen, batzuk ez baina denak, kasik denak, eta hartu zuten denek, batek edo bik izan ezean, eta nire lagunak egin zuen bat, hauek bostek egiten zuten, ez duela sitsak hartzen, eta ahaztu, eta ganora barik ipinita, eta besteak hartu zuten, eta, bat, etxean, besteak denak eman egin zizkieten, hark eskatu duela besteak eskatu duela eta, eman, bat, eta koitaduak hainbat sufrimendu pasatu du, lehenengo egon zen baten, leku baten, gero handik, katuak umeak ibiltzen dituen moduan, handik bestera, eta bestetik bestera, eta bestetik bestera, eta, gero akabuan, hor, maldan, belarra ebaki, eta sua eman, eta, hor, intxaurren ondoan egon, eta erre, gero eroan nuen hara behera ostera ere, eta han orbiztatu zen, eta han ere urte bete edo gehiago egin zuen, han behean ere, eta hau egin arte, eta gero hau egin zenean, etxea egin zenean, inkatu hortxe dagoen lekuan)

eurberrea: aurbehera

fradue: larrea, zelaia, belardia

"An fraduetan ta, ganaduen bekorotza batzuk euki euren euskiten siketan" - (Han larretan eta, ganaduaren bekorotza batzuek eduki zuten eguzkitan sikatzen)

gallurre: gailurra, luzetara dagoen tontorra

goyena: goiena, soro goiena, soroaren goiko aldea

ixie: itxia, barrutia

"Bota ara ganadue ixire" - (Bota hara ganadua itxira)

kantarea: harrobia

"Are arrie ekarten gendun kantaratik" - (Hare-harria ekartzen genuen harrobitik)

"Or kantarea egon san" - (Hor harrobia egon zen)

kara arrie: kare harria, karatxa

"Pastureko orre tires leku onak, kara arrie dauen lekuen, pastue da ganaduentzat ona" - (Belarrerako horiek dira leku onak, kare harria dagoen lekuan, belarra da ganaduentzat ona)

karabie: karobia

"Karabie, egon sien emen be, lantzean batzuk, etze batzutan ba karabiek" - (Karobia, egon ziren hemen ere, lantzean batzuk, etxe batzuetan ba karobiak)

"Burnisko serak olan, alderik aldera, da, seinde labean moduen, ba karabi itxurea inte" - (Burdinazko zerak, hola, alderik aldera, eta, zeinda labearen moduan, ba karabi itxura eginda)

karkabea: karkaba

kayuela arrie: kaiuela harria

kayuela lurre: kaiuela lurra

"Kayuela lurre pe badaus, kayuelea ba atxa bes, lurre bes" - (Kaiuela lurra ere badaude, kaiuela ba haitza ere ez, lurra ere ez)

kayuelea: kaiuela

"An ikuste nun, arean, e, ba porejenplo makinetuskoan sakon, ya sera kayuelea" - (Han ikusten nuen, arean, ba esaterako makinatuz gero sakon, ja zera kaiuela)

landea: landa

lantzarra: lantzarra; lantzen ez den lur saila

"Lantzarra, ba, terrenoa labrebakoa, ori or dauna modules" - (Lantzarra, ba, terrenoa landu bakoa, hori hor dagoena modulez)

latzine: latzina, landamina; erabiltzen ez den landa

lekue: lekua

"Orrek geuse dustiek ite situsen leku beten" -
(Horiek gauza guztiak egiten zituen leku baten)

"Bueno, urte asko bai eroan du, oin bixi garen lekuen eroan dus guk ogetamasortzi urte edo, tabernan" - (Beno, urte asko bai eroan dugu, orain bizi garen lekuan eroan ditugu guk hogeita hamazortzi urte edo, tabernan)

lexea: leizea

"Lexa pa asko daus, andi dabil, ure doa andik lexatatik" - (Leizeak ba asko daude, handik dabil, ura doa handik leizeetatik)

lexe suloa: leize zuloa

lur argala: lur argala

lur arloa: lur arloa

lur asala: lur azala

lur baltza: lur beltza

lur barrie: lur berria

lur garana: lur garana, lur erraza

lur gorrie: lur gorria

"Onek, e, onek gure lurrek estekie ortarikoak, onek gure lurre tire soltu soltu soltuek, lur baltzak, eta onek ostera onenak lur gogorak, one tire lur gorriek gogorak onek" - (Hauek, gure lur hauek ez daukate horietarikoak, gure lur hauek dira soltu-soltu-soltuak, lur beltzak, eta hauek ostera honenak lur gogorak, hauek dira lur gorriak gogorak hauek)

lurmena: lurmena, lur azala

"Edurre dauen lurmena yoaten dosak yaten ta ba yausten dosak, plas! euren pisuas ta ganera botaten yuek eta an barruen lotzean dosak" - (Elurra dagoen lurmena joaten dituk jaten eta ba jausten dituk, plas! euren pisuarekin eta gainera botatzen ditek eta han barruan lotzen dituk)

"Lurmena ser ixengo da, lur sera" - (Lurmena zer izango da, lur zera)

"Ori esaten da lurmena edurrek in deula tapeu" - (Hori esaten da lurmena elurrak egin duela tapatu)

lurre: lurra

"Lur seratan dator, landarea ogoto" - (Lur zeretan dator, landarea hobeto)

"Guk gitxi euki gendun lurre" - (Guk gutxi eduki genuen lurra)

lur sarra: lur zaharra, soro zaharra

magala: magala

mendie: mendia

"Iten sana san menditi ekarri otea, eta metak" - (Egiten zena zen menditik ekarri otea, eta metak)

"Orrek, e, ba mendietan edo olau seratan en jeneral egoten die, baye emen ba, emen olangorik" - (Horiek, ba mendietan edo holako zeretan gehienetan egoten dira, baina hemen ba, hemen holakorik)

mendi magala: mendi magala

mendi puntea: mendi tontorra

munarrie: munarria

"A! soloak! Bai, munarrie sartute! Munarrie sartute, marketa ya terrenoa batera ala bestera" - (A! soloak! Bai, munarria sartuta! Munarria sartuta, markatuta ja terrenoa batera ala bestera)

"Andiaoa bai ausoakas ikus dot nik, emen munarrie egon da, ta esta egon, ta batak sakonau sartu deula besteak kanpora, ausoakas bai ikus dot jaleoa olangoa nik" - (Handiagoa bai auzokoekin ikusi dut nik, hemen munarria egon da, eta ez da egon, eta batak sakonago sartu duela besteak kanpora, auzokoekin bai ikusi dut istilua holakoa nik)

munea: muna

"Palatue munea da, mune bat" - (Palatua muna da, muna bat)

mune bastarra: mune bazterra

"Errekea euki nun ba paraje, buru te gusti sartzeko an, e, mune bastarrean, ostean il ite neude, e?" - (Erreka eduki nuen ba paraje, buru eta guzti sartzeko han, muna bazterrean, ostean hil egiten naute, e?)

okatza: okatza, txantela

"Okatza deko soloak" - (Okatza dauka soloak)

"Bear iteko txarto daunean ba, okatza esaten dako orreri" - (Behar egiteko txarto dagoenean ba, okatza esaten zaio horri)

ortue: ortua

palatue: palatua

"Soyek atarate sien palatue iteko" - (Zohiak ateratzen ziren palatua egiteko)

"Palatue da, sera, alture bat, lelau basoatan ite siren palatuek, ganaduek pase esteitesan bestekalderdire" - (Palatua da, zera, altuera bat, lehenago basoetan egiten ziren palatuak, ganaduak pasa ez daitezen besteko alderdira)

parajea: ingurua

"Amen be garie ereite san, onen parajea be bai, Mugien be" - (Hamen ere garia

ereiten zen, honen inguruan ere bai, Mungian ere)

pastue: belar-lekua, larrea

piñudie, pinudie: pinudia

"Orrek bakixu non oten dien seratan be bai, olan pinudietan, pinudien be igual" - (Horiek badakizu non egoten diren zeretean ere bai, hola pinudietan, pinudian ere beharbada)

"Emen be pinudie egon san" - (Hemen ere pinudia egon zen)

sagardie: sagardia

"Lenau sagardi andi bet, ta kasik basoraño, orti allegeta sien" - (Lehenago sagardi handi bat, eta kasik basoraino, hortik ailegatzen ziren)

"Sagarrari barrutik, lengoan onek esa otzen, e, ekar bea deula, sagarrantzako botikea, sagarrari, tanda baten, lelango loreak urtekeran, bota bea dako botike klase bat, eta gero ostabere ya, garaue sertzean danean, beste klase bat, iru lau klase bota bea dakos, ta aitu selango sagardie dekun guk or" - (Sagarrari barrutik, lehengoan honek esan zion, ekarri behar duela, sagarrantzako botika, sagarrei, txanda baten, lehenengo loreak irteeran, bota behar zaio botika mota bat, eta gero osteria ere ja, garaua zertzen denean, beste mota bat, hiru lau mota bota behar zaizkio, eta aditu zelako sagardia daukagun guk hor)

sanjea: lubana, lubakia

sarratue: zarratua, barrutia

selaye: zelaia

sinkurie, sindurie: zitxuzkia, zingira

sitzea, sitokie: zihitza

soloa: soroa

"Emen ixen sales, onek ixen sieles soloak" - (Hemen izan zen lez, hauek izan ziren lez soloak)

"Niri konteta dekostesu soloan" - (Niri kontatuta daukaidazu sorooan)

"Gero Faustino defuntuek beste aldean imin seitusen iru solo sortzi gixelanekoak" - (Gero Faustino defuntuak beste aldean ipini zituen hiru soro zortzi gizalanekoak)

solo barrena: soro barrena

solo barrie: soro berria, lur berria

solo bastarra: soro bazterra

solo egala: soro hegala

solo goyena: soro goiena

solo txankoa: soro txankoa; soro txikerra

"An atzean, solo txankotxu be tekü" - (Han atzean, soro txankotxu bat daukagu)

suloa: zuloa

"Kajo bat, kajoya, t'aspiti suloak, ta gero maseta batas, aspitik urteta seun garuek" - (Tiradera bat, tiradera, eta azpitik zuloak, eta gero mazeta batekin, azpitik irteten zuen garauak)

"Atzera sartu t'an dau, sulo iten dan lekuen an lotzen sara" - (Atzera sartu eta han dago, zulo egiten den lekuan han lotzen zara)

taketa: taketa

terrenoa: lur saila

"Es, bidea dauen lekutik, nobere terrenotik al bada, ba, nobere noberenetik" - (Ez, bidea dagoen lekutik, norberaren terrenotik ahal bada, ba, norbera norberarenetik)

"Eskriturea iten bosue terrenoana bere, baye galdute dekosue" - (Eskritura egiten baduzue terrenoena ere, baina galduta daukazue)

tontorra: tontorra

trokea: troka

"Emen, e, emetik kaminotik asite ara Mantuliserano, or troka dustie, or sagardi bet egon san" - (Hemen, hemendik kaminotik hasita hara Mantulizeraino, hor troka guztia, hor sagardi bat egon zen)

txankoa: txankoa, okatza; soro txikerra

"Txankoa da olan solo satitxu bet" - (Txankoa da hola soro zatitxu bat)

unadea, unedea: unada, unekada

urtokie: ur-tokia

13.3. BIDEAK

atajue: atajua, lasterbidea

"Bakixu errekea non egon san? Ori estakixu selan koitan dan atajue gora igoteko, bebekarantza, Alaya baño onau, atajue? Antxe barreran dau erreka bat, ba antxe garbitute gurien, ta gure aite t'orrek andik atzetik, beyekas, beyek yagoten kanpora" - (Badakizu erreka non egon zen? Hori ez dakizu zelan hartzen den lasterbidea gora igotzeko, BBKarantz, Alaia baino honago, lasterbidea? Hantxe barreran dago erreka bat, ba hantxe garbitzen zuten, eta gure aita eta horiek handik atzetik, behiekin, behiak jagoten kanpora)

bidea: bidea

"Bidean en jeneral egote soan ori" - (Bidean gehienetan egoten zuan hori)

"Ba, ori, ba atxinekoa, bide frantzesak dok, ortik etorte soasen len frantzesak" - (Ba, hori, ba antzinakoa, bide frantsesa duk, hortik etortzen zituan lehen frantsesak)

"Lenau eskendun euki, es biderik, es argirik, es, e, esebes, ta oin dana tekus, argie, ure, eta ba, len be bixi te oin be bixi, baye oin obeto len baño" - (Lehenago ez genuen eduki, ez biderik, ez argirik, ura, eta ba, lehen ere bizi eta orain ere bizi, baina orain hobeto lehen baino)

"Eta gurean dau or bidean erdi erdi erdien arrie sartute" - (Eta gurean dago hor bidean erdi-erdi-erdian harria sartuta)

"Besinoan bidea esi lei serratu" - (Auzoen bidea ezin liteke itxi)

bide egala: bide hegala, bide ertza

bide kurtzea: bidegurutzea

errebueltea: errebuelta, bihurgunea

erribidea: herri bidea

estrategia: estrata

"Estrategia da arri barik eta eser barik daona" - (Estrata da harri barik eta ezer barik dagoena)

"Bai, aor goyen dau palatue, aan ikusten dosue? An dau, ari esaten tze palatue, aspikoa estrategia da" - (Bai, haor goian dago palatua, haan ikusten duzue? Han dago, hari esaten diote palatua, azpikoa estrata da)

"Ortik, e, beye toasen lekutik estrategia esaten tzue, eta bestea barrukaldeti ba, bidea, bide ohea andi taula ta nobera ba barrukaldetik ibiltzen da en jeneral ta beyek estratatik yoaten die" - (Hortik, behiak doazen lekutik estrata esaten diogu, eta bestea barruko aldetik ba, bidea, bide hobia handik dagoela eta norbera ba barruko aldetik ibiltzen da gehienetan eta behiak estratatik joaten dira)

gurpidea, gurdibidea: gurpidea, gurdi bidea

kaminoa, kamiñoa: kaminoa, errepidea

"Santiago Apostolera etorte soasen, Bilboko Santiagora etorte soasen, kamiño frantzesak esate yotxien, or Laukaris" - (Santiago Apostolera etortzen zituan, Bilboko Santiagora etortzen zituan, kamino frantsesa esaten zioaten, hor Laukariz)

"Ba ameti basori paso atxineko Bermioko kaminoa ortik gora igoten yeuden Bilbora" - (Ba hamendik basorik baso antzinako Bermeoko kaminoa hortik gora igotzen ziaten Bilbora)

"Ortarako lobeak, nirea, san ona, lobeak, oin etzean dauena, a san ona, or, kamiñoan asi te ara errekarak be sartu al san, errekarak be yoate san" - (Horretarako loba, nirea, zen ona, loba, orain etxean dagoena, hura zen ona, hor, kaminoan hasi eta hara errekarak ere sartu ahal zen, errekarak ere joaten zen)

kamino eskine: kamino ertza

"Da ortxe emen kamino eskinean beste etzetxu beten, badekos beste amar edo, be badaus" - (Eta hortxe hemen kamino izkinan beste etxetxo baten, badauzka beste hamar edo, ere badaude)

kurbea: kurba, errebuelta, bihurgunea

kurtzea: bidegurutzea

latea: lata, egurren bidez egiten den barrera bideetan ganadua ez pasatzeko

"Latea esate yakon" - (Lata esaten zitzaien)

"Len latea ite san olan, e, egurrekas, edo, oin alanbrea imiten da edo, eletrikue" - (Lehen lata egiten zen hola, egurrekin, edo, orain alanbrea ipintzen da edo, elektrikoa)

oinbidea: oinbidea

"Estosue sinestuko baye orko, garajegas, geu teku ikuste, geuk, ori ikuste, se, kaminoan, sera, emetik esan egon olan oinbidetxu bet, astoa ibilte san andik eta lagunek, oinbidetxue" - (Ez duzue sinestuko baina horko, garajearekin, geuk daukagu ikusita, geuk, hori ikusita, ze, kaminoaren, zera, hemendik ez zen egon hola oinbidetxo bat, astoa ibiltzen zen handik eta lagunak, oinbidetxoa)

pasoa: pasabidea, bide artekoa

"Trabudunen asite Gastañatxure dauen bidea, Gastañatxuri paso itxi bea dako ta, pasoa itxiteko, orren bidean erdie gure terrenoa da" - (Trabudunen hasita Gaztainatxura dagoen bidea, Gaztainatxuri pasabidea itxi behar zaio eta, pasabidea itxeko, bide horren erdia gure terrenoa da)

13.4. ERREKAK-ITSASOA

area: harea, hondarra

emoye: emoia, jarioa

erreka bastarra: erreka bazterra, erreka ertza

erreka eskinea: erreka ertza, erreka bazterra

errekea: erreka

"Errekea dau loi" - (Erreka lohi dago)

"Kasu da se emen errekan ibilte san lenau" -
(Kasu da ze hemen errekan ibiltzen zen
lehenago)

"Errekea unada baten galdute on san" -
(Erreka unada baten galduta egon zen)

iturrie: iturria

"Oin estau, esta? Baye or egon san iturrie,
soldaduen iturrie" - (Orain ez dago, ezta?
Baina hor egon zen iturria, soldaduen
iturria)

"Orrek iturrire yoaten gintzesenean, e,
iturrien, e, atzera ta eurrera an ibilte sien"
- (Horiek iturrira joaten ginenean,
iturrian, atzera eta aurrera han ibiltzen
ziren)

itxosoa: itsasoa

"Saldiek bai, atzea emote otzie, itxosoari
atzea" - (Zaldiak bai, atzea ematen diote,
itsasoari atzea)

kanala: kanala, ubidea

korrientea: korrontea

manantiala: iturburua

"Diputasinoak esteu ixiten, manantialik ixiten
esteu itxiten" - (Aldundiak ez du ixten,
iturbururik ixten ez du uzten)

marea: marea

oleatue: olatua

"Ixi urte xixi euen, bat i eun, sera, oleatu betek
koyu ta roka artean sartu t'an garbitu, ta
bestea lar barrure sartu, te ixin urte xixi
euen" - (Ezin irten izan zuen, bat egin
zuen, zera, olatu batek harrapatu eta
arroka artean sartu eta han garbitu, eta
bestea lar barrura sartu, eta ezin irten izan
zuen)

patine: patina

"Errekatik ure ekarte san bueno ure ekarte
san, or patine esetu dosu suk? Suon etze
parean? Ba ortik ekarten gendun ure" -
(Errekatik ura ekartzen zen beno ura
ekartzen zen, hor patina ezagutu duzu zuk?
Zuen etxe parean? Ba hortik ekartzen
genuen ura)

playa: hondartza

posoa: putzua

"Ure atata deku emen, e, aun metroan deku
atata emen ure, berantza, baye lenau

posoak, posoa inte" - (Ura aterata
daukagu, ehun metroan daukagu aterata
hemen ura, beherantz, baina lehenago
putzuak, putzua eginda)

"Guk, e, emen posoan asko tope dus
ortakoak" - (Guk, hemen putzuan asko
topatu ditugu horietarikoak)

presea: presa, uharka

subie: zubia

"Or tope yeuden, sera be, subie be" - (Hor
topatu ziaten, zera ere, zubia ere)

"Andik Samudiotik asi te, ona subire,
barrioak ein gendun" - (Handik
Zamudiotik hasi eta, hona zubira, auzoek
egin genuen)

"Bide barrien be selan egon sien an subien
ondoan?" - (Bide berrian ere zelan egon
ziren han zubiaren ondoan?)

txorroa: txorroa

urartea: ur-artea

ur golpea: ur kolpea

"Sera in deula ba, ur golpea an in deula,
ekarri" - (Zera egin duela ba, ur kolpea
han egin duela)

ur gorrie: ur gorria, metal ura

"Ur gorrie Artxandan esetu dot, amentxe
Santa Marinetik gora igonta, an kurben,
an, e, akabuko kurben, egote ixen da,
garbitan ta" - (Ur gorria Artxandan
ezagutu dut, hamentxe Santa Marinetik
gora igota, han bihurtunean, han, azken
bihurtunean egoten izan da, garbitzen eta)

ur posoa: ur putzua

14. LANDARERIA

Landareria alorreko berbak ondoko azpi-
ataletan banatuta aurkezten ditugu:
arbolak, basa-landareak, ortuariak,
fruituak, zekaleak, belarra, landareen
atalak, eta azkenik, jaso ditugun berba
konposatuekin, gainerakoak.

14.1. ARBOLAK

akasie, askasie: arkazia

"Akasie ona, onena, gogorrena, ixin ditela
sarra" - (Arkazia ona, onena, gogorrena,
izan dadila zaharra)

"Iteko porejnplo astak, atxurreri edo serari ixin bea deu akasie edo aratxa, baye estitela gastea ixen" - (Egiteko kasurako asteak, aitzurrari edo zerari izan behar du arkazia edo haritza, baina ez dadila gaztea izan)

"Askasie, okin gendusen, an, askasiek, arloa" - (Arkazia, eduki genituen, han, arkaziak, arloa)

altza: haltza

ametza: ametza

"Eskurre emoten yok ametzak" - (Ezkurra ematen dik ametzak)

aratxa, aretxa: haritza

"Bakixu ser dan ona? Girtenak iteko, akasie ta aratxa" - (Badakizu zer den ona? Girtenak egiteko, arkazia eta haritza)

arbolea: arbola

"Orreri arbolak erre dakies" - (Horiei arbolak erre zaizkie)

"Arbolea da, ondikarren siketu barik ongo die or, eta ara aurrera yoanesko pilloa taus" - (Arbola da, oraindikarren sikatu barik, egongo dira hor, eta hara aurrera joanez gero piloak daude)

"Onek pinudiek botaten ta olan bai, pinudiek eta, se emen, e, en jeneral pinu egon da asko, ta beste arbolarik, e, emen, e, gitxi dau" - (Pinudi hauek botatzen eta hola bai, pinudiak eta, ze hemen, gehienetan pinua egon da asko, eta beste arbolarik, hemen, gutxi dago)

arte: artea

gastañea: gaztaina

"Arbola klase asko daus, aretxa ta gastañea ta, pagoa ta" - (Arbola mota asko daude, haritza eta gaztaina eta, pagoa eta)

gorostie: gorostia

"Gorostie da ori" - (Gorostia da hori)

gurguxe: gurbitza

intxurre: intxaurrea

leixarra: lizarra

"Leixarra esoan lar ona ixiten, leixarra apurtu ite soan" - (Lizarra ez zuan lar ona izaten, lizarra apurtu egiten zuan)

okalitoa: eukalipto

"Lurrunek okalitoas ite siren beti" - (Lurrinak eukaliptoarekin egiten ziren beti)

olmoa: zumarra

pagoa: pagoa

"Pagoas bakixu se iteurien? beyentzako busterriek, ta idientzako be bai" - (Pagoarekin badakizu zer egiten zuten? behientzat buztarriak, eta idientzat ere bai)

pinue, piñue: pinua

"Baten, e, gu, san migelak, oin dire san migelak, eta Lauron, Lauron jayek eta gu gaste, eta andik mendi betzuetatik ortik, e, airopuerto paretik, ortik, menditik igon, eta bagatos san migeletik, saspri edo sortzi neska, eta Artebakarretik, eta Artebakarren, dana piñue kamiñoan erditik eta orrek piñuek, Dzu! iten deu bakixu piñuek mogikeran, ta batek diñosku, atzean segitan doskue, ni karrakada baten, nik i neun karrakada, arik eta onartean, danok bata bestean karraka, gero besteak diñosku, selango bildurre dekosuen" - (Baten, gu, san migelak, orain dira san migelak, eta Lauron, Lauron jaiak eta gu gazte, eta handik mendi batzuetatik hortik, aireportu paretik, hortik, menditik igon, eta bagatoz san migeletik, zazpi edo zortzi neska, eta Artebakarretik, eta Artebakarren, dena pinua kaminoaren erditik eta pinu horiek, Dzu! egiten du badakizu pinuak mugitukeran, eta batek dinosku, atzean segitzen digute, ni karrakada baten, nik egin nuen karrakada, harik eta hona artean, denok bata bestearen karraka, gero besteak dinosku, zelako bildurra daukazuen)

san juan aretxa: san juan haritza

"San juan aretxa, ta erramak, ebei, ebei erditik ta beste egur sati bet sartu an, ta soloan inkeu, ta fraduetan be bai" - (San juan haritza, eta adarrak, ebaki, ebaki, erditik eta beste egur zati bat sartu han, eta soroan inkatu, eta belar-lekuan ere bai)

saratza: sahatsa

sipresa: zipresa

txopoa: txopoa, makala

urrueta, urretxa: hurritza

"Urretxa be ondo biguntan da, urreskie be bai" - (Hurritza ere ondo biguntzen da hurritzia ere bai)

"Urrutxek, e, jo, ta ara botaten" - (Hurritzak, jo, eta hara botatzen)

14.2. BASA LANDAREAK

arbustoa: zuhaixka

arkasatza: arkasatsa

"Arkasatza? ori sasia dok" - (Arkasatsa? hori sasia duk)

arrutze gorringoa: arrautza gorringoa, perretxiko mota bat

"Arrutze gorringoa bai, gosoa dok, bai, beyek yaten yuek ori" - (Arrautza gorringoa bai, gozoa duk, bai, behiek jaten ditek hori)

asune: asuna

"Asunek katarroantzako, asunek, neu pe sarri artu doas" - (Asunak katarroarentzat, asunak, neuk ere sarri hartu ditut)

"Asunek egosi eta aren ure edan, mingotza!" - (Asunak egosi eta haren ura edan, mingotsa!)

"Baye bakixu se esate seun ak? Olan txarto ukuste seunean, berak bakarrik, asunek koyu, ta-ta, ta-ta! Berak esate seun, lepoan emon, yo yo yota, plasara yoate nitzen ni, esate seun ak" - (Baina badakizu zer esaten zuen hark? Hola txarto ikusten zuenean, berak bakarrik, asunak koiu, ta-ta, ta-ta! Berak esaten zuen, lepoan eman, jo jo jota, plazara joaten nintzen ni, esaten zuen hark)

berbena bedarra: berbena belarra

"Ba, olan, e, min txar bat, dekosunean edo serean, ori radio pe ondiñokarren, e, denpora gitxis onantza esan deu, dies, selan esaten dakie areri, ba? Berbena bedarrak, berbenak, ta orrek iten dies, ba, seatu seatu, esta? Ta perejile, bota, eta, sera, ser giâu botaten dako? Perejile ta, a! Arrutzea, baye suringoa bakarrik, surie, bestea, es, ta areas nasteu nasteu in, eta txis-txas! Bueltatxu bet ibili te, berde berde berdetan dauela imini, berotan! Erre bari paye berotan imin bixeten da, eta, kendu iten deu, kendu iten deu" - (Ba, hola, min txar bat, daukazunean edo zerean, hori irratiak ere oraindikarren, denbora gutxiz honantz esan du, dira, zelan esaten zaie haiei, ba? Berbena belarrak, berbenak, eta horiek egiten dira, ba, xehatu xehatu, ezta? Eta perrexila, bota, eta, zera, zer gehiago botatzen zaio? Perrexila eta, a! Arrautza, baina zuringoa bakarrik, zuria, bestea, ez, eta harekin nahastu nahastu egin, eta txis-txas! Bueltatxo bat ibili eta, berde berde

berdetan dagoela ipini, berotan! Erre barik baina berotan ipini behar izaten da, eta, kendu egiten du, kendu egiten du)

berbenea: berbena

berdine: berdina

berretxikoa: perretxikoa

berroa: berroa

durdure bedarra: durdura belarra, usturia

elorrantza: elorria

"Erakutziko tzut gure bosu elorrantza, atoan" - (Erakutsiko dizut gura baduzu elorria, atoan)

"Ori esate yeuden atxine, atxineko sarran kontue, amamak eta, elorrantzan aspian" - (Hori esaten ziaten antzina, antzinako zaharren kontua, amamak eta, elorriaren azpian)

elorrantza baltza: elorri beltza

elorrantza surie: elorri zuria

eride bedarra: zauri belarra, kolpe belarra

"A! Eride bedarra bai ortariko or be ongo dies oin be, ta eride pe igual oten dies, ba sertu ixinik, kureu ixinik, ta arek iten deu bentajea, e?" - (A! Zauri belarra bai horietariko hor ere egongo dira orain ere, eta zauriak ere beharbada egoten dira, ba zertu ezinik, osatu ezinik, eta hark egiten du abantaila, e?)

erramue, erremue: erramua

"Eta ordun bereinketuten dan erramue erre eta aren eutze" - (Eta orduan bedeinkatzen den erramua erre eta haren hautsa)

eusnar bedarra: hausnar belarra

"Auxe da, eusnar bedarra orixe da" - (Hauxe da, hausnar belarra horixe da)

gibel urdine: gibel urdina

"Ori gibel urdine da" - (Hori gibel urdina da)

giñarrea: ginarra

"Danak estire akordetan atoan, da areas garbitu ite san, seinde giñarrea bat ixetea les, giñarrea bat ixetea les areas" - (Denak ez dira akordatzen atoan, eta harekin garbitu egiten zen, zeinda ginarra bat izatea legez, ginarra bat izatea legez harekin)

grillu lorea: txirri-txirri belarra, txirri-txirri lorea

"Bai ogie, edo lorea, oin estau atariko lorarik, grillu lorea esaten geuntzen guk, emen badau, etze ondoan urteten deure, emen arean" - (Bai ogia, edo lorea, orain ez dago haietariko lorarik, txirri-txirri

lorea esaten genion guk, hemen badago,
etxe ondoan irteten dute, hemen arean)

idea, irea: ira

"Erre gero idekas edo, idek useta sien, erre ta
gero garbitu uras ta ingeruekas ta gero
eskei siketako" - (Erre gero irekin edo, irak
usutzen ziren, erre eta gero garbitu
urarekin eta inguruekin eta gero eskegi
sikatzeke)

indi gastañea: indi gaztaina

"Yakiten geyoan indi gastañea sein dan" -
(Jakiten genian indi gaztaina zein den)

intzurrie: huntza

"Igoten yona ormatik pegeta, intzurrie dok
ori, intzurrie" - (Igoten duena hormatik
itsatsita, huntza duk hori, huntza)

jainkoan eskue: jainkoaren eskua,
amabirjinaren atzamarrak

"Orrek lorea suri emoteurien, lorea surie,
jainkoan eskue geitze aken, jainkoan
eskue" - (Horiek lorea zuri ematen zuten,
lorea zuria, jainkoaren eskua deitzen
zitzaien, jainkoaren eskua)

kañuberea, kañuberea: kanabera

"Guk beti kañubera, kañubera txiker batas, ta
gero egurre da iketza" - (Guk beti
kanabera, kanabera txiker batekin, eta
gero egurra eta ikatza)

"Troso bi euki neusen kañaberak, eta gero
emen, beste bi" - (Zati bi eduki nituen
kainaberak, eta gero hemen, beste bi)

kardue: kardua

"Eskolatik etorri orduko benga! Arrastien, e,
karduek in bear dires konejuentzat, ure
ekarri patinetik, eta neskak patatak suritu
geuberako" - (Eskolatik etorri orduko tira!
Arrastian, karduek egin behar dira
konexuentzat, ura ekarri patinetik, eta
neskak patatak zuritu gauerako)

"Kardue, dustie garbitu dana gortara, se esan
egon bedarrik, eta orduen bedarra falta
ixen sales" - (Kardua, guztia garbitu dena
kortara, ze ez zen egon belarrik, eta
orduan belarra falta izan zen lez)

kardu latza: kardu latza

karraskillea: karraskila

"A, karraskillea, bai, badakit karraskillea
selangoa dan, baye estot ños artu" - (A,
karraskila, bai, badakit karraskila zelakoa
den, baina ez dut inoiz hartu)

kuletroa: kuletroa, perretxiko mota bat

lanperna: lanperna, perretxiko mota bat

larrosea: arrosa

luki bustena: luki buztana, azeri buztana

"Ori, luki bustenak, egosi te artu be orren ure
iten deurie" - (Hori, luki buztanak, egosi
eta hartu ere horren ura egiten dute)

mamukioa: mamukioa

"Mamukioa bai, are pe or badaus, baye arek,
e, estai pa garitxu batzuk eukiten deitusen,
ala, orriek, e, aprobetxetan dituela garuek
apur bet bai, e, seuse medikamentu orre pe
badekie" - (Mamukioa bai, haiek ere hor
badaude, baina haiek, ez dakit ba garitxo
batzuk edukitzen dituen, ala, orriak
aprobetxatzen dituztela garauak apur bat
bai, zer edo zer medikamentu horiek ere
badaukate)

mamukio bedarra: mamukio belarra

mantzanillea, mantzanilea: mantzanila,
kamamila

"Mantzanillea ba, estomague txarto daonean"
- (Mantzanila ba, urdaila txarto
dagoenean)

masustea: masusta

mimena: mihimena

"Mimena pe, arloa, solo osoa oki neun nik
iminte, mimenak, se urte gustietan podeta
neusen, esta? Baye" - (Mihimenak ere,
arloa, solo osoa eduki nuen nik ipinita,
mihimenak, ze urte guztietan inausten
nituen, ezta? Baina)

"Mimenak oin be bai aprobetxetan dus" -
(Mihimenak orain ere bai aprobetxatzen
ditugu)

mimen txirpie: mihimen txirpia

misperue: mizpirra

"Esta urrin yoan bearrik, misperue, ikusteko
bai yaten deure ori, yaten deure,
ustelduten danean, bigunduten danean,
orrek, e, nire lengusue padekos, misperue"
- (Ez da urrun joan beharrik, mizpirra,
ikusteko bai jaten dute hori, jaten dute,
usteltzen denean, biguntzen denean,
horiek, nire lehengusuak badauzka,
mizpirra)

odolgie: odolgia

okaran txirrie: okaran txirria

"Mendebakoak beti eukiten deu gustu txarra
neuk etxoat ños olgeu, okaran txirriekas" -
(Mendatu bakoak beti edukitzen du gustu
txarra neuk ez diat inoiz olgatu, okaran
txirriekin)

ongoa: onddoa

oreganoa: oreganoa

otabarra: otabarra

otakarra, otagarra: otakarra

"Batzuk otagarra be bai baye bear andie emoteun orrek, eta sartzeako desgustoso" - (Batzuek otakarra ere bai baina behar handia ematen zuen horrek, eta sartzeko deserosoa)

"Onek ota andiok, otakarra esate otzienak, etzera ekarri, da gero ite san labea prepareu orrekas" - (Hauek ote handiok, otakarra esaten dietenak, etxera ekarri, eta gero egiten zen labea prestatu horiekin)

ota latza: ote latza

"Ementxe be, amen alboan ota latza ite san, amen alboan, baye oin, etzeak in diles, garbitute" - (Hementxe ere, hamen alboan ote latza egiten zen, hamen alboan, baina orain, etxeak egin diren lez, garbituta)

"Oin be badau ebeite ota latza mendien" - (Orain ere badago ebakita ote latza mendian)

otarte: ote-arte

"Orrek basoan ote sien, e, otartean, ota latzan orrien aspian ote sien, ota latzan orrien aspian ote sien onek" - (Horiek basoan egoten ziren, ote-artean, ote latzen orrien azpian egoten ziren, ote latzen orrien azpian egoten ziren hauek)

otea: otea

"Andik senbet biderres ekarri du otea?" - (Handik zenbat biderrez ekarri dugu otea?)

"Orrek iten deure otartean abitxue, otean ganean" - (Horiek egiten dute ote-artean habiatxoa, otearen ganean)

patana: batana, menda

"Patana guk estu usetan esetako be" - (Batana guk ez dugu usatzen ezertarako ere)

pulmoni bedarra: pulmoni belarra

"Bakixu ser batze seun gure amak, e? Negu gustireko, osea urte gustireko, e, sera, pulmoni bedarra" - (Badakizu zer batzen zuen gure amak, e? Negu guztirako, hau da urte guztirako, zera, pulmonia belarra)

"Bedarrak nik, e, oin, e, akostunbre nas, pulmoni bedarra estaules emen, ba sera, romeroas" - (Belarrak nik, orain, ekandu naiz, pulmonia belarra ez dagoen legez hemen, ba zera, erromeroarekin)

"Pulmoni bedarra? Jo! Elegantea da ori" - (Pulmonia belarra? Jo! Dotorea da hori)

"Pulmoni bedarra, a egon san len asko gurean" - (Pulmonia belarra, hura egon zen lehen asko gurean)

romerue: erromeroa

"Romeruek igon, romeruek igon eiten tzu, e?" - (Erromeroak igo, erromeroak igo egiten dizu, e?)

sagar txirpie: sagar txirpia, mendatu bako sagarra

sanbedarra: zain belarra

"Sanbedarrak orrek bedarrak luse batzuk sien, eta aikas bedarrakas eiteuen, kurtzea iteuen aikas, ta bide bates ba berbak esate situsen" - (Zain belarrak belar horiek luze batzuk ziren, eta belar haiekin egiten zuen, gurutzea egiten zuen haiekin, eta bide batez ba berbak esaten zituen)

"Sanbedarra esetu dot, sanbedarra dau ademas, bata gixonana eta beste bat andrana" - (Zain belarra ezagutu dut, zain belarra dago gainera, bata gizonena eta beste bat andreana)

"Bai, gixonak badire, orrek lusiok, sanbedarrak, eta enbrak badires erredondoak" - (Bai, gizonak badira, horiek luzeok, zain belarrak, eta andrazkoak badira biribilak)

"Sanbedarra, imite dosu eridan ganean ta" - (Zain belarra, ipintzen duzu zauriaren ganean eta)

sasiarte: sasiarte

"Sasiartean, e, iñok estakila ataraten yuesak, eta nok kontetan yotxiesan areri" - (Sasiartean, inork ez dakiela ateratzen ditiztek, eta nork kontatzen zizkiean haiei)

sasie: sasia

"Buuu! selan prepareta san? Ori bear txarra san, oin egurrekas ite san akabuen, baye guk atxine, sasiak ebai ta otak, eta arekas iten gendun, se! Nik estot eukin nebarik, eta aite gastea nintzela il san, eta ba geuk iten gendun, aisteak eta neuk! Aisteak eta neuk ite gendusen ba, koite gendun artoa, igertako serak, eta ebaite doskuen ba, gixonak ebai ite doskuen sasiak edo otea! Eta arekas! Eta esin sartu gu gastek giñen! Eta esin sartu labako, serera! Guk pentzeu bes arek, e, txikertu bear dienik sartuteko ara, espabese, yoate giñen, eta baten baño giautan igual, e, sartu baño lelau, e, suek

artu be bai! Bokan, labean bokan be suek artu be bai, oin, e, akabuen gero egurreas ite san, ta egurrekas ederto! Baye gero a, arek gustiek, e, serak danak garbitako, lelau iten geuntzen, e, olan, e, ol bategas inte sera erredondo bat, ta aregas atarate gendun a su andiena, eta gero, arfilere bat imini palu andi beten puntan, ta aregas garbitu a labea, eta orduen etxa artoa" - (Buuu! Zelan prestatzen zen? Hori behar txarra zen, orain egurrekin egiten zen azkenean, baina guk antzina, sasiak ebaki eta oteak, eta haiekin egiten genuen, ze! Nik ez dut eduki nebarik, eta aita gaztea nintzela hil zen, eta ba geuk egiten genuen, ahizpak eta neuk! Ahizpak eta neuk egiten genituen ba, hartzen genuen artoa, igartzeko zerak, eta ebakitzen ziguten ba, gizonak ebaki egiten zizkiguten sasiak edo otea! Eta haiekin! Eta ezin sartu gu gazteak ginen! Eta ezin sartu labeko zerera! Guk pentsatu ere ez haiek, txikertu behar direnik sartzeko hara, ezpadaze, joaten ginen, eta baten baino gehiagotan beharbada, sartu baino lehenago, suak hartu ere bai, orain, azkenean gero egurrarekin egiten zen, eta egurrekin ederto! Baina gero hura, haiek guztiak, zerak denak garbitzeko, lehenago egiten genien, hola, ohol batekin eginda zer biribil bat, eta harekin ateratzen genuen hura su handiena, eta gero, buru orratz bat ipini palo handi baten puntan, eta harekin garbitu labe hura, eta orduan bota artoa)

"Ta gero okin gendun etzerarten, nik tapiatik goitik, sasiak gorantza, ta esa nontzen suk au, ondo dau, ori nona da?" - (Eta gero eduki genuen etxeraino, nik hormatik goitik, sasiak gorantz, eta esan nion zuk hau, ondo dago, hori norena da?)

saukoa: saukua, intsusa

"Bai beyeri suldarra kentzeako ta egosite ta, iten yotzien orren uregas bai saukoa" - (Bai behiei suldarra kentzeko eta egosita eta, egiten zioten horren urarekin bai saukua)

setea: perretxikoa, ziza

sie, sitze: zihia

"Ixilik ixilik aber kantetan dauen ikusi, ta ai! Amen deko suloa, sitze, in te aregas kiñeu, eta gero eskukas bera koyu" - (Isilik isilik

ea kantatzen duen ikusi, eta ai! Hamen dauka suloa, zihia, egin eta harekin kinatu, eta gero eskuekin bera koiu)

txanpinoya: txanpinoia

"Oin txanpinoyak eta danarik urtetan yok" - (Orain txanpinoiak eta denetatik irteten dik)

txibiritea: xiribita

udebarriko setea: udaberriko perretxikoa

urretxa: hurritza, perretxiko mota bat

"Ori urretxan aspian ta urtetan yokena dok" - (Hori hurritzaren azpian eta irteten duena duk)

yusturie: mihura, usturia

14.3. ORTUARIAK

apioa: apioa

"Eta seras be bai, apioagas be bai, apioagas be iten deu, e, segun nori lar bajatu ta ori be esta ona" - (Eta zerarekin ere bai, apioarekin ere bai, apioarekin ere egiten du, segun nori lar baxatu eta hori ere ez da ona)

arbi naboa: arbi naboa, arbia

asalgea: zerba, azelga

"Geuse andirik es, e? Neguen, e, orixe asak eta, asalgea ta olangoxe" - (Gauza handirik ez, e? Neguan, horixe azak eta, zerba eta holakoxea)

asea: aza

"Atxine eskendun esetan, orrek bitxoak, eta orrek bitxoak oin etor dies, se atxine esan egoten, bueno, ba aseari bai, erugia, eta orrek geusek, e, ba beti dekies, e, asari te, baye oingo beste es!" - (Antzina ez genuen ezagutzen, mamarro horiek, eta mamarro horiek orain etorri dira, ze antzina ez zen egoten, beno, ba azari bai, erugea, eta gauza horiek, ba beti dauzkate, azei eta, baina oraingo beste ez!)

atxikorie: txikoria

babea: baba

"Da sera babea be bai, t'orrek iten dire danak nasteu" - (Eta zera baba ere bai, eta horiek egiten dira denak nahastu)

bañea: leka

"Neuri be kendu espaustien igual egongo nintzen soloan, amen! Bai, e, bañek eta piperrak eta tomateak ondiño emen eukingo neusen! Segurutik!" - (Niri ere

kendu ez bazidaten beharbada egongo nintzen soloan hamen! Bai, lekak eta piperrak eta tomateak oraindino hemen edukiko nituen! Segurutik)

berakatzak: berakatzak

"Bai ondino badaus, berakatzak ondino badaus" - (Bai oraindino badaude, berakatzak oraindino badaude)

"Berakatzak, e, ba, in surkoa, olan iledan, ta gero sartu, bakotxean bat, bakotxean bat, bakotxean bat" - (Berakatzak, ba, egin ildoak, hola ilaran, eta gero sartu, bakoitzean bat, bakoitzean bat, bakoitzean bat)

"An sartu, berakatzak, gordinek bota berakatzak, eta, gure deunak, e, guk berakatzagaz iminte gendun, berakatzak, e, aplaste aputxu bet, usine emon deitzen, eta ara, eta an eukite gendusen ba urruno egunerartearen edo olan, urruno egunerartearen, en jeneral, eukite gendun ba, an, ta gero, andik uretatik atara ta eskegi, eta piper txoriserue, areas unteu dana, eta iminte gendun, ta siketan sirenean, ba yan" - (Han sartu, berakatzak, gordinak bota berakatzak, eta, gura duenak, guk berakatzekin ipintzen genuen, berakatzak, zapartu apurtxo bat, usaina eman diezaion, eta hara, eta han edukitzen genituen ba hurrengo egunera artean edo hola, hurrengo egunera artean, gehienetan, edukitzen genuen ba, han, eta gero, handik uretatik atera eta eskegi, eta piper txorizeroa, harekin igurtzi dena, eta ipintzen genuen, eta sikatzen zirenean, ba jan)

berako iderra: beherako ilarra

berako indabea: beherako indaba

erremolatxea: erremolatxa

"Geur dau sera pulpea, erremolatxeas iten dana pulpea, gero birsaye, gero arto urune" - (Gaur dago zera pulpa, erremolatxarekin egiten dena pulpa, gero birzahia, gero arto irina)

"Egosi be ite san, erremolatxak egoste sien" - (Egosi ere egiten zen, erremolatxak egosten ziren)

eskarolea: eskarola

"Klaro! Klaro! Asak, dires negukoak, ta koniflora ta porruak, dires, eta len esiren iten ta oin, atxikoriek, ta eskarolea be bai iten da oin" - (Jakina! Jakina! Azak, dira

negukoak, eta azalorea eta porruak, dira, eta lehen ez ziren egiten eta orain, txkoriak, eta eskarola ere bai egiten da orain)

gorako iderra: gorako ilarra

gorako indabea: gorako indaba

iderra: ilarra

indaba baltza: indaba beltza

"Gure aititek esate gun, eurek amordeas aste daus, eta iminte otziela, indaba baltza, ta seaitik aitite indaba baltza? gitxiao yateko" - (Gure aitaitak esaten zuen, eurek amaordearekin hazita daude, eta ipintzen ziela, indaba beltza, eta zergatik aitaita indaba beltza? gutxiago jateko)

indaba gorrie: indaba gorria

"Asie guk eukin du, lelau ereiten gendun urte askotan indaba gorrie" - (Hazia guk eduki dugu, lehenago ereiten genuen urte askotan indaba gorria)

"Ereite dales indabea, indaba gorrie, beltxuau elduten bada, artoa an itxi bear ixete san, eta artoa batze san labasuek iteko ondo eldu baño lelau, kontus!" - (Ereite den legez indaba, indaba gorria, beltxoago heltzen bada, artoa han utzi behar izaten zen, eta artoa batzen zen labasuak egiteko ondo heldu baino lehenago, kontuz!)

indaba surie: indaba zuria

"Bodatan be lantzen batek, e, igual olangoxea, besterik esan etxaten, al deuenak giatxuau, eta modue estekonak gitxitxuau, eta gero nastean indaba pe botaten dotzin, indaba surie pe, batzuk, indaba suriek, ba, jenteak, umeak eta sertu deyen, engañetako ba bakixu arek koiten ta, e! Indaba tire onek eta!" - (Ezkontzetan ere lantzean batek, beharbada holakoxea, besterik ez zen botatzen, ahal duenak gehitxoago, eta modua ez daukanak gutxitxoago, eta gero nahastean indabak ere botatzen zizkioten, indaba zuriak ere, batzuek, indaba zuriak, ba, jendeak, umeak eta zertu dezaten, engainatzeko ba badakizu haiek hartzen eta, e! Indabak dira hauek eta!)

indaba tolosanea: indaba tolosarra

indabea: indaba

"Ba, indabak, edo lapikokoa ixete san, e, en jeneral, ademas, e, mutilek edo gixonak badaus, ori ixete san, eta txarriek ilte siren

bat edo bi etze bakotxean, ta ara botate san, e, urdie edo gierraas nastean, eta, a plater bete yan arek indabak eta gero ganean a unteute edo, gure deuenak, ta ostantzean ba esta egon, esan egoten olango" - (Ba, indabak, edo lapikokoa izaten zen, gehienetan, gainera, mutilak edo gizonak badaude, hori izaten zen, eta txerriak hiltzen ziren bat edo bi etxe bakoitzean, eta hara botatzen zen, urdaia edo giharrarekin nahastean, eta hura plater bete jan indaba haiek eta gero ganean hura bazitan eginda edo, gura duenak, eta osterantzean ba ez da egon, ez zen egoten holako)

"Ser yango soan ba? Indabak bakarrik, ba txarrie ilde" - (Zer jango zuan ba? Indabak bakarrik, ba txerria hilda)

"Oin be bai indabak nik garbituten doas axera, baye goiti bera" - (Orain ere bai indabak nik garbitzen ditut haizera, baina goitik behera)

kalabasea: kalabaza

"Kalabasea esan ona isten segaiti se kalabaseak koitauen ba orrias edo" - (Kalabaza ez zen ona izaten zergatik ze kalabazak hartzen zuen ba orriarekin edo)

"Kalabaseak igon iten dotzie arto indabari te sano galtzea itus" - (Kalabazak igo egiten die arto-indabei eta sano galtzen ditu)

kinpulea, kinpullea: kipula

"Ba pentzetan dot bai, se mortzillek beti salduten gendusen, ba guk eite gendun porru asko! Eta kinpullea, porru ta kinpulle asko be asko, e! Berdure asko! Eta arrosa, ta gero odola, eta areri perejil apur bet nastetan geuntzen, eta odolagas giau besterik es! Perejille, gero oregano esaten dakon, orrek, e, kanpoan egoten dies oin be ikusten doas nik leku betzutan, arek, e, garandu, eta apur bet nastetan geuntzen amaseari, eta ba, estait, gure mortzillek famaduek ixen siren, e!" - (Ba pentsatzen dut bai, ze buzkantzak beti saltzen genituen, ba guk egiten genuen porru asko! Eta kipula, porru eta kipula asko ere asko, e! berdura asko! Eta arroz, eta gero odola, eta hari perrexil apur bat nahasten genion, eta odolarekin gehiago besterik ez! Perrexila, gero oregano esaten zitzaion, horiek, kanpoan egoten dira orain ere ikusten ditut nik leku batzuetan, haiek,

garandu, eta apur bat nahasten genion masari, eta ba, ez dakit, gure buzkantzak famatuak izan ziren, e!)

kinpulle gorrie: kipula gorria

"Kinpulle gorrie esate otzu ba, gorrie" - (Kipula gorria esaten diogu ba, gorria)

kinpulle surie: kipula zuria

koniflora: azalorea

"A, bai, gabonatan ta bai, beti ite san afarie diferente, ba, eurretik akostunbreta san, koniflora edo origo asea, lenango, eta gero ganean, peskeue, ba, modue dekonak, peskeu obetxuaoa, eta modu gitxi dekonak ba txitxarroa edo ixete san, eta gero, olloskoak etzean aste siren, eta olloskoa, en jeneral beste batzuk artxoa be bai, ori depende jentean, e, modue, selan dan, ta alan ite san santiagoatako moduen, kasureko, ba santiagoatarako be, ba erriko jayek iste siren, eta olloskoak aste siren etzean, eta santiagoatan beti!" - (A, bai, gabonetan eta bai, beti egiten zen afaria desberdina, ba, aurretik usatzen zen, azalorea edo olio aza, lehenago, eta gero ganean, arraina, ba, modua daukanak, arrain hobetxoagoa, eta modu gutxi daukanak ba txitxarroa edo izaten zen, eta gero, oilaskoak etxean hazten ziren, eta oilaskoa gehienetan beste batzuek artxoa ere bai, hori segun jendearen, modua, zelan den, eta hala egiten zen santiagoetako moduan, kasurako, ba santagoetarako ere, ba herriko jaiak izaten ziren, eta oilaskoak hazten ziren etxean, eta santiagoetan beti!)

"Eroa neusen koniflor batzuk" - (Eroan nituen azalore batzuk)

letxugea: letxuga

"San Jose ingerureko, no tekosen letxugek, ori geuse andie ixete san" - (San Jose ingururako, nork dauzkan letxugak, hori gauza handia izaten zen)

"Ya itxi neuntzen ta, bueno, yausi i nintzen, ontxe sortzi urte die, gabon sar besperan, yausi nintzen eskillaratatik, etorri eskillaratatik, goixean ego nintzen inbernaderoan, ta letxugea euki gendun ona, ta euki euen benta ona, gabon sar besperaa ixen san ta, eta esate ostien, e, erdu bier bere, nik neure bijea in dot, eta ni enator bier, eta, ser kostetan datzu ba? Esate ostien su tinosusen orrek

erregaterak, serak, esate ostien" - (Ja utzi nion eta, beno, jausi egin nintzen, oraintxe zortzi urte dira, gabon zahar bezperan, jausi nintzen eskaileretatik, etorri eskaileretatik, goizean egon nintzen berotegian, eta letxuga eduki genuen ona, eta eduki zuen irteera ona, gabon zahar bezpera izan zen eta, eta esaten zidaten, erdu bihar ere, nik neure bidaia egin dut, eta ni ez nator bihar, eta, zer kostatzen zaizu ba? Esaten zidaten zuk dinozuzen erregatera horiek, zerak, esaten zidaten)

naboa: arbia

"Exea nik estot ikusi besterik naboantzat preparentako baño, exeak emen eseuen bear asko iten, amen en jeneral ite san garie kendu, da gero areakas, areakas, bedarra ganekoa dana batu" - (Exea nik ez dut ikusi besterik arbientzat prestatzeko baino, exeak hemen ez zuen behar asko egiten, hamen gehienetan egiten zen garia kendu, eta gero areekin, areekin, belarra gainekoa dena batu)

parrako indabea: parrako indaba

patatea: patata

"Nik patatea entzun dot" - (Nik patata entzun dut)

"Patatea, kendu asala, da emon, sati bet kendu patateari eta patateas sertu, froteu" - (Patata, kendu azala, eta eman, zati bat kendu patatari eta patatarekin zertu, igurtzi)

perejile: perrexila

"Emen, e, ni or etxean yayoa nas, eta seoser errekadu bear ixeten bagendun, kasureko ba, edo perejile koite aistute, solora yoan bear da, ta bakarrik eseaiti bes, oi bildurre! Ta neba bat euki gendun neu baño sarraoa, eta nebeari lagundu istesu, lagundu istesu bildurre dekot eta" - (Hemen, ni hor etxean jaioa naiz, eta zer edo zer errekadu behar izaten bagenuen, kasurako ba, edo perrexila hartzea ahaztuta, solora joan behar da, eta bakarrik ezergatik ere ez, oi bildurra! Eta neba bat eduki genuen neu baino zaharragoa, eta nebari lagundu iezadazu, lagundu iezadazu bildurra daukat eta)

piper lodie: piper lodia

piperra: piperra

"Soloa, soloatara? bai, iluntzean botaten gendun, e, piperrari te olan, sartu lelau

piperrak eta gero siketu esteitesan, bakotxari apurtxu bet eunkesea! Gurdias ametik, suen, e, errekatik eroaten gendun barriketan, ortik eroaten gendun solorako, e? Etzerako txorroa euki gendun an, Aldekoneko serean, oin estau baye, eta andik eta andik gero doana errekarara ara Ganberantza, Atxauneko soloatarantza, geubean igual amakatan edo amabitan andi baldea be ure artute!" - (Soloa, soloetara? bai, iluntzean botatzen genuen, piperrari eta hola, sartu lehenago piperrak eta gero sikatu ez daitezten, bakoitzari apurtxu bat bada ere! Gurdiarekin, hamendik, zuen, errekatik eroaten genuen barriketan, hortik eroaten genuen solorako, e? Etixerako txorroa eduki genuen han, Aldekoneko zerean, orain ez dago baina, eta handik eta handik gero doana errekarara hara Ganberantz, Atxauneko soloetarantz, gauean beharbada hamaiketan edo hamabietan handik baldea ere ura hartuta!)

piper txoriserue: piper txorizeroa

porrue: porrua

"Porrueri ba askori gogortu, erdien serak urteten tzo, gogor-gogor" - (Porrueri ba askori gogortu, erdian zerak irteten dio, gogor-gogor)

tolosana txikerra: tolosar txikerra, indaba mota

"Parrakoak, eta bestea dekosu tolosana txikerra bekoa, ori ya elduten da bastante arin" - (Parrakoak, eta bestea daukazu tolosar txikerra behekoa, hori ja heltzen da nahiko arin)

tolosanea: indaba tolosarra

"Andik igual ekarri ba sera asie, indabea, gorrie edo tolosanea edo" - (Handik beharbada ekarri ba zera hazia, indaba, gorria edo tolosarra edo)

tomatea: tomatea

"Ba mayetzan san isidro besperan, otabost urtas eskondu nintzen ni, eta bañekas, tomateak eta bañea eraite ostesan onek, eta asi nintzen Bilbora" - (Ba maiatzean San Isidro bezperan, hogeita bost urterekin ezkondu nintzen ni, eta lekekin, tomateak eta baina ereiten zizkidan honek, eta hasi nintzen Bilbora)

txakur ase: txakur aza, gora etortzen den aza mota

14.4. FRUITUAK

agirre: agirre, gerezi mota

"Emen agirre, a ixen san andiena emen" - (Hemen agirre, hura izan zen handiena hemen)

"Atzamarran, e, tamañukoa, esta? Ederra, emen klase bi egon sien agirre eta bestea, euki gendusen guk, emen eun kilo kerexa ta koi dires egunean" - (Atzamarraren, tamainukoa, ezta? Ederra, hemen mota bi egon ziren agirre eta bestea, eduki genituen guk, hemen ehun kilo gerezi eta hartu dire egunean)

amerikanue: amerikarra; mahats mota bat

atxikoa: atxikoa, iko mota bat

"Bata atxikoa, olan planotxu bet, gero beste ba ta surie, oin dau elduten bai, eta gero beste batzu taus, andiek, gorriek barrutik diresenak" - (Bata atxikoa, hola lisotxo bat, gero beste bat da zuria, orain dago heltzen bai, eta gero beste batzuk daude, handiak, gorriak barrutik direnak)

boskantoya: bost kantoia, sagar mota bat

erraineta baltza: erraineta beltza

"Sagarrak, o, urte bete sagarrak, larrabetzu sagarrak, errainetak, erraineta baltza, erraineta erraidune, ta ortarikoak dustiek" - (Sagarrak, urte bete sagarrak, larrabetzu sagarrak, erreinetak, erreineta beltza, erreineta marraduna, eta horietarikoak guztiak)

erraineta erraidune: erraineta marraduna

erreinetea, erraiñetea: erraineta

"Erraiñetak eta orrek esteure balio, gaseak ixen bear deu" - (Errainetak eta horiek ez dute balio, gazak izan behar du)

frutea: fruitua

gasea: gaza; sagar mota

"Gasea orrek pinta gorridune" - (Gaza horiek pinta gorriduna)

gastañea: gaztaina

"Beti angu, orduko geusea ixen sanean intxurrek edo gastañek, esan egon giau" - (Beti hango, orduko gauza izan zenean intxurrak edo gaztainak, ez zen egon gehiago)

"Ortik gastañek ongo die, sera asko etorten da ta" - (Hortik gaztainak egongo dira, zera asko etortzen da eta)

gebon madarie: gabon madaria

ikoa: ikoa

"Iges au baño andiau euki neun nik, eta kasik kandute euki dot baye ikoak akabe astesan" - (Iaz hau baino handiago eduki nuen nik, eta kasik kenduta eduki dut baina ikoak amaitu zitzaizkidan)

iko baltza: iko beltza

iko surie: iko zuria

intxurre: intxaurra

"Juanitak esa osten esteu urten ondo se, on san ondo in barik intxurre" - (Juanitak esan zidan ez du irten ondo ze, egon zen ondo egin barik intxaurra)

kerixea, kerexea: gerezia

"Or espalda gustiek ixete siren sagarrak, pabiak eta kerexak, oin kerexa ba pe esta koiten" - (Hor bizkar guztiak izaten ziren sagarrak, pabiak eta gereziak, orain gerezia bat ere ez da hartzen)

klaudia okarana: klaudia okarana

kutxillo madarie: kutxilo madaria

"Madariak euki gendusen klase asko, gebonak, gero santiago ingerukoak, san juanak, gero eukin gendusen, orandille pe bai, kutxillo madarie be bai" - (Madariak eduki genituen mota asko, gabonak, gero santiago ingurukoak, san juanak, gero eduki genituen, orandilak ere bai, kutxilo madaria ere bai)

larrabetzu sagarra: larrabetzu sagarra

"Emen larrabetzu sagarra, sera gorrie ta, bueno gorrie ta arean bellegitute, esta?" - (Hemen larrabetzu sagarra, zera gorria eta, beno gorria eta arean beilegituta, ezta?)

limoya: limoia

madarie: madaria

"Orduen imite siren madariak" - (Orduan ipintzen ziren madariak)

mallukie: mailukia, marrubia

"Mallukiek yan dues" - (Mailukiak jan ditugu)

"Bai, bai, bai, ene! Begoñeko mallukiek ene! Onek leginatarrak eta, ba bestea gure aititen familie ixen sana, ba Karmen ta Mercedes ta onek, bueno orrek mallukiek eta selango ingeruek!" - (Bai, bai, bai, ene! Begoñako mailukiak ene! Hauek leginatarrak eta, ba bestea gure aitaitaren familia izan zena, ba Karmen eta Mercedes eta hauek, beno horiek mailukiak eta zelako inguruak!)

matza: mahatsa

"Estait oin bada matzik, goasela kaminoan eskerretara, an alturetzu beten, lelau an, ite iyuen, amen serean be bai, oin ori be galdu da, amen Derioko onek, e, etzeak in diren lekuen be" - (Ez dakit orain den mahatsik, goazela kaminoaren ezkerretara, han altueratxo baten, lehenago han, egiten ei zuen, hamen zerean ere bai, orain hori ere galdu da, hamen Derioko hauek, etxeak egin diren lekuan ere)

"Onek, e, matzak podetako emen, onek frutek podetako ibiltzen dire serari adi, itargieri" - (Mahats hauek inautesteko hemen, hauek frutak inautesteko ibiltzen dira zerari adi, iretargiari)

"Matzarrean barik edozein lekuten daus orrek, sagarratan ta" - (Mahats-arrean barik edozein lekutan daude horiek, sagarretan eta)

millekotea: milikota

naranja: laranja

"Umeak botate siren ba, igual ba txakurrandi bet edo txakurrandi bi edo emote otziesan eroatearren ta, edo naranja bat edo" - (Umeak botatzen ziren ba, beharbada ba txakurrandi bat edo txakurrandi bi edo ematen zizkieten eroatearren eta, edo laranja bat edo)

okarana, okerana: okarana

okaran gorrie: okaran gorria

okeran klaudia: okeran klaudia

okaran surie: okaran zuria

"Okaran suriek eta gorriek, klase bi on siren" - (Okaran zuriak eta gorriak, mota bi egon ziren)

orandille: orandila, madari mota bat

sagardo sagarra: sagardo sagarra

sagarra: sagarra

"Sagar batzuk ba, beti egon dire etzerik geyenatan" - (Sagar batzuk ba, beti egon dira etzerik gehienetan)

san jua sagarra: san jua sagarra

san jua madarie: san jua madaria

urrutxea, urretxa: hurritza

urtebete sagarra: urte bete, sagar mota bat

urteko sagarra: urteko sagarra

"Gero urtekoa, urtekoa esaten sana, ori urterako sagarra, ori bellegie ixen san" - (Gero urtekoa, urtekoa esaten zena, hori urterako sagarra, hori beilegia izen zen)

14.5. GARIA

asie: hazia

birsaye: birzahia

"Ta gero ori birsaye dator, prepareute, t'ori ba errotan iten deure" - (Eta gero birzahia hori dator, prestatuta, eta hori ba errotan egiten dute)

burue: galburua

galeutze: galautsa

"Ori eutze da bat eta galeutze da beste bat, ori da beste bat" - (Hauts hori da bat eta galautsa da beste bat, hori da beste bat)

galtzue: galtzua

"Ori be ba, galtzue, bueno oin baño lelao galtzue ite san, trilleu giau ite san" - (Hori ere ba, galtzua, beno orain baino lehenago galtzua egiten zen, trillatu gehiago egiten zen)

"Ori, e, kañaberan moduen lotzean san galtzue, ta galtzue lodie badok, e, yan bes ganaduek" - (Hori, kainaberen moduan lotzen zen galtzua, eta galtzua lodia baduk, jan ere ez ganaduak)

"Orre taus orman iminte, orman iminte dau ori, ta koiten dosu ori sera galtzue, ras! Ebei iteun ak" - (Horiek daude horman ipinita, horman ipinita dago hori, eta hartzen duzu zer hori galtzua, ras! Ebaki egiten zuen hark)

"Galtzuas, beraas ite san, koite sien iru edo lau, e, galtzu, a beraas ite akon garrien ba amarreu" - (Galtzuarekin berarekin egiten zen, hartzen ziren hiru edo lau, galtzu, hura berarekin egiten zitzaion gerrian ba amarratu)

"Galtzue euketak ordun geuse andie euketen etzean, negureko" - (Galtzua zeukanak orduan gauza handia zeukan etxean, negurako)

galtzu txolea: galtzu txola

gariarte: gari-arte

"Baten i oskun abie ementxe, gariarte" - (Baten egin zigun habia hementxe, gari-arte)

"Orrek len gariarte iten sien" - (Horiek lehen gari-arte egiten ziren)

gari bixerra: gari bizarra

gari burue: gari burua

garie: garia

"Labatik pasakoa artoana, eta garie da, molidu te dauen moduen iten dana" - (Labetik pasatukoa artoarena, eta garia da, eho eta dagoen moduan egiten dena)

"Garireko esara akortan, e? Selan, e, saspí ortzeko ittaillek ote sien, areas prepareta san" - (Garirako ez zara gomutatzen, e? Zelan, zazpi hortzeko itailak egoten ziren, harekin prestatzen zen)

"Garie teko bakixu segaitik esan makinetuten garie orduen? Aroa esan oten, siku orduen" - (Gariak dauka badakizu zergatik ez zen makinatzen garia orduan? Aroa ez zen egoten, siku orduan)

"Arek, e, makinea ekarri eurien joteko be, orduen galdu san gari asko emen" - (Haiek, makina ekarri zuten jotzeko ere, orduan galdu zen gari asko hemen)

gari txolea: gari txola

saye: zahia

"Saye sartu olan, e, kaltzetin beten, medi sar baten, igual ama defuntean medie edo, saye berotu ondo ondo, ta ara bota, ara medire bota, imini kordelaas amarreute puntea ta, saman" - (Zahia sartu hola, galtzerdi baten, galtza zahar baten, beharbada ama defuntuaren galtza edo, zahia berotu ondo-ondo, eta hara bota, hara galtzara bota, ipini kordelarekin amarratuta punta eta, saman)

"Ba ite san ori sarten baten imini saye, berotu, sartu ixete les emen serean, tapeu olan, ta gero saman imini" - (Ba egiten zen hori zartagin baten ipini zahia, berotu, sartu izate legez hemen zerean, tapatu hola, eta gero saman ipini)

txolea: txola, txorta

"Sartu txolea ta ra! Txikitako, amen nik estot euki baye askok eukite seuden, gero, pentzue bota ara" - (Sartu txola eta ra! Txikitzeko, hamen nik ez dut eduki baina askok edukitzen zuten, gero pentsua bota hara)

14.6. ARTOA

artagarue: artagaraua

"A sagradue san, se orduen olloa pe nok eukite situsen ba? Ixin olloa pe euki, se, ba eoten sien artagaruek areri emoneskero geutzako falta gero, ta olloa pe etze

gitxiten egoten siren, e? Olloa orduen estimedue ixen san" - (Hura sakratua zen, ze orduan oiloak ere nork edukitzen zituen ba? Ezin oiloak ere eduki, ze, ba egoten ziren artagarauak haiei emanaz gero geuretzat falta gero, eta oiloak ere etxe gutxitan egoten ziren, e? Oiloa orduan estimatua izan zen)

artoa: artoa

"Bi iru, artoa, indabea, arto artean bat, eta paluen iru" - (Bi hiru, artoa, indaba, arto artean bat, eta makilan hiru)

"Da bestea artoa, au estait selan esate otzien frantzesa edo esate otzien au beste au, sortzi illedakoa" - (Eta bestea artoa, hau ez dakit zelan esaten zioten frantsesa edo esaten zioten hau beste hau, zortzi ilarakoa)

"Artoak bear asko deko, artoa, erein iteko bear asko dau soloan, oin gitxitxuau" - (Artoak behar asko dauka, artoa, erein egiteko behar asko dago soroan, orain gutxitxoago)

artoa artea: arto-arte

"Orreatik ixete san ona kabillea kendu itea be se, artoartean indabeak gora igoten baeun, kabillea pe koyuteun indabea ondo oneskoan" - (Horregatik izaten zen ona kabila kendu egitea ere ze, arto-arte

indabak gora igotzen bazuen, kabilak ere hartzen zuen indaba ondo egonez gero)

"Oin nabo

artoa berdea: arto berdea

"Arto berdea eraite san gero ainbet" - (Arto berdea ereiten zen gero hainbat)

artoa bitarte

"Arto bitartetik pastako, beyeri imini busterra bakar

artoa bixarra: arto bixarra

"Ba arto bixarra, ba garbitu ondo, egosi t' aren ure edan" - (Ba arto bixarra, ba garbitu ondo, egosi eta haren ura edan)

artoburue, artaburue artaburua

artoa gorrie: arto gorria

"Bata arto gorrie, ta bestea artoa" - (Bata arto gorria, eta bestea artoa)

artoa kapaxea: arto sapa

artoa soloa: arto soroa

artoa suloa: arto-zuloa

arto txikerra: arto txikerra

"Arto txikerra, ba, a be artoa, a sarratu sarratu, ak sulorik eseuen bixen, a sarratu erain, ta gero, bedarrak akabetan sienean, se ordun bedar gitxi on san, e? Ongo moduen esan on bedarrik, se labreu eite sien soloak eta, ta ebei, te beyeri" - (Arto txikerra, ba, hura ere artoa, hura zarratu zarratu, hark zulorik ez zuen behar izan, hura zarratu erein, eta gero, belarrak amaitzen zirenean, ze orduan belar gutxi egon zen, e? Oraingo moduan ez zen egon belarrik, ze landu egiten ziren soroak eta, eta ebaki, eta behiei)

astoa: astoa, artoa jotzeko erabiltzen zen zulodun kaxa bat

bitxine: arto mota

"Sera tire orrek, artoak ya txikitxue tienak buru txikitxue dekienak, ayek, bitxinek esate akien ayeri, ayek emon, oin buru andie dana es" - (Zerak dira horiek, artoak ja txikitxoak direnak buru txikitxoa daukatenak, haiek, bitxinak esaten zitzaien haiei, haiek eman, orain buru handia dena ez)

bixerra: artabizarra

burutxea: burutxa

"Onek, kanpoko, datosen artoak, orre tekies asko, bai burutxe lodie, bai nireak burutxea deko mea, nireak, laban denpora gitxi bea deu, arenan aldean" - (Hauek, kanpoko, datozen artoak, horiek dauzkate asko, bai burutxa lodia, baina nireak burutxa dauka mehea, nireak, labean denbora gutxi behar du, harenaren aldean)

"Danak esiren ondo jotzen eta arek ite sien eskuas ta beste burutxe batas, garandu" - (Denak ez ziren ondo jotzen eta haiek egiten ziren eskuarekin eta beste burutxa batekin, garandu)

garbea: garbea, artoaren lorea

"Kendu ite akon lelau garbea" - (Kendu egiten zitzaion lehenago garbea)

"Garbea yaten gitxi ote sanean, bedarrik esanean oten, garbea apurtakon" - (Garbea jaten gutxi egoten zenean, belarrik ez zenean egoten, garbea apurtzen zitzaion)

kabillea, kabilea: kabila

"Bera faltan, e, esin eukiteuenak, ulertu su? Ta gero kabillea, sabaldu munen, euskie be koyu, eta beyeri, ta gero, ebei eperdien,

eltzean danean artoa, buruek aparteu, eta besteak, e, yan al deunak, e, beyeri emon, eta esin deunak, negureko pilloa ein te gordeu" - (Bera faltan, ezin edukiten zuenak, ulertu duzu? Eta gero kabila, zabaldu munan. eguzkia ere koiu, eta behiei, eta gero, ebaki ipurdian, heltzen denean artoa, buruak apartatu, eta besteak, jan ahal duenak, behiei eman, eta ezin duenak, negurako piloa egin eta gorde)

"Kabillea, burutik gora dauna, lelango lorea" - (Kabila, burutik gora dagoena, lehenago lorea)

"Kabileak berak urten baño lelau, urtetan tzo an loreak, lorean klaseko bat, olan ser batzuk baletike les" - (Kabilak berak irten baino lehenago, irteten dio han loreak, lorearen erako bat, hola zer batzuk balitz legez)

"Kabilea da geuse bat eta garbea bestea" - (Kabila da gauza bat eta garbea bestea)

kapatxea, kapasea, kapaxea: kapaxa, sapa

"Arek, e, errotea euki euren, eta orretariko kapasea asko eukiteuren" - (Haiek, errota eduki zuten, eta horietariko kapaxa asko edukitzen zuten)

"Gero ite otzien orreri kapaxeari olan egaltxu betetik apurtu, sertxu bet, orritxu bet apurtu te, garriti gero, ori, iteuren areas amarreu" - (Gero egiten zioten kapax horri hola hegaltxo batetik apurtu, zertxo bat, orritxo bat apurtu eta, gerritik gero, hori, egiten zuten harekin amarratu)

lastoa: lastoa

lupue: lupua, artoaren gaixoa

"Lupue baltza da" - (Lupua beltza da)

"Artoana bakit, lupue" - (Artoarena badakit, lupua)

masetea: mazua, artoa jotzekoa astoan

"Kajo bat, kajoya, t'aspiti suloak, ta gero maseta batas, aspitik urteta seun garuek" - (Tiradera bat, tiradera, eta azpitik zuloak, eta gero mazeta batekin, azpitik irteten zuen garauak)

sapea: sapa

txagin artoa: txagin artoa, arto mota bat

"Bai txagin artoa, etzean euki in dot nik, txagin artoa euki, ta, kotxoa etor akon, e, garueri te galdu" - (Bai txagin artoa, etxean eduki egin dut nik, txagin artoa

eduki, eta, kotxoa etorri zitzaion, garauari eta galdu)

"Sortzi illedako buruek, se ote sien artoa pe alde bateti ote sien, txagin artoa, san txikitxuau, artoa finau sala esateuren a" - (Zortzi ilarako buruak, ze egoten ziren artoak ere alde batetik egoten ziren, txagin artoa, zen txikitxoagoa, artoa finagoa zela esaten zuten)

txagine: txagina, arto mota

"Eta gero barrie deko paye, antzekoa da, txaginen antzekoa da baye esta txagine" - (Eta gero berria daukat baina, antzekoa da, txaginaren antzekoa da baina ez da txagina)

txolea: txola

14.7. BELARRA-ZEKALEAK

abea: oloa

alfafea: alfafa

"A ereiteko, bai alfafea bai, te sera be bai, sekularra, ta frantzes, orre pai, baye artoa ereiteko suloak ein" - (Hura ereiteko, bai alfafa bai, eta zera ere bai, sekula belarra, eta frantsesa, horiek bai, baina artoa ereiteko zuloak egin)

allurbea: ailorba

"Allurbea bai, allurbeak gustue emoten yotxen esnari" - (Ailorba bai, ailorbak gustua ematen zioan esnari)

aski bedarra: aski belarra

"Aski bedarra, ori kodañas ebaiteko esoan ona ixen" - (Aski belarra, hori kodainarekin ebakitzeko ez zuan ona izan)

ayen askarra: aihen ezkerra, soroetako belar parasittoa, lore zuri bat edukitzen du

"Ayen askarra, ori, aor soloan be badeku" - (Aihen ezkerra, hori, haor soloan ere badaukagu)

bedarra: belarra

"Ba, orduen segun, oin estau baye, iñor baye, orduen egoten siren, e, persona asko egon siren olango geusek iten situnak, eta emoten sartzunak bedarrak eta ingeruek artzeako ta, geuse" - (Ba, orduan segun, orain ez dago baina, inor baina, orduan egoten ziren, pertsona asko egon ziren holako gauzak egiten zituenak, eta ematen zizkizunak belarrak eta inguruak hartzeko eta, gauza)

bedarrartea: belar-artea

"Orrek matzartean orrek edosein lekuten daus, bedarrartean be, orrek edosein lekuten daus" - (Horiek mahats-artean horiek edozein lekutan daude, belar-artean ere, horiek edozein lekutan daude)

bedar sikue: belar sikua

"Bai neu pe makine bat biderres ein dot, karta yokoan, ein ein bear, ni eskondu baño lenau, e, sortzi urte in doas, e, diputasinoan bearrean nik, granjan, ta an ein doas bear klase dustiek, an ein dot bedar siku batzean be bai, ein dot, kanpoko bearra, beyek fradure ataten be bai, ein dot an, patatea batzean be bai" - (Bai neuk ere makina bat biderrez egin dut, karta jokoan, egin egin behar, ni ezkondu baino lehenago, zortzi urte egin ditut, aldundian beharrean nik, granjan, eta han egin ditut behar mota guztiak, han egin dut belar siku batzen ere bai, egin dut, kanpoko beharra, behiak barrutira ateratzen ere bai, egin dut han, patata batzen ere bai)

"Bedar sikue be ordun asko esan oten" - (Belar sikua ere ordun asko ez zen egoten)

bibedarra: bibelarra, bigarren ebaketako belarra

"Bibedarra bigarren kortea" - (Bibelarra bigarren ebaketa)

errosario bedarra: errosario belarra, soroetako belar parasittoa

"Erein ieuen orko usabak, errosario bedarra, ekarri eskutada bat eta, bota, ta errosario bedarra asko dabil oin" - (Erein egin zuen horko ugazabak, errosario belarra, ekarri eskutada bat eta, bota, eta errosario belarra asko dabil hor)

frantzes: frantsesa, frantses-belar

"Beste bat frantzes esaten yakona bola gorri bet eukiten yoana ta" - (Beste bat frantsesa esaten zaiona bola gorri bat edukitzen zuena eta)

ider baltza: ilar beltza

"Ider baltza yaten yoan ondo" - (Ilar beltza jaten zian ondo)

kortea: ebaketa

"Giaukoa be badekot nik soloa, iru korte kentzean dotzetena be baye, bias kosten da en jeneral, ori segun selango terrenoan dauen, karo! An goiko soloatan es, an, e, korte bi, e, bigarrena koiteko txarto ibili bea da, etorri bea deu uderik ona, onak,

uden, eurie, sikuek, baye or dekot bat, soloa, oin be iru korte kendute dau, eurten be" - (Gehiagokoa ere badaukat nik soroa, hiru ebaketa kentzen diodana ere baina, birekin hartzen da gehienetan, hori segun zelako terrenoan dagoen, jakina! Han goiko soroetan ez, han, ebaketa bi, bigarrena hartzeko txarto ibili behar da, etorri behar du udatik hona, onak, udan, euria, sikuak, baina hor daukat bat, soroa, orain ere hiru ebaketa kenduta dago, aurten ere)

sebadea: garagarra

sekule bedarra, sekularra: sekula belarra

"Sekule bedarra ereiten geyoan" - (Sekula belarra ereiten genian)

"An, e, naula baten, ba, sera, bedarra ebaten ibili nitzen, ba, sekule bedarra ebaiten" - (Han, nagoela baten, ba, zera, belarra ebakitzen ibili nintzen, ba, sekula belarra ebakitzen)

"Amen basatan esta in, sekule bedarra be soloti atara, basatzen amen soloan, iños, esta eser in" - (Hamen basatan ez da egin, sekula belarra ere sorotik atera, basatzen hamen soroan, inoiz, ez da ezer egin)

"Frantsesa ite san arto artean, ta arto illedatattik yoanta ereiten, ta oin akabuen sekularra be bai, sekularra artoartean, aparte arlo gitxi ite san, artoartean, e, artoa yorratu, ta bedarrrik espadeko, erain, eta gero yorratu te" - (Frantsesa egiten zen arto-artean, eta arto ilaretatik joanda ereiten, eta orain azkenean sekula belarra ere bai, sekula belarra arto-artean, aparte arlo gutxi egiten zen, arto-artean, artoa jorratu, eta belarrrik ez badauka, erein, eta gero jorratu eta)

txomin bedarra, txomine: txomin belarra

"Txomin bedarra esaten tziena ori Frantzitik ekarrikoa, ori bola tekosena, ori ok txarrena, ori" - (Txomin belarra esaten ziotena hori Frantziatik ekarrikoa, hori bolak dauzkana, hori duk txarrena, hori)

"Eta Bilboko jardinetatik, orrek belenak ekarri seun, suk entzun dosu ori txomin bedarra? Ba ori txomin bedarra ortxe etorte sala esate gurien" - (Eta Bilboko lorategietatik, belena horrek ekarri zuen, zuk entzun duzu hori txomin belarra? Ba txomin belar hori hortxe etortzen zela esaten zuten)

"Txomine da txarrau, a estau beyeri emoteko be, eta beti yorran ibili bea da agas, sortzi amabost egun, paseu bea da atxurras ostabe, ebeyesko galdute baye, atoan etorri" - (Txomin belarra da txarragoa, ha ez dago behiei emateko ere, eta beto jorran ibili behar da harekin, zortzi hamabost egun, pasatu behar da aitzurrarekin ostera ere, ebakiz gero galduta baina, atoan etorri)

ustea: uzta belarra

"Ai! Ustea esan gure deu onek igual, ustea, orri sabala" - (Ai! Uzta belarra esan gura du honek beharbada, uzta belarra, orri zabala)

uste bedarra: uzta belarra

"Asi asko dekona da uste bedarra" - (Hazi asko daukana da uzta belarra)

14.8. LANDAREEN ATALAK

allea: aila, asta

"Allea engantxeta daona" - (Aila engantxatuta dagoena)

arbigarea: arbigara, nabo lorea

ares mukurre: haritz mukurra

"Orduen tronkoak ekarte sien se bekosue ote sales, arte mukurre edo ares mukurre edo, senbet su andiau in, ba eus giau ote san orduen ote san eus giau soloatarako" - (Orduan enborrak ekartzen ziren ze beheko sua egoten zen legez, arte mukurra edo haritz mukurra edo, zenbat su handiagoa egin, ba hauts gehiago egoten zen orduan egoten zen hauts gehiago soroetarako)

arie: haria, zurak edo egurrak edukitzen duena

"Ondo koiten baosu arie sabaldu iten da ondo" - (Ondo hartzen baduzu haria zabaldu egiten da ondo)

arte mukurre: arte mukurra

asala: azala

asie: hazia

"Artoak gero, iños ikusi dus asiterako iminte sien artoak alkar amarreu, ta eskeite imini" - (Artoak gero, inoiz ikusi ditugu hazitarako ipintzen ziren artoak elkar amarratu, eta eskegita ipini)

"Urtekeran a ebeite san, a da asie, lorea, artoana" - (Irtekeran hura ebakitzen zen, hura da hazia, lorea, artoarena)

astea: asta, aila

ayena: aihena

"Brotea dok ayena, gora urteten deuenta" -
(Ernea duk aihena, gora irteten duena)

begie: 1. begia baba garaua zerukari lotzekoa.
2. ernakatza

"Ori begitxue, ori pegeute oten da en jeneral,
baye joten danean, siketan danean ori solte
iten da" - (Begitxo hori, hori erantsita
egoten da gehienetan, baina jotzen danean,
sikatzen danean hori soltatu egiten da)

"An begie itxi bea yakok" - (Han begia utzi
behar zaiok)

"Ori enjeneral, e, txikitxuten eiten deu, ori
aberi ori kotxoak, gero es, gero andi iten
danean esteu ori eiten, bai txikitxuten yan
eiten deu, begie yaten tzo ta siketu eiten da
artoa" - (Hori gehienetan, txikitxotan
egiten du, hori aberia hori kotxoak, gero
ez, gero handi egiten danean ez du hori
egiten, baina txikitxotan jan egiten du,
begia jaten dio eta sikatu egiten da artoa)

brotea: ernamina, ernakatza

"Beste batzuk orre tire serak, errama serak,
broteak emoten tzesenak" - (Beste batzuk
horiek dira zerak, abar zerak, ernaminak
ematen dietenak)

burue: burua

"Bere eperdie iminte san bera eta burue
iminte san gora" - (Bere ipurdia ipintzen
zen behera eta burua ipintzen zen gora)

dañue: kaltea, mamarroek edo gaixoeak egiten
dutena

eperdie: ipurdia

"Oin makinillas pastan doas lelango, ta gero
atxurras, e, eperdie" - (Orain
makinatxoarekin pasatzen ditut lehenengo,
eta gero aitzurrarekin, ipurdia)

erpea: sustraia

"Ademas landareari iten tze askok, jo
atxurregas, ta ori da akabue, se iten dosu,
ba erpea, erpea batu, sabalen yoan
bearrean" - (Gainera landareari egiten
diote askok, jo aitzurrarekin, eta hori da
akabua, ze egiten duzu, ba erpea batu,
zabalean joan beharrean)

"Lar siketan basan ba, erpan artoa, ak artoak
lior urteta eun, gurean aite defuntuek ortan
aukiteun kontu itzela" - (Lar sikatzen
bazen ba, erpean artoa, arto hark lehor
irteten zuen, gurean aita defuntuak
horretan edukitzen zuen kontu itzela)

erramea: arrama, abarra, adarra

"Errama bat bakarrik euki eskon yoan ta
amarre lei, baye errama asko euki eskon
arek danak amarreu pasentziegas" - (Adar
bat bakarrik edukiz gero joan eta amarratu
liteke, baina adar asko edukiz gero haiek
denak amarratu pazientziarekin)

errepollue: gunea, burua

erretxine: erretxina

"Gero iten gendun, untire bat iten gendun
erretxineas ta, seras, koipeas edo, ite san,
bai nasteu, ta irikin de urtu" - (Gero egiten
genuen, ukendu bat egiten genuen
erretxinarekin eta, zerarekin, koipearekin
edo, egiten zen, bai nahastu, eta irakin eta
urtu)

eskurre: ezkurra

frutea: fruta

"Es koyu fruterik, e? Kontus frutekas" - (Ez
koiu frutarik, e? Kontuz frutekin)

frutue: fruitua

"Sulo baktxean senbet? Se lar etxaten
badosu, suk esan dosune, iten dotzo orri te
orbela andie, eta esteko fruterik" - (Zulo
bakoitzean zenbat? Ze lar botatzen baduzu,
zuk esan duzuna, egiten dio orria eta
orbela handia, eta ez dauka fruterik)

garrie: gerria, landareen gerria

garea: gara

"Igon estien, se iminten baosu kasureko, ba
seretik kanpora, gero ak igon iten deu
gora, gareak urten, iten tzo" - (Igo ez
dezaten, ze ipintzen baduzu kasurako, ba
zeretik kanpora gero hark igo egiten du
gora, garak irten, egiten dio)

garoa, garue: garaua

"Kajo bat, kajoya, t'aspiti suloak, ta gero
maseta batas, aspitik urteta seun garuek" -
(Tiradera bat, tiradera, eta azpitik zuloak,
eta gero mazeta batekin, azpitik irteten
zuen garauak)

"Gero a ite san, ba garue yauste san ba,
eutzas nastean ba, bera, ta orduen, koite
san a garie, eta, etor san suk esan dosun
makinea" - (Gero hura egiten zen, ba
garaua jausten zen ba, hautsarekin
nahastean ba, behera, eta orduan, hartzen
zen gari hura, eta, etorri zen zuk esan
duzun makina)

garrie: gerria, landareen gerria

iko esnea: iko esnea

indaba asala: indaba azala

kalabasa asie: kalabaza hazia

kimea: kima

landarea: landarea

"Landara batzuri gustetan dakie lurre, ta beste batzuri ainbeste es" - (Landare batzuei gustatzen zaie lurra, eta beste batzuei hainbeste ez)

"Guk emen, e, porejenplo, landarea eukiten dunean, egun beratan estotzu botaten ure" - (Guk hemen, kasurako, landarea edukitzen dugunean, egun beratan ez diogu botatzen ura)

lorea: lorea

"Sagarrak lorán daus" - (Sagarrak lorán daude)

"Emen estratan on san Rosa Mari, ak selan emoteuen, e, arek atzamarran antzeko lorea" - (Hemen estratan egon zen Rosa Mari, hark zelan ematen zuen, hark atzamarraren antzeko lorea)

malletue: mailatua

mamine: mamia

"Gero es, gero, yaten tzo mamine eta, axea badator, axeak apurtu eiten deu baye" - (Gero ez, gero, jaten dio mamia eta, haizea badator, haizeak apurtu egiten du baina)

mas mordea: mahats morda

matz tronkoa: mahats enborra

"Arbolara, edo, matz tronkora edo, an lotzean die" - (Arbolara, edo, mahats enborrera edo, han lotzen dira)

mordea: morda

"Garbitan ibiliskoan a taki, koño au amentxe itxi bea da gero podetako, espadeko be, se danak esteure eukiten, e, sera, mordea edo sera" - (Garbitzen ibiliz gero hark daki, koino hau hamentxe utzi behar da gero inausketarako, ez badauka ere, ze denek ez dute edukitzen, zera, morda edo zera)

mukurre: mukurra

muskile: muskila

nabo lorea: arbi lorea

ondoa: ondoa, landarea

"Ite san esate baterako, ebei, eta, intxute egote sales, sera garie intxute egote sales, koitan sendun olan eskutadatxu et, koitan sendun alan, eta iru lau galtzu, eta imini olan, e, puntas, eta garriti bera emoten seuntzen olango, troñu antzeko bat, baye beti, burue, gorantza dala, e? Osea besteari dotzela, eta ondoa beti berantza" - (Egiten zen esate baterako, ebaki, eta,

etzanda egoten zen legez, zera garia etzanda egoten zen legez, hartzen zenuen hola eskutadatxo bat, hartzen zenuen hala, eta hiru lau galtzu, eta ipini hola, puntaz, eta gerritik behera ematen zenion holako, troinu antzeko bat, baina beti, burua, gorantz dela, e? Hau da besteari deutsalala, eta ondoa beti beherantz)

orbela: orbela

"Orbela, aratxan serak, orrie tie orbela" - (Orbela, haritzaren zerak, orriak dira orbela)

orrie: orria

"Orri deko asko, orri asko ta garo gitxi" - (Orri dauka asko, orri asko eta garau gutxi)

"Orrieri orrie be estakie yausten bera ta" - (Horiei orria ere ez zaie jausten behera eta)

palue: makila

"Ba! ibili be in nas, paluegas" - (Ba! ibili ere egin naiz, paloarekin)

pintxo: erbatza, arantza

pinu bole: pinu bola, pinaburua

"Pinue be eukiten ixen deurie ba, e, pinu landarea, ba, basoan inketako ba koite ixen deurie, ba, batzuk, noberak erein, e, koyu pinu bolak eta sies sartu te" - (Pinua ere edukitzen izan dute ba, pinu landarea, ba, basoan inkatzeko ba hartzen izan dute, ba, batzuek, norberak erein, hartu pinu bolak eta zehatz sartu eta)

"Amak eroate otzesan Bilbora pinu bolak" - (Amak eroaten zizkion Bilbora pinu bolak)

piñu erramea, pinu erramea: pinu arrama

"Nik pinu erramakas, e, baño sarriau in dot labagarrakas seaiti se pinu erramak, e, ba surterako bear ixete sien, ta labagarrak ekarri, eta areas ite san labasue, sartu, ba betatu artean, se labeak ikusiko su, iños ikusi espadosu, baye sartze san betatu artean ta gero egon bear eun siku, e? Sartze san da su emote akon" - (Nik pinu arramekin, baino sarriago egin dut labagarrekin zergatik ze pinu arramak, ba surterako behar izaten ziren, eta labagarrak ekarri, eta harekin egiten zen labasua, sartu, ba bete artean, ze labeak ikusiko duzu, inoiz ikusi ez baduzu, baina sartzen zen bete artean eta gero egon behar zuen siku, e? Sartzen zen eta su ematen zitzaion)

pinu landarea: pinu landarea

pipile: pipila

"An brotaten deuenari esaten yotxiek pipile" -
(Han ernetzen denari esaten ziotek pipila)

sagar muskile: sagar muskila

"Sagar muskile dok barrukoa, asie ta egoten dokena" - (Sagar muskila duk barrukoa, hazia eta egoten dena)

sagar trontxala: sagar trontxala

sarmientue: txarmientua

sasi puntea: sasi punta

sasi susterra: sasi zuztarra

sepea: ondoa

"Mukurrek eta orrek lelau, geur estau olangorik, sepak atarateko eta, ori, geur estau olangorik" - (Mukurrak eta horiek lehenago, gaur ez dago holakorik, ondoak ateratzeko eta, hori, gaur ez dago holakorik)

serukea: zeruka, leka

"Serukea, osoan daunean" - (Zeruka, osoan dagoenean)

serrine: zerrautsa

"Nik serrine bota otzet txapeari, e? Erdien imini olan, e, palu bet len esan dun moduen, palu bet imini, erdien, eta albo dustie kargeu, goiti bera, e? Serrinegas, eta egun dustien aguanteta seun, e, txapako suek" - (Nik zerrautsa bota diot txapari, e? Erdian ipini hola, makila bat lehen esan dugun moduan, makila bat ipini, erdian, eta albo guztia kargatu, goitik behera, e? Zerrautsarekin, eta egun guztian irauten zuen, txapako suak)

sile: zila, kipula eta holakoen gara

"Sile da gorantz doana ori tronkoa, sile esaten dako" - (Zila da gorantz doana enbor hori, zila esaten zaio)

sotza: zotza

"Or dekos suloak, eta andi sartzen dako sotza edo" - (Hor dauzka zuloak, eta handik sartzen zaio zotza edo)

susterra, sustreye, sustraye: sustraia

"Sustrei asko oten da" - (Sustrai asko egoten da)

"Bai mendetan yuen bai, aren susterrak mendetan yuen bai" - (Bai mendatzen ziaten bai, haren zuztarrak mendatzen zizkiaten bai)

tronkoa, trongoa: enborra

"Guk oin itxite dekus, tronkoak itxite dekus" -
(Guk orain utzita dauzkagu, enborrak utzita dauzkagu)

trontxala: trontxala

ugerra: ugerra, landareen gaixoa

"Ugerra koiten deu" - (Ugerra hartzen du)

"Gaixoa baño, sarri urte askotan ugerra koitauen igual" - (Gaixoa baino, sarri urte askotan ugerra hartzen zuen beharbada)

"Es, ya usteldu antzean, osea one tinona, bigundu te garri, baye ori ugerra da, e?" -
(Ez, ja usteldu antzean, hau da honek dinoena, bigundu eta gerria, baina ugerra da, e?)

"Ori da ugerra" - (Hori da ugerra)

15. ANIMALIAK

Atal honetako animaliei buruzko hiztegia aurkezteko honako azpi-atalak egin ditugu: ugaztunak, txoriak, narrastiak eta anfibioak, arrainak-itsaskiak eta intsektuak.

15.1. UGAZTUNAK

ardillea: katagorria

arratoya: arratoia

"Arratoyari geyau iten tzo ak" - (Arratoiari gehiago egiten dio hark)

"Txarrak, dauni txarrena, arratoya baño txarrak" - (Txarrak dagoenik txarrena, arratoia baino txarrago)

"Orrek ointxe eskastu die arratoyak asko, baye ikus dot lengunean bat, ikus dot barrente dot erre kara sartzen" - (Horiek oraintxe eskastu dira arratoiak asko, baina ikusi dut lehengo egunean bat, ikusi dut barruntatu dut erre kara sartzen)

askunarra, askonarra: azkonarra

"Askonarrak, orrek, sera ties, lukien antzekoa tie orrek" - (Azkonarrak, horiek, zerak dira, lukiaren antzekoak dira horiek)

basakatue: basakatua

baseuntze: basahuntza

basordea: basurdea

erbie: erbia

"Gerrea paseu te gero erbi asko egon san" -
(Gerra pasatu eta gero erbi asko egon zen)

kirikolatza: kirikolatza

"Serean erraman artean, baten sartu asten kirikolatza" - (Zerean erramen artean, baten sartu zitzaidan kirikolatza)

konejue: konexua, untxia

"Orrek, e, odola txupeu olloari, konejueri, ta koiten deuen, e, danari, eta noberari, eiten botzo ukaturik, e, terrible benenoa" - (Horrek, odola xurgatu oiloei, konexuei, eta koiuten duen, denari, eta norberari egiten badio ikaturik, itzela pozoia)

loboa: otsoa

lukie: lukia, azeria

"Emen gitxi, luki gitxi emen, geuri in dosku aberie, esta denpora andirik baye" - (Hemen gutxi, luki gutxi hemen, geuri egin digu aberia, ez da denbora handirik baina)

"Ai! Lukie be bai, txakurren antzekoa, ak, e, gallineran sartute eiten tzo, aberiek" - (Ai! Lukia ere bai, txakurraren antzekoa, hark, oilo-tokian sartuta egiten dio, aberiak)

ogigastaye, ogigastaya: ogigaztaia

"Ogigastaya txarra da, berenoa deko andie, ogigastayak, ak piketan baotzu!" - (Ogigaztaia txarra da, pozoia dauka handia, ogigaztaiak, hark pikatzen badizu!)

"Estat iños paseu baye, bueno beti ixen dotzu bildurre ogigastayari" - (Ez zait inoiz pasatu baina, beno beti izan diogu bildurra ogigaztaiari)

"Ogigastaya ote san ingiruen, sapata sarrak, abarka sarrak, trapuek, eta erre ite siren, aren usineas, eskapetan deu eta" - (Ogigaztaia egoten zen inguruan, zapata zaharrak, abarka zaharrak, trapuak, eta erre egiten ziren, haren usainarekin, alde egiten du eta)

"Arratoyan tamañukoa busten barik, bustena txiki txikie, pintoa, ogigastaya" - (Arratoiaren tamainakoa buztan barik, buztana txiki-txikia, pintaduna, ogigaztaia)

sague: sagua

"Bai, bai, diferenteak dire, errekatokoak dire, apurtxu bet, e, aldea dekienak, gero saguek, saguek anditxuaoak" - (Bai, bai, desberdinak dira, erreketakoak dira, apurtxu bat, aldea dakitenak, gero saguak, saguak handitxoagoak)

"Sagu txikiek koiten tues" - (Sagu txikiak harrapatzen dituzte)

sagusarra: saguzarra

"Bai sagusarra ba koyu dot inos" - (Bai saguzarra ba koiu dut inoiz)

satorra: satorra

"Ayek egoten sirenean, satorrak an eseuen yoten" - (Haiek egoten zirenean, satorrak han ez zuen jotzen)

"Estai pa ayek edo ser ite otzien, satorrak eseuen yoten ainbeste" - (Ez dakit ba haiek edo zer egiten zioten, satorrak ez zuen jotzen hainbeste)

"Satorrak aspitik, are pe eskastu die, lengoan soloak beterik oten sien" - (Satorrak azpitik, haiek ere eskastu dira, lehengoan soroak beterik egoten ziren)

sator yoa: sator joa

ur txakurre: ur txakurra

"Ur txakurre, estot ikusi baye entzunte bai bakot" - (Ur txakurra, ez dut ikusi baina entzunda bai badaukat)

15.2. TXORIAK

abie: habia

"Txoriabolea aurek uxetako iminite, abie bertan!" - (Txori jagolea eurak uxatzeko ipinita, habia bertan!)

"Lenau garie egote sanean emen, beti abiek ite oskusen or" - (Lehenago garia egoten zenean hemen, beti habiak egiten zizkigun hor)

amilotxea: amilotxa

antzarra: antzarra

arraye: arraia, arranoa

"Orrek, e, arrayek, arrayek eta beste bat esaten tzien, or, e, oin gobiernuek sabaldute daus asko" - (Horiek, arraiak, arraiak eta beste bat esaten zioten, hor, orain gobernuak zabaldua daude asko)

"Orrek arrayek klase asko daus on be ta, arraye klase asko daus" - (Arraia horiek mota asko daude egon ere eta, arraia mota asko daude)

artaxorie: artaxoria, kurloia

"Artatxoriena ba fasiltxuao topeta san" - (Artatxoriena ba erraztxoago topatzen zen)

"Artatxorie listoa da" - (Artaxoria zuhurra da)

"Boltzan i otzien abie artatxoriek" - (Poltsikoan egin zioten habia artatxoriek)

bandadea: bandada

basollarra: basoilarra

bela andie: bele handia
bela txikerra: bele txikerra
belea: belea
berdeloya: berdeloia
birigarroa, biregarroa, bidegarroa:
 birigarroa
"Eta biregarroa gitxi, biregarroa edo sosoa topeta sanean geuse andie ixete san" - (Eta birigarroa gutxi, birigarroa edo zozoa topatzen zenean gauza handia izaten zen)
"Kanpoko birigarroak esteko yatekorik" - (Kanpoko birigarroak ez dauka jatekorik)
durdurea: durdura
"Pasean etorten dok ori durdurea, bidegarroa baisen apur bet andixuaoa" - (Pasean etortzen duk hori durdura, birigarroa baizen apur bat handitxoagoa)
"Txorie da durdurea, eta andik dator ori, aren kakatik urtetan deu orrek" - (Txoria da durdura, eta handik dator hori, haren kakatik irteten du horrek)
eleye, elaye: elaiia
"Elayena be bai, elaye ba, etzeko talletuen iteuen elayek" - (Elaiena ere bai, elaiia ba, etzeko teilatuan egiten zuen elaiak)
eperra: eperra
"Ollogorra geyen, eta eperra ta erbie makiñe bat il yoasatek nik" - (Oilagorra gehien, eta eperra eta erbia makina bat hil ditiat nik)
epertikerea: epertikara, buztanikara
epetxa: epetxa, txepetxa
"Epetxa txori txiki txiki txikitxue da ori" - (Epetxa txori txiki-txiki-txikitxoa da hori)
eskilaso: oskilaso
galeperra: galeperra
geutxorie: gautxoria
"Geutxorie da andie, arraye modukoa, ta geues ibiltzen da, batzu taus suriek" - (Gautxoria da handia, arrano modukoa, eta gauez ibiltzen da, batzuk daude zuriak)
geutxori surie: gautxori zuria
jilgeroa, jilgerue: jilgeroa
"Jilgerue, berdigarroa, sosoa, bueno topetan dan, abi dustik" - (Jilgeroa, biregarroa, zozoa, beno, topatzen den, habia guztiak)
kastela sosoa, kastilla sosoa: gaztela zozoa
"Kastela sosoak, bai orrek bandadak ikusten die, denpora otzean, uden estie ikusten, oin ikusten die, oin ikusten die orrek" - (Gaztela zozoak, bai horiek bandak ikusten dira, eguraldi hotzean, udan ez dira

ikusten, orain ikusten dira, orain ikusten dira horiek)
kine: kina, hegabera
kukue: kukua
"Fijeta sara ta, kukue nosipinean, topeu abie ta kukuen arrotzak, bereakas nastean" - (Fijatzen zara eta, kukua noizean behin, topatu habia eta kukuaren arrautzak, bereekin nahastean)
"Kuku iten deu orrek kanteu" - (Kuku egiten du horrek kantatu)
"A! Esaten deure se, kukue kantetan daunean, dirue badekosu, diru asko eukingo sula, da espadekosu estosula eukingo" - (A! Esaten dute ze, kukua kantatzen dagoenean, dirua badaukazu, diru asko edukiko duzula, eta ez badaukazu ez duzula edukiko)
"Kukuek esaten deure se, kukue, e, saspi urten eskolara ibil dala eta kuku baño esteula ikisi, eta au kukuek asko ikis deula, iñon abien arrutzek ein te iñori umeak asi ason, kukuek iten tzosela" - (Kukuak esaten dute ze, kukua, zazpi urtean eskolara ibili dela eta kuku baino ez duela ikasi, eta hau kukuak asko ikasi duela, inoren habian arrautzak egin eta inori umeak hazarazi, kukuak egiten dizkiola)
kurlinkea: kurlinka
larretxorie: larretxoria
mikea: mika
mingorra: mingorra
mirue: mirua
okile: okila
"Okile pe oten die emen, arbolatako suloatan, suloa inde" - (Okilak ere egoten dira hemen, arbolatako zuloetan, zuloa eginda)
ollogorra: oilagorra
palomea: usoa
"Onek paloma tosak" - (Hauek usoak dituk)
pasea: pasea
pasekoa: pasekoa
patoa: ahatea
"Patoa tire orrek, esta?" - (Ahateak dira horiek, ezta?)
pospoline: pospolina, galeperra
pospolin-pospolin: galeperraren hotsa
sosoa: zozoa
"Sosoa ta biregarroa sien andienak" - (Zozoa eta birigarroa ziren handienak)
"Sosoak eta bidegarroak yateitues" - (Zozoak eta birigarroak jaten dituzte)

"Arek sosoak yaten dosties" - (Haiek zozoek jaten dizkidate)

txinboa: txinboa

"Txinboak, ondikarren be, ikoan orrek" - (Txinboak, oraindikarren ere, ikoan horiek)

txindorra: txindorra

"An ibilte san ta koño bagoas ta, txindorran abien ite ixen ditu orrek arrotzak" - (Han ibiltzen zen eta koino bagoaz eta, txindorren habian egiten izan ditu horrek arrautzak)

"Sosoa be bai, eta txindorrek eta asko, kordel bat iminte, imini an yatekoa ta edurre ote sanean, a txorie koiteko" - (Zozoa ere bai, eta txindorrek eta asko, kordel bat ipinita, ipini han jatekoa eta elurra egoten zenean, txori hura harrapatzeko)

txioa: txioa

txirtea: txirtea

"Emen ibiltzen gendunean ganadue, kanpotik, fraduen, udegoyenean, bandak etorte sien txirtek, bandak, ganadue yaten dauen lekuen, musturrean be" - (Hemen erabiltzen genuenean ganadua, kanpotik, belar-lekuan, udagoienean, bandak etortzen ziren txirtak, bandak, ganadua jaten dagoen lekuan, musturrean ere)

txonta erreala: txonta erreala

txontea: txontea

"Txonta klase bi edo iru" - (Txonta mota bi edo hiru)

txorie: txoria

txori abie: txori habia

umaldie: umaldia

urolloa: uroiloa

15.3. NARRASTIAK-ANFIBIOAK

benenoa, berenoa: pozoia

"Berenoa dekie subeak" - (Pozoia daukate subeak)

"Estekola benenorik eta badekola benenorik ori kontus!" - (Ez daukala pozoirik eta badaukala pozoirik hori kontuz!)

biborea: larrasuega

estena: eztena

lupue: lupua, arrabioa

"Bai ori esate otzie, lupue esate otzie orreri" - (Bai hori esaten diote, lupua esaten diote horri)

muskerra: muskerra

"Orrek, e, ademas muskerra, lagunena, e, defensora, personean defensora, lo egon basoan, ta subea alboan badabil, ak, e, ixartuten deu, t'orraitek lagunena, e, defensora esate otzien areri" - (Horrek, gainera muskerra, lagunaren, defendatzailea, pertsonaren defendatzailea, lo egon basoan, eta sugea alboan badabil, hark, itzartzen du, eta horregatik lagunaren, defendatzailea esaten zioten hari)

"Muskerra esta orren traidorea, muskerra mantzoa da" - (Muskerra ez da horren traidorea, muskerra otzanagoa da)

"Muskerra kantarie da" - (Muskerra kantaria da)

"Es, es, es orreri itxiten gentzen, orreri te muskerrari, beste bellegiek? Muskerrari arek, e, esakien ikutan" - (Ez, ez, ez horri uzten genion, horri eta muskerrari, beste beilegiak? Muskerrei haiek, ez zitzaizen ikutzen)

"Ni tekot entzunte basoan lo, yoan basora, bearrean, otea ebaiten edo, ta lo, ta muskerrak ixartu deuela, ta subia, alboan, muskerra lagunena lagune da, erregular, muskerrak esteu iten eser" - (Nik daukat entzunda basoan lo, joan basora, beharrean, otea ebakitzen edo, eta lo, eta muskerrak itzartu duela, eta sugea, alboan, muskerra lagunaren laguna da, antza, muskerrak ez du egiten ezer)

"Muskerra badabil subea an paraje esta ongo, muskerrak eskapeu iten deu, muskerrak abise iten deu" - (Muskerra badabil sugea han paraje ez da egongo, muskerrak eskapatu egiten du, muskerrak abisatu egiten du)

sapaburue: zapaburua

"Sapaburuek bai emen asko egote siren lelau, orrek sapaburuek egote siren" - (Zapaburuak bai hemen asko egoten ziren lehenago, zapaburu horiek egoten ziren)

sapoa: zapoa

"Yaten bayeden edo, sapoari sartu palue biskerretik eta gero eskeite iminte yuen" - (Jaten baziaten edo, zapoari sartu paloa bizkarretik eta gero eskegita ipintzen ziaten)

"Atxine subeak eta sapoak erre, ta artoak eta gariak gorde" - (Antzina sugeak eta zapoak erre, eta artoak eta gariak gorde)

"Ikusi yoatek nik, aitu, sapoa be trageta, ta kadereas istutu te abotik ataraten, kadereas abotik atara yotxian" - (Ikusi diat nik, aditu, zapoa ere irentsita, eta hankarekin estutu eta ahotik ateratzen, hankarekin ahotik atera zioan)

sirune: zirauna

"Sirune fasilao koiten da" - (Zirauna errazago harrapatzen da)

"Orrek sirune pe estekola benenorik esaten yoan, baye Donato defuntueri erideti pase yakoan ta, gero selan euki yoan kaderea!" - (Ziraun horrek ere ez daukala pozoirik esaten zian baina Donato defuntuari zauritik pasatu zitzaioan eta, gero zelan eduki zian hanka!)

subea, subia: sugea

"Baye ixen bea da, andrea be gero, Jesus Maria! Umeak edaten dotzelakoan, subeak esnea edan" - (Baina izan behar da, andrea ere gero, Jesus Maria! Umeak edaten diolakoan sugeak esnea edan)

"Subea otza da" - (Subea hotza da)

"Subea ikusi eskeron bueno! Onen lekuten urten deu subeak eta, nebeari edo krieduerei edo, akordeu, e? An dau subea" - (Sugea ikusiz gero beno! Honen lekutan irten du sugeak eta, nebari edo kriaduari edo, akordatu, e? Han dago sugea)

"Onek beyonek eratzite euki deu, seosek txupeu iten dotzo ta, subean bat ibilko da ingeruen" - (Behi honek eraitsita eduki du, zerk edo zerk txupatu egiten dio eta, suberen bat ibiliko da inguruan)

"Nik subea ikusten baot atxurreas plast!" - (Nik sugea ikusten badut aitzurrarekin plast!)

"Buelta emonta isterretik oratute, ta gero, amamak esaten yoan, e, eskue baisen suabe, esnea edaten deuela subeak eta beyek orroaka subeari geyes, basoan" - (Buelta eman izterretik oratuta, eta gero, amamak esaten zian, eskua baizen suabea, esnea edaten duela sugeak eta behiak orroaka subeari deiez, basoan)

"Nik subea ikusten bayoat tiro bat, espabe samea ebai kodañeas" - (Nik sugea ikusten badiat tiro bat, ezpabere sama ebaki kodainarekin)

"Entzun ein dot, aor Goirin, oin, e, botata dau etzea, t'or on sien, iru biximodu, ta ganadue beti atateurien, an basoa, aurrean ta, ara basora, eta euki eurien, kriedu bet, ta krieduek ikusteuen selan edaten tzon, ta gero yoan san soldadu, eta soldadutik etor sanean, e, karra ein bixeuen, ba bera pe, sube terriblea, a ganaduen serera ostabe etorri, a kriedue nik esetu be eneun ein, ak geitu eite otzen, krieduk geitu eite otzen segun antza esateurien, nik eneun ikusi a ya, e? Geitu, ta subea beyekana yoate san, bei beteri edate otzen bakarra seguru, bei beteri, danari bes, bateri" - (Entzun egin dut, haor Goirin, orain, botata dago etxea, eta hor egon ziren, hiru bizitza, eta ganadua beti ateratzen zuten, han basoa, aurrean eta, hara basora, eta eduki zuten, kriadu bat, eta kriaduak ikusten zuen zelan edaten dion, eta gero joan zen soldadu, eta soldadutik etorri zenean, karra egin behar izan zuen, ba berak ere, sube itzela, hura ganaduaren zerera ostera ere etorri, kriadu hura nik ezagutu ere ez nuen egin, hark deitu egiten zion, kriaduak deitu egiten zion segun antza esaten zuten, nik ez nuen ikusi hura ja, e? Deitu, eta sugea behiengana joaten zen, behi bati, denei ere ez, bati)

sube baltza: suge beltza

sube gorrie: suge gorria

"Bata gorrie ta bestea baltza, subea klaseak asko yausek, asko!" - (Bata gorria eta bestea beltza, sugea motak asko zaudek, asko!)

subelandarea: sugandila

"Muskerrak karra iten deu, martxeu, subelandarean moduen" - (Muskerrak karra egiten du, alde, sugandilaren moduan)

ugelasioa, ugelaxoa: ugaraxoa, igela

"Onetatik ugelasioak yatosak" - (Hauetatik ugaraxoak zatozak)

"Oin sapaburu asko ote san lekuen, ugelasioa pe ainbet gero, e!" - (Orain zapaburu asko egoten zen lekuan, ugaraxoak ere hainbat gero, e!)

"Eta gero udan, ilundetan, kanteka ugelasioak" - (Eta gero udan, ilundeetan, kantaka ugaraxoak)

"Posotxu bet egon san or, urek urteta yeuna, eta or udan, e, serak urteta seudien

kantetan, ugelaxoak, eta ene! Erri gustien entzute san ugelaxona" - (Putzutxo bat egon zen hor, urak irteten zuena, eta hor udan, zerak irteten zuten kantatzen, ugaraxoek, eta ene! Herri guztian entzuten zen ugaraxoena)

"Ugelaxoa pe akabeu in die ta, ugelaxoa pe, emen ugelaxoak geubean geubean, e, sasoi onetan, eta oin baño geroratxuau, agostu setienbre ingeruen, arean, e, sikurik ote sanean selango kantak iteusen, or, ta an, lotu barik ibilte sien, eta sera pe bai, muskerrak, muskerra pe oin gitxi ikusten die, lantzean bat ikusten da baye gitxi" - (Ugaraxoak ere amaitu egin dira eta, ugaraxoak ere, hemen ugaraxoak gauean gauean, sasoi honetan, eta orain baino geroratxoago, abuztu iraila inguruan, arean, sikurik egoten zenean zelako kantak egiten zituen, hor, eta han, lotu barik ibiltzen ziren, eta zerak ere bai, muskerrak, muskerrak ere orain gutxi ikusten dira, lantzean bat ikusten da baina gutxi)

15.4. ARRAINAK-ITSASKIAK

angilea: aingira

arrankarie: arrankaria

kangrejoa, kangrejue: karramarroa

karramarroa: karramarroa

kaskallue: kaskailua

"Bai, bai, erreketan bai orduen, erreketan kangrejo asko! kaskalluek, kangrejoa, eta onek, e" - (Bai, bai, erreketan bai orduan, erreketan karramarro asko! kaskailuak, karramarroa, eta hauek, e)

trutxea: arrankaria

"Estait! Guk asko yate ixen dus, e, or tabernan be asko yate ixen dus, eta enas akordetan oin, trutxek! Trutxek asko! Trutxek asko koite sien or, e, Bidebarriko erreketan, orti be, asko! Ta kangrejoa ta olangoa asko, asko koite san" - (Ez dakit! Guk asko jaten izan ditugu, hor tabernan ere asko jaten izan ditugu, eta ez naiz gomutatzen orain, arrankariak! Arrankariak asko! Arrankariak asko hartzen ziren hor, Bidebarriko erreketan, hortik ere, asko! Eta karramarroa eta holakoa asko, asko hartzen zen)

"Ori nik estait se sasoya san, estait, enas akordetan, se sasoi ingeru ixete san, baye trutxak asko koite siena bai! Ta guk errekarra ona etorte giñen, e, suen, e, orra orko errekarra, eta erropak garbitako or, e, kaskalluek, e, ixerak botaten gendunean garbitako, an, e, alborantza iten gendun" - (Hori nik ez dakit ze sasoi zen, ez dakit, ez naiz gomutatzen, ze sasoi inguru izaten zen, baina arrankariak asko hartzen zirena bai! Eta guk errekarra hona etortzen ginen, zuen, horra horko errekarra, eta arropak garbitzeko hor, kaskailuak, izarak botatzen genuenean garbitzeko, han, alborantz egiten genuen)

15.5. INTSEKTUAK

aramue: gauna, amarauna, armiarma sarea

"Amama difunteak, se i eun kortara yoan koxu aramue ta a imini, ta gero pase asten" - (Amama defuntuak, zer egin zuen kortara joan koiu aramua eta hura ipini, eta gero pasatu zitzaidan)

araña telea: gauna, amarauna

araña: aramua

ardie: ardia, arkakusoa

"Panplonan egon gintzesenean an, e, guardie iten olau ser baten, a beterik on san ardiekas ta sorriekas, andik edo urteten gendunean guardie inte, bete beterik oten gintzesan sorriekas" - (Iruñan egon ginenean han, guardia egiten holako zer baten, hura beterik egon zen ardiekin eta zorriekin, handik edo irteten genuenean guardia eginda, bete beterik egoten ginen zorriekin)

arra: harra

ar surie: har zuria

artasie: mari artazia

barea: barea

"Karakolak estitu letxugek yaten, bareak" - (Karakolak ez ditu letxugak jaten, bareak)

"Barean antzekoa edo, esta? Olan lusetxue, eta agoa dekie, sabaldu iten deurie agoa" - (Barearen antzekoa edo, ezta? Hola luzetxoa eta ahoa daukate, zabaldu egiten dute ahoa)

"Barean antzeko kotxotxu bet ote san, a sikue san, a be emote akon eusnarrerako" - (Barearen antzeko kotxotxo bat egoten zen,

hura sikua zen, hura ere ematen zitzaion hausnarrerako)

"Bareak usaba tie, euri inesko bareak usaba tie" - (Bareak ugazabak dira, euri eginez gero bareak ugazabak dira)

baspie: bazpia, bartza

"Baspie tekos, emon bea dako binagrea, esan alkoholik edo ortarikorik, binagrea san, medikamentue orrentzako" - (Bazpiak dauzka, eman behar zaio ospina, ez zen alkoholik edo horietarikorik, ospina zen, medikamentua horientzat)

bitxoa: mamarroa

"Aregas esan oten bitxorik, oin dausen moduen" - (Harekin ez zen egoten mamarrorik, orain dauden moduan)

"Ak, bitxori padau orrek ilteko ona da lurrean, bitxori padau" - (Hark, mamarrorik badago horiek hiltzeko ona da lurrean, mamarrorik badago)

eltxoa: eltxoa

"Orrek eltxoa paño andiaoa tires" - (Horiek eltxoak baino handiagoak dira)

epertargie: epertargia, ipurtargia

"Epertargie dalakoa dekot" - (Ipurtargia delakoa daukat)

erugea, erugia, orugea: erugea

"Orugean antzekotxue or aspitik paretan dako" - (Erugearen antzekotxoa hor azpitik paratzen zaio)

eskarabajoa: eskarabajoa

"Eskarabajoa txarra da" - (Eskarabajoa txarra da)

"Eskarabajoa patateari etorten dakona da, baye eskarabajoak patateari yaten tzo, baye ak sikan ikusi iten su selan daosan ta botikea botasko, baye au kotxo baltza lurren aspitik dabil beti te ori estosu ukusten badau edo espadau" - (Eskarabajoa patatari etortzen zaiona da, baina eskarabajoak patatari jaten dio, baina hark sikan ikusi egiten duzu zelan dauden eta botika botaz gero, baina kotxo beltz hau lurraren azpitik dabil beti eta hori ez duzu ikusten dagoen edo ez dagoen)

espatea: espata

"Espatak ba eukiten tue, orrek txarra tie, orre taus maminean sartute" - (Espatak ba edukitzen dituzte, horiek txarrak dira, horiek daude mamian sartuta)

eulie: eulia

eusnar kotxoa: hausnar kotxoa

"Eusnar kotxoa, nik, e, entzunte dekotzet eusnar kotxoa aiteri, arek barruen kotxotxu be tekie, baye gogorra, gogorra, aure pe gogorra tire arek" - (Hausnar kotxoa, nik, entzunda daukakiot hausnar kotxoa aitari, haiek barruan kotxotxu bat daukate, baina gogorra, gogorra, eurak ere gogorrak dira haiek)

grillue: txirri-txirria

"Grillue koiten bai, grillue koiten mutilek sein neskak" - (Txirri-txirria koiuten bai, txirri-txirria koiuten mutilak zein neskak)

iñurrie, inurrie: inurria

"Iñurrie pe bai iten tzie batzuri" - (Inurriek ere bai egiten diete batzuei)

"Bai emoten geuntzen guk, iñurriek gorantza igon estien" - (Bai ematen genien guk, inurriek gorantz igo ez dezaten)

"Inurrie galtzean deu orrek" - (Inurria galtzen du horrek)

kakarraldoa: kakarraldoa

"Kakarraldoa da ori, ortariko pe klase bi daus" - (Kakarraldoa da hori, horietarikoak ere mota bi daude)

"Kakarraldoak estotes ikusi, buf! Aspaldien estotes ikusi kakarraldoak" - (Kakarraldoak ez ditut ikusi buf! Aspaldian ez ditut ikusi kakarraldoak)

kaparra: kaparra

karakola: karakola, barraskiloa

"Bareantzako es, baye karakolantzako, botikea dau" - (Bareantzako ez, baina karakolantzako botika dago)

"Ak koiten deuna barea ta karakola an daus lotute, baye bota in bea da" - (Hark hartzen duena barea eta karakola han daude lotuta, baina bota egin behar da)

kotxoa: kokoa, kotxoa

"A bai kotxoa iten dako, nik oin jota dekoas indabak, eta dekoas, indabak jota auren eutz eta dusti" - (A bai kotxoa egiten zaio, nik orain jota dauzkat indabak, eta dauzkat, indabak jota euren hauts eta guzti)

"Oin etorri dire kotxoak, orreatik eukiten dus guk oin arkoyan" - (Orain etorri dira kotxoak, horregatik edukitzen ditugu orain arkoian)

"Sortzi amar egunean eukiten dus arkoyan sartute, otzak il iten deu barruko, badeko kotxoa il ite otze" - (Zortzi hamar egunean

edukitzen ditugu arkoian sartuta, hotzak hil egiten du barruko, badauka kotxoa hil egiten dio)

"Orreri, jo! Ikusten die batzuk, kotxo gorri txikitxu batzuk" - (Horiei jo! Ikusten dira batzuk, kotxo gorri txikitxu batzuk)

kotxo baltza: kotxo beltza

"Kotxo gorrie? Kotxo baltza da txarra, es gorrie, baltza, baltza da txarra, guk tomateak, e, bigarrenes ingerus aurten, tomateak, onek esa osten or kotxo baltzak, landarea yan iten due, seatik, albotik eta bota iten deu beti landarea yanta, eta onek esa osten, e, tomateak, kargu artu, irurogei tomate ixen sien etzerako inke gendusen ta, egon san landararik onena siminderan, oin bentajea deku, oin larogei inke dus arek kendute ta, arek, dan dan danari onek esa osten, botayosu esa osten au botiketxue, a kotxo baltzari botaten dakona, bai esa neutzen oneri, Iñaki! Au aurretik bota bea dako, e? Aurretik, inke baño lenau, aurretik eskurtire, A! Ortako asko bea da esa osten ta bota yosu egaltxure, bota nontzen egaltxure ta bakixu ser in doskun? Erre, erre landarea" - (Kotxo gorria? Kotxo beltza da txarra, ez gorria, beltza, beltza da txarra, guk tomateak, bigarrenez inguruz aurten, tomateak, honek esan zidan hor kotxo beltzak, landarea jan egiten du behetik landarea janda, eta honek esan zidan, tomateak, kargu hartu, hirurogei tomate izan ziren etxerako inkatu genituen eta, egon zen landararik onena mintegian, orain abantaila daukagu, orain laurogei inkatu ditugu haiek kenduta eta, haiek, den-den-denei honek esan zidan, bota iezaezu esan zidan botikatxo hau, kotxo beltzari botatzen zaiona, bai esan nion honi, Iñaki! Hau aurretik bota behar zaio, e? Aurretik, inkatu baino lehenago, aurretik esku tirora, A! Horretarako asko behar da esan zidan eta bota iezaezu hegaltxora, bota nion hegaltxora eta badakizu zer egin digun? Erre, erre landarea)

"Nik txarren txarrena pentzetan dot orixe kotxo baltza dala, landarea yan iteko" - (Nik txarren txarrena pentsatzen dut horixe kotxo beltza dela, landarea jan egiteko)

kotxo gorrie: kotxo gorria

"Txarra da batetik, bear iteko soloan, da galdu esta iten, bai ostantxean artoartean ta olan, ona da, kotxoa, kotxo gorrie, koyute dau, kotxo gorrie eukiten deu, manejetan deu" - (Txarra da batetik, behar egiteko soroan, eta galdu ez da egiten, baina osterantzean arto-artean eta hola, ona da, kotxoa, kotxo gorria, hartuta dago, kotxo gorria edukitzen du, maneiatzen du)

kurebioa, kurubioa: kurebioa

"Kurebioa, orrek aretxatan ta oten die" - (Kurebioa, horiek haritzetan eta egoten dira)

lurtxakurre: lurtxakurra

"Aspaldien estekus emen be, baye emen be egon dires, e, lurtxakurrek, bai, emen siminteratan ta, ta yoaten dire bidean luse lusean, aspitik, altzeu iten tzue" - (Aspaldian ez dauzkagu hemen ere, baina hemen ere egon dira, lurtxakurrak, bai, hemen mintegietan eta, eta joaten dira bidean luze luzean, azpitik, altxatu egiten dizute)

"Orre pe, txarra tire lurtxakurrek, orrek eiten deurie, gero, sera, siminteratan ta, eta gora igon bearrean, aspitik ebaiten tzus landarak" - (Horiek ere, txarrak dira lurtxakurrak, horiek egiten dute, gero, zera, mintegietan eta, eta gora igo beharrean, azpitik ebakitzen dizkizu landareak)

"Lurtxakurrik emen egon be estait ingo bada" - (Lurtxakurrak hemen egon ere ez dakit egingo bada)

"Lurtxakurre kotxo bat, orre pe esteurie kantetan oin" - (Lurtxakurra kotxo bat, horiek ere ez dute kantatzen orain)

"Bai lurtxakurre, eta selango kantak iten tu" - (Bai lurtxakurra, eta zelako kantak egiten ditu)

mandulie: mandeulia

marigorrie: marigorria, marigorringoa

mariorrotza: mari orratza

"Es begie ataten tzienak, busten luseas, ta lau ego, abioya modukoa" - (Ez begia ateratzen diotenak, buztan luzearekin, eta lau hego, abioia modukoa)

"Guk emen danok esaten geuntzen, e, begiek ataten deuna" - (Guk hemen denok esaten genion, begiak ateratzen dituen)

mariposea: txirpilot

"Mariposa modukoa tires orrek" - (Tximileta modukoak dira horiek)

mitxoleta: txirpilota

"Arek mitxoleta modukoa tie, txikitxuek, artoan barruen iten dakos" - (Haiek mitxoleta modukoak dira, txikitxoak, artoaren barruan egiten zaizkio)

moskitoa: eltxoa

"Matza elduteko edo piti bet, moskitoa ta, estot gure" - (Mahatsa heltzeko edo piti bat, eltxoa eta, ez dut gura)

oruge berdea: eruge berdea

"Oruge berdea, oruge berdea, tomatean deko oruge berdeak dañu itzela, tomateari batzean dako, ta tomatea pikeu iten deu, e?" - (Eruge berdea, eruge berdea, tomatean dauka eruge berdeak kalte itzela, tomateari batzen zio, eta tomatea pikatu egiten du, e?)

palomilla: artoari egiten zaion txirpilota zuri parasitua

"Sagarrak kotxoa deko, artoari be iten dako ta, artoana palomilla, egas ibilten dire arek, mitxoleta modukoak" - (Sagarrak kotxoa dauka, artoari ere egiten zaio eta, artoarena txirpilotatxoa, hegaz ibiltzen dira haiek, mitxoleta modukoak)

pirtxilota surie: txirpilota zuria, tximileta zuria

"Orrek pirtxilota suriek, kanpoti ibilten dienak orrek ekarten deurela dine oin, e, kotxoa" - (Horiek txirpilota zuriak, kanpotik ibiltzen direnak horiek ekartzen dutela dinote orain, kotxoa)

pirtxilotea: txirpilota, tximeleta

saltamatxinoa: saltamatxinoa

sapaterue: zapateroa

sitze: sitsa

"Sitze batu dako" - (Sitsa batu zaio)

"Etzean ikusi dot nik atarikoa, atzenean ba, on san ba sera sitzek yaten on san" - (Etxean ikusi dut nik haietarikoa, atzenean ba, egon zen ba zera sitsak jaten egon zen)

sorrie: zorria

"Antzekoa da, noberan moduko sorri txiki txikitxue da, suri surie" - (Antzekoa da, norberaren moduko zorri txiki-txikitxoa da, zuri-zuria)

"Sorriek eukin dus makine at biderres, sorrie bera surie da" - (Zorriak eduki ditugu makina bat biderrez, zorria bera zuria da)

"Len ite sien sorriek, eta sorriek eta selango ardurea eukite gurien, gero orrek kendu siren, ta uin giau entzuten da, e? Uin askos giau, e?" - (Lehen egiten ziren zorriak, eta zorriak eta zelako ardura edukitzen zuten, gero horiek kendu ziren, eta orain gehiago entzuten da, e? Orain askoz gehiago, e?)

sorrikumea: zorrikumea

txintxea: tximintxa

urubioa: urubioa, kurebioa

usena: izaina

16. BEHARRA

Atal honetan nekazaritza eta abelazkuntza ez diren garaiteko ogibideen gainerako berbak emango ditugu. Horretarako, ogibideen izenak eta erreminten izenak bereiziko ditugu.

16.1. OGIBIDEAK

abogadue: abokatua, legegizona

afiladorea: zorroztailea

aguasile: aguazila, udaltzaina

"Lenau aguasile ote san amen errien" - (Lehenago aguazila egoten zen hamen herrian)

"Aguasile ixen san Derio ta Samudiokoa" - (Aguazila izan zen Derio eta Zamudiokoa)

albañela, albañila: igeltseroa

"Orduen labrantzea manejetako ausoak ba laguntostien, se neu, ni albañela nintzen" - (Orduan labrantza maneiatzeko auzoek ba laguntzen zidaten, ze neu, ni igeltseroa nintzen)

"Albañelak eroeuen koyute" - (Igeltseroak eroan zuen koiuta)

aldeanea: baserritarra, nekazaria (f.)

"Puestu andie, andie esaten geuntzen guk, se gurea aparte ote san, gurea aldeanana aparte ote san" - (Postu handia, handia esaten genion guk, ze gurea aparte egoten zen, gurea baserritarrena aparte egoten zen)

aldeanue: baserritarra, nekazaria (m.)

"Suok amen aldeanuek forrata sausie diruas" - (Zuek hamen baserritarrak forratuta zaudete diruarekin)

aministradorea: administraria

añea: aina, inudea

"Es, *añea ixete san, kasureko ba, espadeko, amen aña esate san baye, ori jente modudunek ite seun, bularra emoteko, arek andreak famili euki eunak, bularra emoteko ekarte otzien kanpotik beste ume bat edo, dirue dekonak ori!*" - (Ez, aina izaten zen, kasurako ba, ez badauka, hamen aina esaten zen baina, hori jende modudunak egiten zuen, bularra emateko, andre hark familia eduki zuenak, bularra emateko ekartzen zioten kanpotik beste ume bat edo, dirua daukanak hori!)

argine: hargina

"Ona arginek etorte sien kanpotik" - (Hona harginak etortzen ziren kanpotik)

arotza: arotza

barberue: bizargina

"Bat egon san, ba, Txosnan iteko sana san, Lauroatako, ba, barberu bet" - (Bat egon zen, ba, Txosnan egiteko zena zen, Lauroetako, bizargin bat)

"Barberue etzean nik, e, geure etzean be esetute dekot" - (Bizargina etxean nik, geure etxean ere ezagututa daukat)

basurerue: kale garbitzailea

beargine: behargina

"Bai, ba, en jeneral, bearginek baye bearginek orduen, e, gitxi ibilte siren, aldea gitxi egon sa les! Ibilte siren beargine pe, baye kanpotik etorte siren, pasokoak, kamiyakas ordun jente gitxi ibilte san, e! Eta pasoko jentea edo olan, gero asi sienean amen, kasureko onek etorten sien seretik, ba emeti, diputasiñoak, ori diputasiñoa in seudienean orti etorte san gurera, jente asko ortik, ortik asi siren gero kamineruek, onek bear ite eudienak kaminoatan, orre pe bai, eta apurken apurken, ba, jente asko eukite gendun beskaltan" - (Bai, ba, gehienetan, beharginak baina beharginak orduan, gutxi ibiltzen ziren, aldea gutxi egon zen lez! Ibiltzen ziren beharginak ere, baina kanpotik etortzen ziren, pasokoak, kamioiekin orduan jende gutxi ibiltzen zen, e! Eta pasoko jendea edo hola, gero hasi zirenean hamen, kasurako hauek etortzen ziren zeretik, ba hemendik, Aldundikoak, Aldundi hori egin zutenean hortik etortzen zen gurera, jende asko hortik, hortik hasi ziren gero kamineruak, hauek behar egiten

zutenak kaminoetan, horiek ere bai, eta apurka-apurka, ba, jende asko edukitzen genuen bazkaltzen)

beterinarioa, beterenarioa: albaiteroa

"Beterenarioak geuse bat esa osten, au garbi dau, aye takie matriserarte ser dauen, bai matrisen barruen estakie ser dauen, se esteure ikusten ta, ta an egon bea deu seguru, an barruen egon bea deule, seran batzuk, ba, au, iru atzamar ixitea les, iru atzamar, t'onek iru atzamar egon bea deule sabalik, sabalik, eta badaus ixite esteu injertoak agarretan, sabali padaus an injertoak agarretan deusela" - (Albaitariak gauza bat esan zidan, hau garbi dago, haiek dakite umetokiraino zer dagoen, baina umetokiaren barruan ez dakite zer dagoen, ze ez dute ikusten eta, eta han egon behar du seguru, han barruan egon behar duela, zeraren batzuk, ba, hau, hiru atzamar izatea legez, hiru atzamar, eta hauek hiru atzamar egon behar duela zabalik, zabalik, eta badaude itxita ez du txertoak hartzen, zabalik badaude han txertoak hartzen dituela)

"Asun ego san beste betenario bat" - (Asuan egon zen beste albaitari bat)

bogaderea: bogadera, bogadagina

dendarie: dendaria

enkargadue: enkargatua

"Emen granjan, enkargaduek, igual seuser eiten baeuen karte emote osten eroateko" - (Hemen granjan, enkargatuak, beharbada zer edo zer egiten bazuen eskutitza ematen zidan eroateko)

enplasterue: enplasteroa, ukendu egilea

"Atxine, emen, or, Sugurutxun egon soan enplasteru bet, eta ori enplasterue, ibilte soan etzerik etze txakurtxikitxu betas ta" - (Antzina, hemen, hor, Sugurutxun egon zuan ukendu egile bat, eta ukendu egile hori, ibiltzen zuan etxerik etxe txakur txikitxo batekin eta)

enterradorea: lurpetua

errementarie: errementaria

"Errementarie pai emen Derion esetu doas nik, sera Bixenti difuntue" - (Errementariak bai hemen Derion ezagutu ditut nik, zera Bizente defuntua)

fotografoa: argazkigilea

"Sikeran fotografoa euki gendun guk orduen"
- (Sikeran argazkilaria eduki genuen guk orduan)

fruterue: fruta saltzailea (m.)

guardea: zaintzailea

juesa: epailea

kaminerue, kamiñerue: kamineroa, bide konpontzailea

"A kamiñeruena ya diferentea da, a sabal sabala da" - (Hura kamineroena ja desberdina da, hura zabal-zabala da)

karabinerue: karabineroa

karamelerea: karamelu saltzailea

"Nire denporan, e, oota, iru urterarte, nik erremerie ikusi be eneun iten, jayetán, karamelerari karameloak koiten, axe esetu ot" - (Nire sasoián, hogeita, hiru urtera arte, nik erromeria ikusi ere ez nuen egiten, jaietan, karamelu saltzaileei karamelueak hartzen, huraxe ezagutu dut)

kargadorea: kargeroa

kargerue: kargeroa

"Arek kargeruek gixajo batzuk" - (Kargeru haiek gizajo batzuk)

karpinterue: arotza

karreterue: karreteroa

karterue: postaria

kinkallerue: kinkaila saltzailea

"Da kinkalleruek eta orrek etorte sienean posik egoten gintzen gu seuser ikusteko" - (Eta kinkaila saltzaileak eta horiek etortzen zirenean pozik egoten ginen gu zer edo zer ikusteko)

kontratista: kontratista

"Orrek ordun be kontratiste iten yoan bear ta maderiste be bai" - (Horrek orduan ere kontratista egiten zian behar eta egur merkatari ere bai)

kosiñerea: sukaldaria (f.)

kosiñerue, kosinerue: sukaldaria

kriedea: kriadua, neskamea (f.)

kriedue: kriadua, morroia

"Emen euki nendun kriedu bet" - (Hemen eduki nuen kriadu bat)

kuranderue: sasi medikua

"Bai oten sien kuranderuek" - (Bai egoten ziren sasi medikuak)

labradorea: nekazaria

letxerue: esneketaria

"Letxerueri, bai, letxerueri erote otzien" - (Esneketariari, bai, esneketariari eroaten zioten)

maderistea: egur tratularia

maistrea: maistra

marmolisteia: marmolista

"Argintzen esate akien, e, marmolisteari be" - (Hargintzan esaten zitzaien, marmolistari ere)

matarifea: matarifea, piztia hiltzailea

medikue: medikua

"Eta aginta yeudien medikuek edo" - (Eta agintzen zuten medikuek edo)

"Medikuena yoan baño lenau, etzean in bea die prueba asko" - (Medikuarengana joan baino lehenago, etxean egin behar dira proba asko)

"Mediku bet egote san eta makalik egoten basan a etorte san" - (Mediku bat egoten zen eta makalik egoten bazen hura etortzen zen)

obrerue: behargina, langilea

"Gero bereinketu, talletuen, sera, bereinkesinoa noberak ein etzean, obreruek" - (Gero bedeinkatu, teiltuaren, zera, bedeinkazioa norberak egin etxean beharginek)

ojalaterue: iturgina

"Baye ori sine da, beste barra moduko bat, barratxu bet, ta aregas berotuteudien, e, ojalateruek ibilte seudien, onek lepoan, e, katxarroa artute, eta arek iteudien sulo ba padau edo seuser pegeu edo bear da, aregas" - (Baina zin hori da, beste barra moduko bat, barratxo bat, eta harekin berotzen zuten, iturginek erabiltzen zuten, hauek lepoan, katxarroa hartuta, eta haiek egiten zuten zulo bat badago edo zer edo zer itsatsi edo behar da, harekin)

panaderea: okina (f.)

panaderue: okina

parterea: emagina

"Bai, andra bat ibilte san, parterea esaten otziena, olan asko umeak yayoten direnean, amen Kasakimera, oin, e, serak daus inte, orrek etzeak, onek Arebalo ta bixi dien etzean, orren ondoan, Kasakimera esate otzien, baserri etze sar bat, ta an bixi san andra bat alargune, eta a yoate san, ba, parto batera, ba, geitute otzien danak eta ba, bakotxa, jente gitxi egon sales orduen, a ixete san, e, komadronea, orduen pentzeu bes besterik! Gero, pratikantea, baye, lelau nik ori esetu dot" - (Bai, andre bat ibiltzen zen, emagina)

esaten ziotena, hola asko umeak jaiotzen direnean, hamen Kasakimera, orain, zerak daude eginda, etxe horiek, hauek Arebalo eta bizi diren etxean, horren ondoan, Kasakimera esaten zioten, baserri etxe zahar bat, eta han bizi zen andre bat alarguna, eta hura joaten zen, ba, erditze batera, ba, deitzen zioten denek eta ba, bakoitza, jende gutxi egon zen lez orduan, hura izaten zen, emagina, orduan pentsatu ere ez besterik! Gero, praktikantea, baina, lehenago nik hori ezagutu dut)

pastelerue: pasteleroa

pastorea: artzaina

"Nire anaia dau pastore Ameriketetan" - (Nire anaia dago artzain Ameriketetan)

pelukerea: ile apaintzailea

"Arek Bilbon bixi ixen sien, pelukera ganera Mari ibil san, eta ni baño atzerau eskondu san, ni eskondu nintzen mayatzean, eta a eskondu san san martinetan, ta yantzi baltzas yoan san axe be" - (Haiek Bilbon bizi izan ziren, ile apaintzaile gainera Mari ibili zen, eta ni baino atzerago ezkondu zen, ni ezkondu nintzen maiatzean, eta hura ezkondu zen san martinetan, eta jantzi beltzarekin joan zen huraxe ere)

peskadorea: arrantzalea

pintorea: pintorea

sakerue: zaku-eroslea

sekretarioa: idazkaria

tabernerue: 1. tabernaria. 2. tabernazalea

"Gure aite esan tabernerue ixen baye juergistea bai, beti yantzan edo ba kantetan" - (Gure aita ez zen tabernazalea izan baina parranda zalea bai, beti dantzan edo ba kantatzen)

telerue: ehun saltzailea

"Teleruek esaten geuntzen bai" - (Ehun saltzaileak esaten genien bai)

yoskilea, yoskillea: joskilea, jostuna

"Ta yoskilea kostunbrea ixen salako dekot, arrastien gero txokolatea ta ogie emote otziesan, ta gero etzera yoskilea buruen, e, sera artute, makiñea artute" - (Eta joskilea usadioa izan zelakoa daukat, arrastien gero txokolatea eta ogia ematen zizkioten, eta gero etxera joskilea buruan, zera hartuta, makina hartuta)

"Domekatarako ya, geu pe eukiten gendun ohea, aistea nik sarrena euki nendun yoskillea, ta arek yosite yoskusen ta

obetxuaua, telea ekarri, t'orduen dana etzean" - (Domekatarako ja, geuk ere edukitzen genuen hobea, ahizpa nik zaharrena eduki nuen joskilea, eta hark josten zizkigun eta hobetxoa, ehuna ekarri, eta orduan dena etxean)

16.4. ERREMINTAK

formoya: formoia

ginbeleta: ginbaleta, egurra zulatzeko erabiltzen den laratorrik txikerrena
"Ginbeleta txikerra da" - (Ginbaleta txikerra da)

laratroa: laratroa, daratulua

limea: lima

"Ba ortarako sera limeas edo sera ite otzien" - (Ba horretarako zera limarekin edo zera egiten zioten)

pikatxoya: pikatxoia

"Buena ba, or, e, kaminoan ba lelengo ba, sera, bardindu, pikatxoyakas ta, arratxurre, arratxurre dau beste atxur anditxuao bat, t'orrekas ta gero, gero ba, emen, ayuntamentuek ekar seun gero arrie, botateko, eta gero apurke-apurke" - (Beno ba, hor, kaminoan ba lehenengo ba, zera, berdindu, pikatxoiekin eta, arraitzurra, arraitzurra dago beste aitzur handitxoago bat, eta horiekin eta gero, gero ba, hemen, udalak ekarri zuen gero harria, botatzeko, eta gero apurka-apurka)

puntzela: puntzela

"Bai bakit ite situsen olan, e, puntzel antzeko bategas" - (Bai badakit egiten zituen hola, puntzel antzeko batekin)

sepillue: eskuila

serrea: zerra

"Ai, segun batzuk iten tzie serreas" - (Ai segun batzuek egiten diote zerrarekin)

"Artasiek eta serrea, loditxue bada serrea" - (Artaziak eta zera, loditxoa bada zerra)

serrota: zerrota

"Or eukiteun agine, aginek seinde serrotan moduen" - (Hor edukitzen zuen hagina, haginak zeinda zerrotaren moduan)

sintzela: zizela

tanborra: danborra, makinan danborra

"Esate baterako au tanborra ixetea les, ta emeti betik olan urtekerea ta erdien garuek, ta onek eukesan onen atzamarran

ingeruko aginek, eukesan olan, e, sertute" - (Esate baterako hau danborra izatea legez, eta hemendik behetik hola irteera eta erdiak garauak, eta honek zeuzkan atzamar honen inguruko haginak, zeuzkan hola, zertuta)

tornillue: torlojua

17. ABELAZKUNTZA

Abelazkuntzaren gaineko berbak aurkezteko, abere mota bakoitzaren araberrako ondoko sailkapena egin dugu: ganadua, ardiak eta ahuntzak, ekinoak, txerria, oiloak, erleak, txakurra, katua eta gainerakoak; azken azpi-atal honetan arteragokoetan ezin sartu izan ditugun berbak agertuko dira.

17.1. GANADUA

adar apalak: adar apala, adarra beherantz daukana

"Apalak, ba, batzuk, atzerantz igual eukiten deure batzuk, atzerantz igual serak adar apalak atzerantz be igual" - (Apalak, ba, batzuek, atzerantz beharbada edukitzen dute batzuek, atzerantz beharbada zerak adar apalak atzerantz ere beharbada)

adar berak: adar beherak, beheranzko armera

"Batzuk bera eukiten deure, orre pa adar berak" - (Batzuek behera edukitzen dute, horiek ba adar beherak)

adar itxiek: adar itxiak

"Apur bet, sera, adar itxiek ixin, adar itxiek, ta besteak, bestea tire apur bet adar sabalak" - (Apur bat, zera, adar itxiak izan, adar itxiak, eta besteak, besteak dira apur bat adar zabalak)

adar motxoa: adar motxoa, adar txikerra

adarra: adarra

"Or egoten dire, orretarako dau aparato bat, igual estakies adarrak ondo etorten ta iminten dotzie aparato at atzean amarreute, ta ak egiten tzie ak aparatoak artes ekarri" - (Hor egoten dira, horretarako dago aparatu bat, beharbada ez zaizkie adarrak ondo etortzen eta ipintzen diote aparatu bat atzean

amarratuta, eta hark egiten die aparatu hark artez ekarri)

"Adarrak esate gurien, adarrak, bai adarrak peligrosoa tiresela" - (Adarrak esaten zuten, adarrak, bai adarrak arriskutsuak direla)

adar sabalak: adar zabalak

agin txikerra: hagin txikerrak, hasierako haginak

"Urte birarte agin txikerrak" - (Urte bira arte hagin txikerrak)

albaine: albaina; ganaduaren arnasa estua

anilloa: paradako zekorrari sudurrean ipintzen zaion eraztuna

ankea: hanka

antzue: antzua, esnea ematen ez duen behia

apatxa: apatxa

"Apatxetan barruen es okelea deko arek" - (Apatxetan barruan ez okela dauka hark)

apatxartekoa: apatx-artekoa, ganaduaren gaixoa

"Apatxartekoa, ori da gaixoa" - (Apatx-artekoa, hori da gaixoa)

armerea: armera, ganaduaren adarrek osatzen dute armera

"Armera adarrak ondo eukitea, batzu tekies igual baju olan eta beste batzuk olan, eta igual batzuk, andie pe bai ta beste batzuk ya beste, tamañu onekoak" - (Armera adarrak ondo edukitzea, batzuek dauzkate beharbada baxu hola eta beste batzuek hola, eta beharbada batzuek, handiak ere bai eta beste batzuek ja beste, tamaina onekoak)

arrana: arrana

aspie: azpia, kortan egiten zaien ohea

"Otea ba beyen aspiek iminteko" - (Otea ba behien azpiak ipintzeko)

"Aspizarra tekos, orrek esteure atara" - (Azpitzarrak dauzka, horiek ez dute atera)

aspigarrie: azpigarria

"Aite defuntuari esa neuntzen, e, aite, ba, ortxe, ortxe aretxean daus, kurebioak eta, an, e, aspigarrie ebaite egoan an alboan, aspigarrie koyu te, suloti bota barrure ta sue emo neuntzen, sue" - (Aita defuntuari esan nion, aita, ba, hortxe, hortxe haritzean daude, kurebioak eta, han, azpigarria ebakita zegoen han alboan, azpigarria koiu eta, zulutik bota barrura eta sua eman nion, sua)

atzea: ganaduaren atzea

atze bikoa: atze bikoa, atze handiko ganadua

atzera: ganaduari esaten zaio atzera egin dezan

atze sabala: atze zabala

aurreko besoa: aurreko besoa

"Aurreko besoan, atzera, baye aurreko besoatan, aurreko besoatan, baye, aonen tamañue, beso besoatan bes, piti piti bet atzeratxuau" - (Aurreko besoan, atzera, baina aurreko besoetan, aurreko besoetan, baina, haonen tamainua, beso besoetan ere ez, piti piti bat atzeratxoago)

bei arra: behi arra, behi antzua

"Bei arra orixe ixengo da ba, esne gitxikoa" - (Behi arra horixe izango da ba, esne gutxikoa)

bei baltza: behi beltza

bei gorrie: behi gorria

bekorotza: bekorotza

"Talletxu beten, ganaduen bekorotza, siku siku inte, siku siku, eta aren, e, an, serera bota bear da" - (Teilatxo baten, ganaduaren bekorotza, siku siku eginda, siku siku, eta haren, han zerera bota behar da)

besaka: besaka; buztarrian ganaduak barrurantz egitea

beye: behia

"Klaro orre teko denporea, bedeatzi illebeta da denporea beyena, t'andik ba batzuk sortzi egun igual tardetan deure, ta beste batzuk amabost be bai, beste batzuk igual, iru aste be bai, baye ya a da, iru astekoa da txarra, se senbet eta denpora giao tardetan deuen umea iten, barruko umeak iten deu proba giao, andiao iten da, en jeneral ixeten da onena, sortzi bet egun denporatik, edo amabost bat egun onena, andik gora tardetan badeu iten deu barrukoak proba andie ta gero partorako dau txarto" - (Jakina horrek dauka denbora, bederatzi hilabete da denbora behiarena, eta handik ba batzuek zortzi egun beharbada behar dute, eta beste batzuek hamabost ere bai, beste batzuek, beharbada, hiru aste ere bai, baina ja hura da, hiru astekoa da txarra, ze zenbat eta denbora gehiago behar duen umea egiten, barruko umeak egiten du proba gehiago, handiago egiten da, gehienetan izaten da onena, zortzi bat egun denboratik, edo hamabost bat egun onena, handik gora

behar badu egiten du barrukoak proba handia eta gero erditzerako dago txarto)

"Don Julianek esa oskun, e, beye txarto dauenean akordetan garela bakarrik san antonioas" - (Don Julianek esan zigun, behia txarto dagoenean gomutatzen garela bakarrik San Antoniorekin)

bustena: buztana

"Bustena ba andi atara barik, tamañutxue" - (Buztana ba handi atara barik, tamainatxo)

"Sapaltan botzesu, ba bustenean, atoan koiko saitu" - (Zapaltzen badiozu, ba buztanean, atoan harrapatuko zaitu)

enpajadea: enpajada, ganaduaren jatekoa

"Enpajadea galtzuas ta emote yakon" - (Enpajada galtzuarekin eta ematen zitzaion)

ernari: ernari

erradura: erradura, perra

errapea: errapea

"Beyeri bai, baten baño giautan entzun dot neu pe, bai, beyeri errapetik esnea edan" - (Behiei bai, baten baino gehiagotan entzun dut neuk ere, bai, behiari errapetik esnea edan)

"Ori da, gaixoa ta ori otzikerea, otza koyu, eta errapea anditu, errapea iten dakie anditu" - (Hori da, gaixoa eta hori hotzikara, hotza koiu, eta errapea handitu, errapea egiten zaie handitu)

"Esaten deure beyeri ba, errapetik, e, edan ite otziela esnea" - (Esaten dute behiei ba, errapetik, edan egiten dietela esnea)

"Esnea emoteko moduen, errapea badeko, baye errapea txarto ego letike, ta orduen bear eiteko be bai, ta adarrari, adarrak ondo badekos" - (Esnea emateko moduan, errapea badauka, baina errapea txarto egon liteke, eta orduan behar egiteko ere bai, eta adarrei, adarrak ondo badauzka)

"Errapea putzitu ite yakon beyeri" - (Errapea puztu egiten zitzaion behiari)

erri beye: herri behia

erri ganadue: herri ganadua, ganadu arraza bat

erridie: herri idia

"Nik euki doas emen etzean erridiek" - (Nik eduki ditut hemen etxean herri idiak)

erroa: erroa

"Os batek ekarte otzie ori, os batek koyu te errapea iten dotzie konpleto gogortu, nai

errape dusti koyu bearrean iten dotzie erro bat nai beste bat baye lotzean da beye asko, galdute" - (Hotz batek ekartzen die hori, hotz batek koiu eta errapea egiten die guztiz gogortu, nahi errape guztia koiu beharrean egiten die erro bat nahi beste bat baina lotzen da behia asko, galduta)

erroko txala: erroko txahala, txahal txikerra, esnearekin elikatzen dena

esnatzea: esnatzea, esne askoko behia

"Olandesa pe badekosus esnatzak, beste batzuk estie ainbeste, segun selan datorren auren sera" - (Holandarrak ere badauzkazu esnatzeak, beste batzuk ez dira hainbeste, segun zelan datorren euren zera)

esne beye: esne behia

esne gitxikoa: esne gutxikoa, esne gutxi ematen duen behia

eusnarra, ausnarra: hausnarra

"A esateurien nik estait, e, eusnar faltarik estot euki inos etzean ta estait" - (Hura esaten zuten nik ez dakit, hausnar faltarik ez dut eduki inoiz etxean eta ez dakit)

ganadue: ganadua

"Armera ori da, ba olan eukitera, ta olan eukitera, ain diferentzie ser da yantzie emoten dotzo ganadueri" - (Armera hori da, ba hola edukitzera, eta hola edukitzera, hain diferentzia zer da jantzia ematen dio ganaduari)

garrotillona: garrotiloa, ganaduaren gaixoa

idie: idia

"Esan iten bear andirik, an, e, idiek yabon, aputxu bet, yabote sien ta besterik esan iten, kargadoreak ite yeuen, deskargeu be bai" - (Ez zen egiten behar handirik, han, idiak jagon, apurtxo bat, jagoten ziren eta besterik ez zen egiten, kargadoreak egiten zuen, deskargatu ere bai)

idi eskerra: idi ezkerra, buztarrian ezkerretatik dakien idia

idi eskoya: idi eskoia, buztarrian eskoatetik dakien idia

idi kalboa: idi kalboa, adarrak beherantz dauzkan idia

kabrankuena: kabrankoa, ganaduaren gaixoa

kalboa: idi kalboa, adarrak beherantz dauzkan idia

"Idiek, e, adarrak berantza badekos, kalboa esaten tzu" - (Idiak, adarrak, beherantz badauzka, kalboa esaten diogu)

kaskue: kaskoa, apatxa

"Kasku gogorrek, batzuk oten die bigunek, ta orduen segiduen eroan bea dosu erradure iminten" - (Kasko gogorrek, batzuk egoten dira bigunak, eta orduan segituan eroan behar duzu erradura ipintzen)

"Beyeri etzean arregleta nentzesan, bai, artesi batzuk ekar nusen, kaskue bean dala ebaiteko" - (Behiei etxean konpontzen nizkien, bai, artazi batzuk ekarri nituen, kaskoa behean dela ebakitzeko)

mamitis: mamitisa, ganaduaren gaixoa

matrise: matrizea

matutoa: matutoa, idi arraza bat

murrusea: murrusa

musturre: musturra

narrue: narrua, larrua

"Euki seuen olan, e, selan esango dotzu pa?"

Ol, lodi lodi bet, eta an, e, seuseas emote otziesan bueltak eta gero berak emote otzien formea, beyen narrueri" - (Eduki zuen hola, zelan esango dizut ba? Ohol, lodi-lodi bat, eta han, zer edozerekin ematen zizkien bueltak eta gero berak ematen zien forma, behiaren narruari)

"Orrek narruskoak, orrek, e, beyen, e, narruas, bai in doas" - (Narruzko horiek, horiek, behiaren, narruarekin, bai egin ditut)

o: o, ganadua lotzeko esaten zaiena

orroa: orroa

osalea: osala, ganaduari prestatzen zaion jatekoa

"Osalea da danas prepareute iminten dosuna" - (Osala da denarekin prestatuta ipintzen duzuna)

ostikede: ostikada

palea: ganaduaren aurreko haginaren izena

"Orre tekies, aginek, batzuk, serak, gastetan eukiteitue, yeusiten, ta ya, sar iten dienean, ya pasten dakienean edadea, ya estakie yeusten aginek, orre tie, palak esateotzie" - (Horiek dauzkate, haginak, batzuek zerak, gaztetan edukitzen dituzte, jausten, eta ja, zahar egiten direnean, ja pasatzen zaienean edadea, ja ez zaizkie jausten haginak, horiek dira, palak esaten diete)

paradako sekorra: umeak egiteko erabiltzen den zekorra

paradea: parada, zekorra egoteko lekua

pentzue: pentsua

"Amasea, ori txikitute san gero bota ur apur bet, eta, pentzue, ta nasteu in de amasea" - (Amasa, hori txikitzen zen gero bota ur apur bat, eta, pentsua, eta nahastu egin eta masa)

"Beyentzat, e, sindikatora pentzu bile, ba oin beirik estaeles ba farmasiara, geutzako" - (Behientzat, sindikatora pentsu bila, ba orain behirik ez dagoen lez ba farmaziara geuretzako)

"A emon beyeri, yateko, ausnar iten eseurienean, a emon, e, pentzuas edo, bedarras edo nastean, e, yateko" - (Hura eman behiei, jateko, hausnar egiten ez zutenean, hura eman, pentsuarekin edo, belarrarekin edo nahastean, jateko)

plegasinoa: plegazioa, behiari ematen zaiona txahala egin eta ostean

"Ori iteko bai, paseu bai, orreri ba emote yakiesan, e, len be plegasino onak, bai ardabas eta bai binagreas, ondo lepoa busti, ondo errapea sertu, da ser onak emon, masaje onak emon" - (Hori egiteko bai, pasatu bai, horri ba ematen zitzaizkien, lehen ere plegazio onak, bai ardauarekin eta bai ozpinarekin, ondo lepoa busti, ondo errapea zertu, eta zer onak eman, masaje onak eman)

"Ona, ona da ori plegasinoa, ganaduentzat" - (Ona, ona da plegazio hori, ganaduarentzat)

pulpea: pulpa

"Au pulpea ureas botaten da beratan" - (Pulpa hau urarekin botatzen da beratzen)

"Pentzue be ordun gitxi pulperik esan esetu be iten" - (Pentsua ere orduan gutxi pulparik ez zen ezagutu ere egiten)

sakutea: sakuta, ganaduaren gaixoa

"Emen esetu danik, gaixorik txarrena oin artean sakutea san" - (Hemen ezagutu denik, gaixorik txarrena orain artean sakuta zen)

"Sakutea fuerte koiteun ganadueri kaskue pe yoan ite akosan" - (Sakuta indartsu hartzen zuen ganaduari kaskoak ere joan egiten zitzaizkion)

sekorra: zekorra

"Beinoneskoan nire lagune, sekorreana eroan nai eroan es igual dok" - (Behin honezkero nire laguna, zekorragana eroan nahi eroan ez berdin duk)

sillerue: sileroa, idi mota

"Bai sillerue pe badaus, apur bet tripe bajuek" - (Bai sileroak ere badaude, apur bat tripa baxuak)

suisoa: suitzarra, idi enda bat

suldarra: zuldarra

"Bai beyeri suldarra kentzeako ta egosite ta, iten yotzien orren uregas bai saukoa" - (Bai behiei zuldarra kentzeko eta egosita eta, egiten zioten horren urarekin bai saukua)

"Surteko eutze entzun dot nik suldarrantzako ganaduen suldarrak, dire olan garau betzuk urtetan dotzie, da barruen dekie kotxoa, eta a ite akon sertu" - (Surteko hautsa entzun dut nik zuldarrentzat ganaduen zuldarrak, dira hola garau batzuk irteten diote, eta barruan daukate kotxoa, eta hura egiten zitzaion zertu)

tortea: torta, ganaduaren jatekoa

"Tortea sera, jaboï fabriketati te ekarte sana" - (Torta zera, xaboi fabriketatik eta ekartzen zena)

txala: txahala

"Euren bearrak eta gure bearrak eta danak batera, eta batak ganaduen txaltxue badeko bestean ganadueas konteu te" - (Euren beharrak eta gure beharrak eta denak batera, eta batak ganaduaren txahaltxoa badauka bestearen ganaduarekin kontatu eta)

"Atxine lelango lelango medikamentue san, txala in orduko, botille ardaba" - (Antzina lehenengo lehenengo medikamentua zen, txahala egin orduko, botila ardaa)

umetokie: umetokia

"Umetokie, ori da, arako, partoa iten deuenean, andik seratik, a iten da apurtu, an barruen dau umea, apurtu iten da, a apurtan dan denporan dator, partoa, ta gero ori iten deu bota, ori umetokie" - (Umetokia, hori da, harako, erditzea egiten duenean, handik zeretik, hura egiten da apurtu, han barruan dago umea, apurtu egiten da, hura apurtzen den denboran dator, erditzea, eta gero hori egiten du bota, hori umetokia)

"An umetokien barruen dau ori ume ori ta materie an partoan iten da apurtu" - (Han umetokiaren barruan dago ume hori eta materia han erditzea egiten da apurtu)

uye: oia, apatx eta adar barruko haragia

baina, haiek egiten diren, artilea, eta gero orratzekin, galtza egin)

17.2. ARDIAK-AHUNTZAK

akarra: akerra

ardie: ardia

"Orreri ardie il dakie" - (Horiei ardia hil zaie)

"Emen ardiek etorri ite ixen die negureko etorte sien ona, Idiasabaletik, Idiasabaletik etorte sien, oñes, e? Andik Idiasabaletik ona oñes, oin e, gero akabuko urteatan ona etor direnean kamioyan ekarte situen" - (Hemen ardiak etorri egiten izan dira negurako etortzen ziren hona, Idiazabaletik, Idiazabaletik etortzen ziren, oinez, e? Handik Idiazabaletik hona oinez, orain, gero azken urteetan hona etorri direnean kamioian ekartzen zituzten)

"Es se ontxe daus emen, e, ba, jenteak, e, ba, bedarrik estekoles, ganaduek kendute dekones, edo ganadu bet, da ardiek dekies iru lau, bakotxak iru lau" - (Ez ze oraintxe daude hemen, ba, jendeak, ba, belarrrik ez daukan lez, ganaduak kenduta dauzka, edo ganadu bat, eta ardiak dauzkate hiru lau, bakoitzak hiru lau)

aritoa: aharittoa

artxoa: artxoa, bildotsa

"Eta artxorik ilten basan etzean, amari oye ama! tabeas kontus!" - (Eta artxorik hiltzen bazen etzean, amari a ama! tabarekin kontuz!)

eumea: ahumea

euntze, auntze: ahuntza

"Ori setako aprobetxeko yu pa, esetako bes, ori ebaiteko be txarra ok, auntzek yateko" - (Hori zertarako aprobetxatuko diagu ba, ezertarako ere ez, hori ebakitzeko ere txarra duk, ahuntzek jateko)

ulea: artilea

"Onek? One taus, e, artxoan, ule naturalas einte, artxoan, e, ebeiten tzienean moduen, aras einte, eiten deurie orrek, e, lanea, lanea iten deurie, ote sien, oin be badau arean arean ongo da oin be, baye, arek eiten diren, e, lanea, ta gero orrotzakas, e, medie in" - (Hauek? Hauek daude, artxoaren, ile naturalarekin eginda, artxoaren, ebakitzten dietenean moduan, harekin eginda, egiten dute horiek, artilea, artilea egiten dute, egon ziren, orain ere badago arean arean egongo da orain ere,

17.3. EKINOAK

arre: arre, astoari aurrera joateko esaten zaio

astoa: astoa

"A be sujetetako, se espabere, eurretik, e, burutik, e, astoak, e, bajatan badeu burue, burutik urtetan dotzo orrek, naite eukin tripea, amarrata, ba, eurrerantza korritan tze" - (Hura ere eusteko, ze ezpabere, aurretik, burutik, astoak, baxatzen badu burua, burutik irteten dio horrek, nahi eta eduki tripa, amarratuta, ba, aurrerantz korritzen die)

asto arra: astarra

asto emea: asto emea

biorra: behorra

"Saldiek estus eukin, biortxue esate otzien, oki gendun, ta gerra denporan il, gerra denporan il i oskuen ta giau estu euki" - (Zaldiak ez ditugu eduki, behortxo esaten zioten, eduki genuen, eta gerra sasoian hil, gerra sasoian hil egin ziguten eta gehiago ez dugu eduki)

burriñoa: burriñoa

"Batzu taus astoak ta beste ba ta burriñoa" - (Batzuk daude astoak eta beste bat da burriñoa)

kaballoa: zaldia

"Ba gero akabuen igertan asi akusen, kaballoa esetu" - (Ba gero azkenean igartzen hasi zitzaizkigun, zaldia ezagutu)

"Emen kaballorik egon be esta iten" - (Hemen zaldirik egon ere ez da egiten)

mulea: mandoa

muloa: mandoa

"Ortaikoa eroate seurien muloakas" - (Horietarikoa eroaten zuten mandoekin)

"Igual dosena erdi mulo, kargeta etorte sien basotik" - (Beharbada dozena erdi mando, kargatuta etortzen ziren basotik)

saldie: zaldia

saldikumea: zaldikumea

17.4. TXERRIA

arkalea: aharkela, txerri emea

apoa: apoa, txerri arra, umeak egitekoa

barasarea: bara sarea

besoa: aurreko besoa

egosarie: egosaria, txerrien jatekoa

estea: hestea

estegorrie: hestegorria

"Estegorrie, a in bea da amarreu puntetik eta tiretu" - (Hestegorria, hura egin behar da amarratu puntatik eta tiratu)

este lodie: heste lodia

este mea: heste mehea

este surie: heste zuria

eurreko besoa: aurreko besoa, aurreko pernila

"Ai ori noperak gure deuna, pernilak iten dosus, kendu, eurreko besoak be bai, ta gero besteak iten dire solomoak, sayetza, t'an datos, sayetzak eta serak solomoak" - (Ai hori norberak gura duena, pernilak egiten dituzu, kendu, aurreko besoak ere bai, eta gero besteak egiten dira solomoak, saihetsa, eta han datoz, saihetsak eta zerak solomoak)

gantxoa: gantxoa

"Oin, e, ba semeak, gantxoas koyu, semeak iten dost, en jeneral, ta gero ba, neuk, e, sangreu, se, oin urte bi i osten txarri betek, gantxoa alan koiten da, esta? Aguantetako, ta i osten ebai" - (Orain, ba semeak, gantxoarekin koiu, semeak egiten dit, gehienetan, eta gero ba, neuk, odolustu, ze, orain urte bi egin zidan txerri batek, gantxoa hala koiuten da, ezta? Eusteko, eta egin zidan ebaki)

gibela: gibela

girrintzea: girrintza, txerriaren zarata

gorgolle: gorgoila

makerea: txerri emea kumak egin eta ostean
"Bueno makerea ya umeak itxi te gero" - (Benoa makera ja umeak utzi eta gero)

mantillea: mantila

"Mantillea esaten dotzu" - (Mantila esaten diogu)

"Mantillea bera koipea da, mortzillek iteko" - (Mantila bera koipea da, buzkantzak egiteko)

nerbioatakoa: zainetako gaixoa

"Gaixoak, e, bai, gaixoa pe esetu dus, nerbioatakoa esate yakon atzeko, atzeko alderdie yausite san da esan altzetan, eperdie eseun altzetan" - (Gaixoak, bai, gaixoak ere ezagutu ditugu, nerbioetako esaten zitzaion atzeko, atzeko alderdia

jausten zen eta ez zen altxatzen, ipurdia ez zuen altxatzen)

"Il, e, ba, arik eta sasoya, ba, porrejenplo oin samartinek esaten da, oin asten da sasoya, ta aguantetako modue eukiskero ba, emon yaten da ba aputxu bet mejoretan bada baye atzea, ite akon apurke apurke siketu, nerbioatakoa" - (Hil, ba, harik eta sasoi, ba, esate baterako orain san martinak esaten da, orain hasten da sasoi, eta eusteko modua edukiz gero ba, eman jaten eta ba apurtxo bat hobetzen bada baina atzea, egiten zitzaion apurka-apurka sikatu, nerbioetako)

odolan aldikadea: odolaren aldikada, txerrien gaixoa

"Odolan aldikadea kentzeko belarrie, odola atara, se belarrie da fasilen txarrieri ebaiten dakona, belarrie ebai te" - (Odolaren aldikada kentzeko belarria, odola atera, ze belarria da errazen txerriari ebakitzen zaiona, belarria ebaki eta)

odol golpea: odol kolpea, odolaren txanda, txerrien gaixoa

"Ori da serana odol golpea" - (Hori da zerarena odol kolpea)

"Odola lodie eukin edo, eta belarrien ite akien ebei, eta andik belarrietatik botateuen odola" - (Odola lodia eduki edo, eta belarrian egiten zitzaien ebaki, eta handik belarrietatik botatzen zuen odola)

ordotza: txerri arra

papadea: okozpea

pintoak: pintoak, txerri enda

puxikea: puxika

"Bai! An txarrien puxikera, neuk estot ein, baye askok sertuten deu, ori, koipea! Koipea sartu enbudo bategas, a garbitu ondo, utzitu a txixe, ta garbitu ondo eta ara puxikera" - (Bai! Han txerriaren puxikera, neuk ez dut egin, baina askok zertzen du, hori, koipea! Koipea sartu onil batekin, hura garbitu ondo, hustu txiza hura, eta garbitu ondo eta hara puxikera)

tripe sile: tripa zila, bileria, txizpegia

"A! bai! tripe sile esaten dotziena, bai, tripe sile" - (A! bai! tripa zila esaten ziotena, bai, tripa zila)

txarri pintoa: txerri pintoak, txerri enda

txarriarra: txerri arra

txarribodea: txarriboda

"Txarribodatan kasureko, eta, artoak ereite sirenean eta bai, iten gendusen olau, olau geusek" - (Txarribodetan kasurako, eta, artoak ereiten zirenean eta bai, egiten genituen holako, holako gauzak)

txarrie: txerria

"Ori etzean ein dotzu, txarrieri, olan ebei emen, e, oin, e, bueno, amen txarririk ikusi be esta iten ferietan be, esta ikusten, baye txarri pintoak, orre tire ser andikoak, pernil andikoak, sabalak, ta beste batzuk, ba, txikerraoak" - (Hori etxean egin diogu, txerriei, hola ebaki hemen, orain, beno, hamen txerririk ikusi ere ez da egiten azoketan ere, ez da ikusten, baina txerri pintoak, horiek dira zer handikoak, pernil handikoak, zabalak, eta beste batzuk, ba, txikerragoak)

"Neu pe in doas emen, il doas etze batzutan txarriek" - (Neuk ere egin ditut hemen, hil ditut etxe batzuetan txerriak)

"Txarriek yaten yeuren ori ondo" - (Txerriek jaten ziaten hori ondo)

txarrikumea: txerrikumea

txarritokie: txerritokia

17.5. OILOAK

abie: habia

abiserie, abisarie: 1 abizaria, habian ezartzen den gezurrezko arrautza oiloak egiten bertara joan daitezen. 2. usteldutako arrautza

"Arrotza pe, batzuk ote siren, abisarie esate otzien orreri, arrotza galdue ixete san ori, abisarie ixete san" - (Arrautzak ere, batzuk egoten ziren, abizaria esaten zieten horiei, arrautza galdua izaten zen hori, abizaria izaten zen)

"Arrotzea galdute oten da igual, a usteldute dau barrue ta, olloak yoateko ara, arrotze ikusirik, lelau ite sien orrek geusek, abiseriek imite sien, abiseriek" - (Arrautza galduta egoten da beharbada, hura ustelduta dago barrua eta, oiloak joateko hara, arrautza ikusirik, lehenago egiten ziren gauza horiek, abizariak ipintzen ziren, abizariak)

astraka: aztraka, azterka

biroa: biroa

egoa: hegoa

errotea: errota, hegaztien urdaila

gallinerea: oilo-tokia

"Olloak gallineran librean, librean! Eta olloak librean egon sienean, e, emetik esta paseu eser, e? Emen olloak kanpoan daus te" - (Oiloak oilo-tokian libre, libre! Eta oiloak libre egon zirenean, hemendik ez da pasatu ezer, e? Hemen oiloak kanpoan daude eta)

"Eurek yateko arek, e, gallinerean erdien, gallinerea esaten geuntzen, alanbra batas koite ote san, baye edosein lekutetik urtetauren, edosein lekutetik urtetauren ta txarra iteko" - (Eurek jateko haiek, oilo-tokiaren erdian, oilo-tokia esaten genion, alanbre batekin koiuta egoten zen, baina edozein lekutatik irteten zuten, edozein lekutatik irteten zuten eta txarra egiteko)

gallinerue: oilo-tokia

"An dekos, Txomine tekos bi, eta baten dinotzet gure Begori, Bego! Katue gaubean garajejan egon da, ta nondik sartu da? Antza bentanatik, se len gallinerure sartute ixen da" - (Han dauzka, Txominek dauzka bi, eta baten dinotsat gure Begori, Bego! Katua gauean garajejan egon da, eta nondik sartu da? Antza leihotik, ze lehen oilo-tokira sartzen izan da)

gangarra: gangarra

gorgolle: gorgoila

kakaraka: kakaraka; oiloaren zarata

kapoya: kapoia

krestea: gangarra

kukurrukue: kukurrukua

"Ollarrak kukurruku joten deu, goixaldeatan altzeta fuerte, eta etzean bildurre emote oskun, e? Se, ollarrak olan joten deuen lekuen esateuren, edo eriotzan bat edo seuser dauela" - (Ollarrak kukurruku jotzen du, goizaldeetan altxatuta gogor, eta etxean bildurra ematen zigun, e? Ze, ollarrak hola jotzen duen lekuan esaten zuten, edo heriotzaren bat edo zer edo zer dagoela)

kurru-kurru: oiloei deitzeko erabiltzen den era

lokea: loka, zeloan dagoen oiloa

lumea, lumia: luma

"Olloana, olloan lumia iste san" - (Oiloena, oiloen luma izaten zen)

ollandea: oilanda

"Igerri iten dake gero ollarrak seintzu tien eta ollandak" - (Igarri egiten zaie gero oilarrak zeintzuk diren eta oilandak)

ollarra: oilarra

"Olloak eta ollarrak diferentea deke" - (Oilok eta ollarrak desberdina daukate)

"Es, itxiten gendusen, ollarra edo, ollandea ixen, ollandea aurrerako ta ollarra kendu" - (Ez, uzten genituen, oilarra edo, oilanda izan, oilanda aurrerako eta oilarra kendu)

olloa: oiloa

"Guk etxean es, e, ni gastetxue ixen nitzenetik eta gora estu eukin ollorik" - (Guk etxean ez, ni gastetxoa izan nintzenetik eta gora ez dugu eduki oilorik)

"Ondiño Lesamam badau olloa tekosena, euskeldun olloak eta, frantzesak eta, paboak eta, danari tekos arek" - (Oraindino Lezaman badago oiloak dauzkana, euskaldun oiloak eta, frantsesak eta, idi oilarrak eta, denetarik dauzka hark)

"Olloak? Obeto esetu es! Oin be bakus ta" - (Oilok? Hobeto ezagutu ez! Orain ere badauzkagu eta)

"Gero, an gure ausokoak euki euen a kostunbrea ixen san, suk esan dosune otea beti kanpoan, ta gallinerea alanbreas, baye gaubean olloak sartzeako, atea sabaldu ein bear, eta goixean yoateko be bai te, orduen sartze akosan solora besteari" - (Gero, han gure auzokoak eduki zuen ekandu hura izan zen, zuk esan duzuna otea beti kanpoan, eta oilo-tokia alanbrearekin, baina gauean oiloak sartzeko, atea zabaldu egin behar, eta goizean joateko ere bai eta, orduan sartzen zitzaizkion sorora besteari)

ollo baltza: oilo beltza

ollo gorrie: oilo gorria

ollo lokea: oilo loka

ollo lumea: oilo luma

ollo sarra: oilo zaharra

olloskoa: oilaskoa

ollo surie: oilo zuria

ollotokie: oilo-tokia

otea: otea, oilok lo egiteko, oilo-tokian eskegita jartzen den egurrezko egitura

"Otea esaten geuntzen" - (Otea esaten genion)

pikue: mokoa

"Emea teko piku klase bat, arra teko beste bat" - (Emeak dauka moko mota bat, arrak dauka beste bat)

pipitea, pepitea: pipita, mihiaren azpian egiten zaien gaixoa

"Orrek pipitea deko" - (Horrek pipita dauka)

sirine: zirina, oiloen satsa

txitea: txita

"Topeu ixin sarriten, olloak txitek igual ataten tzusen onek arrotzek topeu baño lenau kanpoan ibilikoak" - (Topatu ezin sarritan, oiloak txitak beharbada ateratzen zizkizun arrautza hauek topatu baino lehenago kanpoan ibilikoak)

17.6. ERLEAK

argixerie: argizaria

erlauntze: erlauntza

"Erregiñea erlauntzen egoten da ta" - (Erregina erlauntzan egoten da eta)

erlea: erlea

"Erleak, e, lantzen beinean umeak botaten deitue" - (Erleek lantzean behin umeak botatzen dituzte)

"Brasatxue bota, ta gero, ba putz in, ta aren keas, erretiretan dire apur bet, auren seretik, bastarreraño, se kea esteu gure erleak" - (Txingartxoa bota, eta gero, ba putz egin, eta haren kearekin, erretiratzen dira apur bat, euren zeretik, bazterreraino, ze kea ez du gura erleak)

"Erlea moskortie da, e?" - (Erlea mozkortia da, e?)

erregiñea: erregina

"Erregiñea aputxu bet sendoau dau" - (Erregina apurtxo bat sendoago dago)

"Yayoten danean be erregiñea an doa" - (Jaiotzen denean ere erregina han doa)

estena: eztena

estenkadea: eztenkada

"A txupetan edo aistu iten dako estenkadea emotea" - (Hura txupetzen edo ahaztu egiten zaio eztenkada ematea)

esti saparra: ezti saparra

karetea: karatula; ezti ateratzeko janzten dena

"Oki nun kareta bat, oki nun, e, iminteko, ostean, e, estenkada be igual emoten deude" - (Eduki nuen karatula bat, eduki

nuen, ipintzeko, ostean, eztenkada ere beharbada ematen dute)

saparra: saparra, abaoa

"Lau edo bost sapar atara neuntzesan ta yan, erlea be yan" - (Lau edo bost sapar atera nizkion eta jan, erlea ere jan)

"Umeak botate itunean, e, ostean, saparrak, ayek kendu in bea dakos" - (Umeak botatzen ditunean, ostean saparrak, haiek kendu egin behar zaizkio)

"Gurean iru edo batu ostesan niri erleak, umea botaten deunean kendu tapea ta ayek saparrak, erle bari taus ayek, utzik eta" - (Gurean hiru edo batu zizkidan niri erleak, umea botatzen duenean kendu tapa eta sapar haiek, erle barik daude haiek, hutsik eta)

17.7. TXAKURRA

amorrotoe: amorratua

arratoi txakurre: arratoi txakurra

"Gero emen txakur bi dekus, arratoi txakurrek eta" - (Gero hemen txakur bi dauzkagu, arratoi txakurrak eta)

arratonerue: arratoi txakurra

aulerioa, aulirioa alarau

"Aulerioa ixeten da, txakurren negarra les, negarra les, au-au! Ta ori geubean iten badeu, bueno! gure gastetan bildur bet, eta ollarrak kantetan badeu giau" - (Alaraua izaten da, txakurraren negarra legez, negarra legez, au-au! Eta hori gauean egiten badu, beno! Gure gastetan bildur bat, eta oilarrak kantatzen badu gehiago)

eusi: ahausia, zaunka

tomaki: txakurra uxatzeko erabiltzen den berba

txakur arra: txakur arra

txakurkumea: txakurkumea

txakurre: txakurra

"Txakurren martxan, ori, txakurre pe, eme bi badaus normal oten die, baye ar bi badaus, e, kontus!" - (Txakurren martxan, hori txakurrak ere, eme bi badaude normal egoten dira, baina ar bi badaude, kontuz!)

txakur emea: txakur emea

"Txakur emea esi lei ekarri se gero, txakurrek dustiek dabiltes atzean" - (Txakur emea ezin liteke ekarri ze gero txakurrak guztiak dabilte atzean)

urrumea: urrumada

17.8. KATUA

erpea: erpea, atzaparra

katarra: katarra

"Katarra da arra" - (Katarra da arra)

katue: katua

"Emen, e, batek, e, besteari katueri imin tzon kaskabela, katueri, eta gauetan ibilte san, e, biximodu biko etzea ixen sales, lastatien te ibilte san, ta kaskabela jotzen, ta beste aldekoak, e, danak ikeratute ser ete dan ser ete dan? Kaskabela!" - (Hemen, batek, besteari katuari ipini zion kaskabela, katuari, eta gauetan ibiltzen zen, bizimodu biko etxea izan zen lez, lastategian eta ibiltzen zen eta kaskabela jotzen, eta beste aldekoak, denak ikaratuta zer ote den zer ote den? Kaskabela?)

"Oin estaulako katu asko kanpoan, ostean len!" - (Orain ez dagoelako katu asko kanpoan, ostean lehen!)

"Gurean oin be bat badau baltza, baye, gure Yone Mirene pe katu baltza esteu gu ixeten" - (Gurean orain ere bat badago beltza, baina, gure Jone Mirenek ere katu beltza ez du gura izaten)

katu emea: katu emea

katukumea: katakumea

urrumea: urrumada

17.9. GAINERAKOAK

arra: arra

"Bueno ba arra pe bai kapeta situen" - (Beno ba arrak ere bai kapatzen zituzten)

emea: emea

"Oin emerik esteure kapetan, arrak bai baye emerik esteure kapetan" - (Orain emerik ez dute kapatzen, arrak bai baina emerik ez dute kapatzen)

errasea: enda, arraza

"Lenau, e, ollo surie baño, errasea ontxe dauen tipo antzekoa ote san, oin librean ibilte sien" - (Lehenago, oilo zuria baino, enda oraintxe dagoen tipo antzekoa egoten zen, orain libre ibiltzen ziren)

konejue: konexua, untxia

"Artu koneju betzuk, ollo batzuk, eta otza pasetan" - (Hartu konexu batzuk, oilo batzuk, eta hotza pasatzen)

korotza: gorotza

"Ori nasteu! erri gustien nasteko lekie txoriek ori, ori yaten yeudek eta orrek gero iten deun korotzetik edosein sagarra nai, tak! urteten yok orrek" - (Hori nahastu! herri guztian nahastuko lukete txoriek hori, hori jaten ditek eta horrek gero egiten duen gorotzetik edozein sagarra nahi, tak! irteten dik horrek)

paboa: indi oilarra

palomea: usoa

patoa: ahatea

pintea: pinta, espila

pintoa: pintoa, espilduna

"Surie da bat eta bestea marroya, pintoa, arraye modukoa" - (Zuria da bat eta bestea marroia, pintaduna, arrano modukoa)

pistie: piztia

"Pistiek en jeneral sera tie, surre tire, ta badakie nos datorren kanpoan badaus denporala nos datorren badakie pistiek" - (Piztiak gehienetan zerak dira, zuhurak dira, eta badakite noiz datorren kanpoan badaude denborala noiz datorren badakite piztiak)

"Olango pistieri estotziet egundo ikuturik in" - (Holako piztiari ez diet egundo ikuturik egin)

umea: kumea

18. NEKAZARITZA

Nekazaritza alorreko berbak banatzeko, jarduera bakoitzaren arabera sailkatzeko, ondoko azpi-atalak egin ditugu: lurra lantzeko tresnak, soro lanketa, basoa, egurra, belarra, otzarak, errota, labea, gurdia, asto garraioa eta gorta.

18.1. LURRA LANTZEKO TRESNAK

alper arrie: alper harria

"Alper arrie mokilek sapaltako ok" - (Alper harria mokilak zapaltzeko duk)

area: area

"Areakas bedarra en jeneral batzea san" - (Areekin belarra gehienetan batzen zen)

are ortza: are hortza

area mangue: area eskutilla, eskudela

armasoya: armazoia, egitura

bidurre: bidurra, ziorra

"Estoa iten da, bidurrekas" - (Estoa egiten da bidurrekin)

"Lelau bidurrekas baye ori ba, geuse sera san ori iteko" - (Lehenago bidurrekin baina hori ba, gauza zera zen hori egiteko)

enfardadorea, enfardadoria: enfardadorea

"Eiñarrrik bestera koite san, ta iten da oin be, nik euki dot, bedarra ein, eta makinea etorteko, enfardadorea etorteko, eta ein errayak, eta eurie koyu, ba denpora onean inte" - (Egin arren bestera hartzen zen, eta egiten da orain ere, nik eduki dut, belarra egin, eta makina etortzeko, enfardadorea etortzeko, eta egin lerroak, eta euria hartu, ba aro onean eginda)

eskudela: eskudela, soloko tresnen oralekua

"Eskudela, ori, egur berdea, suabe suabe koyu, ta bueltaka, bueltaka, bueltaka, sartu or, ta gero apurke apurke, apurke apurke bueltea emon ta gero bestean sartu" - (Eskudela, hori, egur berdea, suabe-suabe, koiu, eta bueltaka, bueltaka, bueltaka, sartu hor, eta gero apurka-apurka, apurka-apurka buelta eman eta gero bestean sartu)

estoa: estoa, narra; soroko mokilak hausteko erabiltzen zen tresna. Egurrezko armazoi baten bidurrez egiten zen behea.

"Estoa iteko igual, e, bidurrek daus, ba bost sei metro dekiesenak" - (Estoa egiteko beharbada, bidurak daude, ba bost sei metro dauzkatena)

"Estoa da ganean mokilek apurtako" - (Estoa da ganean mokilak apurtzeko)

exea: exea, pertika eta burdinazko aho bakarreko tresna

"Exea bai, etxean euki du guk eta" - (Exea bai, etxean eduki dugu guk eta)

"Exeas naborako prepareta san en jeneral" - (Exearekin arbirako prestatzen zen gehienetan)

itallea, itaillea, itille, itile: itaila

"Area edo itile paseu" - (Area edo itaila pasatu)

"Itallea pe klasea taus, e?" - (Itailak ere motak daude, e?)

itaurrean: itaurrean; soloko beharretan abereen lanabesaren aurretik ibili

itaurrekoa: itaurrekoa

karramarroa: karramarroa

katea: katea
"Or iten dako katea amarreu" - (Hor egiten zaio katea amarratu)

lan katea: lan katea
"Lan katea beste ser ba ta amarreute eroateko" - (Lan katea beste zer bat da amarratuta eroateko)

makinea: makina, goldea
"A makinea baño lelaukoa ixen san" - (Hura makina baino lehenagokoa izan zen)

markadora: markadora, soloan ildoak markatzeko erabiltzen den tresna.
"Ondiño amen be Derion be badau ortarikoa, markadora" - (Oraindino hamen ere Derion ere badago horretarikoa, markadora)

narra: narra; mokilak hausteko erabiltzen zen tresna
"Sufatoas ta kareas bota beratan, baldi betera, eta gero, asten danean arra bete ingeruen narra paseu, estoa, mokilek apurtako, eta gero, eltzean danean ebei serreas, altzeu eperdie gora, ta burue bajatu te, serreas ebei" - (Sulfatoarekin eta karearekin bota beratzen, balde batera, eta gero, hazten denean arra bete inguruan narra pasatu, estoa, mokilak apurtzeko, eta gero, heltzen denean ebaki zerrarekin, altxatu ipurdia gora, eta burua baxatu eta, zerrarekin ebaki)

"Gariak orixe deko, eraiten, eta gero, asten danean arra bete ingeruen, narra paseu" - (Gariak horixe dauka, eraiten, eta gero, hazten denean arra bete inguruan, narra pasatu)

ortza: hortza, erreminten burdinazko hortza
"Ortzak esaten gentxian orreri" - (Hortzak esaten geniean horiei)
"Lau ortzako bat san" - (Lau hortzeko bat zen)

pintxo narra: iltze narra
"Pintxo narra be bai, gero estoa, masue be bai noberak joteko" - (Iltze narra ere bai, gero estoa, mazoa ere bai norberak jotzeko)

segadorea: segadorea

subile: subila; arearen hortzak sartuta dauden makilen izena

tratora: traktorea
"Oin tratoras ite osules, ori tratoras, ba fasilau iten da" - (Orain traktorearekin egiten duzun lez, hori traktorearekin, ba errazago egiten da)

"Guk, e, tratora batekoa deku" - (Guk, traktorea batekoa daukagu)

trilladorea: triladorea
"Gari joten ibiltzen gintzesan motorraas, ba trilladora bat oki gendun te" - (Gari jotzen ibiltzen ginen motorrarekin, ba triladorea bat eduki genuen eta)

txilindroya: txilindroa

yorrrarie: jorrraria, porkera; arto ilaretan jorrrarako erabiltzen dena

18.2. SORO LANKETA

abonue: ongarria

agine: hagina, ogana; erremintei ahoan egiten zaiena

alanbrea: alanbrea, burdin haria
"Metxea sartu beasu alanbratxu beten edo" - (Metxa sartu behar duzu alanbretxo baten edo)

allea: kodaina ahoa

amarrea: amarra, lokarria
"Amarrek ondo ite sien barres ondo, e?" - (Amarrak ondo egiten ziren berriz ondo, e?)

angarillea: angarila, gauzak andan eroateko egiten den ohatila antzekoa
"Aori da, angarillea ixengo da ser bat asta bi egurrekas ta gero olas inte" - (Haori da, angarila izango da zer bat aste bi egurrekin eta gero oholarekin eginda)

anilloa: eraztuna
"Asteari in sulotxu bet, bere sera, sartzeko eta gero anilloas sertu" - (Astari egin zulo txo bat, bere zera, sartzeko eta gero eraztunarekin zertu)

arratzurre: arraitzurra, larraitzurra
"Arratzurre da bestea paño istuaoa ori da bestea paño istuaoa" - (Arraitzurra da besteak baino estuagoa hori da besteak baino estuagoa)

artesiek: inausketarako erabiltzen diren artaziak

arto joteko astoa: artoa jotzeko astoa

arto illeda: arto ilara

artzea: artza, zumitzez egineko galbahe antzekoa, indabak eta haizetara garbitzeko erabiltzen zen

"Artzea san bai artzea, a ite san" - (Artza zen bai artza, hura egiten zen)

asala: lurrari landu eta ostean egiten jakon azala; sarritan azal ona edo azal txarra esaten da

asal ona: azal ona

"Oin labre dosu, labreu, ta ak in bea deu lurrek, berotu, euskiek berotu, otzitu, euriek koyu, gero atzera siketu ori da sera, asal ona" - (Orain landu duzu, landu, eta hark egin behar du lurra, berotu, eguzkiak berotu, hoztu, euriak hartu, gero atzera sikatu hori da zera, azal ona)

asal txarra: azal txarra

"Asal txarra dau gogor dauenean lurre len ite seurien txilindroyegas, eta arek ixen siren gogorraok, eta arek eseuken iminten geurko moduen goso lurre" - (Azal txarra dago gogor dagoenean lurra lehen egiten zuten txilindroarekin, eta haiek izan ziren gogorrakoak, eta haiek ez zuten ipintzen gaurko moduan gozo lurra)

asatza: azatza; soroan ereiten ibiltzen denean, hazia non bota den jakiteko ezagungarri batzuk jartzen dira, horiexek dira azatzak

"Asatzak, bai, asatza tire an, asatza ametik eta orrartekoak" - (Asatzak, bai, azatzak dira han, azatza hamendik eta horrainokoak)

"Garie ereiteko igual, asatzak imini, lantzean txola bat galtzuas inte, markeu asatzak eta gero atzetik ereiten bat" - (Garia ereiteko berdin, azatzak ipini, lantzean txola bat galtzuarekin eginda, markatu azatzak eta gero atzetik ereiten bat)

"Bueno erein baño lenau iten gendusen, asatzak esate sien, edo palu betas, edo orri betzukas, olan imini iledak, gero ayen bitartean, nondi erein dosun yakiteko" - (Beno erein baino lehenago egiten genituen, azatzak esaten ziren, edo palo batekin, edo orri batzuekin, hola ipini iladak, gero haien bitartean, nondik erein duzun jakiteko)

aspela: azpela, multzoa

"Orduen berrogetamar aspelaas gurdie kargeu, eta konteute aspelak, be bai ote sien gurdie kargetako, aspigarrie ba ondo oten basan, ota ebeiten onak ixen, da

aspelak senbet edo, berrotamar edo irurogei aspelas, gurdie kargetako eta, ordun aspelak gure ixete sien" - (Orduan berrogeita hamar azpelekin gurdia kargatu, eta kontatuta aspelak, ere bai egoten ziren gurdia kargetzeko, azpigarria ba ondo egoten bazen, otea ebakitzen onak izan, eta aspelak zenbat edo, berrogeita hamar edo hirurogei azpelekin, gurdia kargetzeko eta, orduan aspelak gura izaten ziren)

astea: asta, kirtena; kodainarena eta garaiteko erremintena izaten da

astoa: artoa garantzeko ipurdia zuloz beterik zeukan kaxa bat erabiltzen zen; bertan artaburuak sartu eta mazo batekin jotzen ziren, kaxan burutxak lotzen ziren eta garaua ipurdiko zuloetatik jausten zen

asufrea: azufrea, sufrea

"Asufrea ite akon ori sertzeko" - (Sufrea egiten zitzaion hori zertzeko)

atxur andie: aitzur handia

atxur nausie: aitzur nagusia

atxurre: aitzurra

"Atxurre tekosus onek meak txikitxuek, ta beste batzuk anditxuaoak" - (Aitzurak dauzkazu mehe hauek txikitxoak, eta beste batzuk handitxoagoak)

atxur txikie: aitzur txikia

ayotza: aihotz; burdinazko matxete antzekoa

"Ayotza beste ba ta, ayotzak basorako esteu balio" - (Aihotza beste bat da, aihotzak basorako ez du balio)

"Ayotza ixengo da, ba, burni sati bet, eta astea beras einte" - (Aihotza izango da, ba, burdina zati bat, eta asta berarekin eginda)

barandea: baranda

"Palu luse bat, baranda luse batas, arek txingerrak atate sendusen" - (Palo luze bat, baranda luze batekin, txingar haiek ateratzen zenituen)

bedar metea: belar meta

belenea: belena, zabortegietako satsaren izena

"Belenea bai, belenea bai esetu dot" - (Belena bai, belena bai ezagutu dut)

"Ori, belenea ba, Dibillotik kamioyas ekarte seuren, ta ortxe Larrondon on san, e, olan kanpa andi bet, asko orra ekarteuren, ta gero ortik ekarten gendun, e, ba gu ixedunak, da, ba, gurdikadea, peseta bi

pageta san" - (Hori, belena ba, Dibillotik kamioiarekin ekartzen zuten, eta hortxe Larrondon egon zen, hola landa handi bat, asko horra ekartzen zuten, eta gero hortik ekartzen genuen, ba gura izaten duenak, eta, ba, gurdikada, pezeta bi ordaintzen zen)

"Ba esate gurien Bilbon antza jardinetan, nondik estai pa, ori txomin bedarra, belenea dakasue? Kontus orre pe! Orre takar, e, ba txomin bedarra" - (Ba esaten zuten Bilbon antza lorategietan nondik ez dakit ba, txomin belar hori, belena dakarue? Kontuz horrek ere! Horrek dakar, ba txomin belarra)

boleara: boleara; ereiteko era

"Emen olan esaten geuntzen eskues botaten gendun olan, boleara" - (Hemen hola esaten genion eskuz botatzen genuen hola, boleara)

botikea: 1. botika, ongarri kimikoaren gainean esaten da. 2. mamarroak hiltzeko erabiltzen den hilgarri kimikoa

"Porrureko botaten tzu botike bat" - (Porrurako botatzen diogu botika bat)

"Yan iten deure, garue yan iten deure, oruge berdeak, badau orrentza pe botikea" - (Jan egiten dute, garaua jan egiten dute, eruge berdeak, badago horrentzat ere botika)

dorue: dorua, erreminten buruaren atzea

"Orrek, usena deko, atxurren sera, suloa, dorue" - (Horrek, izena dauka, aitzurraren zera, zuloa, dorua)

erramala: erramalea

"Arri bet saku beten sartute, eta gero erramal batas gora igon batek, etze ganera, andik sartze seun sera" - (Harri bat zaku baten sartuta, eta gero erramale batekin gora igo batek, etxe gainera, handik sartzen zuen zera)

erraturea, erreturea: erratura

"Erraturek ite sien, baye oin esta erraturerik, oin ba, sabor batzukas ingosu sue ta ari erraturea esaten dako baye, lelau ite san, otea ebaite san basoan, eta imite san otea illedan, ta areri gero lurre botate yakon ganera, ta gero a ite san erre, ta gero a ite san sabaldu, erreturea ori esate yakon" - (Erraturak egiten ziren, baina orain ez da erraturarik, orain ba, zabor batzuekin egingo duzu sua eta hari erratura esaten zaio baina, lehenago egiten zen, otea

ebakitzen zen basoan, eta ipintzen zen otea ilaran, eta hari gero lurra botatzen zitzaion gainera, eta gero hura egiten zen erre, eta gero hura egiten zen zabaldu, erratura hori esaten zitzaion)

"Erraturea geuse ona dala esaten deure, atxine ite ixen da" - (Erratura gauza ona dela esaten dute, antzina egiten izan da)

erremintea, erramintea: lanabesa, erreminta

"Lelau ba ganaduas ite san, bear asko in bear eun noberak atzeti erremintea yagon bear ixete san" - (Lehenago ba ganaduekin egiten zen, behar asko egin behar zuen norberak atzetik erreminta yagon behar izaten zen)

"Orrek ekarri eurien Frantzitik ortariko makine bat, ta gure osabeak ikusi euen an, eta, nondi edo andi topeu bea deuela, eta lelango makinea, gero i eurien Ajuria Biturien, asi san orrek erramintak iten" - (Horiek ekarri zuten Frantziatik horietariko makina bat, eta gure osabak ikusi zuen han, eta, nondi edo handik topatu behar duela, eta lehenengo makina, gero egin zuten Ajuria Gasteizen, hasi zen erreminta horiek egiten)

esea: esea, erremolatxa txikertzeko erabiltzen zen erremintaren izena

esku tire: esku tiroa, ereiteko era

eskurti: esku tiroa, ereiteko era

"Orixe bai, lengoan bota gentzena, baye, bota, bota onek esa osten botateko olan egalera, ta oin bakixu ser inte dekoten? Arek, tomateak atara gendusen egunean esa neuntzen, Iñaki! Esa neuntzen, oneri eskurti bota bea dakos, ta bakixu ser in neuntzen, piperra inketekoari ba orduen bota, oin, e, piperra inketakoak esteko, ta kotxo badau, ak, dañue an deko, se piperra inkeu te gero, lenau" - (Horixe bai, lehenago bota geniona, baina, bota, bota honek esan zidan botatzeko hola hegalera, eta orain badakizu zer eginda daukadan? Haiiek, tomateak atera genituen egunean esan nion, Iñaki! Esan nion, honi esku tiroan bota behar zaizkio, eta badakizu zer egin nion, piperra inkatzekoari ba orduan bota, orain, piperra inkatzekoak ez dauka, eta kotxoa badago, hark, kaltea han dauka, ze piperra inkatu eta gero, lehenago)

estakea: taketa

"Batzuri iminte akien, ba estaka batzuk sartu olan, ta aren kontrara in, bean asi, sabalau ta gorantzaz istutxuau, istutxuau, istutxuau" - (Batzuei ipintzen zitzaizen, ba taket batzuk sartu hola, eta haren kontrara egin, behean hasi, zabalago eta gorantz estutxoago, estutxoago, estutxoago)

"Berreun estaka edo, ekarri neusen urte baten" - (Berrehun taket edo, ekarri nituen urte baten)

fardoa: fardoa

"Eurten negue gogorra yatorrek baye nik onenbeste fardo yekoat lastatien" - (Aurten negua gogorra zatorrek baina nik honenbeste fardo zaukaat lastategian)

"Akabuen fardoak inte dekoas" - (Azkenean fardoak eginda dauzkat)

galtzu fardoa: galtzu fardoa

girtena: kirtena

illedea, iledea: ilada

"Amar gisalaneko soloa? Saspi illeda imi neusen urte baten" - (Hamar gizelaneko soloa? Zazpi ilada ipini nituen urte baten)

"Salte akabeta sanean illedea, atzera etorri te nobera pareu, bestea salte dien" - (Saltatu amaitzen zenean ilara, atzera etorri eta norbera paratu, bestea salta dezaten)

inbernaderoa: berotegia

"Eskapeutze fameliak eta, or dekos inbernaderoak, amabost edo amasei inbernadero ta" - (Eskapatu diote fameliak eta, hor dauzka berotegiak, hamabost edo hamasei berotegi eta)

itaya: igitaia

"Itayan klasera deko orrek" - (Igitaiaren erara dauka horrek)

kakoa: kakoa

karea: karea

"Geu pe edonos bota dotzu karea, baye karea be bota beako beran meiden" - (Geuk ere inoiz bota diogu karea, baina karea ere bota behar zaio beraren neurrian)

"Ta kamiokadea sarri ekarri dot nik, e? karea, andik ekarri, eta soloan bota" - (Eta kamioikada sarri ekarri dut nik, e? karea, handik ekarri, eta soloan bota)

"Karabiek, e, basoatan atxineko suloa pai baye, suloa pai, basoan daus, baye etxoat, nik amen etxoat esetu karea iten" - (Karobiak, basoetan antzinako zuloak bai baina, zuloak bai, basoan daude, baina ez

diat, nik hamen ez diat ezagutu karea egiten)

kare eutze: kare hautsa

"Gero a sikitako, emote akon kare apur bet, kare eutzas nasteu ite san" - (Gero hura sikitazeko, ematen zitzaion kare apur bat, kare hautsarekin nahastu egiten zen)

kargea: karga, zama

karpana: karpana, zaran mota

"Karpanak dires, sestoak, karpanak" - (Karpanak dira, zaranak, karpanak)

"Karpanak esate yakosan sestoari, karpana da sestoa" - (Karpanak esaten zitzaizkien otzarei, karpana da otzara)

kodaña agoa: kodaina ahoa

kodaña astea: kodaina asta

kodaña laburre: kodaina laburra, ote kodaina

kodaña motxa: kodaina motxa, ote kodaina

kodaña txatoa: kodaina motxa, ote kodaina

"Kodaña txatoa esate otzien areri" - (Kodaina motxa esaten zioten hari)

kodaña: kodaina

"Baye ite san seinde, kodaña bate les ebei, ebei ite san" - (Baina egiten zen zeinda, kodaina baten legez ebaki, ebaki egiten zen)

"Kodaña txikitxu et, andi barik txikerra, areas asteas ebeite san" - (Kodaina txikitxo bat, handi barik txikerra, asta harekin ebakitzen zen)

kosetxea: uzta

"Baya gero giau gure badosu koyu parran, parran dator kosetxa giau" - (Baina gero gehiago gura baduzu koiu parran, parran dator uzta gehiago)

"Aurten estot in, oin, e, akabuko kosetxan estot in, orreas, e, sertu" - (Aurten ez dut egin, orain, azken uztan ez dut egin, horrekin, zertu)

laye: laia

"Lelau layekas laye bakixu ser dan? Lelau olan ite sien layetu gero, gero etor sien onek makinok eta da kasue, selan dan kasue, neure osaba batek ekarriuen emen lelangos" - (Lehenago laiekin laia badakizu zer den? Lehenago hola egiten ziren laiatu gero, gero etorri ziren hauek makinok eta da kasua, zelan den kasua, neure osaba batek ekarri zuen hemen lehenengoz)

makinea: makina

masetea: mazeta, mokil ostea; mokilak hausteko erabiltzen zena

mas parrea: mahats parra

masue: mazo, 1. mokilak hausteko erabiltzen zena. 2. astoan artaburuak garantzeko erabiltzen zena

"Guk iten gendun saku beten sartu eta masuas jo" - (Guk egiten genuen zaku baten sartu eta mazoarekin jo)

"Eutze giau ataten deu, eta gero yorratan, ta yorra batas es, e? Igual bi, ta arean badau mokilik, masuas jo, yorratu orduko masuas jo, ta gero, goikoa, kabilea, loradune, apurtu" - (Hautsa gehiago ateratzen du, eta gero jorretan, eta jorra batekin ez, e? Beharbada bi, eta arean badago mokilik, mazoarekin jo, jorratu orduko mazoarekin jo, eta gero, goikoa, kabila, loreduna, apurtu)

matxeta: matxetea

"Matxeta da seinde serrea moduko bat, orrek, e, goitik, e, sera, sasiak eta ingiruek sertuteko, asta andi batas, areas ebei te bajatu bera" - (Matxetea da zeinda zerra moduko bat, horiek, goitik, zera, sasiak eta inguruak zertzeko, asta handi batekin, harekin ebaki eta baxatu behera)

mendue: mendua

"Mendue be bai neuk in dot arean baye" - (Mendua ere bai neuk egin dut arean baina)

"Orrek menduek ein bea dire, arboleari ebei, ebei arboleari ba, selau mendu gu dosun emen sartu, ta gero onek istutu in bea dire, amarreu, aixirik koyu estien edo" - (Mendu horiek egin behar dira, arbolari ebaki, ebaki arbolari ba, zelako mendu gura duzun hemen sartu, eta gero hauek estutu egin behar dira, amarratu, haizerik koiu ez dezaten edo)

metea: meta

"Metea selan ixengo da? Ametik asi sabaltxuau gero apurke apurke istutan istutan, olan" - (Meta zelan izango da? Hamendik hasi zabaltxoago gero apurka-apurka estutzen estutzen, hola)

"Gero aurekas, buruek gorantza diela, metak ein, metak, ta joteko sasoyan, sanjuana ta ingeruen, imini, bogadea garbita san, e, arrie, portalean, ta ekarri, ta yo" - (Gero eurekin, buruak gorantz direla, metak egin, metak, eta jotzeko sasoian, san juana eta

inguruan, ipini, bogada garbitzen zen, harria, atarian, eta ekarri, eta jo)

metillea: meta txikerra

mokile: mokila

"Alper arrie mokilek sapaltako ok" - (Alper harria mokilak zapaltzeko duk)

motorra: motorra

ollo satza: oilo satsa

"Olo satza gogorra da, indertzue" - (Oilo satsa gogorra da, indartsua)

ota metea: ote meta

otzarea: otzara

"Erregalue bai, otzarea beterik!" - (Oparia bai, otzara beterik!)

"Orrek yoaten sien, serera, ba plasara, baye ara gora ba, Esantxera, Esantxera yoate sien, euren otzaratxuek euren seatoan ta iminite, ta majarik yantzite dotore yoate sien orrek! Bueno! Orrek bai, or ote san mallukiten! A ixen san!" - (Horiek joaten ziren, zerera, ba plazara, baina hara gora ba, Esantxera, Esantxera joaten ziren, euren otzaratxoak euren zaranetan eta ipinita, eta majorik jantzita dotore joaten ziren horiek! Beno! Horiek bai, hor egoten zen mailukitan! Hura izan zen!)

parrea: parra

"Orrek bakixu non oten dien asko? Matzean parran be bai" - (Horiek badakizu non egoten diren asko? Mahatsaren parran ere bai)

"Artoas be bai te parran be bai" - (Artoarekin ere bai eta parran ere bai)

"Nik or, e, euso bateri i nontzen parrea, berandu baten, beti ite nontzen parrea, ta gero pase in dakon, eta ixte san martien asikerea" - (Nik hor, auzo bati egin nion parra, berandu baten, beti egiten nion parra, eta gero pasatu egin zitzaion, eta izan zen martiaren hasiera)

"Ointxe urte bis onantza asi dates emoten, iges, eneusen, lau edo bost edo baño eseun atara, baye eurten, e, parrak amarre doas, bueno lengo beste estot in be in, e?" - (Oraintxe urte biz honantz hasi zaizkit ematen, iaz, ez nituen, lau edo bost edo baino ez zuen atera, baina aurten, parrak amarratu ditut, beno lehengo beste ez dut egin ere egin, e?)

pika malluek: pika mailu kodaina pikatzeko erabiltzen diren mailu eta ingudea

"Pike mallue taus ortarako" - (Pika mailuak daude horretarako)

piper txortea: piper txorta

poda artesiek: inaus artaziak

polea: polea

sarana: zarana

"Sarana esaten geuntzen guk" - (Zarana esaten genion guk)

"Lau bost biderres, soloa, alde baterik bestera pastan, artoa patzean, saranatara, selan elduten doan alan batu, satike satike, alde andie deko, e? Sulo batetik bestera be elduteko" - (Lau bost biderrez, soroa, alde batetik bestera pasatzen, artoak batzen, zaranetara, zelan heltzen doan hala batu, zatika-zatika, alde handia dauka, e? Zulo batetik bestera ere heltzeko)

sardea: sarda

"Nik beti jotzen dot sardeas, jo, aireu, jo, aireu" - (Nik beti jotzen dut sardearekin, jo, airatu, jo, airatu)

"Eskei, lelengo ta gero sardeas, bueno paluas lelau, len jote sien, baye oin, oin, e, sardeas jotzen da" - (Eskegi, lehenengo eta gero sardarekin, beno paloarekin lehenago, lehen jotzen ziren, baina orain, orain, sardarekin jotzen da)

sastaye: sastegia, sats-lekua

"Sastaye esaten dako, ori esate gun gure aititek" - (Sastegia esaten zaio, hori esaten zuen gure aitaitak)

satza: satsa

"Satz senbe ta giau ogoto" - (Satsa zenbat eta gehiago hobeto)

"Satzak, e, lenau lenau, urtean biten" - (Satsak, lehenago lehenago, urtean bitan)

serrea: zerra, igitaia

"Serrea esaten geuntzen guk etzean, galtzue txikitako serrea esaten gontzen da" - (Zerra esaten genion guk etxean, galtzua txikitzeko zerra esaten genion)

sestillea: otzara txikerra eskuan erabiltzekoa

"Sakristue aras sestilleas atzean ibilte sien" - (Sakristaua otzaratxo harekin atzean ibiltzen ziren)

sestoa: zarana

"Orra biarrean yoate siren sestoa" - (Horra beharrean joaten ziren zaranekin)

siminterea, siminderea: mintegia

"Gixonari beste ingeru kargu artu tzet simindereari" - (Gizonari beste inguru kargu hartu diot mintegiari)

"Aurten, e, in deu, san jose ingeruen bero andiek in tus, eta simindereak bear ixeten deu beroa, ernetako, eta erne ondo i akun, erne, baye gero koi tus onek otzak eta otzak eta otzak, eta orrek" - (Aurten, egin du, san jose inguruan bero handiak egin ditu, eta mintegiak behar izaten du beroa, ernetzeko, eta erne ondo egin zitzaigun, erne, baina gero hartu ditu hotz hauek, eta hotzak eta hotzak, eta horiek)

sokea: soka

sortijea: kodainaren eraztuna, kirtena sartzeko lekua

"Au da kodaña agoa, au da astea, ta emen deko sortijea, ta ori sortijea iten da estutu" - (Hau da kodaina ahoa, hau da astea, eta hemen dauka sustraia, eta sustrai hori egiten da estutu)

soye: zohia

"Gero atzenean aputxu bet, lotze sanean soye aputxu bet domineute, gero estoa" - (Gero atzenean apurtxo bat, lotzen zenean zohia apurtxo bat menderatuta, gero estoa)

sufatadora: sulfatagailua

sufatoa, sulfatoa: sulfatoa

"Irekatzi ostien ba, koño! Lenango urteetan ba, sufatoa in bea dakie" - (Irakatsi zidaten ba, koino! Lehenengo urteetan ba, sulfatoa egin behar zaie)

"Ori bai, ori imite san, beratu esan iten arean? Eta sera apur beteas beratu oneas, ur apur betas eta ser ixite san bestea? Sulfatoa" - (Hori bai, hori ipintzen zen, beratu ez zen egiten arean? Eta zer apur batekin beratu honekin, ur apur batekin eta zer izaten zen bestea? Sulfatoa)

sufato arrie: sulfato harria

"Gero botikek etxa, nik atxineko botikea edo emen ikusi dotena, sufato arrie, kareas nasteta, oin, e, klase asko daus, e?" - (Gero botikak bota, nik antzinako botika edo hemen ikusi dudana, sulfato harria, karearekin nahastuta, orain, mota asko daude, e?)

sulora: zulora, ereiteko era

"Artoa sulora erein bea da" - (Artoa zulora erein behar da)

surkoa: ildoa

tenplea: tenplea, lurraren egoera

txoriabolea: txorijagola, txorimaloa

"Abie i ostien txoriabolen" - (Habia egin zidaten txori jagolean)

txorkoa: txorkoa, sotoa

"Se porejemplo ite osu suloa, eta botaten bosus, saspí botaten bosus, iru edo lau isten dana bear isten dana, ondo badator, e? Ondo espator, e, ba danak igual antzean lotzean die, se gurean iderra be aurten bigarrenes ereinte dau, ta geur be esan dotzet oneri, etzean neuk itearren, amasortzi, sulo die, amasortzi txorko die, iderra ereinte, len be euki gendusen ta barris erein bear ixen dot, ta geur esan tzet oneri, errebiste in dot, e? Yoan ta, eta esan tzet batu gusu pititxu bet, pititxu bet esan tzet, e, sera, se olan euri in ostean ereiten dot, e, eta ure botaten espadotzu esta ernetan, Beatrisek esa oskun lengoan euren Karmelok iru biderres erein deuela, baye gausek, e, lagundu in bear deu, esteu balio erein inek bakarrik" - (Ze esaterako egiten duzu zuloa, eta botatzen badituzu, zazpi botatzen badituzu, hiru edo lau izaten dena behar izaten dena, ondo badator, e? Ondo ez badator, ba denak berdín antzean lotzen dira, ze gurean ilarra ere aurten bigarrenez ereinda dago, eta gaur ere esan diot honi, etxean neuk egitearren, hamazortzi, zulo dira, hamazortzi txorko dira, ilarra ereinda, lehen ere eduki genituen eta berriz erein behar izan dut, eta gaur esan diot batu gura duzu pititxo bat, pititxo bat esan diot, zera, ze hola euri egin ostean ereiten dut, eta ura botatzen ez badiogu ez da ernetzen, Beatrisek esan zigun lehengoan euren Karmelok hiru biderrez erein duela, baina gauzak, lagundu egin behar du, ez du balio erein eginak bakarrik)

txorkora: txorkora, ereiteko era

txortea: txorta

"Piperrak aor daus gurean eskeite, eta piperrak onen onenak asi kentzeako, iten doas eskei, eta gero ite otziet, e, lasutxu bet imini, txorteari igerri itearren sein dan, igerri itearren sein dan aparte otena, se gero, atzekoak, e, ba in iten dus, badausela ta ba bota estearren eskeiten dus, baye onen onenari kentze ako, ite otzet gero txole in, bere sarte in, eta gero, ser bat imini gero, seña bat imini porejemplo, edozein, trapu sati bet, ba igertako, sein dan" - (Piperrak haor daude gurean eskegita, eta piperrak onen onenak hazi

kentzeko, egiten ditut eskegi, eta gero egiten diet, lazutxo bat ipini, txortari igarri egitearren zein den, igarri egitearren zen den apartatu dudana, ze gero, atzekoak, ba egin egiten ditugu, badaudela eta ba ez botatzearren eskegitzen ditugu, baina onen onenari kentzen zaio, egiten diot gero txola egin, bere txorta egin, eta gero, zer bat ipini gero, seinale bat ipini esaterako, edozein, trapu zati bat, ba igartzeko, zein den)

unturea: menduak egiteko egiten den nahastea erretxinarekin eta koipearekin

yibitea: jibitea, indabak jotzeko erabiltzen zen erreminta, izatez makila bi ziren uhal batekin lotuta

yorraye: jorraia

"Orre tekosus atxurrek, yorarako atxurrek, ta beste batzuk badie metxuaok, sera, landara tausén lekuen ta, andie esi lei sartu an, t'orrek txikitxuek yorrayek edo, orrek, txikitxuaok, an landara artean ibilteko die" - (Horiek dauzkazu aitzurrak, jorarako aitzurrak, eta beste batzuk badira mehetxoagoak, zera, landareak dauden lekuan eta, handia ezin liteke sartu han, eta horiek txikitxoak jorraiak edo, horiek, txikitxoagoak, han landare artean ibiltzeko dira)

yungedea: jungadea, ingudea kodaina pikatzeko lurrean sartzen dena

18.3. BASOA

agoa: ahoa, aizkoraren ahoa

askorea, askoria: aizkora

"Askoreas atarate yotxien kokotean iminteko lekue ta gero adarra sujetetako lekue formoyas" - (Aizkoarekin ateratzen zioaten kokotean ipintzeko lekua eta gero adarrari eusteko lekua formoiarekin)

"Ori, ori askorea da en jeneral tiritan tzena, askorea gora adi imini, ta ak tiritu iten tzela, lelau imite sien orrek geusek" - (Hori, aizkora hori da gehienetan tiratzen diona, aizkora gora adi ipini, eta hark tiratu egiten diola, lehenago ipintzen ziren gauza horiek)

astea: asta; aizkoraren kirtena

astillea: ezpal txikia

"Aorrek astille tire sertu iten dienak, sabaldu"
- (Haoriek ezpalak dira zertu egiten direnak, zabaldu)

dorue: dorua, aizkora edo aitzurren buruan ahoaren kontrako alderdia

egur berdea: egur berdea, sikatu bakoa

egur kargea: egur karga

egurre: egurra

"Egur andi beten, irek imini, amarreute ta busti an, ayek irek, ta areas, garbitu" - (Egur handi baten, irak ipini, amarratuta eta busti han, ira haiek, eta harekin, garbitu)

egur sikue: egur sikua

"Egur sikue tekos orrek" - (Egur sikuak dauzka horiek)

garrotea: egur zamak lotzeko erabiltzen den egurra, katea estutzeko balio du

kargillea: egur zama

"Mimenak, e, parrak ebeiten dienean amarretako, ta basoan, e, kargillek ite sienean, kargillek amarretako, aretxas edo urretxas ite sienean be amarreu baye, mimena ote sanean, eta gero matza amarretako, podetan danean, matza amarretako mimena" - (Mihimenak, parrak ebakitzen direnean lotzeko, eta basoan, kargilak egiten zirenean, kargilak lotzeko, haritzarekin edo hurritzarekin egiten zirenean ere lotu baina, mihimena egoten zenean, eta gero mahatsa lotzeko, inausten denean, mahatsa lotzeko mihimena)

kuñea: ziria

"Kuñek, ayek sabalteko dire" - (Ziriak, haiek zabaltzeko dira)

mallue: mailua

mangue: girtena

matxeta: matxetea

"Matxeta da bat, t'ori beste ori da beste geuse bat, seinde kodaña moduen" - (Matxetea da bat, eta hori beste hori da beste gauza bat, zeinda kodaina moduan)

pikadora: pikadora, taukia; egurra txikertzeko erabiltzen den enborra

podea: inausketa

"Au itxi in bea da, se amen podarako emen ondo dator ta, noberak ikusi bea deu" - (Hau utzi egin behar da, ze hamen inausketarako hemen ondo dator eta, norberak ikusi behar du)

porrea: porra, mailu modukoa baino handiagoa

"Ayekas kuñekas, jo porreas, ta ayekas sabaldu" - (Ziri haiekin, jo porrarekin, eta haiekin zabaldu)

sospela: zozpala, ezpala

trontzea: trontza

"Or ganean iminten tzue, sera dau, ba iminteko aparato bat, inte ortarako, apartekoa inte, ta an goyen iminten deure ori, an goyen, an aparatoan ganean, ta gero trontzeas, bata goitik, ta bestea betik, ebeite yeuren" - (Hor gainean ipintzen dizute, zera dago, ba ipintzeko aparailu bat, eginda horretarako, apartekoa eginda, eta han goian ipintzen dute hori, han goian, han aparailuaren gainean, eta gero trontzarekin, bata goitik, eta bestea behetik, ebakitzen zuten)

"A ite san, ite san, ba, por ejemplo, orra bota gu da, arbolea, emeti ite san askoreas kapeu, ta gero emeti trontzeas ebei, ta gero orren faltara yoate san orra" - (Hura egiten zen, egiten zen, ba, esaterako, horra bota gura da, arbola, hemendik egiten zen aizkorarekin kapatu, eta gero hemendik trontzarekin ebaki, eta gero horren faltara joaten zen horra)

trontzadorea: trontzadorea

trontzaserrea: trontza-zerra

"Trontzaserrea batek alde bateti besteari tiritu" - (Trontza-zerra batek alde batetik besteari tiratu)

18.4. ERROTA

baya: bahea

"Bayati pase barik egote sana, bai" - (Bahetik pasatu barik egoten zena, bai)

errotarie: errotaria

"Errotarie pai, amen serean dekosus, amen parke tenolojikitik yoanta dekosu errotea ondikarren" - (Errotariak bai, hamen zerean dauzkazu, hamen parke teknologikitik joanda daukazu errota oraindikarren)

errotea: errota

"Errotak emen asko on sien, Derion bat, bi, iru, iru errota on san Derion, eta iru errotatik ba paño estau, gaur ba tau bear eiten estauela urteak daroas, urteak! Berrogei urte bai, badaroas bear ein esteuela" - (Errotak hemen asko egon

ziren, *Derion bat, bi, hiru, hiru errota egon zen Derion, eta hiru errotatik bat baino ez dago, gaur bat dago behar egiten ez dagoela urteak daroatza, urteak! Berrogei urte bai, badaroatza behar egin ez duela)*

"Or dekosue, errotea ta, geur be bear iten deuna" - (Hor daukazue, errota eta, gaur ere behar egiten duena)

galbaya: galbahea

kaltzea: kaltzea, ura andaparara eroateko bidea

"Besteak, e, kaltzea, saldu ei euen, oneri abadeari, oin estaus abadea pe baye, abadeari saldu tzien" - (Besteak, kaltzea, saldu egin zuen, hauei abadeei, orain ez daude abadeak ere baina, abadeei saldu zien)

kanala: harriaren kanala

sakue: zakua

"Saku bet iminten dako" - (Zaku bat ipintzen zaio)

saku kordela: zaku kordela

sorroa: zorroa

"Arek artute situsen sorroak buruen" - (Hark hartzen zituen zorroak buruan)

trigerue: trigerua, galbahea

"Trigeruas be bai, nik trigeruas iten dot, endemas axea dauenean, axea nondik dator, andik, aireu, ta axeak garbitan deu" - (Trigeruarekin ere bai, nik trigeruarekin egiten dut, gainera haizea dagoenean, haizea nondik dator, handik, airatu, eta haizeak garbitzen du)

"Trigerue san, garuentzat, esate baterako ba artoa garbituteko, edo indabea garbituteko, ta gero ote san urunentzat galbaya, a san, ba sarea fin fin fine, ba saye lotu diton goyen da urune bajatu diton bera" - (Trigerua zen, garauentzat, esate baterako ba artoa garbitzeko, edo indaba garbitzeko, eta gero egoten zen irinarentzat galbahea, hura zen, ba sarea fin-fin-fina, ba zahia lotu dadin goian eta irina baxatu dadin behera)

18.5. LABEA

basnerea, basinerea: basenera, irakaz egiten zen ginarra modukoa, hau busti eta labea beronekin garbitzen zen

"Gero beste palu luse bateri puntan irek amarreu da a san basnerea, areas garbitu, te ite san labea ixi, ba atear, tapa batas, ta eukite san a, ba bost bat minutu ingeruen berorik gogorrena yoan diton" - (Gero beste palo luze bati puntan irak amarratu eta hura zen basenera, harekin garbitu, eta egiten zen labea itxi, ba atearekin, tapa batekin, eta edukitzen zen hura, ba bost bat minutu inguruan berorik gogorrena joan dadin)

belekie, birikie: belakia, labean txingarrak ateratzeko eta artoari buelta eragiteko erabiltzen zen makila luzea

"Belekie bai esaten dakon" - (Belakia bai esaten zitzaion)

"Labasue berotuten danean gero atara in bear ixeten die, ta ola ser bateas oten die, birikie esaten tzue" - (Labasua berotzen danean gero atera egin behar izaten dira, eta ohol zer batekin egoten dira, belakia esaten diogu)

"A ite sendun belekias atara" - (Hura egiten zenuen belakiarekin atera)

"Gero atarate sendusen arek eutzek seraas belekias" - (Gero ateratzen zenituen hauts haiek zerarekin belakiarekin)

bidoya: bidoia, labean gauzak erretzeko erabiltzen zena

labagarra: labagarra

labagarrie: labagarria, laban sua egiteko erabiltzen den materiala

"Areas sartze san labagarrie, da gero a, erretan yoate sanean, yoate san ba, berotu artean" - (Harekin sartzen zen labagarria, eta gero hura, erretzen joaten zenean, joaten zen ba, berotu artean)

labako tapea: labeko estalkia

labasue: labasua

"Labea neu pe in dot labasue" - (Labea neuk ere egin dut labasua)

"Labasue ite san orduen labasue etzean" - (Labasua egiten zen orduan labasua etxean)

"Gero emen, e, buelta onetan, piñue on san asko, da piñu erramakas ite san ori bearrori, labasue" - (Gero hemen, buelta honetan, pinua egon zen asko, eta pinu arramekin egiten zen behar hori, labasua)

labea: labea

"Ba, labean atean, labean atean asten sanean kanpokalderdirantza suritan, orduen ya

ladrillue, ladrillue suritan aste sanean, orduen ya, ondo oten san" - (Ba, labearen atean, labearen atean hasten zenean kanpoko alderdirantz zuzitzen, orduan ja adreilua, adreilua zuzitzen hasten zenean, orduan ja, ondo egoten zen)

palea: para

"Palea, palea ibilte san" - (Para, para ibiltzen zen)

"Gero palea ote san" - (Gero para egoten zen)

"Ta gero egote san palea, bueltea emoteko, artoari" - (Eta gero egoten zen para, buelta emateko, artoari)

"Artoak imini ondo ta andi bos minutu amar minutu barru ite akon, paseu estitesan lar beroas bueltatxu bet emon sereas paleas" - (Artoak ipini ondo eta handik bost minutu hamar minutu barru egiten zitzaion, pasatu ez daitezzen lar beroarekin bueltatxu bat eman zerarekin pararekin)

tapea: labeko estalkia

"Gero ite akon geubean, guk en jeneral ori iten geuntzen, imini tapea eta basa bustineas xixi ayek alboak" - (Gero egiten zitzaion gauean, guk gehienetan hori egiten genion, ipini tapa eta basa buztinarekin itxi albo haiek)

urkullue, urkulue: urkulua, egurrezko sarda otea labean sartzekoa

"Laban lelango urkulue, sartzeta serak, otea edo egurre edo, sartzeta, ta gero, aregas sartzetan die" - (Labean lehenengo urkulua, sartzeta zerak, otea edo egurre edo, sartzeta, eta gero harekin sartzeten dira)

18.6. GARRAIOA

akarra: atzakarra, gurkamaren atzeko makila

"Bai baye ori esta espatea, ori akarra" - (Bai baina hori ez da ezpata, hori akerra)

akulue: akuilua, ganadua kinatzeko erabiltzen den makila

aldamena: aldamena, gurkamaren alboetan dauden makilak

aparejue: aparejua

"Ya, aistuten be badoa baye, ba fasile da! beran aparejue iminten dako ba saku bet iminte sakon, e, aspitik, ta aparejue ganetik, gero sintxoia, sinture ser bategas estutu, ta gero karpanak, karpanak esate

geuntzen, arek amarreta egoten siren ta bota ta" - (Ja, ahazten ere badoa baina, ba erreza da! beraren aparejua ipintzen zaio ba zaku bat ipintzen zitzaion, azpitik, eta aparejua gainetik, gero zintoa, gerriko uhal zer batekin estutu, eta gero karpanak, karpanak esaten genien, haiek amarratuta egoten ziren eta bota eta)

aspiola: azpi ohola, garraio batzuetarako gurkamaren azpiko aldean ipintzen diren oholak

asto karpana: asto karpana, asto zarana

atzeko sotza: atzeko larakoa

banastea: banasta

"Eta andik ekarte nau banastea, Bilbora ibilte sana? Banasta lusea, ortariko kapasak in artean, ser baten, saku beten, ta gero areri ixera andi bet, umeak an oteko" - (Eta handik ekarrita nago banasta, Bilbora ibiltzen zena? Banasta luzea, horietariko kapaxak egin artean, zer baten, eta gero hari izara handi bat, umeak han egoteko)

bastea: basta

"Bastea ba, aparejue bera da, bastea, bastea, bai astoana, astoa edo kaballoana, kaballoa euki gendun guk eta!" - (Basta ba, aparejua bera da, basta, basta, bai astoarena, astoa edo zaldiaarena, zaldia eduki genuen guk eta!)

bei busterrie: behi buztarria

borlea: borla, piztina

burneisko erruedea: burdinazko txirrinka

"Gero ba, es otzien itxi kanposantuen sartzetan, gurdi orrek, burneisko erruedak, orri, es otzien itxiten sartzetan, eta gomasko erruedak imini estearren, gurdieri guk, ba orduen ba, gastue dala andie ta, itxi geuntzen bearrari ya iten, gero kamioyakas asi siren, e, sartzeten" - (Gero ba, ez zieten utzi kanposantuan sartzeten, gurdi horiek, burdinazko txirringak, horri, ez zieten uzten sartzeten, eta gomazko txirringak ez ipintzearen, gurdinari guk, ba orduan ba, gastua dela handia eta, utzi genion beharrari ja egiten, gero kamioiekin hasi ziren, sartzeten)

busterri bakarra: buztarri bakarra

"Busterri bakarra, a da, arto illedan ta yorrrarie pasetako" - (Buztarri bakarra, hura da, arto ilaran eta jorraria pasatzeko)

"Arto bitartetik pastako, beyeri imini busterri bakarra, makiñetxu bider ibil nok" - (Arto bitartetik pasatzeko, behiari ipini buztarri bakarra, makinatxo bider ibili nauk)

busterrie, busturrie: buztarria

"Ba busturrien, imini besteari, ogoto amarreu, eta bera soltutxuau" - (Ba buztarrian, ipini besteari, hobeto amarratu, eta bera soltutxoago)

"Busterrireko a da, sabaldu, te gora, a da busterrireko, ganadue a da" - (Buztarrirako hura da, zabaldu, eta gora, hura da buztarrirako, ganadua hura da)

"Atzean t'eurrian oten die, atzerantza in estien busturriek, lar atzerantza in estien, ak paluek lotzeatu" - (Atzean eta aurrean egoten dira, atzerantz egin ez dezan buztarriak, lar atzerantz egin ez dezan, palo hark lotzen ditu)

edea: hede, uhala

"Orre tekies atzetik olan, edeantzako lekue, sertute, t'edea dator andik" - (Horiek dauzkate atzetik hola, hedeantzako lekua, zertuta, eta hede dator handik)

"Bai, bai, bai, bai! Eta gordeta be eukin du! Guk, e, gurean, e, gure etzean emote yakon, busterrien ba edeak, esaten dakona, areri arek siketan direnean, ba untetan dake, bigun egon ditsan" - (Bai, bai, bai, bai! Eta gordeta ere eduki dugu! Guk, gurean, gure etxean ematen zitzaion buztarriaren ba hedeak, esaten zaiona, haiei, haiek sikatzen direnean, ba igurzten zaie, bigun egon daitezzen)

ejea: ardatza

errueda sarratue: txirrinka zerratua, itsua

"Errueda sarratuek lelau egon sien" - (Txirrinka zerratuak lehenago egon ziren)

erruedea: gorpila

"Geur gitxi daus, geur onek en jeneral serakas dabis, gomakas, erruedak gomaskoak" - (Gaur gutxi daude, gaur hauek gehienetan zerekin dabilta, gomekin, txirrinkak gomazkoak)

"Ori da erruedan ganetik doana" - (Hori da txirrinken gainetik doana)

"Badau gurean gurdie ta oñikarren, errueda pe badaus" - (Badago gurean gurdia eta oraindikarren, txirrinkak ere badaude)

eskuko karroa: esku gurdia, gurditxila

espatea: ezpata, gurkamaren aurreko aldean tente jartzen den makila

"Emen iminten dako espatea ta emen atzean iminten dako akarra" - (Hemen ipintzen zaio ezpata eta hemen atzean ipintzen zaio akerra)

eurreko sotza: aurreko larakoa

fronterea: frontera, sapa, buztartzeko ganaduren kopetetan jartzen direnak

galgea: galga, balazta

"Galgea ba, palu beteas lengoan ite san, oin beste klase batera be iten die, klase askotara frenetan die ta" - (Galga ba, palo batekin lehengoan egiten zen, orain beste era batera ere egiten dira, era askotara galgatzen dira eta)

gana: gana, kina, akuiluak puntan daukan iltzea

garratxue: garratxua, buztarrian ipintzen den egurra katea lotzeko

"Emen busturrien dau garratxue ta emeti dator katea, ona" - (Hemen buztarrian dago garratxua eta hemendik dator katea, hona)

"Garratxue da ori sera, seran imiten dakona, busturrien, gurteran imiten dakona, ta gero iten dako, kateak imini andik, garratxuti" - (Garratxua da hori zera, zerean ipintzen zaiona, buztarrian, gurtadan ipintzen zaiona, eta gero egiten zaio, kateak ipini handik, garratxutik)

gomasko erruedea: gomazko txirrinka

gurdi bolantea: gurdi bolantea

"Bueno gurdi bolantea esate otzien danari" - (Beno gurdi bolantea esaten zieten denei)

"Gurdi bolantea da partikedune" - (Gurdi bolantea da partikaduna)

gurdie: gurdia

"Gu, beti ibil gare gurdi betas basoan be, etzean ibiltzen gintzesan ba gurdias, basoan be" - (Gu, beti ibili gara gurdi batekin basoan ere, etxean ibiltzen ginen ba gurdiaekin, basoan ere)

"Atzeko gixonari, beyek lotu akosan, e, gurdias, satzaas solora sartukeran, eta sartu gurdie, ta beyek atara es" - (Atzeko gizonari, behiak lotu zitzaizkion, gurdiaekin, satsarekin sorora sartukeran, eta sartu gurdia, eta behiak atera ez)

"Lelau esales egoten oingo moduen kotxerik, kamioyak eta ingeruek, gurdiegas ite san obratara ta sera, bearrak eroan" - (Lehenago ez zen legez egoten oraingo moduan autorik, kamioirik eta inguruak,

gurdiaekin egiten zen beharretara eta zera, beharrak eroan)

gurpuntea: gurpunta, partikea

gursotza: gurzotza, larakoa. Buztartu eta ostean, partikea mugi ez dadin puntan gurzotz bi sartzen dira buztarriari eusteko

gurtadea: gurtada

"Sei saspí gurtada atate sien orduen, bakotxean, edo giau" - (Sei zazpi gurtada ateratzen ziren orduan, bakoitzean, edo gehiago)

gurtedea, burtedea: gurtada, buztarriak daukan uhalezko uztai modukoa partikea sartzeko

gurtetza, burtetza: gurtetza, ardatza

"Orre teko gurtetza deko aspíen, aldamenak ta aldamenatetik, ona serera dator, sera, radioak edo sera esaten tzie ayeri, ta gero an dator, an serean, aldamenatan dator, orrek, ba erruedak sertute, kolokeute, an daus" - (Horrek dauka gurtetza dauka azpian, aldamenak eta aldamenetatik, hona zerera dator, zera, arraioak edo zera esaten diete haiei, eta gero han dator, han zerean, aldamenetan dator, horiek, ba txirrinkak zertuta, ipinita, han daude)

kabeserea: kabezera, asto eta zaldien burukoa.

"Es batzuk iminte otzien kabeserea, kabeserea esaten dakona, ba, amarreteagaitik andik kabeseratik, ba sokea, okerra bada astoa edo segun selangoa dan, ba" - (Ez batzuek ipintzen zioten kabezera, kabezera esaten zitzaiona, ba, lotzeagatik handik kabezeratik, ba soka, okerra bada astoa edo segun zelakoa den, ba)

karretillea: karretila, eskorga

"Soloan sarri karretilleas be satzak sabaldu, piloa in, serean bastar baten soloan, ta gero karretilleas sabaldu a" - (Soloan sarri karretilarekin ere satsak zabaldu, piloa egin, zerean bazter baten soloan, eta gero karretilarekin zabaldu hura)

karroa: karroa; gurdia eta karroa desberdinak dira, gurdia itxiari esaten zaio, karroa, berriz, astoekin edo ibiltzen denari edo irekiari

kartola: kartola, gurtola

"Kartola tie arek luseak" - (Kartolak dira haiek luzeak)

kollarine: koilarina, astoari edo zaldiari ipintzen zaiona karrotik tiratzeko

"Kollarine da turetako" - (Koilarina da tiratzeko)

latigoa: zigorra

partikea: partika, gurdiaren kamatik buztarrirainoko makila luzea.

"Au da partikea, one tire aldamenak" - (Hau da partika, hauek dira aldamenak)

"Partikea, eurreraño doana, ganaduen eurreraño, ori partikea" - (Partika, aurrerraino doana, ganaduaren aurrerraino, hori partika)

petrala: petrala, asto aparejuaren uhala

"Bai, a atzeko petrala dalakoa dekot" - (Bai, hura atzeko petrala delakoa daukat)

piñea: pina, arraio gurdiaren txirrinkan arraioak bata bestearekin lotzeko erabiltzen zen pieza. Txirrinkak zazpi pina edukitzen zuen, pina bakoitzeko arraio bi

"Aldamenak sien orrek, gurdienak aldamenak, ta erruedak, radioak, seinde bisikletean moduen, radioak eukite itusen, ta ayek radioak piñek eukite itusen, an engantxetako" - (Aldamenak ziren horiek, gurdiarenak aldamenak, eta txirrinkak, arrioak, zeinda bizikletaren moduan, arraioak edukitzen zituen, eta arraio haiek pinak edukitzen zituzten, han engantxatzeko)

radioa: arraioa

"Baye oin es, oin dires erruedak radiodunek" - (Baina orain ez, orain dira txirrinkak arraiodunak)

sintea: zinta

"Eta arek origoatan epeldu apur bet, eta iminte dires, ori esanetales ein ta ostean, kurtzea, kasureko, ba, se esango dot ba? Olan iten deu sinteagas, an ganean, ta orduen da esaten deuna" - (Eta haiek oliotan epeldu apur bat, eta ipintzen dira, hori esan dudan lez egite eta ostean, gurutzea, kasurako, ba, zer esango dut ba? Hola egiten du zitarekin, haren gainean, eta orduan da esaten duena)

"Bastea batzuk, eta beste batzuk, e, sintea, edo, ugela" - (Basta batzuek, eta beste batzuek, zinta, edo, uhala)

sintxea: txintxa, astoaren aparejuaren lokarria

sillea: sila

sintxoa: txintxa, astoaren aparejuaren lokarria

sozta: zotza, larakoa

surrune: zurruna, gurdia kargatu eta ostean aurreko ezpatatik atzeko gurtakarrerainoko makila

"Goitik gero surrune, emetik engantxeu emen serari, te atzera, ta gero emen amarreu kateas edo sokeas" - (Goitik gero zurruna, hemendik engantxatu hemen zerari, eta atzera, eta gero hemen amarratu katearekin edo sokarekin)

tirantea: tirantea

"Serak, sille modure, esta? Karroa yaboteko tirante batzuk, ta gero beste tirantea tires samatik daron kollarine, aregas, andik tiretan tzo karroari" - (Zerak, sila modura, ezta? Karroa jagoteko tirante batzuk, eta gero beste tiranteak dira samatik daroan koilarina, harekin, handik tiratzen dio karroari)

txalmea: txalmea, astoari ipintzen zaiona aparejatzeko.

"Txalmea, aspikoa, ta aren ganean imite san ori" - (Txalmea, azpikoa, eta haren ganean ipintzen zen hori)

txirrinkea: txirrinkea

txotxo gurdie: gurdi zarratuaren izena

"Txotxo gurdie esaten tzien orreri" - (Txotxo gurdia esaten zioten horri)

ugela: uhala

"Ugel bat gero amarretako a, a bastea amarretako" - (Uhal bat gero amarratzeko hura, basta hura amarratzeko)

18.7. KORTA

albatea: albatea; alboko atea, kortan egoten dena

"Bueno ba etzean beti egote san baten bat laguntako, ta ekarte san idi bet leleno, albatean esate san, albatea esaten tzun ateari, eta a ekarte san ta a ite san leleno bustertu, ta beste batek, busterrieri beste puntetik agarreu eta gero bestea ekarten dosu, beste idie, ta gero biek" - (Beno ba etxean beti egoten zen baten bat laguntzeko, eta ekartzen zen idi bat lehenengo, albatean esaten zen, albatea esaten diogun ateari, eta hura ekartzen zen eta hura egiten zen lehenengo buztartu, eta beste batek, buztarriari beste puntatik oratu eta gero bestea ekartzen duzu, beste idia, eta gero biak)

apartaderoa: estramina; asken arteko bitartea kortan

"Ori apartaderoa dau askatik, ormatik, askatik erdi ingeruarte, emen daus bi ta beste apartadero bat emen, ta emen beste bi ta beste batzuk igual libre, guk libre eukiten gendusen, guk estu apartaderorik euki, librean" - (Hori estramina dago askatik, hormatik, askatik erdi ingururaino, hemen daude bi eta beste estramina bat hemen, eta hemen beste bi eta beste batzuk beharbada libre, guk libre edukitzen genituen, guk ez dugu estraminarik eduki, librean)

"Esin dotzesu imini oneri jenteari, apartaderoa, olan kotxeak itxi diesan?" - (Ezin diozu ipini jende honi, apartazioa, hola kotxeak utz ditzan?)

askea: aska

"Galtzue ba, ote san garanau, eta sartu uretan t'atara kanpora, busti, eta bota gero askara, ta ganetik pentzue bota ta ondo yateun ganaduek" - (Galtzua ba, egoten zen garanago, eta sartu uretan eta atera kanpora, busti, eta bota gero askara, eta gainetik pentsua bota eta ondo jaten zuen ganaduak)

"Danak segiduen ta bat, a, itxuten basan, amarreu askari" - (Denak segituan eta bat, etzaten bazen lotu askari)

galtzu serrea: galtzu-zerra, galtzuak eta lastoak ebakitzeko erabiltzen ziren igitaiak; gehienetan kortako zutaberen baten egoten ziren, han ebakitzen ziren galtzuak eta lastoak ganaduari ematen zitzaizkion pentsutzat.

goratea: korta

"Gortakoa bestekorik estau" - (Kortakoa bestekorik ez dago)

"Es, eseurien eukiten alture andirik, pasta sana, gortan bertan suloa, sementorik esan on, oingo moduen, suloa, ta nire belunetara sera arteako suloa, ta lelango gurtada bi, ordun, a, gurtada txikerrak, basoan koite ekarri ite sien ta, beyekas, ataiko bi iru, bota, ta gero arek lurreta sienean, gero satza" - (Ez, ez zuten edukitzen altuera handirik, pasatzen zena, kortan bertan zuloa, zementurik ez zen egon, oraingo moduan, zuloa, eta nire belaunetara zera arterako zuloa, eta lehenengo gurtada bi, orduan, gurtada

txikerrak, basoan hartuta ekarri egiten ziren eta, behiekin, haietariko bi hiru, bota, eta gero haiek lurtzen zirenean, gero satsa)

"Lengo moduen gortatan es, bai gorta tausena pe daus, baye beste ser baten, garbiao ta beste ser ba tekie" - (Lehengo moduan kortetan ez, bai kortak daudenak ere badaude, baina beste zer baten, garbiago eta beste zer bat daukate)

sardea: sarda

sarrantxea: txarrantxa, ganadua garbitzeko erabiltzen den metalezko tresna

"Sarrantxea beste ba ta" - (Txarrantxa beste bat da)

sepillue: eskuila

"Sarrantxeas ibiltzen dako pasada bat ayek eutzek areas atara ta gero sepilluas paseu garbitako" - (Txarrantxarekin ibiltzen zaio pasada bat hauts haiek harekin atera eta gero eskuilarekin pasatu garbitzeko)

19. GIZARTEA

Gizarte bizimoduari buruzko atal honetako lexikoa merkatu-azoka-dirua, neurriak, auzoen erlazioak, kortesia formulak, jabetza erlazioak, ezkontza, musika-dantza, kirola-aisia, ehiza-arrantza, jaiegunak, euskara, eta gerratea-soldaduska izeneko azpi-gaietan banatuta ematen dugu.

19.1. MERKATU-AZOKA-DIRUA

baskulea: baskula

"Orrek, e, selan geituten dotzie orreri pisueri ba? Baskulea esta, es" - (Horiek zelan deitzen diote pisu horri ba? Baskula ez da, ez)

bendejea: bendeja, plazara saltzeko eroaten dena

"Aldeanu geyenak yoate sien santomasera bendejeas, batzuk konejuek edo olloak, edo asak edo" - (Baserritar gehienak joaten ziren Santo Tomasera bendejarekin, batzuek konexuak edo oiloak, edo azak edo)

dendea: denda

dirue: dirua

"Dirue emoteuden ta gero atarate san mesea" - (Dirua ematen zuten eta gero ateratzen zen meza)

erdi presioa: erdi prezioa

erreal: erreal

"Idiekas ekarteunak peseta bi, eta beyekas ekarteunak sei erreal, gurtadea, idiekas giau ekarten dalako" - (Idiekin ekartzen zuenak pezeta bi, eta behiekin ekartzen zuenak sei erreal, gurtada, idiekin gehiago ekartzen delako)

erregaterea: erregatera, erre kardaria (f.)

erromanea: erromana, baskula mota bat

ferie: feria, azoka

"Obeto es! Yoate siren, e, gure aiten ta moduko gixonak ferire" - (Hobeto ez! Joaten ziren, gure aitaren eta moduko gizonak azokara)

"Oñes yoaten ixte nasenean, Mugira, ferire" - (Oinez joaten izan naizenean, Mungiarra, azokara)

"Ferie on san Begoñan, Begoñan, e, urtean feri bi oten sin, ni pa paño estot esetu Begoñan ferie, bat domusantu egunean, baye beste bat egon san, estait sein egunetan, beste ba pe egon san, a estot esetu" - (Feria egon zen Begoñan, Begoñan, urtean feria bi egoten ziren, nik bat baino ez dut ezagutu Begoñan feria, bat domu-santu egunean, baina beste bat egon zen, ez dakit zein egunetan, beste bat ere egon zen, hura ez dut ezagutu)

"Basurtun, domeka birik baten, ta, beste egun be pe bai, beste egun bet ixen san, ote sana, ta gero andik Sorrotzara paseurien, ta Sorrotzan be igual" - (Basurton, domeka birik baten, eta, beste egun bat ere bai, beste egun bat izan zen, egoten zena, eta gero handik Zorrotzara pasatu zuten, eta Zorrotzan ere berdin)

"Gero, andik paseurien Loyure, ferie, Sorrotzetik, ta Loyure yoa nas baten edo biten, giau enas yoan" - (Gero, handik pasatu zuten Loiura, azoka, Zorrotzatik, eta Loiura joan naiz baten edo bitan, gehiago ez naiz joan)

gastue: gastua

jeneroa: jenero, gauza, salgaia

"Soloko jenero dustiri, siketan dan jenero dustiri, indabeari sein babeari te, danari, ori kotxoa" - (Soroko jenero guztiari,

sikatzen den jenero guztiari, indabari zein babari eta, denei, hori kotxoa)

"Bueno orrek, e, artoa pe eukiten deu te geixoa, kanpoan dauen jeneroari danari etorten dako" - (Beno horiek, artoak ere edukitzen du eta gaixoa, kanpoan dagoen jeneroari denari etortzen zaio)

konprie, konprea: erosketa

"Eta in gendun ba, bearri pe estekotela ta etorri atesan ba arek, euren konprie ta, orduen angulek artzean gendusen, e? Orduen angulek yaten gendusen, oin, e" - (Eta egin genuen ba, beharrik ere ez daukadala eta etorri zitzaizkidan ba haiek, euren erosketa eta, orduan angulak hartzen genituen, e? Orduan angulak jaten genituen, orain)

merkadue: merkatua

"Merkadure, Merka Bilbora esan doten modules, arrastien lelango eta gero goixean, da semea gastea nirea, orduntxe akabeta on san bere karrera, ta kolokeu ein barik egon san bearrean, eta grasiek a euki nendune eroateko, ostean non yoango nintzen ba?" - (Merkatura, Merka Bilbora esan dudun moduan, arrastegian lehenengo eta gero goizean, eta semea gaztea nirea, orduantxe amaituta egon zen bere karrera, eta kolokatu egin barik egon zen beharrean, eta eskerrak hura eduki nuena eroateko, ostean non joango nintzen ba?)

ogerlekoa, ogorlokoa: ogerlekoa; txanpon zaharra

"Borondatea eukite seunak, ta arek apunte seun, ba bost ogerlekoana, besteak igual ogerlekoana" - (Borondatea edukitzen zuenak, eta hark apuntatu zuen, ba bost ogerlekorena, besteak beharbada ogerlekorena)

"Kontu artu, ogetabost urte, ta bost ogerleko page seula, berak ogetabost urte euki seunean" - (Kontu hartu, hogeita bost urte, eta bost ogerleko ordaindu zuela, berak hogeita bost urte eduki zuenean)

ogorloko suri: ogerleko zuria; txanpon zaharra

"Bai, bai eleispean kanteta otzien abadeak, igual egoten sien bost edo sei abade, se ba intierrue pe egoten sien lelango klasekoak, bigarrenak, eta irugarrenak, iru klase ta ba, lelango ba asko ixin ixen se, ogetamar

ogorloko suri ixeten san, ta nok euki?" - (Bai, bai elizpean kantatzen zioten abadeek, beharbada egoten ziren bost edo sei abade, ze ba enterruak ere egoten ziren lehenengo motakoak, bigarrenak, eta hirugarrenak, hiru mota eta ba, lehenengo ba asko ezin izan ze, hogeita hamar ogerleko zuri izaten zen, eta nork eduki?)

pesetea: pezeta; txanpon zaharra

"Arrasti dustireko peseta bat, iminte yotzien tike bat" - (Arrasti guztirako pezeta bat, ipintzen zioten tiket bat)

pisue: pisua

"Bai alde baten pareu bata, ta bestean bestea, ta gero toketan dakona, pisu giau baeuken edo gitxiao baeuken an egoan diferentzie" - (Bai alde baten paratu bata, eta bestean bestea, eta gero tokatzen zaiona, pisu gehiago bazeukan edo gutxiago bazeukan han zegoen desberdintasuna)

"Eta etzean esate osten eseitzesu erain oneri gixajoari, orreri onenbeste pisu" - (Eta etxean esaten zidaten ez iezaiozu eragin gixajo honi, horri honenbeste pisu)

plasea: plaza, azoka

"Erriberara baño lelau egon san plasea, Lesamako estasinotik bajatu ta an eskerretara" - (Erriberara baino lehenago egon zen plaza, Lezamako geltokitik baxatu eta han ezkerretara)

"Ba giau, e, yoate sien, e, trenean yoate siren plasara giau, oñes, nire ama be yoan da, da esneakas be!" - (Ba gehiago, joaten ziren, trenean joaten ziren plazara gehiago, oinez, nire ama ere joan da, eta esneekin ere!)

"Or plasea imini baño lenau, feria de mustrasen be denporatxu bet ein gendun an be, gero bota gitusen ostabere, Kasillera estait espanintzen yoan" - (Hor plaza ipini baino lehenago, erakustazokan ere denboralditxo bat egin genuen han ere, gero bota gintuzten osterera ere, Etxetxura ez dakit ez banintzen joan)

presioa: prezioa

puestue: postua, plazan jeneroa erakusteko edukitzen dena

"Baya arek puestukoak artute yoskun" - (Baina haiek postuetakoek hartzen ziguten)

sorra: zorra

tratantea: tratantea; azokan tratuak egiten dituen

"Orrek, e, tratanteak eiten tzies, sarrari findu, gastetu adarrak" - (Horiek, tratanteek egiten dizkiete, zaharrei findu, gaztetu adarrak)

tratue: tratua

txakurrandie: txakurrandia; txanpon zaharra
"Klaro ausoak, edoselan, bakotzak borondatea, es diru asko, mesa batek badau, e, ba orduen, amar ogerleko, ba txakurrandi bakotzak, txakurrandi bet edo olan, batute san, bai danan artean" - (Jakina auzoek, edozelan, bakoitzak borondatea, ez diru asko, meza batek badago, ba orduan, hamar ogerleko, ba txakurrandi bakoitzak, txakurrandi bat edo hola, batzen zen, bai denen artean)

txakur txikie, txakur txikerra: txakur txikerra; txanpon zaharra

"Es, astoak yoate sien ta bueno, senbet esne darosue? Senbet bendeja darosue? Ta papela, eta astoan pasea onenbeste, ta ba, baye ori, astoan txakurrandie emonta bai lusero, baye gero ori, ba, eroate eusen jeneroari imini otzienean ori tarife ori, ya beranduao ixen san, asko beranduao, eta, sera ostantxean txakurrandi bet, astoan pasea, e, eta, semet ixen san? Txakurrandi bet eta txakur txikerra edo estait nik, arek, orrek, baltzak, ayek, e, ba muleak, muleak euki euen, muleak edo saldiek edo orrek euki euen geyau, estai pa erreal bat ixen badan be, eta astoak txakurrandi bet, pasea" - (Ez, astoak joaten ziren eta beno, zenbat esne daroazue? Zenbat bendeja daroazue? Eta papera, eta astoaren pasea honenbeste, eta ba, baina hori, astoaren txarrukarrdia emanda bai luzaro, baina gero hori, ba, eroaten zituen jeneroari ipini ziotenean tarifa hori, ja beranduago izan zen, asko beranduago, eta, zera osterantzean txakurrandi bat, astoaren pasea, eta, zenbat izan zen? Txakurrandi bat eta txakur txikerra edo ez dakit nik, haiek, horiek, beltzak, haiek, ba mandoak, mandoak eduki zuen, mandoak edo zaldiak edo horrek eduki zuen gehiago, ez dakit ba erreal bat izan den ere, eta astoak txakurrandi bat, pasea)

19.2. NEURRIAK

alturea: altuera

altzi bet: 1. altzi bat, hatz bat, neurria adierazteko atzamarra erabiltzen denean esaten da. 2. apur bat

altzie: hatza, neurri moduan erabiltzen dena, kasurako joskigintzan

"Altzi bet, da au" - (Hatz bat, da hau)

"Iru altzi kendu bea dako, e?" - (Hiru hatz kendu behar zaio, e?)

"Lar luse dekosu te kendu bea dako altzi bi" - (Lar luze daukazu eta kendu behar zaio hatz bi)

anega erdie: anega erdia

anegea: anega

"Anegea san berrogetamar kilo" - (Anegea zen berrogeita hamar kilo)

arrastue: arrastoa

arrea: arra, zehea

"A tekos an, osoak gorriek, gorriek osoak siren, da berdeak siren erdiek, kordelak, ak eukiteusen estai pa, amar edo amaika arrak, kordelak" - (Hark dauzka han, osoak gorriak, gorriak osoak ziren, eta berdeak ziren erdiak, kordelak, hark edukitzen zituen ez dakit ba, hamar edo hamaika arrak, kordelak)

arroa: arroa

"Arroatan ite eudien, ni neuk arroatan estot, e, es baye eurek gixonak eta arroatan eta jente sasoikoak arroakas" - (Arroatan egiten zuten, nik neuk arroatan ez dut, ez baina, eurek gizonek eta arroatan eta jende sasoikoak arroekin)

asunbrea: azunbrea

asunbre erdie: azunbre erdia

"Asunbre erdie, ba litro erdi da kasureko, asunbrea litro bat" - (Azunbre erdia, ba litro erdi da kasurako, azunbre litro bat)

dosena erdie: dozena erdia

"Da gero ite sien gariekas metak, andiaoak gero ondo eldute sienean, ondo sikitan sienean da eldu ondo, gero ite sien meta andiaoak, or, e, ser esangopa nik, dosena erdi bueltako, e, gurdi bi edo iruas igual" - (Eta gero egiten ziren gariekin metak, handiagoak gero ondo heltzen zirenean, ondo sikatzen zirenean eta heldu ondo, gero egiten ziren meta handiagoak, hor, zer esango dut ba nik, dozena erdi bueltako, gurdi bi edo hirurekin beharbada)

dosenea: dozena

"Nik bost dosena letxuge, besteak estait senbet dosena letxuge, ta olan, eta, es nias es konteu, esate neuntzien, banoa nias es konteu, onek esa osten, ba deskantzeu ixu esa osten apur beten, neuk imingo tzut letxugea, yoa nintzen, yoan banintzen!" - (Nik bost dozena letxuga, besteak ez dakit zenbat dozena letxuga, eta hola, eta, ez nirekin ez kontatu, esaten nien, banoa nirekin ez kontatu, honen esan zidan, ba deskantsatu ezazu esan zidan apur baten, neuk ipiniko dizut letxuga, joan nintzen, joan banintzen!)

"Garien eskutadeas, koyu, dosena bat ingeru, ta emon, ta beras, ta gero, aspian sartu, emon bueltea, ta gero aspian sartu" - (Gariaren eskutadarekin, hartu, dozena bat inguru, eta eman, eta berarekin, eta gero, azpian sartu, eman buelta, eta gero azpian sartu)

erdie: erdia

erraldea: erraldea, bost kiloko pisua

"Bederatzi arrak igual irutamar erralde, irureun de ba berrotamar kilo" - (Bederatzi arrak beharbada hirurogeita hamar erralde, hirurehun eta ba berrogeita hamar kilo)

"Erraldeak, e, ba, esan tzut selan, yanta selan dauen, baye, sei arras asko es, sei arras asko es, sikan be, saspi, sortzi arra bea itu, sortzi arragas, e, otamar erralde ingeru, otamar berrogei" - (Erraldeak, ba, esan dizut zelan, janda zelan dagoen, baina, sei arrarekin asko ez, sei arrarekin asko ez, gutxienez, zazpi, zortzi arra behar ditu, zortzi arrarekin, hogeita hamar erralde inguru, hogeita hamar berrogei)

"Erraldeak bos killo" - (Erraldeak bost kilo)

etarea: hektarea

"Nik etxean eguno be estot etareati entzun" - (Nik etxean egundo ere ez dut hektareatik entzun)

"Emen etarea gitxiten aumete da, gixelana gora ta gixelana bera" - (Hemen hektarea gutxitan aitatu da, gixelana gora eta gixelana behera)

gixelana, gisalana: gixelana, honek 380 metro karratu dauka

"Amar gisalanekeo soloa? Saspi illeda imi neusen urte baten" - (Hamar gixelanekeo soloa? Zazpi ilara ipini nituen urte baten)

"Solo bat on san ogei gixelanekeo, beste bat on san bost gixelanekeo, gero beste bat on san amabi gixelanekeo, beste bat on san seikoa, da gero erdie iru gixelan i akosan, olloantzat eta ixi, eta beste ba, eurrera solotzat sertu san" - (Soro bat egon zen hogeitaz gixelanekeo, beste bat egon zen bost gixelanekeo, gero beste bat egon zen hamabi gixelanekeo, beste bat egon zen seikoa, eta gero erdia hiru gixelan egin zitzaizkion, oiloentzat eta itxi, eta beste ba, aurrera sorotzat zertu zen)

gradue: gradua

gurtedea: gurtada

kana erdie: kana erdia

"Kana erdie, bai, kana erdie metro erdie ixete san kana erdie" - (Kana erdia, bai, kana erdia metro erdia izaten zen kana erdia)

kanea: kana, ehuna neurtzeko erabiltzen zen neurria

kantara erdie: kantara erdia

kantarea: kantara; likidoak neurtzeko erabiltzen zen 16 litroko neurria

kiloa, killoa: kilo

"Es, es, artoa kenduten eudien onenbeste kilo, a moliduteagaitik" - (Ez, ez, artoa kentzen zuten honenbeste kilo, hura ehotzeagaitik)

kilo erdie: kilo erdia

kilometroa: kilometroa

kuartillue: kuartilua

"Asunbre erdie, kuartillue ta litro, litroka gitxi" - (Azunbre erdia, kuartilua eta litroa, litroka gutxi)

"Kuartillue, ba asunbre erdien erdie" - (Kuartilua, ba azunbre erdiaren erdia)

"Bai, bai egoten san kuartilukoa eta litrokoa, litrokoa oin be or dau gurean, sarra da baye, eta a litrokoa, ba sera bestea kuartilue" - (Bai, bai egoten zen kuartilukoa eta litrokoa, litrokoa orain ere hor dago gurean, zaharra da baina, eta hura litrokoa, ba zera bestea kuartilua)

kuartillu erdie: kuartilu erdia

liberdie: liberdia, libra erdia

librea: libra

"Librea giau, orduen ba, jenteak, e, kiloa gitxi useta seun" - (Libra gehiago, orduan ba, jendeak, kiloa gutxi usatzen zuen)

litroa: litroa

"Lantzean bota in bea tzesu se, betetute iminte, igual, e, arra baten bajatuko datzu barrikoa igual egunean, saspi sei litro

trageko tzus barrikeak" - (Lantzean bota egin behar diozu ze, beteta ipinita, beharbada, arra baten baxatuko zaizu barrika beharbada egunean, zazpi sei litro tragatuko dizkizu barrikak)

"Nik ikus dot, e, bosteun litrokoa" - (Nik ikusi dut, bostehun litrokoa)

litro erdie: litro erdia

megidea: neurria

"Etzean be bardin eiten gendun, ol bat, ebei, ta piti bet gora bera kaderea selangoa dan, ebei te, aren megiden ebei te gero" - (Etxean ere berdin egiten genuen, ohol bat, ebaki, eta piti bat gora behera oina zelakoa den, ebaki eta, haren neurrian ebaki eta gero)

"Gero noperak gu deun megiden ebei" - (Gero norberak gura duen neurrian ebaki)

"Ba olan, narru betegas inte eukite seun gurean bestealdeko aiteitak, ta gero aregas se megide dan, aregas ite seun, geuri be iten doskun" - (Ba hola, narru batekin eginda edukitzen zuen gurean beste-aldeko aitaitek, eta gero harekin ze neurri den, harekin egiten zuen, geuri ere egiten zigun)

metroa: metroa

"Bueno emen senbetekoa bea da metro bikoa, an eukiteun sertzxu bet iminte, emen bestetxu et, emetik ona da metro bi, an ebei, edo ba t´erdikoa bada be, markeute, marketa orrek kordel orrek, kordelak eukiteusen markeute, nondik ebei, laukoa edo bostekoa, selan gu dan" - (Beno hemen zenbatekoa behar da metro bikoa, han edukitzen zuen zertzxu bat ipinita, hemen bestetxu bat, hemendik hona da metro bi, han ebaki, edo bat eta erdikoa bada ere, markatuta, markatuta kordel horrek, kordelak edukitzen zituen markatuta, nondik ebaki, laukoa edo bostekoa, zelan gure den)

metro erdie: metro erdia

"Emen edurre eukiten gendun batzutan metro erdi edo" - (Hemen elurra edukitzen genuen batzuetan metro erdi edo)

metro t´erdie: metro eta erdia

montoya: piloa

neurri kordela: neurri kordela, ganaduaren pisua kalkulatzeko erabiltzen den kordela

"Neurri kordela, oin b´or dau, oin apurtute dekot baye" - (Neurri kordela, orain ere hor dago, orain apurtuta daukat baina)

"Gero andik, e, segun senbet arra dekosan, arratatik gero pisue, ta es arratatik bakarrik, olan selan dausen, ondo yanta badaus, ela txarto yanta badaus" - (Gero handik, segun zenbat arra dauzkan, arretatik gero pisua, eta ez arretatik bakarrik, hola zelan dauden, ondo janda dauden, ala txarto janda dauden)

ontzea: ontza, pisu neurri txikia

ontzerdie: ontza erdia

parea: pare

pare bat : pare bat

"Besegu pare bat artu bakotxak eta, ferie ote san orduen ona, andie" - (Bisigu pare bat hartu bakoitzak eta, azoka egoten zen orduan ona, handia)

parejea: bikotea

"Danak pillo pilloan imini, eta ba bata, bata gorantza ta bestea berantza, biek parejan, batu biar ta iten esteunak galdu" - (Denak pilo pilloan ipini, eta ba bata, bata gorantz eta bestea beherantz, biak bikotean, batu behar eta egiten ez duenak galdu)

partea: parte, zatia

"Artebakarrak eukiko deu parte igual ba, Mugien be igual eukiko deu Artebakarrak" - (Artebakarrak edukiko du aldea beharbada ba, Mungian ere beharbada edukiko du Artebakarrak)

partida bat: partida bat

"Urte baten, senbet i oskun? Partida bat" - (Urte baten zenbat egin zigun? Partida bat)

partidea: partida, piloa

"Jitanuek partidek emetik, iledak!" - (Ijitoak partidak hemendik, ilarak!)

pilloa, piloa: piloa

"Gortatik, e, atara satza ta pillora, ta pillotik gero ba solora eroate san" - (Kortatik, atera satsa eta pilora, eta pilotik gero ba solora eroaten zen)

"Olantxe botate itues, pilloan botate itues, patatea ixengo baletike les baye sagar klase bat" - (Holaxe botatzen dituzte, piloa botatzen dituzte, patata izango balitz legez baina sagar mota bat)

pisue: 1. pisua. 2. pisatzeko tresna

satie: zatia

"Gero ite situsen satiek, da areas saties ba abarka bat, beste sati betas beste pare bat" - (Gero egiten zituen zatiak, eta zati

*harekin ba abarka bat, beste zati batekin
beste pare bat)*

selemine: zelemina

*"Selemine san olango kaja bat, ta alde baten
eukiteuen erdiraño edo, selemine erdi, te onek
eukiteuen lau kilorako, eta beste alderditi,
olan erdibitute beste ol serakas ta kilo
banako eukiteuen, sera a san selemine" -
(Zelemina zen holako kaxa bat, eta alde
baten zeukan, erdiraino edo, zelemina erdi,
eta honek edukitzen zuen lau kilorako, eta
beste alderditik, hola erdibituta beste ohol
zerekin eta kilo banako edukitzen zuen,
zera hura zen zelemina)*

sentimetroa: zentimetroa

*"Bai, bai sentimetroak ixengo san ori,
pentzetan dot" - (Bai, bai, zentimetroak
izango zen hori, pentsatzen dut)*

sientoa: ehunekoa, landareak saltzeko eta
erosteko neurria

*"Geurean neuk atara doas olan, or goiko
unadatxu beten, danean es baye unadatxu
beten, ta gitxi erein du barres aurten
piperra, e? Etzerako piti bet, e,
sertzearren, gitxi erein du, se kanpoti
ekarten da ta ies be erosi in gendusen,
baye sindikatoti ekarriko, siento bi bile
yoan gintzen, eta bat ekarri nendun
sindikatotik, ta i yakun, ba, ekarri in
gendun ta esa osten semeak, e, ta bakixu
ser i akusen piperrak danak galdu soloan,
inbernaderoan, baye ori da, gatxa ekarri
iten deulako, landaran ekarten deulako da
gatxa ori" - (Geurean neuk atera ditut
hola, hor goiko unadatxo baten, denean ez
baina unadatxo baten, eta gutxi erein dugu
berriz aurten piperra, e? Etzerako piti bat,
zertzearren, gutxi erein dugu, ze kanpotik
ekartzen da eta iaz ere erosi egin genituen,
baina sindikatutik ekarrikoa, ehuneko bi
bila joan ginen, eta bat ekarri nuen
sindikatotik, eta egin zitzaigun, ba, ekarri
egin genuen eta esan zidan semeak, eta
badakizu zer egin zitzaizkigun piperrak
denak galdu soroan, berotegian, baina
hori da, gaitza ekarri egiten duelako,
landarean ekartzen duelako da gaitza hori)*

tamañue: tamaina

*"Ba orrotzak eukiteko san olan, olesko sertz
bet olango tamañukoa ta" - (Ba orratzak
edukitzeko zen hola, oholezko zertz bat
holako tamainakoa eta)*

19.3. JENDEA

eskekoa: eskekoa, eskalea

*"Eskeko moduen es, kobreta yotzun ba kargea
eraiteko onenbesteko bat" - (Eskeko
moduan ez, kobratzen zizuen ba karga
eragiteko honenbesteko bat)*

*"Delfin esate otzien eskekotxu beteri, eskean
ibilte san bateri Delfin, eta ixen san,
konpleto, batu batu batutxue ta, astoan
ganetik bajetako be, ara gauean erretireta
san, eta astoari a mimenas oratute bajeta
san sarriten ganera, ixin ibili ixen san ta,
ba memorien kontuek selauak konteu! Aren
kontuek, an sutean bastarreen, e, pareu te,
suen kontran ta, kontetan" - (Delfin esaten
zioten eskekotxo bati, eskean ibiltzen zen
bati Delfin, eta izan zen, guztiz, batu batu
batutxoa eta, astoaren gainetik baxatzeko
ere, hara gauean erretiratzen zen, eta
astoari hura mihimenarekin oratuta
baxatzen zen sarritan gainera, ezin ibili
izen zen eta, ba gogoan kontuak zelakoak
kontatu! Haren kontuak, han suetearen
bazterreen, paratu eta, suaren kontra eta,
kontatzen)*

jentea: jendea

*"Ganaduentzako edo olan ostantzean orrek, e,
jenteantzako, probetxu asko eseuren
emoten" - (Ganaduentzat edo hola
osterantzean horiek, jendearentzat,
probetxu asko ez zuten ematen)*

*"Ba euren, e, bakixu oin baño, orduen, e,
sineskera giau edo beste klase bateko
jentea on san ta" - (Ba euren, badakizu
orain baino, orduan, sineskera gehiago
edo beste mota bateko jendea egon zen eta)*

jente andie: jende handia, handikiak

jitanea: jitonoa, ijitoa (f.)

*"Gebon ingeruetan jitana batek koiuten
dotzies olloak, olloak, olloskoak, ta gu
gasteak alboan, ta karo gasteak, olgetako
gane andie, ta ba esate gun, koyu pisuen olan,
ta jitanan atzean, Elena! ingo tzu orrek
begiskona, niri orrek olloskoak ostu!" -
(Gabon ingeruetan ijito batek koiuten
dizkio oiloak, oiloak, oilaskoak, eta gu
gazteak alboan, eta jakina gazteak,
olgetzeko gogo handia, eta ba esaten zuen,
koiu pisuaren hola, eta ijitoaren atzean,*

Elena! egingo dizu horrek begizkoarena, niri horrek oilaskoak ostu!)

"Or, e, Arteganerakoan, erropak eskeite iminte oskusan, ume txikerrak eukite, atxine, oin umeak, ba apurtu iten deure dana, ibili iten die ta, baye domekatakota ta eukiten gendusen erropak beti gordeu te beti gordeu ta atzenean txiki lotze akusen, eta onek jitanak edo etorte sienak umeak, beti ba ume bat edo bi aldean ta emon, eta bakixu ser iteuren? Emen emon eta an goyen, e, sasién ganean eskeite itxi" - (Hor, Arteganerakoan, arropak eskegita ipintzen zizkigun, ume txikerrak edukita, antzina, orain umeak, ba apurtu egiten dute dena, ibili egiten dira eta, baina domeketakota eta edukitzen genituen arropak beti gorde eta beti gorde eta atzenean txiki lotzen zitzaizkigun, eta ijito hauek edo etortzen zirenak umeak, beti ba ume bat edo bi aldean eta eman, eta badakizu zer egiten zuten? Hemen eman eta han goian, sasién ganean eskegita utzi)

jitanoa, jitanue: jitonoa, ijitoa (m.)

"Emeti astoakas ibilte sienak siren onek jitanoak, orrek sien beti astodunek" - (Hemendik astoekin ibiltzen zirenak ziren ijito hauek, horiek ziren beti astodunak)

kuadrillea: koadrila, lagun taldea

"Danok kuadrillen ikusteko, ia ser dakardien" - (Denok koadrilan ikusteko, ea zer dakarten)

"Kuatrille ixen sien ta olantxe" - (Koadrila izan ziren eta holaxe)

lagune: 1. laguna. 2. pertsona

"Oin be ba jentea bixi de, e? Or, asko, or lagun asko daus oin" - (Orain ere ba jendea bixi da, e? Hor, asko, hor lagun asko daude orain)

"A! Bai, bai, orretan bai, topetan, e, lagune" - (A! Bai, bai, horretan bai, topatzen, laguna)

"Atzean yoate sien lagunak amarretan" - (Atzean joaten ziren lagunak lotzen)

mutil lagune: mutil laguna

moroa: mairua

"Ori moroak botaten dotzie danari" - (Hori mairuek botatzen diote denari)

neska lagune: neska laguna

"Bueno neska lagunerri txokolate apur bet emon, bai eta gero kalabasak bota,

errekara, ori bearrori iteurien neska lagunak, kalabasak gero bota errekkara" - (Beno neska laguneri txokolate apur bat eman, bai eta gero kalabazak bota, errekkara, behar hori egiten zuten neska lagunak, kalabazak gero bota errekkara)

personea: pertsona

"Batzu tire, seinde persona moduen, batzu tire seraogokoa, ba, ta beste batzu tire ba pisuen seragoak, beste batzu paño" - (Batzuk dira, zeinda pertsona moduan, batzuk dira zeragokoa, ba, eta beste batzuk dira ba pisuan zeragoak, beste batzuk baino)

señorea: andrea

"Ta guri beti etorte askun aite defuntue erropen bile, balde sabala berak ekarte seuen buruen, akostunbreute egon sireles Bilboko, señoran erropak garbituten ta, arek errekkara beti lagunte oskun guri" - (Eta guri beti etortzen zitzaigun aita defuntua arroparen bila, balde zabala berak ekartzen zuen buruan, usatuta egon ziren lez Bilboko, andreen arropak garbitzen eta, hark errekkara beti laguntzen zigun guri)

19.4. KORTESIA FORMULAK

agur: agur

arrastion: arrasti on, arratsalde on

egunon: egun on

eskerrik asko: eskerrik asko

gabon: gau on

gorantziek: goraintziak

jaune: jauna

mesedes: mesedez

ondo ibili: ondo ibili

ondo ibil te erain: ondo ibili eta eragin, agurtzeko era

ondo etorri ditela: ondo etor dadila

ondo ixen ditela: ondo izan dadila

ordu labor bet euki, ixin: ordu labor bat eduki, izan

"Ordu labor bet euki dixula" - (Ordu labor bat eduki dezazula)

"Ordu labor bet ixin ditela" - (Ordu labor bat izan dadila)

sorionak: zorionak

"Ordureko bakixu ser prepare ostien, bertzolarie be bai, eta gurean Ikerrek soñu

joteuen, ibil san orduen, eta goiko korallas, e, soñuas sorionak elixan barruen be kanteu" - (Ordurako badakizu zer prestatu zidaten, bertsolaria ere bai, eta gurean Ikerrek soinu jotzen zuen, ibili zen orduan, eta goiko koruarekin, soinuarekin zorionak elizaren barruan ere kantatu)

19.5. JABETZA ERLAZIOAK

alkilerra: alokairua

"Bai, bai, pageu ite san alkilerra" - (Bai, bai, ordaindu egiten zen alokairua)

donasinoa: emaitza

"Orrek donasinoas deko, ori bear da donasinorako, donasinorik espadau estau, espadau donasinorik, ba ser apunteko su?" - (Horrek emaitzarekin dauka, hori behar da emaitzarako, emaitzarik ez badago ez dago, ez badago emaitzarik, ba zer apuntatuko duzu?)

erentzie: herentzia

"Gosamena ya erentziti datorrena da" - (Gozamena ja herentziatik datorrena da)

errentadorea: errentadorea

errentea: errenta

eskriturea: eskritura

"Or estau eskriturerik" - (Hor ez dago eskriturarik)

"Oneri eskondu baño lenau ori goikoa emon geuntzen, ta eskriturek ganera inte, e?" - (Honi ezkondu baino lehenago goiko hori eman genion, eta eskriturak gainera eginda, e?)

eskubidea: eskubidea

"Ori da poderoso bata bestean fallorako, da, eskubidea emote otzola, geuri be aitek i oskun, e?" - (Hori da poderoso bata bestearen hutsunerako, da, eskubidea ematen diola, geuri ere aitak egin zigun, e?)

gosamena: gozamena; ondasunen bat erabiltzeko eskubidea eduki baina jabetza ez

"Au etzea, au pisue da semeana, bai gu teku gosamena" - (Etxe hau, pisu hau semearena, baina guk daukagu gozamena)

mediastea: medelina; bizitza biko etxeetan erdia edo bakoitzaren alderdia markatzen duen horma

"Mediastea da ladrillu betas" - (Medelina da adreilu batekin)

poderoso: alkar poderoso

"Eskondu te i oskunean, e, au etzeau, eta terrenoak eta donau, bata bestea poderoso, onen fallora, neuk sertzeko" - (Ezkondu eta egin zigunean, etxe hau, eta terrenoak eta eman, bata bestea poderoso, honen hutsunera, neuk zertzeko)

"Bata bestean poderoso imin bari pe, famelie etorrisko astean, ba, e, fameliek, eta ya beti dau, andrea pe an deko gero" - (Bata bestearen poderoso ipini barik ere, familia etorritz gero astean, ba, familiak, eta ja beti dago, andreak ere han dauka gero)

propiedade: propietatea

"Baye donasinoa atxine atxine ixen san propiedadeana" - (Baina emaitza antzina-antzina izan zen propietatearena)

propietarioa: jabea, etxe jauna

testamentue: testamentua

"Testamentu bet ei lei, testamentue, gerorako euki estearren bearrik" - (Testamentu bat egin liteke, testamentua, gerorako ez edukitzearren beharrik)

usaba: ugazaba, uzaba

"Lekenen taberna? Aren usaba san" - (Lekenen taberna? Haren ugazaba zen)

"Ordun usaban esku ote san" - (Orduan ugazabaren esku egoten zen)

usabandrea: ugazaba andrea

19.6. AUZOEN ERLAZIOAK

alborkea, albrokea: alborka, alboroke; tratua itxi ondoren egiten zen kopauaren izena.

"Alborkea san, e, ganadu bet erosi, ta aren konture, aren konture es, usaban konture, baye txuflea, bai tabernan" - (Alborka zen, ganadu bat erosi, eta haren kontura, haren kontura ez, ugazabaren kontura, baina txufla, bai tabernan)

bela muerta: errematan erabiltzen den esakuna amaitu dela adierazteko

"Ba, arek ixeta seituen mistoak ixetuten seituen, eta iminte seudien, bela muerta estait selan esaten dotzien, aistute dekot orrek, e, serak, eta onenbeste, agintan badosu suk, senbet misto dauen an, nik estakit ori selan iten dotzen, amata ite seun a mistoa" - (Ba, haiek bizten zituzten

mistoak bizten zituzten, eta ipintzen zuten, bela hila ez dakit zelan esaten dioten, ahaztuta daukat horiek, zerak, eta honenbeste, agintzen baduzu zuk, zenbat misto dagoen han, nik ez dakit hori zelan egiten dioten, amatatu egiten zuen misto hura)

besinoa: auzoa

"Estait nik, e, esetu doas, e, bidea, akabuko besinoak, arregle gure, ta bidean dausenak itxi es, eta erdie bakarrik, konturetu, e! Erdie arregleu te beste erdie arregle barik itxi" - (Ez dakit nik, ezagutu ditut, bidea, azken auzoak, konpondu gura, eta bidean daudenak utzi ez, eta erdia bakarrik, konturatu, e! Erdia konpondu eta beste erdia konpondu barik utzi)

bestaldea, bestaldea: beste alde; bizitza biko etxeetan alde bakoitza ondokoarekiko "Etze batek besino bi edo bakos bestaldea" - (Etxe batek auzo bi edo badauzka beste alde)

bestalde-bestaldekoak: bestalde-
bestaldekoak; auzokoak bizitza biko etxeetan

bestaldekoa, bestaldekoa: beste aldeko; bizitza biko etxeetan albokoa

"Geure, bestaldeko aititek narruskoa, neu pe areri irekatzite ya kasik kasik ite nendusen" - (Geure, beste aldeko aitaitak narruzkoa, neuk ere hari irakatsita ja kasik-kasik egiten nituen)

ermandadea, ermandadea: ermandadea

"Eta ekarte seudien ara, eta narrue kendu, ta tripek atara, eta erdie erdi bi ite eudien, ta gero, arek erdiek lau lau sati ite san a, eta arek ite situen, tabernara ekarri, geubean, ta geubean iminte san, kasureko ba, ara etorte sien ermandadakoantzako" - (Eta ekartzen zuten hara, eta narrua kendu, eta tripak atera, eta erdia erdi bi egiten zuten, eta gero, erdi haiek lau lau zati egiten zen hura, eta haiek egiten zituen, tabernara ekarri, gauean, eta gauean ipintzen zen, kasurako ba, hara etortzen ziren ermandadekoentzat)

errematea: errematea, enkantea

eusoa, ausoa: auzoa, auzokoa

"Ori bai askotan, lagundu eusoari te, nik, e, geur igual bateri te gero berak neuri beste baten t'olan" - (Hori bai askotan, lagundu

auzoei eta, nik, gaur beharbada bati eta gero berak neuri beste baten eta hola)

"Bueno ba, abiseta akien eusoari te ba, danok gero yoan bearren" - (beno ba, abisatzen zitzaien auzoei eta ba, denok gero joan beharrean)

"Ausoan, e, esne asko emoten deurie, baye etzera ekarri te gero" - (Auzoan, esne asko ematen dute, baina etxera ekarri eta gero)

eusokoa, ausokoa: auzokoa

"Ba ausoko bat edo, familiko bat edo, lagun bet ba, ak artute seun eroate seun umea, eta gero, aitebitxi ta amabitxi aparte" - (Ba auzoko bat edo, familiako bat edo, lagun bat ba, hark hartzen zuen eroaten zuen umea, eta gero, aitabitxia eta amabitxia aparte)

"Andik etorrite gure ama ta ausokoak etor sien etzeak ikusten, lapurretarik edo ein badeure ta" - (Handik etorrira gure ama eta auzokoak etorri ziren etxeak ikusten, lapurretarik edo egin duten eta)

konbidedue: gonbidatua

legea: legea

mayordomoa: maiordomoa; ermadadean ardura nagusia daukana

"Es, e, a il deuenak ganadue, edo mayordomoa, mayordomoa ixete san, orduen, e, ba, mayordomoak eukite eudien sosiedadean ilte eudienak, eta ak mayordomoak agintan deun serera, ta geyen dirue emoten deuenak, bela muerta esaten dotziena" - (Ez, hura hil duenak ganadua, edo maiordomoa, maiordomoa izaten zen, orduan, ba, maiordomoak edukitzen zituzten elkartean hiltzen zutenek, eta maiordomo hark agintzen duen zerera, eta gehien dirua ematen duenak, bela hila esaten diotena)

pujea: puja, enkante

sindikatoa: sindikatua

"Mugiko sindikatoan be ingo deure" - (Mungiako sindikatuan ere egingo dute)

"Bai atxine sindikatora yoaten gintzen, esa osten, pentzu bile, baye oin farmasiara gatos" - (Bai antzina sindikatura joaten gina, esan zidan, pentsu bila, baina orain farmaziara gatoz)

sosiedadea: elkartea

totoa: toto; inori laguntzeko jateko baten truke egiten den laguneren arteko beharra, auzolana

"A bai! Totoan, e, satzak atara, gortatik, solora, totoan debalde, baye geur bateri te bier besteak, bata besteari lagundute, totoan, ori totoan bai" - (A bai! Totoan, satsak atera, kortatik, sorora, totoan doan, baina gaur bati eta bihar besteak, batak besteari lagunduta, totoan, hori totoan bai)
 "Totoa ori da, artoa eraitea les, solo bat erain, lelango, ta gero beste solora, ta bata besteari lagundu" - (Totoa hori da, artoa ereitea lez, soro bat erein, lehenengo, eta gero beste sorora, eta batak besteari lagundu)
 "Es ba! Orreatik da totoa" - (Ez ba! Horregatik da totoa)

19.7. EZKONTZA

alargune: alarguna

"Bai, bai erropea, bai, bai, bai, orrek gure bestaldeko andreak be alan, alargune san, eta gixona eseules eukin, iru seme-alaba euki situn, ta alabea be gasterik il dakien ogetabat urtegas, eta mutile gero soldadu erotzien eta ak eseun eukin, e, iñondik, e, txakurrandi beten, e, serik, eta arexekas bixi ixen san" - (Bai, bai arropa, bai, bai, bai, horrek gure beste aldeko andreak ere hala, alarguna zen, eta gizona ez zuen lez eduki, hiru seme-alaba eduki zituen, eta alaba ere gazterik hil zitzaizen hogeita bat urterekin, eta mutila gero soldadu eroan zioten eta hark ez zuen eduki, inondik, txakurrandi baten, zerik, eta haiexekin bizi izan zen)

andregaye: andregai

"Andrageye, ba andrea ixengo dana" - (Andregai, ba andrea izango dena)

arrea: arrea, ezkondukeran etxe berrira eroaten dena

"Ori bai arrea, bai ixerak edo ba etxean dekosun jeneroas axe an, emon txokolate aputxu bet laguneri, da erakutzi arrea" - (Hori bai arrea, bai izarak edo ba etxean daukazun jeneroarekin huraxe han, eman txokolate apurtxo bat lagunei, eta erakutsi arrea)

"Su pe entzungo sendun, esta? Gurdien arrea eroate siena" - (Zuk ere entzungo zenuen, ezta? Gurdian arrea eroaten zirena)

"Eta gure aitek esate gun ori da ba, abadean, arrea, orduko denporakoa" - (Eta gure aitek esaten zuen hori da ba, abadearen, arrea, orduko sasoirakoa)

bixi alargune: bizi-alarguna, banatua, dibortziatua

"Orduen bixi alargune ixite san ba ya, bat galdute beste bateana yoate sanari esate akon" - (Orduan bizi-alarguna izaten zen ba ja, bat galduta beste batengana joaten zenari esaten zitzaion)

bodea: boda; ezkontza erabiltzen da ozpakizun erlijiosoa adierazteko; boda, oster, jatorduari dagokio

"Ba es, eta gurea askokoa ixen san, e? Se ni akorta nas, e, onek, Amagoia ta Lurdes, suen amamas ta ibiltzen die domekatan orrek kafea artzen eta, baye neure lengusine, eta etorte san bodea ikusten, bodea ikusten bai" - (Ba ez, eta gurea askokoa izan zen, e? Ze ni gomutatzen naiz, hauek, Amagoia eta Lurdes, zuen amamarekin eta ibiltzen dira domeketan horiek kafea hartzen eta, baina neure lehengusina, eta etortzen zen boda ikusten, boda ikusten bai)

"Bodea da yatordue" - (Boda da jatordua)

"Bodea in du klaro! Eskondu gara ta bodea in du" - (Boda egin dugu jakina! Ezkondu gara eta boda egin dugu)

dotea: dotea

eskontzea: ezkontza

"Klaro! Aitite pe, ixen sales, bere eskontzako sera emote yotzon, penea kenduteak, eta nik esate neutzen eta seaitik estosu gure in bertan lo? Ai! Es, es, nik oingo oya gurau dot" - (Jakina! Aitaitak ere, izan zen lez, bere ezkontzako zera ematen zion, pena kentzeak, eta nik esaten nion eta zergatik ez duzu gura egin bertan lo? Ai! Ez, ez, nik oraingo ohea gurago dut)

etxea ikustea, etze ikustea: ezkongaiari ezkonduko den propietatea erakustea

"Etzerik ukusterik estau, atxine eskondusko, etze ikustea esateuren ori" - (Etzerik ukusterik ez dago, antzina ezkonduz gero, etxe ikustea esaten zuten hori)

"Orduen etorte sentzen, neu be inte nau te, neu be etorte nau suenera ta, eta presenteu aitamagas, presenteu aitamagas ta, ba, auxe deku, gure semeak au, Derioko alderdiko terrenoak ba emoten dotzu, ser

iten dun te nor iten dun, eta, nobera pe, eser badakar edo espadakar ba, olaoxe berbak, sarran artean, etze ikustea orixe ixen san" - (Orduan etortzen zinen, neu ere eginda nago eta, neu ere etorrira nago zuenera eta, eta aurkeztu gurasoekin, aurkeztu gurasoekin eta, ba, hauxe daukagu, gure semeak hau, Derioko alderdiko terrenoak ba ematen diogu, zer egiten dugun eta nor egiten dugun, eta, norberak ere, ezer badakar edo ez badakar ba, holakoxe berbak, zaharren artean, etxe ikustea horixe izan zen)

geyerea: deierak, deionak; ezkontzeko egiten diren deiak

"Geyerak bai, ori danak, ori in barik esan eskontan iñor" - (Deionak bai, hori denek, hori egin barik ez zen ezkontzen inor)

gixongeye: gizongaia

matrimonioa: andra-gizonak

"Es leku betzutan koltxoya be eukiteudien, matrimonioantza parik, txikerraua ta lumeagas ine, ta gero an, yosite beste koltxean moduen, iladillueagas yoste san, lotu deiten, espabere alde batera iten dotze danak, eta a ixete san, bardintzu lotuteko" - (Ez leku batzuetan koltxoia ere edukitzen zuten, andre-gizonentzat barik, txikerragoa eta lumarekin egina, eta gero han, josita beste koltxaren moduan, hiladiloarekin josten zen, lotu dadin, ezpabere alde batera egiten die denak, eta hura izaten zen, berdintsu lotzeko)

mutil sarra: mutil zaharra

"Emetik etorten da nosipinean kotxe txiki betas, mutil sar bat, bakarrik bixi da an goyen" - (Hemendik etortzen da noizean behin auto txiki batekin, mutil zahar bat, bakarrik bizi da han goian)

neska sarra: neska zaharra

nobia: andregai

"Aldeakoak, aldeanuek ixeten basien, ba nobien etzera yoan, ta, soloak eta erakutzi" - (Baserrikoak, baserritarra izaten baziren, ba andregaiaren etxera joan, eta, soroak eta erakutsi)

nobia: gizongaia

"Arroa, nobioari erakutzite otzen, nobioa edo serari, aren fameliari erakutzite tzen nobiek, ser dekon arreoan" - (Arroa, gizongaiari erakusten zioten, gizongaia

edo zerari, haren familiari erakusten zion andregaiak, zer daukan arreoan)

"Ondiokarren alabeak eseuen euki nobioari pe" - (Oraindikarren alabak ez zuen eduki gizonagairik ere)

solterea: ezkongai (f.)

solterue: ezkongai (m.)

19.8. MUSIKA-DANTZA

agarraue: dantza lotua

altabosa: ahots gorailua, musika entzuteko erabiltzen zena plazako jolasean

"Musikea altabosa, plakak iminte sien altabosean" - (Musika ahots gorailua, plakak ipintzen ziren ahots gorailuan)

"Arexek iminte oskun altabosa" - (Harexek ipintzen zigun ahots gorailua)

atzeskue: atzeskua

aurrekue: aureskua

"Aureskue be sarri in dot nik or" - (Aureskua ere sarri egin dut nik hor)

aureskularie: aureskularia

"Aureskulariek emen asko on sien orduen, orduen epokan" - (Aureskulariak hemen asko egon ziren orduan, orduan sasoian)

"Ori, jotea yantzan ibilte sanean iteurien or, ba aureskulariek, jotea yantzan ibilte sanean, koyu te atateurien, e, neskea, yantzan" - (Hori jota dantzan ibiltzen zenean egiten zuten hor, ba aureskulariek, jota dantzan ibiltzen zenean, hartu eta ateratzen zuten, neska, dantzan)

balseoa: baltseoa, dantza lotua

bersolarie, bertzolarie: bertsolaria

"Bai ote sien, ote sien, olan erdi bertzolariek ote sien batzuk" - (Bai egoten ziren, egoten ziren, hola erdi bertsolariak egoten ziren batzuk)

bertzoa, bertzue: bertsoa

"Emetik olango, ortarako gitxi on da, bertzoak eta orrek iteko, taberna gustu akien asko, ta tabernan esta ikisten" - (Hemendik holako, horretarako gutxi egon da, bertsoak eta horiek egiteko, taberna gustatu zitzaizen asko, eta tabernan ez da ikasten)

dultzaiña, dultzainea: dultzaina

"Dultzainea, beste ba ta dultzainea, estot esetu emeti" - (Dultzaina, beste bat da dultzaina, ez dut ezagutu hemendik)

dultzaiñerue: dultzaina jolea

"Anpuerok jote seuen dultzainea, Samudioko Romanen ta aite pe, ori dultzaiñerue ixen san" - (Anpuerok jotzen zuen dultzaina, Zamudioko Romanen eta aitak ere, hori dultzaina jolea izan zen)

erromerie, erremerie: erromeria

"Santiago, Santana iten die emen erromeriek" - (Santiago, Santa Ana egiten dira hemen erromeriak)

"Ayuntamentuen aurrean orko plasan? Oi! or egote san itzelesko erromerie" - (Udaletxearen aurrean horko plazan? Oi! hor egoten zen itzelezko erromeria)

"Ango plasan, an Tabernasarre esaten geuntzen guk, aren aurrean, an erromerie ite san bai" - (Hango plazan, han Tabernazarre esaten genion guk, haren aurrean, han erromeria egiten zen bai)

"Plasea, ademas indertzu on san or, or jente asko etorte san, ademas jayetán, paskoak eta san martinetan or, e, iru egunetan ote sien, erremeriek, eta jente asko, oin esta inor baye" - (Plaza, gainera indartsu egon zen hor, hor jende asko etortzen zen, gainera jaietan, pazkoak eta san martinetan hor, hiru egunetan egoten ziren, erromeriak, eta jente asko, orain ez da inor baina)

espatayantzari: ezpata-dantzaria

"Espatayantzariak iteurien yantzan, ta gero, aurrekulariak, aurrekue be bai, baye arek eurek sien, espatayantzariak eurek sien, e, iteurienak aurrekue" - (Ezpata-dantzariak egiten zuten dantzan, eta gero, aurrekulariak, aurrekua ere bai, baina haiak eurak ziren, ezpata-dantzariak eurak ziren, egiten zutenak aurrekua)

ferramonikea, filarmonikea: filarmonika

"Es Jose Mari ixen san, Jose Mari sen, Jose Marik esautzen, e, Bisenti neu pe, ba ikisiko neuke ba, soñue jote, irekasten baostesu, ba erosistesu seu pa! Ferramonikea, bai ferramonikea erosi barik, ta seas gurosu ba? Esaotzon, labako tapeas?" - (Ez Jose Mari izan zen, Jose Mari zen, Jose Marik esan zion, Bizenti neuk ere, ba ikisiko nuke ba, soinua jotzen, irakasten badidazu, ba erosi iezadazu zeuk ba! Filarmonika, bai filarmonika erosi barik, eta zerekin gura duzu ba? Esan zion, labeko taparekin?)

flautea: flauta

"Kañubereas nik ukusi ot, e, flaute antzekoa ein, or jote afesinaduek eta olan" - (Kainaberarekin nik ikusi dut, flauta antzekoa egin, hor jotzen zaleak eta hola)

gitarrea: gitarra

islanderea: dantzari andrazkoa

jasbana: jazbana

"Jasbana esaten geuntzen, bai obeto yantzan in du ainbet biderres an, jasbanas" - (Jazbana esaten genion, bai, hobeto dantzan egin dugu hainbat biderrez han, jazbanarekin)

"Jasbana esate otziena ixen san, imini or, mai beten ganean, katxarro batzuk, batak joteuen piti bet olan, e, ser antza, besteak iteuen musikea jo ta, orixe grupotxue" - (Jazbana esaten ziotena izan zen, ipini hor, mahai baten ganean, katxarro batzuk, batak jotzen zuen piti bat hola, zer antza, besteak egiten zuen musika jo eta, horixe taldetxoa)

jotea: jota

"Guk, e, otubre allegeta sanean, birjine errosarioko egune, yoaten gintzen errosariora, udea libre eukiten gendun, baye yoaten gintzen errosariora, errosariotik urten, ta yoaten gintzen ba erromerire, Samudioko partiduetara be bai, fubola be, beste serik esendun eukingo, eta urten errosariotik eta yoaten gintzen plasara, eta, lelango piesea a ixete san, jotea, eta otza kentzean, otza kentzean an ibiltzen gintzen, sapata apurtan beti" - (Guk, urria ailegatzzen zenean, birjina errosarioko eguna, joaten ginen errosariora, uda libre edukitzen genuen, baina joaten ginen errosariora, errosariotik irten, eta joaten ginen ba erromeriara, Zamudioko partiduetara ere bai, futbola ere, beste zerik ez zenuen edukiko, eta irten errosariotik eta joaten ginen plasara, eta, lehenengo pieza hura izaten zen, jota, eta hotza kentzen, hotza kentzen han ibiltzen ginen, zapata apurtzen beti)

kantarie: kantaria

kantea: kanta

"Ori da kantea" - (Hori da kanta)

"Ak kantetan situsen orrek kantak gustiok" - (Hark kantatzen zituen horiek kanta guztiok)

"Olangorik es, baye gurean aite difuntue pe, kanteu itzel iteuen ta selango kantak kanteta oskusen aitek" - (Holakorik ez, baina gurean aita defuntuak ere, kantatu itzel egiten zuen eta zelako kantak kantatzen zizkigun aitak)

kantue: kantua

kaskabela: kaskabela

korroa: korrua, dantza korrua

"Pagau in bi ixete san yantzea itea emen, korro bakotxeko txakur andi bet, mutilek, mutilek, neskari esotzien kobretan" - (Ordaindu egin behar izaten zen dantza egitea hemen, korru bakoitzeko txakur handi bat, mutilek, mutilek, neskei ez zieten kobratzen)

"Yantzan iteaitik, e, lelangos esetu neuna nik, peseta bat san, korro bakotxean peseta bat, eta gero, imi eurien, bost pestara, ta gero, arrasti dustien yantza iteko, estait amar pesetara edo, bai neuri estat aserteu olangorik" - (Dantzan egiteagatik, lehenengoz ezagutu nuena nik, pezeta bat zen, korru bakoitzean pezeta bat, eta gero, ipini zuten, bost pezetara, eta gero, arrasti guztian dantzan egiteko, ez dakit hamar pezetara edo, baina niri ez zait suertatu holakorik)

musikea: musika

"Afesinoa euki, ordun esan musikerik" - (Zaletasuna eduki, orduan ez zen musikarik)

musikue: musikoa, musikaria

panderetea: panderoa

"Utzean utzean neure ixeko batek joteuen, eta gure aitek esateuen, e, arreba san, e, ta gure aitek esateuen, e, Urkiolara yoate san beti, te olan erromerire yoate san panderetea artute" - (Hutsean hutsean neure izeko batek jotzen zuen, eta gure aitek esaten zuen, arreba zen, eta gure aitek esaten zuen, Urkiolara joaten zen beti, eta hola erromeriara joaten zen panderoa hartuta)

"Baya afesinoa, artu panderetea ta Urkiolara, erromerire yoan bear" - (Baina zaletasuna, hartu panderoa eta Urkiolara, erromeriara joan behar)

pandereterea: pandero jolea

panderoa: panderoa

"Panderoan yantzan ei lei, panderoa jotzen arean dakinek, e, musike ataraten tzo ta ei

lei yantzan, e, orrenbeste esetute nau ni" - (Panderoan dantzan egin daiteke, panderoa jotzen arean dakienak, musika ateratzen dio eta egin daiteke dantzan, horrenbeste ezagututa nago ni)

soñue, sonue: soinua

"Erromerie daon lekuen, alderdi beten jotzen deue soñue, eta bestean ba tanboline" - (Erromeria dagoen lekuan, alderdi baten jotzen dute soinua, eta bestean ba danbolina)

"Gauean esan eiten baye gauean urten ta eusoatan batu, eta oin, e, gasteak eta, gasteak eta sarra pe yoaten dire kanpora afaltan ta olan, bai gu pakixu ser eiten gendun? Len esan dun modules, batak panderetea jo ta besteak sonue ta yantzan, euso baten batute yantzan" - (Gauean ez zen egiten baina gauean irten eta auzoetan batu, eta orain, gazteak eta, gazteak eta zaharrak ere joaten dira kanpora afaltzen eta hola, baina guk badakizu zer egiten genuen? Lehen esan dugun moduan, batak panderoa jo eta besteak soinua eta dantzan, auzo baten batuta dantzan)

"Aren entzunte dekot nik, soñue jotzen asi bea deuela ta, soñue" - (Haren entzunda daukat nik, soinua jotzen hasi behar duela eta, soinua)

soñularie: soinularia, soinu jolea

"Ostantzean beste soñularirik emen estot ikusi, bai or Geldon bat, beti bat joteuna, beti musike bat, beti musike bat, eseun kanbietan" - (Osterantzean beste soñularirik hemen ez dut ikusi, bai hor Geldon bat, beti bat jotzen zuena, beti musika bat, beti musika bat, ez zuen aldatzen)

"Bai emen be ote sien, eunkesea afesineduek, ote sien, e, soñulariek" - (Bai hemen ere egoten ziren, besterik ezean zaleak, egoten ziren, soñulariak)

tanboline: danbolina

"Tanboline ba, tanboline beti egon da" - (Danbolina ba, danbolina beti egon da)

tanbolinterue: danbolinteroa, danbolin jolea

"Aurrekue bi ixete sien, lagun bi, tanbolinterue aurrean tanborra jotzen eta" - (Aurrekua bi izaten ziren, lagun bi, danbolinteroa aurrean danborra jotzen eta)

tanborra: danborra

"Soñu bet etorte san bakarrik joten, tanborras edo fanderoas ta, araxas" - (Soinu bat etortzen zen bakarrik jotzen, danborrarekin edo panderoarekin eta, harexekin)

txistue: txistua

"Txistue ta tanboline, eta altabosa, eta len esan dune" - (Txistua eta danbolina, eta ahots gorailua, eta lehen esan duguna)

txistularie: txistularia

yantzarie: dantzaria

yantzea: dantza

yolasa: plazan egiten zen dantzaldia

"Eta ordu bi ingeru yolasean yantzan bustite ixerditen, eta gero andik ona ba, lotu in barik" - (Eta ordu bi inguru jolasean dantzan bustita izerditan, eta gero handik hona ba, lotu egin barik)

"Orduen yolasa asten san iruterdiek lauretan, iruterdietan lauretan, eta geubean, e, seiretako etzera etorri bear ta orduen ordue kanbie barik egon san, ta seirek ensegida etorten sien, ilunetan" - (Orduan jolasa hasten zen hiru eta erdiak lauretan, hiru eta erdietan lauretan, eta gauean, seietako etxera etorri behar eta orduan ordua aldatu barik egon zen, eta seiak behingoan etortzen ziren, ilunetan)

19.9. KIROLA

bayes tapeu: baietz tapatu, postura egitean erabiltzen den esamoldea

bolalekue: bolalekua, bolatokia

"Au, etze ondoan on san bat, on san einte, bolalekue" - (Hau, etxe ondoan egon zen bat, egon zen eginda, bolalekua)

"Bolalekue? Bai, emen paraje ademas, ta bolea or dau" - (Bolalekua? Bai, hemen paraje gainera, eta bola hor dago)

"Nik esetu in dot bolalekue ta, bolea, ta bolea dau or, aor aspian dau, or bean dau" - (Nik ezagutu egin dut bolalekua eta, bola, eta bola dago hor, haor azpian dago, hor behean dago)

"Bolalekue Larraben egon san" - (Bolalekua Larraben egon zen)

bolea: bolotan egiteko bola

"Bolea badau onikarren etzean, e? Gurean badau, se, an lelango bolalekue i euena, yoan san, e, oin etzea barri einte dau baye,

ara yoan san, bixiten, aman ondora, ta, an, e, bere alabea ta daus, bera es, bera il san, ta gero nire koñatue yoan san orra bixiten, eta, onen bolea or dau, axe bolea bera" - (Bola badago oraindikaren etxean, e? Gurean badago, ze, han lehenengo bolalekua egin zuena, joan zen, orain etxera berri eginda dago baina, hara joan zen, bizitzen, amaren ondora, eta, han, bere alaba eta daude, bera ez, bera hil zen, eta gero nire koinatua joan zen horra bizitzen, eta, honen bola hor dago, huraxe bola bera)

botea: botea, pilotarenaz esaten da

esku pelotea: esku pilota

eses tapeu: ezetz tapatu, postura egitean erabiltzen den esamoldea

kargea: karga, zama; idi probetan kiloko gehitzen dena

"Bi, iru be ote sien, segun selango ba, pisue eukiteurien idiek, ta se karga eukiteurien" - (Bi, hiru ere egoten ziren, segun zelako ba, pisua edukitzen zuten idiek, eta ze karga edukitzen zuten)

karrerea: lasterketa

karreterue: karretero

"Ak ikus barik probarik eseun itxiten, espasan yoaten karreterue ikusi barik eseun itxiten" - (Hark ikusi barik, probarik ez zuen uzten, ez bazen joaten karretero ikusi barik ez zuen uzten)

"Arri andias iru karreteru, txikerras bi" - (Hari handiarekin hiru karretero, txikerrarekin bi)

katxine: katxina, bolo txikerra

"Ein troka bat, munek alboatatik, eta, ola, bolea yoan ditzen, ta gero an, e, imini sos batzuk, sotzak, sera, txirloak esaten tzien, imini lau, ta beste bat txikitxue, katxine, ta arek botaten" - (Egin troka bat, munak alboatatik, eta, ohola, bola joan dadin, eta gero han, ipini zotz batzuk, zotzak, zera, txirloak esaten zieten, ipini lau, eta beste bat txikitxoa, katxina, eta haiek botatzen)

"Katxinek balio seun bost tantu eta txirloak bat" - (Katxinak balio zuen bost tanto eta txirloak bat)

"Orrek egon arren, orrek katxine ta, jo iten bosu, ta bide erdien lotzean batzu esan allegetan, askena jo bear ixeteun bai" - (Horiek egon arren, horiek katxina eta, jo egiten baduzu, eta bide erdian lotzen

bazaizu ez zen ailegatzan, azkena jo behar izaten zuen bai)

korredorea: korridorea

palillue: bola

partidue: partidua

"Bai, ainbetek eukieuen afesinoa, ainbetek euki euen, or ainbetek iteurien olgeu partidue" - (Bai, hainbatek edukitzen zuen zaletasuna, hainbatek eduki zuen, hor hainbatek egiten zuten olgatu partidua)

"Len be, partiduek imite sien, e, imite situen erriek" - (Lehen ere, partidua ipintzen ziren, ipintzen zituen herriak)

pelotarie: pilotaria

"Ori pelotarieri pasetan dakie" - (Hori pilotariei pasatzen zaie)

pelotea: pilota

posturea: postura

premioa: saria

probalarie: probalaria

"Tio Manu esan ixen probalari?" - (Osaba Manu ez zen izan probalaria?)

probalekue: probalekua

"Bai bai, Derion probalekue, oin be badau, oin estau afesinoa, oin jayetan iten deurie, san isidroatan, eta san inasio egunean iten deurie, iru lau pareja idi" - (Bai bai, Derion probalekua, orain ere badago, orain ez dago zaletasuna, orain jaietan egiten dute, san isidroetan, eta san inazio egunean egiten dute, hiru lau pare idi)

probea: proba, kirol proba

"Orretara be estot euki afesinorik, nik probak etzean ite neusen, beyekas, txarto iteusenean yo, ta an be iten tzie idieri, yo, ixin deuela nai in deula yo" - (Horretara ere ez dut eduki zaletasunik, nik probak etxean egiten nituen, behiekin, txarto egiten zutenean jo, eta han ere egiten diete idiei, jo, ezin duela nahiz egin duela jo)

"Orduen etzerik geyenatan ote san idie probara eroateko edo afesinoa" - (Orduan etxerik gehienetan egoten zen idia probara eroateko edo zaletasuna)

sokatirea: soka tira

"Sokatire pe, neu be inos ibilte nau, sokatiren" - (Soka tirak ere, neu ere inoiz ibilita nago, soka tiran)

tantue: tantoa

"Bakotzak, e, onenbesteko tantu euki euen, ta alan eite san" - (Bakoitzak, honenbesteko tanto eduki zuen, eta hala egiten zen)

"Txirlo bakotxa tantu bet, ote sien, e, iru, sei, bederatzi txirlo, ta katxine bat" - (Txirlo bakoitza tanto bat, egoten ziren, hiru, sei, bederatzi txirlo, eta katxina bat)

toto: bolo jokoan atzeko alderdian jotzean huts egitean esaten den berba

txirloa: bolo handia

"Imite sien, palilluek, sien, e, sei edo, ta beste bat txikie, katxine esate tziena, ta a botaten, ta txirloak" - (Ipintzen ziran, txirloak, ziren, sei edo, eta beste bat txikia, katxina esaten ziotena, eta hura botatzen, eta txirloak)

utzea: iletzea, idi probetan erabiltzen den neurria

ustela: idi probetan harriak karrajutik irteteen ustela egiten da

19.10. AISIA-KARTA JOKOAK

aspie: azpia, azpikoa

bastoa: bastoa

batekoa: batekoa, karta jokoan

bikoa: bikoa, karta jokoan

bostekoa: bostekoa, karta jokoan

bolanderea: bolandera

briskea, brisgea: 1. briska, karta joko mota.
2. fua, azpia karta jokoan

bromea: txantxa

erregea: erregea

eskotea: eskota, askoren artean ordaintzen zen ardoa, gero erromerian banatzen zena
"Eskoteas etor soan" - (Eskotearekin etorri zuan)

espatea: ezpata

fue: fua, azpia karta jokoan

irukoa: hirukoa, karta jokoan

juergea: parranda

"Orduen be jenteak juergak itzelak ite situsen" - (Orduan ere jendeak parrandak itzelak egiten zituen)

kaballoa: zaldia

karta yokoa: karta jokoan

"Treanean, ba, karta yokoan, bai! Amentala ya, e, mantxas beterik ekarko eudien igual plasatik a ta bidean treanean yaten a ta kartatan! Ori, bai, kartatan ite eudien, bai" - (Treanean, ba, karta jokoan, bai! amantala ja, lohiduraz beterik ekarriko zuten beharbada plasatik hura eta bidean

*trenean jaten hura eta kartetan! hori, bai,
kartetan egiten zuten, bai)*

kartea: karta

kopea: kopa

laukoa: laukoa, karta jokoan

musean: musean

premioa: saria

*"Alkateak, premia emon, ite oskun, premia emon, aurrekue ondo iten deuenari" -
(Alkateak, saria eman, egiten zigun, saria eman, aurrekua ondo egiten duenari)*

saspikoa: zaspikoa, karta jokoan

seikoa: seikoa, karta jokoan

tantue: tantoa, puntua

tranpea: tranpa

"A tranpea ongo esta ba!" - (A tranpa egongo ez da ba!)

*"Soas ara puntera ia, an tranpea ongo da ta" -
(Zoaz hara puntara ea, han tranpa egongo da eta)*

*"Karreteruek ite eusen tranpak itzelak" -
(Karreteroak egiten zituen tranpak itzelak)*

tutea: tutea

txankea: txanka, hamar zenbakiko kartaren izena

txuflea: parranda

urrea: urrea

yokoa: jokoa

"Yokoa ote san beti" - (Jokoa egoten zen beti)

19.11. EHIZA-ARRANTZA

arrastue, errastoa: arrastoa

bandea: banda

eskopetea: eskopeta

*"Baten eskopeteas kasan ibili, ta or egon san" -
(Baten eskopetarekin ehizan ibili, eta hor egon zen)*

kasea: ehiza

kaserue: ehiztaria

"Ori kaseruek etxekok enemigoa baisen besterik" - (Hori ehiztariak ez zaukak arerioa baizen besterik)

misklea: miskela, lika

*"Aor etze ondoan dau bat, eta or badekoas neuk, a esta etze ondokoa nirea baye or dekoas iru, iru lau, iru, orren, e, asala, sartu saku beten, eta uretan euki bea da, ure korrientea dauen lekuen, eta iten deu usteldu, eta gero iten da, ori misklea" -
(Haor etxe ondoan dago bat, eta hor*

badauzkat neuk, hura ez da etxe ondokoa nirea baina hor dauzkat hiru, hiru lau, hiru, horren, azala, sartu zaku baten, eta uretan eduki behar da, ura korrontea dagoen lekuan, eta egiten du usteldu, eta gero egiten da, miskela hori)

*"Ori sera, misklea iten da, txoriek koiteko" -
(Hori zera, miskela egiten da, txoriak harrapatzeko)*

pasokoa: pasokoa, pasean etortzen den hegaztia

sarea: sarea

sepoa: zepoa, arrapoa

*"Ontxe lau urte edo or i euen linpiesea andie, aortxe alboan, ta lelangoan, eseuen ein baye bigarrenari sepoa imini otzien" -
(Oraintxe lau urte edo hor egin zuen garbiketa handia, haortxe alboan, eta lehenengoan, ez zuen egin baina bigarrenari zepoa ipini zioten)*

tiroa: tiroa

"Eskopeteas tiroa bota" - (Eskopetarekin tiroa bota)

tranpea: tranpa

"Atxine tranpea, tranpea, in suloa bidean ta, ta an soye ta, sujeteu palutxuas ta, ta an imini, ba sakonean, e, kotxoa ta" - (Antzina tranpa, tranpa, egin zuloa bidean eta, eta han zohia eta, eutsi palotxoarekin eta, eta han ipini, ba sakonean, kotxoa eta)

"Txikiten abiek topeu, tranpak edurtzea dauenean, artatxoriek koiteko" - (Txikitan habiak topatu, tranpak elurtza dagoenean, artatxoriak harrapatzeko)

19.12. JAIEGUNAK

andramari egune: andramari eguna

"Jayetan, andramari egunean, ta sarri es, e? Baten yoa nas Larrabetzura" - (Jaietan, andramari egunean, eta sarri ez, e? Baten joan naiz Larrabetzura)

andramari martiko egune: andramari martiko eguna

aste santue: aste santua

*"Onexek, etorte sien porejenplo Deriora, aste santue iste san igual ta bueno sortzi eguneko misinoa taus sermoyak iten" -
(Hauexek, etortzen ziren esaterako Deriora, aste santua izaten zen beharbada*

eta beno zortzi eguneko misioak daude sermoiak egiten)

bariku guren egune, bariku gure egune:
bariku guren eguna

"Bai emen len lelangotan ite san, bariku guren egunean ite san prosesiñoa, lelango ite san Samudion, eta gu emeti yoate gintzesan Samudiora, baye gero, emen, ekar seituesan, e, santuek, eta orko elexatik, emeko semaforoa dauen lekure, gure etzea baño apur bet, orrao, orraxearte, eta an, aurrean egon san, Juanita egon san, e, krieda or, orko seragas, ango usabandreagas, eta andik artu bueltea, ta atzera igoten gendun gora, bariku guren egunean" - (Bai hemen lehen lehengoetan egiten zen, bariku guren egunean egiten zen prozesioa, lehenengo egiten zen Zamudion, eta gu hemendik joaten ginen Zamudiora, baina gero, hemen, ekarri zituzten, santuak, eta horko elizatik, hemengo semaforoa dagoen lekura, gure etxea baino apur bat, horrago, horraxeino, eta han, aurrean egon zen, Juanita egon zen, kriada hor, horko zerarekin, hango ugazabandrearekin, eta handik hartu buelta, eta atzera igotzen genuen gora, bariku guren egunean)

"Bai bariku guren egunean, e, ganadurik bustertu arean bes, nik entzute dekot, batek, e, bariku guren egunean errotea ibili, eta, errotak apurtu yakosala, lotu, ta aberie akola" - (Bai bariku guren egunean, ganadurik buztartu arean ere ez, nik entzutea daukat, batek, bariku guren egunean errota erabili, eta, errotak apurtu zitzaizkiola, lotu, eta aberiatu zitzaiola)

defuntuen egune: arimen eguna

"Eta gero domusantu da illen baten, eta illen bien defuntuen egune ya mesak atara ta" - (Eta gero domu-santu da hilaren batean, eta hilaren bian defuntuen eguna ja mezak atera eta)

domusantue: domu-santua

"Orrek lenau euki euen soñue joteuen batek, domosantuetan" - (Horrek lehenago eduki zuen soinua jotzen zuen batek, domu-santuetan)

"Domusantutan sartu san" - (Domu-santuetan sartu zen)

domusantu egune: domu-santu eguna

"Ferie domusantu egunean esan iten?" - (Azoka domu-santu egunean ez zen egiten?)

eguen guren egune, eguen gure egune:
eguen guren eguna

"Gurean, e, aite difuntuek, inos bes, bariku guren egunean, eta eguen guren egunean yatekoak ein, yatekori pes, bariku guren egunerri errespetau, terriblean eite san" - (Gurean, aita defuntuak, inoiz ere ez, bariku guren egunean, eta eguen guren egunean jatekoak egin, jatekorik ere ez, bariku guren egunari errespetatu, itzelean egiten zen)

"Eguen gure egunean, sertute san, eguen gure ixete san, gixonan konfesariora, eta mesara yoatea, parrokien" - (Eguen guren egunean, zertzen zen, eguen guren izaten zen, gizonen konfesioa, eta mezara joatea, parrokian)

erramu egune: erramu eguna

erregean egune: erregeen eguna

"Erregean egunean, emetik ibilteko, lenau gasteak ibilteko, onen anajeak euki euen kaballo bat" - (Erregeen egunean, hemendik ibiltzeko, lehenago gazteak ibiltzeko, honen anaiak eduki zuen zaldi bat)

"Erregean egunekoa da ori" - (Erregeen egunekoa da hori)

"Gauetan gero, umeak dustiek altzeu te, ta estosu entzun? Nos etor dire ba? Ta, estosu entzun bateko txakurre ausike, besteko estosu asmeu? Orduntxe etor dire erregeak" - (Gauetan gero, umeak guztiak altxatu eta, eta ez duzu entzun? Noiz etorri dira ba? Eta, ez duzu entzun bateko txakurra ahausika, besteko ez duzu asmatu? Orduantxe etorri dira erregeak)

erregeanak: erregeanak

"Bai erregeetan, erregeetan ite san ori" - (Bai erregeetan, erregeetan egiten zen hori)

eutzen egune: hautsen eguna

"Eutzen egunean eutze artzen yoan bai ardureas ta ontxe be bai ondiño, e?" - (Hautsen egunean hautsa hartzen joan bai ardurarekin eta oraintxe ere bai oraindino, e?)

gabonak: gabonak

"Oin esango tzut beste geuse bat, e? Ni neu yoate nintzen gabonetan umeakas, oin

kotxeak egoten die, baye orduen, e, astoan artu" - (Orain esango dizut beste gauza bat, e? Ni neu joaten nintzen gabonetan umeeekin, orain autoak egoten dira, baina orduan, astoan hartu)

gabon egune: gabon eguna

"Gabon egunean? Nik etzean, lelango origo asak aurretik, ta larogei urte dekoas, e? Origo asak aurretik, eta gero gure amak eukiteuen afesino itzela, makalloa ta beseguas eukiteuen gure amak, ta gero, ori gabon gaue, natibite egunean beti saldea preparetauen, etzeko olloas, etzeko olloas einte saldea, ta gauean fuertetxuau sertu edo in einesko ta, gero ordun egurdien ba, okela apur betas edo edosein gausas, gure aiteri gixedue guste akon" - (Gabon egunean? Nik etxean, lehenengo olio azak aurretik, eta laurogei urte dauzkat, e? Orio azak aurretik, eta gero gure amak edukitzen zuen zaletasun itzela, makailoa eta bisiguarekin edukitzen zuen gure amak, eta gero, hori gabon gaua, Natibitate egunean beti salda prestatzen zuen, etzeko oiloarekin, etzeko oiloarekin eginda salda, eta gauean indartsutxoago zertu edo egin eginez gero eta, gero orduan eguerdian ba, okela apur batekin edo edozein gauzarekin, gure aitari gisatua gustatu zitzaion)

"Eta ba jayo san gabon egunean" - (Eta ba jaio zen gabon egunean)

gabon gaue: gabon eguna

gabon sarra: gabon zaharra

gabon sar egune: gabon zahar eguna

"Gabon sar egunean, nik bakixu ser eite neuen? Etorte siren umeak ona, baya amalau edo amabost ume, batzea siren, gu emen eskondu te gero, eta yoaten gintzen ortik, etzerik, ortik bueltea iten gendun, tanborra jo, eta kanteu" - (Gabon zahar egunean, nik badakizu zer egiten nuen? Etortzen ziren umeak hona, baina hamalau edo hamabost ume, batzen ziren, gu hemen ezkondu eta gero, eta joaten ginen hortik, etxetik, hortik buelta egiten genuen, danborra jo, eta kantatu)

garisumea, garixumea: garizuma

"Garixumen, e, esegoan erromeririk, soñurik esan yoten iñon, sortzi domeka ixete siren garixumen eta orduen, e, paseoan edo, edo sermoyak edo olan baye, esan besterik

iten, yantzarik esan iten" - (Garizuman, ez zegoen erromeriarik, soñurik ez zen jotzen inon, zortzi domeka izaten ziren garizuman eta orduan, paseoan edo, edo sermoyak edo hola baina, ez zen besterik egiten, dantzarik ez zen egiten)

gorpusti: gorpuzti, Gorpuzti eguna

inusementan egune: inuzenteen eguna

"Keba! Oin estau ortako grasirik, baye atxine edosein gauseaitik etorte atzusen ta, inusementan egunean, akorduri pes igual selan dan inusementan egune ta, ba, yoan aiteana edo seuser, inusentada bat eiten" - (Bai zera! Orain ez dago horretarako grazziarik, baina antzina edozein gauzagatik etortzen zitzaizkizun beharbada zelan den inuzentearen eguna eta, ba joan aitagana edo zer edo zer, inozentada bat egiten)

jaye: jaia

"Gero in seurien nobenea, eta ganera Sanantonio egunean jaye" - (Gero egin zuten nobena, eta gainera San Antonio egunean jaia)

"Artean be jaye ixen san Derion ori" - (Artean ere jaia izan zen Derion ori)

"Jaye ite san artean bere" - (Jaia egiten zen artean ere)

jayegune: jai eguna

kandelario egune, kandelarioa: kandelario eguna

"Kandelarioa, ta urruko egune da, ur bereinketu iten dana, San Blas" - (Kandelarioa, eta hurrengo eguna da, ur bedeinkatu egiten dena, San Blas)

"Ba kandelario egunean be bardin, eroate san mesara, eta, kandlea bereinketuten, elexara" - (Ba kandelario egunean ere berdin, eroaten zen mezara, eta, kandela bedeinkatzen elizara)

kanpora martxo: kanpora martxo, txitxiburduntzia, basatostea

karatulea: karatula

"Karatulak, e, urte baten Miserikorditik ekarri nedusen alkileute" - (Karatulak, urte baten Miserikordiatik ekarri nituen alokatuta)

karnabalak: aratustekak

"Beti kuadrillea batzen gintzesan orretarako gure sasoyan baye, nire semea pa bai yantzi dires karnabalatan" - (Beti koadrila batzen ginen horretarako gure sasoyan

baina, nire semeak ba bai jantzi dira aratusteetan)

"Karnabalatan en jeneral orrek tostadak ite sien" - (Aratusteetan gehienetan tostada horiek egiten ziren)

natibite egune: natibitate eguna

"Bearrik esan eiten ordun, natibite egunean" - (Beharrik ez zen egiten orduen, Natibitate egunean)

paskoa: pazkoa

"Paskoatan Samudion esan tzu" - (Pazkoetan Zamudion esan dizu)

"Ortarako ibili bi da asko, ta ni enitzen ibiltzen, nik orduko epokan estekot, e, esan dot len, bakarrik, santiagoatan Deriora, karamelerari karameloak koiten, ta Samudion paskoatan ta san martinetan" - (Horretarako ibili behar da asko, eta ni ez nintzen ibiltzen, nik orduko sasoian ez daukat, esan dut lehen, bakarrik, santiagoetan Deriora, karamelu saltzaileei karameluak hartzen, eta Zamudion pazkoetan eta san martinetan)

pasko gaubea: pazko gaua

"Orduen ixite situsen kanpak, arik eta, pasko geuberartean, eta esan egoten eser" - (Orduan ixten zituzten kanpaiak, harik eta, pazko gauera artean, eta ez zen egoten ezer)

sanandres egune: San Andres eguna, errenta ordaintzeko eguna izaten zen

san blas egune: san blas eguna

"Kandelak kandelario egunean eta san blas egunean orrek besteak" - (Kandelak kandelario egunean eta san blas egunean beste horiek)

"San Blas egunean ba sertute san, orrek kordoyak, kordoyak bereinketuten eroaten" - (San Blas egunean ba zertzen zen, kordoi horiek, kordoiak bedeinkatzen eroaten)

san blas kordelak: san blas kordelak

"San Blas egunean bereinketuten dices San Blas kordelak, eta ure, ur bereinketue ta orrek" - (San Blas egunean bedeinkatzen dira San Blas kordelak, eta ura, ur bedeinkatua eta horiek)

"Eta kontus Sanblasagas, e? Esta kendu bear eta kenduten danean erre in bear da, e?" - (Eta kontuz San Blasekin, e? Ez da kendu behar eta kentzen denean erre egin behar da, e?)

san inasio egune: san inazio eguna

"Saninasio egunean, e, or ongo dire probak" - (San inazio egunean, hor egongo dira probak)

san juan bagillea, san juan bagilea: san juan bagilea

"San Juan bagillea sue ite san" - (San Juan bagila sua egiten zen)

santageda: Santa Ageda

"Egun beten, gurean, gure ama defunteak, esan seun santagedadunek onek, ausokoa san mutile, orduen kintoak ixete siren, kintoak, igual ixete siren bost, igual ixete siren sei edo sortzi edo, segun se urtekoak, eta, geur etorko dire santagedak eta etorko dices, se Joakin euki seun usena onek Goikoetzekoak, ori esan dune, bean yate seudiela, il san, baye orrek, kuadrillea, eta gure ama defunteak taloak inte euki situn, taloak inte aspirea esaten dakon atxine serari, eta, geube ta otz bat ite seun! Estait edurre ixen espasan, eta taloak inte euki situn, ta esan seun oin etorko dire ointxe ixengo da ya iluntzetxue, oin etorko dire onek, ein seitun taloak, ta imin seitun arek, erre bear doas one tatosenerako one tekien otzagas ta danak, e, etze gitxi egon san amen ba, ta bertokoak esunek danak eta, imin seun taloak erretan, sarten andi beten imin seun, e, txarrie ilte eukin gendun, ta sayeskie ta txorixoa, imin dotzien eta, bueno! Arek ekarri seudien gosea ta otza, ikusi bes, guk es gendun ikusi be in kasik, talorik es serik, ensegida akabeudien dana" - (Egun baten, gurean, gure ama defuntuak, esan zuen Santa Agedadunak hauek, auzokoa zen mutila, orduan kintoak izaten ziren, kintoak, beharbada izaten ziren bost, beharbada izaten ziren sei edo zortzi edo, segun ze urtetakoak, eta, gaur etorriko dira Santa Agedak eta etorriko dira, ze Joakin eduki zuen izena honek Goikoetzekoak, hori esan duguna, behean jaten zutela, hil zen, baina horiek, koadrila, eta gure ama defuntuak taloak eginda eduki zituen, taloak eginda azpira esaten zitzaion antzina zerari, eta, gaua eta hotza egiten zuen! Ez dakit elurra izan ez bazen, eta taloak eginda eduki zituen, eta esan zuen orain etorriko dira oraintxe izango da ja iluntzetxoa, orain etorriko dira hauek, egin zituen taloak, eta ipini zituen haiek, erre behar ditut hauek

datozenerako hauek daukaten hotzarekin eta denak, etxe gutxi egon zen hamen ba, eta bertokoak ezagunak denak eta, ipini zituen taloak erretzen, zartagin handi baten ipini zuen, txerria hilda eduki genuen, eta saiheskia eta txorizoa, ipini zien eta, beno! Haiiek ekarri zuten gosea eta hotza, ikusi ere ez, guk ez genuen ikusi ere egin kasik, talorik ez zerik, behingoan amaitu zuten dena)

"Santagedanak, e, asko santageda, ordu erdi ite seudien etze bakotxean ta, Derio txikerra san" - (Santa Agedarenak, asko Santa Ageda, ordu erdi egiten zuten etxe bakoitzean eta, Derio txikerra zen)

txarribodea: txarriboda

txitxiburduntxi: txitxiburduntzi

"Txitxiburduntxi esate akon orreri" - (Txitxiburduntzi esaten zitzaion horri)

urtebarri: urte barri

urtebarri egune: urte barri eguna

"Eta gero urtebarri egunean, atzera etorte sien danak, eta gero urte barri batzean, etzerik etze" - (Eta gero urte barri egunean, atzera etortzen ziren denak, eta gero urte barri batzen, etxerik etxe)

urte sarra: urte zaharra

19.13. EUSKARA

berbea: berba

berori: berorika tratamendua

erderea: erdara

estok eta badok: eztoke eta badok, hiketana, hika tratamendua

estona ta badona: andrazkoen hika tratamenduaren izena

"Ak andreak ostera ba dan dana iten deu, estona ta badona" - (Andre hark ostera ba den-dena egiten du, hika)

"Nire amak eta bere aisteak, badona! Estona! orixe berbeta eukin deuriena, bai" - (Nire amak eta bere ahizpak, badun! Ez dun! horixe berbeta eduki dutena, bai)

"Ixeokak eta gure amak estona ta badona alkarreas, ori kostunbrea eukin deure berba iteko" - (Ixeokak eta gure amak ez dun eta badun elkarrekin, ekandu hori eduki dute berba egiteko)

euskera: euskara, euskaraz

"Guk, e, euskera nai erdera bakixu nasteu iten dules" - (Guk, euskara nahi erdara badakizu nahastu egiten dugun lez)

euskerea, auskeria: euskara

"Auskeria be, diferentzie dau, erri batetik bestera diferentzie dau" - (Euskara ere, desberdintasuna dago, herri batetik bestera desberdintasuna dago)

"Larrabetzun arean arean baye ostein es, baye Erandiora! Erandiora asko" - (Larrabetzun arean-arean baina ostein ez, baina Erandiora! Erandiora asko)

19.14. GERRATEA-SOLDADUSKA

bakea: bakea

"Oin bakea dau orrekas" - (Orain bakea dago horiekin)

balea: bala

"Nik, e, trintxeran, e, beti iminte nun arritxu bet, ba trintxerean moduen parean, buruko, gorroa, birriten kendu ostien, e? Balakas" - (Nik, lubakian, beti ipintzen nuen harritxo bat, ba lubakiaren moduan parean, buruko kaskoa, birritan kendu zidaten, e? Balekin)

bonbea: bonba

"Bonbak bai selango suloakin! Ta, suertea etzera sartu estea!" - (Bonbak bai zelako zuloekin! Eta, zortea etxera ez sartzea!)

errefujioa: aterpea

"Errefujioa on san or" - (Aterpea egon zen hor)

fusile: fusila

gerrea: gerra, gerla

"Gero akabe sanean gerrea, gero, yoan bea ixen gendun" - (Gero amaitu zenean gerra, gero, joan behar izan genuen)

karlistadea: karlistada

kintoa: kintoa

"Ni 41ko kintoa nas" - (Ni 41ko kintoa naiz)

"Samudioko kintoak badatos" - (Zamudioko kintoak badatoz)

kuartela: koartela

"Kuardelean ego nitzen" - (Koartelean egon nintzen)

polborea: bolbora

soldadiskea: soldaduska

"Ori soldadiskan eukin gendun" - (Hori soldaduskan eduki genuen)

soldadue: soldadua

"Gorlisetik arantza yoate nok, faroa dauen lekure, or soldadu egonta nayaok ni or ta, an mendien daus olangoak diputasinoko terrenoa tekosen lekuen" - (Gorlizetik harantz joaten nauk, faroa dagoen lekura, hor soldadu egonda nagok ni hor eta, han mendian daude holakoak)

"Ni umea nitzen onikarren, a, estait semet urte, soldadu yoan barik o nitzen ta" - (Ni umea nintzen oraindikarren, ez dakit zenbat urte, soldadu joan barik egon nintzen eta)

20. OROKORRA

Atal honetako berbak ezin sartu izan ditugu arteragoko ataletan, izan ere, batekoak baino gehiagokoak izan daitezke; halandaze, hona hemen denak jarraian.

aberie: aberia

"Beste bat dau olloari iten tziena aberie guri i oskun baten" - (Beste bat dago oiloei egiten diena aberia guri egin zigun baten)

"Ni ille bien ego nintzen Kruzetan tope ixinik aberie" - (Ni hil bian egon nintzen Gurutzetan topatu ezinik aberia)

abioya: hegazkina

"Abioak datos, bueno abioya pasetan da, es etorri, badakixue Derion ser dauen, etor basarie badakixue" - (Hegazkinak datoz, beno hegazkina pasatzen da, ez etorri, badakizue Derion zer dagoen, etorri bazarete badakizue)

ademas: gainera

"Jai besperatan, olango jayek santiagoak eta etorte sienean ademas, bespera geuberarten eseuen itxiten gure amak imintea" - (Jai bezperetan, holako jaiak Santiagoak eta etortzen zirenean gainera, bezpera gauera artean ez zuen uzten gure amak ipintzea)

afana: gogoia, nahia, grina

"Or dau! Or ote san afana ba, oin euki esta iten urerik, eta oin estait nik" - (Hor dago! Hor egoten zen gogoia ba, orain eduki ez da egiten urik, eta orain ez dakit nik)

agirike: agirika, errieta

aguantea: abantea, iraupena

akabue: 1. amaiera. 2. azkena

akaso: akaso

"Ni enaseles ixen ños ba olau sera, kantetan ta olan ibilikorik, akaso orrek, e, len ibil dienak igual seuser yaki lie" - (Ni ez naizen legez izan inoiz ba holako zera, kantatzen eta hola ibilikorik, akaso horiek, lehen ibili direnek beharbada zer edo zer jakin lezakete)

akordue: akordua, gomuta

"Estekot akordurik" - (Ez daukat akordurik)

"Oin yayoten dinean ensegida tratetan ditue txarriek, emote otzie indesinoa ta, baye lelau, e, indesinoan akordurik esan oten" - (Orain jaiotzen direnean behingoan tratatzen dituzte txerriak, ematen diete injekzioa eta, baina lehenago, injekzioaren gomutarik ez zen egoten)

aldea: aldea, desberdintasuna

"Emen asi te Lesamara alde andie dau, e?" - (Hemen hasi eta Lezamara alde handia dago, e?)

"Artoak igual eroango deu, amabost egunen aldea lelengoti atzenera igual" - (Artoak beharbada eroango du, hamabost egunen aldea lehenengotik atzenera beharbada)

alegine: ahalegina

alkar, arkal: elkar

"Danak alkarren ganekoak ixen gara" - (Denak elkarren gainekoak izan gara)

"Arkalan antza dekie" - (Elkarren antza daukate)

antza: antza

"Erbien antza deko orrek" - (Erbiaren antza dauka horrek)

"Orduko antzi pestau oin jenteagas, antzi pes!" - (Orduko antzik ere ez dago orain jendearekin, antzik ere ez!)

ap: ap, hotza adierazteko erabiltzen den berba

aparatoa: aparatua

apellidue, apilledue: abizena, deitura

apenas: ez dirudi, ez du ematen, antza

"Estot ikusi apenas" - (Ez dut ikusi antza)

"Trapuen bategas tapeu bai baye eser es apenas, baye txarra da!, Puf!" - (Trapuren batekin tapatu bai baina ezer ez antza, baina txarra da! Puf!)

apopilloa: apopiloa

aprobea: proba

"Bai batzuk kantze otzien, nik estot kandu inos baye, se eite neuen aprobea, kandute ta esan ibiltzen yantzan, ta kukutxea beti" - (Bai batzuek kentzen zioten, nik ez dut kendu inoiz baina, ze egiten nuen proba,

kenduta eta ez zen ibiltzen dantzan, eta kukutxa beti)

ardurea: ardura

"Porrua, soloko bendejean ardurea, ta, porrua, asea, txikorie, eskarolea, letxugeak eseuen erresultetan, asalgea be gitxi kanpoan sertzten eta" - (Porrua, soroko bendejaren ardura, eta, porrua, aza, txikoria, eskarola, letxugak ez zuen erresultatzen, zerba ere gutxi kanpoan zertzen eta)

asarrea: haserrea

asuntoa: gorabehera

"Podean asuntoan asi sien berbas eta olan" - (Inausketaren gorabeheran hasi ziren berbaz eta hola)

"Nik, e, estot esetu, baye bakit amen, e, kontribusinoan asuntoan" - (Nik, ez dut ezagutu, baina badakit hamen, kontribuzioaren gorabeheran)

ataño, ataño, atañoan: hataino

"Amari de bai len entzuten gentzen, baye gure denporan es ataño, e?" - (Amari eta bai lehen entzuten genien, baina gure denboran ez hataino, e?)

"Gure denporan bestait, ataño ataño es, giau, yatea kendu, yan esta in bear" - (Gure denboran ere ez dakit, hataino-hatino ez, gehiago, jatea kendu, jan ez da egin behar)

"Orduen es atañoan, esan orrenbestean, nik estot ikusi, uin sertuten da ori giau, len baño" - (Orduan ez hataino, ez zen horrenbestean, nik ez dut ikusi, orain zertzen da hori gehiago, lehen baino)

aterpea: aterpea

"Gero akabeta sanean lastatikoa koyu gurdien ta, atzera tejabanara, tejabanara edo lastatire edo, aterpera, baye akabeu arte, an" - (Gero amaitzen zenean lastategikoa hartu gurdian eta, atzera tejabanara, tejabanara edo lastategira edo, aterpera, baina amaitu arte, han)

atxakie: aitzakia

"Kartetan iteuren, ara etorri barberire, ta barberien atxakire batzea sien" - (Kartetan egiten zuten, hara etorri bizartegira, eta bizartegiaren aitzakiara batzen ziren)

autoa: autoa, automobila

badaespadan: badaezpada

"Estakit ori, kontuz, neu pe badaespadan neuk etxoat gure pike dien iño pe" - (Ez dakit

hori, kontuz, neuk ere badaezpada neuk ez diat gura pika dezan inork ere)

bai: bai

bajadea: jaitsiera

"Pistiek, e, denpora sera daonean, bajadan ibiltzen die" - (Piztiak, eguraldi zera dagoenean, jaitsieran ibiltzen dira)

bakotxa: bakoitza

balorea, balora: balorea

banderea: bandera

barrie: berria, albistea

"Ik estakik ameko barrie" - (Hik ez dakik hamengo berria)

bates be: batez ere

bayetz: baietz

"Esaten deure bayetz" - (Esaten dute baietz)

"Bai pentzatot bayetz, e?" - (Bai pentsatzen dut baietz, e?)

bearlekue: 1. beharlekua. 2. beharra.

"Bearlekuen, e, asi san berbas, bearlekure sartu akabuen, ni ego nintzen lekuen ta, an asi san berbas" - (Beharlekuan, hasi zen berbaz, beharlekura sartu akabuan, ni egon nintzen lekuan eta, han hasi zen berbaz)

"Orduen bearlekue ote san gero, e! Bixerra kentzeako, aste dustietan yoan bear barberire" - (Orduan beharlekua egoten zen gero, e! Bizarra kentzeko, aste guztietan joan behar bizartegira)

bear lodie: behar lodia, behar dorpea

bearra: 1. beharra, lana. 2. beharra, premia

"Bear asko emoten deu erleak" - (Behar asko ematen deu erleak)

"Gitxik ite seun, bear andie emoten deu karakolak eta" - (Gutxik egiten zuen, behar handia ematen du karakolak eta)

beintzet: behintzat

"Gurean beintzet, e? Origoa, origo epela" - (Gurean behintzat, e? Olioia, olio epela)

bentajea: abantaila

"Orretara beti deko bentaja apur bet alde batera labreu te alde batera ereiteko be, se ogeikoa be asko iten da andi iten da" - (Horretara beti dauka abantaila apur bat alde batera landu eta alde batera ereiteko ere, ze hogeikoa ere asko egiten da handi egiten da)

bestea: bestea

"Baye bestea da gosoaua, e!" - (Baina bestea da gozoagoa, e!)

bijea: bidaia

"Orduen medikuegana bija gitxi ite san! esetu bes medikue!" - (Orduan medikuagana bidaiia gutxi egiten zen! ezagutu ere ez medikua)

bildurre: bildurra

"Estait sen bildurre ixete san baya" - (Ez dakit zeren bildurra izaten zen baina)

"Neuri esan dostie sarriten, gero, niri aite ta ama, gasterik il sien, eta yoate nintzen igual Bilbora sinera, eta non bixi sara? Derion, eta kanposantutik pase bea dosu? Oi! Estekosu bildurre? Suk estakixu arek selango baketzue tiresan" - (Neuri esan didate sarritan, gero, niri aita eta ama, gazterik hil ziren, eta joaten nintzen beharbada Bilbora zinera, eta non bizi zara? Derion, eta kanposantutik pasatu behar duzu? Oi! Ez daukazu bildurra? Zuk ez dakizu haiek zelako baketsuak diren)

"Bildurre, bildurre eukite seuren, eseuren entzuten besterik, e, orixe baño ta" - (Bildurra, bildurra edukitzen zuten, ez zuten entzuten besterik, horixe baino eta)

bitartea: bitartea

bitartekoa: bitartekoa

biximodue: bizimodua

"Nik andreari biximodu txarra emoten be ikuste dekot nik, gixonak ori dala ta estala, andreari biximodu txarra emoten bere, eta orreatik etzera yoakeran, ba, berari sorginek segidu tziela atzetik, ba sorginek es, barrukoak estomagukoak, sorginek segidu tziela atzean, ta andrean keridoda tiela ta biximodu txarra emonta ikuste dekot, e?" - (Nik andreari bizimodu txarra ematen ere ikusita daukat nik, gizonak hori dela eta ez dela, andreari bizimodu txarra ematen ere, eta horregatik etxera joakeran, ba, berari sorginek segitu diotela atzetik, ba sorginek ez, barrukoak urdailekoak, sorginek segitu diotela atzean, eta andrearen maitaleak direla eta bizimodu txarra emanda ikusita daukat, e?)

bolea: bola

brillue: distira, dirdira

bueltea: buelta

burlea: burla, trufa

defetoa: akatsa

derrepentekoa: bat-batekoa

deseoa: desioa, guraria

"Bueno begisko ori edoseineri, laguneri be bardin, deseo txarra dekona, antxe, ebili,

erresetan edo komedietan, antxe, ta ba begitu te iten da" - (Beno begizko hori edozeini, lagunari ere berdin, desio txarra daukana, hantxe ibili, erreztatzen edo komedietan, hantxe, eta ba begiratu eta egiten da)

deskantzue: deskantsua, atsedena

"Or eukite nun deskantzue, eta orti koxute Seotzera, Seotzera ur paluen kantinek eroate nusen, utzek erote nusen" - (Hor edukitzen nuen deskantsua, eta hortik koiuta Seotzera, Seotzera ur makilan kantinak eroaten nituen, hutsak eroaten nituen)

"Inurrie be batusko gauseari, ba ak, e, ak deskantzue estotzo itxiten landareari, eta badabil an seran, ak deskantzurik esteko landareak" - (Inurria ere batuz gero gauzari, ba hark, hark deskantsua ez dio uzten landareari, eta badabil han zerean, hark deskantsurik ez dauka landareak)

dibujoa: marrazkia

doye: dohaina

drogea: droga, bihurrikeria

dudea: ezbaia

edadea: edadea, adina

"Solfeo ikisteko ya edade txarra yekoat" - (Solfeo ikasteko ja edade txarra zaukaat)

egie: egia

"Suk egie esan dostesu" - (Zuk egia esan didazu)

"Ba egie ixen ingo da, e? Estot entzun baye ixen letike, e? Se bearrik ein gure esteuenari seuser esan in bea dako, e, seusen bildurre emon ta iteko bear" - (Ba egia izan egingo da, e? Ez dut entzun baina izan liteke, e? Ze beharrik egin gura ez duenari zer edo zer esan egin behar zaio, zer edo zeren bildurra eman eta egiteko behar)

ei: ei, omen

enbarasue: enbarazua, eragozpena

enbidie: inbidia, bekaitza

"Bai, bai, bai, se, esaten botzesu suk, e, pentzetako moduen enbidie dosula areri, ta, seuk estakixula, gure dosula es, e? seuk gure estosula iten dosu igual, suk gure estosula iten dotzesu gatxa areri umiari, eta olan esate eudien" - (Bai, bai, bai, ze, esaten badiozu zuk, pentsatzeko moduan inbidia duzula hari, eta zeuk ez dakizula, gura duzula ez, e? zeuk gura ez duzula

egiten duzu beharbada, zuk gura ez duzula egiten diozu gaitza ume hari, eta hola esaten zuten)

endredue: endredoa

erea: era

"Eskoya iminten baosu eskerretara esteu bea dan moduen bear iten, esteu beran era ta" - (Eskoia ipintzen baduzu ezkerretara ez du behar den moduan behar egiten, ez du beraren era eta)

"Esan egon, e, kurso bat es kurso bi, danok era batera, lenengoa, txikerrak andiek dustiek" - (Ez zen egon, kurso bat ez kurso bi, denok era batera lehenengoa, txikerrak handiak guztiak)

erexie: eretxia, iritzia

errasoia. arrazoia

"Errasoia dekosu, seuk neu paixen giau dakixu" - (Arrazoia daukazu, zeuk neuk baizen gehiago dakizu)

erraye, erraya: marra

"Olangoxeko, sertxu bet ixen san, sakontxu, eta in errai bat, igual, e, ba, an bentanan les edo olan, ta, bota ta igual gastañea sartu, ta gero, espaberen botxotik parajeen dekona olan inte, lelango" - (Holakoxe, zertxo bat izan zen, sakontxo, eta egin marra bat, beharbada, ba, han leihoan legez edo hola, eta, bota eta beharbada gaztaina sartu, eta gero, ezpabere botxotik parajeen daukana hola eginda, lehenengo)

"Arrieri iminten tzie asikeran, errei bat, ta atzanean be errei bat, eta eskinetan be erraya, aretatik esteure paseu bear, paseu bai, baye atzera yoan bea deu, bere lekure ta, buelta andi te lotu iten die" - (Harriari ipintzen diote hasieran, marra bat, eta atzanean ere marra bat, eta izkinetan ere marra, haietatik ez dute pasatu behar, pasatu bai, baina atzera joan behar du, bere lekura eta, buelta handik eta lotu egiten dira)

erregalue: erregalua, oparia

"Loi iminisko erregalurik ekarri es eta!" - (Lohi ipiniz gero erregalurik ekarri ez eta!)

"Bai eroaten san ba, sera, jeres botillea, eta ba, olango geusek, galletak eta olango geusek, baye oin alkontrario dau, oin umeari iten dotzies erregaluek eta ama ba pe barik lotzen da" - (Bai eroaten zen ba, zera jerez botila, eta ba, holako gauzak,

galletak eta holako gauzak, baina orain bestera dago, orain umeari egiten dizkiote erregaluak eta ama bat ere barik lotzen da)

erregea: erregea

"Batu es, batu, yakiten gendun nora eroan ta eroateko agintan oskun, umeak estakiela, ta gero erregean besperan, kaballoas, errege yantzi te etorte san emetik" - (Batu ez, batu, jakiten genuen nora eroan eta eroateko agintzen zigun, umeek ez dakitela, eta gero erregean bezperan, zaldiarekin, errege jantzi eta etortzen zen hemendik)

erregular: beharbada

"Gero gaixorik pareta san, kantzau edo ite san erregular" - (Gero gaixorik paratzen zen, nekatu edo egiten zen aurki)

errekadue: errekadua, mandatua

errekorridue: errekorridua

"Eurek eiteurien errekorridue, egun fiyorik esan egoten orretan" - (Eurek egiten zuten errekorridua, egun finkorik ez zen egoten horretan)

"Nik, e, ein doasen errekorridue tire, urrinen, Larrabetzu, eta Erandio, ta Loyu" - (Nik, egin ditudan errekorriduak dira, urrunen, Larrabetzu, eta Erandio, eta Loiu)

errespetoa: errespetua, begirunea

"Arimarietako ori, ori errespetoa beti egote san arimarietako etzean egon bear dala" - (Abemarietako hori, begirune hori beti egoten zen abemarietarako etzean egon behar dela)

"Errespetoas ta gogortasunas iteuren berba, e?" - (Begirunearekin eta gogortasunarekin egiten zuten berba, e?)

erretratue: erretratua, argazkia

errietea: errieta

errimue: babesu, aterpea

errue: errua

es: ez

esalegea: esalegea, esakunea

"Ori esalegea, esalegea badekola" - (Hori esalegea, esalegea badaukala)

"Estai pa nik alan bada, esalegea" - (Ez dakit ba nik hala den, esalegea)

esate baterako: esate baterako, kasurako

esetz: ezetz

esetza: ezetza

ete: ete, ote

autobuse, autobuse: autobusa

"Amen dagona be jenerala esta ixen, geurea bere, baye bakixu ser paseta akon, or garajea in eurenear, autobusek eskillaren aspitik paseta akosen, eskillaren aspitik, autobuse etorte sanean atzeratu in bear ixeten sendun edo eskillaren aspitik" - (Hamen dagoena ere orokorra ez da izan, geurea ere, baina badakizu zer pasatzen zitzaion, hor garajea egin zutenean, autobusak eskaileraren azpitik pasatzen zitzaizkion, eskaileraren azpitik, autobusa etortzen zenean atzeratu egin behar izaten zenuen edo eskaileraren azpitik)

faenea: txerrikeria

fallue, falloa: hutsa

"Erdu ona, erdu ona, nire falloak suk kontakosus ba, nire falloak seuk kontakosus, erdu ona!" - (Erdu hona, erdu hona, nire hutsak zuk kontatuko dituzu ba, nire hutsak zeuk kontatuko dituzu, erdu hona!)

faltea: falta

"Orrek sepak daus, nire aitek iminte, nik estot imini, faltak, or dausenak" - (Ondo horiek daude, nire aitek ipinita, nik ez dut ipini, faltak, hor daudenak)

famea: fama, ospea

"Fama txarra deko, ta estu barrunteu eser iten inos" - (Fama txarra dauka, eta ez dugu barruntatu ezer egiten inoiz)

"Orrek eiteuen txakolin asko, eta andik paseta san jenteak, eskatu te ite otzien txakoline, t'orrek euken fama itzela, ori metxea selan botate otzien eta orrek burure emoten deu" - (Horrek egiten zuen txakolin asko, eta handik pasatzen zen jendeak, eskatu eta egiten zioten txakolina, eta horrek zeukan ospe itzela, metxa hori zelan botatzen zien eta horrek burura ematen du)

fetxea: data

"Tenpora tekies, e, fetxea, iru ilebeteik iru ilebetera edo tenporak" - (Denborek dauzkate, data, hiru hilabeterik hiru hilabetera edo denborak)

firmea: sinadura

"Ori da, erdi ilean dausenakas be, porejenplo basaus su erdi ilean ta, seri pe estekosule, kapasideri pestekosule, baye asko, ba edo propiedadea kentzearren edo firme faltzoak botata edo sertzean deu" - (Hori da, erdi hilean daudenekin ere, esaterako bazaude zu erdi hilean eta, zerik ere ez daukazula, gaitasunik ere ez daukazula,

baina asko, ba edo propietatea kentzearren edo sinadura faltsuak botata edo zertzen du)

forma: irudia, itxura

"Koipea lango bat emote otzon aite defuntuek, koipea lango bat, bigunduteko bera, forma emoteko abarkeari" - (Koipea lango bat ematen zion aita defuntuak, koipea lango bat, biguntzeko bera, forma emateko abarkari)

fulana: urlia (f.)

fulano: urlia

"Pregunte otzuen fulano txarto dau, badekosu kandelarik?" - (Itaundu zizuten urlia txarto dago, badaukazu kandelarik?)

gabarra: gabarra

"Emen, e, Asun be ote san gabarra, beleneas, t'ara yoate siren bile" - (Hemen, Asun ere egoten zen gabarra belenarekin, eta hara joaten ziren bila)

ganea: gogoa

"Enun ganarik oki" - (Ez nuen gogorik eduki)
"Esa neutzen lengoan, barikuen yoan gintzenean, olloantzako konpuestoan bile, semeari esan neutzen, esa neutzen Julian! Aitek auxe ta auxe gane euki deu te" - (Esan nion lehengoan, barikuan joan ginenean, oiloentzako konposatuaren bila, semeari esan nion, esan nion Julian! Aitek eta hauxe gogoa eduki du eta)

ganorea: ganora, trentina

"A bai! Soldadisen bakik, soldadisen bai, kontuek, bakik, al dala, lo iten ganora barik leku askotan" - (A bai! Soldadiskan badakik, soldadiskan bai, kontuak, badakik, ahal dela, lo egiten ganora barik leku askotan)

garrotea: garrotea, egurra, tratu txarra

"Eltzen datorrenean ordun deko orrek bearra, se mogiduten die artatxoriek, garrote ataraten deure artatxoriek, orrek txoriok, eta orduen iten da, ontariko ser batzuk imini, txori yagolak esaten otzienak" - (Heltzen datorrenean orduan dauka horrek beharra, ze mugitzen dira artatxoriak, garrote ateratzen dute artatxoriek, horiek txoriok, eta orduan egiten da, hauetariko zer batzuk ipini, txori jagoleak esaten dietenak)

geusea, gausea: gauza

"Geuse ona san, ona, oso ona" - (Gauza ona zen, ona, oso ona)

geye: deia

gogoa: gogoa

"*Ta gero tabaka, tabak, e, ba, artxotxuek, e, ba ilten sien ta etzeatara be ba, lantzen bin, a, artxoan bat yateko gogoa, ta*" - (*Eta gero tabaka, tabak, ba, artxotxoak, ba hiltzen ziren eta etxeetara ere ba, lantzean behin, artxoren bat jateko gogoa eta*)

gomea: goma

"*Ingeruti botaten die, sapata sarrak erreta, sapata sarrak, abarkak, goma sarrak, sue, baltza in, atza dekona, ta eskapetan deurie*" - (*Ingurutik botatzen dira, zapata zaharrak erreta, zapata zaharrak, abarkak, goma zaharrak, sua, beltza egin, hatsa daukana, eta eskapatzen dute*)

gorabera: gorabehera

"*Ebei atxine karo oin gorabera asko dau, serreas*" - (*Ebaki antzina jakina orain gorabehera asko dago, zerrarekin*)

gorrotoa: gorrotoa

"*Eta errespetao euki bear dakie se ori da benetan egie, guren, e, egon san krieda batek eduki utzien gorroto itzela, se kaka iteuden bera, ta beti portalea loi, portale eskinea ayen abiek parean beti loi, eta onek txori saskelok! Eta eskobeas olan botate situen eta, pena itzela emoskuen gero ya desaparecido in sien, esien giau etorri*" - (*Eta begirunea eduki behar zaie ze hori da benetan egia, gurean, egon zen neskame batek eduki zien gorroto itzela, ze kaka egiten zuten behera, eta beti ataria lohi, atari izkina haien habiak parean beti lohi, eta hauek txori saskelok! Eta erratzarekin hola botatzen zituen eta, pena itzela eman ziguten gero ja desagertu egin ziren, ez ziren gehiago etorri*)

"*Gorrotoak urtete yosten egie be!*" - (*Gorrotoak irteten zidan egia ere!*)

grasie: grazia

grasiek: eskerrak

gusurre: gezurra

"*Gusurre esan doskue*" - (*Gezurra esan digute*)

ia: ea

"*Nik esa neuntzien ia selan*" - (*Nik esan nien ea zelan*)

idea: ideia

igual: beharbada

"*Barriken imini te urruko egunean igual asten datzu fermentetan*" - (*Barrikan ipini eta*

hurrengo egunean beharbada hasten zaizu garrazten)

ikutue: ikutua, ukitua

inbidie: bekaitza

istorie: ipuina

itxurea: itxura

"*Itxure ona igual eukingo deu, itxure ona igual, baye igual gero bestera urtengo deu*" - (*Itxura ona beharbada edukiko du, itxura ona beharbada, baina beharbada gero bestera irtengo du*)

jeneroa: gauza, jeneroa

"*Gero bator euri sirie ta euskie bator, orrek emoten deu ugerra gero, ta iten deu jeneroa galdu*" - (*Gero badator euri ziria eta eguzkia badator, horrek ematen du ugerra gero, eta egiten du jeneroa galdu*)

jornala: soldata, lan saria

kamioya: kamioia

"*Orrek autobusek eta ona etorten dien kamioi tzar batzuk pisu andie eukiten deure*" - (*Autobus horiek eta hona etortzen diren kamioitzar batzuek pisu handia edukitzen dute*)

kanbioa: aldaketa

"*Ori kanbioa estot ikusi nik*" - (*Aldaketa hori ez dut ikusi nik*)

"*Bai batzutan etorten da fuerte, ta beste batzutan suabetxuau, leye suabetxuau, ta badator denporea kanbioan, aixeak garbitu iten deu gero, ta esteu leirik eiten*" - (*Bai batzuetan etortzen da indar, eta beste batzuetan suabetxoago, leia suabetxoago, eta badator eguraldia aldaketan, haizeak garbitu egiten du gero, eta ez du leirik egiten*)

"*Bai, egonesko, kanbioko jeneroa egonesko bai, ni paneko ejea, ondo, eta kanbietako, sano nau ni*" - (*Bai, egonez gero, kanbioko jeneroa egonez gero bai, nik baneuka ardatza, ondo, eta aldatzeko, sano nago ni*)

kargue: kargua

karra: karra, korrika

karraderea: karradera, korrikaldia

karte: gutuna, eskutitza

"*Barrure es gintzen pastan, e? Kartak ofisinen entregetan gendusen*" - (*Barrura ez ginen pasatzen, e? Eskutitzak bulegoan ematen genituen*)

kasu beterako: kasu baterako

"*Ametik, e, kasu beterako, nik au, e, au kamino au, e, ni, au kaminoa in baixen*

ainbet lenau bixi ixé nas amen" - (Hamendik, kasu baterako, nik hau, kamino hau, ni, kamino hau egin baizen hainbat lehenago bizi izan naiz hamen)

kasue: kasua

kasue da se: kasua da ze

"Saldu edo inesko ori terrenori geurea da, or, e, aumenteta dauen lekuen, bai kasue da se, soloa muskildu, siminderea kanbie bear ixen gendun, eta jeneroa kendu, bidea itxitearren" - (Saldu edo eginez gero terreno hori geurea da, hor, gehituta dagoen lekuan, baina kasua da ze, soroa muskildu, mintegia aldatu behar izan genuen, eta jeneroa kendu, bidea uztearren)

kasureko: kasurako

"Asunbre erdie, ba litro erdi da kasureko, asunbrea litro bat" - (Azunbre erdia, ba litro erdi da kasurako, azunbrea litro bat)

katxabea: makulua

kejea: kexa

"Gero kendu i eudien, pobrea basan bat, ta ensegida akabeta seudien, eta apur bet sera bada bi edo iru, eta gero giau, eta ori abadeak esa eudien es, jentea kejeas, asarre ego san, ta ori imini eudien dana bategas" - (Gero kendu egin zuten, pobrea bazen bat, eta behingoan amaitzen zuten, eta apur bat zera bada bi edo hiru, eta gero gehiago, eta hori abadeek esan zuten ez, jendea kexaz, haserre egon zen, eta hori ipini zuten dena batekin)

klasea: klasea, mota

"Andiaoa beste tipo bat, beste klase ba ta" - (Handiagoa beste tipo bat, beste mota bat da)

"Klasea taus tolosana pe, batzuk, e, txikitxuauak, besteak anditxuauak baye, ostantzean tolosanea" - (Motak daude tolosanak ere, batzuk, txikitxoagoak, besteak handitxoagoak baina, osterantzean tolosana)

"Artoak klasea taus" - (Artoak motak daude)

kolorea: kolorea

"Orrek koloreak estotzu bape ondo emoten, e? Ori baño beste kolore bat imixu" - (Kolore horrek ez dizu bat ere ondo ematen, e? Hori baino beste kolore bat ipin ezazu)

komedie: komedia

kontue: 1. kontua, istorioa. 2. kontua

"Oin olao kontuek eiten dire, e?" - (Orain holako kontuak egiten dira, e?)

"Nik orrek kontuok entzunte dekoas" - (Nik kontu horiek entzunda dauzkat)

"Ak, e, erri dustiko kontuek batute ekarte situsen" - (Hark, herri osoko kontuak batuta ekartzen zituen)

kontzejue: aholkua

koplea: kopla, kontua

kostunbrea: ohitura

"Ori kostunbrea badau oin be bai" - (Ohitura hori badau orain ere bai)

"Axe kostunbrea egon san, nik estakit segaitik" - (Ohitura huraxe egon zen, nik ez dakit zergatik)

"Ta gero ote san kostunbre bat, beste bat esan ixiten, e, sapatak iminteko, serean? Sapatak erregean besperan" - (Eta gero egoten zen ekandu bat, beste bat ez zen izaten, zapatak ipintzeko, zerean? Zapatak erregean bezperan)

"Oin nik estot egundo euki kostunbrerik esaten, e, ingo deu emen! Gure badeu in diela! Borondatea" - (Orain nik ez dut egundo eduki ekandurik esaten, egingo du hemen! Gura badu egin dezala! Borondatea)

kotxea: autoa

"Semeak eroango saitu, kotxean Yulenek eroaten neuen, semeak eroango saitu eta" - (Semeak eroango zaitu, kotxean Julenek eroaten ninduen, semeak eroango zaitu eta)

kuadrue: laukia

"Da festoyaas, olango kuadruetan ta, nik esetu dot" - (Eta festoiarekin, holako laukietan eta, nik ezagutu dut)

"Bai kuadrue in te, an kuadruen sartu bea ixete san" - (Bai laukia egin eta, han laukian sartu behar izaten zen)

lapurre: lapurra

"Amen danak gara lapurrek" - (Hamen denak gara lapurrak)

"Eta estosu iños entzun? Or Santo Domingon selan, a, Matxurri esate otzien batek afesinoa selan euki euen, Matxurri, ak ite otzen ferietara ta yoate san gixonari, or Santo Domingon bidean urten, eta kargeta euenean, e, se Andramari egunean Begoñan be ote san ferie, ta ferietatik eta ibilte sanari, urten bidera, urten bidera ta diruek koyu, kendu, kendu! Koyu es,

kendu! Ite otziesan, ta txarra ixen san a, e? Ak euki eun fama bat!" - (Eta ez duzu inoiz entzun? Hor Santo Domingon zelan, Matsorri esaten zioten batek zaletasuna zelan eduki zuen, Matsorri, hark egiten zion ferietara eta joaten zen gizonari, hor Santo Domingon bidean irten, eta kargatzen zuenean, ze Andramari egunean Begoñan ere egoten zen feria, eta ferietatik eta ibiltzen zenari, irten bidera, irten bidera eta diruak koiu, kendu, kendu! Koiu ez, kendu! Egiten zizkion, eta txarra izan zen hura, e? Hark eduki zuen fama bat!)

"Ori lapurre fama andikoa ixen san, ori Matxurri, e?" - (Lapur hori ospe handikoa izan zen, hori Matsorri, e?)

lastimea: lastima

latigoa: latigoa

lotzea: lotsa

"Nik estekot lotzarik esateko urteak!" - (Nik ez daukat lotsarik esateko urteak!)

maletea: maleta

"Telerue esate otzien atxine, etzeatara maletea artute saltzean etorten sana" - (Ehun saltzailea esaten zioten antzina, etxeetara maleta hartuta saltzen etortzen zena)

manejue: erabilera

manie: mania

"Orre ties manie pe igual" - (Horiek dira maniak ere beharbada)

markea: marka

"Orren eutze txarra da, eutze botaten deu orrek, ori pase dan lekuti marka itxiten deu, olan, emeti kaminoti badoa, sera itxiten deu, marka bat itxiten deu, koipea itxiko baleko moduen, e?" - (Horren hautsa txarra da, hautsa botatzen du horrek, hori pasatu den lekutik marka uzten du, hola, hemendik kaminotik badoa, zera uzten du, marka bat uzten du, koipea utziko balu moduan, e?)

"Norarte yan dosun marka lotzean dako" - (Noraino jan duzun marka lotzen zaio)

martxea: martxa

memorie: oroimena, gogoia

"Memorien badau baye estator minera ta" - (Gogoan badago baina ez dator mihinera eta)

meritue: meritua

"Pentzetan gendun ba ak meseak, e, eukela seoser meritua arentzako edo, arentzako

geixoantzako" - (Pentsatzen genuen ba meza hark zer edo zer meritua harentzako edo, gaixo harentzako)

"Geurko bedarrak dekie meritue, egositen dosu, t'aren ure artuten dosu te esta medikamentu obeaorik" - (Gaurko belarrek daukate meritua, egosten duzu, eta haren ura hartzen duzu eta ez da medikamentu hoiberik)

mesedea: mesedea

metala: metala

miserie: miseria

modue: modua

"Orixe estakit, baye modu ona dekonak igual emongotzen seuser, seuser, seuser, nik pentzetan dot, es, txokolatea, ba estakit, neure serean, nik gure etzean estakit, estot esetu es entzun bes, e! Atxine bakixu se paseta san? Amak eta aitek eta etzian, esotzun espliketan, gu gasteak, eta gasteari, esebes! Esebe es gendun yakiten! Geur urte biko ume batek giau daki, guk amasortzigas atxine baño" - (Horixe ez dakit, baina modu ona daukanak beharbada emango zien zer edo zer, zer edo zer, zer edo zer, nik pentsatzen dut, ez, txokolatea, ba ez dakit, neure zerean, nik gure etxean ez dakit, ez dut ezagutu ez entzun ere ez, e! Antzina badakizu zer pasatzen zen? Amak eta aitak eta etxean, ez zizuten azaltzen, gu gazteak, eta gazteei, ezer ere ez! Ezer ere ez genuen jakiten! Gaur urte biko ume batek gehiago daki, guk hamazortzirekin antzina baino)

"Lengo moduen elei atara biximodue" - (Lehengo moduan ez liteke atera bizimodua)

"Orrek gero esteko bear modurik" - (Horrek gero ez dauka behar modurik)

moldea: moldea

mundue: mundua

"Ordurik ona buelta andie dau munduen" - (Ordutik hona buelta handia dago munduan)

nastea: nahastea

nopera: norbera

"Yateko segun selangoa, ori noperan serean dau" - (Jateko segun zelakoa, hori norberaren zerean dago)

ostatu: ostatua

"Kaltzokortan emote otzien ostatue" - (Kaltzokortan ematen zioten ostatua)

paketea: paketea

papela: papera

"Burus ikisi, papelak emon, papelak eurek eskribidute batek, e, ba badeko, toketan dakonari ba emoten dotzian papelak, ta andik papeletik" - (Burus ikasi, paperak eman, paperak eurek idatzita batek, ba badauka, tokatzen zaionari ba ematen zizkioten paperak, eta handik paperetik)

paseoa: paseoa

"Aurekas paseoan urtete nun sarri" - (Eurekin paseoan irteten nuen sarri)

peligroa, peligrue: arriskua

penea: pena, samina, mina

permisoa: baimena

plastikue: plastikoa

porrejenplo: esate baterako

posa: poza

"Errege jantzite etorte san, ta umeak gustiek begire emen, ta baktxari emote otzien auren paketea, ta ba orren posa!" - (Errege jantzita etortzen zen, eta umeak guztiak begira hemen, eta bakoitzari ematen zioten euren paketea, eta ba horien poza!)

preguntea: itauna, galdera

"Pregunta asko es ein, e! Estakit kontestetan ta" - (Itaun asko ez egin, e! Ez dakit erantzuten eta)

"Niri olango preguntek iten arpelik etorri sarie, nik estakit eser ta, estot emetik urten inos ta, solora ixen esean" - (Niri holako itaunak egiten alperrik etorri zarete, nik ez dakit ezer eta, ez dut hemendik irten inoiz eta, sorora izan ezean)

probetxue: probetxua

"Orrek eseuren emoten probetxurik, geuse andirik, orrie, orrie asko" - (Horiek ez zuten ematen probetxurik, gauza handirik, orria, orria asko)

puntea: punta

"Puntek bai ebei, puntek bai ebeite akiesan" - (Puntak bai ebaki, puntak bai ebakitzen zitzaizkien)

segun: segun

segun antza: segun antza

"Esteu iten minik segun antza esaten deure" - (Ez du egiten minik segun antza esaten dute)

seguru: antza

"Nik amari entzu neutzen, amari, batek eraikeran, guk beti ba, Jainkoak gure euna

ein diela, bai batek erregular, esa euen, segun a pe entzute euko euen, esan ixengo berea, ikuste, batek esaeuen seguru, jainkoak gure deula nai esteuela emen eingo da artoa, ta batek urte otzen seguru, te bera, axe, aras lupuas" - (Nik amari entzun nion, amari, batek ereikeran, guk beti ba, Jaungoikoak gure duena egin dezala, baina batek antza, esan zuen, segun hark ere entzunda edukiko zuen, ez zen izango berea, ikusita, batek esan zuen seguru, Jaungoikoak gura duela nahi ez duela hemen egingo da artoa, eta batek irten zion seguru, eta bera, huraxe, lupu harekin)

señalea, senallea: aztarna, seinalea

"Bai a señalea ixete san, nos dauen labea berotute" - (Bai hura seinalea izaten zen, noiz dagoen labea berotuta)

sera: zera

"Emen estai pa serean badau oin, Marurin badau" - (Hemen ez dakit ba zerean badago orain, Jataben badago)

sigarroa: zigarroa

"Berak ekarte situsen orrek kuarteroyak, kuarteroi neusiek eta aregas ite situsen berak sigarroak" - (Berak ekartzen zituen kuarteroi horiek, kuarteroi nagusiak eta harekin egiten zituen berak zigarroak)

sobrea: soberakina

"Esneagas edonos bai, baye gitxiten! Asko esan sobretan, apur bet gorabera, es! Sobre! Falta baño giau egoten san sobre, esta? baye a itxite san, kasureko, ba esnea, esne otza imini, ta irikin, e, esneagas, eta goso lotzea san, egosi egosi in esneagas, eta a yateko, a besperakoa" - (Esnearekin inoiz bai, baina gutxitan! Asko ez zen sobratzen, apur bat gora-behera, ez! Sobre! Falta baino gehiago egoten zen sobre, ezta? baina hura uzten zen, kasurako, ba esnea, esne hotza ipini, eta irakin, esnearekin, eta gozo lotzen zen, egosi egosi egin esnearekin, eta hura jateko, hura bezperakoa)

suerte: zortea

tabakoa: tabakoa

tandea: txanda

telefonoa: telefonoa

"Oin daus, e, telefonoak, serak, baye orduen, kartak, e, persone entregeu bear ixen gendusen, e?" - (Orain daude, telefonoak,

zerak, baina orduan, eskutitzak, buruz-buru eman behar izan genituen, e?)

tipoa: era

"Andiaoa beste tipo bat, beste klase ba ta" - (Handiagoa beste tipo bat, beste mota bat da)

"Oll oak, e, oingo tipo antzeko oll oak eukite ixen dus, e?" - (Oiloak, oraingo tipo antzeko oiloak edukitzen izan ditugu, e?)

tirea: narruarena

"Ein tirea, oseake, lanea in, firue, ta gero an paluen, batzean uin" - (Egin tira, hau da, artilea egin, firua, eta gero han makilan, batzen zuten)

tonterrie: inuzentekeria

topea: topea

"Orrek beste lora sabala, emen erreka ondoan dau, orren trongoas, kendu barruko sana, mamine, eta in beste egur bet, atzean topeas, noberak atzamarrak koyu estixen, ta sartu paper sati bet eta aras, e, entxufeu te bota kanpora" - (Horiek beste lore zabala, hemen erreka ondoan dago, horren enborrarekin, kendu barruko zaina, mamia, eta egin beste egur bat, atzean topearekin, norberak atzamarrak koiu ez ditzan, eta sartu paper zati bat eta harekin, entxufatu eta bota kanpora)

trabesa: trabesa

tranpea: tranpa

trasea: traza, itxura

trena: trena

"Trenean ekarri neusen, ba, kasan egonta ba trenean" - (Trenean ekarri nituen, ba, ehizan egonda ba trenean)

trenbie: tranbia

txikitoa: txikitoa

txistea: txistea

uekue: hutsunea

"Satz a makinetu baño lelau, arako iminte san, e, onekas areakas ondo sertute, itillekas eta orrekas ondo sertute, gero botate san satza, eta gero satza bota eta selan doan makinetuten ara, botate san uekure" - (Satsa makinatu baino lehenago, harako ipintzen zen, are hauekin ondo zertuta, itailekin eta horiekin ondo zertuta, gero botatzen zen satsa, eta gero satsa bota eta zelan doan makinatzen hara, botatzen zen hutsunera)

umorea: umorea, aldartea

"Um ore ona badeko iten deu baye ostantxean es" - (Um ore ona badauka egiten du baina osterantzean ez)

usena, ixena: izena

"Bakit ixen bat eukena baye" - (Badakit izen bat zeukana baina)

"Ixena igual eukiko deu a pe" - (Izena beharbada edukiko du hark ere)

"Larrauri esaten dakon etze bi aitik yekok an kalle Larrauri ixena, etze bi!" - (Larrauri esaten zaion etxe bi hagatik zaukak han Larrauri kalea izena, etxe bi!)

"Ixena entzute neuntzen bai, aiteri entzute neuntzen orren matzan, e, ixena" - (Izena entzuten nion bai, aitari entzuten nion mahats horren, izena)

yasa: itxura, planta, taxua

21. ADJEKTIBOAK

Atal honetan adjektibo bakunak biltzen ditugu, noizean behin eratorriren bat ager daitekeen arren, hauetariko gehienak berba eratorrien atalean agertuko dira. Bestalde, adjektibo konposatuak eta adjektibotzat erabiltzen direnak esakuneen atalean agertuko dira. Azkenik, koloreei buruzko berbak eta adjektiboen graduatzaileak azpiatal berezietan agertuko dira amaieran.

21.1. ADJEKTIBO BAKUNAK

aberatza: aberatsa

"Gurean, e, jente aberatza ixin gara danok, ta aberatzak olango bearrik esteu eiten" - (Gurean, jende aberatsa izan gara denok, eta aberatsak holako beharrik ez du egiten)

abune: aguna

"Abune da, artoa ondo igota da, iota dauna" - (Aguna da, artoa ondo ehota da, ehota dagoena)

afesinedue, apesinedue: zalea

"Amama defuntea apesinedue ta ak kollarak jo, takarran-takarran-takarran" - (Amama defuntua zalea eta hark koilarak jo, takarra-takarran-takarran)

afoa: afoa, biguna

ajile: bizkorra

"Subea, pintxoa atoan ta, ajile da, karra ein bea da, medikuna edo, nora edo ara" - (Sugea, eztena atoan eta, bizkorra da, karra egin behar da, medikuagana edo, nora edo hara)

akabukoa: amaierakoa

"Matzak, akabukoak ite sienean, imini, lotzea sien, serak, asalak, imini, bokoi bat, goye kendute etxateko olan, e, ta ara etxa ba erdirarte orrek" - (Mahatsak, azkenak egiten zirenean, ipini, lotzen ziren, zerak, azalak, ipini, bokoi bat, goia kenduta botatzeko hola, eta hara bota ba erdiraino horiek)

alegrea: alaia

aleko: itzela, aleko egarria, aleko gosea, aleko hotza

"Ene nik neure osaba bat, e, umeari aleko tunde emoten ikuste dekot gu, e, bestalde bestaldeatan bixi ixen gintzen, eta alabea padakizu ser i otzen? Egun beten ortuen? Grasi iteko peridiku bet eskegi olan lepoan aitek estakile, eta peridikue ikusi euenean, eta alabeak imin tzenean, selau pasadea emon tzon alabeari" - (Ene nik neure osaba bat, umeari aleko jipoia ematen ikusita daukat gu, beste-alde beste-aldeetan bizi izan ginen, eta alabak badakizu zer egin zion? Egun baten ortuan? Grazia egiteko egunkari bat eskegi hola lepoan aitag ez dakiela, eta egunkaria ikusi zuenean, eta alabak ipini zionean, zelako jipoia eman zion alabari)

alperra: alperra

"Ori alperra fine istek iten deu" - (Hor alperra fina izateak egiten du)

alte: altua (f)

altue: altua

"An goyen batute san baye, ixen bea deu, landak, landak ixen bea dires, e? eta senbet altuao obeao" - (Han goian batzen zen baina, izan behar du, landak, landak izan behar dira, e? Eta zenbat altuago hobe)

amotza: amotza, kamutsa

andie: handia

"Ba oin, e, soloan edo ser da kanpoan bertan iten deure trilleu, eta bai sati andiauak" - (Ba orain, soloan edo zer da kanpoan bertan egiten dute trilatu, eta bai zati handiagoak)

antzue: antzua

apartekoa: apartekoa

"Es, apartekorik es, gure klasean" - (Ez, apartekorik ez, gure erara)

apatza: apatza

"Lurre apatza, orrek, e, or soloan, e, bear be, bearrik erdias ite san, or ite san, artoa be erain, makinetu, mayetzan akabuen, ba gorpustietan, ta, apurtu, eta erein, soye apurtu iteko biten paseu beyekas, eta erein, gero yorratu, eta, aurie, ordu bikoa iten baotzen koite san artoa, ta artoa ona koyu!" - (Lurra apatza, horiek, hor soroan, behar ere, beharrik erdiarekin egiten zen, hor egiten zen, artoa ere erein, makinatu, maiatzaren atzenean, ba Gorpuztietan, eta, apurtu, eta erein, zohia apurtu egiteko bitan pasatu behiekin, eta erein, gero jorratu, eta, euria, eta artoa ona koiu!)

aproposa: aproposa

aproposkoa: aproposekoa

argala: argala

"Semet eta lurre, argalau, jeneroa pe derditxea deko" - (Zenbat eta lurra, argalagoa, jeneroak ere derditxa dauka)

"Gure beste aldean egon san, e, andratxu bet, ogetamar kilo eseuen euki, ta argala, eta, bai sar il san, e?" - (Gure beste-aldean egon zen, andretxo bat, hogeita hamar kilo ez zuen eduki, eta argala, eta, bai zahar hil zen, e?)

argie: argia

arine: arina

arraroa: arraroa

"Geuse arraroa ori da gero!" - (Gauza arraroa hori da gero!)

arroa: 1. harroa. 2. jagia

"Txakoline arroa da" - (Txakolina harroa da)

artesa: arteza

"Artesa iteko in bea deu, dana estiela eukin serik, dekola dana, ser barik, lisu dekola dana" - (Arteza egiteko egin behar du, dena ez dezala eduki zerik, daukala dena, zer barik, liso daukala dena)

"Au arrie, ta emeti doa artes artes gallurrera" - (Hau harria, eta hemendik doa artez-arte z gailurrera)

asala: azala

askena: azkena

"Orrek egon arren, orrek katxine ta, jo iten bosu, ta bide erdien lotzean batzu esan allegetan, askena jo bear ixeteun bai" - (Horiek egon arren, horiek katxina eta, jo

egiten baduzu, eta bide erdian lotzen
bazaizu ez zen ailegatzan, azkena jo behar
izaten zuen bai)

astokilloa: astakiloa

astokoa: astokoa

atrebidea: ausarta (f.)

atrebidue: ausarta

"Ori seguru, ostera nik emen euki nendun
kriedu bet, ta mutile majoa, eta atrebidue
san, baye ak subeari eskape ite otzen" -
(Hori ziur, ostera nik hemen eduki nuen
kriadu bat, eta mutila majoa, eta ausarta
zen, baina hark sugeei eskapatu egiten
zien)

"A ixen san atrebidue" - (Hura izan zen
ausarta)

atxinekoa: antzinakoa

"Atxineko sarrak kontalariak sien" -
(Antzinako zaharrak kontalariak ziren)

atzena: atzena, azkena

"Erein? Ba urrietan, urrien, urrien atzenetan,
urri ingeruen, e, otubren garie ereite san
amen" - (Erein? Ba urrietan, urrian,
urriaren atzenetan, urri inguruan, urrian
garia ereiten zen hamen)

atzenengoa: atzenekoa, azkenekoa

"Atzenengo urteatan kanpoan egon da" -
(Atzeneko urteetan kanpoan egon da)

"Atzenengo urte bien esneakas ibil nas ni
Bilbora" - (Atzeneko urte bian esneekin
ibili naiz ni Bilbora)

"Gero bestea eskondu sanean atzenengoa" -
(Gero bestea ezkondu zenean atzenengoa)

badaespada: badaezpada

"Orrek pistiok erdi badaespadaoak danak
garbitu" - (Pizti horiek erdi
badaezpadaoak denak garbitu)

bajue: baxua

"Orre tie, batzu tire, ba eperdis bajuaoak
beste batzu paño" - (Horiek dira, batzuk
dira, ba ipurdiz baxuagoak beste batzuk
baino)

"Ostean bajutxue, e? En jeneral bajue eroate
san" - (Ostean baxutxoa, e? Gehienetan
baxua eroaten zen)

bakarra: bakarra

balientea: ausarta, trebea

"Es neutzako bai, neutzako fabrikeak
bigeldute, neutzako, esta? Baye artean
olan, e, gure tia ibilte san or Galbartu
aldean ba, ta balientea san, esta? Baye
ostantxean besterik estot esetu" - (Ez

neuretzat bai, neuretzat fabrikak bialduta,
neuretzat, ezta? Baina artean hola, gure
izekoa ibiltzen zen hor Galbarriatu aldean
ba, eta trebea zen, ezta? Baina
osterantzean besterik ez dut ezagutu)

bardine: berdina

"Bai ixete die diferenteak bai gutzako dana tie
bardin antzekoak, e?" - (Bai izaten dira
desberdinak bai guretzat denak dira berdin
antzekoak, e?)

bardingoa: berdingoa, ertaina

"Gu yantzan yoaten gintzesan erriko plasara,
pentzeu bes! Garixumen, ba, akabeta san
erronomie, t'arik eta paskoatarartean esan
egoten erromeririk, eta gero ote san
Asuen, ta gu ya bardingoa, goasen
Asurantz ikusten! Ser dan, gastea ixetea!"
- (Gu dantzan joaten ginen herriko
plazara, pentsatu ere ez! Garizuman, ba,
amaitzen zen erromeria, eta harik eta
pazkoetara artean ez zen egoten
erromeriarik, eta gero egoten zen Asuan,
eta gu ja berdingoa, goazen Asurantz
ikusten! Zer den, gaztea izatea!)

"Olango basu bardingo bat ekarri osten" -
(Holako baso berdingo bat ekarri zidan)

barrabasa: barrabasa

barrie: berria

"Atxur barrie bai andiaoa ori, se besteak
gasteute oten die ta" - (Aitzur berria bai
handiagoa hori, ze besteak hingatuta egoten
dira eta)

bedeinketue: bedeinkatua

berbautze: berba hutsa

berbautzeskoa: berba hutsezkoa

beroa: beroa

"Ta ori galtzu ori, imite sanean olan, ebeite,
ta prepareute, ur epela edo ur beroa bota,
ta selan bigunduteuen a? Ak urek?" - (Eta
galtzu hori, ipintzen zenean hola, ebakita,
eta prestatuta, ur epela edo ur beroa bota,
eta zelan biguntzen zuen hura? Ur hark?)

betea: bete

"Burririk beteana, oin estot nik eiten, esta?
Baye burue beteana, puntea be utzik esin
euki, beteana" - (Burririk beteana, orain ez
dut nik egiten, ezta? Baina burua beteana,
puntea ere hutsik ezin eduki, beteana)

beterrea: beterre

"Beterrea da, ba, pasentzibakoa, ori da
beterre bat!" - (Beterrea da, ba, pazientzia
bakoa, hori da beterre bat!)

betikoa: betikoa

"One ties betikoak" - (Hauek dira betikoak)

bigune: biguna

biribile: biribila

"Kajea biribile, ta a kajea beterik, gero etzean olgeu" - (Kaxa biribila, eta kaxa hura beterik, gero etxean olgatu)

birrotxea: birrotxoa (f.)

birrotxoa: birrotxoa

biskorra: bizkorra

bixie: bizia

"Asal bixien dekoso" - (Azal bizian dauzka)

defuntea, difuntea: defuntua (f.)

"Ni akordeta nas orrexeaitik, se i osten amama difunteak niri" - (Ni gomutatzen naiz horrexegatik, ze egin zidan amama defuntuak niri)

defuntue, difuntue: defuntua

"Artoa igertu espabe ba garies, ba etzean urune eukiteules, ba etzerako ogie aite defuntuek beti ite seuen" - (Artoa igertu ezpabere ba gariarekin, ba etxean irina edukitzen zuen lez, ba etxerako ogia aita defuntuak beti egiten zuen)

diferentea: desberdina

"Bakotxak, e, beras, beren klasean, e, en jeneral onena dekie, e? Nik estot, e, diferenteas estot inos in" - (Bakoitzak, berearekin, bere eran, gehienetan onena daukate, e? Nik ez dut, desberdinarekin ez dut inoiz egin)

"Es diferentea taus" - (Ez desberdinak daude)

"Areri esi lio eser in e? Emen asko gaus, bestea ikusi esinik, asko gaus, enoa esaten, asko daus, asko gaus! Da diferente" - (Hari ezin lekiok ezer egin, e? Hemen asko gaude, bestea ikusi ezinik, asko gaude, ez noa esaten, asko daude, asko gaude! Da desberdina)

doblea: bikoitza

dotorea: dotorea

edadekoa: edadekoa, adinekoa, zaharra

"Ordukorik, e, edadekorik, ortan ibili esta ingo oin" - (Ordukorik, edadekorik, horretan ibili ez da egingo orain)

ederra: ederra

elegantea: dotorea

"Ba ori ixeten da en jeneral, ori ferire ataraten deurenak eleganteau eukiteko" - (Ba hori izaten da gehienetan, hori azokara ateratzen dutenak dotoreago edukitzeko)

"Ori iruretakoia elegantea ixete san, baye gero goixeko lauretan be yoan bi ixeten gendun" - (Hiruretako hori dotorea izaten zen, baina gero goizeko lauretan ere joan behar izaten genuen)

eletrikue: elektrikoa

epela: epela

"Beyeri bai, lelau ixete san ur epela sayeas" - (Behiei bai, lehenago izaten zen ur epela zahiarekin)

erkine: erkina, ahula

erredondoa: biribila

"Bai orrek, e, estait selan esate otzien orri betzuk, bedarrak luse lusea taus, ta, bedarrak, e, kolores ta tipos bardine tie, baye batzu tie, erredondoak ta beste tire luseak, ta lusea tires gixonantzako ta erredondoa tires enbrantzako" - (Bai horiek, ez dakit zelan esaten zieten orri batzuk, belarrak luze luzeak daude, eta, belarrak, kolorez eta tipoz berdina dira, baina batzuk dira, biribilak eta besteak dira luzeak, eta luzeak dira gizonentzat eta biribilak dira andrazkoentzat)

errubioa: ilegorria

eskasa: eskasa

"Bueno eskas, ba, euki bai baye ba, dauna sabaldu te gero bestea ba, ba pe barik" - (Beno, eskas, ba, eduki bai baina ba, dagoena zabaldu eta gero bestea ba, bat ere barik)

"Len, e, or mendi bet, e, urteko, otea ebeiten ibilte san jentea, ibilte san es, ibilte nentzen eskas, neu be ibil nas ta, urtekoa, ba oin, e, bat bixi da, eta berak ebeiten deu apur bet, oin be ebei deu" - (Lehen, hor mendi bat, urteko, otea ebakitzen ibiltzen zen jentea, ibiltzen zen ez, ibiltzen nintzen eskas, neu ere ibili naiz eta, urtekoa, ba orain, bat bixi da, eta berak ebakitzen du apur bat, orain ere ebaki du)

estimedue: estimatua, preziatua

"Estimedu neken usabak, e?" - (Estimatu nindukan ugazabak, e?)

estue: estua

esune: ezaguna

faltzoa: faltsua

"Egoten die lantzean faltzo bat, e?" - (Egoten dira lantzean faltsu bat, e?)

famadue: famatua, ospetsua

fasile: erraza

"Sabaldu estitesan, sabaldu estiten in, se sabalduten badatzu, geao kostetan tzu, ebeitea, inder geao bea dosu, ta apur bet estutxuao badau, fasilao sabis" - (Zabaldu ez daitezzen, zabaldu ez dadin egin, ze zabaltzen bazaizu, gehiago kostatzen zaizu, ebakitzea, indar gehiago behar duzu, eta apur bat estutxoago badago, errazago zabiltza)

fijoa: fixoa

"Pisue? Pisuko ori fijo esta, apur bet gora bera, kordeleti" - (Pisua? Pisuko hori ziur ez da, apur bat gora behera, kordeletik)

fine: fina

"Baye beye da, fine, sera, au, nastea deko orrek" - (Baina behia da, fina, zera, hau, nahastea dauka horrek)

"Mortzillek, batzuk fintxuek dires" - (Buzkantzak, batzuk fintxoagoak dira)

formala: formala

freskoa: freskoa

fuertea: indartsua, gogorra

"Yayo ta ensegida espadeko amak bulerra, ba beyen esnea fuertea dala lar" - (Jaio eta behingoan ez badauka amak bularra, ba behien esnea gogorra dela lar)

"Orduen, e, gasterie umeak, batu, suen ondoan bueltaka, bueltan, kantetan, e, fuerte ademas, es ixili pe, fuerte" - (Orduan, gazteria umeak, batu, suaren ondoan bueltaka, bueltan, kantatzen, gogor gainera, ez isilik ere, gogor)

"Aixe fuerteaitik igual, ia bota i neu edo bota gu ixte neu edo, aixe fuerteak" - (Haize indartsuagatik beharbada, ia bota egin nau edo bota gura izan nau edo, haize indartsuak)

galanta: galanta

"Enbra galanta, ori gusteta yakien morroskoari" - (Andrazko galanta, hori gustatzen zitzaizen morroskoei)

"Ori egie da, ori askori entzun dotzu, oi! selango enbra galanta!" - (Hori egia da, hori askori entzun diegu, oi! Zelako andrazko galanta!)

garana: garana, bihitua

garbie: garbia

garratza: garratza

gasa: gaza, geza

gasie: gazia

"Ori dau gasi" - (Hori dago gazi)

gastea: gaztea

"Batan batzuk eiten ditue, baye olan famili sera dauena, gastea edo, iten deu" - (Baten batzuk egiten dituzte, baina hola familia zera dagoena, gaztea edo, egiten du)

gatxa: gaitza, zaila

"Edonos koyu dot baye gatxa da" - (Inoiz koiu dut baina gaitza da)

"Edonok iteuen yantzan ba, ondo itea da gatxa, in yantzan" - (Edonork egiten zuen dantzan ba, ondo egitea da gaitza, egin dantzan)

gixajoa: gizajoa

"Dana ingo seuen gixajoak ese, bedeatzi semealabagas seoser in bear ixengo seun te abarkak edo seoser" - (Dena egingo zuen gizajoak eze, bederatzi semealabarekin zer edo zer egin behar izango zuen eta abarkak edo zer edo zer)

gogorra: gogorra

"Akasie ona, onena, gogorrena, ixin ditela sarra" - (Arkazia ona, onena, gogorrena, izan dadila zaharra)

gordine: gordina

"Erreskero, origo gordine bai bota, origo gordine bai bota erreskero, baye, oin badau ser bat, preparamintu bet, ba erreantzako, in te atoan kentzen dotzu, esta pasetan ese be" - (Errez gero, olio gordina bai bota, olio gordina bai bota errez gero, baina, orain badago zer bat, preparamendu bat, ba erreentzat, egin eta atoan kentzen duzu, ez da pasatzen ezer ere)

gorra: gorra

goso: gozoa

"Ta txarrie tekona kasik, buruena da gosoena kasik" - (Eta txerriak daukana kasik, buruarena da gozoena kasik)

guapea: polita (f.)

"Suk estosus esetuko baye, sure aitek eta bai, Subitakoak ixen siren ba, neskak guapak, ta ederrak eta fuertek, eta oi! selango neska galantak" - (Zuk ez dituzu ezagutuko baina, zure aitak eta bai, Zubietakoak izan ziren ba, neska politikak, eta ederrak eta indartsuak, eta oi! zelako neska galantak)

guapoa: polita (m.)

iguala: berdina

illune, ilune: iluna

"Baye akorta nas aititen kuartue, ilune, aman ta kuartue, eta sutea, ta bueno, sano ilun, sano ilun" - (Baina akordatzen naiz

aitaitaren gela, iluna, amaren eta gela, eta suetea, eta beno, sano ilun, sano ilun)

inusementea: inuzentea, leloa, ergela

istue: estua

"Arratxurre da bestea paño istuaori da bestea paño istuaori" - (Arraitzurra da besteak baino estuagoa hori da besteak baino estuagoa)

itzela: itzela

itzelekoa: itzelezkoa

itzue: itsua

"Bedar sikuen aspian egoten dana es aite, a itzue da, sirune, sirune itzue, arek estotzu eiten esebe" - (Belar sikuaren azpian egoten dena ez aite, hura itsua da, zirauna, zirauna itsua, hark ez dizu egiten ezer ere)

kalboa: burusoila

kankalea: kankala, mamalatxatxua, sumentzibako neskaren gainean esaten da

kapasa: kapaza, gauza

karue: garestia

"Karue dok ori" - (Garestia duk hori)

"Oin karu daus" - (Orain garesti daude)

kiputze, giputze: giputza

"A bai! Ibilte sian emetik asko lelau, endemas onek kiputzek" - (A bai! Ibiltzen ziren hemendik asko lehenago, gainera giputz hauek)

"Orrek kiputze tie giu" - (Horiek giputzak dira gehiago)

"Emeti ote sian pastoreak neguen ortik etorten sianak, or etorte sian gabon eurretuen, gipus betzuk etorte sian" - (Hemendik egoten ziren artzainak neguan hortik etortzen zirenak, hor etortzen ziren gabon aurretuan, giputz batzuk etortzen ziren)

klarue: argia

koitedea: koitada (f.)

koitedue: koitadua

"Batzuk esate gurien bueno, apur bet baju, baju, baju koiteduek, baju bai" - (Batzuek esaten zuten beno, apur bat baxu, baxu, baxu koitaduak, baxu bai)

kojoa: koxua, herrena

kokolea: kokoloa (f.)

kokoloa: kokoloa

konfiantzako: konfiantzako

kuadradue: karratua

"Txapa kuadradu bet, ta axe txapea ixete san sagradue" - (Txapa karratu bat, eta txapa huraxe izaten zen sakratua)

labana: labaina

"Bai ganadueri diferente, txarrieri ya, serau, prepareta akon labanau edo, pentzu giuauas" - (Bai ganaduari desberdin, txerriari ja, zerago, prestatzen zitzaion labanago edo, pentsu gehiagorekin)

laburre: laburra

larrie: larria

latza: latza

"Latzenak ote sian ganean, finenak ote sian barrukaldetik" - (Latzenak egoten ziren ganean, finenak egoten ziren barruko aldetik)

lelea: leloa (f.)

leloa: leloa

lerdea: lerdoa (f.)

lerdoa: lerdoa

liorra: lehorra

listoa: zuhurra, azkarra

"Artatxorie listoa da" - (Artatxoria zuhurra da)

lisue: laua

"Palatue esaten geuntzen olan alturea dekona ta, lisu estauenari, guk palatue esate geuntzen areri, baye ostean gurea lisu egon sireles" - (Palatua esaten genion hola altuera daukana eta, liso ez dagoenari, guk palatua esaten genion hari, baina ostean gurea liso egon zen lez)

lodie: lodia

"Oin in bea dako, asi in bear dako, emetik, emetik, geroa ta serao, emetik asi, emen puntean meao, eta emen lodiao, lodiao, lodiao, emen atzean, ondo sertu dien, ondo lotu ditzen" - (Orain egin behar zaio, hasi egin behar zaio, hemendik, hemendik, geroago eta zerago, hemendik hasi, hemen puntan meheago, eta hemen lodiago, lodiago, lodiago, hemen atzean, ondo zertu dezan, ondo lotu dadin)

loye: lohia

"Auren loyek edo estai pa ser ixengo dan" - (Euren lohiak edo ez dakit ba zer izango den)

lupue: lupua, okerra, gaiztoa

lusea: luzea

"Lar lusegi dekosu" - (Lar luzeegi daukazu)

lusengea: luzanga

madariketue: madarikatua

majea: polita, izaera onekoa, begikoa (f.)

majoa: polita, izaera onekoa, begikoa

makurre: makurra

mamalea: mamala
mantzoa: otzana
mea: mehea
"Atxurre tekosus onek meak txikitxuek, ta beste batzuk anditxuaoak" - (Aitzurrak dauzkazu mehe hauek txikitxoak, eta beste batzuk handitxoagoak)
"Batzuk meau, beste batzuk loditxuau, segun selan goiti datorren sera ixengo da ori" - (Batzuk meheago, beste batzuk loditxoago, segun zelan goitik datorren zera izango da hori)
meatza: mehatza
"Orrasie me mea, sera ixete san, meatz meatz bat" - (Orrazia mehe-mehea, zera izaten zen, mehatz-mehatz bat)
mekoa: mekoa, erkina
memelea: memeloa (f.)
memeloa: memeloa
merkea: merkea
mingorra: mingorra, mingarria
"Orrek pikeskoan bai, klaro mingorra dana bai!" - (Horrek pikatuz gero bai, mingorra dena bai!)
mingotza: mingotsa
"Asunek egosi eta aren ure edan, mingotza!" - (Asunak egosi eta haren ura edan, mingotsa!)
"Onek, e, mingotza tire" - (Hauek, mingotsak dira)
misketue: mizkatua
miskiñe: mizkina
morenea: beltzarana (f.)
morenoa: beltzarana
morroskoa: morroskoa
"Morrosko altu fuerte bat ixen san" - (Morrosko altu indartsu bat izan zen)
motela: motela
motxa: motxa
motxoa: motxoa, laburra
motza: motza
mutue: mutua
"Guas egon san urte askotan, ba, mutu bet" - (Gurekin egon zen urte askotan, ba, mutu bat)
nagie: nagia
naturala: naturala
"Len naturalau koite san jeneroa" - (Lehen naturalago hartzen zen jeneroa)
neusie: nagusia
nonsebarrie: nontzeberria

"Ordun giau ite san kontuek, e, ba, eusokoan, e, nonsebarriek, onek erosi deu beye, besteak, ba, sertu deu, artoa erein yok, bestea garie ebeiten yoan dok, besteari gurdie iruli yakok" - (Orduan gehiago egiten zen kontuak, ba, auzokoen, nontzeberriak, honek erosi du behia, besteak, ba, zertu du, artoa erein dik, bestea garia ebakitzen joan duk, besteari gurdia irauli zaiok)

normala: normala

"Ori normala emen be use dana edo, bueno nik neuk estot eukin, e? Aitek edo" - (Hori normala hemen ere usatu dena edo, beno nik neuk ez dut eduki, e? Aitak edo)

obea: hobeia

"Ori da obea" - (Hori da hobeia)

"Eurok ba ser obeas ibilte sien lurreri ba kontu obea artze otzien, satza be gitxiau ote san, ta olan yagoneskoan sas gitxiauas bardin" - (Eurok ba zer hobearekin ibiltzen ziren lurrari ba kontu hobeia hartzen zioten, satsa ere gutxiago egoten zen, eta hola jagonez gero sats gutxiagorekin berdin)

okerra: okerra, bihurria

ona: ona

"Beye tekosus, suisa pe igual onak" - (Behiak dauzkazu, suitzarrak ere beharbada onak)

osoa: osoa

"Nik amar urte oso enendusen euki, ta esetu nendun, osabeas, osabea, ni jayo nintzenean il san, segun esateuren gurean" - (Nik hamar urte oso ez nituen eduki, eta ezagutu nuen, osabarekin, ni jaiio nintzenean hil zen, segun esaten zuten gurean)

otza: hotza

pintoa: pintoa, espilduna

pobrea: txiroa

"Esateuden orduen abadeak, ori dirue botateudela erri pobreatara, abadeak seas bixirik eseukiela, eta guk emen emoten dusen diruekas, bixite siela" - (Esaten zuten orduan abadeek, diru hori botatzen zutela herri pobreetara, abadeek zerekin bizirik ez zeukatela, eta guk hemen ematen genituen diruekin, bizitzen zirela)

polite: polita

"Polite ixen san" - (Polita izan zen)

"Gernikera baten, ara be, lengusuas, goxeko bostatan emen urten, eta goxeko bostatan

etorri bueltan, e? Ordu polite? Oñes yoan ta trenean etorri" - (Gernikara baten, hara ere, lehengusuarekin, goizeko bostetan hemen irten, eta goizeko bostetan etorri bueltan, e? Ordu polita? Oinez joan eta trenean etorri)

rubiea: ilegorria (f.)

"Ondikarren rubiaoak, badaus, yayoterik" - (Oraindinokarren ilegorriagoak, badaude, jaiotzetik)

rubioa: ilegorria (m.)

sabala: zabala

sagradue: sakratua

"A pasetea san gause sagradue, se dana piñudie, kamiñoan betik eta alde bietatik, piñudiek eta andiek, piñu andiek" - (Hura pasatzea zen gauza sakratua, ze dena pinudia, kaminoaren behetik eta alde bietatik, pinudiak eta handiak, pinu handiak)

sakona: sakona

"Segun, e, nondik ebaiten dakon, lar ebaiten badako sakonetik" - (Segun, nondik ebakitzen zaion, lar ebakitzen bazaio sakonetik)

sala: zaila, gogorra

samurre: samurra

santue: santua

"Ba san antonio da santue ganaduena areri, oin esteurie eleixan batzean, baye len san antoniona aparte san, batzean, san antonio aparte txilintxuas, ta askok areri botate tzien geyau, e, besteari baño" - (Ba San Sntonio da santua ganaduarena hari, orain ez dute elizan batzen, baina lehen San Antonioren aparte zen, batzen, San Antonio aparte txilintxoarekin, eta askok hari botatzen zioten gehiago, besteari baino)

sarra: zaharra

"Atxineko sarrak kontalariak sien" - (Antzinako zaharrak kontalariak ziren)

"Ortarako, ibili in bea da, nire denporan olgetea baño esan ixen eta gero etzean, emen, sartute, ama sarra, aite oyan, e, emen" - (Horretarako, ibili egin behar da, nire denboran olgatzea baino ez zen izan eta gero etxean, hemen, sartuta, ama zaharra, aita ohean, hemen)

sarratue: zarratua

"Artatxoriek yanta badau, bien, baye ostentxean, yan bari padau, ba, punterik

bea da sarratuena" - (Artatxoriek janda badago, ondo, baina osterantzean, jan barik badago, ba, puntarik behar da zarratuena)

"Ixie ta sarratue ba ta" - (Itxia eta zarratua bat da)

saskela: saskila, zikina

"Oin bedar saskel asko yatorrek" - (Orain belar saskil asko zatorrek)

sasoikoa: sasoikoa

sea: xehea

"Saye da andiau, ta birsaye da seau" - (Zahia da handiagoo, eta birzahia da xeheagoo)

segurue: 1. ziurra. 2. antza, dirudienez

"Bai, iten da bertan be, e? Iten da, baye, baye esta ain segurue, lusero eukiteko esta ain segurue" - (Bai, egiten da bertan ere, e? Egiten da, baina, baina ez da hain segurua, luzaro edukitzeko ez da hain segurua)

selebrea: xelebrea

sendoa: sendoa

serioa: serioa

sikue: sikua

"Sikure, sikure emon deu urteak, urteak sikure emon deu" - (Sikura, sikura eman du urteak, urteak sikura eman du)

"Pase dan urtean alan ixin dok sikue" - (Pasatu den urtean hala izan duk sikua)

soltue: soltea

"Ba busturrien, imini besteari, ogoto amarreu, eta bera soltutxuau" - (Ba buzterrien, ipini besteari, hobeto amarratu, eta bera soltetxoago)

soroa: zoroa

sorrotza: zorrotza

suabea: suabea

"Botayesue suabe, e! Espabe asko botaten badotzesue erre, estosue eukiko jenerorik" - (Bota iezaiozue suabe, e! Ezpabere asko botatzen badiozue erre, ez duzue edukiko jenerorik)

"Imixu kinpulea, ta imixu kinpulea, sertu, suabe, suabe, suabe ta berotu, t'arexek kenduten deu" - (Ipin ezazu kipula, eta ipin ezazu kipula, zertu, suabe, suabe, suabe eta berotu, eta harexek kentzen du)

surre: zuhurra

"Baye on bear da sur, lar bajetan deu igual" - (Baina egon behar da zuhur, lar bajatzen du beharbada)

terriblea: itzela

"A ixen san terriblea" - (Hura izaten zen itzela)

"Terriblea, ta pistiek koyu, asko, oin ori be estot entzun be iten, len entzute neusen" - (Itzela, eta piztiak harrapatu, asko, orain hori ere ez dut entzun ere egiten, lehen entzuten nituen)

"Terriblea in gendun guk" - (Itzela egin genuen guk)

tontoa: inuzentea

torpea: dorpea, handia, pisutsua

trankile: lasaia (f.)

trankilo: lasaia (m.)

tristea: tristea

tropea: astuna, tropea, dorpea

tuertoa: begi bakarra

"Tuerto bat ixen san, ori, soñu joten seuena domosantuetan ta emen joten deune, soñue" - (Begibakar bat izan zen, hori, soinu jotzen zuena domu-santuetan eta hemen jotzen duena, soinua)

txarra: txarra

txikerra: txikerra

"Noberak salteu, baye sue txikerra dauenean" - (Norberak saltatu, baina sua txikerra dagoenean)

"Ainbestegarren urtean euki gendun txikerra" - (Hainbestegarren urtean eduki genuen txikerra)

txotxolea: txotxoloa (f.)

txotxoloa: txotxoloa

umedue: hezea

unikue: bakarra

urdine: zurbila

"Lesaman sartukeran, trenbidea len egon san, osea trena len akabeta san lekuen, ba an be egon siren antza, nik, e, gure amari te entzute, an egon sien enbrak, orren lengusinek, emen Derioko batzuen lengusinek, eta lodi te fuertek eta urdinek, ta selango enbra galantak!" - (Lezaman sartukeran, trenbidea lehen egon zen, hau da trena lehen amaitzen zen lekuan, ba han ere egon ziren antza, nik, gure amari eta entzunda, han egon ziren andrazkoak, horien lehengusinak, hemen Derioko batzuen lehengusinak, eta lodi eta indartsuak eta urdinak, eta zelako andrazko galantak!)

urrukua, urrungoa, urrengoa, urreakoa: hurrengoa

"Urrengo urtean gero, ba, or metro bire metro bire ba sartu estakak" - (Hurrengo urtean gero, ba, hor metro bira metro bira ba sartu taketak)

"Beti ereite san, e, geuse bat eurten ereiten dana urrungo urtean esan ereiten an, arlo orretan" - (Beti ereiten zen, gauza bat aurten ereiten dena hurrengo urtean ez zen ereiten han, arlo horretan)

ustela: ustela

utze: hutsa

yakana: jakana, txarto eta gutxi jaten duena

yasekoa: 1. jasekoa; itxura oneko pertsona, liraina. 2. Bizia, bizkorra

yeusie: jausia

"Lelau, lelango, beran beyen kuadrue, selao armasoya dekon, gero errapea selan dekon, batzu tekie oso yeusie, oso yeusie esta ona, eukin bea deu goyen" - (Lehenago, lehenengo, beraren behiaren koadroa, zelako armazoia daukan, gero errapea zelan daukan, batzuek daukate oso jausia, oso jausia ez da ona, eduki behar du goian)

21.2. KOLOREAK

asule: urdina

asuliskea: urdinxka

baltza: beltza

baltziskea: beltzaxka

bellegie: beilegia, horia

"Bellegie deko emeak, eta arrak gorriske" - (Beilegia dauka emeak, eta arrak gorrixka)

"Bellegie dekona arra dok eta bestea emen peka batzu tekosena emea, durdurea" - (Beilegia daukana arra duk eta bestea hemen espil batzuk dauzkana emea, durdura)

bellegiskea: beilegixka, horixka

berdea, berdiala: berdea

"Sanbedarra, daus klase bi, bat sabala, ta asie da lusea, bie ties berdeak, esta? Ta asie bardine dekie orrek" - (Zain-belarra, daude mota bi, bat zabala, eta hazia da luzea, biak dira berdeak, ezta? Eta hazia berdina daukate horiek)

"Berdea da jenio txarra eukitea" - (Berdea da aldarte txarra edukitzea)

"Baye barruen dau berde (zauria) eta iten deu barrue sikitue, suek estakixue!" - (Baina

barruan dago berde eta egiten du barrua sikatu, zuek ez dakizue!)

berdiskea, berdeskea: berdexka

"Orrek batzuk ixeten die berdeskeak, beste batzuk gorrisketxuek, marroira" - (Horiek batzuk izaten dira berdexkak, beste batzuk gorriskatxoak, marroira)

gorrie: gorria

"Erdi gorrie, erdi baltza, orre tie finek" - (Erdi gorria, erdi beltza, horiek dira finak)

gorriskea: gorriska

grise: grisa

marroiskea: marroixka

marroya: marroia

"Sirunek, txikitxuek, arek marroyak, arek esteurie iten esebe" - (Ziraunak, txikitxoak, haiek marroiak, haiek ez dute egiten ezer ere)

nabarra: nabarra

"Beneno andie dekona orixe, au olan dekona, au burue olan dekona, ta gero nabarra bere serakas" - (Pozoi handia daukana horixe, hau hola daukana, buru hau hola daukana, eta gero nabarra bere zerekin)

suri-berdea: zuri-berdea

surie: zuria

"Gero beste ba ta emen surie" - (Gero beste bat da hemen zuria)

"Suriegas be bai, bai, nik esetu dot etxean" - (Zuriarekin ere bai, bai, nik ezagutu dut etxean)

suriskea: zurixka

22. ADITZONDOAK

Batu ditugun aditzondoak sailkatzeko euron esangura hartu dugu oinarriztat. Era honetara, atal honetako azpi-atalak denbora aditzondoak, leku eta kokaguneak, modu aditzondoak, maila aditzondoak, zenbatekoak eta aditzondo konposatuak izango dira.

22.1. DENBORA ADITZONDOAK

arin: arin, laster

arreskero, arreskeroko: harrezkero

"Gero arreskeroko ba, Loyukoak eta Samudiokoak beti kiñetan kiñetan, esta?" -

(Gero harrezkero ba, Loiukoak eta Zamudiokoak beti kinatzen kinatzen, ezta?)

artean: artean

"Artean, e, ser andikoak ote sien urrean" - (Artean, zer handikoak egoten ziren hurrean)

aspaldin, aspaldien: aspaldian

"Guk aspaldin estu eukiten aren" - (Guk aspaldian ez dugu edukitzen arean)

atoan: atoan, berehala

"Orduen ser ixengo san ba, txarrie ilkeran ba orduen, e, txarrie atoan, txarrie il esin da yan eser bere atoan esin yan" - (Orduan zer izango zen ba, txerria hilkeran ba orduan, txerria atoan, txerria hil ezin da jan ezer ere atoan ezin jan)

atxine: antzina

"Atxine olan eukiten gendun" - (Antzina hola edukitzen genuen)

atzenean: atzenean, azkenean

atzera: atzera, berriz

"Estire atzera etorten" - (Ez dira atzera etortzen)

"Erosi, gero berak atzera saltzeko" - (Erosi, gero berak atzera saltzeko)

"Besteak, bueltea artukeran pasten da atzera barrure" - (Besteak, buelta hartukeran pasatzen da atzera barrura)

barrien, barris: berriro, berriz

"Geu pe emen ba klasea tekus, an, igual an goyen, e, ba ona gero berau txarra, gero ostabe barrien ona, ta olan" - (Geuk ere hemen ba motak dauzkagu, han, beharbada han goian, ba, ona gero beherago txarra, gero ostera ere berrian ona, eta hola)

"Ara! Yan in deu baye bota deu barrien be" - (Hara! Jan egin du baina bota du berriro ere)

"Atzo in du bodea ostabe barrin" - (Atzo egin dugu boda ostera ere berrian)

baten: baten

"Niri neuri be baten i eusten" - (Niri neuri ere baten egin zidan)

bein: behin

"Ba astean bein edo, edo domeka arrastietan errosario ostean edo, abadeas, baye ostantzean maistrak eurek" - (Ba astean behin edo, edo domeka arrastietan errosario ostean edo, abadearekin, baina osterantzean maistrak eurak)

beineskoan, beinoneskoan: behin honezkero

"Ori ya beineskoan, guri iten yakusek oin lengo geusek aistu eta barriek akordeu es" - (Hori ja behin honezkero, guri egiten zaizkiguk orain lehengo gauzak ahaztu eta berriak gomutatu ez)

"Ser ingo yoapa beinoneskoan irurogetamabost urte inde nayauk" - (Zer egingo diat ba behin honezkero hirurogeita hamabost urte eginga nagok)

beñola: behinola

"Beñola an egon gintzesen" - (Behinola han egon ginen)

belu: belu, berandu

"Batos gorpueri, urteteko, komuniñoa on da ta apur bet belu datos, abadeak" - (Badatoz gorpuari, irteteko, komunioa egon da eta apur bat belu datoz, abadeak)

berandu: berandu

"Ba, orduak yateko, oin baño obeak! Igual egongo sien, e! Igual, e, ordu segurauauk esan gu dot, oin berandau ixeten da, edo tabernan dauela, edo bestean dala, edo orti yoan dala edo! Baye orduen yan, obeto!" - (Ba, orduak jateko, orain baino hobek! Beharbada egongo ziren, e! Beharbada, ordu seguruaogak esan gura dut, orain beranduago izaten da, edo tabernan dagoela, edo bestean dela, edo hortik joan dela edo! Baina orduan jan, hobeto!)

beti: beti

"Beti basoatan ibilte san" - (Beti basoetan ibiltzen zen)

bider: bider

"Andik senbet biderres ekarri du otea?" - (Handik zenbat biderrez ekarri dugu otea?)

"Orduen semet biderres entzun dotziet" - (Orduan zenbat biderrez entzun diet)

"An be iru lau biderres egonta gaus gu, eta ikusi selan eiten deuren be" - (Han ere hiru lau biderrez egonda gaude gu, eta ikusi zelan egiten duten ere)

birriten: birritan

egunean-egunean: egunean-egunean

egunero, egunaro: egunero

egunes: egunez

"Bakixu neuri ser pasten dasten? Yoate nas igual egunes ta gero ilundean yoate nas, afaldu te gero yarrite nas telebisiñoan, eta nau butakan yarrite, ta pa! Esaten dost alabeak, ama soas oira!" - (Badakizu neuri

zer pasatzen zaidan? Joaten naiz beharbada egunez eta gero ilundean joaten naiz, afaldu eta gero jartzen naiz telebistan, eta nago besaulkian jarrita, eta pa! Esaten dit alabak, ama zoaz ohera!)

egundo, eguno: egundo, sekula

"Egundo elie akabeu ori bear ori" - (Egundo ez liteke amaitu behar hori)

"Guk orreri aituko bageskio minguanteari te orreri egundo eskeinke akabeu bearra, ta sasoya danean podeu, aitu barik orreri" - (Guk horri adituko bagenio ilbeherari eta horri egundo ez genezake amaitu beharra, eta sasoiaren denean inausi, aditu barik)

"Estot entzun egundo be" - (Ez dut entzun egundo ere)

eguno beti: egundo beti, sekula

en jeneral, en jeneralean: gehienetan

"Edonok, edonok edo asko gurotzenak en jeneral, en jeneral geyen gurotzenak" - (Edonork, edonork edo asko gura dionak gehienetan, gehienetan gehien gura dionak)

"Oin dana taus sementoas iminte, ta en jeneral iten dire egun dustitan garbitu" - (Horiek denak daude porlanarekin ipinita, eta gehienetan egiten dira egun guztietan garbitu)

"Ori serean ibiltzen da en jeneral, bueltaka" - (Hori zerean ibiltzen da gehienetan, bueltaka)

"Emen, e, en jeneral medikue etorte san, en jeneralean ona, e?" - (Hemen, gehienetan medikua etortzen zen, gehienetan hona, e?)

ensegida: behingoan, atoan

"Orrek ensegida eskapetan deure" - (Horiek behingoan eskapatzen dute)

eurten, aurten: aurten

"Geu pe bai ondiñoarren, eurten be in du guk" - (Geuk ere bai oraindikarren, aurten ere egin dugu guk)

"Aurten be in du guk txakoline" - (Aurten ere egin dugu guk txakolina)

gero: gero

"Bueno ori gero, sein lekuten, e, diferente ite san" - (Beno hori gero, zein lekutan, desberdin egiten zen)

gesu beten: gesu baten

geues, gaues: gauez

"Mojak egunes eukite situesan aik geues es geues utzitude ote sien aik" - (Mojak

egunez edukitzen zituzten haiek gauez ez gauez hustuta egoten ziren haiek)

goxeti, goxetik: goizetik

ies, iges: iaz, igaz

"*Ies, ies san ordun euki dun beskarie*" - (Iaz, iaz zen orduan eduki genuen bazkaria)

"*Ies yoan i nintzen ni*" - (Iaz joan egin nintzen ni)

"*Eurten be etor dies ona, Samudiokoak ixen dire, ta eurekas neskatxu bi be bai, iges be etor siren*" - (Aurten ere etorri dira hona, Zamudiokoak izan dira, eta eurekin neskatxu bi ere bai, iaz ere etorri ziren)

jeneral: gehienetan, orokorrean

lantzean: lantzean, noizean behin

"*Lantzean bateri kontetan geuntzen*" - (Lantzean bati kontatzen genion)

lantzean bein, lantzen bein, lantzean bin: lantzean behin, noizean behin

lantzen baten, lantzen beinean,: lantzean behin

"*Gero, in bea dakie, esan doteles, e, gero, mordea edo, ya matzak garue bastante dekienean orduen orri giau kendu areri, argitasune giau koxu dien, lantzen bein punte bat, andie badekie kendu, ta botikea asikeran be, iru biderres*" - (Gero egin behar zaie, esan dudan legez, gero, morda edo, ja mahatsek garaua nahiko daukatenean orduan orri gehiago kendu haiei, argitasuna gehiago hartu dezaten, lantzean behin punta bat, handia badaukate kendu, eta botika hasieran ere, hiru biderrez)

laster: laster

"*Laster etorko dako gureari, batute dau, eldute dau baye*" - (Laster etorriko zaio gureari, batuta dago, helduta dago baina)

lelangos: lehenengoz

len: lehen

"*Lenaurik be selebreta san sanantonio*" - (Lehenagotik ere ospatzen zen San Antonio)

lengo aldien: lehengo aldian

"*Lengoaldien on da interrue orren arrebeana*" - (Lehengo aldian egon da enterrua horren arrebarena)

nekes: nekez, gutxitan

nosepinean, nosipinean: neizean behin

"*Bai, nosipinean ebaiko tzesan bai, ite situsen erredondoak, en jeneral erredondoak*" - (Bai, noizean behin ebakiko zizkion bai,

egiten zituen biribilak, gehienetan biribilak)

oin, uin: orain

"*Oin esta olangorik iten*" - (Orain ez da holakorik egiten)

"*Oin be iten da, iru egun iten dires*" - (Orain ere egiten da, hiru egun egiten dira)

ointzu, untzu: oraintsu

"*Ondikarren ointzurarten egon da ori, e?*" - (Oraindinokarren oraintsura artean egon da hori, e?)

ondikarren, ondiñokarren, ondiokarren, onikarren, oñikarren: oraindinokarren

"*Ondiñokarren, e, etze bat eta bi baño giau ongo die palue dekienak, eroateko serak! Kantinek eta baldea*" - (Oraindinokarren, etxe bat eta bi baino gehiago egongo dira paloa daukatenak, eroateko zerak! Kantinak eta baldea)

"*A bai, ori goixean, ori goixean, baye geubian ori, estosu ikusten se iten dau ondikarren ta*" - (A bai, hori goizean, hori goizean, baina gauean hori, ez duzu ikusten ze egiten du oraindinokarren eta)

ondiño, ondino: oraindino

"*Ori geu pe badeku ondino, baye guk oin, oin makinak iten du*" - (Hori geuk ere badaukagu oraindino, baina guk orain, orain makinarekin egiten dugu)

"*Ori palue? Palue bai ondiño!*" - (Palo hori? Paloa bai oraindino!)

"*Ori Goenaga esan dotzuen etzea, estait bota badeure, oin bota badeure espaberen, e, ondiño egon da*" - (Hori Goenaga esan dizudan etxea, ez dakit bota duten, orain bota badute ezpabere, oraindino egon da)

orduen, ordun: orduan

"*Jentea batze san txarrieri agarretako ta batze sien ta, ori ite san orduen bai*" - (Jendea batzen zen txerriari oratzeko eta batzen ziren eta, hori egiten zen orduan bai)

"*Ordun esan oten profesorerik*" - (Orduan ez zen egoten irakaslerik)

ostabe: ostera ere

ostea: ostea

ostean: ostean

pitean pitean: pitean-pitean, txitean-pitean

"*Ene bada! Ausokoak dustiek asarratute pitean pitean, batak estait selan ein tzola soloan, bestea, libre ibilte sien ta*" - (Ene bada! Auzokoak guztiak haserretuta

txitean-pitean, batak ez dakit zelan egin diola soroan, bestea, libre ibiltzen ziren eta)

sarri: sarri

"Bai bai sarri, sarri in du emen" - (Bai bai sarri, sarri egin dugu hemen)

sarriten: sarritan

sekule: sekula

22.2. LEKUA-KOKAGUNEAK

agirin: agirian

akabuen: amaieran, azkenean

"Bai lelangoan, e, ite yotzien familieri te etzeko serari, ta gero familieri, baye gero akabuen apurken apurken bateri ite otzien ta, itxiten yoan san, baye kanta lusea buf!" - (Bai lehengoan, egiten zieten familiari eta etzeko zerari, eta gero familiari, baina gero azkenean apurka-apurka-apurka bati egiten zioten eta, uzten joan zen, baina kanta luzea buf!)

alboa: alboa

"Albokoa mugitan da asko, ta apurtu, te botaten ixen dot albora" - (Albokoa mugitzen da asko, eta apurtu, eta botatzen izan dut albora)

aldea: aldea

"Au da Derioko, sera, mendie san ori emetiko aldean" - (Hau da Derioko, zera, mendia zen hori hemendiko aldean)

"Emetik aldeko alabea ixen san" - (Hemendik aldeko alaba izan zen)

alderdie: alderdia, aldea

"Ta batzuri iten dakie alderdi bet galdu be bai" - (Eta batzuei egiten zaie alderdi bat galdu ere bai)

"Gero a atzekoa obrak txarto inte dausela, obrak txarto inte dausela ta alturea, ta, alderdi bet yausi be in san" - (Gero atzeko hura obrak txarto eginda daudela, obrak txarto eginda daudela eta altuera, eta, alderdi bat jausi ere egin zen)

aparte: banan

"Ak artute seun eroate seun umea, eta gero, aitebitxi ta amabitxi aparte" - (Hark hartzen zuen eroaten zuen umea, eta gero, aitabitxia eta amabitxia aparte)

asao, asau: urrun, asago

"Abadea ba asao bixi de" - (Abadea asago bizi da)

"Guk ostuten du asao, guk paraje estu ostuten inos" - (Guk osten dugu asago, guk paraje ez dugu osten inoiz)

aspie: azpia

atzea: atzea

atzekalderdie: atzeko alderdia

barrue: barrua

"Lelau in bea da erre, erre in bear da, erre ta garbitu, eta gero tripek atara, barrue garbitu, barrue garbitu, eta, gero eskei" - (Lehenago egin behar da erre, erre egin behar da, erre eta garbitu, eta gero tripak atera, barrua garbitu, barrua garbitu, eta, gero eskegi)

bea: behea

bitartea: bitartea

bekalderdie: behe alderdia

erdie: erdia

"Erdien iminte otzien ba sera, sapie" - (Erdian ipintzen zioten ba zera, zapia)

eurrea, eurria, aurea: aurea

eurrealdea: aurre aldea

eurrekalderdie: aurreko alderdia

ganea: gaina

"Saku bet iminte sakon, e, aspitik, ta aparejue ganetik" - (Zaku bat ipintzen zitzaion, azpitik, eta aparejua gainetik)

goye: goia

ingerue, ingirue: ingurua

"Ori emen es, emen ingiruen es, es ori igual ortik" - (Hori hemen ez, hemen inguruan ez, ez hori beharbada hortik)

"A ingerue, an barriotan ebei, ta, gero ekarteurien" - (Inguru hura, han auzoan ebaki, eta, gero ekartzen zuten)

"En jeneral dekos orduak, goxean, e, sortzire paño lenau, gero amarrak ingeruen, amabiek ingeruen" - (Gehienetan dauzka orduak, goizean, zortziak baino lehenago, gero hamarrak inguruan, hamabiak inguruan)

kanpoa: kanpoa

"Suek kanpokoak sarie" - (Zuek kanpokoak zarete)

"Baye orrek ixen siren ya emoten sirenak kanpora" - (Baina horiek izan ziren ja ematen zirenak kanpora)

nortea: iparra, iparraldea

ondoa: ondoa

"Onek bayakik au yoaten dok ara ondora, istitutora" - (Honek bazakik hau joaten duk hara ondora, institutura)

paraje: paraje, hurbil

"Ba paraje ibilko dires!" - (Ba paraje ibiliko dira!)

"Bai, e, txapak, e, sein dauen parajeen eiten gendun megidu" - (Bai, txapak, zein dagoen parajeen egiten genuen neurtu)

"Emen, e, olango gitxi ite san, baye emeti paraje bai erri betzuten ite san ogie" - (Hemen, holako gutxi egiten zen, baina hemendik paraje bai herri batzuetan egiten zen ogia)

parea: parea, aurrea

partea: alderdia

"Ba, erriko, erriko abadea, errikoa kasureko Samudio ixen bada ori? Samudiokoa, eta gero, Montorretik esan doten moduen ona Almasenerarte san terrenoa Samudioko partea, ori Derio, bekoa, Samudioko partea san eta andik esotzen itxiten orrek, e" - (Ba, herriko, herriko abadea, herrikoa kasurako Zamudio izan bada hori? Zamudiokoa, eta gero, Montorretik esan dudan moduan hona Almazeneraino zen terrenoa Zamudioko aldea, hori Derio, behekoa, Zamudioko aldea zen eta handik ez zion uzten horrek, e)

puntea: punta, muturra

urrin: urrun

"Geur be urrin yoan barik iten da ogie" - (Gaur ere urrun joan barik egiten da ogia)

"Loyu emeti urrin dau, nire denporarako" - (Loiu hemendik urrun dago, nire sasoirako)

22.3. MODU ADITZONDOAK

abiedan: abiadan

adi: adi, begira

"Alboan pareute, begiek urten bearrean areri adi, selan iten deuden" - (Alboan paratuta, begiak irten beharrean hari adi, zelan egiten duten)

albos: alboz

"Nik beti esetu dot albos" - (Nik beti ezagutu dut alboz)

alrebes: alderantziz

amestan: amesetan, ametsetan

arbin: arbin, larri, estu

"Bai bata, iguala, dana da bat, batas arbin, ta beste bat gero, serean, apur bet trankiloa" - (Bai bata, berdina, dena da

bat, batekin arbin, eta beste bat gero, zerean, apur bat, lasaiago)

artega: artega

asarre: haserre

"Neure ixeko bat, alboan bixite san, eta ausokoa, arek olloa tiela ta estiela beti ibilte sien asarre" - (Neure izeko bat, alboan bizitzen zen, eta auzokoa, haiek oiloak direla eta ez direla beti ibiltzen ziren haserre)

aterri: aterri

atzerikera: atzerik hara, atzez

atzes: atzez

"Atzes baator ba ondo igual iten deure baye onena da aures etortea" - (Atzez badator ba ondo beharbada egiten dute baina onena da aurrez etortzea)

auspes ahuspez

banan: banan

banan-banan: banan-banan

bearrean: beharrean

"Ori ona san, e? Yakin orrek bearrean, e?" - (Hori ona zen, e? Jakin horrek beharrean, e?)

beluniko: belauniko

benetan: benetan

berbas: berbaz

"Baye gues asten dire berbas ta, suk esan dosun modules diferente" - (Baina gurekin hasten dira berbaz eta, zuk esan duzun moduan desberdin)

"Areas egon dies lengunean berbas" - (Harekin egon dira lehengo egunean berbaz)

berbetan: berbetan

beres: berez

"Beres sertuten dires, beres" - (Berez zertzen dira, berez)

bestala: bestela, ederto

briskan, brisgen: briskan

"Bai, ba, briskan, eta txakurtxiki bet, txakurtxiki bet irebasten deunak ba ak pagetan otzien txakurtxikie!" - (Bai, ba, briskan, eta txakurtxiki bat, txakurtxiki bat irabazten duenak ba hark ordaintzen zien txakurtxikia!)

bueltan: bueltan

burlesar: burlazar

"Asko garbitute san, Derion es, Derion asko es, Derion ementxe, seminarioan atzean egon san, baserri etze bat, Talleri euki seun ixena, ta an egon siren bi, ta gure

aitek esate gun, bera gastea, ta bakixu mutilek, eta besteak erropea garbituten, eta, gure, aite beyekas, eta besteak erropak garbituten, ta imini palu beten, t'an ganean, gane ganean, ta geure aiteri burlesar, burlesar, ta alango baten emoten dotzie, bueltea, paluek, eta erropa dustiek bera" - (Asko garbitzen zen, Derion ez, Derion asko ez, Derion hementxe, seminarioaren atzean egon zen, baserri etxe bat, Talleri eduki zuen izena, eta han egon ziren bi, eta gure aitak esaten zuen, bera gaztea, eta badakizu mutilak, eta besteak arropa garbitzen, eta, gure aita behiekin, eta besteak arropak garbitzen, eta ipini palu baten, eta han ganean, gain ganean, eta geure aitari burlazar, burlazar, eta halako baten ematen die, buelta, paluak, eta arropa guztiak behera)

burus: buruz

"Segun, kantetan be bai baye, burus, geyena burus" - (Segun, kantatzen ere bai baina, buruz, gehiena buruz)

burusbera: buruz behera

dandarres dandarrez, narraz

debalde: doan

"Bai totoa, debalde dana da totoa" - (Bai totoa, doan dena da totoa)

derrigor, derrigorres: derrigor

"Bai derrigor in beako san seosegas" - (Bai derrigor egin beharko zen zer edo zerekin)

"Derrigor egon bea deure Derioko planoak, eta lenau be au Mungi ixen san" - (Derrigor egon behar dute Derioko planoak, eta lehenago ere hau Mungia izan zen)

"Sasoi onetarako, naboak asiterako eukite situsenak, e, sasoi onetarako yanta, suritute eukite sin, ta derrigor batu bear, erretireu bear sera, aurten ikutu be in bari taus" - (Sasoi honetarako, arbiak hazitarako edukitzen zituenak, sasoi honetarako janda, zurututa edukitzen ziren, eta derrigor batu behar, erretiratu behar zera, aurten ikutu ere egin barik daude)

egas: hegaz

erdera, erderas: erdaraz

"Erdera ba iteuren eurek" - (Erdara ba egiten zuten eurek)

"Oin urte gitxis onantz, erdera imin seudien au kanpoko jentea asi sanean etorten ostean euskera beti" - (Hori urte gutxiz

honantz, erdara ipini zuten kanpoko jende hau hasi zenean etortzen ostean euskara beti)

"Ya egon sien erdeldunen familiek eta abade bat egon san amen, erdera gustetan dakona" - (Ja egon ziren erdaldunen familiak eta abade bat egon zen hamen, erdara gustatzen zitzaiona)

erdi bana: erdi bana

"Erdi bana ta ordun pageurien mille erreal" - (Erdi bana eta orduan ordaindu zuten mila erreal)

errietan: errietan

eskean: eskean

"Fijoak antzekoak eskean, Karolina defuntea ta beti" - (Fijoak antzekoan eskean, Karolina defuntua eta beti)

"Astoan ganean ibilte san eskean" - (Astoaren ganean ibiltzen zen eskean)

eskus: eskuz

"Gero itillekas, e, prepareu eta, seras onekas areakas, nasteu, gero erein, erein eskus" - (Gero itailekin, prestatu eta, zerarekin are hauekin, nahastu, gero erein, erein eskuz)

eurren, aurren: aurrez

"Ondo etorteko etorri bea deu aurren partoa, atzes badator txarto dator" - (Ondo etortzeko etorri behar du aurrez erditzea, atzez badator txarto dator)

euskera, euskeras: euskaraz

"Dotrinea bai, dotrinea eskolan, euskeras ta erderasko liburuak egoten siren, ba ikisteko, erderas ta euskeras bie" - (Doktrina bai, doktrina eskolan, euskaraz eta erdarazko liburuak egoten ziren, ba ikasteko, erdaraz eta euskaraz biak)

fijo: ziur

gedarres: agiraka, errietan

"Gedarres alkarregas, eta selango astrapalea ataten deuren orrek" - (Agiraka elkarrekin, eta zelako astrapala ateratzen duten horiek)

geldi: geldi

"An geldi itxi eskero su artzen deu" - (Han geldi utziz gero su hartzen du)

geldi-geldi: geldi-geldi

"Artoa be badoa galtzean, e? Geldi geldi, oin eraiten da artoa asko baye arto berdea" - (Artoa ere badoa galtzen, e? Geldi-geldi, orain ereiten da artoa asko baina arto berdea)

geyes: deiaz

gitxienez: gutxienez
"Gitxienez bi dire" - (*Gutxienez bi dira*)

gustora: gustura

ia: ea

igual: beharbada

iledan, illedan: ilaran

iruntzitara: iruntzitara

isilean: isilean

itzel: itzel
"Mustur lusenga batzuk, itzel gosoak oin estait non dausen arek" - (*Mustur luzanga batzuk, itzel gozoak orain ez dakit non dauden haiek*)

justoan: justuan

karraderan: korrika, karraderan
"Karraderan eskapeun kodañeas" - (*Karraderan eskapatu zuen kodainarekin*)

karran: karran, korrika
"Etzeatati eskapeu deuna karran or sartu" - (*Etxeetatik eskapatu duena karran hor sartu*)

kartatan: kartetan

kasan: ehizan
"Kasan yoate nintzen" - (*Ehizan joaten nintzen*)

kejas: kexaz

konforme: konforme, ados
"Bakotxak eseun gure ixeten, betetan san, e, seragas ta gero a yan ta konforme!" - (*Bakoitzak ez zuen gura izaten, betetzen zen, zerarekin eta gero hura jan eta konforme*)
"Jentea estau konforme, e?" - (*Jendea ez dago konforme, e?*)
"Enentzen konforme ba pe lotu, e?" - (*Ez nintzen konforme bat ere lotu, e?*)

kontus: kontuz
"Gu orra bera yoaten gintzanean, gure aite defuntuek esate oskun, kontus Antonio Errekaldekoen matzakas" - (*Gu horra behera joaten ginenean, gure aita defuntuak esaten zigun, kontuz Antonio Errekaldekoaren mahatsekin*)
"Kontus ibili bea da barruen" - (*Kontuz ibili behar da barruan*)

kurtzean: kurtzean, gurutzean

lapurretan: lapurretan
"Bere denpora dustin ganora barik, ortantxe edo lapurretan edo seran baye" - (*Bere denbora guztian ganora barik, horretantxe edo lapurretan edo zerean baina*)

larri: larri

lepos: lepoz
"Bagoia deskargeu, ta gero lepos ararte, kilometro bien bidea arregletan, neuk ikus dot ori" - (*Bagoia deskargatu, eta gero lepoz haraino, kilometro bian bidea konpontzen, neuk ikusi dut hori*)

libre: libre, aske
"Neskak libre eukite seurien" - (*Neskek libre edukitzen zuten*)
"Bakotxa bere lekuen on ditsan, nik, e, arteko etze sarrean, eneun euki, erdien, e, alde batera bientzat, eta bestea dana libre, eta oin dekoas, einte, erdin, e, muro bat, baye alboatara, baten bi, eta bestean, e, txikerrak ixenesko iru" - (*Bakoitza bere lekuan egon daitezen, nik, arteko etxe zaharrean, ez nuen eduki, erdian, alde batera bientzat, eta bestea dena libre, eta orain dauzkat, eginda, erdian, horma bat, baina alboetara, baten bi, eta bestean, txikerrak izanez gero hiru*)

librean: librean

lo: lo

lotan: lotan

megiden: neurrian

mesedes: mesedez
"Mesedes orrek sasiok ebaixues, se tapiatik barrure datos" - (*Mesedez sasi horiek ebaki itzazu, ze hormatik barrura datoz*)

narras: narraz
"Amen en jeneral nik, e, beti seran ikus doas, narras, amarreu serari, arboleari te" - (*Hamen gehienetan nik, beti zerean ikusi ditut, narras, amarratu zerari, arbolari eta*)

nasai: nasai, laxoa

nastean: nahastean

negarres: negarrez

nekes: nekez
"Ba, ori nekes pasetan dakie" - (*Ba, hori nekez pasatzen zaie*)

normalean: normalean

obuen: ondotoxo
"Obuen da, ba, obuen, esate les, ondo dau, txarto dau, obuen dau" - (*Obuen da, ba, obuen, esate legez, ondo dago, txarto dago, obuen dago*)
"Piperrari ure iten ibil nas, eta piperra, obuen obuen antzean dekot" - (*Piperrari ura egiten ibili naiz, eta piperra, obuen obuen antzean daukat*)

oñes: oinez

"Ba giau, e, yoate sien, e, trenean yoate siren plasara giau, oñes, nire ama be yoan da, da esneakas be!" - (Ba gehiago, joaten ziren, trenean joaten ziren plazara gehiago, oinez, nire ama ere joan da, eta esneekin ere!)

osoan: osoan

parean: parean

"Suek sarrak sarie nire parean" - (Zuek zaharrak zarete nire aldean)

prest: prest

prisas: presaz

puntes: puntaz

puntuen: puntuan

"Geurea egon da puntu puntuen" - (Geurea egon da puntu puntuan)

sabalean: zabalean

sakadis: sakadiz; oinetakoak orpoa kanpoan dela erabiltzea

segiduen: segituan

"Bai, oixe bai, e! Segiduen" - (Bai, horixe bai, e! Segituan)

segun: segun

"Bai segun, segun selau lurre tien" - (Bai segun, segun zelako lurrak diren)

"Ai, segun batzuk iten tzie serreas" - (Ai segun batzuek egiten diote zerrarekin)

seguru: ziur

segurutik, seguruti: ziurrenik

selai: zelai

sietz: zehatz

solte: solte

soltuen: solte

surrut: zurrut

talusean: talusean, oketsan

tiren: tiran

trabes: trabes

trabesetan: trabes

trankil: trankil

ugerrean: ugerrean

"An naola saratea, urte neun erre kara ta orduen, seinde lagune ugerrean moduen, bueltaka etorten da angulea" - (Han nagola zarata, irten nuen erre kara eta orduan, zeinda laguna igerian moduan, bueltaka etortzen da angula)

urrean, urren: hurrean, aurki

"Arek on bea deu urrean dana, desein inte" - (Hark egon behar du hurrean dena, desegin eginda)

"Samudion ori etze sar sar sar bat, egundo lelangokoa Samudioko etzeak ixen bea deu

urrean, ba Kaltzo, or jayokoak ixen sien orrek geyenak" - (Zamudion etxe hori zahar zahar zahar bat, egundo lehenengokoa Zamudioko etxeak izan behar du hurrean, ba Kadaltzo, hor jaiokoak izan ziren horiek gehienak)

utzean: hutsean

yantzan: dantzan

"Eta gero an etzeatan yoaten gintzesenean, edo erreseu, edo yantzan" - (Eta gero han etxeetan joaten ginenean, edo errezatu, edo dantzan)

yorran: jorran

"Orrek piperrarterako, piperrarterako, ta tomatearterako ta die txarrak, beti yorran ibili bear" - (Horiek piper-arterako, piper-arterako, eta tomate-arterako eta dira txarrak, beti jorran ibili behar)

22.4. MAILA ADITZONDOAK

ain: hain

"Ori esta ain gastea" - (Hori ez da hain gaztea)

ainbet: hainbat

"Bai ainbet urte da galdu dala" - (Bai hainbat urte da galdu dela)

"Ni pai, nik ainbet i nendusen" - (Nik bai, nik hainbat egin nituen)

apur bet: apur bat

"Bai sillerue pe badaus, apur bet tripe bajuek" - (Bai sileroak ere badaude, apur bat tripa baxuak)

"Apur bet txori seraoa bada a igual koitan edo ibiltzen sara" - (Apur bat txori zeragoa bada hura beharbada harrapatzen edo ibiltzen zara)

apurtxu bet, aputxu bet: apurtxo bat

bastante: nahikoa

"Bastante barrure etorte sien" - (Nahiko barrura etortzen ziren)

"Oin batzuk, e, oin iten deure urrean bastante arin" - (Orain batzuek, orain egiten dute hurrean nahikoa arin)

konpleto: guztiz

"A deskargetan da konpleto" - (Hura deskargatzen da guztiz)

"Erre ingo datzu baye ondo espadau, kondisinoatan konpleto" - (Erre egingo zaizu baina ondo ez badago, baldintzetan guztiz)

"Lengoan esa ostien, e, Landatxuko Lusiok, gu(k) baño amabost egun lelau bai, ereinte euki eun onek Lusiok siminderea, se neu ibilte orti yoanta ikuste euki dot eta, eta olloanari bere, ta Lusiori be konpleto galdu akesela siminderak, Beatrise pe esa osten Arteganekoak, konpleto galdu dakiesela siminderak" - (Lehengoan esan zidaten, Landatxuko Luziok, guk baino hamabost egun lehenago bai, ereinda eduki zuen honek Luziok mintegia, ze neu ibilita hortik joanda ikusita eduki dut eta, eta oiloenari ere, eta Luziori ere guztiz galdu zitzaizkiela mintegiak, Beatrizek ere esan zidan Arteganekoak, guztiz galdu zaizkiela mintegiak)

lar: lar

"Yayo ta ensegida espadeko amak bulerra, ba beyen esnea fuertea dala lar" - (Jaio eta behingoan ez badauka amak bularra, ba behien esnea gogorra dela lar)

"Leixarra esoaan lar ona ixiten, leixarra apurtu ite soan" - (Lizarra ez zuan lar ona izaten, lizarra apurtu egiten zuan)

oso: oso, sano

"Orre tie bei finek, oso gitxi ikusten die orrek, oso gitxi!" - (Horiek dira behi finak, oso gutxi ikusten dira horiek, oso gutxi!)

"Jentea pe oso ondo atendita uen, e?" - (Jendeak ere oso ondo atenditzen zuen, e?)

sano: sano

"Sano argaldu i nas" - (Sano argaldu egin naiz)

"Esayosu asi in bea deula, estat akordeu goxean esatea, se bajatu in da sano" - (Esaiozu hasi egin behar duela, ez zait akordatu goizean esatea, ze baxatu egin da sano)

total: guztiz

22.5. ZENBATEKOAK

ainbeste: hainbeste

"Bai esate san ori be baye, gureskeron ya es ainbeste" - (Bai esaten zen hori ere baina, gure ezkeron ja ez hainbeste)

ainbet: hainbat

altzi bet: altzi bat, apur bat

"Emoistesu altzi bet" - (Emadazu altzi bat)

amaka: hamaika

"Amakatxu kanta in dotzu umeari gure denporan" - (Hamaikatxu kanta egin diegu umeei gure denboran)

apur bet: apur bat

apurtxu bet, aputxu bet: apurtxu bat

arean, aren: arean, zertxobait, apur bat

"Aren aren saltze san lelau" - (Areal arean saltzen zen lehenago)

"Ya busterrintzalleak likideu, e, ya estait orti Gipuskoa aldetik edo badau arean" - (Ja buztarri egileak akabatu, ja ez dakit hortik Gipuzkoa aldetik edo dagoen arean)

"Areal ikusten gendunean diferentzia kontetan geuntzen" - (Areal ikusten genuenean desberdintasuna kontatzen genion)

asko: asko

"Anajeak asko siren orrek" - (Anaiak asko ziren horiek)

batzuk: batzuk

bitzuk: bitzuk

"Emen bitzuk geituten dakos estoa be bai te narra be bai" - (Hemen bitzuk deitzen zaizkio estoa ere bai eta narra ere bai)

dana: dena

"Danak batera ibiltzen gintzesan eta" - (Denak batera ibiltzen ginen eta)

"Gu pe danak estakigus" - (Guk ere denak ez dakizkigu)

derditxea: derditxea, asko

dusti, dustiek: guzti, guztiak

"Arrasti dustien eukiten deurie irikiten" - (Arrasti guztian edukitzen dute irakiten)

"Orrek landara dustie galdu iten deu" - (Horrek landare guztia galdu egiten du)

franku: franko, ugari

geyena: gehienak

"Yaten, ba titie emoten otzien geyenak" - (Jaten, ba titia ematen zieten gehienek)

giau, geao: gehiago

"Ba giau, e, yoate sien, e, trenean yoate siren plasara giau, oñes, nire ama be yoan da, da esneakas be!" - (Ba gehiago, joaten ziren, trenean joaten ziren plazara gehiago, oinez, nire ama ere joan da, eta esneekin ere!)

gitxi: gutxi

"Ori gitxi eukiten du" - (Hori gutxi edukitzen dugu)

gitxi-asko: gutxi-asko

"Seuser beti emoteuden, bai, gitxi-asko" -
(Zer edo zer beti ematen zuten, bai, gutxi-asko)

gitxiau: gutxiago

ingerue, ingirue: inguru

"Ai! Tripek eta ingeruek atara in bea dakos" -
(Ai! Tripak eta inguruak atara egin behar zaizkio)

lar: lar

"Geu be eskare atrebitan lar esaten, se gero, begiskona koiten dosku, ara sartuten bagares" - (Geu ere ez gara ausartzen lar esaten, ze gero, begizkoa hartzen digu, hara sartzen bagara)

makine bat: makina bat

"Makine at biderres eskillarak igonda nau" -
(Makina bat biderrez, eskailerak igonda nago)

"Keba! Eleixea ori! Makine bat bider yoan gares" - (Bai zera! Eliza hori! Makina bat bider joan gara)

naye: nahia, asko, zenbagura

"Or ni bixi nitzen aldea etzean beresiek eta egurre naye egote soan" - (Hor ni bizi nintzen aldea etxean beresiak eta egurra nahia egoten zuan)

neiko: nahiko

onenbeste: honenbeste

"Bai, ori ixete san ba len, segun senbet kilo darosun, ba, onenbeste kilo kendute yotzun, gitxi badarosu gitxiau, ta asko badarosu, ba, giau" - (Bai, hori izaten zen ba lehen, segun zenbat kilo daroazun, ba, honenbeste kilo kentzen zizun, gutxi badarozazu gutxiago, eta asko badarozazu, ba, gehiago)

"Dirue bada bere, ba emote otzesu ba onenbeste balor badeko, ta bueno onenbeste emon tzet edo seuser" - (Dirua bada ere, ba ematen diozu ba honenbeste balio badauka, eta beno honenbeste eman diot edo zer edo zer)

orrenbeste: horrenbeste

"Emen etzean ixenak es, baye ixetea les, ba, neu noa neure ixenagas, eta onenbeste, su soas, su seure ixenas ta orrenbeste, eta dirue batute seurien" - (Hemen etxean izenak ez, baina izatea lez, ba, neu noa neure izenarekin, eta honenbeste, zu zoaz, zu zeure izenarekin eta horrenbeste, eta dirua batzen zuten)

piti bet: piti bat, apur bat

"Iges, piti bet emon euntzeri, ta akabuen betetu in san" - (Iaz, piti bat eman ahuntzei, eta atzenezan bete egin zen)

ugeri: ugari

23. ADITZAK

Atal honetan aditz partizipio bakunak eta konposatuak aurkeztu eta ostean, partizipio eta aditz izenen erabileraz jardungo dugu, horretarako partizipio soilen erabilera, partizipioei eransten zaizkienak, aditz izenen eta aspektuen erabileren gainerako adibideak emango ditugu.

23.1. ADITZ BAKUNAK

abandoneu: abandonatu

"Ni tekot emen, e, au andie, terrenoa ba, bost etarea, ta euki dot matza beste ainbeste ingeru ara berantza, ta ni tekoas, iminte, soloan eskinetan, labretan dan eskinetan, ta labrekeran satza kosten ixen deure, ba arek bekoak abandoneta ego siles, in bixin dire kakotu, satza etxa, se kanpa itxi diles danak, oin, e, ingeru dustiek kanpa itxi diles" - (Nik daukat hemen, handi hau, terrenoa ba, bost hektarea, eta eduki dut mahatsa beste hainbeste inguru hara beherantz, eta nik daukat, ipinita, soroan izkinetan, lantzen den izkinetan, eta landukeran satsa hartzen izan dute, ba beheko haiek abandonatuta egon ziren lez, egin behar izan dira kakotu, satsa bota, ze lantzar utzi diren legez denak, orain, inguru guztiak lantzar utzi diren legez)

abanteu: 1. iraun, 2. eutsi

"Oin okiskeron, neberan euki eskero abantetan deu aputxu bet ostantxean atoan yan bea da ori" - (Orain edukiz gero, neberan edukiz gero irauten du apurtxo bat osterantzean atoan jan behar da hori)

"An egon gintzesan ba, luserotxu begire egon gintzesan ba, eta nik ixin abanteu mineas Jesus! Alango baten etor san, ba medikuek, enbrak, enbrak ixen sien biek medikuek" - (Han egon ginen ba, luzarotxo begira egon ginen ba, eta nik ezin iraun minarekin Jesus! Halako baten etorri zen, ba

medikuak, andrazkoak, andrazkoak izan ziren biak medikuak)

aberastu: aberastu

aberie: aberiatu, matxuratu

"Es, e, telefonoa dekot aberieute" - (Ez, telefonoa daukat hondatuta)

abieu: 1. abiatu. 2. igarri

"Emetik Sondikera ta Loyu ta emen es, estot abietan serik, Samudion Lesaman, emetik es" - (Hemendik Sondikara eta Loiu eta hemen ez, ez dut abiatzen zerik, Zamudion Lezaman, hemendik ez)

"Teleruen serik estot abieu" - (Ehun saltzailearen zerik ez dut abiatu)

"Etzean estot, estoas iños abieu etzean ta olan" - (Etxean ez dut, ez ditut inoiz abiatu etxean eta hola)

abiseu: abisatu

"Txoriek abiseu tzien, berari, seoser nobedade dekola" - (Txoriek abisatu zioten, berari, zer edo zer nobedade daukala)

aboneu: 1. satsitu. 2. ordaindu

abrosidu: abrozidu, gogaitu, aspertu

adibineu: igarri

adorneu: apaindu

"Albotik areri ogaseruduneri ite yotzien bolanteagas, teleagas adorneu" - (Albotik ohe-zerudun hari egiten zioten bolantearekin, ehunarekin apaindu)

afaldu: afaldu

"Es afaldutearrrik yoan dires" - (Ez afaltzeagatik joan dira)

afeiteu: moztu, bizarra egin

"Nik igual esetu dot, e, afeiteu es, itxi, pustillea edo ebayen bat eukiten baseurien itxi bixarra" - (Nik beharbada ezagutu dut, ebaki ez, utzi, marka edo ebakiren bat edukitzen bazuten utzi bizarra)

afusileu: fusilatu

agarreu: oratu

"Txakurreri agarre dotzet" - (Txakurrari oratu diot)

"Batek agarreta euki eun" - (Batek helduta eduki zuen)

agertu, agartu: agertu

"An ormasuloa eiten gabixela an, agertu yakon ser bat" - (Han horma zuloa egiten gabiltzala han, agertu zitzaion zer bat)

"Aitu non agertu dan" - (Aitu non agertu den)

agindu: 1. bidali. 2. agindu. 3. opetsi, eskaini, agindu

"Mesea agindu te pageu abadeari" - (Meza agindu eta ordaindu abadeari)

"Agindu se in bea dun" - (Agindu zer egin behar dugun)

"Gu bixi garen artean guk agintan du, e?" - (Gu bizi garen artean guk agintzen dugu, e?)

aguanteu: 1. irau. 2. eutsi

"Alkola gero, elei aguanteu" - (Alkohola gero, ez liteke irau)

"Olango beyek enterreu in bear ixete sien, ta erremendaderik euki esean noberak aguanteu bear ixete tzen" - (Holako behiak lurpetu egin behar izaten ziren, eta ermandaderik eduki ezean norberak eutsi behar izaten zion)

aireu: airatu

"Ak, e, ba, aireu ite seun lurre, aireu" - (Hark, ba, airatu egiten zuen lurra, airatu)

aiskidetu: adiskidetu

aistu: ahaztu

"Aistute dekot ori" - (Ahaztuta daukat hori)

"Aistute nau ni, urtea tire asko ta" - (Ahaztuta nago ni, urteak dira asko eta)

"Oin, e, aistute dekoas nik, eta, orrek geusok aistute dekoas ta" - (Orain ahaztuta dauzkat nik, eta, gauza horiek ahaztuta dauzkat eta)

aitu: aditu, begiratu

"Len aitu orreri, danak aitzen tzien" - (Lehen aditu horri, denek aditzen zioten)

"An kamiñoan erdien ite gurien, klaro lengo kamiñoak selan? Ta botxoak in, ta besteak, aitu! Senbe taosen!" - (Han kaminoaren erdian egiten zuten, jakina lehengo kaminoak zelan? Eta bakoitzak egin, eta besteak, aditu! Zenbat dauden!)

"Aitu! gurean koi dan beste sagar, oin esta koiten eser" - (Aitu! Gurean hartu den beste sagar, orain ez da hartzen ezer)

akabeu: akabatu, amaitu

"Or akabetan da" - (Hor amaitzen da)

"Ori ya akabe da" - (Hori ja amaitu da)

aklareu: aklaratu, xaboia kendu

akordeu: gogoratu, gomutatu

"Neu pe badakit selan euki eun ixena baye enas akordetan oin" - (Neu ere badakit zelan eduki zuen izena baina ez naiz gomutatzen orain)

"Enas akortan se urte asko da nik ikus dotela a be ta" - (Ez naiz gomutatzen ze urte asko da nik ikusi dudala hura ere eta)

akostunbreu: usatu, ekandu, ohitu

"Oin be akostunbretan da txarriek erretako, e?" - (Orain ere usatzen da txerriak erretzeko, e?)

"Bai, egurreskoak be bai batzuk, areri estait, guk estu akostunbreu olan" - (Bai, egurrezkoak ere bai batzuk, haiei ez dakit guk ez dugu erabili hola)

alargundu: alargundu

"Nire osabeas, e, eskondute on san bat, alargundu in sanean, ara, selan madariketu esaten tzien ari etzeari! Ta antxe be esan on tximinirik" - (Nire osabarekin, ezkondata egon zen bat, alargundu egin zenean, hara, zelan madarikatu esaten zioten etxe hari! Eta hantxe ere ez zen egon tximiniarik)

aldatu: aldatu, landareak aldatu

"Aldatu ite akon aldatu esate akon" - (Aldatu egiten zitzaion, aldatu esaten zitzaion)

aldendu: aldendu, galdu, desagertu

"An lotze sien, nosepinean buru betzuk ondo koi bakoak eta aldentute lotu sien alboan, a bai gero a txarrieri emoteko edo olloari emoteko, a lotze sana aldentute lotze sana" - (Han lotzen ziren, noizean behin buru batzuk ondo hartu bakoak eta aldentuta lotu ziren alboan, hura bai gero hura txerriei emateko edo oiloei emateko, hura lotzen zena aldentuta lotzen zena)

alegindu: ahalegindu

alkartu: elkartu

"Gero ba barriadakoak be, sertu siren, alkartu siren" - (Gero ba auzotegikoak ere, zertu ziren, elkartu ziren)

alkileu: alokatu

allegeu: heldu, ailegatu

"Sakristue ote san kargeas gero etzera allegeu esinik" - (Sakristaua egoten zen kargarekin gero etxea ailegatu ezinik)

"Bera moduen? Ote san berotute, onaño kasureko, bueno, onaño allegeta badau berotute, ya ondo dau, onaño baño espadau ondikarren gitxitxu dau, ondikarren geitxu in bea deu suek, onaño allege ditela beroa, berak markeu iteuen beroak" - (Beraren moduan? Egoten zen berotuta, honaino kasurako, beno, honaino ailegatuta badago berotuta, ja ondo dago,

honaino baino ez badago oraindikarren gutxitxo dago, oraindikarren gehitxo egin behar du suak, honaino ailega dadila beroa, berak markatu egiten zuen beroak)

altzeu: altxatu

"Goxetiau, bai, ni bearrean be ibil nas ori seminarioa dauen lekuen oin, amairu urte in dot or, bearrean, eta orduen ba, saspirek eta laurenak ingeru, or altzate gintzesan" - (Goizetiago, bai, ni bearrean ere ibili naiz seminario hori dagoen lekuan orain, hamahiru urte egin dut hor, bearrean, eta orduan ba, zazpiak eta laurenak inguru, hor altzatzen ginen)

"Oñes, goxean lauretan altzeu te yoan" - (Oinez, goizean lauretan altxatu eta joan)

altzikitu: altsikatu, gaztainei ebaki bat egitea erretzeko

amarreu: lotu

"Amarreu, amarreu iten da ori be, amarreu, amarreu iten da, apur bet, e, sertu barik itxi ber da, bete barik ondo, eta amarra iten da se orrek, e, asko kabitan deu ta pisu andie eukiten deu" - (Amarratu, amarratu egiten da hori ere, amarratu, amarratu egiten da, apur bat, zertu barik utzi behar da, bete barik ondo, eta amarratu egiten da ze horrek, asko sartzen du eta pisu handia edukitzen du)

amateu: amatatu

amenaseu: zemaitu, mehatxatu

amorrotu, amurrutu: amorratu

"Gebonatan, e, ba afaltan asi baño lelau kentzean dan ogi satie, atxine, bereinketu, a gordeta, ba, porejenplo txakurrek, e, sera amurrutu ite sirenean, a emon yaten" - (Gabonetan, ba afaltzen hasi baino lehenago kentzen den ogi zatia, antzina, bedeinkatu, hura gordeta, ba, kasurako txakurrak, zera amorratu egiten zirenean, hura eman jaten)

amostu: amoztu, moztu

anditu: handitu

"Orrek, e, basoas ibiltzen, esta? Ta iten dosu okertasun bet ankan, ta ixin inder in, baye sanetenes bai, sanetenes neuri be in dostie, ankea sartu nendun aspian ta olan anditu eta es eas ixin kendu, eta sanetenes neuri be in dostie, iten deitues oin be, bai iten deitues" - (Horiek, bazoaz ibiltzen, ezta? Eta egiten duzu okertasun bat hankan, eta ezin indar egin, baina zain tiratua bai, zain

tiratua neuri ere egin didate, hanka sartu nuen azpian eta hola handitu eta ezerekin ezin kendu, eta zain tiratua neuri ere egin didate, egiten dituzte orain ere, bai egiten dituzte)

antojeu: antojatu, nazkatu

aparteu: 1 apartatu. 2 bizi alargundu, dibortziatu

"Emen aparteu ite san" - (Hemen apartatu egiten zen)

aplasteu: zapartu

"Sagardoa in bea da, apurtu lenau masu betas sagarra gustie ta gero dollarara bota, ta aplasteu, ta kandu ure" - (Sagardoa egin behar da, apurtu lehenago mazo batekin sagarra guztia eta gero, dolarera bota, eta zapaldu, eta kendu ura)

aprobetxeu: baliatu, aprobetxatu

"Txarrieri dana aprobetxetan dako, esaten deure ta" - (Txerriari dena aprobetxatzen zaio, esaten dute eta)

"Guk estu ori aprobetxetan" - (Guk ez dugu hori aprobetxatzen)

"Denpora ona dauenean aprobetxeu" - (Aro ona dagoenean aprobetxatu)

aprobeu: 1. gainditu. 2. aproba egin

apropostu: apropostu

"Ta ote sien, e, garie garbitako makinek, apropostu, bakarrik garie garbitako" - (Eta egoten ziren, garia garbitzeko makinak, apropostu, bakarrik garia garbitzeko)

apunteu: apuntatu

apurtu: apurtu

"An umetokien barruen dau ori ume ori ta materie an partoan iten da apurtu" - (Han umetokiaren barruan dago ume hori eta materia han erditzea egiten da apurtu)

arbindu: arbindu

arduretu: arduratu

areneu: hareatu

"Sillek eta bai areneta siren baye bea" - (Aulkiak eta bai hareatzen ziren baina beha)

argaldu: argaldu

"Sano argaldu i nas" - (Sano argaldu egin naiz)

argitu: argitu

"Bai, eguski, bai, eguski, esate seun kolorea argitan dotziela edo! Estakit ser! Atxineko, bakixu, kontuek ba!" - (Bai, eguzki, bai, eguzki, esaten zuen kolorea argitzen diela

edo! Ez dakit zer! Antzinako, badakizu, kontuak ba!)

armeu: armatu

"Orrek egote sien, armeute on san ser bat, ta bata ote san, bean bat, eta bestea goyen, ta ayek ite yuen, batak goitik eta bestea besteti" - (Horiek egoten ziren, armatuta egon zen zer bat, eta bata egoten zen, behean bat, eta bestea goian, eta haiek egiten zuten, batak goitik eta bestea behetik)

arroseu: armozatu, gosaldu

arrankeu: 1. arrankatu, martxan paratu. 2. erauzi

"Orrek iten due, sera, lurreri, ba sueltu, lurre be igual arranke iten deu, urek, ekarri, bajatu, iten deu" - (Horiek egiten dute, zera, lurrari, ba solte, lurra ere beharbada erauzi egiten du, urak, ekarri, bajatu, egiten du)

arraskeu: 1. hazka egin. 2. karrankatu

"Gero tripek atara, bueno lelengo erre, gero garbitu uras arraskeu te, garbitu, te gero tripek atara" - (Gero tripak atera, beno lehenengo erre, gero garbitu urarekin karrankatu eta, garbitu, eta gero tripak atera)

"Arekas arraskeu iten da" - (Haiekin karrankatu egiten da)

arregleu: konpondu

"A be basas beterik, se eseun inok arregletan ta" - (Hura ere basaz beterik, ze ez zuen inork konpontzen eta)

"Arregleta gao!" - (Konponduta hago!)

"Au be errik arregleta dau" - (Hau ere herriak konponduta dago)

arrendeu: alokatu

"Orrek yoate sien, arrendeta, propietarioari, basoa arregletan ta pinue sartzean" - (Horiek joaten ziren, alogeran, jabeari, basoa konpontzen eta pinua sartzen)

arriemeu, errimeu: parajetu

"A ormea dauen lekure ixi letike errimeu, e?" - (Horma hura dagoen lekura ezin liteke parajetu, e?)

"Esite arrima orrekana, eroan dixela" - (Ez zaitetz parajetu horiengana, eroan ditzatela)

arroto: harrotu

arteseu: zuzendu, konpondu

"Ta igual etorte ako kadera bat oker ta a in bear dako sartu besoa barruen ta arteseu,

ta biek imini artes" - (Eta beharbada etortzen zaio hanka bat oker eta hura egin behar zaio sartu besoa barruan eta arteztu, eta biak ipini artez)

artestu: arteztu

artu: hartu

"Ori ya garrafoyatan etorte san ta ori mesostian ta ori galletakas artute seudien" - (Hori ja garrafoietan etortzen zen eta hori meza ostean eta hori gailetekin hartzen zuten)

asarratu: haserretu

"Emen pentzeu bes! Gu gausen lekuen, ba kanpak jote deituseanean, alboan bixi diena asarratu iten diresela" - (Hemen pentsatu ere ez! Gu gauden lekuan, ba kanpaiak jotzen dituztenean, alboan bizi direnak haserretu egiten direla)

asarteu, asarteu: aparatu, suertatu

"Arrie botate san sulora, ta sulora asertetan basan ba ordun egoan, e, irebasite" - (Harria botatzen zen zulora, eta zulora aparatzen bazen ba orduan zegoen, irabazita)

"Niri etxat asarteu olakorik ikusterik inos" - (Niri ez zait suertatu holakorik ikusterik inoiz)

asetu: 1 ase. 2. ase arte busti

asi: 1. hasi. 2. hazi

"Ba, batzuk asi, etzean, beste batzuk il iten sien, ta olan" - (Ba, batzuk hazi, etxean, beste batzuk hil egiten ziren, eta hola)

ason: arazo, arazi

"Orreri etorri ason in dotzie" - (Horri etorraz egin diote)

astilletu: arrakalatu

"Geuk ba, ebai, eta astilletu, eta gero mendue sartute yakon" - (Geuk ba, ebaki, eta arrakalatu, eta gero mendua sartzen zitzaion)

atakeu: eraso

"Kaseruek es atakeu edo, ta ikuste san emen ingeruetan asko" - (Ehiztariek ez eraso edo, eta ikusten zen hemen inguruetan asko)

"Lagune ikusten deueanean, e, noberak ataketan espotzo martxeu iten deu" - (Laguna ikusten duenean, norberak erasotzen ez badio, alde egiten du)

atara: atera

"Nik neuk emen, estakos iños atara" - (Nik neuk hemen, ez zaizkio inoiz atera)

atertu: atertu

atendidu: atenditu

"Jentea pe oso ondo atendida uen, e?" - (Jendeak ere oso ondo atenditzen zuen, e?)

atondu: atondu

atrebidu: ausartu

"Suloa ite san, lurre, lurre ba amontonetako, suloa, ta a suloa, e, ganadue ikeratu ite san, ta gero a palatue pastako esan atrebitan" - (Zuloa egiten zen, lurra, lurra ba pilatzeko, zuloa, eta hura zuloan, ganadua ikeratu egiten zen, eta gero palatu hura pasatzeko ez zen ausartzen)

atzeratu: atzeratu

"Eratzi kontue badoa, atzeratu iten da" - (Eratsi kontua badoa, atzeratu egiten da)

aukeratu: aukeratu

"Aitebitxi amabitxik aukeratute sien, noberak sertzean baotzun, nik eskondu nintzenean aistea eroa nendun, bixi da ondikarren, etzean dekot, ni baño bost urte da gastea, t'onek anajea" - (Aitebitxi-amabitxik aukeratzen ziren, norberak zertzean bazion, nik ezkondu nintzenean ahizpa eroan nuen, bizi da oraindikarren, etxean daukat, ni baino bost urte da gazteagoa, eta honek anaia)

aumenteu: gehitu

"Oin, a, asko aumete da" - (Orain asko gehitu da)

"Bai asko yayote san, oin be bai, nik, e, Txomineri agintan tzet, e! Aumete datzu famelie akorde saites seuk se iten dosun, esaten dotzet" - (Bai asko jaiotzen zen, orain ere bai, nik, Txomini agintzen diot, e! Gehitu zaizu familia gomuta zaitez zeuk zer egiten duzun, esaten diot)

autzi: eutsi

"Espaldan basoas, ta peligro andie badau, emen surrunen aspian sartu, pare bat, bata aurretik, bestea atzetik, ta autziten yoan estiten bera" - (Maldan bazoaz, eta arrisku handia badago, hemen zurrunaren azpian sartu, pare bat, bata aurretik, bestea atzetik, eta eusten joan ez dadin behera)

axetu: haizatu

bajatu: jaitsi, baxatu

"Bajatan badeu burue, burutik urtetan dotzo orrek" - (Baxatzen badu burua, burutik irteten dio horrek)

"Oin be, bueno bajatu enas eiten plasara" -
(Orain ere, beno baxatu ez naiz egiten
plazara)

"Aor be bajetan da bide bat, aortik" - (Haor
ere baxatzen da bide bat, haortik)

baltzitu: belztu, baltzitu

"Golpe artu deu te baltzitu dako dana" -
(Kolpea hartu du eta belztu zaio dena)

bañeu: bainu hartu

bardindu: berdindu

bardingotu: berdingotu

"Andi es ta txiki es, au bardingotu in daku" -
(Handi ez eta txiki ez, hau berdingotu egin
zaigu)

bareusi: barautsi

barristeu: berriztatu

"Neure gixonan amak esate gun, bera etor
sanean ona, berak artu gun etzean, bera
maistrea san, eta maistrea etzean, errikoa
san baye gero alboko etzea artu gurien, eta
albokoan suk esan dosune, narrasko ormak
on sirela ta gero barriste in guriela" -
(Neure gizonaren amak esaten zuen, bera
etorri zenean hona, berak hartu zuen
etxean, bera maistra zen, eta maistraren
etxean, herrikoa zen baina gero alboko
etxea hartu zuten, eta albokoan zuk esan
duzuna, narrazko hormak egon zirela eta
gero berriztatu egin zutela)

barrunteu, barrenteu: barruntatu, sentitu

"Baye gero andik se i osten, suabe suabe
olan, kili-kili, kili-kili, barrunteta nun nik,
eta gibelera etorri asten, gibela anditu
yasten eta an euki nun sera gatxa" - (Baina
gero handik zer egin ziran, suabe-suabe
hola, kili-kili, kili-kili, barruntatzen nuen
nik, eta gibelera etorri zitzaidan, gibela
handitu zitzaidan eta han eduki nuen zera
gaitza)

"Es, es, estot olangorik barrenteu, emen bai,
gero bai, ori taka-taka ta orrek, baye
artean es" - (Ez, ez, ez dut holakorik
barruntatu, hemen bai, gero bai, hori taka-
taka eta horiek, baina artean ez)

basitu: bazia batu, jakiek plateretan uzten
duten hondarra ogiarekin batu

batietu: bataiatu

"A bai! Bai! Neu pe bai euki dot, e, seme bat,
e, bueno! Oso parto txarra san, eta etzean
batietu sen, nire gixonak batietu euen" - (A
bai! Bai! Neuk ere bai eduki dut, seme bat,

beno! Oso erditze txarra zen, eta etxean
bataiatu zen, nire gizonak bataiatu zuen)

batu: batu

"Jentea batze san txarrieri agarretako" -
(Jendea batzen zen txerriari oratzeko)

"Aren suegrean etzera batzean gintzen gu,
emetik eta ori Trabudunen distantzi
ingeruen oten gintzen, eta gasteak danok
batzean ta sarra pe bai, sarra pe bai!" -
(Haren amaginarrebaren etxera batzen
ginen gu, hemendik eta hori Trabuduneren
distantzia inguruan egoten ginen, eta
gazteak denok batzen eta zaharrak ere bai,
zaharrak ere bai!)

bautiseu: bataiatu

"Yayo iten basan, geur arrastien, bier goxean
bautisetan eroate gurien, e?" - (Jaiio egiten
bazen, gaur arrastian, bihar goizean
bataiatzen eroaten zuten, e?)

bellegitu: beilegitu, horitu

"Bueno, ori da, urdin baño arean, e,
bellegitute, batzu taus urdin suriek esaten
dakienak, eta beste batzuk morenaoak" -
(Beno, hori da, urdin baino arean,
beilegitu, batzuk daude urdin zuriak esaten
zaienak, eta beste batzuk beltzaranak)

belunikotu: belaunikatu

bendeu: bendatu

"Or, eta arek bedarrak iminte deitu gero a
sintea paseu, iru bider, edo pastan dotzie
sintea, eta gero, imini arek bedarrak eta
bendeu" - (Hor, eta belar haiek ipintzen
ditu gero zinta hura pasatu, hiru bider, edo
pasatzen diote zinta, eta gero, ipini belar
haiek eta bendatu)

beratu: beratu

"Guk aprobetxeu ori nik ontxe emote tzet
beyeri, beratu, uras, geubean edo bota
uretan, ta beratu bigundu deiten, ta gero
pentzue bota ta, pulpean modu antzean" -
(Guk aprobetxatu hori nik oraintxe ematen
diot behiari, beratu, urarekin, gauean edo
bota uretan, eta beratu bigundu dadin, eta
gero pentsua bota eta, pulparen modu
antzean)

bereinketu, bedeinketu: bedeinkatu

"Ba paternoster bat erreseu, bereinketu te" -
(Ba aita gure bat errezatu, bedeinkatu eta)

"Keba! Bota es! Bedeinketue da ta, selan
bota? Esaten yoskuen, bai" - (Bai zera!
Bota ez! Bedeinkatua da eta, zelan bota?
Esaten ziguten, bai)

"Orduen emoten yotzon, seuk deritxesune, seure borondatea, garien denporan, paseta siren bereinketuten" - (Orduan ematen zion, zeuk deritzezuna, zeure borondatea, gariaren sasoian, pasatzen ziren bedeinkatzen)

beriendeu: berien datu, askaria jan

berotu: 1. berotu. 2. zeloan paratu

"Lelango berotu iten deu lepoa" - (Lehenengo berotu egiten du lepoa)

beskaldu: bazkaldu

"Eta lengo baten egon da gurean beskaltan, ango, angoxeko gixona, eta ni betikoa nas angoa ba esa yosten ta, enintzen akordetan nor san, baye antxe, sera, Goyenagan alboan bixi ixen sala" - (Eta lehenengo baten egon da gurean bazkaltzen, hango, hangoxe gixona, eta ni betikoa naiz hangoa ba esan zidan eta, ez nintzen gomutatzen nor zen, baina hantxe, zera, Goienagaren alboan bizi izan zela)

betatu, bete, betetu: bete

"Betatuteko sera egon san" - (Betetzeko zera egon zen)

"Bat egon san ta beras betetu yaten soloa" - (Bat egon zen eta berarekin bete zitzaidan soroa)

bigeldu, bieldu: bialdu, bidali

"Ba esate gurien, ba, seren batera fraileatara edo ara bigeltan deuriela ori dirue, gero mesak selebretako" - (Ba esaten zuten, ba, zeraren batera fraideetara edo hara bialtzen dutela diru hori, gero mezak egiteko)

bigortu: bihurtu

bigundu: bigundu

"Ba imin yeurek, bai, iminten yeurek, eriden ganean da, biguntako ta" - (Ba ipini ditek, bai, ipintzen ditek, zauriaren gainean eta, biguntzeko eta)

bijileu: sorotsi

"Bai bijileu goyen, eta artes artes bajatan die, balea les, botaten tzie erpea ta gora atzera" - (Bai sorotsi goian, eta artez-artez baxatzen dira, bala lez, botatzen diete erpea eta gora atzera)

"Or bijileu aber urteten badeu an" - (Hor sorotsi ea irteten duen han)

bildurtu: bildurtu

biletu: bilatu

bilustu: biluztu

biortu: bihurtu

birrotxatu: birrotxatu

birrotxotu: birrotxotu

bisiteu: bisitatu

"Klaro! Urte dustireko, gaxoan ba padau, edo ba, etorten basan sera, abadea, gaxoak bisitetan, orduen a kandlea bistute san" - (Jakina! Urte guztirako, gaixoren bat badago, edo ba, etortzen bazen zera, abadea, gaixoak bisitatzen, orduan kandela hura bizten zen)

biskortu: bizkortu

bistu: biztu

"Ori da, erdi ilean onesko, gero bistu itea, erdi ilean egon, eta gero bistu" - (Hori da, erdi hilean egonez gero, gero biztu egitea, erdi hilean egon, eta gero biztu)

bolatu: bola egin

bonbardeu: bonbardatu

"Au bonbardeu i euren" - (Hau bonbardatu egin zuten)

bordeu: bordatu

"Esetu da ba makinan iten, makinan yoskillea dana ba, bordeu ite seun arek beran erara, imini doblea ixereari, ta gure dan dibujue ta, orduen esan iten olangorik edo makineagas yosi doble emonta, aspireko ite san, koltxean ganerako, ta gero ganeko ya ta almuedea, igualak" - (Ezagutu da ba makinan egiten, makinan joskilea dena ba, bordatu egiten zuen hark beraren erara, ipini bikoitza izarari, eta gura den marrazkia eta, orduan ez zen egiten holakorik edo makinarekin josi bikoitza emanda, azpirako egiten zen, koltxoia gainerako, eta gero gaineko ja eta burukoa, berdinak)

borreu: borrratu, ezabatu

bota: 1. bota. 2. bidali

"Usine botate seurien gosoa" - (Usaina botatzen zuten gozoa)

"Oin botata dau oin baye, a be botata dau, bai lenau, e, etze asko ote sien alan, tximini barik" - (Orain botata dago orain baina, hura ere botata dago, bai lehenago, etxe asko egoten ziren hala, tximinia barik)

"Ori botaik antxe, antxe dekok lur baragarrie ta" - (Hori bota ezak hantxe, hantxe daukak lur baragarria eta)

broteu: erne

"Yausten dan lekuen barrie brotata dau" - (Jausten den lekuan berria erneta dago)

buelteu: bueltatu, itzuli

"Lelango ote san beste, layetuteko, alde batekoas, exea moduen, alde batera iteuen, ori ite san gero bueltea" - (Lehenengo egoten zen beste, laiatzeko, alde batekoarekin, exea moduan, alde batera egiten zuen, hori egiten zen gero bueltatu)

bustertu, busturtu: buztartu, uztartu

"Ori gastetan irekatzi iten dakie, gastetan, gastetan, bueno oneri irekatzi beako eskoiko alderditik, ta besteari eskerretik lelango iminten die bustertute, bata eskerrean ta bestea eskoyan, eta ibili bakarrik, gero apurke apurke, apurke apurke, ba, kargeas, apurke apurke apurke, se estekieles sera inte, kokota bea dan moduen, inderrik estekie bea dan moduen, apurke apurke iten dire in, ibilite" - (Hori gaztetan irakatsi egiten zaie, gaztetan, gaztetan, beno honi irakatsi behar zaio eskoiko alderditik, eta besteari ezkerretik, lehenengo ipintzen dira, buztartuta, bata ezkerrean eta bestea eskoian, eta ibili bakarrik, gero apurka-apurka, apurka-apurka, ba, kargarekin, apurka-apurka-apurka, ze ez daukaten lez zera eginda, kokotea behar den moduan, indarrrik ez daukate behar den moduan, apurka-apurka egiten dira egin, ibilita)

"Oin estu bustertan baye, nik asko bustertu dot" - (Orain ez dugu buztartzen baina, nik asko buztartu dut)

"Busturtu euenean soloan il akon bertan buelta bi emon orduko" - (Buztartu zuenean soroan hil zitzaion bertan buelta bi eman orduko)

busti: busti

damutu: damutu

"Damututen dat lelau etorri estea" - (Damutzen zait lehenago ez etortzea)

dedikeu: dedikatu

"Asi san bearren, ta asten danean bearren esteu itxiten, ta iru bije edo i nentzesan ordun egun atan, Iñaki bero dau te erdu etzera, orrek bedarrak, sagarrak, mille peseta dana pe esteure balio ta, erdu etzera! Se inos dedikeu banintzen saltzean, esta? Bai ni plasara ibil nasenean be inos estot eroan fruterik saltzean, eta, esate neuntzen erdu etzera, auxe akabeu in biot, yoanesko akabeu in bear dalako arloa, ta atzenean berau akabe san" - (Hasi zen beharrean, eta hasten denean beharrean ez

du uzten, eta hiru bidaia edo egin nizkion orduan egun hartan, Iñaki bero dago eta erdu etxera, belar horiek, sagarrak, mila pezeta denek ere ez dute balio eta, erdu etxera! Ze inoiz dedikatu banintzen saltzen, ezta? Baina ni plazara ibili naizenean ere inoiz ez dut eroan frutarik saltzen, eta, esaten nion erdu etxera, hauxe amaitu egin behar dut, joanez gero amaitu egin behar delako arloa, eta atzenean berau amaitu zen)

defendidu: defendatu

desaparesidu: desagertu

"Bat i neun ebei, eta an dau botaute, eta bestea sikitu, eta or dau errotxu bias, errama bias or dau, eta beste bat desaparesidu total" - (Bat egin nuen ebaki, eta han dago botata, eta bestea sikatu, eta hor dago errotxo birekin, errama birekin hor dago, eta beste bat desagertu guztiz)

desein, desin: desegin

"Arek on bea deu urrean dana, desein inte" - (Hark egon behar du hurrean dena, desegin eginda)

deskantzeu: deskantsatu

"Deskantzeu in diela, gero partoa datorreneako esnea emon dien ondo" - (Deskantsatu egin dezatela, gero erditzea datorrenerako esnea eman dezaten ondo)

deskargeu: deskargatu

"Andik ite sien deskargeu" - (Handik egiten ziren deskargatu)

"Or deskargeta sien eskoriak, ta ara Aldekoneko elixararte lepos bidea arregleu, lepos, e! Se gurdis esin ibili" - (Hor deskargatzen ziren hondarrak, eta hara Aldekoneko elizaraino lepoz bidea konpondu, lepoz, e! Ze gurdiz ezin ibili)

deskonteu: deskontatu

"Esta deskontetan" - (Ez da deskontatzen)

deskuideu: deskuidatu

despedidu: agurtu

detenidu: atxilotu

dibortzieu: dibortziatu

"Oin matrimonioak dibortzieu iten dire kantzeu iten dire, ba soloas bardin bardin pasetan da" - (Orain andre-gizonak dibortziatu egiten dira nekatu egiten dira, ba soroarekin berdin-berdin pasatzen da)

diskutidu: eztabaidatu

dobleu: tolestu

domineu, domiñeu: menperatu

"Ganadue beti domineta san fasil, ondo esan"
- (Ganadua beti dominatzen zen errez,
ondo esan)

"Lur gogorra orrek sano dominetan deu ori
de enbran modu modukoa berak dimineu
orrek iten deu" - (Lur gogorra horrek sano
menperatzen du hori da andrazkoen modu
modukoa berak menperatu horrek egiten
du)

ebai, ebei: ebaki

"Odolak urtetan tzie aren sakontxutik
ebayeskero" - (Odolak irteten die arean
sakontxotik ebakiz gero)

edan: edan

"Asunen ure edateuen gure amak" - (Asunen
ura edaten zuen gure amak)

egarritu: egarritu

egon, on: 1. egon. 2. itxaron

"Gero arik, laugarren bosgarren egunean
olloak yanta, ordun gitxi, gitxi egon sien" -
(Gero harik, laugarren bosgarren egunean
oilok janda, orduan gutxi, gutxi egon
ziren)

"Sopuertan egon san lusero" - (Sopuertan
egon zen luzaro)

"Ortxe, ointxe ni beyekas onasen serean, an
dau, ni nas Derio ta an Samudio da" -
(Hortxe, oraintxe ni behiekin egon naizen
zerean, han dago, ni naiz Derio eta han
Zamudio da)

egosi: egosi

"Angulea baltza da baye egosiskero suri-suri"
- (Angula beltza da baina egosiz gero zuri-
zuri)

"Egosi ein bea deu bai, egosten igual tardetan
dotzu amar egun" - (Egosi egin behar du
bai, egosten beharbada behar dizu hamar
egun)

ein, in: egin

"Ba, ingo san, Derion estot ikusi" - (Ba,
egingo zen, Derion ez dut ikusi)

"Orras estot iños be in" - (Horrekin ez dut
inoiz ere egin)

ekarri: ekarri

ekin: ekin

"Arik eta limosnea emon artean ekin an" -
(Harik eta limosna eman artean ekin han)

eldu: heldu

"Eldu emen e, santiagoetan gariak jote sien,
ta san juan ingeruen, san juan erditik,
junioen erditik, e, atzerantza" - (Heldu
hemen, Santiagoetan gariak jotzen ziren,

eta san juan inguruan, san juan erditik,
bagilaren erditik, atzerantz)

elejidu: aukeratu

emon: 1. eman. 2. itxura eduki, iruditu

"Orrek niri estostie emon dirurik" - (Horiek
niri ez didate eman dirurik)

enbotelleu: botilaratu

"Gero martien enbotelleu" - (Gero martxoan
botilaratu)

enboteu: enbotatu

endredeu: 1. endredatu, drogan ibili. 2.
burutik ondo ez egotea

"Apur bet endredeute etorte sanean denporea,
axe apur betas, orduen aprobetxeta san" -
(Apur bat endredatuta etortzen zenean
eguraldia, huraxe apur batekin, orduan
aprobetxatzen zen)

"Bat pase san baye, burutik, e, sano esan
egon, endredeute on sana, talletue apur bet
goterea eukieuen, or euki eun arrabea, or
Errekalden, ta, orra yoate san domeka
dustietan, ta emeti yoate san, kargu artu
diruek, e, danak sabaldu situsen bidean,
doala, eroan situsen diruek danak, talletue
apur bet endredeute euki eun ak" - (Bat
pasatu zen baina, burutik, sano ez zen
egon, endredatuta egon zena, teilatua apur
bat itogina eduki zuen, hor eduki zuen
arreba, hor Errekalden, eta, horra joaten
zen domeka guztietan, eta hemendik joaten
zen, kargu hartu diruak, denak zabaldu
zituen bidean, doala, eroan zituen diruak
denak, teilatua apur bat endredatuta eduki
zuen hark)

engantxeu: engantxatu

"Allea engantxeta daona" - (Aila
engantxatuta dagoena)

engañeu: engainatu

enkortxeu. enkortxatu

"Botillek enkortxeu, eta solteu, t'edan, eta
barriketik atara ta edan" - (Botilak
enkortxatu, eta, soltatu, eta edan, eta
barrikatik atera eta edan)

enpatxeu: enpatxatu

"Ganadueri emote yakosan mamukioak,
enpatxeta egoten basien, mamukioa egosi,
ta emote neuntzen, e, ganadueri, ba
botillen" - (Ganaduari ematen zitzaizkion
mamukioak, enpatxatuta egoten baziren,
mamukioa egosi, eta ematen nion,
ganaduari, ba botilan)

entereu: enteratu

"Entereu bes iñor badau espadau" - (Enteratu ere ez inor badago ez badago)

enterreu: ehortzi

entregeu: eman

"Etzera ekarte sien ta gero atzera entregeu" - (Etxera ekartzen ziren eta gero atzera eman)

entreneu: entrenatu

"Idiek entrenetan ibiltzen die" - (Idiak entrenatzen ibiltzen dira)

entxufeu: entxufatu

entzun: entzun

"Entzun in dot baye, neuk estot ein" - (Entzun egin dut baina, neuk ez dut egin)

"Inos etxoat ikusi iten baye entzun in yoat" - (Inoiz ez diat ikusi egiten baina entzun egin diat)

epeldu: epeldu

"Kendu ba sera, orri danak imini te beste txarrak, e, kendu, eta estait arean, estait epeldu iten san suen be urrean ta imini, ni neuk estoas imini iños baye emen, e, iminikoak badaus" - (Kendu ba zera, horri denak ipini eta beste txarrak, kendu, eta ez dakit arean, ez dakit epeldu egiten zen suan ere hurrean eta ipini, nik neuk ez ditut ipini inoiz baina hemen, ipinikoak badaude)

erain: 1. erein. 2. eragin. 3. eragin faktitiboa

"Artoak erain eiten dus" - (Artoak erein egiten ditugu)

erakutzi: erakutsi

"Guri estoskue erakutzi" - (Guri ez digute erakutsi)

"Ekusten bada, ametik gorantza kolore bat suriau, berotan asten danean, au ya koitan beste kolore bat suriau, berak erakusten deu" - (Ikusten bada, hamendik gorantz kolore bat zuriagoa, berotzen hasten denean, hau ja koiuten beste kolore bat zuriagoa, berak erakusten du)

erantzi: 1. erantzi. 2. erantsi

eratzi: 1. eratzi. 2. eraitsi, jaitsi

"Useta daueles beran umeagas, gero basoas erasten igual, ta estotzu igual soltetan esnea" - (Usatuta dagoen lez beraren umearekin, gero bazoaz erazten beharbada, eta ez dizu beharbada soltatzen esnea)

"Eratzi asikeran, nik, e, porruue, ta letxugea ta ereiten doas, landaran, bedarra daona, a eratzi" - (Eratzi hasieran, nik, porrua, eta

letxuga eta ereiten ditut, landarean, belarra dagoena, hura eratzi)

erdibitu: erdibitu

erdu, erdusie: erdu, erduze; etortzeko agintera moduan erabiltzen dira

"Yeusi san eta, erdu ona! ta ser? Ba bata an intxunte ta bestea il" - (Jausi zen eta, erdu hona! eta zer? Ba bata han etzanda eta bestea hil)

erein: erein

"Ba ederto, solo bat ereiteko prepareta sanean, esate akien bueno oingo orduten asten gara, eta danak etorte sien" - (Ba ederto, solo bat ereiteko prestatzen zenean, esaten zitzaien beno hain ordutan hasten gara, eta denak etortzen ziren)

"Erein in bear sarri paleas" - (Eragin egin behar sarri makilarekin)

eretxi: iritzi

"Lodieri ori estako in bear, lodieri in bear dako, batu, eta kanpoan, danik onenak edo noberak eretxiten tzo onena dala, areri, asie kendu, eta gero, imini platertxu beten ta euskiten siketu in bear da, euski fuertean, ta ondo siketu, eta gero, batu te boltzatxu beten gordeu" - (Lodiari hori ez zaio egin behar, lodiari egin behar zaio, batu, eta kanpoan, denik onenak edo norberak irizten dio onena dela, hari, hazia kendu, eta gero, ipini platertxu baten eta eguzkitan sikatu egin behar da, eguzki indartsuan, eta ondo sikatu, eta gero, batu eta poltsatxo baten gorde)

erne: erne

"Guk, e, gastañak, ta aretxak eta arbolak ta basoan ote soasen beres erneta edo" - (Guk, gaztainak, eta haritzak eta arbolak eta basoan egoten zituaren berez erneta edo)

"Bai kotxoa da, kotxoa, bai txikiten yaten deu, ernetan danean, asten danean, e, au alture ingeruen, orduen iten tzo yaten artoa" - (Bai kotxoa da, kotxoa, bai txikitan jaten du, ernetzen denean, hasten denean, altuera hau inguruan, orduan egiten dio jaten artoa)

ernegeu: ernegatu

"Orregas esi litike yoan iñora be se beti dau ba, ernegetan leku dustitan" - (Horrekin ezin liteke joan inora ere ze beti dago ba, ernegatzen leku guztietan)

"Ernegetan egon da se ekarri beixeteun gurdie ta" - (Ernegatzen egon da ze ekarri behar izaten zuen gurdia eta)

"Yan yan esteu iten ak, e? Oruge orren berdean ta modules, yan esteu iten, inurriek, baye ibili te ibili te, ba ernegason iten tzie, ernegaso" - (Jan jan ez du egiten hark, e? Erugea horren berdearen eta modulez, jan ez du egiten, inurriak, baina ibili eta ibili eta, ba ernegarazi egiten diete, ernegarazi)

eroan: eroan

"Gero saman iminte otzien pañelutxu suritxu bet, ba amen estakin lotu defetorik, artes eroan dein burue" - (Gero saman ipintzen zioten zapitxo zuritxo bat, ba hamen ez dakion lotu akatsik, artez eroan dezan burua)

erosi: erosi

"Es berak in es, erosi ite situsen" - (Ez berak egin ez, erosi egiten zituen)

erre: 1. erre. 2. karta jokoan jo den karta baino handiagoa botatzea

"Odola danak urte otzo ta gero erre" - (Odola denak irten dio eta gero erre)

errebaseru: gainez egin

erregaleu: erregalatu, opaldu

"Barrike bat neuk erregale nontzien" - (Barrika bat neuk erregalatu nien)

erregeu: ureztatu, ura egin

"Illundean in bea dosu erregeu" - (Ilundean egin behar duzu ureztatu)

errekisteu: errekistatu

"Nik estot errekisteu inos" - (Nik ez dut errekistatu inoiz)

errementeu: lehertu

"Erremente i osten segun antza, eta, eskusadurantz noala bota neun dustie, a gatxa dustie" - (Lehertu egin zidan segun antza, eta, komunerantz noala bota nuen guztia, gaitz hura guztia)

errepereu: erreparatu

errepertidu: banatu, banandu

"Treanean eroate situsen, bagoyan, eta arek Mariak imite seun trapu bet edo seuser, klaro bendejak yoate siren bagoyan, esta? Estisela mantxeu, eta gero imite seuri en Bilbon ba, Plasa de Unanmuno bakixu sein dan? Angoan denda bat egon san, eta an itxite situsen, eta gero andik errepertidu" - (Treanean eroaten zituen, bagoian, eta hark Mariak ipintzen zuen trapu bat edo zer edo

zer, jakina bendejak joaten ziren bagoian, ezta? Ez daitezela lohitu, eta gero ipintzen zuten han Bilbon ba, Unamuno Plaza badakizu zein den? Hangoan denda bat egon zen, eta han uzten zituen, eta gero handik banatu)

errepaseu: errepasatu

erreseu: otoitz egin, erregutu

"Ta oira yoateko bueno! Ori erreseu barik esan oira yoaten" - (Eta ohera joateko beno! Hori errezatu barik ez zen ohera joaten)

"Guk erreseu iten geuntzen" - (Guk errezatu egiten genion)

errespetatu, errespeteu, errespetau: errespetatu

"Errespetatu bear dakiela bai baye segaitik estakit" - (Errespetatu behar zaiela bai baina zergatik ez dakit)

erresulteu: erresultatu

erretalletu: erretailatu

erretireu: erretiratu

"Aren keas, erretiretan dire apur bet, auren seretik, bastarreraño, se kea esteu gure erleak" - (Haren kearekin, erretiratzan dira apur bat, euren zeretik, bazterreraino, ze kea ez du gura erleak)

"Iru lau klase ibiltan dues baye, ibilte ixen die, baye oin erretire die are pe ta" - (Hiru lau mota erabiltzen ditugu baina, erabiltzen izan dira, baina orain kendu dira haiek ere eta)

erriseu: kizkurtu

esan: esan

"Orixe estozut ondo esango" - (Horixe ez dizut ondo esango)

esarri: ezarri, oiloa habian txitak ateratzeko jesartzen denean esaten da

esejidu: exijitu

esetu: ezagutu

"Eta olau, e, laguntasunek asko esetu dus" - (Eta holako, laguntasunak asko ezagutu ditugu)

"Estakit baye esetu dot neuk" - (Ez dakit baina ezagutu dut neuk)

"Bai berotasune imini baye guateagas ta olan, baye ortariko bedarrik estoas esetu" - (Bai berotasuna ipini baina guatearekin eta hola, baina horietariko belarrik ez ditut ezagutu)

esistidu: existitu

"Baspiek, oin orrek esistidu be estie iten da, orrek lenauko geuse tie" - (Bartzak, orain horiek existitu ere ez dira egiten eta, horiek lehenagoko gauzak dira)

"Oin estau oin, orrek bedarrok eta orrek esteurie esistidu iten" - (Orain ez dago orain, horiek belarrok eta horiek ez dute existitu egiten)

eskapeu: ihes egin

"Beti euki dus abiek etzean, oin estekus, oin eskape doskue" - (Beti eduki ditugu habiak etxean, orain ez dauzkagu, orain eskapatu digute)

"Orrek, e, badenak kaminoak badekos, an lotzean da ure, baye badenik espadeko urek eskape iten deu, yoan doa ure" - (Horiek, badenak kaminoak badauzka, han lotzen da ura, baina badenik ez badauka urak eskapatu egiten du, joan doa ura)

"Sure nebarreba dustiek egun bien edo iruen emeti eskapeu eseuren in" - (Zure nebarreba guztiak egun bian edo hiruan hemendik eskapatu ez zuten egin)

eskastu: eskastu

"Asko, asko eskastu die" - (Asko, asko eskastu dira)

eskatu: eskatu

"Ba orixe indisinoa emoten tzie sertuteko, eskatako" - (Ba horixe injekzioa ematen diote zertzeko, eskatzeko)

"Bost balio badeu amabost eskatan geuntzesan" - (Bost balio badu hamabost eskatzen genizkion)

eskei: eskegi

"Fajan eskeite iminte akon" - (Paxan eskegita ipintzen zitzaion)

eskondu: ezkondu

"Esteban eskondute egon san ortik" - (Esteban ezkondu egon zen hortik)

"Arik eta eskondurartean, bueno urte asko bes, senbet sei saspurte ingeru, da ama il te gero arik eta eskondurartean" - (Harik eta ezkondu artean, beno urte asko ere ez, zenbat sei zazpi urte inguru, eta ama hil eta gero harik eta ezkondu artean)

"Firmetako, ba selan eskonduraren saren edo sera, aitebitxi amabitxi" - (Sinatzeko, ba zelan ezkondu zaren edo zera, aitebitxi amabitxi)

eskribidu: idatzi

esplikeu: azaldu

estaldu: estali, ezkutatu

estreiñeu: estreinatu

"Txikerrak inos eseuen estreñetan erroparik" - (Txikerrak inoiz ez zuen estreinatzen arroparik)

estropeseu: estropezu egin

estudieu: estudiatu

"Ori estudieta esta in bear, pratike in bea da" - (Hori estudiantuta ez da egin behar, praktikatu egin behar da)

estutu: estutu

etorri: etorri

"Lelengo Mantulisen, nik esetu doas, Mantuliser a etorrite sien" - (Lehenengo Mantulizen, nik ezagutu ditut, Mantulizera etortzen ziren)

"Urteokas asi die ona etorten, oin urteokas" - (Urteokin hasi dira etortzen, orain urteokin)

"Bai ba! Neu etor nintzen, neu alan etor nintzen" - (Bai ba! Neu etorri nintzen, neu hala etorri nintzen)

etxeu, etxa: bota

"Bai berotu ite san, eta gero, nik estakit ser etxaten dotzen! Ara bera! An eutze eukite seun an bean, nik estait ser" - (Bai berotu egiten zen, eta gero, nik ez dakit zer botatzen zion! Hara behera! Han hautsa edukitzen zuen han behean, nik ez dakit zer)

euki, eukin, oki: eduki

"Emen egon da bat, afesino andie euki deuna Samudion" - (Hemen egon da bat, zaletasun handia eduki duena Zamudion)

eumenteu: gehitu, ugaldtu

"Eumentesker o dana ok txarra" - (Gehituz gero dena duk txarra)

eusi: hautsi

"Eusi orrek nekes, se orrek txikerra tire andiek estire" - (Hautsi horiek nekez, ze horiek txikerrak dira handiak ez dira)

eutzi: eutsi

falteu: faltatu

fameu: famatu

"Ba txakoline egon san, oin sasoi onetan asite, eurrerantza, ba serean, se otubrean batzen sien, ta gero ba astesantuen fameute egon san ori Begoñe alde gustie, dana" - (Ba txakolina egon zen, orain sasoi honetan hasita, aurrerantz, ba zerean, ze urrian batzen ziren, eta gero ba aste santuan famatuta egon zen Begoña alde hori guztia, dena)

fasildu: erraztu

"Karea be bai botate yakon fasiltako, soloari"
- (Karea ere bai botatzen zitzaien errazteko, soloari)

"Itellekas ite san, geuse bi, lurre fasildu, eta bedarra galdu" - (Itailekin egiten zen, gauza bi, lurra erraztu, eta belarra galdu)

fastidieu: hondatu, izorratu

"Bai estakit nok esan osten ba fastidieta dabilela" - (Bai ez dakit nork esan zidan ba txarto dabilela)

"Bear gitxi inte dau, eta fastidieute dau" - (Behar gutxi eginda dago, eta hondatuta dago)

fermenteu: fermentatu, garraztu

"Usteldu edo sertu, fermente iten da eta aren ure, ba landarari etxaten, ori bai entzun dot" - (Usteldu edo zertu, garraztu egiten da eta haren ura, ba landareei botatzen, hori bai entzun dut)

fijeu: fijatu

findu: findu

"Eskuek in dakos findu" - (Eskuak egin zaizkio findu)

firneu: sinatu

"Eskolara, bost urtas Samudiora, sei urterarte, gero kaderea kaske neun, or olgetan ibilite, ta gero Deriora asi nitzen, bai ikisi esebes, justo justoan firneu, eta legidu, justoan! Besterik esebes" - (Eskolara, bost urterekin Zamudiora, sei urtera arte, gero hanka hautsi nuen, hor olgatzen ibilita, eta gero Deriora hasi nintzen, baina ikasi ezer ere ez, justu-justuan sinatu, eta irakurri, justuan! Besterik ezer ere ez)

formeu: egin, itxuratu

"Kotxoa formetan dakie" - (Kotxoa egiten zaie)

freneu: galgatu

freskatu: freskatu

"Denporean kanbioa igual, igual beroa! Ta igual apur bet gero kanbieu, ta denpora apur bet freskatu gero ein" - (Eguraldiaren aldaketa beharbada, beharbada beroa! Eta beharbada apur bat gero aldatu, eta eguraldia apur bat freskatu gero egin)

froteu: igurtzi

"Alkolaas frotetaurien, alkolaas ta algodoi apur beteas froteu, garbitu" - (Alkoholarekin igurzten zuten, alkoholarekin eta algodoi apur batekin igurtzi, garbitu)

fumeu: erre

"Aren trongoa fumeu in dot nik" - (Haren enborra erre egin dut nik)

fundidu: funditu, urtu

funtzioneu: funtzionatu

"Ak, e, arriri pe esteko, ta au dau, funtzionetan au dau" - (Hark, harririk ere ez dauka, eta gau dago, funtzionatzen hau dago)

galaso: galarazo, galazo, debekatu

"Bisenti baye il san atxine, Bisenti, errerue, a ei san atxine, beste bat, e, soñularie esaten gentzen guk, or, e, san tomas ondoan, baserrien, yayo san, orkoa san semea, baye galason i otzien, soñu jotzen, medikuek, proibidu tzien, afesinoa lar, afesino andie, ta, bularrak, e, esotzien erresponditan, da proibidu tzien" - (Bizente baina hil zen antzina, Bizente, errementaria, hura ei zen antzina, beste bat, soinularia esaten genion guk, hor, San Tomas ondoan, baserrian, jaió zen, horkoa zen semea, baina galarazo egin zioten, soinu jotzen, medikuek, galazo zioten, zaletasun lar, zaletasun handia, eta, bularrak, ez zion ematen, eta galazo zioten)

galdorostu: gardorostu

galdu: galdu

garandu: garandu, aletu

"Txagin artoak esteko asko, e? Oin be gurean garantako daus, badaus, an daus" - (Txagin artoak ez dauka asko, e? Orain ere gurean garantzeko daude, badaude, han daude)

"Orrek esien garantan, e, da gero urteurien, beste makine batzuk, olango, tanbor bat aginekas eta, an sartze san ori" - (Horiek ez ziren garantzen, eta gero irten zuten, beste makina batzuek, holako, danbor bat haginekin eta, han sartzen zen hori)

garatu: garatu

garbitu: 1. garbitu. 2. hil

"A garbitu, a gatxa kendu, a gatxa kendu iten tzie" - (Hura garbitu, gaitz hura kendu, gaitz hura kendu egiten diote)

"Garbitu barik, garbitu se ingo seuntzen ba, tximinie?" - (Garbitu barik, garbitu zer egingo zenion, ba, tximinia?)

"Garbitu, sementoagas inte dauena bai, baye ostan es utzitu, utzitu bakarrik" -

(Garbitu, porlanarekin eginda dagoena bai, baina ostean ez hustu, hustu bakarrik)

garrantzinotu: garrantziotu

garrastu: garrastu

gasteu: 1. gastatu. 2. higatu

"Aspitik dabil ure, ara, gasteu iten deu lurre, yan, ta gero suloa in" - (Aspitik dabil ura, hara, higatu egiten du lurra, jan, eta gero zuloa egin)

geitu: deitu

"Kanpoan dabisen ganaduek iten deutze geitu igual murruseka" - (Kanpoan dabilzan ganaduak egiten diote deitu beharbada murrusaka)

"Urgentzietako medikueri geitu bi otzet, olan ixin sintikes egon, etor san, sure gixon ori, ensegida, Mugiekoa san" - (Urgentzietako medikuari deitu behar diot, hola ezin zintezke egon, etorri zen, zure gizon hori, behingoan, Mungiakoa zen)

gixeu: gisatu

"Bai, iminte san, ba gixeute sati bet, areri okeleari sertue, ta gero bestea, ite sudien, e, ba señek giau agintan deuen" - (Bai, ipintzen zen, ba gisatuta zati bat, okela hari zertua, eta gero bestea, egiten zuten, ba zeinek gehiago agintzen duen)

gixondu: gizondu

goberneu: gobernatu

gogortu: gogortu

"Espabere, ba, iten da gogortu" - (Ezpabere, ba, egiten da gogortu)

gomiteu: gomitatu, errebesatu

goratu: goratu

"Ume asko ta ote san lekuen an ite seurien, au ixete les, goratu, te gero sabaldu" - (Ume asko eta egoten zen lekuan han egiten zuten, hau izatea legez, goratu, eta gero zabaldu)

gorde, gordeu: gorde

"Bueno abadeak edo elixakoak gordeten deude" - (Beno abadeak edo elizakoak gordetzen dute)

gorritu: gorritu

gosatu: gozatu

gometu: gometu

gusteu: gustatu

"Ogie gustetan dat" - (Ogia gustatzen zait)

"Ni, es, etzean guk es, gurean esakien gustetan, oin bai, oin iten da" - (Ni, ez, etxean guk ez, gurean ez zitzaizen gustatzen, orain bai, orain egiten da)

ibili, ebili: 1. ibili. 2. erabili

"Etzerik etze ibilte sien" - (Etzerik etxe ibiltzen ziren)

"Orrek ser dabilte or?" - (Horiek zer darabilte hor?)

iduli, iruli: irauli

"Gurdie, sarriten, basatos, atzetik bat kriedue ba ta nobera ganadueas egon eurretik ta, lekuek, e, iduliteko modukoak, ta iduli, ta idulten bada, ixin bada libreu, busterrien, e, sotza iten da, apurtu" - (Gurdia, sarritan, bazatoz, atzetik bat kriadua bat eta norbera ganaduearekin egon aurretik eta, lekuak, iraultzeko modukoak, eta irauli, eta iraultzen bada, ezin bada libratu, buztarran, zotza egiten da, apurtu)

igerri: igarri

"Aren be igeriten dako" - (arean ere igartzen zaio)

igertu: 1. igertu. 2. ihartu

"Artoa igertu espabe ba garies, ba etzean urune eukiteules, ba etzerako ogie aite defuntuek beti ite seuen" - (Artoa igertu ezpabere ba gariarekin, ba etxean irina edukitzen zuen lez, ba etzerako ogia aita defuntuak beti egiten zuen)

igo, io: eho

"Abune da, artoa ondo igota da, iota dauna" - (Aguna da, artoa ondo ehota da, ehota dagoena)

"Lenau, e, labrantzan, e, labati artoa ta artoa, gure danak, kosetxa arto ixen san, eta gero labasuek ein, eta artoa ondo iminde dauela aparte iminte otzien arto iotan, iminteuren" - (Lehenago, labrantzan, labetik artoa eta artoa, gure danak, uzta arto izan zen, eta gero labasuak egin, eta artoa ondo ipinita dagoela aparte ipintzen zioten arto ehotzen, ipintzen zuten)

igon: igon, igo

"Orrek etzera igon deu" - (Horrek etzera igo du)

"Gora igoten deure" - (Gora igotzen dute)

"Ta beste bat egon soan, beste bide bat, aren istorie apur bet bayakitek nik, Lesamatik San Antoniora igoteko" - (Eta beste bat egon zuan, beste bide bat, haren istorioa apur bat bazakiat nik, Lezamatik San Antoniora igotzeko)

igurtzi, igusi, igutzi: igurtzi

"Bai ganadue itxi bea da, ganadue ondo tratetan baosu, igurtzi in bear dosu" - (Bai ganadua utzi behar da, ganadua ondo tratatzen baduzu, igurtzi egin behar duzu)

ikeratu: ikaratu

ikesi, ikisi: ikasi

"Amalau urterako itxi neutzen eskoleari esebe ikis barik" - (Hamalau urterako utzi nion eskolari ezer ere ikasi barik)

ikusi, ekusi, ukusi: ikusi

"Bueno ori orretarikoa be ikus dot, batekoa be ikus dot, bikoa be bai baye batekoa be ikus dot, batekoa ikusi eukin in du guk etzean, atxine baye gastetan" - (beno hori horietarikoa ere ikusi dut, batekoa ere ikusi dut, bikoa ere bai baina batekoa ere ikusi dut, batekoa ikusi eduki egin dugu guk etxean, antzina baina gaztetan)

"Entzun dot eta ekusi be in dot dirue batzen" - (Entzun dut eta ikusi ere egin dut dirua batzen)

ikutu, ukutu: ikutu

"Ikutu inte bakarrik dabilela" - (Ikutu eginda bakarrik dabilela)

"Ba, selan esan dot ba elex, ui! akordu barik ikutu dotzut oneri" - (Bai, zelan esan dut ba eliz, ui! konturatu barik ikutu dizut honi)

il: hil

"Neuk ikusi dot bat ilten" - (Neuk ikusi dut bat hiltzen)

"Eta bi il akusen urte baten bi il akusen" - (Eta bi hil zitzaizkigun urte baten bi hil zitzaizkigun)

ilundu: ilundu

"Argie bistu ixu Bego se emen ilundu in deu" - (Argia biztu ezazu Bego ze hemen ilundu egin du)

imini, imiñi: ipini

"Ori eskeite iminten da siketako" - (Hori eskegita ipintzen da sikatzeko)

"Eta imini ingo tzien batan batzuk edateko esnea, nik neuk etzean estot esetu, entzun in dot baye esetu estot in, entzun in dot baye esetu es" - (Eta ipini egingo zioten baten batzuek edateko esnea, nik neuk etxean ez dut ezagutu, entzun egin dut baina ezagutu ez dut egin, entzun egin dut baina ezagutu ez)

"Bai, ara yoan diton, lelau oin, oin olaorik imini esta iten" - (Bai, hara joan dadin,

lehenago orain, orain holakorik ipini ez da egiten)

inkeu: inkatu, landareak inkatu egiten dira

"Sagarra be inos, eukin du olan eta gero, inkeu olan bastarrean, ta mendeu, mendeu esaten tzu guk" - (Sagarra ere inoiz, eduki dugu hola eta gero, inkatu hola bazterrean, eta mendatu, mendatu esaten diogu guk)

intxun: etzan

inusetetu: inuzentetu

irebasi: irabazi

"Arrie botate san sulora, ta sulora asertetan basan ba ordun egoan, e, irebasite" - (Harria botatzen zen zulora, eta zulora aparatzen bazen ba orduan zegoen, irabazita)

"Orduen ite san irebasten bosu auneko larogei kobreu" - (Orduan egiten zen irabazten baduzu ehuneko laurogeia kobratu)

irekatzi: irakatsi

"Bakotxak etzean edo, al dan moduen, orrek joteuen soñue, eta, orrek, e, irekatzixu, ba, soñue jotzen, eta segas irekatziko tzu pa? Labako tapeas?" - (Bakoitzak etxean edo, ahal den moduan, horrek jotzen zuen soñua, eta, horrek, irakatsi iezadazu, ba, soñua jotzen, eta zerekin irakatsiko dizut ba? Labeko taparekin?)

irikin: irakin

"Esneak irikin in deu" - (Esneak irakin egin du)

"Arrasti dustien eukiten deurie irikiten" - (Arrasti guztian edukitzen dute irakiten)

"Irikiten pare nitzen, e!" - (Irakiten paratu nintzen, e!)

iruntzi: irentsi

isildu, ixeldu: isildu

"Kanteu ixeldu barik ite san" - (Kantatu isildu barik egiten zen)

istutu: estutu

"Bai kateas amarreu edo surrunas, egurre imin dosu emen, gurdien, ta gero sartu osu an espatan sera, ba surruna, ta gero amarreu emen atzean, istutu iteko, yausi estitesan" - (Bai katearekin amarratu edi zurrunarekin, egurra ipini duzu hemen, gurdian, eta gero sartu duzu han ezpatan zera, ba zurruna, eta gero amarratu hemen atzean, estutu egiteko, jausi ez daitezzen)

italletu: itailatu

"*Lelengo ba italletu, esate yakon, italletu ba bedarragaitik apur bet siketako*" -
(*Lehenengo ba itailatu, esaten zitzaion, itailatu ba belarragaitik apur bat sikatzeko*)

ito: ito

itxedon, itxeron: itxaron

"*Kallean itxeron dotzut*" - (*Kalean itxaron dizut*)

itxi: utzi

"*Bueno oin be ibiltzen da? Es ya itxite egongo da*" - (*Beno orain ere ibiltzen da? Ez ja utzita egongo da*)

"*Itxi in dostie eurrerantza yoaten*" - (*Utzi didate aurrerantz joaten*)

itxun: etzan

ixartu: itxartu

ixen, ixin: 1. izan. 2. izan, joan

ixenteu: izendatu

"*En jeneral bat ixenteta egune*" - (*Gehienetan bat izendatuta eguna*)

ixerditu: izerditu

ixetu: piztu

ixi: itxi

"*Ta ixite siren batzuk, ganean lisu, ta kajoyakas*" - (*Eta izaten ziren batzuk, ganean liso, eta tiraderekin*)

"*Etor san, e, semeas, ta, alabean, e, amak esaotzen, e, ser dekon berak, ta begiek ixite, ikusten dotena dustie, begiek ixite pareute, dana, ikusten dotena dustie*" - (*Etorri zen, semearakin, eta, alabaren, amak esan zion, zer daukan berak, eta begiak itxita, ikusten dudana guztia, begiak itxita paratuta, dena, ikusten dudana guztia*)

jaboneu: xaboitu

"*Jaboneu ite san, geuk jaboneu iten gendun asko, ta trapu sikuegas emon be bai, batzuk sidola be emoten dotzien arean brillue atateko*" - (*Xaboitu egiten zen, geuk xaboitu egiten genuen asko, eta trapu sikuarekin eman ere bai, batzuek sidola ere ematen zioten arean dirdira ateratzeko*)

jo, yo: 1. jo. 2. satorrak jo

"*Ayek egoten sirenean, satorrak an eseuen yoten*" - (*Haiek egoten zirenean, satorrak han ez zuen jotzen*)

"*Bertan sulo bateri, garbitute egon begire, eta beste leku beten jo, bai urrin, e? Yoan karraka, ta koyu neun*" - (*Bertan zulo bati, garbituta egon begira, eta beste leku baten*

jo, baina urrun, e? Joan karraka, eta harrapatu nuen)

jodidu: joditu, izorratu

"*Oin jodite nau*" - (*Orain jodituta nago*)

jubileu: jubilatuz

junteu: elkartu

"*Or junteta sien, batera bi yoate siren bearrean ta*" - (*Hor elkartzen ziren, batera bi joaten ziren beharrean eta*)

kabidu: sartu, eden

kakotu: kakotu, aitzurtu

"*Ganaduekas in bearrean, noberak kakotu iten deunean arlo bat, da bedartzu badau, ara esin sartu lei eselango makinerik, ta ite san eratzi atxurras*" - (*Ganaduekin egin beharrean, norberak kakotu egiten duenean arlo bat, eta belartsu badago, hara ezin sartu liteke ezelako makinarik, eta egiten zen eratsi aitzurrarekin*)

kalkuleu: kalkulatu

kaltzeu: kaltzatu

"*Bai baten baño giaotan, bateri kaltzeu, ba adarren, e, busterrieri, edo kendu, edo narru bet, narru sati betegas edo altzeu apur bet busterrie ite akien bai*" - (*Bai baten baino gehiagotan, bati kaltzatu, ba adarrean, buztarriari, edo kendu, edo narru bat, narru zati batekin edo altxatu apur bat buztarria egiten zitzaien bai*)

kanbieu: aldatu

"*Geubian igual denporea kanbie in deu ta orduen leye sertu in deu*" - (*Gauean beharbada eguraldia aldatu egin du eta orduan leia zertu egin du*)

"*Gure jenerasiñorako, ya ori apur bet kanbieta dau, sano on da kanbieute*" - (*Gure belaunaldirako, ja hori apur bat aldatuta dago, sano egon da aldatuta*)

"*Es, oin diferente be iten deurie kanteu, arean arean, asko estotzie kanbieu baye in tzie arean diferentzia*" - (*Ez, orain desberdin ere egiten dute kantatu, arean-arean, asko ez diote aldatu baina egin diote arean desberdintasuna*)

kanteu: kantatu

"*Oin estakie kantetan umeari*" - (*Orain ez zaie kantatzen umeei*)

"*Batzuk kantetaurien, beste batzuk eseurien kantetan*" - (*Batzuek kantatzen zuten, beste batzuek ez zuten kantatzen*)

"*Arrak esteurie kantetan*" - (*Arrak ez dute kantatzen*)

"Orduen eite san kanteu, oin esta kantetan baye geu pe iten du, nik beti urte gustietan eiten dot, baye esta kantetan" - (Orduan egiten zen kantatu, orain ez da kantatzen baina geuk ere egiten dugu, nik beti urte gustietan egiten dut, baina ez da kantatzen)

kantzeu, kantzau: nekatu

"Lobeas etortearren ya kantzeu autobusek eta, batetik bestera olan ibili estearren ta, lobeas etortearren plasan lotu nintzen, etorri atesan semea Algortakoa eta Amorebietakoa, gasteana, etorri atesan ara andrakas" - (Lobarekin etortzearen ja nekatu autobusak eta, batetik bestera hola ibil eztearren eta, lobarekin etortzearen plazan lotu nintzen, etorri zitzazkidan semea Algortakoa eta Amorebietakoa, gazteena, etorri zitzazkidan hara andreekin)

kapeu: 1. irendu. 2. arbolak kapatu

"Txarrie kapetan ite san, ebei ite otzien, ta barruen dekona sera, estea atara, ite otzien areri" - (Txerria irentzen egiten zen, ebaki egiten zioten, eta barruan daukana zera, hestea atera, egiten zioten hari)

"Orrek kapeu ite itues" - (Horiek irendu egiten dituzte)

karatu: karatu

kargeu: kargatu

kaskeu: hautsi

kastigeu: zigortu

katiatu: kateatu

kejeu: kexatu

"Iños enas kejeu esetatik, esta?" - (Inoiz ez naiz kexatu ezertatik, ezta?)

kendu, kandu: kendu

"A garbitu, a gatxa kendu, a gatxa kendu iten tzie" - (Hura garbitu, gaitz hura kendu, gaitz hura kendu egiten diote)

"Ta arik eta au emekoa, kendu artean estate kendu kalenturea" - (Eta harik eta hau hemengoa, kendu arte ez zait kendu kalentura)

"Aor in dates usteldu, se nik ganadue kandu i neunean, sobra eukite neun" - (Haor egin zaizkit usteldu, ze nik ganadua kendu egin nuenean, sobra edukitzen nuen)

kimetu: kimatu

kineu, kiñeu: kinatu

"Paluas kine in txiat, uretan egon soan ta bastante andie" - (Paloarekin kinatu egin

zioat, uretan egon zuan eta nahikoa handia)

kiskeldu: kiskaldu

"Alde batetik ite sien lar kiskeldu, da bestetik in barik lotu" - (Alde batetik egiten ziren lar kiskaldu, eta bestetik egin barik lotu)

kobreu: kobratu

"Letxugek eta kobreu gendusena" - (Letxugak eta kobratu genituen)

"Bearra, geuk selan kobreko gendun ba? Geuk eiten gendun te" - (Beharra, geuk zelan kobrako genuen ba? Geuk egiten genuen ba?)

kolokeu: ezarri

"Semea on san, e, karrerea akabeute, eta kolokeu barik on san" - (Semea egon zen, karrera amaituta, eta kolokatu barik egon zen)

komenidu, komonidu: komeni izan

komenteu: komentatu

komulgeu: komulgatu

konfeseu: autortu

"Orrek aite Patxik konfeseu i euen il baño lenau" - (Horrek aita Patxik aitortu egin zuen hil baino lehenago)

konpondu: konpondu

konponidu: konpondu

kontestau, kontestau: erantzun

konteu: kontatu

"Ta arto denporan batek eraite gun artoa, eta besteak indabea, indabak bost, artoak iru bakarrik, e? Eta konte dosus? Emen senbet bota dosus?" - (Eta arto denboran batek ereiten zuen artoa, eta besteak indaba, indabak bost, artoak hiru bakarrik, e? Eta kontatu dituzu? Hemen zenbat bota dituzu?)

"Nik konteu doas, otamar, baten, beste baten, berrogetamar" - (Nik kontatu ditut, hogeita hamar, baten, beste baten, berrogeita hamar)

kontrateu: kontratatu

kontroleu: kontrolatu

konturetu: konturatu

kontzerbeu: kontserbatu

"Oloa arrotzen ganean pareute, es olan makinea ta arrotzen ganean pareute ta arrotzek berotan kontzerbeu" - (Oloa arrautzen ganean paratuta, ez hola makina eta arrautzen ganean paratuta eta arrautzak berotzen kontserbatu)

korridu: korritu

"Gero ba ganadue, beyen kateak korridu deyen" - (Gero ba ganadua, behiaren kateak korri dezan)

kosteu: kostatu

"Eta or selan dauen ori, e, orrek bloketxuek, or etzean ingeruen? Ori sertu, koste akun" - (Eta hor zelan dagoen hori, bloketxo horiek, hor etxearen inguruan? Hori zertu, kostatu zitzaigun)

kostunbreu: usatu, ekandu

koyu, koixu, koxu: koiu, hartu, harrapatu

"Ta ikusi dot sarri, e? Sarri ikusi, ta txakurrek koyu bai, arratoi txakurrek" - (Eta ikusi dut sarri, e? Sarri ikusi, eta txakurrek koiu bai, arratoi txakurrek)

"Yausi estiten koxu ori umeori" - (Jausi ez dadin koiu ume hori)

"Banoa, ontxe koikoas danak!" - (Banoa, oraintxe koiuko ditut denak!)

"Ederto koyu iten deurie" - (Ederto koiu egiten dute)

kruseu: gurutzatu

kunplidu: bete

kureu: 1. narrua ondu. 2. osatu

kurtzieu: gurutzatu

"Troka bat, munea, munek, e, alboan, ta an eskinen olan, bean asi, eta gorarte, ta goyen age bat, boleak eskapeu estin eurrera, ta, andik, e, andik kurtzieute euki bea ixete sien eskinek" - (Troka bat, muna, munak, alboan, eta han izkinan hola, behean hasi, eta goraino, eta goien habe bat, bolak eskapa ez dezan aurrera, eta, handik, handik gurutzatuta eduki behar izaten ziren izkinak)

kutxillotu: kutxilatu

"Yoskileak olan ibilte siren, petatxoak iminten, frakari, kutxillotu esate akiena" - (Joskileak hola ibiltzen ziren, txatalak ipintzen, prakei, kutxilatu esaten zitzaiena)

labreu: laiatu, landu

"Labreu be bata besteas iten die obeto" - (Laiatu ere bata bestearekin egiten dira hobeto)

laburtu: laburtu

"Edosein geusaiti pai, ori porejenplo gaixorik basaus be, ordu on bat, e, laburtuteko dekule edo ixin ditela" - (Edozein gauzogatik bai, hori esaterako gaixorik bazaude ere, ordu on bat, laburtzeko daukagula edo izan dadila)

"Sano laburtu da, orreri, esin da imini megide megiden arik eta garbitu artean" - (Sano laburtu da, horri, ezin da ipini neurri neurrian harik eta garbitu artean)

lagundu: lagundu

"Lagundu in tzut ori akabetan" - (Lagundu egin dizut hori amaitzen)

"Kuadrillea batute, ausoak, iru lau auso edo, etorri te, danan artean soloa sulotu, tapeu, ta gero bestera, bata besteari laguntan" - (Taldea batuta, auzoak, hiru lau auzo edo, etorri eta, denen artean soroa zulatu, tapatu, eta gero bestera, bata besteari laguntzen)

"Denporak lagundu bea deu" - (Eguraldiak lagundu behar du)

lañotu: lainotu

larritu: larritu

"Ba olan ergeldune edo junteskon, lagune etorriskon ba, berba in baño in es gurau aregas, larritu edo" - (Ba hola erdalduna edo elkartuz gero, laguna etorritz gero ba, berba egin baino egin ez gurago harekin, larritu edo)

lasatu: laxatu, nasaitu

"Gero seoser lasatuten bada, lasatuten bada seoser sartu, baye lasatuten espada esebe" - (Gero zer edo zer laxatzen bada, laxatzen bada zer edo zer sartu, baina laxatzen ez bada ezer ere ez)

laskitu: lardaskatu, laskitu

"Berdure dustie laskitu deu" - (Berdura guztia laskitu du)

layetu: laiatu

"Artoa teko bear andie eraiteko, artoa in bear da, ba lelau lurre ondo imini, ondo imini, layetu" - (Artoak dauka behar handia ereiteko, artoa egin behar da, ba lehenago ondo ipini, ondo ipini, laiatu)

legidu: irakurri

"Ori beluko mesan etxate seun abadeak, an legita seun" - (Hori beluko mezan botatzen zuen abadeak, han irakurtzen zuen)

libereu: liberatu

libreu: 1. libratu. 2. umea egin

"Andrea libretan da, klaro!" - (Andrea libratzen da, jakina!)

lisutu: lisatu

"Orduen ite akon, seragas, belekias, lisutu apur bet" - (Orduan egiten zitzaion, belakiarekin, lisatu apur bat)

"Lisutu iteaitik narra paseu, ostantxean bapes, a lisutu iteaitik" - (Lisatu egiteagatik narra pasatu, osterantzean bat ere ez, hura lisatu egiteagatik)

loditu: loditu

"Au yaten dot loditu estearrik" - (Hau jaten dut ez loditzeagatik)

"Txarri beten moduen yan, eta esin loditu, siketute lotu nitzen" - (Txerri baten moduan jan, eta ezin loditu, sikatuta lotu nintzen)

loguretu: loguratu

loitu: lohitu

"Batzuk ondo loitu baño lelau garbitu iten yeurek, da beste batzuk loitute be, etxeurek garbitan" - (Batzuek ondo lohitu baino lehenago garbitu egiten ditek, eta beste batzuek lohituda ere, ez ditek garbitzen)

lokatu: lokatu

"Areri nok kontetan yotxiesan areri olloari, eta lokatute etorri" - (Hari nork kontatzen zizkioan oilo hari, eta lokatuta etorri)

"Ollarra bear deure, e? Ollarra bear isteuren beti kuadrillen, eta gero olloa be ite san lokatu" - (Ollarra behar dute, e? Ollarra behar izaten zuten beti taldean, eta gero oiloa ere egiten zen lokatu)

"Lokatukeran pareta san ganean" - (Lokatukeran paratzen zen ganean)

lotu: gelditu, lotu

"Ostean bertan lotzean dire" - (Ostean bertan lotzen dira)

"Iturrien ondoan, an San Anton ondoan lotute san" - (Iturriaren ondoan, han San Anton ondoan lotzen zen)

lotzatu: lotsatu

lumetxatu: lumetxatu

lumetu: lumatu

lusetu: luzatu

maistu: hondatu

"Erropea bere, ori ondo maistute dabil" - (Arropa ere, hori ondo hondatuta dabil)

makaldu: makaldu, gaixotu

"Estait inpresio beragas edo ser, makaldu san" - (Ez dakit inpresio berarekin edo zer, makaldu zen)

makinetu: makinatu, goldatu

"Eta aurten bota dotzesu satza gortakoa, ta satza in dosu tapeu, makinetu, ta urrungo urtean igual, segun selango lurre dan, urrungo urtean igual ondo yan bari tau, a satza" - (Eta aurten bota diozu satsa

kortakoa, eta satsa egin duzu tapatu, makinatu, eta hurrengo urtean beharbada, segun zelako lurra den, hurrengo urtean beharbada ondo jan barik dago, sats hura)

"Makinetu baño lelau or egote san bear asko" - (Makinatu baino lehenago hor egoten zen bear asko)

makurtu: makurtu

malletu: mailatu

mamurtu: mamurtu

manejeu: maneiatu

"A mistoas oin be manejetan da" - (Hura mistoarekin orain ere maneiatzan da)

"Baye esan egoten, bat edo egote sien orrek, e, ori manejetan, e? Giaurik es, bat edo bi, jasbana esate otzien" - (Baina ez zen egoten, bat edo egoten ziren horiek, hori maneiatzan, e? Gehiagorik ez, bat edo bi, jazbana esaten zioten)

"Or bat on san, e, danera manejetan sana, ta a manejeta san" - (Hor bat egon zen, denera maneiatzan zena, eta hura maneiatzan zen)

mankeu: mankatu, mindu

mantenidu: mantendu

"Orrek mantenidu neurie etzean" - (Horiek mantendu naute etxean)

manteu: mantatu

"A! ori bai batzuri, ardauas ta gero manteu be bai, ta ardaua edaten be bai" - (A! hori bai batzuei, ardauarekin eta gero mantatu ere bai, eta ardaua edaten be bai)

mantxeu: lohitu

marieu: zorabiatu

"Neu pe ite otziet eta, au or dekot marieute" - (Neuk ere egiten diet eta, hau hor daukat zorabiatuta)

markeu: markatu

"Arek, e, eskus markeu olan, e, erre, eta, aren, e, baltzitasunas imini kordela ta tra! Marketa gero andik" - (Haiek, eskuz markatu hola, erre, eta, haren, belztasunarekin ipini kordela eta tra! Markatuta gero handik)

martxeu: alde egin

"Arbolapetik ensegida martxetan gendun, e?" - (Arbolapetik behingoan alde egiten genuen, e?)

"Talletutik martxetauen" - (Teilatutik alde egiten zuen)

"Martxe in dot espabere emoten dostie" - (Alde egin dut ezpabere ematen didate)

meastu, miastu: mehaztu

"Meastu be, nik oin estot eiten, esta? Baye meastu be ite san, iru artotik gora oten basien suloan" - (Mehaztu ere, nik orain ez dut egiten, ezta? Baina mehaztu ere egiten zen, hiru artotik gora egoten baziren zuloan)

megidu, meidu: neurtu

"Arekas megita seitusen" - (Haiekin neurtzen zituen)

mekaniseu: mekanizatu

mendeu: mendatu

"Sasi susterrak mendeta, orrek, lorak, e, jardinetan ta oten dienak" - (Sasi zuztarrak mendatuta, horiek, loreak, lorategietan eta egoten direnak)

meresidu: merezi izan

metatu: metatu

"Ori bedar sikue metatute eurienean, fraduen, fraduetan metatu, metak ite sien fraduetan bedar sikuas, ta areri bai, egurre sartu, ta aren bueltan, aren bueltan, ta gero ganean, e, baldi barri bet, sarrik esi lei imini te" - (Belar siku hori metatzen zutenean, belar-lekuan, belar-lekuetan metatu, metak egiten ziren belar-lekuetan belar sikuarekin, eta haiei bai, egurra sartu, eta haren bueltan, haren bueltan, eta gero ganean, balde berri bat, zaharrik ezin liteke ipini eta)

metu: mehetu

"Ori in bea da apur bet metu, metu, lodi itxi barik" - (Hori egin behar da apur bat mehetu, mehetu, lodi utzi barik)

miketu: mikatu

mogidu, mugidu: mugitu

"Gurean, e, igual frute sati beteas mogidu aputxu bet, e, uyek" - (Gurean, beharbada fruta zati batekin mugitu apurtxo bat, oiak)

"Orrek esteko kanbiorik, ori inok esteu mogitan" - (Horrek ez dauka aldaketarik, hori inork ez du mugitzen)

molesteu: molestatu

"Enoa iñor molestetan" - (Ez noa inor molestetzen)

moskortu: mozkortu

motxotu: motxotu

"Motxotu, motxotuskero ba, gitxiau sartze ako ba" - (Motxotu, motxotuz gero ba, gutxiago sartzen zaio ba)

mudeu: mudatu, kolorgetu

muskildu: muskildu

"Muskildu da, ba len esan dotzutena, se munarrie be badekosu, amen dekosu te, ba konforme dausen beste batzuk, sakonau be igual sartze otzue, kanbieute edo seran, muskildute ori da, se ori da kendu itea albokoari, muskildute itxiten deuen, se emeko serak sartzean badeu munarrie emen, a beste propiedadeari ya muskildute deko, a muskildu in deu, sarri satie kendu" - (Muskildu da, ba lehen esan dizudana, ze munarria ere badaukazu, hamen daukazu eta, ba konforme dauden beste batzuk, sakonago ere beharbada sartzen dizute, aldatuta edo zerean, muskilduta hori da, ze hori da kendu egitea albokoari, muskilduta uzten duena, ze hemengo zerak sartzen badu munarria hemen, hura beste propietateari ja muskilduta dauka, hura muskildu egin du, sarri zatia kendu)

nagitu: nagitu

"Nagitu in dako pausue, ori len ajil yoate san, baye oin esin da" - (Nagitu egin zaio urratsa, hori lehen bizkor joaten zen, baina orain ezin da)

nasteu: 1. nahastu. 2. nahastu, kutsatu. 3 karta jokoan nahastu

"Yaten, ba titie emoten otzien geyenak, eta orduen, e, beyen esnea, ureas nasteu, ta estekonak bularra, emoten dotzien ba, estakit senbet, megidute" - (Jaten, ba titia ematen zieten gehienek, eta orduan, behiaren esnean, urarekin nahastu, eta ez daukanak bularra, ematen zien ba, ez dakit zenbat, neurtuta)

nerbiosatu: artegatu, urduritu

"Ainbeste bedarranak eta geusekas bera alantxe bixi, eta gero lotu sanean, mutu, eta, alderri bi lotute, esta egon nok sarturik eselako bedarren urik, eseun gu ixetan esetara bes, eta trankilo eukiteko, basenki se iten nintzen, trankilo eukiteko ba, nerbiosatu bata bat etorri eskoan ta ite san, ta gero ta, ba sera ite nintzen, sera egosi, tila egosi, ta kafekoletxeas, egosi, nasteu, eta emon, trankilo-trankilo lotze san" - (Hainbeste belarrenak eta gauzekin bera halaxe bizi, eta gero lotu zenean, mutu, eta, alderdi bi lotuta, ez da egon nork sarturik ezelako belarren urik, ez zuen gura izaten ezertara ere ez, eta lasai edukitzeko, bazeneki zer egiten nion, lasai edukitzeko ba, artegatu baten bat etorritz

gero eta egiten zen, eta gero eta, ba zera egiten nion, zera egosi, tila egosi, eta kafe esnearekin, egosi, nahastu, eta eman, lasai-lasai lotzen zen)

neurto: neurto

"Bai aurreko kaderan atzetik, garrien neurtute akon ori" - (Bai aurreko hanken atzetik, gerrian neurtzen zitzaion hori)

normaldu: normaldu

"Orduen beroa ya apur bet normaltakon orduen opilek atara" - (Orduan beroa ja apur bat normaltzen zitzaion orduan opilak atera)

obetu: hobetu

obligeu: derrigortu

ofresidu: opetsi, agindu

okertu: 1 okertu. 2. okertu, gaiztotu

okupeu: okupatu

olgeu: olgatu

"Esan olgetan len asko, keba!" - (Ez zen olgatzten lehen asko, bai zera!)

"Estot ños olgeu, ikusi in doas, intxurren asala, neuk estot olgeu ños" - (Ez dut inoiz olgatu, ikusi egin ditut, intxaurren azala, neuk ez dut olgatu inoiz)

ondatu: 1. hondatu. 2. gutziz busti

"Oin, e, oten basan esnea edo olan, ba ondatu ite san esnea" - (Orain, egoten bazen esnea edo hola, ba hondatu egiten zen esnea)

"Soloa ondatu asias, imineun, koste dat akabetea, akabeu estot in, e? Oin be badaus, oin be urteten deurie" - (Soroa hondatu haziarekin, ipini nuen, kostatu zait amaitzea, amaitu ez dut egin, e? Orain ere badaude, orain ere irteten dute)

opereu: ebakuntza egin, operatu

"Geure ama, ni gaste nasela il san, eta ba opereu in bear seun" - (Geure ama, ni gazte naizela hil zen, eta ba operatu egin behar zuen)

oratu: oratu

"Eta orduen ba bietatik oratu te tiretu" - (Eta orduan ba bietatik oratu eta tiratu)

"Astoari, oratu bear ixeten tzen aginekas ta bera bajatuteko sarriten" - (Astoari, oratu behar izaten zion haginekin eta behera baxatzeko sarritan)

orbisteu: orbiztatu

"Or dau, ta gero, ure goberneu inesko, gero bistu, ta orbisteu ori da" - (Hor dago, eta gero, ura gobernatu eginez gero, gero biztu, eta orbiztatu hori da)

ordeneu: taxutu

organiseu: antolatu, eratu

orraztu: orraztu

"Orrastu diela eta segidu in seinkie" - (Orrastu dezala eta segitu egin zenezakete)

"Itxure txarra, estait selan estan orrastuten" - (Itxura txarra, ez dakit zelan ez den orrazten)

osatu: osatu, sendatu

"Etzean osatute sien geusek" - (Etzean osatzen ziren gauzak)

ostaldu: estaldu, ezkutatu, ostondu

"Ori kantetan dotzienean, danak ostaltan dires ta" - (Hori kantatzen dienean, denak estaltzen dira eta)

"Sorgine pe segun antza, ba ganadue ibiltan sales atzera t'urrera, basea oten san ure, eta ba, alan, baye oin, e, estekie non ostaldurik es esebes ta, sorginik estauela esaten deure oin, estakit" - (Sorginak ere segun antza, ba ganadua ibiltzen zen legez atzera eta aurrera, basa egoten zen ura, eta ba, hala, baina orain, ez daukate non ostaldurik ez ezer ere eta, sorginik ez dagoela esaten dute orain, ez dakit)

ostu: ostu

"Orrek mutilek, guk neskak es, mutilek, mutilek pai, eta gero non dauen esan es, eta batari txoriek ostu dotzies, abie tope otzie, eta koi dotzie, bai ori mutilena ixete san" - (Horiek mutilek, guk neskak ez, mutilek, mutilek bai, eta gero non dagoen esan ez, eta batari txoriak ostu dizkiote, habia topatu diote, eta koiu diote, bai hori mutilena izaten zen)

otzitu: hotzitu, hoztu

"Ori urtu te, gero, ba, otzitu danean ba" - (Hori urtu eta, gero, ba, hoztu denean ba)

"Erain, arik eta otzitu arte" - (Eragin, harik eta hoztu arte)

pageu, pagau: ordaindu

"Pageu ite san seoser, ser san pageta sana?" - (Ordaindu egiten zen zer edo zer, zer zen ordaintzen zena?)

"Beyenak eta danak pageta ostien ba, ganadue saneaute euki neulako" - (Beyenak eta denek ordaintzen zidaten ba, ganadua saneatuta eduki nuelako) [Beyena enpresa baten izen berezia da hemen]

"Jentea be, bakixu batzuk geitxuau artzeuren, ta ondo dausenak obetotxuau te, ba ixin deurenak pageu ixinte, igual martxeu

pageu barik eta, bueno! Danetarik, e? Danetarik" - (Jendea ere, badakizu batzuek gehitxoago hartzen zuten, eta ondo daudenak hobetxoago eta, ba ezin dutenak ordaindu ezinda, beharbada alde ordaindu barik eta, beno! Denetarik, e? Denetarik)

pareu: paratu, jarri

"Bakit pareta sana baye es" - (Badakit paratzen zena baina ez)

parkatu: barkatu

partidu: banatu

"Bakixu ser i euen? Nebarreban artean partidu" - (Badakizu zer egin zuen? Neba-arreben artean banatu)

paseu: pasatu

"Ba, ori nekes pasetan dakie" - (Ba, hori nekez pasatzen zaie)

"Eta emeti? Burdirik pes, burdias paste sien, ayuntamientue orduen" - (Eta hemendik? Gurdirik ere ez, gurdiarekin pasatzen ziren, udala orduan)

"Olako sabaleran, olan be bai, baye olan, e, makinillea esi lei paseu, baye sabaltxuau ein, makinillea pastako" - (Holako zabaleran, hola ere bai, baina hola, makinatxoa ezin liteke pasatu, baina zabaltxoago egin, makinatxoa pasatzeko)

pegeu: erantsi, atxiki

"Pegeute oten dire batzuk" - (Erantsita egoten dira batzuk)

"Orre pe noberari pegetan dakos fasil, e? Edosein lekuten" - (Horiek ere norberari eransten zaizkio erraz, e? Edozein lekutan)

peneu: penatu

pentzeu: 1. pentsatu. 2. iruditu, eman

"Pentzetan dot kuike esaten gendula" - (Pentsatzen dut kuika esaten genuela)

"Berton etxoat pentzatan" - (Berton ez diat pentsatzen)

permitidu: baimendu

pikeu: 1. haginika egitea, sugeek, mamarroek, eta abarrek. 2. xehatu, txikitu

"Subeak pikeute txarto" - (Sugeak pikatuta txarto)

"Ba segun! Batan batzuk, e, gosea badeko andie seuser piketan seudien, baye gitxik" - (Ba segun! Baten batzuek, gosea badauka handia zer edo zer pikatzen zuten, baina gutxik)

"Eulien batzuk piketan badotzie, edo orduen ite yakien bultu bet" - (Euliren batzuek

pikatzen badiote, edo orduan egiten zitzaien handitu bat)

pinteu: pintatu

"Pinte iten gendusen" - (Pintatu egiten genituen)

pintxeu: ziztatu

pisau: pisatu

plantxeu: plantxatu, lisatu

plegeu: tolestu

"Eta egoten da plegeu plegeu inte landarea" - (Eta egoten da toles-toles eginda landarea)

podeu, podau: inausi

"Podetan ibil sien an, eta an neuk pregunteu, seintzu tien, e, ba baltzak eta seintzu tien suriek" - (Inausten ibili ziren han, eta han neuk itaundu, zeintzuk diren, ba beltzak eta zeintzuk diren zuriak)

"Podau, sera, arbolan moduen, podau, eta gero, sulfatoa" - (Inausi, zera, arbolan moduan, inausi, eta gero, sulfatoa)

pratikeu: praktikatu

pregunteu: itaundu, galdetu

"Niana satos pregunte yakin te gero" - (Nigana zatoz galdezka jakin eta gero)

"Datorren urterako be pregunteistesu geur giau, pregunte istesu se nik datorren urtean be bardin bildukot, e, ba, neure andrea" - (Datoren urterako ere itaundu iezadazu gaur gehiago, itaundu iezadazu ze nik datorren urtean ere berdin bialduko dut, ba, neure andrea)

prepareu: prestatu

"Berak prepareta euen estait selan" - (Berak prestatzen zuen ez dakit zelan)

"Gero amarreu, oin, sera taus, prepareta daus, katxarroak eta, mimenagas" - (Gero amarratu, orain, zerak daude, prestatuta daude, katxarroak eta, mihimenarekin)

presenteu: aurkeztu

presteu: prestatu

"Ba unekada baten bertan, beskarie presteta yoskun maistreak, eroan indabak edo seuser ta, prestetan gendun baye, ba ostantxean ba bokadillo edo" - (Ba unekada baten bertan, bazkaria prestatzen zigun maistrak, eroan indabak edo zer edo zer eta, prestatzen genuen baina, ba osterantzean ba bokadilloa edo)

prijidu: prijitu, frijitu

probeu: 1. probatu, dastatu. 2. hazi

"Nik probe dot baye estat gustetan" - (Nik probatu dut baina ez zait gustatzen)

"Or dauen edarie ños estot probeu, e?" -
(Hor dagoen edaria inoiz ez dut probatu,
e?)

proibidu: galarazo, debekatu

putzitu: puztu

sabaldu: zabaldu

"Ori sabaldu iten da, sabaldu tripea" - (Hori
zabaldu egiten da, zabaldu tripa)

"Orduen arek ite sien, beak sabalean iminte
sien buruek bera sartze sien, oin aldrebes
iten die, oin beak batzen die ta buruek
sabaldu" - (Orduan haiek egiten ziren,
beheak zabalean ipintzen ziren buruak
behera sartzen ziren, orain alderantziz
egiten dira, orain beheak batzen dira eta
buruak zabaldu)

sakatu: sakatu

sakondu: sakondu

"Begie sakondute, eta triste, ori ya esta suri
egotea, ori da kasik bellegitute,
gatxagaitik" - (Begie sakonduta, eta triste,
hori ja ez da zuri egotea, hori da kasik
beilegituta gaitzagatik)

sakudidu: astindu

"Ori be bai, igual trapuen egoten da ta, bota
ixu ori sakudidu ixu ori esaten due" - (Hori
ere bai, beharbada trapuan egoten da eta,
bota ezazu hori astindu ezazu hori esaten
dugu)

salbeu: salbatu

saldu: saldu

"Gero andik ona bota gitusen, feria de
muestrasen be saldute nau ni, e?" - (Gero
handik hona bita gintuzten, erakustazokan
ere salduta nago ni, e?)

salteu: saltatu

"Saltetan, selan, e, lagunek, eta alan eiten
gendun" - (Saltatzen, zelan, lagunak, eta
hala egiten genuen)

sangreu: odolustu

sapaldu: zapaldu

"Alper arrie mokilek sapaltako ok" - (Alper
harria mokilak zapaltzeko duk)

"Urrungo bearra sapaldu in bea da, atxineko
klasera, bietara iten dot nik" - (Hurrengo
bearra zapaldu egin behar da, antzinako
erara, bietara egiten dut nik)

sarratu: zarratu, itxi

"Etzea akabetan danean ayek suloak sarratu"
- (Etzea amaitzen danean zulo haiek
zerratu)

"Astillea sarratu bea da" - (Arrakala zarratu
behar da)

"Es, es, bide au be esin senki sarratu ein" -
(Ez, ez, bide hau ere ezin zenezake zerratu
egin)

sartu: 1. sartu. 2. zahartu

"Urrengo urtean gero, ba, or metro bire
metro bire ba sartu estakak" - (Hurrengo
urtean gero, ba, hor metro bira metro bira
ba sartu taketak)

"Bai ori, ori sartu baño lenau esan gurosu
suk" - (Bai hori, hori sartu baino lehenago
esan gura duzu zuk)

satitu: zatitu

"Ta gero iten da urdiek eta besteak satitu" -
(Eta gero egiten da urdaiak eta besteak
zatitu)

satzitu: satsitu, satsa egin

"Ontxe, gudot esan, satzituden da oin
udebarrien" - (Oraintxe gura dut esan,
satsitzen da orain udaberrian)

seatu: xehatu

"Ote san en jeneral pernile, ta pernile ebei,
seatute, prijidu sartenean, ta taloa oten
basan taloa in, ta taloas ta arekas
armoseu, edo beriendeu, segun nos ebiltan
san" - (Egoten zen gehienetan pernila, eta
pernila ebaki, xehatuta, frijitu zartenean,
eta taloa egoten bazen taloa egin, eta
taloarekin eta haiekin armozatu, edo
beriendatu, segun noiz ibiltzen zen)

"Gero galtzue ite san seatu, ser batas" -
(Gero galtzua egiten zen xehatu, zer
batekin)

segidu: segitu

"Ondikarren be segitan du emen, e?" -
(Oraindikarren ere segitzen dugu
hemen, e?)

"Olan esi lei aite segidu" - (Hala ezin liteke
aita segitu)

selebreu: ospatu

"Lenau sanantonio selebreta san" -
(Lehenago San Antonio ospatzen zen)

sentidu: 1. sentitu. 2. txahala egiteko unean
behia sentituta egoten da. 3. tristatu

separeu: banandu

serbidu: zerbitzatu

sertu: zertu

"Taloa in, eta egosi an, irikiten eukin eta gero
sertuten da krema baten moduen iten da
bai" - (Taloa egin, eta egosi han, irakiten

eduki eta gero zertzen da krema baten moduan egiten da bai)

siketu, sikitu: sikatu

"Siketan eukite seuen narrue" - (Sikatzen edukitzen zuen narrua)

"Aurek ilte siren, siketu ite siren an" - (Eurek hiltzen ziren, sikatu egiten ziren han)

"Gero sabaldu, sikitu ditiesan arinao, se an lerroan, e, itxisko, sortzi egunean be esta sikitan, eta sabaldusko, egun bi iruen fuera!" - (Gero zabaldu, sikatu daitezen arinago, ze han lerroan, utziz gero, zortzi egunean ere ez da sikatzen, eta zabalduz gero, egun bi hiruan kito!)

sildu: zildu

simeldu: zimeldu

"A simeldute sanean apur bet, ganadueri emote akon a" - (Hura zimeltzen zenean apur bat, ganaduari ematen zitzaion hura)

sinestu: sinestu, sinetsi

"Eta sinestu eite seuen askok" - (Eta sinestu egiten zuen askok)

sirkuleu: zirkulatu

siteu: zitzatu

"Bestea pe siteu, lotuko sara mutil sar, esara eskonduko" - (Besteak ere zitzatu, lotuko zara mutil zahar, ez zara ezkonduko)

sobreu: sobratu

"Auntxe ensegida afaltako, egurdien sobre badie indabak, talo bat erre or, uruneas iñeko talo bat, a sopatu egurdiko indabakas, eta beste talo bat esneas" - (Oraintxe behingoan afaltzeko, eguerdian sobratu badira indabak, talo bat erre hor, irinarekin egineko talo bat, hura zopatu eguerdiko indabekin, eta beste talo bat esnearekin)

"Tabernako moduen platera imini eurrean ta kendu te altzeu baye, ba beti megide barik ekarten du guk geusea, bai sobretan dana yateko ostean emen" - (Tabernako moduan platera ipini aurrean eta kendu eta altxatu baina, ba beti neurri barik ekartzen dugu guk gauza, baina sobratzen dena jateko ostean hemen)

soldu: zoldu

"Len, imite sendusen igual arrakada merkeak, eta nik estait selango metala edo ser eukite gun arek, eta ensegida iten yatzun, esaten gendun soldu in dako" - (Lehen, ipintzen zenituen beharbada arrakada merkeak, eta nik ez dakit zelako metala edo zer

edukitzen zuen hark, eta behingoan egiten zitzaizun, esaten genuen zoldu egin zaio)

soltetu: soltatu, askatu

"Beres soltetan da" - (Berez soltatzen da)

"Solte estakion amarreu in bixetesan" - (Askatu ez dakion amarratu egin behar izaten zen)

sorrostu: zorroztu

"Txarto iten basu esteu ondo sorrostan" - (Txarto egiten baduzu ez du ondo zorrozten)

sostenidu: eutsi

sotasaldu: lantzar egon den soro bati gaineko belarra aitzurrez kentzea landu ahal izateko

subasteu: errematean eman, enkantean eman

suerteu: suertatu

sufridu: jasan

sujeteu: eutsi

"A be sujetetako, se espabere, eurretik, e, burutik, e, astoak, e, bajatan badeu burue, burutik urtetan dotzo orrek" - (Hura ere eusteko, ze ezpabere, aurretik, burutik, astoak, baxatzen badu burua, burutik irteten dio horrek)

sulotu: zulatu

"Artoak ereiten, batzuk sulotu, beste batzuk erein, beste batzuk tapeu" - (Artoak ereiten, batzuk, zulatu, beste batzuk erein, beste batzuk tapatu)

suritu: 1. zuritu, azala kendu. 2. zuritu, zuri egin

"Ba, labean atean, labean atean asten sanean kanpokalderdirantza suritan, orduen ya ladrillue, ladrillue suritan aste sanean, orduen ya, ondo oten san" - (Ba, labearen atean, labearen atean hasten zenean kanpoko alderdirantz zuritzen, orduan ja adreilua, adreilua zuritzen hasten zenean, orduan ja, ondo egoten zen)

"Esate baterako batze san, e, ba arto pillo bat, e, labasuek iteko, eta ia, goasen danok artoak suritan, gero imite siren ba saranatan artoak, segun selango labea san" - (Esate baterako batzen zen, ba arto pilo bat, labasuak egiteko, eta ea, goazen denok artoak zuritzen, gero ipintzen ziren ba zaranetan artoak, segun zelako labea zen)

sutundu: zutundu, zutitu

tapeu: 1. tapatu, estali. 2. probetan eta kiroletan markak ondu, tapatu

"Artoak ereiten, batzuk sulotu, beste batzuk erein, beste batzuk tapeu" - (Artoak ereiten, batzuk, zulatu, beste batzuk erein, beste batzuk tapatu)

"Gero artoa ta indabea bota sulora, ta gero tapeu" - (Gero artoa eta indaba bota zulora, eta gero tapatu)

tardeu: belutu, berandutu

"Goxetik eraiten basu esate gurien lurre os dauela, eta giau tardetan deuriela ernetan" - (Goizetik ereiten baduzu esaten zuten lurra hotz dagoela, eta gehiago behar dutela ernetzen)

taseu: tasatu

tiretu, tiritu: 1. tiratu. 2. tiro egin

"Es, es, es eskuas emote tzien, sartute barruen, ta areri bueltak emonta, tiretu laneari te an batu" - (Ez, ez, ez eskuarekin ematen zioten, sartuta barruan, eta hari bueltak emanda, tiratu artileari eta han batu)

"Aori ite san ol bat, ol bat, ta astea olan iminte, ta gero areas ite sien, artoak atara bea sienean, seatik, areas tiritu kanpora, areas kanpora, areas ekarri" - (Haori egiten zen ohol bat, eta asta hola ipinita, eta gero harekin egiten ziren, artoak atera behar zirenean, zeretik, harekin tiratu kanpora, harekin kanpora, harekin ekarri)

"Oin euskerak tireta tzo" - (Orain euskarak tiratzen dio)

tokeu: takatu, suertatu

"Bai alde baten pareu bata, ta bestean bestea, ta gero toketan dakona, pisu giau baeuken edo gitxiao baeuken an egoan diferentzie" - (Bai alde baten paratu bata, eta bestean bestea, eta gero tokatzen zaiona, pisu gehiago bazeukan edo gutxiago bazeukan han zegoen desberdintasuna)

"Onenbeste kobre tzu, onenbeste toketan dast niri" - (Honenbeste kobratu dizu, honenbeste tokatzen zait niri)

"Suri toketan datzu edo su sara edo" - (Zuri tokatzen zaizu edo zu zara edo)

topeu: topatu

"Usena tope yeuren, orti etor soasen Morgara, Larrabetzutik, Morgatik Gernikera yoate soasen" - (Izena topatu ziaten, hortik etorri zituan Morgara, Larrabetzutik, Morgatik Gernikara joaten zituan)

tosteu: igertu

trabeu: trabatu

trageu: irentsi

"Autze trageu, ta gero ardaua edan, ardaua uras nasteute" - (Hautsa irentsi, eta gero ardaua edan, ardaua urarekin nahastuta)

trasigeu: aldatu, txakolinaren kasuan esaten da

"Gero iten dako, trasigeu" - (Gero egiten zaio, aldatu)

trateu: tratatu

trentzeu: trentzatu

trilleu: trilatu

"Ba oin, e, soloan edo ser da kanpoan bertan iten deure trilleu, eta bai sati andiaua" - (Ba orain, soloan edo zer da kanpoan bertan egiten dute trilateu, eta bai zati handiagoak)

tronbildu: tronbildu, tronbilak egin

turdidu: turditu

txikertu: txikertu, txikitu

txikitu: txikitu, txikertu

"Kaja baten barruen ba, txikitu golpe ta golpe ta golpe!" - (Kaxa baten barruan ba, txikitu kolpe eta kolpe eta kolpe!)

tximeldu: zimeldu

txispeu: txolindu

txotxolatu: txotxolotu

txotxolotu: txotxolotu

txupeu: xurgatu

"A txupetan edo aistu iten dako estenkadea emotea" - (Hura txupetzen edo ahaztu egiten zaio eztenkada ematea)

ulertu: ulertu

"Gu langoak berba itea gure areri, ulertu ixin de" - (Gu lakoek berba egitea gura hari, ulertu ezin eta)

"Nik gure labea ulerta nendun" - (Nik gure labea ulertzen nuen)

umotu: umotu

unteu: gantzutu, koipea eman, bazitan egin

urdindu: urdindu

"A esta urdindu iten" - (Hura ez da urdindu egiten)

"Urdindu da ba, geuse bat, e, sartzean badosu umedadeagas, nonon, a suritute ganea urtetan deu, ta urdindute dau dana esaten due" - (Urdindu da ba, gauza bat, sartzen baduzu hezetasunarekin, non edo non, hura zurituta gaina irteten du, eta urdinduta dago dena esaten dugu)

urrutu: urratu

"Bai eridek inde, apurtute, bai, urrutu apurtu da" - (Bai zauriak eginda, apurtuta, bai, urratu apurtu da)

"Yantzie urrutu deu" - (Jantzia urratu du)

"Bernak dana urrutu deure sasiekas" - (Bernak dena urratu dute sasiekin)

urten: irten

"Etzetik urten be esi lei in, e?" - (Etxetik irten ere ezin liteke egin, e?)

urtu: urtu

"Ori iten da ur berotara bota ta urtu in bea da, ur berotara bota, otzas be bai, baye beroas arinao otzas baño" - (Hori egiten da ur berotara bota eta urtu egin behar da, ur berotara bota, hotzarekin ere bai, baina beroarekin arinago hotzarekin baino)

"Ak ure, ak ure deko urtuten danean" - (Hark ura, hark ura dauka urtzen denean)

"Edurrek sertu suri suri dana eta gero apurke apurke urtuten doa" - (Elurak zertu zuri-zuri dena eta gero apurka-apurka urtzen doa)

useu: erabili

"One pe badekie, eukite ixen deu, oin ya, e, estire useu iten kasik, useu estire iten" - (Hauek ere badaukate, edukitzen izan du, orain ja, ez dira usatu egiten kasik, usatu ez dira egiten)

"Nik estot useu asko atarikoa, baye ikusi in doas, e?" - (Nik ez dut usatu asko haietarikoa, baina ikusi egin ditut, e?)

"Ba, oin estales usetan olangorik, oingo umeak estakies, olango geusek" - (Ba, orain ez den lez usatzen holakorik, oraingo umeek ez dakizkit, holako gauzak)

usteldu: usteldu

utzitu: hustu

"Aren uregas, barriker dustie, bueltaka bueltaka bueltaka ibili, eta gero a utzitu, te siketan deuenan gero txakoline bota" - (Haren urarekin, barriker guztia, bueltaka bueltaka-bueltaka erabili, eta gero hura hustu, eta sikatzen duenean gero txakolina bota)

uxetu: uxatu

"Bai uxetu iteko ixete san auxe, san juan besperako, suak, san juan bagillea" - (Bai uxatu egiteko izaten zen hauxe, san juan bezperako, suak, san juan bagilak)

yagon, yabon: jagon, zaindu

yakin: jakin

"Yakin yoat baye oin enok akordetan, batek gora ta besteak berantza, berantza alde batera" - (Jakin diat baina orain ez nauk gomutatzen, batek gora eta besteak beherantz, beherantz alde batera)

yan: jan

yantzi: jantzi

"Semetariko bat yantzi te, yoan san egun beten Deriora, eta Derion eseu den esetu eta bueno komediek ibil situsen" - (Semeetariko bat jantzi eta, joan zen egun baten Deriora, eta Derion ez zuten ezagutu eta beno komediak erabili zituen)

"Bai, bai, ori ixete san ba, obeaoo, oin dan moduen yantziteko, sure ama pe esetuko seun" - (Bai, bai, hori izaten zen ba, hobea, orain den moduan jantziteko, zure amak ere ezagutuko zuen)

"Marroirik yantzite ibilte sien" - (Marroirik jantzita ibiltzen ziren)

yarri: jesarri, eseri

"Yarrite gaus" - (Jarrita gaude)

"A! Testoak eiten, e, txikiten bai, kuadrillen yarri te pareu, ta bata besteari" - (A! Testuak egiten, txikitan bai, taldean jarri eta paratu, eta bata besteari)

"Esites egon lusero, sutunik espabere sanak urtetan dotzue, eta yarri sites" - (Ez zaitez egon luzaro, zutunik ezpabere zainak irteten dizute, eta jar zaitez)

yausi, yeusi: jausi

"Yausi estiten koxu ori umeori" - (Jausi ez dadin koiu ume hori)

yayo: jaio

"An yayoa nas ni" - (Han jaioa naiz ni)

yeurti: jaurti, jaurtiki

yoan: joan

"Kanteta san etzeatara yoanta" - (Kantatzen zen etxeetara joanda)

"Guk eskendun eukin posibilidedarik arean be, gure denporan, e? Es arean bes, gero batzuk aputxu bet gerorao asi siren, bueno Bilbora yoaten" - (Guk ez genuen eduki aukerarik arean ere, gure denboran, e? Ez arean ere ez, gero batzuk apurtxo bat geroago hasi ziren, beno Bilbora joaten)

yokatu: jokatu

yorratu: jorratu

"Baye soloan yorratu, artoari, orrek dustiek yorratu" - (Baina soroan jorratu, artoari, horiek guztiak jorratu)

yosi: josi

"Yosi es, amarreu iten da ori be" - (Josi ez, amarratu egiten da hori ere)
"Egun bet eukiten gendun yosten iteko, baye gitxi, gitxi, gitxi" - (Egun bat edukitzen genuen josten egiteko, baina gutxi, gutxi, gutxi)

23.2. ADITZ KONPOSATUAK

EGIN

aberie in: aberia egin

"Antxe in gendun aberie, e? Orduentxe itxi neuntzen Erriberara nik" - (Hantxe egin genuen aberia, e? Orduantxe utzi nion Erriberara nik)

"Neuri etxean estoste in aberirik, baye iten tu aberiek" - (Neuri etxean ez dit egin aberiarik, baina egiten ditu aberiak)

agirike in: agirika egin, errietan egin

agur in: agur egin

alegine in: ahalegin egin

amestan in: amestetan egin, ametsetan egin

"Umeak amestan in estien gurean egundo beti, gure aitek egundo beti euki deu afesinoa, San Bartolomera, San Bartolome Geldoatan dau, a da ba amesan, usaba, eta amestan umeak asko iten bauen beti urrungo urtean San Bartolomera, mesara" - (Umeak ametsetan egin ez dezaten gurean egundo beti, gure aitak egundo beti eduki du zaletasuna, San Bartolomera, San Bartolome Geldoetan dago, hura da ba ametsen, ugazaba, eta ametsetan umeak asko egiten bazuen beti hurrengo urtean San Bartolomera, mezara)

aprobea in: aproba egin

arrikoa in: harrikoa egin

asal in: azal egin

asala in: azala egin

asalara in: azalera egin, mendatzeko era

"Asalara be bai, iten deure, nik estot asalara inos in, astillera, astillera" - (Azalera ere bai, egiten dute, nik ez dut azalera inoiz egin, arrakalera, arrakalera)

astillera in: arrakalera egin, mendatzeko moldea

astrakan in: aztrakan egin

aurrekuen in: aurrekuan egin

"Aurrekuen estot inos in, baye jotea, ta agarraue" - (Aurrekuan ez dut inoiz egin, baina jota, eta baltseoa)

barre in: barre egin

"Barre iten deu onek" - (Barre egiten du honek)

bear in: behar egin

"Eskoya eskerrean iminten baosu esin deu bear ondo in" - (Eskoia ezkerrean ipintzen baduzu ezin du behar ondo egin)

"Ori igual esango da bear in dien, e?" - (Hori beharbada esango da behar egin dezan, e?)

"Guri orrek etorri akusen, e, nik granjan bear i nendun" - (Guri horiek etorri zitzaizkigun, nik granjan behar egiten nuen)

begiskones in, beiskones ein: begizkoa egin

"Guk eroan du edonos umea olan begiskones in estiuén San Felisimora Deusture" - (Guk eroan dugu inoiz umea hola begizkoa egin ez diezaioten San Felizisimora Deustura)

"Ume bateri kasureko, ume eder bat, ta ume polite oso polite ta, eta ai! Se polite ta! Es istesu begiskones in, e? Espabe baragarri da ta olantxe" - (Ume bati kasurako, ume eder bat, eta ume polita oso polita eta, eta ai! Ze polita eta! Ez iezadazu begizkoa egin, e? Ezpabere baragarri da eta holaxe)

berba in: berba egin

"Or Geldon iten deu andra batek olan berba" - (Hor Geldon egiten du andre batek hola berba)

"Inos bai in dot berba baye ba, gitxi" - (Inoiz bai egin dut berba baina ba, gutxi)

"Beste batzuk urte betean egon sin, beste bi, urte betean barbarik ein barik" - (Beste batzuk urte betean egon ziren, beste bi, urte betean barbarik egin barik)

"Nik euki dot ogei urtean, barbarik eiten estostela bat, ta esebe in barik" - (Nik eduki dut hogeitun urtean, barbarik egiten ez didala bat, eta ezer ere egin barik)

bero bero in: bero-bero egin

"Ba ite sin bero bero, txokolateas bete bete ta gero, sera apur bet, ta gero kalabasak botaten olgetan, erre kara, ori bearrori iteurien len" - (Ba egiten ziren bero-bero, txokolatearekin bete-bete eta gero, zera apur bat, eta gero kalabazak botatzen)

olгатzen, erreкара, behar hori egiten zuten lehen)

bete bete in: bete-bete egin

bolaka in: bolaka egin

brisgen ein: briskan egin

"Brisgen eiten gendun olan, kantinen ganean pareute" - (Briskan egiten genuen hola, kantinarean ganean paratuta)

burle in: burla egin

burlesar in: burlazar egin, burla egin

egas in: hegaz egin

"Eta arek ite geun gero, olan imini, eta egas iten deu, egas!" - (Eta hark egin zuen gero, hola ipini, eta hegaz egiten du, hegaz!)

"Orrek egas eiten deu asko" - (Horrek hegaz egiten du asko)

egune in: eguna egin

elexartze in: eliz hartze egin

"Amak urteta seuen, ba, lelango eleixartzetik iten, esate otzien, yoate san umiagas ba, eleix, elexara edo elespera, ta elexara esan sartzean arik eta abadea etorri artean, ta abadeak estakit ser ite otzon an bedeinkasiñoa edo seuse, libruen bat, e, leidu edo estakit ser, ta orduen paseta san kandela bat ixetu, eta aregas paseta san, e, elexara" - (Amak irteten zuen, ba, lehenengo eliza hartzetik egiten, esaten zioten, joaten zen umearekin ba, elizara edo elizpera, eta elizara ez zen sartzen harik eta abadea etorri artean, eta abadeak ez dakit zer egiten zion han bedeinkazioa edo zer edo zer, libururen bat, irakurri edo ez dakit zer, eta orduan pasatzen zen kandela bat biztu, eta harekin pasatzen zen, elizara)

enbarasu ein: enbarazu egin

erdi bi in: erdi bi egin

erremata in: erremata egin

"Erremata ite san erriko tabernan" - (Erremata egiten zen herriko tabernan)

errietan in: errietan egin

"Errietan be eiten deurie" - (Errietan ere egiten dute)

estroposu in: behaztopatu

estul in: eztula egin

esun in: ezagun egin

euri ein, euri in: euri egin

"Onek espadeu eskapetan euri ingo deu" - (Honek ez badu ihes egiten euri egingo du)

"Eta martxetan badeu esteu ingo euririk" - (Eta alde egiten badu ez du egingo euririk)

eusnar in, aurnar in: hausnar egin

"Nik entzun in dot ba, beye euki dot ausnar in barik" - (Nik entzun egin dut ba, behia eduki dut hausnar egin barik)

fresko in: fresko egin

gatx ein: gaitz egin

inder in: indar egin, bultzatu

kaka in: kaka egin

kalte in: kalte egin

"Garien orduen kalte andie iteuden artatxoriek, e, bandak" - (Garian orduan kalte handia egiten zuten artatxoriek, bandak)

"Orduen iñori be esotzen kalterik iten!" - (Orduan inori ere ez zien kalterik egiten!)

"Niri estoste in kalterik iños se nik estot probeu te" - (Niri ez dit egin kalterik inoiz ze nik ez dut probatu eta)

kanbiora in: trukera egin

karra in: karra egin, korrika egin

"Geitu es ixena euki uen Segundo, orrek sien en jeneral, e, parejea, menejeta sienak, baye, lantzean baten, e, karra be in bea da" - (Deitu ez izena eduki zuen Segundo, horiek ziren gehienetan, bikotea, maneatzen zirenak, baina, lantzean baten, karra ere egin behar da)

karraderea in: karradera egin, korrika egin

karta yokoan in: karta jokoan egin

kartetan in: kartetan egin

"Kartetan iteuren, ara etorri barberire, ta barberien atxakire batzea sien" - (Kartetan egiten zuten, hara etorri bizartegira, eta bizartegiaren aitzakiara batzen ziren)

kask ein: apurtu, hautsi

kasu ein: kasu egin

"Txindorra etorri te estakie kasurik eiten, noperan etze ondoan ibiltzen die" - (Txindorra etorri eta ez zaie kasurik egiten, norberaren etxe ondoan ibiltzen dira)

kilikili ein: kili-kili egin

kristal ein, kristela ein: kristal egin, ura potxingoetan izoztu

"Orretan kristela inte oten da" - (Horietan kristala eginda egoten da)

laban in: laban egin

laprast in: laprast egin

"Ba, kasu beterako, se esangotzut? Bei betek, e, geixo bat, geixo bada ba es, bai badeko anka bat apurtu deu, edo laprast inte yeusi in da, edo seuse, ser ba padeko edo geuse,

beterinarioa yoate san eta esate seun, ba au aprobetxe lei, eta ori ite seudien lau sati, erdibitu lelau, guk eukin gendun mataderoan, eta geure etzean an egon san mataderoa atzekalderdien, ta an ilte sudien, e, gixon bat egon san, e, serekoa, Gastañatxukoa ori pelukerean ta aitite, aitite es, aititen, e, aite igual, aitite es, aman aitite, aren aman aitite san, eta ak ite seun il, oseake, matarifea ixen san, e, karniserietatik fuera, ta arek ite seun, ekarte seun mataderora ganadue ba dekien, e, pase dan, e, etzekoak" - (Ba, kasu baterako, ze esango dizut? Behi batek, gaixo bat, gaixo bada ba ez, baina badauka hanka bat apurtu du, edo laprast eginda jausi egin da, edo zer edo zer, zer bat badauka edo gauza, albaitaria joaten zen eta esaten zuen, ba hau aprobetxa liteke, eta hori egiten zuten lau zati erdibitu lehenago, guk eduki genuen hiltegian, eta gure etxean han egon zen hiltegia atzeko alderdian, eta han hiltzen zuten, gizon bat egon zen, zerekoa, Gaztañatxukoa hori ile apaintzailearen eta aitaita, aitaita ez, aitaitaren, aita beharbada, aitaita ez, amaren aitaita, haren amaren aitaita zen, harategitik kanpo, eta hark egiten zuen, ekartzen zuen hiltegira ganadua ba daukaten, pasatu den, etzekoak)

lapurretan in: lapurretan egin

lo in: lo egin

"Nik neuk lo urte askoan in dot koltxea alangoan" - (Nik neuk lo urte askoan egin dut holako koltzan)

makinen in: makinan egin, makinan josi

min in: min egin

nar ein: nar egin

negar in: negar egin

"Danak asi gara olantxe, negar iten baseun koyu" - (Denak hazi gara holaxe, negar egiten bazuen koiu)

orbela in: orbela egin

"Orbela iten badako, inderra badeko lurrek" - (Orbela egiten bazaio, indarra badauka lurrak)

parto in: erditu

pikaka in: pikaka egin, ziztatu

"Laguneri, neuk estot esetu baye pikaka in te bueno!" - (Lagunari, neuk ez dut ezagutu baina pikaka egin eta beno!)

piltxike in: piltxika egin

proba in: 1. proba egin. 2. hazi

puntu in: puntu egin

putz in: putz egin

santzo in, santzoa in: zantzoa egin

"Nik entzun dot, Leñamendiko puntun batek in santzoa eta, Serantes, Algortan dau a mendie, ta angoak kontestau emekoari, iteusela lelau, emeko santzoa ak entzute seun, ta ak iteuna ona etorri" - (Nik entzun dut, Lainamendiko puntan baten egin zantzoa eta, Serantes, Algortan dago mendi hura, eta hangoak erantzun hemengoari, egiten zuela lehenago, hemengo zantzoa hark entzuten zuen, eta hark egiten zuena hona etorri)

sarata in: zarata egin

sar in: zahar egin

"Oin artean esteu in te, ya sar inte dekus, ogei urte badie inketa dausela ta, ya geu baño txarrau daus" - (Orain artean ez du egin eta, ja zahar eginda dauzkagu, hogei urte badira inkatuta daudela eta, ja geu baino txarrago daude)

satzetan in: satsetan egin, neskari laguntzeko egiten zen proposamena satsetan egitekoa izaten ei zen

"Ori, nobieri laguntan, satzetan" - (Hori, andregaiari laguntzen, satsetan)

"Orrek in deu satzetan onegas mutilegas, ori da ba alkarregas, ya, nobioan asikerea" - (Horrek egin du satsetan mutil honekin, hori da ba elkarrekin, ja, gizongaiaren hasiera)

"Batan bat, e, satzetan iteko tope dosue ala?" - (Baten bat, satsetan egiteko topatu duzue ala?)

"Satzetan bai, mutilek neskari, ba, ser neskak beti satoesie bakarrik? Ba esteko ardurarik" - (Satsetan bai, mutilek neskei, ba zer neskak beti zatozte bakarrik? Ba ez dauka ardurarik)

"Erremeritik urtenta, etzera yoate sienean, satzetan, esate otzien" - (Erromeriatik irtenda, etxera joaten zirenean, satsetan, esaten zioten)

señe in: seinia egin

"Ondiño osori tau, esteu in seña ta" - (Oraindino osorik dago, ez du egin seinia eta)

sokatiren in: sokatiran egin

solo in: soro egin

sue in: sua egin

"Katea ote san, e, tximinien eskeite katetzar bat, ta an eskeite san ba sera, ure berotako, sera katxarroa, katxarro andi bet, ta an, aspiti sue in, ta an berotu" - (Katea egoten zen, tximinian eskegita katetzar bat, eta han eskegitzen zen ba zera, ura berotzeko, zera katxarroa, katxarro handi bat, eta han, azpitik sua egin, eta han berotu)

su in: su egin

"An bertan su inte edo olan ixengo san" - (Han bertan su eginda edo hola izango zen)

surrunka in: zurrunka egin

surrut in: zurrut egin

totoan ein: totoan egin

tratu in: tratu egin

txitximirke in: txatxamarka egin

txixe in: txiza egin

"Ori txixe iteko ta be ona da, bai, bai" - (Hori txiza egiteko eta ere ona da, bai, bai)

uger in: uger egin, igeri egin

ure in: ura egin, ureztatu

"Piperrari ure iten ibil nas, eta piperra, obuen obuen antzean dekot" - (Piperrari ura egiten ibili naiz, eta piperra, obuen obuen antzean daukat)

usiki in: usain egin

"Ba aren amari olan usiki yotzon ta olan sati kendu! Bai astoak etzeko astoak, e!" - (Ba haren amari hola haginka egin zion eta hola zati kendu! Bai astoak etzeko astoak, e!)

yamon ein: jaramon egin

"Gure ama defunteak eseuen iñogas barbarik iños ein, gure ama defunteak au sein ori esotzien yamonik eiten" - (Gure ama defuntuak ez zuen inorekin barbarik inoiz egin, gure ama defuntuak hau zein hori ez zien jaramonik egiten)

"Igual ikusi dus baye yamoni pe estotzu in, esta?" - (Beharbada ikusi ditugu baina jaramonik ere ez diegu egin, ezta?)

yantzan in: dantzan egin

"Au sutea garbitu bear da espabe sorgiñek etorko dire ta yantzan ingo deude" - (Sute hau garbitu behar da ezpabere sorginak etorriko dira eta dantzan egingo dute)

"Plasan iteurien yantzan" - (Plazan egiten zuten dantzan)

"Ori jayetan jo iteurien, e, yantzan, jayetan imiteuen erriek, ori ser ori, bai debalde, e? Eureri emongo tzien seuser, estait ser emoteutzien" - (Hori jaietan jo egiten zuten, dantzan, jaietan ipintzen zuen herriak, hori zer hori, bai doan, e? Eurei emango zieten zer edo zer, ez dakit zer ematen zieten)

IZAN

adu onekoa ixen: adu onekoa izan

"Adu onekoa ixen ditela gero" - (Adu onekoa izan dadila gero)

aites bienak ixen: aitzaz bienak izan

aites ixen: aitzaz izan

"Nebarebak ixen siren aites batenak eta amas batenak" - (Neba-arrebak izan ziren aitzaz batenak eta amaz batenak)

aites umesurtze ixen: aitzaz umezurtza izan

"Umesurtze da aites" - (Umezurtza da aitzaz)

al ixin, al ixen: ahal izan

"Al dan modukoa bateti bestera paseta san gurean erropea" - (Ahal den modukoa batetik bestera pasatzen zen gurean arropa)

"Txikitekoak, gure denporan, e, yoan, e, badau matzik edo, a, fruterik, sagarrak edo sagarduirik, ba sagarrak ostu, ta yan al dinak, ta besteak bota, t'olan, trasteri dustie, txarkeri dustie" - (Txikitakoak, gure denboran, joan, badago mahatsik edo, frutarik, sagarrak edo sagardirik, ba sagarrak ostu, eta jan ahal direnak, eta besteak bota, eta hola, trasteria guztia, txarkeria guztia)

amas bienak ixen: amaz bienak izan

amas ixen: amaz izan

ardure ixen: ardura izan

"Orrek estotzo ardurarik" - (Horrek ez dio ardurarik)

aurrerako ixen: aurrerako izan

badaespadakoa ixen: badaezpadakoa izan

balio ixen: balio izan

"Orrek estost balio" - (Horrek ez dit balio)

"Erretan bok etxok balio, egosi in bea yok" - (Erretzen baduk ez dik balio, egosi egin behar dik)

bardin ixen: berdin izan

bear ixen: behar izan

"Arek esate oskun, ortik bagoas, aurrerantza yoan bea du beti, te aurrerantza yoan bea

du te, ein gun atzerantza" - (Hark esaten zigun, hortik bagoaz, aurrerantz joan behar dugu beti, eta aurrerantz joan behar dugu eta, egin dezagun atzerantz)

berba utze ixin, berba utzeskoa ixen: berba hutsa izan

"Berba utzeskoa en jeneral esaten due" - (Berba hutsezkoa gehienetan esaten dugu)

bildurre ixen: bildurra izan

bi ixen: bi izan

"Palue ta birikie bi di, birikie da olan, e, palu beten punten, ol ba teko, ta aregas atara iteko" - (Paloa eta belakia bi dira, belakia da hola, palo baten puntan, ohol bat dauka, eta harekin atera egiteko)

bixi ixen, bixi ixin: bizi izan

"Or bixi nitzen lelau, ni yayoko etzean" - (Hor bizi nintzen lehenago, ni jaioko etxean)

"Ni enas, e, an bixi ixen, ta estait" - (Ni ez naiz, han bizi izan, eta ez dakit)

errespeto ixen: begirune izan

"Begiskoa ba, estai pa, olantxe aitute ba, begiskoanes ingo nesquio, baye umea txarto lotzen da gero, begiskoana ineskero umea txarto, ta ori da, geuse sagradue da ori, orreri beti errespeto dotzet nik" - (Begizkoa ba, ez dakit ba, holaxe adituta ba, begizkoanez egingo nioke, baina umea txarto lotzen da gero, begizkoarena eginez gero umea txarto, eta hori da, gauza sakratua da hori, horri beti begirune diot nik)

falta ixen: falta izan

"Es gu yoaten gintzesan, emetik, e, selan esango tzu pa? San, Santo Domingo berantza paseu, ta, Katea sarre, se lenau be an egote san katea, an be seusek fielatoa euki euen, ta Katea sarre, eta andik bera, eta Etxebarrian fabrikera urtetan san, ataju neusi esate yakon, t'andi ataju neusiti biera oñes, eta trenak, e, emetik, e, allegeu ordureko, ba, geu be an, eta, esnea falta badosu edo sobra badekosu edo negosiok, esta? Ta gero gu ya andi yoaten gintzesan, gure amama, ayek esneak artute egun gustietan, ba, yoate san, selan esago tzu pa? Arenaletik, Hurtado Amezaga, eta gero yoate san kalle Erzilla eta goyen, e, ba, areri plasueleari estait selan esate otzien baye" - (Ez gu joaten ginen, hemendik, zelan esango dizut ba? San, Santo Domingo beherantz pasatu,

eta, Kateazarre, ze lehenago ere han egoten zen katea, han ere zer edo zerk fielatoa eduki zuen, eta Kateazarre, eta handik behera, eta Etxebarriaren fabrikara irteten zen, lasterbide nagusia esaten zitzaion, eta handik lasterbide nagusitik behera oinez, eta trenak, hemendik, ailegatu ordurako, ba, geu ere han, eta, esnea falta baduzu edo sobra badaukazu edo negozioak, ezta? Eta gero gu ja handik joaten ginen, gure amama, haiek esneak hartuta egun gustietan, ba, joaten zen, zelan esango dizut ba? Areatzatik, Hurtado Amezaga, eta gero joaten zen Ertzila kalea eta goian, ba, plazatxo hari ez dakit zelan esaten zioten baina)

"Onean asko faltot" - (Oraindino asko falta dut)

familie ixen, famelie ixen: familia izan, familia eduki

"Bai porejenplo fameli edo isteko onesko, eta bai gixonari ikusisko, ondiño osori dao ori?" - (Bai esaterako familia edo izateko egonez gero, eta bai gizonari ikusiz gero, oraindino osorik dago hori?)

gurau ixen: gurago izan, nahiago izan

"Mutilek sotzean gurau ixeteuden, eurek erre ta eurek yan" - (Mutilek zotzean gurago izaten zuten, eurek erre eta eurek jan)

"Bilutzik ibili gurau ondo yantzite baño" - (Biluzik ibili gurago ondo jantzita baino)

gure ixen, gu ixin, gu ixen: gura izan

"Aren keas, erretiretan dire apur bet, auren seretik, bastarreraño, se kea esteu gure erleak" - (Haren kearekin, erretiratzen dira apur bat, euren zeretik, bazterrerraino, ze kea ez du gura erleak)

"Bai ser esatea gusue ba?" - (Bai zer esatea gura duzue ba?)

igual ixen: berdin izan

kapas ixen, kapasa ixen: gai izan

"Lelau farolakas danak, emetik orra yoateko esien ixen kapas lengo jentea argi barik, edo galtzuen txolea edo ori, bidea pe txarrak egote sien baye bildurtu ite san jentea, estait nik" - (Lehenago farolekin denak, hemendik horra joateko ez ziren izan gai lehengo jentea argi barik, edo galtzuen txola edo hori, bideak ere txarrak egoten ziren baina bildurtu egiten zen jentea, ez dakit nik)

lotza ixen: lotsa izan

EDUKI

adue euki: adua eduki, hautsak eduki

"*Adue deko orrek, seuser, sorginen antzeko bat, esta ori? Porejenplo, seuser eiten bosu be, orrek adue tekos*" - (Adua dauka horrek, zer edo zer, sorginen antzeko bat, ez da hori? Esaterako, zer edo zer egiten baduzu ere, horrek aduak dauzka)

"*Orrek adue tekos aldean*" - (Horrek aduak dauzka aldean)

"*Len esan dune, konbertzasinoan oin ibili, esta? Ta seuserxu oneri es paseu, t'orrek adue tekos*" - (Lehen esan duguna, elkarrizketan orain ibili, ezta? Eta zer edo zertxo honi ez pasatu, eta horrek aduak dauzka)

aldikedak euki: aldikadak eduki, zoroaldiak eduki

begiskones euki: begizkoa eduki

"*Baye umea esan ibiltzen ondo, e! Esan ibiltzen begiskones badeko, esun-esun ixete san, aitu, onek begiskones deko, amak ensegida igerta seun, negarres ta negarres ta eron medikuana ta esotzien topetan eser! Eta, ba, onek begiskones deko*" - (Baina umea ez zen ibiltzen ondo, e! Ez zen ibiltzen begizkoa badauka, ezagun-ezagun izaten zen, aditu, honek begizkoa dauka, amak behingoan igartzen zuen, negarrez eta negarrez eta eroan medikuagana eta ez zioten topatzen ezer! Eta, ba honek begizkoa dauka)

familie euki: familia eduki

kontu eukin: kontu eduki

memorien euki: gogoan eduki

"*Estekot memorien*" - (Ez daukat gogoan)

"*Aite, estakit, orixe estekot, e, memorien aitena*" - (Aita, ez dakit, horixe ez daukat, gogoan aitarena)

"*Memorien dekot, ni orduko asitxu ego nitzen*" - (Gogoan daukat, ni orduko hazitxo egon nintzen)

yasa euki: jasa eduki

"*Yasa euki bea da ori iteko gero, e! Yasa!*" - (Jasa eduki behar da hori egiteko gero, e! Jasa!)

EGON

agonien egon: hilzorian egon

arbin egon: arbin egon

asala on: azala egon; landuko soroan lurra azala eginda eduki

begire egon: begira egon, zain egon

"*Ta basaus an begire ta igual orduen yo es*" - (Eta bazagoz han begira eta beharbada orduan jo ez)

"*Es, es, es, orixe ixete san, etze ikustea orixe iste san, se esan ite otzuen, bueno ba, onek au akabeute, gu, 49an eskondu gintzen, eta etzea orduentxe, ya, begire egon gintzen, akabeu artean begire egon gintzen*" - (Ez, ez, ez, horixe izaten zen, etxe ikustea horixe izaten zen, ze esan egiten zizuen, beno ba, honek hau amaituta, gu, 49an ezkondu ginen, eta etxea orduantxe, ja, begira egon ginen, amaitu artean begira egon ginen)

biskerrean egon: bizkarrean egon, maldan egon

dariola egon: dariola egon

"*Orrek botaten asten saranean dariola egoten sara seguru*" - (Horiek botatzen hasten zarenean dariola egoten zara antza)

dotzela egon, deutzola egon: deutzola egon

"*Elexeari deutzola dau etze bat*" - (Elizari deutzala dago etxe bat)

duden egon: dudan egon, ezbaian egon

esun egon: ezagun egon

garan-garan egon: garan-garan egon, lurra garan egon

giltze emon: giltza eman, giltzan itxi

gosamenean egon: gozamenean egon

"*Ori gosamenean dau*" - (Hori gozamenean dago)

katigu egon: katigu egon

larri egon: larri egon

libre egon: libre egon

meko egon: meko egon, erkin egon

sur on: zuhur egon

tenplean egon: tenplean egon

urek egon: urak egon, ilgorako sasoia

uretan egon: uretan egon, ilgoran egon

"*Uretan al dala esi lei in*" - (Uretan ahal dela ezin liteke egin)

EMON

antojue emon: antojua eman, nazka eman

bildurre emon: bildurra eman

"*Apur bet bildurre emote yoskun*" - (Apur bat bildurra ematen zigun)

buelta emon: buelta eman

bueltea emon: buelta eman

burure emon: burura eman, mozkorra eragin

estenkadea emon: eztenkada eman

"A txupetan edo aistu iten dako estenkadea emotea" - (Hura txupatzen edo ahaztu egiten zaio eztenkada ematea)

lepo bete emon: lepo bete eman

"Ta sarrenak ite yotzuen, Lusi! Koiten dotzunean mutilek emongotzue lepo bete" - (Eta zaharrenak egiten zion, Luzi! Koiuten zaituztenean mutilek emango dizute lepo bete)

moskorra emon: mozkorra eman

"Orrek moskorra emoten yok sentalle moduen" - (Horrek mozkorra ematen dik zentaila moduan)

penea emon: penea eman

plegasinoa emon: plegazioa eman

sue emon: sua eman

"Ebai deudies, eta emon dotzie sue" - (Ebaki dituzte, eta eman diete sua)

tardantzea emon: tardantza eman, umeak astunduta, nor edo nogana joateko esaten zaie tardantza emateko, bide batez norberari baketan uzten diote

"Soas aiteana tardantzea emon deitzule" - (Zoaz aitagana tardantza eman diezazula)

usine emon: usaina eman

GAINERAKOAK

aginek bardindu: haginak berdindu

"Aginetara bai baye, bein, e, bost urte paseusko es, gastea, bada espada aginetara" - (Haginetara bai baina, behin, bost urte pasatuz gero ez, gaztea, bada ez bada hagineta)

"Aginek nobere moduen, e, eiten dakos kanbieu, ganadueri, urte bien, esnekoa tekos, tripen, e, urten tzienak, urte bien, urrungo urtean, beste bi yausi iten dakos lelango urte bietan bi, ta gero irugarren urtean beste bi, ta laugarren urtean, beste bi, ta bost urterako daunean, garbitu iten dako, agoa" - (Haginak nobere moduan, egiten zaizkio aldatu, ganaduari, urte bian, esnekoak dauzka, tripan, irten diotenak, urte bian, hurrengo urtean, beste bi jausi egiten zaizkio lehenengo urte bietan bi, eta gero hirugarren urtean beste bi, eta laugarren urtean, beste bi, eta bost

urterako dagoenean, garbitu egiten zaio, ahoa)

agoa sarratu: ahoa zarratu, haginak berdindu

alperrik galdu, alpelik galdu: alperrik galdu

antzu lotu: antzu lotu

"Orrekas ba al dala, ondo etorteko beyek in bea deu deskantzeu, deskantzeu, se oin emoten badeu berandurarte esnea, gero esteko bea danik umea iten deuenean esnerik, in bea deu porejenplo ba, saspi illebeta t'erdi ingeruen gero ba sertu, antzu lotu" - (Horiekin ba ahal dela, ondo etortzeko behian egin behar du deskantsatu, deskantsatu, ze orain ematen badu berandura arte esnea, gero ez dauka, egin behar du kasurako ba, zazpi hilabete eta erdi inguruan gero ba zertu, antzu lotu)

arie koyu, arire koyu: haria koiu, harira koiu

"Eskinetik beko asala eta bestean asala, koitako, arire koitako" - (Izkinatik beheko azala eta bestearen azala, koiuteko, harira koiuteko)

"Arie esteu koitan bea dana es" - (Haria ez du hartzen behar dena ez)

arire ebei: harira ebaki

arnasea artu : arnasa hartu

"Emon esebes, or ite sien, e, ba, lurreas edo seras, au, beyen bekorotzas ta orrekas in sera, ta ayekas, e, au sertu, ta gero amarreu, arnasarik artu estien serak" - (Eman ezer ere ez, hor egiten ziren, ba, lurrarekin edo zerarekin, hau, behien bekorotzarekin eta horiekin egin zera, eta haiekin, hau zertu, eta gero amarratu, arnasarik hartu ez dezan zerak)

arnasea estutu: arnasa estutu

arra bota: arra bota; txapa olgetan neurtzean arra botatzea distantzia kalkulatzeko

arto suritu: arto zuritu

atentziñoa geitu: atentzioa deitu

"Eurpegie garbitu txinbogas, gure amak beti atentziñoa geitzean sun, eurpegie euki sun oso fine, neu pe, txinboas garbitan dot, e?" - (Aurpegia garbitu txinborekin, gure amak beti atentzioa deitzen zuen, aurpegia eduki zuen oso fina, neuk ere, txinborekin garbitzen dut, e?)

atzean segidu: atzean segitu

aurrerako itxi: aurrerako utzi

barrenak artu: barrenak hartu, azpildurak hartu

bedar itxi: belar utzi

berde ibili: berde ibili
bertzoa bota: bertsoa bota
boleara erain: boleara erein
brillue atara: dirdira atera
buelta erain: buelta eragin
bueltea artu: buelta hartu
drogatan ibili: drogatan ibili
enbarasuti kendu: enbarazutik kendu
eperditik atara: ipurditik atera
eperditik bota: ipurditik bota
eperditik kendu: ipurditik kendu
"Yone pe imin seun partida bat, danak kendu eusen eperditik" - (Jonek ere ipini zuen partida bat, denak kendu zituen ipurditik)
erroak atara: erroak atera buruko zapiari
erropea jo: arropa jo, bogada harrian arropa jo egiten zen
esnea gorde: esnea gorde
"Esnea gorde ba batzuk esteure esnea ondo bajetan" - (Esnea gorde ba batzuek ez dute esnea ondo baxatzen)
esneak sabaldu: esneak zabaldu
etzea altzeu: etxea altxatu, eraiki
eusnarra ekarri: hausnarra ekarri
fradu itxi: belardi utzi
"Bueno arbolak bota ta atoan, e, soloa iteko, iten da gero, fradu itxi, bedar itxi, eta gero urteakarrenean sustreyek usteltan direnean, gero soloa in" - (Beno arbolak bota eta atoan, soloa egiteko, egiten da gero, belarleku utzi, belar utzi, eta gero urteakarrenean sustraiak usteltzen direnean, gero soloa egin)
fue jo: fua jo, karta jokoan azpia jo
gatza artu: gatza hartu
gatzen imini: gatzean ipini
geyes ibili: deiez ibili
gosamenean itxi: gozamenean utzi
iledara erein: iladara erein
inderra artu: indarra hartu
kanpa itxi: lantzar utzi
kanpak jo: kanpaiak jo
kargu artu: kargu hartu
"Gixonari beste ingeru kargu artu tzet simindereari" - (Gizonari beste inguru kargu hartu diot mintegiari)
kartak erabagi: kartak erabaki, kartak nahastu
kontrara yantzi: kontrara jantzi
"Kontrara yantzi dosu" - (Kontrara jantzi duzu)
kontu atara: kontu atera

lantzar itxi: lantzar utzi
"Lantzar itxitea, ba, soloa ixen ta gero fradu itxitea" - (Lantzar uztea, ba, soloa izan eta gero belarleku uztea)
leye bota: leia bota
lo pareu: lo paratu
martxan imini: martxan ipini
"Matzak imini martxan, ta mayetzean garbitu in bea dire matzak, matza in beadosu garbitu" - (Mahatsak ipini martxan, eta maiatzean garbitu egin behar dira mahatsak, mahatsa egin behar duzu garbitu)
maskara yantzi: maskara jantzi, mozorrotu
meko lotu: meko lotu, erkin lotu, ahul lotu
"Orbela iteko inderra bea deu, eta espabere meko lotu bea deu landareak" - (Orbela egiteko indarra behar du, eta ezpabere meko lotu behar du landareak)
memorietei yoan: gogotik joan
"Oin memorietei yoan dat!" - (Orain gogotik joan zait)
mesea atara: meza atera
"Bai etzerik etze neu be ibilte nau, dirue batzen mesea atarateko" - (Bai etxerik etxe neu ere ibilita nago, dirua batzen meza ateratzeko)
"Ori etzean entzute neutzen mesak atara bea dires" - (Hori etxean entzuten nion mezak atera behar dira)
"Mesea atara, olan bei bet txarto eukieskeron, e, mesea ataten yoan sanantoniori, te olan, ta gero ori galtzean yoan san" - (Meza atera, hola behi bat txarto edukiz gero, meza ateratzen joan San Antoniori, eta hola, eta gero hori galtzen joan zen)
mesea erason: meza eraso, meza ematen lagundu
min artu: min hartu
mokil yo: mokil jo
mostoa garbitu: mostoa garbitu, ahoa ingurua garbitu
nagiek atara: nagiak atera
odol utzitu: odol hustu
"Ta iten da odol utzitu, ordun iten san il" - (Eta egiten da odol hustu, orduan egiten zen hil)
odola atara: odola atera
ondo esan: ondo esan
"Bai berba in bear dake eta ondo esan" - (Bai berba egin behar zaie eta ondo esan)
otza koyu: hotza koiu

pasean etorri: pasean etorri

paseoan ibili: paseoan ibili

plegasinoa artu: plegazioa hartu

"Eta bota koñaka kopa bat, eta basu bete esne edan, baye plegasinoa artute, eta gero oyan sartu, ta urrungo egunerako pasta dekosu" - (Eta bota koinaka kopa bat, eta basu bete esne edan, baina plegazioa hartuta, eta gero ohean sartu, eta hurrengo egunerako pasatuta daukazu)

salmuedan imini: salmueratan ipini

santzoa bota: zantzoa bota

"Gure ausoan egon sana, kantore ixen san ori, itzelesko serak iten tusena, santzoak bota ta be, kanteu" - (Gure auzoan egon zena, kantaria izan zen hori, itzelezko zerak egiten zituena, zantzoak bota eta ere, kantatu)

satza sabaldu: satsa zabaldu

"Gero, satza sabaldu badau, satza oneskero satza sabaldu, ta gero makinetu" - (Gero, satsa zabaldu badago, satsa egonez gero satsa zabaldu, eta gero makinatu)

serrara atara: zerrara atera

siestea bota: biagoa bota

soñean yantzi: soinean jantzi

"Yantzixus soñean aber selan dekosusen" - (Jantzi itzazu soinean ea zelan dauzkazun)

soñu jo: soinu jo

su artu: su hartu

"An geldi itxi eskero su artzen deu" - (Han geldi utziz gero su hartzen du)

subastan etxa: errematean bota, enkantean bota

"Or ite san ba, subastan etxa, eta atxine ba aspigarrie gasteta sana beyentzat" - (Hor egiten zen ba, errematan bota, eta antzina ba azpigarria gustatzen zena behientzat)

suek artu: suak hartu

sulora erein: zulora erein

surrut artu: zurrut hartu

"Artu ixe surrut, esin badosu trageu, anjinak edo ortariko geuse tekosenean, artu ixe surrut" - (Har ezazu zurrut, ezin baduzu irentsi, anginak edo horietariko gauzak dauzkanean, har ezazu zurrut)

talusean ebai: talusean ebaki, oketsean ebaki

tardantzea eskatu: tardantza eskatu; umeak astun paratzen direnean beste bategana joateko esaten zaie tardantza eman edo eskatzeko, bien bitartean norbera bakean geratzen da

tratuen ibili: tratuan ibili

trenak garbitu: tresnak garbitu, harrikoa egin

txantxarrak yan: txantxarrak jan

txitek atara: txitak atera

urek artu: urak hartu

"Urek artu deu, esta klase ona se urek artu deu" - (Urak hartu du, ez da mota ona ze urak hartu du)

urtebarri batu: urte berri batu, urte berri saria batu

yasa artu: jasa hartu

23.3. PARTIZIPIOEN ERABILERAK

Partizipio soilen erabilera aztertzeke, jaso ditugun adibideak deklinabidearen kasu marken arabera aurkeztuko ditugu.

absolutua:

"An yayoa nas ni" - (Han jaioa naiz ni)

"A txistek neuk pentzeuek esaten doas nik" - (A txisteak neuk pentsatuak esaten ditut nik)

"Nik, e, beti eiñe eroste ixen dot, ta nire aite defuntue pe bai, eiñe" - (Nik, beti egina erosten izan dut, eta nire aita defuntuak ere bai, egina)

"Arrotza be, batzuk ote siren, abisarie esate otzien orreri, arrotza galdue ixete san ori, abisarie ixete san" - (Arrautza ere, batzuk egoten ziren, abizaria esaten zieten horiei, arrautza galdua izaten zen hori, abizaria izaten zen)

zehir galdera ez jokatu:

"Estait oin selan be esan ta" - (Ez dakit orain zelan ere esan eta)

"Oin bakixu oin ser ingo deuren? Nora erretireu badeukie, ara listo yoan" - (Orain badakizu, orain zer egingo duten? Nora erretiratu badaukate, hara listo joan)

ergatiboa:

"Lagundu in bear deu, esteu balio erein inek bakarrik" - (Lagundu egin behar du, ez du balio erein eginak bakarrik)

partitiboa:

"Setan inerik esteukie ba, iñon soloatan an dau, e, sera, Sanesteban ta dauela se, a esta Loyune, a da, Deriona da" - (Zertan eginik ez daukate ba, inoren soroetan han dago, zera, San Esteban eta dagoela ze, hura ez da Loiurena, hura da, Deriorena da)

"Ta organue be jote san, baye oin a be esta joten entierruen, estau nok jorik esta? Domekatan bai" - (Eta organoa ere jotzen zen, baina orain hura ere ez da jotzen enterruan, ez dago nork jorik ezta? Domeketan bai)

"Gero gure denporan ya, gure denporauan, nok inik esan egoten" - (Gero gure sasoiari ja, gure sasoirago, nork eginik ez zen egoten)

instrumentala

"Bean ladrilluas asi eta, eines eines, ba bueltaka-bueltaka, buelta gustien altzeu gorano" - (Behean adreiluarekin hasi eta, eginez-eginez, ba bueltaka-bueltaka, buelta guztian altxatu goraino)

instrumentala + batera

"A indesino ori artues batera agartu atesan ba anjinek" - (Hura injekzio hori hartuaz batera agertu zitzaizkidan ba anginak)

instrumentala + gero

skero

"Motxotu, motxotuskero ba, gitxiau sartze ako ba" - (Motxotu, motxotuz gero ba, gutxiago sartzen zaio ba)

"Odolak urtetan tzie aren sakontxutik ebayeskero" - (Odolak irteten die arean sakontxotik ebakiz gero)

"An geldi itxi eskero su artzen deu" - (Han geldi utziz gero su hartzen du)

sko

"Arbolea da, ondikarren siketu barik ongo die or, eta ara aurrera yoanesko pilloa taus" - (Arbola da, oraindikarren sikatu barik, egongo dira hor, eta hara aurrera joanez gero piloak daude)

"Bai, egonesko, kanbioko jeneroa egonesko bai, ni paneko ejea, ondo, eta kanbietako, sano nau ni" - (Bai, egonez gero, kanbioko jeneroa egonez gero bai, nik baneuka ardatza, ondo, eta aldatzeko, sano nago ni)

"Bareak usaba tie, euri ineko bareak usaba tie" (Bareak ugazabak dira, euri eginez gero bareak ugazabak dira)

skoan

"A ekusiskoan edateko, ardaua edateko ganari pes!" - (Hura ikusiz gero edateko, ardoa edateko gogorik ere ez!)

"Barrikea mogidu eiten deu, ta a mogitea deu txarra txakolinek, gero, sera, loitu iten da mogidu eskoan" - (Barrika mugitu egiten du, eta hura mugitzea du txarra txakolinak, gero, zera, lohitu egiten da mugituz gero)

"Eurok ba ser obeas ibilte sien lurreri ba kontu obea artze otzien, satza be gitxiau ote san, ta olan yagoneskoan sas gitxiauas bardin" - (Eurok ba zer hobearekin ibiltzen ziren lurrari ba kontu hobea hartzen zioten, satsa ere gutxiago egoten zen, eta hola jagonez gero sats gutxiagorekin berdin)

skon

"Ba olan ergeldune edo junteskon, lagune etorriskon ba, berba in baño in es gurau aregas, larritu edo" - (Ba hola erdalduna edo elkartuz gero, laguna etorritz gero ba, berba egin baino egin ez gurago harekin, larritu edo)

leku genitiboa:

"Arin etorriko berduria da" - (Arin etorriko berdura da)

"Baseas iñekoak siren" - (Basarekin eginekoak ziren)

"Bai atxine, almuedak, ollosko forme, ollo lumeas iñekoak ote siren" - (Bai antzina, burukoak, oilasko itxura, oilo lumarekin eginekoak egoten ziren)

23.4. PARTIZIPIOEN GEHIGARRIAK

Izenburu honen azpian partizipioari erans dakizkiokeen posposizioak eta gainerako

gehigarriak aurkeztuko ditugu; era berean erabilera agerrarazteko esaldi eredu batzuk emango ditugu.

arren:

"Bai diru asko emon arren be, ser ixengo san ba?" - (Bai diru asko eman arren ere, zer izango zen ba?)

"Gixon bateri, mille edo brimille peseta kendu arren, e, beyek ote sien orduen iru mille pesetan ta, baye dirue iste san" - (Gizon bati, mila edo bi mila pezeta kendu arren, behiak egoten ziren orduan hiru mila pezetan eta, baina dirua izaten zen)

"Orrek egon arren, orrek katxine ta, jo iten bosu, ta bide erdien lotzean batzu esan allegetan, askena jo bear ixeteun bai" - (Horiek egon arren, horiek katxina eta, jo egiten baduzu, eta bide erdian lotzen bazaizu ez zen ailegatzan, azkena jo behar izaten zuen bai)

arrik:

"Baye a botaarrik eseuen urteten, e?" - (Baina hura bota arrik ez zuen irteten, e?)

"Bai arean botaten tzu se tapakeran lurre pentzeu arrik gitxi yoaten dakie, da, gero apur bet betetan dus" - (Bai arean botatzen diogu ze tapatukeran lurra pentsatu arrik gutxi joaten zaie, eta, gero apur bat betetzen ditugu)

"Eiñarrik bestera koite san, ta iten da oin be, nik euki dot, bedarra ein, eta makinea etorteko, enfardadorea etorteko, eta ein errayak, eta eurie koyu, ba denpora onean inte" - (Egin arren bestera koiuten zen, eta egiten da orain ere, nik eduki dut, belarra egin, eta makina etortzeko, enfardadorea etortzeko, eta egin lerroak, eta euria hartu, ba eguraldi onean eginda)

artean/arte:

"Areas sartze san labagarrie, da gero a, erretan yoate sanean, yoate san ba, berotu artean" - (Harekin sartzen zen labagarria, eta gero hura, erretzen joaten zenean, joaten zen ba, berotu artean)

"Ta ba akabe artean eukite seudien, gero litro bi gu deuna bi, ba gu deuna bat" - (Eta ba

amaitu artean edukitzen zuten, gero litro bi gura duena bi, ba gura duena bat)

"Estakit ba senbet denporan eukite seudien gatza ondo artu arte, ta gero imini beste sati bet, eta areri be gatza ganera, gero iminte eudien a pisuegas, eta alantxe!" - (Ez dakit ba zenbat denboran edukitzen zuten gatza ondo hartu arte, eta gero ipini beste zati bat, eta hari ere gatza gainera, gero ipintzen zuten hura pisuarekin, eta halaxe!)

arik... arte(n):

"Ta arik eta au emekoa, kendu artean estate kendu kalenturea" - (Eta harik eta hau hemengoa, kendu arte ez zait kendu kalentura)

"Txorisoak, e, be eskeite okiten die, arik eta siketu arten" - (Txorizoak, ere eskegita edukitzen dira, harik eta sikatu artean)

"Elexara esan sartzean arik eta abadea etorri artean" - (Elizara ez zen sartzen harik eta abadea etorri artean)

"Arik eta limosnea emon artean ekin an" - (Harik eta limosna eman artean ekin han)

baño lelau, baño lenau:

"A makinea baño lelaukoa ixen san" - (Hura makina baino lehenagokoa izan zen)

"Oin yan barik egongo dires geurko gasteak, olan on baño lelau" - (Orain jan barik egongo dira gaurko gazteak, hola egon baino lehenago)

"Bai ori, ori sartu baño lenau esan gurosu suk" - (Bai hori, hori sartu baino lehenago esan gura duzu zuk)

"Bueno erein baño lenau iten gendusin, asatzak esate sien, edo palu betas, edo orri betzukas, olan imini iledak, gero ayen bitartean, nondi erein dosun yakiteko" - (Beno erein baino lehenago egiten genituen, azatzak esaten ziren, edo palo batekin, edo orri batzuekin, hola ipini ilarak, gero haien bitartean, nondik erein duzun yakiteko)

baisen lelau/baixen lelau:

"Amalau urte baixen lelau batan bat, e, sartuko san fraille" - (Hamalau urte baino lehenago baten bat, sartuko zen fraide)

barik:

"Nik entzun in dot ba, beye euki dot ausnar in barik" - (Nik entzun egin dut ba, behia eduki dut hausnar egin barik)

"Ori in bea da apur bet metu, metu, lodi itxi barik" - (Hori egin behar da apur bat mehetu, mehetu, lodi utzi barik)

"Aurten ikutu be in bari taus" - (Aurten ikutu ere egin barik daude)

"Semea on san, e, karrerea akabeute, eta kolokeu barik on san" - (Semea egon zen, karrerea amaituta, eta kolokatu barik egon zen)

esean:

"Loye garbitu ondo in esean" - (Lohia garbitu ondo egin ezean)

"Olango beyek enterreu in bear ixete sien, ta erremendaderik euki esean noberak aguanteu bear ixete tzen" - (Holako behiak lurpetu egin behar izaten ziren, eta ermandaderik eduki ezean norberak eutsi behar izaten zion)

ordureko:

"Allegeu ordureko, ba, geu be an, eta, esnea falta badosu edo sopra badekosu edo negosiok, esta?" - (Ailegatu ordurako, ba, geu ere han, eta, esnea falta baduzu edo sopra badaukazu edo negozioak, ezta?)

orduko:

"Atxine lelango lelango medikamentue san, txala in orduko, botille ardaba" - (Antzina lehenengo lehenengo medikamentua zen, txahala egin orduko, botila ardaua)

"Ba bai konteu ite sien, e, onenbeste lumeru, batzutan ogei, beste batzutan amar, imiten gendusen, lumerue, ta a konteu akabeu orduko estaldute on bixiteurien, eta gero topetan asi" - (Ba bai kontatu egiten ziren, honenbeste zenbaki, batzuetan hogei, beste batzuetan hamar, ipintzen genituen, zenbaki, eta hura kontatu amaitu orduko

estalduta egon behar izaten zuten, eta gero topatzen hasi)

"Busturtu euenean soloan il akon bertan buelta bi emon orduko" - (Buzturtu zuenean soroan hil zitzaion bertan buelta bi eman orduko)

ta:

"Altzoan artute, erain te kanteu" - (Altzoan hartuta, eragin eta kantatu)

"Ori apurtute dau" - (Hori apurtuta dago)

"Esanta dau" - (Esanda dago)

"Nik oin jota dekoas indabak" - (Nik orain jota dauzkat indabak)

"Guk sikeran, nik alan dekot ulertute" - (Guk behintzat, nik hala daukat ulertuta)

"Yausten dan lekuen barrie brotata dau" - (Jausten den lekuan berria erneta dago)

ta gero:

"Il te gero bai, bustenetik obatu" - (Hil eta gero bai, buztanetik oratu)

"Ure ni eskondu te gero, or, e, etzea inte bixi giñela, orduen, e, ekarte dau ure, errire" - (Ura ni ezkondu eta gero, hor, etxea eginda bixi ginela, orduan, ekarrita dago ura, herrira)

"Gero yosten ikisi te gero, ba imi nendun, nik imi nun Derion, ba loja baten, nire aisteak euki sun pelukerie, ta nik yosten ite nendun" - (Gero josten ikasi eta gero, ba ipini nuen, nik ipini nuen Derion, ba loja baten, nire ahizpak eduki zuen ile-apaindegia, eta nik josten egiten nuen)

ta ensegida:

"Yayo ta ensegida espadeko amak bulerra, ba beyen esnea fuertea dala lar" - (Jaio eta behingoan ez badauka amak bularra, ba behien esnea gogorra dela lar)

"Iges edo oin urte bi, oin urte bi ixen san, piperrartean, piperrartean, yoan, etorri es, ta ikusi joten, yoan, garbitu suloa, ta egon begire ta, bapes, bueno, eskapeu te ensegida jota" - (Iaz edo orain urte bi, orain urte bi izan zen, pipar-artean, pipar-artean, joan, etorri ez, eta ikusi jotzen, joan, garbitu zuloa, eta egon begira eta,

bat ere ez, beno, eskapatu eta behingoan jota)

-ta atoan:

"Erreskero, origo gordine bai bota, origo gordine bai bota erreskero, baye, oin badau ser bat, preparamintu bet, ba erreantzako, in te atoan kentzen dotzu, esta pasetan ese be" - (Errez gero, olio gordina bai bota, olio gordina bai bota errez gero, baina, orain badago zer bat, preparamendu bat, ba erreentzat, egin eta atoan kentzen duzu, ez da pasatzen ezer ere)

-rik

"Arrotzea galdute oten da igual, a usteldute dau barrue ta, olloak yoateko ara, arrotze ikusirik, lelau ite sien orrek geusek, abiseriek imite sien, abiseriek" - (Arrautza galduta egoten da beharbada, hura ustelduta dago barrua eta, oiloak joateko hara, arrautza ikusirik, lehenago egiten ziren gauza horiek, abizariak ipintzen ziren, abizariak)

aunke:

"Aspian saborra eukiten deu txakolinek, aunke garbi egon, beti deko an beste barrike batera, kanbie eskoan a itxite, txarrau, galdu iten deu txakoline" - (Azpian zaborra edukitzen du txakolinak, garbi egon arren, beti dauka han beste barrika batera, aldatuz gero hura utzita, txarrago, galdu egiten du txakolina)

nai te

"A be sujetetako, se espabere, eurretik, e, burutik, e, astoak, e, bajatan badeu burue, burutik urtetan dotzo orrek, naite eukin tripea, amarrata, ba, eurrerantza korritan tze" - (Hura ere eusteko, ze ezpabere, aurretik, burutik, astoak, baxatzen badu burua, burutik irteten dio horrek, nahi eta eduki tripa, amarratuta, ba, aurrerantz korritzen die)

23.5. ADITZ IZENAK

keran

"Ayek saratea iteuren ibilkeran" - (Haiek zarata egiten zuten ibilkeran)

"Orduen ser ixengo san ba, txarrie ilkeran ba orduen, e, txarrie atoan, txarrie il esin da yan eser bere atoan esin yan" - (Orduan zer izango zen ba, txerria hilkeran ba orduan, txerria atoan, txerria hil ezin da jan ezer ere atoan ezin jan)

-tea:

"Basoan ibiltea ona da" - (Basoan ibiltzea ona da)

"Ori esatea esta ona" - (Hori esatea ez da ona)

"Entzutea badekot" - (Entzutea badaukat)

"Bonbak bai selango suloakin! Ta, suertea etzera sartu estea!" - (Bonbak bai zelako zuloekin! Eta, zortea etxera ez sartzea!)

-te les

"Tunturre da ixete les, orre deko tunturre, bultu bet eukite les, an urtetan dotzunean ori da tunturre" - (Tunturra da izate legez, horrek dauka tunturra, handitu bat edukitze legez, han irteten dizunean hori da tunturra)

"Ume asko ta ote san lekuen an ite seurien, au ixete les, goratu, te gero sabaldu" - (Ume asko eta egoten zen lekuan han egiten zuten, hau izatea legez, goratu, eta gero zabaldu)

-teak:

"Lastime emote tze saltzeak" - (Lastima ematen dio saltzeak)

-teari:

"Oin arexe pe itxi otzie etorteari" - (Orain haiexek ere utzi diote etortzeari)

-terik:

"Estako gustetan lurreri beti geuse batas ibilteri pe" - (Ez zaio gustatzen lurrari beti gauza batekin ibiltzerik ere)

"Ori Agirre ori, dekoten entzuterik,
Ameriketara yoan salakoa, fijo enau baye"
- (Agirre hori, daukadan entzuterik,
Ameriketara joan zelakoa, fixo ez nago
baina)

"Estat aserteu ikusterik" - (Ez zait suertatu
ikusterik)

"Niri etxat asarteu olakorik ikusterik inos" -
(Niri ez zait suertatu holakorik ikusterik
inoiz)

-teagatik

"Lelauko bakixu lelau geusek, lelauko sarrak,
ba txakoline etzean iteitik edo" -
(Lehenagoko badakizu lehenago gauzak,
lehenagoko zaharrak, ba txakolina etxean
egiteagatik edo)

"Geu pe euki due, ta ondiño ongo da Bilbon,
e, aisteak pisue euki seun, oin Madrillen
dau, se ya urte asko deko ta, bakarrik itxi
esiteaiti, se gixona il yakon" - (Geuk ere
eduki dugu, eta oraindino egongo da
Bilbon, ahizpak pisua eduki zuen, orain
Madrilen dago, ze ja urte asko dauka eta,
bakarrik ez uzteagatik, ze gizona hil
zitzaion)

"Es batzuk iminte otzien kabeserea, kabeserea
esaten dakona, ba, amarreteagaitik andik
kabeseratik, ba sokea, okerra bada astoa
edo segun selangoa dan, ba" - (Ez batzuek
ipintzen zioten kabezera, kabezera esaten
zitzaiona, ba, lotzeagatik handik
kabezeratik, ba soka, okerra bada astoa
edo segun zelakoa den, ba)

-tearrik

"Au yaten dot loditu estearrik" - (Hau jaten
dut ez loditzeagatik)

"Es afaldutearrik yoan dires" - (Ez
afaltzeagatik joan dira)

"Ondo es entzutearrik estot ulertu" - (Ondo ez
entzuteagatik ez dut ulertu)

-tearren

"Bueno lelengo asi nitzen ba, arriegas, orrek
marmolistek ite situen bearrak, arriek,
gurdias, kanposanture ekarten, amabost
urte, amasei urtas asi nitzen, aite defuntue
ba, etzean lotzearren" - (Beno lehenengo

hasi nintzen ba, harriarekin, marmolista
horiek egiten zituzten beharrak, harriak,
gurdiaekin, kanposantura ekartzen,
hamabost urte, hamasei urterekin hasi
nintzen aita defuntua ba, etxean
lotzearren)

"Lobeas etortearren ya kantzeu autobusek
eta, batetik bestera olan ibili estearren ta,
lobeas etortearren plasan lotu nintzen,
etorri atesan semea Algortakoa eta
Amorebietakoa, gasteana, etorri atesan
ara andrakas" - (Lobarekin etortzearren ja
nekatu autobusak eta, batetik bestera hola
ibil eztearren eta, lobarekin etortzearren
plazan lotu nintzen, etorri zitzaizkidan
semea Algortakoa eta Amorebietakoa,
gazteena, etorri zitzaizkidan hara
andreekin)

"Testamentu bet ei lei, testamentue, gerorako
euki estearren bearrik" (Testamentu bat
egin liteke, testamentua, gerorako ez
edukitzearren beharrik)

-ten:

"Urtiokas asi die ona etorten, oin urtiokas" -
(Urteokin hasi dira etortzen, orain
urteokin)

"Useta daueles beran umeagas, gero basoas
erasten igual, ta estotzu igual soltetan
esnea" - (Usatuta dagoen lez beraren
umearekin, gero bazoaz erazten
beharbada, eta ez dizu beharbada
soltatzen esnea)

"Kuadrillea batute, ausoak, iru lau auso edo,
etorri te, danan artean soloa sulotu, tapeu,
ta gero bestera, bata besteari laguntan" -
(Taldea batuta, auzoak, hiru lau auzo edo,
etorri eta, denen artean soroa zulatu,
tapatu, eta gero bestera, bata besteari
laguntzen)

-tera

"Armera ori da, ba olan eukitera, ta olan
eukitera, ain diferentzie ser da yantzie
emoten dotzo ganadueri" - (Armera hori
da, ba hola edukitzera, eta hola edukitzera,
hain diferentzia zer da jantzia ematen dio
ganaduari)

-terik

"Ondikarren rubiaoak, badaus, yayoterik" -
(Oraindikarren ilegorriagoak, badaude,
jaiotzetik)

-teko:

"Bai uxetu iteko ixete san auxe, san juan
besperako, suek, san juan bagillea" - (Bai
uxatu egiteko izaten zen hauxe, San Juan
bezperako, suak, San Juan bagilak)

"Bueno abadeak edo elixakoak gordeten
deude, jenteari emoteko, jenteari bekokien
iteko" - (Beno abadeak edo elizakoak
gordetzen dute, jendeari emateko, jendeari
bekokian egiteko)

"Au ekarri dot berorrek eroateko" - (Hau
ekarri dut berorrek eroateko)

"Berdurea jaten dot loditu esteko" - (Berdura
jaten dut ez loditzeko)

"Au ekarri dot berorrek eroateko" - (Hau
ekarri dut berorrek eroateko)

-teko moduen/modukoa

"Esnea emoteko moduen, errapea badeko,
baye errapea txarto ego letike, ta orduen
bear eiteko be bai, ta adarrari, adarrak
ondo badekos" - (Esnea emateko moduan,
errapea badauka, baina errapea txarto
egon liteke, eta orduan behar egiteko ere
bai, eta adarrei, adarrak ondo badauzka)

"Estakit esateko moduen" - (Ez dakit esateko
moduan)

"Oin be an ibil gara, tomateak imiten, ta bier
etzi yateko modukoa tekus" - (Orain ere
han ibili gara, tomateak ipintzen, eta bihar
etzi jateko modukoak dauzkagu)

24. POSPOSIZIOAK

Atal honetan, daukaten garrantzia gogoan
erabilita, jaso ditugun posposizioak eta
euron erabileren esaldi eredu batzuk
ematen ditugu.

alboan: alboan

"Alboan pareute, begiek urten bearrean areri
adi, selan iten deuden" - (Alboan paratuta,
begiak irten beharrean hari adi, zelan
egiten duten)

"Alabeari artu gentzen Mungiko istitutoan
alboan pisue" - (Alabari, hartu genion
Mungiako institutuaren alboan pisua)

aldean: aldean

"Eskondu gintzeneko aldean buf! Eskondu
gintzeneko aldean elegantea ixen san a" -
(Ezkondu gineneko aldean buf! Ezkondu
gineneko aldean dotorea izan zen hura)

antza: antza**antzean: antzean****antzekoa: antzekoa**

"Onek patoan antzekoa tire" - (Hauek
ahateen antzekoak dira)

antzera: antzera

"Oin be lengo antzera kendu otzos, Samudiok
eta Loyuk" - (Orain ere lehengo antzera
kendu dizkio, Zamudiok eta Loiuk)

antzerakoa: antzerakoa**arte: arte****artean: arte, artean**

"Senbet denpora, eskondu artean, edosein
moduten be, ta gero be ba urte bat edo
bien segidu neuen" - (Zenbat denbora,
ezkondu artean, edozein modutan ere, eta
gero ere ba urte bat edo bian segitu nuen)

aspian: aspian

"Espaldan basoas, ta peligro andie badau,
emen surrunen aspian sartu, pare bat" -
(Maldan bazoaz, eta arrisku handia
badago, hemen zurrunaren aspian sartu,
pare bat)

baixen, baisen: baino

"Txanpana baixen karu salduten deure sera" -
(Txanpana baizen garesti saltzen dute
zera)

baixen lelao: baino lehenago**bakoa: bakoa, gabekoa**

baño: 1. konparatiboetan berdintasuna
adierazteko erabiltzen da. 2. baizik, baino
"Nik estoas bi baño esetu" - (Nik ez ditut bi
baino ezagutu)

"Nik etzean estot erain ba paño" - (Nik etxean
ez dut erein bat baino)

"A baño sarrau beste bat eukien orrek" -
(Hura baina zaharragoa beste bat
zeukaten horiek)

barik: barik

"Ba, selan esan dot ba elex, ui! akordu barik
ikutu dotzut oneri" - (Bai, zelan esan dut
ba eliz, ui! konturatu barik ikutu dizut
honi)

barru: barru

"Segun, es, ikusten danean, ba, koño! Onek ya emetik egun gitxi barru ya inde yaok" - (Segun, ez, ikusten denean, ba, ño! Hauek ja hemendik egun gutxi barru ja eginda zagok)

begire: begira, zain

"Berak koiteun bitarteren bat begire oteko" - (Berak koiuten zuen bitarteren bat begira egoteko)

"Iges edo oin urte bi, oin urte bi ixen san, piperrartean, piperrartean, yoan, etorri es, ta ikusi joten, yoan, garbitu suloa, ta egon begire ta, bapes, bueno, eskapeu te ensegida jota" - (Iaz edo orain urte bi, orain urte bi izan zen, pipar-artean, pipar-artean, joan, etorri ez, eta ikusi jotzen, joan, garbitu zuloa, eta egon begira eta, bat ere ez, beno, eskapatu eta behingoan jota)

beste: beste

"Sure beste urte dekot nik" - (Zure beste urte daukat nik)

"Orre teko aman beste urte" - (Horrek dauka amaren beste urte)

"Kasik neu peste urte deko onek eta" - (Kasik neuk beste urte dauka honek eta)

"Or ingo deure, bearra geur be, or, es lelakon beste baye geur be, se arto gitxi ereiten da oin, non ereiten da ba?" - (Hor egingo dute, beharra gaur ere, hor, ez lehenagoaren beste baina gaur ere, ze arto gutxi ereiten da orain, non ereiten da ba?)

besteko: bestekoa, bezain

bile, bille: bila

"Setarako yoaten sare orti pile? Estekosue etxean? Ser eskatu bear dotzesue?" - (Zetarako joaten zarete hortik bila? Ez daukazue etxean? Zer eskatu behar diezue?)

"Bilboti bile etorten die" - (Bilbotik bila etortzen dira)

"A, etxean jote sienean gariak, ekarri sera, yoan gurdias bile, ta ekarri te, etorte san" - (Hura, etxean jotzen zirenean gariak, ekarri zera, joan gurdiaekin bila, eta ekarri eta, etortzen zen)

falta, faltan: falta, faltan

"Seme gasteari au beko pisuau, gure faltan, e, emonta dekotzu" - (Seme gazteari beheko pisu hau, gure faltan, emanda daukakiogu)

"Yulenen aubea, il san, eun urte iteko egun bet edo egun bi faltan" - (Julenen aubea,

hil zen, ehun urte egiteko egun bat edo egun bi faltan)

ganean: gainean

"Ba imin yeurek, bai, iminten yeurek, eriden ganean da, biguntako ta" - (Ba ipini ditek, bai, ipintzen ditek, zauriaren gainean eta, biguntzeko eta)

ganera: gainera

grasiek: eskerrak

"Oin grasiek botikeari ostean elei koyu eser" - (Orain eskerrak botikari ostean ez liteke hartu ezer)

ingeru: ingurua

ixen esik, ixen esean: izan ezik

"Artu eurien danak, batek edo bik ixen esean" - (Hartu zuten denek, batek edo bik izan ezean)

"Niri olango preguntek iten arpelik etorri sarie, nik estakit eser ta, estot emetik urten inos ta, solora ixen esean" - (Niri holako itaunak egiten alperrik etorri zarete, nik ez dakit ezer eta, ez dut hemendik irten inoiz eta, sorora izan ezean)

klasean: eran

"Bakotxak, e, beras, beren klasean, e, en jeneral onena dekie, e? nik estot, e, diferenteas estot inos in" - (Bakoitzak, berearekin, bere eran, gehienetan onena daukate, e? nik ez dut, desberdinarekin ez dut inoiz egin)

klasera: erara

"Itayan klasera deko orrek" - (Igitaiaren erara dauka horrek)

kontra, kontran: kontra

"An goiko elixa kontran, goasela eskerretara mojan orma kontran" - (Han goiko eliza kontran, goazela ezkerretara mojen horma kontran)

"Iges ta oin urte bi an, e, oin kipulle ta dausen lekuen, e, munen kontran ikusi dot" - (Iaz eta orain urte bi han, orain kipula eta dauden lekuan, munaren kontra ikusi dut)

kontrakoa: kontrakoa

"Eta a ixen san abadean kontrakoa ba itzela!" - (Eta hura izan zen abadearen kontrakoa ba itzela!)

kontrara: kontrara

"Kontrara yoaten basan ba esebes" - (Kontrara joaten bazen ba ezer ez)

konture: kontura, lepotik

"Nik ite nendusen barreak euron konture" - (Nik egiten nituen barreak euron kontura)

langoa: lakoa, bezalakoa

"Sera langoa ba esetu dot amen nik" - (Zera lakoa ba ezagutu dut hamen nik)

"Bai, baye itxite egon gares denpora askoan, aistute, baye gu lango etzeatan esta aistu orrenbeste" - (Bai, baina utzita egon gara denbora askoan, ahaztuta, baina gu lako etxeetan ez da ahaztu horrenbeste)

les: legez

"Esate baterako au ixete les, garie dana garie, gero otan egote san, garie dana, iten sendun au" - (Esate baterako hau izatea legez, garia dena garia, gero otean egoten zen, garia dena, egiten zenuen hau)

modu antzean: modu antzean

"Guk aprobetxeu ori nik ontxe emote tzet beyeri, beratú, uras, geubean edo bota uretan, ta beratú bigundu deiten, ta gero pentzue bota ta, pulpean modu antzean" - (Guk aprobetxatu hori nik oraintxe ematen diot behiari, beratú, urarekin, gauean edo bota uretan, eta beratú bigundu dadin, eta gero pentsua bota eta, pulparen modu antzean)

moduen: moduan

"Estakit esateko moduen" - (Ez dakit esateko moduan)

"Beste batzu taus arrayek, arrayen, e, moduen samea lusea dekienak, anditzarrak, erdi bilusik" - (Beste batzuk daude arraiak, arraien moduan sama luzea daukatenak, handitzarrak, erdi biluzik)

modukoa: modukoa

"Telean modukoa? Olan bueltaka" - (Ehunaren modukoa? Hola bueltaka)

"Sure moduko gastea nas" - (Zure moduko gaztea naiz)

modules: modulez, moduan

"Ori nekes, e? Giau ixen san radio modules musikea" - (Hori nekez, e? Gehiago izan zen irrati modulez musika)

"Jesus! Marieu iten deu, grilluen modules baye beste ser bat" - (Jesus! Zorabiatu egiten du, txirri-txirriaren modulez baina beste zer bat)

"Oin naboa iten dosun modules?" - (Orain arbia egiten duzun modulez)

ondoan: ondoan

"Etzean ondoan on san, ori ermitea, baye etzean estait inor bixi bada oin" - (Etxearen ondoan egon zen, ermita hori, baina etxean ez dakit inor bizi den orain)

"Patinen ondoan dau" - (Patinaren ondoan dago)

ordes: ordez

"Satzan ordes da" - (Satsaren ordez da)

ostean: ostean

"Mendien ostean bixi san" (Mendiaren ostean bizi zen)

tipoan: eran

"Adarrak, e, tipoan, busterrien imiteko tipoan, e, badekos, batzuk oten die olan" - (Adarrak, eran, buztarrian ipintzeko eran, badauzka, batzuk egoten dira hola)

tipora: erara

"Iten gendusen jo gero, iminte sien euskie ondo koiteko, se ostean joteko gogor ote sien, ta iminte sien, olan igual dosena erdi, dosena erdi edo lau bost edo sei igual, olantxe iminte sien arri betzuk, auxe daun tipora, ondo iminite, eta gero, eta gero amen arrien ganean jote sien orrek galtzuok, orrek gariok" - (Egiten genituen jo gero, ipintzen ziren eguzkia ondo hartzeko, ze ostean jotzeko gogor egoten ziren, eta ipintzen ziren, hola beharbada dozena erdi, dozena erdi edo lau bost edo sei beharbada, holaxe ipintzen ziren harri batzuk, hauxe dagoen erara, ondo ipinita, eta gero, eta gero hamen harriaren ganean jotzen ziren galtzu horiek, gari horiek)

25. ESKLAMAZIOAK

Gure korpusean jaso ditugun esklamazioak eta, hainbat kasutan, euren erabileraren testuinguruak ere batzen ditugu atal honetan.

aikor: hara, hara hor

bai obeto: bai hobeto

bai sera: bai zera

bastarrak: bazterrak, asko

demoniño: demonio

"Setan demoniño sartu bea deure orretan!" - (Zertan demonio sartu behar dute horretan!)

ene: ene

esato: horixe

garrotea: garrotea

grasiek: eskerrak

Jesus Maria: Jesus Maria

keba: bai zera

"Keba! Nik onek estoas ikusi" - (Bai zera! Nik hauek ez ditut ikusi)

klaro: jakina

"Andrea libretan da, klaro!" - (Andrea libratzen da, jakina!)

listo: listo

"Oin bakixu oin ser ingo deuren? Nora erretireu badeukie, ara listo yoan" - (Orain badakizu, orain zer egingo duten? Nora erretiratu badaukate, hara listo joan)

madariketu: madarikatu

majo: majo, ederto

"Astoan ganean yarrite, majo!" - (Astoaren ganean jarrita, majo!)

oba: hobe

"Euki baneun oba!" - (Eduki banuen hobe!)

parra-parra: parra-parra

"Samudiora sasprietako mesara yoate nintzen sortzietako trena emen koiteko, Derion koyu bear ixete nendun, e? Se Samudion koyu esko, parajetxuau eukite nendun Samudiotik, baye, oin, e, dirue parra-parra edozeinek ibiltzen deu baye orduen, e, dirue eskas ote san, eta, trena Deriotik pageta ostien niri" - (Zamudiora zazprietako mezara joaten nintzen zortzietako trena hemen koiuteko, Derion koiu behar izaten nuen, e? Ze Zamudion koiuz gero, parajetxoago edukitzen nuen Zamudiotik, baina, orain, dirua parra-parra edozeinek erabiltzen du baina orduan, dirua eskas egoten zen, eta, trena Deriotik ordaintzen zidaten niri)

pentzeu bes: pentsatu ere ez

sentalle, sentelle: zentaila

"Senallea edo sentalle edo, ori an bertan yakiek nik baisen obeto" - (Seinalea edo zentailea edo, hori han bertan zakitek nik baizen hobeto)

sentallekoa: zentailakoa, itzela

sikera: sikera, behintzat

"Guk sikera, nik alan dekot ulertute" - (Guk behintzat, nik hala daukat ulertuta)

sikera be: sikera ere

"Alderdi beteti bestera maye imini, eta guk beterik euki gendun, gu txaten emon geuntzien sikera be" - (Alderdi batetik bestera mahaia ipini, eta guk beterik eduki genuen, guk jaten eman genien sikera ere)

tirok: tira ezak

26. ESAKUNAK

Atal honetan adjektibo eta aditzondo esakuntzat erabiltzen direnak eta esaldi egin batzuk aurkezten ditugu.

alako baten: halako baten

apur bet gora bera, apurkorabera: apur bat gora behera

"Apurkorabera euskitik ite seurien, e, amabiek nos dien, euskie ia non dauen" - (Apur bat gora behera eguzkitik egiten zuten, hamabiak noiz diren, eguzkia ea non dagoen)

atzekos aurrera: atzekoz aurrera

"Atzekos aurrera yantzi dosu" - (Atzekoz aurrera jantzi duzu)

basterrak bete: bazterrak bete

bertan bera itxi: bertan behera utzi

bide bates: bide batez

boltza onekoa: poltsa onekoa

boltza txarrekoa: poltsa txarrekoa

burus bera: buruz behera

"Bai txikie ta eskeiten da goyen burus bera" - (Bai txikia eta eskegitzen da goian buruz behera)

esta geuse asko: ez da gauza asko

geube geueskoantzako: gaua gauezkoentzat

gois gorritxu aurie gerotxu: goiz gorritxo euria gerotxo

iluntze gorritxu aixea gerotxu: iluntze gorritxo haizea gerotxo

justo-justoan: justu-justuan

"Gero orduen asi ein sen justo justoan erromerian, e, ori ibilte san" - (Gero orduan hasi egin zen justu-justuan erromerian, hori ibiltzen zen)

"Sei ilebete justo-justoan bixi ixen san" - (Sei hilabete justu-justuan bizi izan zen)

kakoa on: gakoa egon

"Or dau kakoa!" - (Hor dago gakoa!)

kontrako bidetik yoan: kontrako bidetik joan

len baño len: lehen baino lehen, lehen baizen lehen

modu onekoa: modu onekoa

osorik egon, osorik on: osorik egon

"Osori dau ori?" - (Osorik dago hori?)

piti bet gora bera: piti bat gora behera

san antoniok yagon daile: San Antoniok jagon dezala
sayetzak ausi: saihetsak hautsi, deierak jo; ezkontzeko daudenen gainean esaten da
"Sayetzak ausi bai, ori ixete san broma bat, a, esate yotziena, eskontan danagaitik" - (saihetsak hautsi bai, hori izaten zen txantxa bat, esaten ziotena, ezkontzen denaren gainean)
txanka mea: txanka mehea
"Ori da txankamea" - (Hori da txanka mehea)

27. BERBA ERATORRIAK

Atal honetan eratorpen atzizkirik garrantzitsuenak aurkezten ditugu. Era berean, bakoitzeko jaso ditugun adibideak ere emango ditugu.

ADA/KADA

abiedea: abiada
aginkadea: haginkada, hozkada
aldikede: aldikada
arraskadea: urratada
arrikadia: harrikada
atxurkadea: aitzurkada
baldekadea: baldekada
biorkadea: bihurkada
dardakadea: dardakada
eskutadea, eskutede: eskutada
estenkadea: eztenkada
garrotadea: garrotada
gurdikadea: gurdikada
gurtede, gurtade: gurtada
kamiokadea: kamioikada
karlistadea: karlistada
korrokadea: korrokada, gorazkoa
ostikede: ostikada
pasadea: pasada
pikadea: ziztada
piltxikadea: piltxikada, zimikoa
surrutadea: zurrutada
txapladea: zaplada
txatxamarkadea, txatxamurkede: txatxamarkada, urratua
unekadea: unekada

ALDE

barrukaldea: barruko aldea
bekaldea: beheko aldea
bestaldea, bestealdea: auzoa, beste aldeko auzoa
elixaldea: elizaldea
eurrealdea: aurre aldea
goxaldea: goizaldea
iparraldea: ekialdeko haizea

ALDI

egotaldie: egotaldia
errietaldie: errietaldia
kantaldie: kantaldia
sutaldie: sutaldia
umaldie: umaldia

BAKO

koibakoa: koiubakoa
labrebakoa: landubakoa
mendebakoa: mendabakoa
pasentzibakoa: pazientziabakoa
titulubakoak: titulubakoa

BARRI

il barrie: hil berria
in barrie: eginberria
yayoparrie: jaioberria

DATE/DADE

borondatea: borondatea
kantidadea: kantitatea
konformidedea: adostasuna
kontabilidea: kontabilitatea
libertadea: libertatea
nesesidedea: beharrizana
nobedadea: nobedadea
posibilitadea: posibilitatea

DI/TI

barrutie: barrutia
piñudie, pinudie: pinudia

sagardie: sagardia

DUN

areadune: hareaduna
astodune: astoduna
berbaldune: berbalduna
burudune: buruduna
erdeldune, ergeldune: erdalduna
euskeldune: euskalduna
gorridune: gorriduna
grasadune: koipeduna
kapaxedune: kapaxaduna
kirrudune: kirruduna
kristeldune: kristalduna
loradune: loreduna
modudune: moduduna
ogaserudune: ohezeruduna
pañeludune: zapiduna
partikedune: partikaduna
petroleogodune: petrolioduna
puntilledune: puntiladuna
radiodune: arraioduna
santagedadune: santa agedaduna
serdune: zerduna
truboyedune: trumoiduna
txarridune: txerriduna
untzedune: iltzeduna
yatune: jatuna, ondo jaten duena

ERIA

barberie: bizartegia
errerie: errementaria
ferreterie: ferreteria
karneserie, karniserie: harategia
panaderie: okindegia
pelukerie: ile apaindegia, bizartegia

Atzizki honen bidez multzoa ere adierazten da:

gasterie: gazteria

ERA

Atzizki honen erabileretako bat neurria adierazteko da:

lodiarea: lodiera
sabalarea: zabalera

sakonerea: sakonera

Egilea adierazteko erabiltzen da, baina andrezkoa denean:

bogaderea: bogadera
erregaterea: erregatera, erre kardaria (f.)
kosiñerea: sukaldaria (f.)
panaderea: okina
pandereterea: pandero jolea
parterea: emagina
pelukerea: ile apaintzailea
solterea: ezkonbakoa (m.)

Azkenik lekua edo objektua adierazteko ere erabiltzen da:

bañerea: bainuntzia
fronterea: frontera
gallinerea: oilo-tokia
kabeserea: kabezera
karterea: kartera
marinerea: marinera
neberea: hozkailua
sesterea: taloa gainean jartzeko egurrezko otzaratxo antzekoa
siminterea, siminderea: mintegia
tarterea: tartera

ERU

Atziki hau egile funtzioa adierazteko erabiltzen da:

almasenerue: tegi jagolea
barberue: bizargina
basurerue: barrenderoa, kale garbitzailea
dultzeinerue: dultzaina jolea
enplasterue: enplasteroa
fruterue: fruta saltzailea (m.)
kaminerue, kamiñerue: kamineroa, bide konpontzailea
kargerue: kargeroa
karreterue: karretero
karterue: postaria
kinkallerue: kinkaila saltzailea
koplerue: kopleroa
kosiñerue, kosinerue: sukaldaria
letxerue: esneketaria
obrerue: behargina, langilea
panaderue: oikina
sakerue: zaku-eroslea
tabernerue: tabernaria

telerue: ehun saltzailea

Egilea ez eze, lekua ere adieraz dezake,
adibidez:

baberrue: baberoa

metxerue: metxeroa

fruterue: frutontzia

morterue: morteroa, almaiza

basurerue: zabortegia

ETA

amesetea: ameseta, ametsa

lapurretea: lapurreta

olgetea: olgeta, jolasa

GARRI

baragarrie: barregarria

gosogarrie: gozagarria

ikusgarrie: ikusgarria

lotzagarrie: lotsagarria

negargarrie: negargarria

osasangarrie: osasangarria

Zer edo zeren materiala adierazteko ere
erabiltzen da:

aspigarrie: azpigarria

labagarrie: labegarria, laban sua egiteko
erabiltzen den materiala

sugarrie:ugarria

GIN

argine: hargina

beargine: behargina

sorgine, sorgiñe: sorgina

IK

alperrik, arpelik: alperrik

bakarrik: bakarrik

bareurik: baraurik

bernutzik: berna hutsik

beterik: beterik

bilusik, bilutzik: biluzik

bixirik: bizirik

esinik, ixinik: ezinik

gaxorik: gaixorik

gasterik: gazterik

gordinik: gordinik

ixarrik: itzarrik, esna

ixilik: isilik

kasik: kasik

kojorik: herrenka

majarik: majorik (f.)

makalik: makalik, gaixorik

marroirik: marroirik

ortosik: ortozik

osorik: osorik

posik: pozik

sabalik: zabalik

sutunik: zutunik, zutik

utzik: hutsik

KA

aginke: haginka

aitearenka: aitareнка

alboka: alboka

apurke-apurke: apurka-apurka

apurken-apurken: apurka-apurka

ausike, eusike: ahausika

bolaka: bolaka

bueltaka: bueltaka

girrintzeka: girrintzaka

inderka: indarka

kanteka: kantaka

karraka: korrika, karraderan

kartaka: kartaka

kiloka: kiloka

kukuke: kukuka

metroka: metroka

murruseka: murrusaka

orroaka: orroka

pikeka: pikaka

piltxike: piltxika

pitike-pitike, pitinke-pitinke: apurka-apurka

saltuke: saltoka

santzoka: zantzoka

sarataka: zarataka

satike: zatika

sokorruke: aldarrika

sotenka: zotinka

surrunka: zurrunka

tangadaka: tangadaka

tireka: tiraka

tiroka: tiroka

txatxamurke, txitximierke: txatxamarka
urrumedaka: urrumadaka
usike: haginka

KERIA

sorginkerie: sorginkeria
trasterie: trasteria, okerreria
txarkerie: txarkeria
txibiskerie: txbiskeria

KERA

asikerea: hasiera
esakerea: esaera
sartukerea: sartuera, sartukera
sineskerea: sineskera
urtekerea: irteera
yaskerea: janzkera

KI

biskarkie: bizkarkia
gastañakie: gztainakia
geixokie: gaixokia
giñarrakie: ginarrakia
sayeskie: saiheskia
txarrikie: txerrikia
urreskie: hurrizkia

LARI

agintarie: agintaria
andarie: andaria
bertzolarie, bersolarie: bertsolaria
dendarie: dendaria
errementarie: errementaria
errotarie: errotaria
kantarie: kantaria
kontalarie: kontalaria
ostikalarie: ostikolaria
pekatarie: bekataria
pelotarie: pilotaria
podalarie: inauslea
serrarie: zerraria
soñularie: soinularia
txistularie: txistularia
yantzarie: dantzaria

MENDU

alimentue: elikagaia
aparkamentue: aparkamendua
konosimentue: konortea, zentzua
medikamentue: medikamendua
mogimentue: mugimendua
pentzamintue: pentsamendua
sofrimentue: sufrimendua

NTZA

esperantzea: esperantza
labrantzea: nekazaritza
laskintzea: laskintza
tardantzea: tardantza

NTZIA

diferentzie: desberdintasuna
distantzie: distantzia
inportantzie: inportantzia, garrantzia
komenentzie: komenentzia
konsientzie: kontzientzia
pasentzie: eroapena
sustantzie: ganora

ORE

afiladorea: zorroztailea
defensorea: defendatzailea
erradorea: perratzailea
errentadorea: errentadorea
kantorea: kantaria
labradorea: nekazaria
pastorea: artzaina
peskadorea: arrain saltzailea
tasadorea: tasadorea
traidorea: traidorea

OI

abioya: hegazkina
bagoya: bagoia
biberoya: biberioia
busoya: gutunontzia

faldoya: faldoia
kamioya: kamioia
kartoya: kartoia
koskorroya: koskorroia
takoya: takoia

OR

mingorra: mingarria
pikorra: pikorra, hazkura eragiten duena

OSO

airosoa: airosoa
benenoso. pozoitsua
desgustoso: deserosoa
drogoso: drogoso, bihurria
famosoa: famosoa
grasioso: txantxosoa
gustoso: gustosoa
kariñosoa: amultsua
mañosoa: mainosoa
peligroso: arriskutsua
tretoso: tretosoa
txeposo: txeposo

PE

ankapea: hankapea
arbolapea: arbolapea
arripea: harripea
besapea: besapea
elespea, eleispea: elizpea
errapea: errapea
eskillarapea: eskailerapea
etzepea: etxepea
gerispea, geispea: gerizpea
maipea: mahaipea

RENGO

akaburengo: amaierengoa, azkena
atzerengo: atzerengoa

RO

barrero: berrero

lusero: luzaro

TAR

baserritarra: baserritarra
bilbostarra: bilbotarra
deriostarra: derioztarra
erandioztarra: erandioztarra
kanpotarra: kanpotarra
larrabetzuarra: larrabetzuarra
lesamarra: lezamarra
loyustarra: loiuarra
mugistarra: mungiarra
samudioztarra: zamudioztarra
sondikeztarra: sondikarra

TASUN

aberastasune: aberastasuna
argitasune: argitasuna
baltzitasune: belztasuna
berotasune: berotasuna
gogortasune: gogortasuna
iluntasune: iluntasuna
laguntasune: laguntasuna
okertasune: okertasuna
osasune: osasuna

TE

euritea: euritea
siketea: sikatea

TEGI

goitegie: goitegia
lastatie, lastie: lastategia

TI

bildurtie: bildurtia
eskertie: ezkertia
gusurtie: gezurtia
lotie: lotia
moskortie: mozkortia
negartie: negartia

TO/DO

ederto: ederto
obeto, ogoto: hobeto
ondo: ondo
polito: polito
txarto: txarto

TOKI

ollotokie: oilo-tokia
orrostokie: orraztokia
txarritokie: txerritokia
umetokie: umetokia

TZA

basatzea: basatza
edurtzea: elurtza
iluntzea: iluntzea
leitzea: leitzea

TZAILE

asur imintzailea: hezur ipintzailea
busterrintzallea: buztarri egilea

TZU

barrizue: berritsua
baketzue: baketsua
bedartzue: belartsua
indertzue: indartsua
uletzue: iletsua
urtzue: urtsua

UNE

argiunea: argiunea
aterrunea: aterrunea
gorriunea: gorriunea

ZINO/INO

afesinoa, afesiñoa: zaletasuna

atentziñoa: atentzioa
bereinkesinoa, bereinkasinoa: bedeinkazioa
dijestiñoa: digestioa
diputasinoa: aldundia
edukasinoa: heziketa
erreklamasinoa: erreklamazioa
errepetisinoa: errepikapena
eskursinoa, eskursiñoa: txangoa
estasinosa, estasiñoa: geltokia
fundisinoa: fundizioa
gratifikasinoa: saria
ilusinoa: ilusioa
indisinoa: injekzioa
infesinoa: zoldura
inpresiñoa: inpresioa
inundasinoa: uriola
jenerasiñoa: belaunaldia
kantzasinoa: nekadura
konbertzasinoa: elkarriketa
kondesino, kondesiñoa: baldintza
konfesinoa: aitorpena
konparasinoa: konparazioa
konplikasinoa: konplikazioa
kontestasinosa: erantzuna
kontribusinoa: kontribuzioa
kustinoa: kuestioa
liberasinoa: askapena
maldesinoa, maldesiñoa: madarikazioa
obligasinoa: derrigortasuna
okasinoa: aukera
orientasinoa: orientabidea
prosesinoa: prozesioa
separasiñoa: banaketa
tebisinoa: tebibista
tentziñoa, tentzinoa, tensinoa: tentsioa
tradisinoa: tradizioa

ZKO

alanbraskoa: alanbrezkoa
algodoiskoa: algodoizkoa
andraskoa: andrazkoa
arriskoa: harrizkoa
bayetaskoa: baietazkoa
burniskoa, burriñeskoa: burdinazkoa
egurrezkoa: egurrezkoa
erderaskoa: erdarazkoa
euskeraskoa: euskarazkoa
firuskoa: firuzkoa, harizkoa
gaueskoa: gauezkoa
gixoneskoa: gizonezkoa

gomaskoa: gomazkoa
itzeleskoa: itzelezkoa
koloreskoa: kolorezkoa
kristeleskoa: kristalezkoa
lanaskoa: artilezkoa
lurreskoa: lurrezkoa
maoneskoa: mahoizkoa
marmoleskoa: marmolezkoa
metaleskoa: metalezkoa
narraskoa: narrazkoa
narruskoa: narruzkoa
oleskoa: oholezkoa
oñeskoa: oinezkoa
panaskoa: panazkoa
plastikuskoa: plastikozkoa
plomoskoa: berunezkoa
portzelanaskoa: portzelanazkoa
sementoskoa: porlanezkoa
sineskoa: zinezkoa
sotzeskoa: zotzezkoa
telaskoa: telazkoa, ehunezkoa

ZTO/DO

bixerdoa: bizardoa
sapastoa: zapaztoa
sorristoa: zorritztoa
ugerdo: ugerdoa

28. JUNTAGAILUAK

Atal honetan jaso ditugun juntagailuen zerrendarekin batera, euron erabileraren adibidetzat agertzen izan zaizkigun esaldi eredu batzuk ere emango ditugu.

aitik

"Juisioko aginek, orre tires atzerengo urtetan derenak, da esan igual, juisioko agine dekot urtetan, aitik ba laster badekosu juisioa, apur bet formalaoa ixengo sara" - (Juizioko haginak, horiek dira atzerengo irteten dutenak, eta esan beharbada, juizioko hagina daukat irteten, hagatik ba laster badaukazu juizioa, apur bat formalagoa izango zara)

"On siren abade bat don Juan, eta don Sebastian, don Sebastian mutilekas, eta don Juan neskakas, eta don Sebastianek burle ite yoskun, bo! onek neskak estakie

eser be, eta aitik no taki ba? mutilek askos giau" - (Egon ziren abade bat don Juan, eta don Sebastian, don Sebastian mutilekin, eta don Juan neskekin, eta don Sebastianesk burle egiten zigun, bo! hauek neskak ez dakite ezer ere, eta hagatik nork daki ba? mutilek askoz gehiago)

"Larrauri esaten dakon etze bi aitik yekok an kalle Larrauri ixena, etze bi!" - (Larrauri esaten zaion etxe bi hagatik zaukak han Larrauri kalea izena, etxe bi!)

bata... bestea...

"Bai alde baten pareu bata, ta bestean bestea, ta gero toketan dakona, pisu giau baeuken edo gitxiao baeuken an egoan diferentzie" - (Bai alde baten paratu bata, eta bestean bestea, eta gero tokatzen zaiona, pisu gehiago bazeukan edo gutxiago bazeukan han zegoen desberdintasuna)

"Bata arto gorrie, ta bestea artoa" - (Bata arto gorria, eta bestea artoa)

"Domeka dustiek es, domeka baten da bestean es, bestea Mugin, eta gero paseuren Sorrotzera" - (Domeka guztiak ez, domeka baten eta bestean ez, bestea Mungian, eta gero pasatu zuten Zorrotzara)

"Danak batzen gintzeseles etze ingerutxure, ba beti ote san batak ekarteun geuse bat, besteak beste bat" - (Denak batzen ginen legez etxe ingurutxora, ba beti egoten zen batak ekartzen zuen gauza bat, besteak beste bat)

"Yeusi san eta, erdu ona! ta ser? ba bata an intxunte ta bestea il" - (Jausi zen eta, erdu hona! eta zer? ba bata han etzanda eta bestea hil)

baye:

"Itxure ona igual eukingo deu, itxure ona igual, baye igual gero bestera urtengo deu" - (Itxura ona beharbada edukiko du, itxura ona beharbada, baina beharbada gero bestera irtengo du)

"Klasea taus tolosana pe, batzuk, e, txikitxuauak, besteak anditxuauak baye, ostantzean tolosanea" - (Motak daude tolosanak ere, batzuk, txikitxoagoak, besteak handitxoagoak baina, osterantzean tolosana)

"Nik estot a ein, e? Baye ikuste nau ori asko"
- (Nik ez dut hura egin, e? Baina ikusita nago hori asko)

"Ori neuk estot ein baye ein deurie, askok" -
(Hori neuk ez dut egin baina egin dute, askok)

"Selan esetu doten? Sarra san, baye" - (Zelan ezagutu dudan? Zaharra zen, baina)

be:

"Etzetik urten be esi lei in, e?" - (Etxetik irten ere ezin liteke egin, e?)

"Yosi es, amarreu iten da ori be" - (Josi ez, amarratu egiten da hori ere)

"Yayoten danean be erregiñea an doa" -
(Jaiotzen denean ere erregina han doa)

"Yosi es, amarreu iten da ori be" - (Josi ez, amarratu egiten da hori ere)

be bai:

"Ori iten da ur berotara bota ta urtu in bea da, ur berotara bota, otzas be bai, baye beroas arinao otzas baño" - (Hori egiten da ur berotara bota eta urtu egin behar da, ur berotara bota, hotzarekin ere bai, baina beroarekin arinago hotzarekin baino)

"Amen be garie ereite san, onen parajea be bai, Mugien be" - (Hamen ere garia ereiten zen, honen inguruan ere bai, Mungian ere)

"Entzun bai! Te ikusi be bai baye neuk estait"
- (Entzun bai! Eta ikusi ere bai baina neuk ez dakit)

"Orduen faldoirik esan egon, eta, oneri, oneri ba, neure bautisoko oyalas bautise san gure Yone Miren be bai" - (Orduan faldoirik ez zen egon, eta, honi, honi ba, neure bataioko oihalarekin bataiatu zen gure Jone Miren ere bai)

be bai... be bai...

"A! ori bai batzuri, ardauas ta gero manteu be bai, ta ardaua edaten be bai" - (A! hori bai batzuei, ardauarekin eta gero mantatu ere bai, eta ardaua edaten be bai)

"Ori salide ori san, segun dekoten, legidu be bai te, esan be bai, lenau amabirjinea pe, berrogeigarren egunean eroa euen, e, bere semetxu ori ba" - (Irteera hori zen, segun

daukadan, irakurri ere bai eta, esan ere bai, lehenago Amabirjinak ere, berrogeigarren egunean eroan zuen, bere semetxu hori ba)

be es:

"Entereu bes iñor badau espadau" - (Enteratu ere ez inor badago ez badago)

"Geitu, ta subea beyekana yoate san, bei beteri edate otzen bakarra segurua, bei beteri, danari bes, bateri" - (Deitu, eta sugea behiengana joaten zen, behi bati, denei ere ez, bati)

edo:

"A txupetan edo aistu iten dako estenkadea emotea" - (Hura txupatzan edo ahaztu egiten zaio eztenkada ematea)

"Okerra bada astoa edo segun selangoa dan, ba" - (Okerra bada astoa edo segun zelakoa den, ba)

"Es, itxiten gendusen, ollarra edo, ollandea ixen, ollandea aurrerako ta ollarra kendu" - (Ez, uzten genituen, oilarra edo, oilanda izan, oilanda aurrerako eta oilarra kendu)

Amaieran ere agertzen da zalantza adierazteko:

"Ori estimedu eroaten yuen jardinetarako edo" - (Hori estimatua eroaten ziaten lorategietarako edo)

edo... edo...

"Eta gero an etzeatan yoaten gintzesenean, edo erreseu, edo yantzan" - (Eta gero han etxeetan joaten ginenean, edo errezatua, edo dantzan)

"Eta gero ba an Saspi Kalleatan edo, abarketak falta dosusela edo kaltzetinek falta dosusela edo plasan estait ser dauena, an, e, ba iten gendun geuren konprea ta gero etzera" - (Eta gero ba han Zazpi Kaleetan edo, abarketak falta dituzula edo galtzerdiak falta dituzula edo plazan ez dakit zer dagoena, han, ba egiten genuen geurearen erosketa eta gero etxera)

"Es! edo frutea badau edo geuse sera badau etxean, baserri etzeatan, alangoak, ostantzean, bai, txarriek ilten sieles arek akabe artean, ba sayeskie, edo pernile, edo txarrikie, txarrikie prijidute" - (Ez! edo fruta badago edo gauza zera badago etxean, baserri etxeetan, halakoak, osterantzean, bai, txerriak hiltzen zirenez haiek amaitu artean, ba saiheskia, edo pernila, edo txerrikia, txerrikia frijituta)

"Lurmena tapetea da edo edurre edo lei fuerten bat" - (Lurmena tapatzea da edo elurra edo lei gogorren bat)

ala, ela:

"A! soloak! bai, munarrie sartute! munarrie sartute, marketa ya terrenoa batera ala bestera" - (A! soloak! bai, munarria sartuta! munarria sartuta, markatuta ja terrenoa batera ala bestera)

"Ondo esatea gurosu ela txarto? Ela seuk atara, ser dan?" - (Ondo esatea gura duzu ala txarto? Ala zeuk atera, zer den)

"Ointzu il da ori, ala estait, bixi da" - (Oraintsu hil da hori, ala ez dakit, bizi da)

"Esara akortan ala?" - (Ez zara gomutatzen ala?)

"Ak esateun ona etorte sanean, ser? Amen Txorierrien gariak eldu eskiñoan egun dustie tire Santi Mamiak ala?" - (Hark esaten zuen hona etortzen zenean, zer? Hamen Txorierrien gariak helduz gero egun guztiak dira Santi Mamiak ala?)

"Euntzik egon badau ela?" - (Ahuntzik egon badago ala?)

alde batetik...

"Sotzi illedako buruek, se ote sien artoa pe alde bateti ote sien, txagin artoa, san txikitxuau, artoa finau sala esateuren a" - (Zortzi ilarako buruak, ze egoten ziren artoak ere alde batetik egoten ziren, txagin artoa, zen txikitxoagoa, artoa finagoa zela esaten zuten)

"Alde batetik ite sien lar kiskeldu, da bestetik in barik lotu" - (Alde batetik egiten ziren lar kiskaldu, eta bestetik egin barik lotu)

es... es...:

"Esan egon, e, kurso bat es kurso bi, danok era batera, lenengoa, txikerrak andiek dustiek" - (Ez zen egon, kurso bat ez kurso bi, denok era batera lehenengoa, txikerrak handiak guztiak)

"Gure denporan esan egon es tentziñorik, es egon san, ba sera, kolesterolik es, esan egon ser txarri pes, sirkulasinori pes" - (Gure denboran ez zen egon ez tentsiorik, ez egon zen, ba zera, kolesterolik ez, ez zen egon zer txarrik ere ez, zirkulaziorik ere ez)

"Lenau eskendun euki, es biderik, es argirik, es, e, esebes, ta oin dana tekus, argie, ure, eta ba, len be bixi te oin be bixi, baye oin obeto len baño" - (Lehenago ez genuen eduki, ez biderik, ez argirik, ura, eta ba, lehen ere bizi eta orain ere bizi, baina orain hobeto lehen baino)

barres

"Ixin dotzut esan bakit barres" - (Ezin dizut esan badakit berriz)

"Eta saladea ser ixen san barres, etorte san saku bet olan imini lepoan, eta etorte san ta emoten sentzen igual, peseta bat emoten seuntzen ta" - (Eta txantxosoa zer zen berriz, etortzen zen zaku bat hola ipini lepoan, eta etortzen zen eta ematen zenion beharbada, pezeta bat ematen zenion eta)

ostean

"Ostean bertan lotzean dire" - (Ostean bertan lotzen dira)

"Oki nun kareta bat, oki nun, e, iminteko, ostean, e, estenkada be igual emoten deude" - (Eduki nuen karatula bat, eduki nuen, ipintzeko, ostean, eztenkada ere beharbada ematen dute)

"Errekea euki nun ba paraje, buru te gusti sartzeko an, e, mune bastarrean, ostean il ite neude, e?" - (Erreka eduki nuen paraje, buru eta guzti sartzeko han, muna bazterrean, ostean hil egiten naute, e?)

"Umeak botate itunean, e, ostean, saparrak, ayek kendu in bea dakos" - (Umeak botatzen ditunean, ostean, saparrak, haiek kendu egin behar zaizkio)

"Bai gero oin etor da gero, serera, Sanikolasera, baye ostean berton" - (Bai

gero orain etorri da gero, zerera, San Nikolasera, baina ostean berton)

ostera

"Ak andreak ostera ba dan dana iten deu, estona ta badona" - (Andre hark ostera ba den-dena egiten du, hika)

"Ortik ostera itxosoaldeko otza, auri aixea, afrontue esaten due" - (Hortik ostera itsasaldeko hotza, euri haizea, afrontua esaten dugu)

"Onek, e, onek gure lurrek estekie ortarikoak, onek gure lurre tire soltu soltu soltuek, lur baltzak, eta onek ostera onenak lur gogorak, one tire lur gorriek gogorak onek" - (Hauek, gure lur hauek ez daukate horietarikoak, gure lur hauek dira soltu-soltu-soltuak, lur beltzak, eta hauek ostera honenak lur gogorak, hauek dira lur gorriak gogorak hauek)

eta:

1. kopulatiboa

"Amen ayuntamintue, besterik esan egon, eta ayuntamintue, erriko ayuntamintue ta jusgedue egon sien, bertan" - (Hamen udaletxea, besterik ez zen egon, eta udaletxea, herriko udaletxea eta auzitegia egon ziren, bertan)

"Jai besperatan, olango jayek santiagoak eta etorte sienean ademas, bespera geuberarten eseuen itxiten gure amak imintea" - (Jai bezperetan, holako jaiak Santiagoak eta etortzen zirenean gainera, bezpera gauera artean ez zuen uzten gure amak ipintzea)

2. kausala

"Len imite san ladrillu beroa, berotan dauela beroak kenduten deu te" - (Lehen ipintzen zen adreilu beroa, berotan dagoela beroak kentzen du eta)

"Aurten be betetute dau gurean, txakoline bota bea da, sobreute, bai gero setako? Esteu iñok edaten ta" - (Aurten ere beteta dago gurean, txakolina bota behar da, sobratuta, baina gero zertarako? Ez du inork edaten eta)

"Gonea ta baskea esate otzien, ori nik esetu dot, geure etxean esetu dot eta" - (Gona eta baska esaten zieten, hori nik ezagutu dut, geure etxean ezagutu dut eta)

"Kirrin-karran baye itzel gustetan dakie, ori itea gustetan dakie, estakixu airen ibiltzen dies ta" - (Kirrin-karran baina itzel gustatzen zaie, hori egitea gustatzen zaie, ez dakizu airean ibiltzen dira eta)

nai:

"Atzera yoan bixiteuen, e, urten deuen lekure, emen urtetan baeuen, atzera, ona etor bixiteuen, aonantza etorri nai arantza yoan, urtetauen lekure atzera yoan bixiteuen" - (Atzera joan behar izaten zuen, irten duen lekura, hemen irteten bazuen, atzera, hona etorri behar izaten zuen, haonantz etorri nahi harantz joan, irteten zuen lekura atzera joan behar izaten zuen)

"Beinoneskoan nire lagune, sekorreana eroan nai eroan es igual dok" - (Behin honezkero nire laguna, zekorragana eroan nahi eroan ez berdin duk)

"Guk, e, euskera nai erdera bakixu nasteu iten dules" - (Guk, euskara nahi erdara badakizu nahastu egiten dugun lez)

"Orretara be estot euki afesinorik, nik probak etxean ite neusen, beyekas, txarto iteusenean yo, ta an be iten tzie idieri, yo, ixin deuela nai in deula yo" - (Horretara ere ez dut eduki zaletasunik, nik probak etxean egiten nituen, behiekin, txarto egiten zituenean jo, eta han ere egiten diete idiei, jo, ezin duela nahi egin duela jo)

sein:

"Esan egoten lelengoa sein bigarrena sein irugarrena" - (Ez zen egoten lehenengoa zein bigarrena zein hirugarrena)

"Matrallekoa bardin de olan sein olan" - (Matrailekoa berdin da hola zein hola)

"Bata sein beste igual igual da" - (Bata zein beste berdin-berdin da)

ostantzean/ostantxean:

"Klasea taus tolosana pe, batzuk, e, txikitxuauak, besteak anditxuauak baye, ostantzean tolosanea" - (Motak daude tolosanak ere, batzuk, txikitxoagoak, besteak handitxoagoak baina, osterantzean tolosana)

"Ainbet urte da, baye ostantzean, lelau elexara esan sartzen" - (Hainbat urte da, baina osterantzean, lehenago elizara ez zen sartzen)

"Ba astean bein edo, edo domeka arrastietan errosario ostean edo, abadeas, baye ostantzean maistrak eurek" - (Ba astean behin edo, edo domeka arrastietan errosario ostean edo, abadearekin, baina osterantzean maistrak eurak)

"Umore ona badeko iten deu baye ostantxean es" - (Umore ona badauka egiten du baina osterantzean ez)

espabe, espabere:

"Au sutea garbitu bear da espabe sorgiñek etorko dire ta yantzan ingo deude" - (Sute hau garbitu behar da ezpabere sorginak etorriko dira eta dantzan egingo dute)

"Ori Goenaga esan dotzuen etzea, estait bota badeure, oin bota badeure espaberen, e, ondiño egon da" - (Hori Goenaga esan dizudan etxea, ez dakit bota duten, orain bota badute ezpabere, oraindino egon da)

bearrean

"Kaltzetine imin bearrean igual eroan situsen abarkak, e, txapin barik barrutik, eta gero imini, ba pastorean antzean ser suri bet, seran, e, frakean ganetik" - (Galtzerdi ipini beharrean berdin eroan zituen abarkak, txapin barik barrutik, eta gero ipini, ba artzainen antzean zer zuri bat, zerean, prakaren gainetik)

"Ademas landareari iten tze askok, jo atxurregas, ta ori da akabue, se iten dosu, ba erpea, erpea batu, sabalen yoan bearrean" - (Gainera landareari egiten diote askok, jo aitzurrarekin, eta hori da akabua, ze egiten duzu, ba erpea batu, zabalean joan beharrean)

"Orre pe, txarra tire lurtxakurrek, orrek eiten deurie, gero, sera, siminteratan ta, eta gora igon bearrean, aspitik ebaiten tzus

landarak" - (Horiek ere, txarrak dira lurtxakurrak, horiek egiten dute, gero, zera, mintegietan eta, eta gora igo beharrean, azpitik ebakitzen dizkizu landareak)

se:

kausala

"Aren keas, erretiretan dire apur bet, auren seretik, bastarreraño, se kea esteu gure erleak" - (Haren kearekin, erretiratzen dira apur bat, euren zeretik, bazterreraino, ze kea ez du gura erleak)

"Juanitak esa osten esteu urten ondo se, on san ondo in barik intxurre" - (Juanitak esan zidan ez du irten ondo ze, egon zen ondo egin barik intxaurra)

"Urek artu deu, esta klase ona se urek artu deu" - (Urak hartu du, ez da mota ona ze urak hartu du)

konpletiboa

"Gure amak esa otzen se, bueno, atara bai mesea baye, onek gustiok, banan banan esango ditu abadeak?" - (Gure amak esan zion ze, beno, atara bai meza baina, hauek guztiok, banan-banan esango ditu abadeak?)

"Eurie bastante fuerte etorten danean orrek puxikek ataten tus, ta orrek esan gure deu se, eurie ingo deula igual fuerte" - (Euria nahiko indar etortzen denean puxika horiek ateratzen ditu, eta horrek esan gura du ze, euria egingo duela beharbada indar)

"Batzuk esa lei se, andiaoa tausela beste batzu paño, beste batzuk txikitxuaoak, ta beste batzuk, e, botaten deure andiaoa, argie andiaoa beste batzuk paño, ixerrak" - (Batzuk esan liteke ze, handiagoak daudela beste batzuk baino, beste batzuk txikitxoagoak, eta beste batzuk, botatzen dute handiagoo, argia handiagoo beste batzuek baino, izarrak)

"A! Esaten deure se, kukue kantetan daunean, dirue badekosu, diru asko eukingo sula, da espadekosu estosula eukingo" - (A! Esaten dute ze, kukua kantatzen dagoenean, dirua badaukazu, diru asko edukiko duzula, eta ez badaukazu ez duzula edukiko)

"Kukuek esaten deure se, kukue, e, saspi urten eskolara ibil dala eta kuku baño esteula ikisi, eta au kukuek asko ikis deula, iñon abien arrutzek ein te iñori umeak asi ason, kukuek iten tzosela" - (Kukuak esaten dute ze, kukua, zazpi urtean eskolara ibili dela eta kuku baino ez duela ikasi, eta hau kukuak asko ikasi duela, inoren habian arrautzak egin eta inori umeak hazarazi, kukuak egiten dizkiola)

se ... eta

"A be basas beterik, se eseun inok arregletan ta" - (Hura ere basaz beterik, ze ez zuen inork konpontzen eta)

"Geu pe euki due, ta ondiño ongo da Bilbon, e, aisteak pisue euki seun, oin Madrillen dau, se ya urte asko deko ta, bakarrik itxi esiteaiti, se gixona il yakon" - (Geuk ere eduki dugu, eta oraindino egongo da Bilbon, ahizpak pisua eduki zuen, orain Madrilen dago, ze ja urte asko dauka eta, bakarrik ez uzteagatik, ze gizona hil zitzaion)

"Enas akortan se urte asko da nik ikus dotela a be ta" - (Ez naiz gomutatzen ze urte asko da nik ikusi dudala hura ere eta)

se espabere/espabe

"A be sujetetako, se espabere, eurretik, e, burutik, e, astoak, e, bajatan badeu burue, burutik urtetan dotzo orrek, naite eukin tripea, amarrata, ba, eurrerantza korritan tze" - (Hura ere eusteko, ze ezpabere, aurretik, burutik, astoak, baxatzen badu burua, burutik irteten dio horrek, nahi eta eduki tripa, amarratuta, ba, aurrerantz korritzen die)

"Bai gatxa da ta ademas esaten deure ondo atara bea dala sustraye, e? se espabere atzera errepetitan deu" - (Bai gaitza da eta gainera esaten dute ondo atera behar dela sustraia, e? ze ezpabere atzera errepikatzen du)

sergaitik se

"Eurek egun gustietan esan bea deurela mesa bat, segaitik se, ba obligasinoa dekiela mesea emoteko" - (Eurek egun gustietan

esan behar dutela meza bat, zergatik ze, ba obligazioa daukatela meza emateko)

"Baye nik etzean beti, garireko, italletu, itallekas prepareta san segaitik se ondikarren siku egote san lurre eta emen lurre asko sertze san ba bere aroan koitako" - (Baina nik etxean beti, garirako, itailatu, itailekin prestatzen zen zergatik ze oraindinoarren siku egoten zen lurra eta hemen lurra asko zertzen zen ba bere aroan hartzeko)

"Kalabasea esan ona isten segaiti se kalabaseak koitauen ba orrias edo" - (Kalabaza ez zen ona izaten zergatik ze kalabazak hartzen zuen ba orriarekin edo)

ese

"Dana ingo seuen gixajoak ese, bedeatzi semealabagas seoser in bear ixengo seun te abarkak edo seoser" - (Dena egingo zuen gizajoak eze, bederatzi semealabarekin zer edo zer egin behar izango zuen eta abarkak edo zer edo zer)

29. MENDERAGAILUAK

Atal honetan erabiltzen diren menderagailuak batzen ditugu. Menpeko esaldi guztiak BA, LA eta N menderagailuetan oinarritzen direnez gero, menderagailu hauen arabera, sailkatu eta bakoitzaren erabileraren esaldi ereduak emango ditugu.

29.1. BA-

baldintza erreala oraina

"Nopera pe eurpi loi badeko esta itxure onekoa" - (Norberak ere aurpegia lohi badauka ez da itxura onekoa)

"Atzes baator ba ondo igual iten deure baye onena da aures etortea" - (Atzez badator ba ondo beharbada egiten dute baina onena da aurrez etortzea)

baldintza erreala iragana

"Amak titie eukiten baseun titie bota" - (Amak titia edukitzen bazuen titia bota)

"Yayo parrie ixen basan aingerue il da, bautise ta gero aingerue il da" - (Jaio

berria izan bazen aingerua hil da, bataiatu eta gero aingerua hil da)

"Yayo iten basan, geur arrastien, bier goxean bautisetan eroate gurien, e?" - (Jaio egiten bazen, gaur arrastian, bihar goizean bataiatzen eroaten zuten, e?)

baldintza irrealak

"Bai, egonesko, kanbioko jeneroa egonesko bai, ni paneko ejea, ondo, eta kanbietako, sano nau ni" - (Bai, egonez gero, kanbioko jeneroa egonez gero bai, nik baneuka ardatza, ondo, eta aldatzeko, sano nago ni)
"Basenki se iten nintzen, trankilo eukiteko ba" - (Bazeneki zer egiten nion, lasai edukitzeko ba)

zehir galdera

"Estait etorri bada" - (Ez dakit etorri den)
"Ya busterrintzalleak likideu, e, ya estait orti Gipuskoa aldetik edo badau arean" - (Ja buztarri egileak akabatu, ja ez dakit hortik Gipuzkoa aldetik edo dagoen arean)
"Or bijileu aber urteten badeu an" - (Hor sorotsi ea irteten duen han)

ba...be:

"Bueno emen senbetekoa bea da metro bikoa, an eukiteun sertzxu bet iminte, emen bestetxu et, emetik ona da metro bi, an ebei, edo ba t'erdikoa bada be, markeute, marketa orrek kordel orrek" - (Beno hemen zenbatekoa behar da metro bikoa, han edukitzen zuen zertxo bat ipinita, hemen bestetxo bat, hemendik hona da metro bi, han ebaki, edo bat eta erdikoa bada ere, markatuta, markatuta kordel horrek)

ba...les

"Olantxe botate itues, pilloan botate itues, patatea ixengo baletike les baye sagar klase bat" - (Holaxe botatzen dituzte, pilloan botatzen dituzte, patata izango balitz legez baina sagar mota bat)
"Saku beten sartu kapasak, eta gero imini ixera andie ta bertan umeak kumea balitike les, imini tapeute baye kapasakas kumea" - (Zaku baten sartu kapaxak, eta gero ipini

izara handia eta bertan umeak kuma balitz legez, ipini tapatuta baina kapaxekin kuma)

"Kabileak berak urten baño lelau, urtetan tzo an loreak, lorean klaseko bat, olan ser batzuk baletike les" - (Kabilak berak irten baino lehenago, irteten dio han loreak, lorearen erako bat, hola zer batzuk balitz legez)

ba... moduen

"Marka bat itxiten deu, koipea itxiko baleko moduen, e?" - (Marka bat uzten du, koipea utziko balu moduan, e?)

29.2. -LA

konpletiboa

"Orrek pentzetan dot nik esetu dotesela an goiko mojetan orma eskinen, one tiñosen orrek" - (Horiek pentsatzen dut nik ezagutu ditudala han goiko mojetan horma izkinean, honek dinozan horiek)

"Nik aite defuntueri entzu neutzen, euskieri aituas batera yakiteula berak ser ordu dan" - (Nik aita defuntuari entzun nion, eguzkiari adituaz batera jakiten zuela berak zer ordu den)

"Beterenariorak geuse bat esa osten, au garbi dau, aye takie matriserarte ser dauen, bai matrisen barruen estakie ser dauen, se esteure ikusten ta, ta an egon bea deu seguru, an barruen egon bea deule, seran batzuk, ba, au, iru atzamar ixitea les, iru atzamar, t'onek iru atzamar egon bea deule sabalik, sabalik, eta badaus ixite esteu injertoak agarretan, sabali padaus an injertoak agarretan deusela" - (Albaitariak gauza bat esan zidan, hau garbi dago, haiek dakite umetokiraino zer dagoen, baina umetokiaren barruan ez dakite zer dagoen, ze ez dute ikusten eta, eta han egon behar du seguru, han barruan egon behar duela, zeraren batzuk, ba, hau, hiru atzamar izatea legez, hiru atzamar, eta hauek hiru atzamar egon behar duela zabalik, zabalik, eta badaude itxita ez du txertoak hartzen, zabalik badaude han txertoak hartzen dituela)

"Estot pentzetan etorriko dala belu" - (Ez dut pentsatzen etorriko dela belu)

"Esan dotzut txarto dauela" - (Esan dizut txarto dagoela)

"Pentze dot emekoa sarala" - (Pentsatzen dut hemengoa zarela)

subjuntiboarekin batera

"Akasie ona, onena, gogorrena, ixin ditela sarra" - (Arkazia ona, onena, gogorrena, izan dadila zaharra)

"Iteko porejemplo astak, atxurreri edo serari ixin bea deu akasie edo aratxa, baye estitela gastea ixen" - (Egiteko kasurako asteak, aitzurrari edo zerari izan behar du arkazia edo haritza, baina ez dadila gaztea izan)

gerundiala

"Uretan al dala esi lei in" - (Uretan ahal dela ezin liteke egin)

"Estait oin bada matzik, goasela kaminoan eskerretara, an alturetxu beten, lelau an, ite iyuen, amen serean be bai, oin ori be galdu da, amen Derioko onek, e, etzeak in diren lekuen be" - (Ez dakit orain den mahatsik, goazela kaminoaren ezkerretara, han altueratxo baten, lehenago han, egiten ei zuen, hamen zerean ere bai, orain hori ere galdu da, hamen Derioko hauek, etxeak egin diren lekuan ere)

"Orrek, e, su lo sausela igual joten deu, goxaldean, su lo sausela, en jeneral orrek amabiek ordu batak egurdien" - (Horrek, zu lo zaudela beharbada jotzen du, goizaldean, zu lo zaudela, gehienetan horrek hamabiak ordu batak eguerdian)

"An goiko elixa kontran, goasela eskerretara mojan orma kontran" - (Han goiko eliza kontran, goazela ezkerretara mojen horma kontran)

"Baye bixiri taola aitamak gure badeure bateri emon bere, are besteak bape barik lotu litikes, e? Aitamak bixi dila, e?" - (Baina bizirik dagoela gurasoak gura badute bati eman ere, haiek besteak bat ere barik lotu litezke, e? Gurasoek bizi direla, e?)

-lako

"Es geuria ixen salako baye moñoa ondo iminde, e?" - (Ez geurea izan zelako baina moñoa ondo ipinita, e?)

"Au apurtu yaten, bearra, gitxi einte on dalako" - (Hau apurtu zitzaidan, bearra, gutxi eginda egon delako)

"Esteitus amarretan, dekos, metxak esteitus koiten amarreak, esin dakolako allegeu" - (Ez ditu amarratzen, dauzka, metxak ez ditu hartzen amarrak, ezin zaiolako ailegatu)

"Deriori iten dotzie ori estekolako armarrie, armarrie badakixu sein dan? Armarrie estekolako, baye a armarrie dau Markinen" - (Deriori egiten diote hori ez daukalako armarria, armarria badakizu zein den? Armarria ez daukalako, baina armarriri hura dago Markinan)

-lakoia

"Ta yoskilea kostunbrea ixen salako dekot, arrastien gero txokolatea ta ogie emote otziesan, ta gero etzera yoskilea buruen, e, sera artute, makiñea artute" - (Eta joskilea usadioa izan zelakoa daukat, arrastien gero txokolatea eta ogia ematen zizkieten, eta gero etxera joskilea buruan, zera hartuta, makina hartuta)

"Bai, a atzeko petrala dalakoa dekot" - (Bai, hura atzeko petrala delakoa daukat)

"Orrek ein tus orrek euri golpeak, orrek puxike pe igual ataten tues serean, t'orrek esan gure deu, ba aurie etorko dalakoa" - (Horiek egin ditu horrek euri kolpeak, puxika horiek ere beharbada ateratzen dituzte zerean, eta horrek esan gura du, ba euria etorriko delakoa)

"Ori Agirre ori, dekoten entzuterik, Ameriketara yoan salakoa, fijo enau baye" - (Agirre hori, daukadan entzuterik, Ameriketara joan zelakoa, fijo ez nago baina)

-lakoan

"Baye ixen bea da, andrea be gero, Jesus Maria! Umeak edaten dotzelakoan, subeak esnea edan" - (Baina izan behar da, andrea ere gero, Jesus Maria! Umeak edaten diolakoan subeak esnea edan)

"Ori, ona dalakoan txarra be ekarten da" -
(Hori, ona delakoan txarra ere ekartzen da)

"Emen dauselakoan, andi yoan ta emekoak, emen pido marro inte, emekoak lenau koxu te" - (Hemen daudelakoan, handik joan eta hemengoak, hemen pido marro eginda, hemengoek lehenago koiu eta)

-la ta

"Emen euki gendun, e, or beskarie or ibili gintzesena beskaltan, eta esan etorri orra, fastidieta dabilela ta" - (Hemen eduki genuen, hor bazkaria hor ibili ginen bazkaltzen, eta ez zen etorri horra, txarto dabilela eta)

"Laukis aldera edo ortik eroateko, andra ba tauela ta" - (Laukiz aldera edo hortik eroateko, andre bat dagoela eta)

"Orrostokien bai, bai, are pe peligrue dekola ara be, ara be sorginek sartzen direla ta ori bai" - (Orraztokian bai, bai, hark ere arriskua daukala hara ere, hara ere sorginak sartzen direla eta hori bai)

"Antxe on, erresario bat erreseu edo ta ba gero antxe egon, geubian ba lagundu ite yakiela etzekoari, lagundu iten dakiela ta antxe" - (Hantxe egon, errosario bat errezatu edo eta ba gero hantxe egon, gauean ba lagundu egiten zitzaizela etzekoei, lagundu egiten zaiela eta hantxe)

29.3. -N

erlatibozkoa

"Ori dana esetute nendun, ta or egon sien nire aititen, e, lengusin batzuk ixen sienak, Samudiokoak ixen sienak, egon sien an eskondute" - (Hori dena ezagutu nuen, eta hor egon ziren nire aitaitaren, lehengusina batzuk izan zirenak, Zamudiokoak izan zirenak, egon ziren han ezkondata)

"Bai emen iten dana ba bigune da" - (Bai hemen egiten dena ba biguna da)

"Lustrea bai, orrek kajatxuek, orrek kajak, baltza, granatea edo gure dana ba" - (Lustrea bai, kaxatxo horiek, kaxa horiek, beltza, granatea edo gura dena ba)

"Alkateak, premia emon, ite oskun, premia emon, aurrekue ondo iten deuenari" - (Alkateak, saria eman, egiten zigun, saria eman, aurrekua ondo egiten duenari)

subjuntiboarekin batera

"Deskantzeu in diela, gero partoa datorreneako esnea emon dien ondo" - (Deskantsatu egin dezatela, gero erditzea datorrenerako esnea eman dezaten ondo)

"Gero saman iminte otzien pañelutxu suritxu bet, ba amen estakin lotu defetorik, artes eroan dein burue" - (Gero saman ipintzen zioten zapitxo zuritxo bat, ba hamen ez dakion lotu akatsik, artez eroan dezan burua)

"Yausi estiten koxu ori umeori" - (Jausi ez dadin koiu ezazu ume hori)

zehar galdera

"Apurkorabera euskitik ite seurien, e, amabiek nos dien, euskie ia non dauen" - (Apur bat gora behera eguzkitik egiten zuten, hamabiak noiz diren, eguzkia ea non dagoen)

"Orrek mutilek, guk neskak es, mutilek, mutile pai, eta gero non dauen esan es, eta batari txoriek ostu dotzies, abie tope otzie, eta koi dotzie, bai ori mutilena ixete san" - (Horiek mutilek, guk neskak ez, mutilek, mutilek bai, eta gero non dagoen esan ez, eta batari txoriak ostu dizkiote, habia topatu diote, eta koiu diote, bai hori mutilena izaten zen)

"Egun bi te iru te yan barik egon ta ba gosea ta yaki neun non daon ta laguneri esa neuntzen" - (Egun bi eta hiru eta jan barik egon eta ba gosea jakin nuen non dagoen eta lagunari esan nion)

"Yakiten geyoan indi gastañea sein dan" - (Jakiten genian indi gaztaina zein den)

-na

"Ixenak, bakixu estakitesena nik" - (Izenak, badakizu ez dakizkidana nik)

"Emekoa sarana iger dotzut" - (Hemengoa zarena igarri dizut)

"Astelena dana bakit" - (Astelehena dena badakit)

"Bakit ixen bat eukena baye" - (Badakit izen bat zeukana baina)

Esklamazioetan

"Grasiek ekarri deuriena" - (Eskerrak ekarri dutena)

"Seguru emekoa dana" - (Seguru hemengoa dena)

"Klaro etorri dana!" - (Jakina etorri dena!)

"Grasiek etorri dana" - (Eskerrak etorri dena)

-n artean

"Atxinekoak, e, atxineko jenteak eseun ori, kanbiorik iten, arik eta, ya sar edo, bixi dien artean, olangoakas, ostantzean gure modukoak ya bai" - (Antzinakoak, antzinako jendeak ez zuen hori, aldaketarik egiten, harik eta, ja zahar edo, bizi diren artean, holakoekin, osterantzean gure modukoak ja bai)

"Su orra soasen artean, au an dau, orre tekosen tranku luseagas" - (Zu horra zoazen artean, hau han dago, horrek dauzkan tranko luzeekin)

"Txorixoa onetan estakit, estot esetu, baye koipea bai, koipea badakit, enbudoa imini ta enbudoagas betetu, ta bero daun artean, otzitu baño lelau koipea, a beteta san, ta eskeite iminte san ta a esan galduten, e?" - (Txorizoa honetan ez dakit, ez dut ezagutu, baina koipea bai, koipea badakit, onila ipini eta onilarekin bete, eta bero dagoen artean, hoztu baino lehenago koipea, hura betetzen zen, eta eskegita ipintzen zen eta hura ez zen galtzen, e?)

"Gu bixi garen artean lekue atata deku, e?" - (Gu bizi garen artean lekua aterata daukagu, e?)

-nean

"Yayoten danean be erregiñea an doa" - (Jaiotzen denean ere erregina han doa)

"Jai besperatan, olango jayek santiagoak eta etorte sienean ademas, bespera geuberarten eseuen itxiten gure amak imintea" - (Jai bezperetan, holako jaiak santiagoak eta etortzen zirenean gainera,

bezpera gauera artean ez zuen uzten gure amak ipintea)

"Ba ederto, solo bat ereiteko prepareta sanean, esate akien bueno oingo orduten asten gara, eta danak etorte sien" - (Ba ederto, solo bat ereiteko prestatzen zenean, esaten zitzaien beno hain ordutan hasten gara, eta denak etortzen ziren)

-nerako

"Deskantzeu in diela, gero partoa datorreneako esnea emon dien ondo" - (Deskantsatu egin dezatela, gero erditzea datorrenerako esnea eman dezaten ondo)

"Erre bear doas one tatosenerako one tekien otzagas" - (Erre behar ditut hauek datozeneko hauek daukaten hotzarekin)

"Deskantzeu in diela, gero partoa datorreneako esnea emon dien ondo" - (Deskantsatu egin dezatela, gero erditzea datorrenerako esnea eman dezaten ondo)

-neko

"Eskondu gintzeneko aldean buf! Eskondu gintzeneko aldean elegantea ixen san a" - (Ezkondu gineneko aldean buf! Ezkondu gineneko aldean dotorea izan zen hura)

-nik

"Ba emetik Samudiora estot pentzetan daonik" - (Ba hemendik Zamudiora ez dut pentsatzen dagoenik)

"Estot pentzetan edosein i leinik" - (Ez dut pentsatzen edozein egin litekeenik)

"Onek besteak estot pentzetan ei leisenik" - (Beste hauek ez dut pentsatzen egin litezkeenik)

-nik ona

"Ori etor danik ona estot ikusi" - (Hori etorri denik hona ez dut ikusi)

"Gure mutilek yoan sienik ona giau, pentzeu bes!" - (Gure mutilak joan ziren hona gehiago, pentsatu ere ez!)

"Orrek etzeak barriek in dienik ona akabe die" - (Etxe horiek berriak egin direnik hona amaitu dira)

"Gu egoten gara alabea eskondu sanik eta gora alabeana, yoaten gara, Begoñara" - (Gu egoten gara alaba ezkondu zenik eta gora alabagana, joaten gara, Begoñara)

-netik

"Guk etzean es, e, ni gastetxue ixte nitzenetik eta gora estu eukin ollorik" - (Guk etxean ez, ni gasetxoa izan nintzenetik eta gora ez dugu eduki oilorik)

-n moduen

"Klaro orrek odola lotzen tzien, oin, e, oin iminten dan moduen ba edozein eride iten bosu ba papeltxu bet imiñi" - (Jakina horrek odola lotzen zioten, orain, orain ipintzen den moduan ba edozein zauri egiten baduzu ba papertxo bat ipini)

"Ta atzean iminte seun patata sati bet, len esa otzuten moduen patatea? Patatea atzean" - (Eta atzean ipintzen zuen patata zati bat, lehen esan dizudan moduan patata? Patata atzean)

"Geubean aspiran, e, ondo iteusen taloan moduen, lebadureas ta dustiegas, da urreko goxean, labea iminte seuen bistute, one tiñon moduen otabarras eta, egurrekas, eta gero in ogiek eta sartu laban" - (Gauean azpiran, ondo egiten zituen taloaren moduan, legamiarekin eta guztiarekin, eta hurrengo goizean, labea ipintzen zuen biztuta, honek dinoen moduan otabarrekin eta, egurrekin, eta gero egin ogiak eta sartu labean)

"Nik serrine bota otzet txapeari, e? Erdien imini olan, e, palu bet len esan dun moduen, palu bet imini, erdien, eta albo dustie kargeu, goiti bera, e? Serrinegas, eta egun dustien aguanteta seun, e, txapako suek" - (Nik zerrautsa bota diot txapari, e? Erdian ipini hola, makila bat lehen esan dugun moduan, makila bat ipini, erdian, eta albo guztia kargatu, goitik behera, e? Zerrautsarekin, eta egun guztian irauten zuen, txapako suak)

"Eskoya iminten baosu eskerretara esteu bea dan moduen bear iten, esteu beran erea ta" - (Eskoia ipintzen baduzu ezkerretara ez du behar den moduan behar egiten, ez du beraren era eta)

-n modules

"Nik gero etzean berak esaten deuen modules esaten dot baye ostean es, geuk geutara es" - (Nik gero etxean berak esaten duen modulez esaten dut baina ostean ez, geuk geutara ez)

"Emeti pase die ba, basotik ortik, e, basea daolako ta ba inos emetik pastan die eusoari itxite dakien modules" - (Hemendik pasatu dira ba, basotik hortik, basa dagoelako eta ba inoiz hemendik pasatzen dira auzoei uzten zaien modulez)

"Merkadure, Merka Bilbora esan doten modules, arrastien lelango eta gero goixean, da semea gastea nirea, orduntxe akabeta on san bere karrera" - (Merkatura, Merka Bilbora esan dudun moduan, arrastegian lehenengo eta gero goizean, eta semea gaztea nirea, orduantxe amaituta egon zen bere karrera)

"Len esan dun modules, batak panderetea jo ta besteak sonue ta yantzan, euso baten batute yantzan" - (Lehen esan dugun moduan, batak panderoa jo eta besteak soinua eta dantzan, auzo baten batuta dantzan)

-n modukoa

"Al dan modukoa bateti bestera paseta san gurean erropea" - (Ahal den modukoa batetik bestera pasatzen zen gurean arropa)

"Oin dausen ogiek, kasureko ori, libreko ogie, ta liberdikoak, orrek, ba ixete sin, txakurrandie ixete san a erritxea, oin, e, librekoa tausun modukoa, ni panadera ibil nas, e?" - (Orain dauden ogiak, kasurako hori, librako ogia, eta libra erdikoak, horiek, ba izaten ziren, txakurrandia izaten zen erritxe hura, orain, librakoak dauden modukoa, ni okin ibili naiz, e?)

"Al dan modukoa bateti bestera paseta san gurean erropea" - (Ahal den modukoa batetik bestera pasatzen zen gurean arropa)

-n les

"Artoa igertu espabe ba garies, ba etzean urune eukiteules, ba etzerako ogie aite defuntuek beti ite seuen" - (Artoa igertu ezpabere ba gariarekin, ba etxean irina edukitzen zuen lez, ba etxerako ogia aita defuntuak beti egiten zuen)

"Ba, oin estales usetan olangorik, oingo umeak estakies, olango geusek" - (Ba, orain ez den lez usatzen holakorik, oraingo umeek ez dakizkitez, holako gauzak)

"Gitxi ibilte siren, aldea gitxi egon sa les!" - (Gutxi ibiltzen ziren, aldea gutxi egon zen lez!)

segun ...-n

"Segun, e, nondik ebaiten dakon, lar ebaiten badako sakonetik" - (Segun, nondik ebakitzen zaion, lar ebakitzen bazaio sakonetik)

"Eta aurten bota dotzesu satza gortakoa, ta satza in dosu tapeu, makinetu, ta urrungo urtean igual, segun selango lurre dan, urrungo urtean igual ondo yan bari tau, a satza" - (Eta aurten bota diozu satsa kortakoa, eta satsa egin duzu tapatu, makinatu, eta hurrengo urtean beharbada, segun zelako lurra den, hurrengo urtean beharbada ondo jan barik dago, sats hura)

"Bai segun, segun selau lurre tien" - (Bai segun, segun zelako lurrak diren)

"Olandesa pe badekosus esnatzak, beste batzuk estie ainbeste, segun selan datorren auren sera" - (Holandarrak ere badauzkazu esnatzak, beste batzuk ez dira hainbeste, segun zelan datorren euren zera)

"Nik amar urte oso enendusen euki, ta esetu nendun, osabeas, osabea, ni jayo nintzanean il san, segun esateuren gurean" - (Nik hamar urte oso ez nituen eduki, eta ezagutu nuen, osabarekin, ni jaio nintzanean hil zen, segun esaten zuten gurean)

seinde... moduen/les

"An naola saratea, urte neun erre kara ta orduen, seinde lagune ugerrean moduen, bueltaka etortzen da angulea" - (Han nagola zarata, irten nuen erre kara eta

orduan, zeinda laguna igerian moduan, bueltaka etortzen da angula)

"Batzu tire, seinde persona moduen, batzu tire seraogokoa, ba, ta beste batzu tire ba pisuen seragoak, beste batzu paño" - (Batzuk dira, zeinda pertsona moduan, batzuk dira zeragokoa, ba, eta beste batzuk dira ba pisuan zeragoak, beste batzuk baino)

"Baye ite san seinde, kodaña bate les ebei, ebei ite san" - (Baina egiten zen zeinda, kodaina baten legez ebaki, ebaki egiten zen)

"Orrek eiten tu seinde seran moduen argie emoten deu orrek" - (Horrek egiten du zeinda zeraren moduan argia ematen du horrek)

30. KANTAK

Azken atal honetan jaso ditugun kantak eta bertsoak aurkezten dira. Sailkapenari dagokionez, ondoko atalak egin ditugu: Umeen kantak, Jai eguneko kantak, Errezitatuak eta Gainerakoak

30.1. UMEEN KANTAK

Ume txikiei egiten izan zaizkien lo eta olgeta kantak batzen ditugu jarraian:

OBABATXUA LO TA LO

"Obabatxue lo ta lo
suk orain eta nik gero
suk gurosun orduren baten
biok ingu lo ta lo"

ABABATXUA LOLORINTAÑE

"Ababatxue lolorintañe
es egin lorik basoan
espaberen lukien eroango sailtu
oltoa sarialakoan"

OBABATXUA LOGURE DA TA

"Obabatxue logure da ta
Obabatxue lo doa
Obabatxue lo doanean"

neu bere beragas noa"

SEINTXU TXIKERRA

"Sentxu txikerra
negarres dago
ama emoyosu titie
aite tabernan dago
pikaro jokolarie"

TXIKITXU POLIT HORI

"Txikitxu polit ori
norena sera su
seuria ixengo nas
seuk gure banosu"

"Txikitxu polit ori
norena sara su
seuria ixengo nas
suk gure badosu"

"Txikitxu polit ori
es lorik in basoan
espaberen lukiek
eroango saitu
oltoa sarialakoan"

DIN DAUN NOR HIL DA?

"Dinda nor il de?
Periko sapaterue
eleixaldera daroala
kakarraldoak uxetu"

ARRE-ARRE

"Arre arre
asto barrabana
kontrako lekuti
nora naroana"

ARRE ARRE MANDAKO

"Arre arre mandako
bier Urdiñerako
andi ser ekarriko
sapata ta garriko"

TXALO PIN TXALO

"Txalo pin txalo
katutxue mismerutxuen
gania dago
badago bego
sapatatxu barritxuen
begire dago
txalo ta txalo"

MAITIAN PORTALIAN

"Maitian portalian
dagos arbola bi
bata da liro ta
bestia madari
arexek yaboten dakus
neskatxu polit bi
bata da lar gorri te
bestea lar suri
pasetan nasenian
maitian portaleti
negarrak itxiten dost
begi bietati"

LOGURE NAZ

"Logure nas ta
lo ingo nenke
baneko oirako lagune
badekot oirako lagune baye
agure lepo makurre
kamiñoan eldu espada
erreka trokan sartu de"

LEHENENGOTXU HORI

"Lelangotxu ori
punta beatz ori
beste gustien artian
lodia dok ori
tralalalaran

Bigarrentxu ori
punta beatz ori
beste gustien artian
fine dok ori
tralalalaran

Irugarrentxu ori
punta beatz ori
beste gustien artian
andia dok ori

tralalalaran

Laugarrentxu ori
punta beatz ori
beste gustien artian
alperra dok ori
tralalalaran

Bosgarrentxu ori
punta beatz ori
beste gustien artian
txikerra dok ori
tralalalaran"

ALDAPEKO SAGARRAREN

"Aldapeko sagarraren
adarraren punta
puntaren punta
txoria dago i abeslari
txiruli ruli, txiruli ruli
txoria dago i abeslari"

30.2. JAI EGUNEKO KANTAK

Urteko jai batzuekin lotutako zenbait kantu
batzen ditugu oraingoan:

URTE BARRI

"Urte barri txarri belarri
dekonak estekonarik
nik estekot eta niri"

"Urte barri
txarri belarri
nik estekot eta niri
iru intxurtxu
lau gastañe
Mari montañe"

APALAZIO

"Apalasio sio saldune
iru erregean egune"

"Apalasio saldune
iru erregean egune
iru intxurtxu te

lau gastañe"

SAN JUAN

"San juan bagillea
denpora ederrean
artoak eta gariek gorde
sapoak eta subeak erre
geur dala bier dala doniene
etze san juan biamone
gure soloan sorginik es
badaus bere erre dires"

"San juan bagilea
denpora ederrean
sapoak eta subeak erre
artoak eta gariek gorde
biba San Juan"

"San Juan anteportaletaña
larunbat arratzaldian
amalau atzo tronpeta joten
motrollo baten ganian
motrolloa san txikiña eta
atzoak siran andiak"

30. 3. ERREZITATUAK

ATXIO-MITXIO

"Atxio mitxio
komolopan
neure semea errotan
yoan nintzen errotara
tope nendun erbi bet
jaurti neuntzen arri bet
selemiñe kanpan
selemiñe kanpan
gari buru andi bet"

MISERIAK ETA MAU

"Mixerik eta mau
ser yan dosu bart?
Txitxi eta papa
Niri segaitik aputxu bet emon es?
Aitek eta amak itxi es"

ARRAUTZAREN OLGETA

"Onek amari arrotzetxue ostu
onek imini
onek pitiu bet probeu
onek dana yan
ta onek amari esan"

KIRRIN-KARRAN

"Origo ala berakatz?
Nor dosu nobie?"

MARITXU TAILETAKOA

"Marigorritxu talletako
gona gorridune
autzi agin sarra
ta ekaixu barrie"

"Maritxu talletako
gona gorridune
autzi agin sarra
ta ekaixu barrie"

"Maritxu talletako
gona gorridune
eutzi agin sarra ta
ekaixu barrie"

Lehen haginak jausten direnean, teilatura bota
eta Mariari ematen zaizkio goikoa esanda.

ARTAZIAK

"Punten punte bi
eta atzean sulo bi
te ser dires orrek?"

BAGA, BIGA, HIRUGA

"Baga, biga, iruga,
laga, boga, sega,
sapa, sotza, tronpa,
erreal, korotza"

UNIN DOLIN

"Unin dolin pospolin
tres y cuatro de latin"

30.4. GAINERAKOAK

SANTA BARBARA

"Santa Barbara
Santa Krus
jaune balio sakigus
inusementen ogie
jaunen miserikordie"

"Santa Barbara
Santa Krus
gure etzean
dau Jesus"

Hau trumonada zegoenean esaten ei zen.

SAN MAMES

"San Mames
es egin ames
ona bada bai
ta txarra bada es"

Errezitatu hau oherakoan egiten zen ameseta
txarrak ez edukitzeko.